

SOZIOLINGUISTIKA ESKULIBURUA

# SOZIOLINGUISTIKA ESKULIBURUA

Arkaitz Zarraga, Jean-Baptiste Coyos,  
Jone M. Hernández, Lionel Joly,  
Imanol Larrea, Loren V. Martínez,  
Belen Uranga eta Paul Bilbao



Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia  
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco



Gipuzkoako Foru Aldundia  
Kultura eta Euskara Departamentua



SOZIOLINGUISTIKA  
KLUSTERRA



EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO  
KULTURA SAIA  
DEPARTAMENTO DE CULTURA



EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAIA  
DEPARTAMENTO DE CULTURA



SOZIOLINGUISTIKA  
KLUSTERRA



**Argitaraldia:** 1.a, 2010eko maiatza

**Ale-kopurua:** 1.000 ale

© **Argitaratzailea:** Soziolinguistika Klusterra  
Martin Ugalde Kultur Parkea, z/g. 20140 Andoain

© **Argitaratzailea:** Eusko Jaurlaritza  
Donostia kalea, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz

**Egileak:** Arkaitz Zarraga, Jean-Baptiste Coyos, Jone M. Hernández, Lionel Joly,  
Imanol Larrea, Loren V. Martínez, Belen Uranga eta Paul Bilbao

**Bateratzailea:** Arkaitz Zarraga

**Koordinatzailea:** Oihana Lujanbio

**Laguntzaileak:** Gipuzkoako Foru Aldundiaren Kultura eta Euskara Departamentua

**Osaketa grafikoa:** Zirrimarra (Andoain)

**Inprimaketa:**

**ISBN:** 978-84-613-6070-3

**ISBN:** 978-84-457-3055-3

**L.G.:**

# SOZIOLINGUISTIKA ESKULIBURUA

Arkaitz Zarraga, Jean-Baptiste Coyos,  
Jone M. Hernández, Lionel Joly,  
Imanol Larrea, Loren V. Martínez,  
Belen Uranga eta Paul Bilbao



KULTURA SAILA  
DEPARTAMENTO DE CULTURA



**Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia**  
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

Vitoria-Gasteiz  
2010



SOZIOLINGUISTIKA ESKULIBURUA



# AURKIBIDEA

# AURKIBIDEA

AURKEZPENA .....	13
LABURTZAPENAK .....	15



## 1 SOZIOLINGUISTIKARI SARRERA

*Arkaitz Zarraga Azumendi*

1.0. SARRERA .....	21
1.1. SOZIOLINGUISTIKA ETA HAREN SORRERA .....	24
1.1.1. Hizkuntzaren inguruko jakin-mina historian .....	24
1.1.2. Hizkuntzalaritza modernoa .....	26
1.1.3. Gramatika sortzailea .....	28
1.1.4. Hizkuntza eta gizartea .....	30
1.1.5. Soziolinguistikaren sorrera .....	31
1.1.6. Soziolinguistikaren izenaz eta ikerketa-eremuez .....	37
1.2. EUSKAL HERRIAN .....	38
1.2.1. Hizkuntzaren inguruko kezka Euskal Herrian .....	38
1.2.2. Euskal soziolinguistikaren garapena .....	43
1.3. HARREMANAK AUZO-DIZIPLINEKIN .....	59
1.3.1. Dialektologiarekin .....	59
1.3.2. Komunikazioaren etnografiarekin .....	61
1.3.3. Testuaren gramatika: diskurtsoen azterketa .....	63
1.3.4. Hizkuntzen irakaskuntzarekin .....	65
1.4. IKERKETA-EREMU GARRANTZITSUAK .....	69
1.4.1. Aldakortasun linguistikoa .....	69
1.4.2. Hizkuntza-ukipena .....	70
1.4.3. Hizkuntza-jarrerak eta hizkuntza-ideologiak .....	75
1.4.4. Hizkuntza-politika eta hizkuntza-plangintza .....	77
1.4.5. Hizkuntzak aztertzeko ikerketa-metodoak .....	80



## HIZKUNTZAREN ALDAKORTASUNA

*Loren V. Martínez Bermúdez*

2.0. SARRERA .....	85
2.1. HIZKUNTZA EZ DA MONOLITIKOA .....	86
2.1.1. Hizkuntza .....	89
2.1.2. Dialektoa .....	89
2.1.3. Soziolektoa .....	90
2.1.4. Idiolektoa .....	90
2.1.5. Estandarra .....	91
2.1.6. Gaitasun soziolinguistikoa .....	92
2.1.7. Hizkera-komunitatea .....	92
2.2. ALDAERA-MOTAK .....	94
2.2.1. Aldagarritasunaren alderdi linguistikoak .....	95
2.2.2. Aldagai sozialak .....	100
2.2.3. Bestelakoak .....	116
2.3. ALDAKETA LINGUISTIKOA .....	122
2.3.1. Definizioa .....	122
2.3.2. Aldaketa linguistikoari buruzko teoria soziolinguistikoak .....	123
2.4. EUSKAL HERRIAN EGINDAKO ZENBAIT LANEN BERRI .....	126
2.4.1. Sobre la variación lingüística. Maitena Etxebarria .....	126
2.4.2. Euskararen atlas sozio-geolinguistikoa ikerketa-proiektua. Gotzon Aurrekoetxea, Jose Luis Ormaetxea .....	127
2.4.3. Hizkuntza-aldaketa eta identitatea. Estibaliz Amorrortu .....	128
2.4.4. Standarization, functional shift and language change in Basque. Bill Haddican .....	129
2.4.5. Gazte euskaldunen lagun arteko hizkera hemen eta orain. Imanol Esnaola .....	130
2.4.6. NORANTZ proiektua. Baionako IKER taldea .....	130





## HIZKUNTZA–UKIPENA

*Jean-Baptiste Coyos Etxebarne*

3.0. SARRERA .....	135
3.1. UKIPENAREN ONDORIO INDIBIDUALAK .....	137
3.1.1. Banako elebitasuna .....	137
3.1.2. Banako eleaniztasuna .....	139
3.1.3. Hizkuntza jabetzea, hizkuntza galtzea .....	140
3.1.4. Euskaldunak, elebitasuna eta ondorio indibidualak .....	141
3.2. UKIPENAREN ONDORIO LINGUISTIKOAK .....	145
3.2.1. Hizkuntza-alternantzia: interferentziak .....	145
3.2.2. Interferentzia-motak .....	145
3.2.3. Maileguak eta kalkoak .....	147
3.2.4. Pidginak eta kreolerak: komunikazio-hizkuntzaren bilaketa .....	148
3.2.5. Galzorian dauden hizkuntzak eta ondorio linguistikoak .....	150
3.2.6. Euskara ukipenean eta ondorio linguistikoak: beste adibide batzuk ...	151
3.3. UKIPENAREN ONDORIO SOZIALAK .....	154
3.3.1. Diglosia .....	154
3.3.2. Hizkuntza-funtzio sozialak .....	158
3.3.3. Hizkuntza-gatazka .....	163
3.3.4. Hizkuntza-aniztasuna .....	168
3.3.5. Hizkuntza-heriotza .....	168
3.4. HIZKUNTZAREN HAUTAKETA, IRAUPENA, ORDEZKAPENA ETA ZABALKUNDEA .....	170
3.4.1. Hizkuntzaren hautaketa .....	170
3.4.2. Hizkuntzaren jarraipena eta ordezkapena .....	173
3.4.3. Hizkuntzaren zabalkundea .....	176
3.4.4. Euskararen hautaketa, jarraipena eta erdararen zabalkundea: beste ohar batzuk .....	179
3.5. ONDORIO GISA: HIZKUNTZEN EKOLOGIA, LEHEN IKUSPEGIA .....	180



## 4 HIZKUNTZA-IDEOLOGIA ETA HIZKUNTZA-JARRERAK

*Lionel Joly Charrasse eta Belen Uranga Arakistain*

4.0. SARRERA .....	185
4.1. HIZKUNTZA-IDEOLOGIA .....	186
4.1.1. Definizioa .....	186
4.1.2. Hizkuntza-ideologiaren funtzionamendua .....	187
4.1.3. Hizkuntza-ideologiaren inguruko eztabaidak eta adibide batzuk .....	188
4.1.4. Hizkuntza-ideologia eta iritzi publikoa .....	189
4.2. HIZKUNTZA-BOTEREA .....	194
4.2.1. Definizioa .....	194
4.2.2. Ikuspegi soziologikoa .....	194
4.2.3. Ikuspegi psikolinguistikoa .....	195
4.2.4. Hizkuntza-merkatua .....	197
4.3. HIZKUNTZA-KOMUNITATEA ETA HIZKUNTZA-NORTASUNA .....	198
4.3.1. Hizkuntza-komunitatea .....	198
4.3.2. Hizkuntza-nortasuna .....	201
4.3.3. Nortasuna, hizkuntza eta kosmopolitismoa .....	202
4.3.4. Hizkuntza-nortasuna. Euskal Herriko kasua .....	203
4.4. HIZKUNTZA-JARRERAK .....	203
4.4.1. Sarrera .....	203
4.4.2. Jarrerak eta jokaerak .....	207
4.4.3. Jarreraren osagaiak .....	208
4.4.4. Jarreretan eragiten duten aldagaiak .....	209
4.4.5. Hizkuntza-jarrera positiboak eta negatiboak .....	210
4.4.6. Jarrera integratzaileak eta jarrera instrumentalak .....	212
4.4.7. Aurreiritziak .....	219
4.4.8. Bigarren hizkuntzaren jabeakuntzan hizkuntza-jarreraren eragina .....	223



5

## HIZKUNTZA-POLITIKA ETA HIZKUNTZA-PLANGINTZA

*Imanol Larrea Mendizabal eta Paul Bilbao Sarria*

5.0. SARRERA .....	231
5.1. HIZKUNTZA-POLITIKA .....	231
5.1.1. Hizkuntza-politika eta -plangintzaren hastapenak .....	231
5.1.2. Hizkuntza-politikaren ereduak .....	233
5.1.3. Helburuen araberako hizkuntza-politikak .....	234
5.1.4. Hizkuntza-aniztasuna antolatzea .....	234
5.2. HIZKUNTZA-PLANGINTZA .....	239
5.2.1. Corpusaren plangintza .....	240
5.2.2. Estatusaren plangintza .....	248
5.3. EUSKARAREN ESTATUS JURIDIKOA .....	251
5.3.1. Lege-estatusa: ofizialtasuna .....	251
5.3.2. Hizkuntza-eskubideak esparruka .....	254
5.4. HIZKUNTZA INDARBERRITZEKO EREDUAK .....	261
5.4.1. José María Sánchez Carrión, “Txepetx” .....	261
5.4.2. Fishmanen RLS ( <i>Reversing Language Shift</i> ) edo hizkuntza indarberritzea .....	268
5.5. EUSKARA INDARBERRITZEKO SAIOEN ADIBIDEAK .....	273
5.5.1. Bai Euskarari Akordioa .....	273
5.5.2. Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia (EBPN) .....	275
5.5.3. Mikroplanak .....	276
5.5.4. Lan-munduko euskara planak .....	278
5.5.5. Pertsona arteko erabilera sustatzeko programak .....	281



6

## HIZKUNTZAK AZTERGAI: IKERKETA–METODOETARA OINARRIZKO HURBILPENA

*Jone M. Hernández García*

6.0. SARRERA .....	287
6.1. HIZKUNTZAREN ARLOA ETA BEHAR METODOLOGIKOAK .....	287
6.1.1. Metodologia: beharrezko gidaritza .....	287
6.1.2. Metodologiaren gauzapenerako oinarrizko urratsa: proiektuaren diseinua .....	289
6.1.3. Metodologia nagusiak eta teknika ezberdinak .....	293
6.2. HIZKUNTZA, HIZTUNA ETA HIZKUNTZA-TESTUINGURUA INFORMAZIO ITURRI GISA .....	323
6.2.1. Hizkuntza (corpusa) .....	326
6.2.2. Hitztuna .....	329
6.2.3. Hizkuntza-testuingurua (komunitatea) .....	340
BIBLIOGRAFIA .....	351
GLOSARIOA .....	371



## AURKEZPENA

Soziolinguistikari buruzko eskuliburu bat euskaraz idaztea Soziolinguistika Klusterrak sortu zene-tik (Andoain, 2004) izan duen amets eta erronketako bat da; Soziolinguistika Klusterrarena eta bera osatzen duten bazkideena.

Eskuliburu honetan bildu nahi izan dira soziolinguistikaren nazioarteko oinarritzko teoria eta ikerketak, eta Euskal Herrian teoria eta ikerketa horiek izan duten garapena. Soziolinguistikaren oinarritzko kontzeptuen definizioak ere gehitu dira ataletan zehar eta liburuaren bukaerako glo-sarioan.

Sei atal ditu liburuak soziolinguistika sei aztergaitan banatzen dutenak: lehen atalak soziolinguis-tikari sarrera egiten dio, bigarrena hizkuntza-aldakortasunari buruzkoa da, hirugarrena hizkuntza-ukipenez mintzo da, laugarrena hizkuntza-jarrerei eta hizkuntza-ideologiaren ingurukoa dugu, bosgarrena hizkuntza-politika eta hizkuntza-plangintzari dagokiona, eta azkena hizkuntzak azter-tzeko ikerketa-metodoen gainekoa. Atal independenteak dira eta, beraz, edozein hurrenkeran irakur daitezkeenak; jarraika edo mokoka.

Eduki horiek biltzea izan da gure helburua, erabiltzailearentzat eta soziolinguistikaren ikerketan murgildu nahi duenarentzat oinarri teoriko egokia eskaintzea ipar. Nahi genuke oinarri hauek egoera soziolinguistiko ezberdinetan ikerketak egiten laguntzea eta hausnarketa bultzatzea.

Guztientzako liburu bat ezin zela egin aurretik jakinda, eskuliburuaren xede-taldetzat honako bi multzo hauek jo ditugu: batetik, unibertsitateko eta mundu akademikoko ikasle, ikerlari eta irakasleak (bereziki, hizkuntzalaritza, soziologia, antropologia, zientzia politiko eta hezkuntza-zien-tzietakoak) eta, bestetik, hizkuntza-plangintzan eta euskalgintzan diharduten eragileak (erakunde publikoetako hizkuntza-normalkuntzako teknikariak, enpresetan ari direnak, irakaskuntzan, aisial-dian...). Horiez gain, euskararen eta soziolinguistikaren gainean interesa duen guztiarentzat izan daiteke egoki liburu hau.

Amets hau gauzatu ahal izateko elkarlana izan dugu ezinbesteko tresna. Egitasmoaren hasieran, aurreneko egitekoa eskuliburuari oinarri sendoa emango zion lan-talde kualifikatua elkartzea izan da. Beraiek dira eskuliburuaren berme zientifikoa; liburuari soziolinguistikaren ikuspegi orokorra eta, aldi berean, bateratua eman diotenak. Eskuliburuko edukiak zehaztu dituzte, hau da, eskuli-buruaren hezurdura beraiek osatu dute eta azken emaitzari oniritzia eman diote. Beren babesa eta lana eskertzen ditugu, bihotzez.

Lan-taldeak hezurdura marraztu du eta, hori eginda, hezurdura mami eta azal egokiz jantzi dituz-ten eskuak bilatu ditugu: atalen idazleak. Lan-taldeak eta idazleak osatu dute eskuliburuaren gor-putza, beraz. Gorputz orekatu bat sortzeko lanetan aritu dena ezin ahaztu sarrera honetan. Berak gorputza begibakar edota hanka-motz ez gelditzearen ardurua izan du. Hau da, Arkaitz Zarraga bateratzailea arduratu da ataletik atalera egon zitezkeen errepikapenak aurkitzeaz eta hutsune nagusiak bilatzeaz. Lan-taldeko kideak eta idazleak, berriz, hauek dira:

Lan-taldeko kideak: Jon Aizpurua (HPS), Eider Alustiza (Emun Koop. E.), Esti Amorrortu (Deustuko Unibertsitatea), Imanol Azkue (Elhuyar Aholkularitza), Battittu Coyos (UPPA), Jone M. Hernández (UPV-EHU), Lionel Joly (Euskaltzaindia) eta Paula Kasares (Nafarroako Unibertsitate Publikoa).

Idazleak: Paul Bilbao (Hizkuntz Eskubideen Behatokia), Battittu Coyos, Jone M. Hernández, Lionel Joly, Imanol Larrea (Emun Koop. E.), Loren V. Martínez Bermúdez (hizkuntza-irakaslea), Belen Uranga (Soziolinguistika Klusterra) eta Arkaitz Zarraga (Begoñako Andra Mari, Irakasleen Unibertsitate Eskola).

Arloko eragile gehiago ere izan ditugu gurekin elkarlanean. Lagundu digutenak asko izan dira eta seguru bakarren bat aipatu gabe utziko dugula. Barkamenak hauei eta eskerrrik zintzoenak guztiei Soziolinguistika Klusterraren izenean. Prozesuaren hasieran edota bukaeran aholku-emaile izan ditugunak zerrendatzen ditugu jarraian:

Joxean Amundarain (GFA), Amaia Antero (Arizmendi Ikastola), Iñaki Gaminde (UPV-EHU), Julen Arexolaleiba (HUHEZI), Irantzu Epelde (Iker), Xabier Erize (Nafarroako Aurrezki Kutxa, CAN), Iñaki Martínez de Luna (UPV-EHU), Inma Muñoa (Euskal Herriko Ikastolen Konfederazioa), Jasone Aldekoa (Zaratamoko Berritzegunea), Rosa Ramos (NETLE), Olatz Olaso (Emun Koop. E.), Aizpea Otaegi (Elhuyar Aholkularitza), Mikel Zalbide (Hezkuntza Saila) eta Koldo Zuazo (UPV-EHU).

Bereziki eskerrak Iñaki Martínez de Lunari, prozesuan zehar emandako aholkuez gain, gure liburuari azken irakurketa egin eta dotore orraztu duelako, edukien aldetik batez ere. Forma kon-tuez azken zuzenketak borondatez egin izanagatik, Imanol Azkue ere eskertu nahi dugu.

Eskerrak ere HABE Liburutegiari, soziolinguistikari buruzko bibliografia eskuratzeko eta bestelako kontsultetarako erakutsi duen prestutasunagatik. Baita Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzari, Eusko Ikaskuntzaren Asmoz Fundazioari, Uxue Royori, Julen Arexolaleibari eta Mikel Zalbideri ere, beren materialak erabiltzeko aukera emateagatik. Hurrenez hurren, hauek dira eskaintako materialak: *Soziolinguistika Hiztegia*, HIZNETeko materialak, HIZNETeko sakontze-egitasmoa, *Diccionari de sociolingüística* hiztegi terminoen itzulpena euskaraz eta Lardizabalen glosategia.

Azkenik, eskuliburua diruz lagundu duten erakundeak eskertu nahi ditugu lerro hauetatik. Eskerrak beraz, Gipuzkoako Foru Aldundiari eta Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzari.

Liburua idazteko bidea malkartsua izan da batzuetan. Hortik ere asko ikasi dugu eta Soziolinguistika Klusterra pozik da lortutako emaitzarekin. Aurrera egiteko bide-lagun asko izan dugu eta elkarlanean aritu izana bera balio garrantzitsua da Soziolinguistika Klusterrarentzat.

Ametsa eta erronka hezurmamitua ikusten dugu gaur. Bidean emandako pauso hau hurrengoe-tarako oinarri eta lagungarri izatea da gure nahia. Hona, bada, Soziolinguistika eskuliburua, euskaratik eta euskaraz.

Oihana Lujanbio Begiristain (Soziolinguistika Klusterra)  
Soziolinguistika eskuliburuaren koordinatzailea

## LABURTZAPENAK

AED: Arrasate Euskaldun Dezagun

AEK: Alfabetatze Euskalduntze Koordinakundea

ALEA: *Atlas Lingüístico y Etnográfico de Andalucía*

AMIA: Aukerak, Mehatxuak, Indarguneak eta Ahuleziak

ASJU: *Anuario del Seminario de Filología Vasca “Julio de Urquijo”*

BIE: Bizindar Etnolinguistikoa

DBH: Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza

EAE: Euskal Autonomia Erkidegoa

EAJ: Euzko Alderdi Jeltzalea

EAS: Euskal Atlas Soziolinguistikoa

EBPN: Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia

EFQM: *European Foundation for Quality Management*

EGLU: Euskal Gramatikaren Lehen Urratsak

EHE: Euskal Herrian Euskaraz

EHHA: Euskal Herriko Hizkuntza Atlasa

EHU/UPV: Euskal Herriko Unibertsitatea/*Universidad del País Vasco*

EI: Elebitasun Indizeak

EIE: Ekintza Integralerako Egitaraua

EITB: Euskal Irrati Telebista

EKB: Euskal Kulturaren Batzarra

EKE: Euskal Kultur Erakundea

EUSTAT: Euskal Estatistika Erakundea

FLV: *Fontes Linguae Vasconum*

GAO: Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala

GIDS: *Graded Intergenerational Disruption Scale*

HABE: Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundea

HAAE/IVAP: Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundea/*Instituto Vasco de Administración Pública*



HPS: Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

INEM: *Instituto Nacional de Empleo*

INSS: *Instituto Nacional de la Seguridad Social*

LISREL: *Linear Structural Relations*

LS: *Language Shift*

MCC: *Mondragon Corporación Cooperativa*

PDCA: *Plan, Do, Check, Act*

RAE: *Real Academia Española*

RIEV/RIEB: *Revista Internacional de Estudios Vascos/Revue Internationale des Études Basques*

RLS: *Reversing Language Shift*

SEI: Soziolinguistikako Euskal Institutua sortzen

SIADCO: *Sociedad de Investigación Aplicada al Desarrollo Comunitario*

UCLA: *University of California, Los Angeles*

UEMA: Udalerrri Euskaldunen Mankomunitatea

UNESCO: *United Nations Educational, Scientific and Cultural Organization*

UZEL: Unibertsitate Zerbitzuetarako Euskal Ikastetxea





SOZIOLINGUISTIKA ESKULIBURUA

# 1. SOZIOLINGUISTIKARI SARRERA

ARKAITZ ZARRAGA AZUMENDI





# 1. SOZIOLINGUISTIKARI SARRERA

## 1.0. SARRERA

Soziolinguistika definitzea ez da lan erraza. Asko idatzi eta eztabaidatu da zientzia honen zereginen eta ikerketen helburuen inguruan. Erratu gabe esan daiteke gizartearen eta hizkuntzaren arteko elkarreagina aztertzen duela. Arazoa aztertzailearen kokalekuan eta azterketaren ikuspegian dago: gizarteari, hiztunari ala hizkuntzari begira egiten den.

Modu ugari daude elkarri gauzak adierazteko. Pertsona batek aurrean duenari paretik kentzeko agintzeko, bero dela adierazteko edo zerbait ez zaiola gustatzen erakusteko, nahikoa du eskuaren mugimendu bat, soinu bat edo imintzioren bat egitea. Hartzailleak mezua jaso eta barneratzean komunikazioa gauzatu egiten da. Animalia gehienek ere badute gaitasun hori, modu batean edo bestean. Ezagunak dira, besteak beste, tximinoen komunikatzeko moduak, erleen dantza edo izurdeen soinu bidezko komunikazio-moldeak.

Gaitasun horri **lengoaia** esaten zaio. Komunikatzeko gaitasuna da, hain zuzen ere. Gizakiaren barneko gaitasuntzat hartua izan bada ere, soziolinguistikaren ikuspegitik, portaera sozialtzat hartzen da. Izan ere, komunikaziorako gaitasuna talde-bizitzaren ondorio zuzena da.

Gizakiak badu, beraz, sinboloak sortu eta erabiltzeko ahalmena; hots, irudi, keinu ala soinu bat, beste objektu, ekintza edo ideia baten adierazle moduan erabiltzen du. Semaforoak, trafiko-seinaleak, keinuak eta hizkuntza bera dira adibide garbiak. Semiologiaren ikerketa-eremua dugu hau. Hizkuntzaz gaindiko komunikazioak ere ikerketa asko ekarri ditu, adibidez, keinuei loturikoak. Esate baterako, burua esker-eskuin mugitzeak herri gehienetan ezetz esan nahi badu ere, beste zenbaitetan baietz esateko erabiltzen da.

Lengoaiari buruz, asko idatzi eta ikertu da eta terminologia arazoak ere izan dira; izan ere, lengoia hitza sarri erabili izan da hizkuntza naturalei erreferentzia egiteko. Hala ere, Ferdinand de Saussure suitzarrak (1857-1913), hizkuntzalaritza modernoaren sortzaileak, **hizkuntza** (*langue*) eta **lengoaia** (*language*) bereizi zituen. Lengoaia komunikatzeko giza gaitasuna da. Hizkuntza, berriz, gaitasun hori gauzatzearen ondorioa. Hizkuntzari izaera soziala onartu zion, nahiz eta, aurrerago ikusiko den bezala, bere azterketan ez zuen hizkuntzaren alderdi soziala kontuan hartu, sistematikoa baizik.

Gaur egun hiru lengoia-mota bereizten ditugu: animalien lengoia, lengoia formalak eta giza lengoia.

**Animalien lengoia** ikusmena, entzumena eta usaimena baliatuz sortutako seinaleen bidezko komunikazioa da. Seinale hauek zeinu-funtzioa betetzen dute; izan ere, beste elementu bati erreferentzia egiteko erabiltzen dira.

**Lengoia formalak** gizakiak asmatutako sistema artifizialak dira (*lengoia artifizialak* ere esaten zaie), matematiketan eta programazio informatikoetarako oso erabiliak. Giza hizkuntzaren ezaugarri batzuk dituzte, baina ez guztiak. Hitz- edo zeinu-kopuru mugatua duten sistemak dira. Gainera, modu jakin batean elkarlotzen dira, nolabaiteko gramatika baten arabera.

**Giza lengoia** zeinuen bitartez, eta batez ere zeinu linguistikoen bitartez komunikatzeko gaitasuna da. Lengoaia abstrakziorako, kontzeptualizaziorako eta komunikaziorako zaigu baliagarria. *Lengoia natural* ere deitua izan da, batez ere lengoia formaletatik bereizteko.

Charles F. Hockett-ek (Hockett, 1960), animalien eta gizakien arteko komunikazio-moduak aztertu zituen ikertzaileak, hizkuntza naturalei 15 ezaugarri egotzi zizkien. Horietako batzuk beste bi lengoia-motek ere betetzen dituzte, baina lengoia naturalek guztiak betetzen dituzte. Hona zer den hizkuntza naturala:

1. Nagusiki ahoz sortu eta entzumen bidez jasotzen da.
2. Mezua airera hedatua bada ere, hartzaile jakin bati zuzenduta dago eta berak nondik datorren identifikatzen du.
3. Iheskortasuna: giza mezua galdu egiten da, ez da denboran eta espazioan luzatzen.
4. Hitzunak igorle eta hartzaile izateko aukera du.
5. Hitzunak bere burua entzuteko gaitasuna du.
6. Giza gorputzeko atalak hizkuntzarako doitu daude.
7. Semantikotasuna: zeinuek adierazi jakina, zehatza dute.
8. Arbitrariotasuna: zeinuan, adierazleak eta adieraziak ez dute lotura zuzenik, hau da, kontzeptu baten eta bera adierazteko erabilitako kate fonikoa erabat independenteak dira.
9. Unitateak bana daitezke eta elkarrengandik independenteak dira.
10. Beste leku eta une bateko elementuei erreferentzia egiteko aukera du.
11. Artikulazio bikoitza. Deklinabiderako eta eratorpenerako aukera ematen du.
12. Sortzailetasuna: hitzunak sekula entzun gabeko esaldiak egiteko gaitasuna du.
13. Kultura bidez transmititua da eta kulturaren transmisioan funtsezko papera betetzen du.
14. Hitzunak gezurra esateko gaitasuna du.
15. Funtzio metalinguistikoa: hitzunak hizkuntzaz hitz egiteko gaitasuna du.

## 1. SOZIOLINGUISTIKARI SARRERA

Beraz, hizkuntza da, batez ere, animaliangandik bereizten gaituena. Gizakia izaki komunikatzailea da. Elkarrekin komunikatzeko dugun sistema egituratuak gure espezieak izan duen garapena ahalbidetu du. Gizakiok ezagutzaren zein informazioaren transmisiorako eta elkarreragine-rako dugun gaitasun handia hizkuntzei zor diegu. Izan ere, zeinu-kopuru mugatu baten bitartez mugagabeko enuntziatuak egin ditzakegu eta, gainera, informazio hori gorde eta transmiti dezakegu, idazmenaren bitartez lehen eta teknologia berriei esker azken hamarkadetan.

Baina hizkuntzak, komunikazio bide izateaz gain, pentsamendua egituratzea ahalbidetzen du eta errealitatea interpretatu eta barneratzeko ezinbesteko baliabidea ere bada. Horrez gain, pertsonen gizarteratzea errazten du eta, ondorioz, nortasunaren garapenean ere leku garrantzitsua hartzen du.

Hizkuntza da edozein gizartetan gertatzen den adostasun mailarik altuena. Beste mota bateko adostasunekin batera (ekonomia, artea, gizarte antolaketa edo mitologia) kulturaren parte da. Kultura, beraz, hizkuntzari lotuta dago eta hizkuntza kulturari. Zentzu horretan, gizarteetan gertatzen diren aldaketak hizkuntzetan islatzen dira. Ondorioz, hitzak agertu eta desagertu egiten dira, esanahiak aldatu... Era berean, hiztun guztiek ez dute hizkuntza berdin erabiltzen. Zaharrek eta gazteek, medikuek eta irakasleek, modernoek eta tradizionalak... ez dute berdin hitz egiten. Gainera irakasleek ere ez dute berdin hitz egiten lanean ari direnean edo tabernan lagunekin daudenean; ezta herri batean edo beste batean daudenean ere, bertakoek ere ezberdin hitz egiten dute eta.

Hizkuntzen jatorriei buruz ere ikerketa ugari egon dira eta teoria nagusi bi daude: monogenesia eta poligenesia. Lehenengoaren arabera, hizkuntza guztiak lehen hizkuntza batetik sortu ziren. Bigarrenaren aldekoek, aldiz, hizkuntzak gizakia Afrikatik abiatuta sakabanatu ondoren sortu zirela defendatzen dute.

Guztiak sorburu bera izan nahiz aldi berean sortutako hizkuntzetatik eratorri, hizkuntzak biziak dira eta aldatuz joaten dira urteetan zehar, berriak sortuz eta elkarrekin nahasiz, gizarte eta kultura ezberdinak, arrazoi ezberdinak tarteko, nahastuz joan diren heinean.

Egun 5.000 eta 6.000 hizkuntza artean dira munduan, zenbatzea zaila bada ere. Hizkuntzak hiztun taldeen komunikaziorako eta antolaketarako tresna dira eta talde hauek elkarren artean harremanetan izaten dira. Bakanak dira oraindik ere isolaturik bizi diren taldeak. Harreman horiek gehienetan ez dira orekatuak izaten eta indar erlazioa zein den, hizkuntza batek esparru handiagoa hartuko du eta besteak galdu. Hitztun askok euren hizkuntza utzi eta bestea hartuko dute, edo seme-alabei bestea irakatsiko diete. Txarreanean, hizkuntzak indarrez atzeratzen dira. Aniztasunaren kalterako, hizkuntza asko betiko galdu dira azken hamarkadetan eta askoz ere gehiago galduko omen dira datozenotan. Soziolinguistikaren zeregina bada joera hori ekiditeko neurriak bilatzen laguntzea ere.



## 1. 1. SOZIOLINGUISTIKA ETA HAREN SORRERA

### 1.1.1. Hizkuntzaren inguruko jakin–mina historian

Gizakiontzat komunikaziorako gaitasuna eta hizkuntza betidanik izan dira ikerketa eremu. Grekoek erretorika eta oratoria diziplinak sortu zituzten. Horien bitartez, hizkuntzak gizartean zuen garrantzia agerian utzi nahi zuten. Hizkuntzaren erabilera egokia oso tresna baliagarria zela ikusi zuten eta diskurtsoen garapenei erreparatzen zieten, pertsuasioaren garrantzia azpimarratuz. Era berean, semiotikari loturiko pausoak eman zituzten, baita sintaxian, semantikan eta pragmatikan ere. Proposizio mota ezberdinak bereizi zituzten, hala nola, baiezkkoa, ezezkoa, galdera... Platonek berak hitzak eta aditzak bereizi zituen. Ikerketa ildo hauek gizakiak arrazoitzeko duen gaitasunari eta filosofiari loturik egon ziren.

Aristotelesek bestelako hizkuntza-atalak bereizi zituen, baiezko ala ezezko proposizioak izan gabe, berezko esanahia hartzen zutenak: substantzia, kopurua, nolakotasuna, denbora, kokapena eta bestelako esanahia zuten proposizio edo proposizio zatiak zerrendatu zituen. Izaera sintaktikodun ezaugarri batzuk ere bereizi zituen, hala nola, proposizio kopulatiboak; baita izen arruntak eta bereziak ere. Bestalde, lau proposizio mota eman zituen: singularrak, unibertsalak, partikularrak eta indefinituak. Hizkuntzaren inguruko ikerketa hauek lotura zuzena zuten silogismoen azterketarekin. Esan daiteke, beraz, bere hizkuntzaren azterketak zerikusia zuela logikaren inguruko teoriarekin. Bere *Erretorika* lanean, lehen liburua igorleari edo hitzunari begira dago. Bertan, argudiatzeko moduez eta hartzaileari egokitu beharraz aritzen da. Bigarrena hartzaileari begira dago eta emozioak, pasioak eta argudioen eraginak aztertzen ditu. Hirugarrenean elementu ezberdinen ordenaz dihardu, hau da, paradigmatikaz eta sintagmatikaz. Egungo ikerketa-ildoekin lotura zuzena dute azterlanok, inondik ere.

Estoikoek, gainera, esanahia eta adierazlea bereizten zituzten, nahiz eta esanahiari garrantzi handiagoa eman. Hitzen eta esanahiaren arteko lotura arbitrarioa zen ala nolabaiteko lotura logikoa zegoen eztabaidatzen zuten. Horrek **etimologia** ekarri zuen, lotura horren bila hitzen jatorria bilatzera jo baitzuten. Diogenesek eta Crispiok hitzen kategoriak ere bereizi zituzten: izen arrunta, izen berezia, aditza, artikulua eta lokailua. Estoikoek subjektua eta predikatua bereiztera heldu ziren eta, logikaren ikerketari lotuta, gramatikaren azterketa sistematikoa egiten zuten.

**Etimologia:** hitzen jatorriaz eta jasandako eboluzioaz aritzen den filologiaren adarra. Grekoek sortua, hitzen benetako esanahia bilatzeari lotutako ikerketa–eremua da. Azterketa diakronikoetan etimoek jasandako aldaketak deskribatu eta garaian kokatzen dira.

Alejandrinoek hitzen morfologian aurrerapauso handia eman zuten eta eskola honetako partaide zen Dionysio Thrax-ek grekeraren lehen gramatika egin zuen.

## 1. SOZIOLINGUISTIKARI SARRERA

Bestetik, greziarrek hizkuntza gizakiaren berezko gaitasuna ala gizarte mailako fenomeno ikasia zen ere aztertzen zuten. Naturalistak ziren lehen aukeraren aldekoak eta konbentzionistak bigarrenaren aldekoak.

Gainera, hizkuntzak arau jakinen arabera eratzen ziren ala aldakortasun antzemanekin baten menpean zeuden argitzea ere bilatzen zuten. Analogistek hizkuntzen erregularitasuna defendatzen zuten; anomalistek, ordea, hizkuntzaren irregularitasunak azpimarratzen zituzten eta gramatika deskriptiboak bultzatu. Grezia zaharrean, beraz, soziolinguistikaren sorreraren oinarrian zeuden eztabaidak antzeman daitezke.

Erromatarrek bazuten greziarren lanen berri eta horien bidei jarraitu zieten. Latinaren gramatika ugari egin zituzten, baina betiere greziarren ikasketetan oinarrituta. Angel Alonso Cortés-en (Alonso Cortés, 2002) ustez, erromatarren ekarpenik handiena ondorengo gramatikaren oinarriak ezartzea izan zen. Gramatika hauek semantikoak, nozionalak, autoritateetan oinarrituak eta arau-emaileak ziren eta, batez ere, latinaren irakaskuntzara bideratuta zeuden.

Erdi Aroan, berebiziko garrantzia izan zuten latina irakasteko metodologiek. Irakaskuntzarako eta ikerketarako Elizak zuen nagusitasunak latina hedatzea ekarri zuen eta berau irakasteko metodo eta gramatikak ugaritu egin ziren. Gainera, filosofo klasikoek berreskurapenak, grekoa ikasteko joera ere zabaldu zuen.

Berpizkundean, latinetik eratorritako hizkuntza berrien gramatikak agertu ziren. Hizkuntza erromantzeek euren nagusitasuna erakutsi nahi zuten eta, inprentaren agerpenaz baliatuz, latinetik banatu berri ziren hizkuntzak “goien gradora” igotzen zituzten gramatikak agertu ziren. Horren adibide garbia da 1492an Antonio de Nebrija-k egindako gaztelaniaren lehen gramatika. Italiararena Gian Giorgio Trissino-k egin zuen 1529an eta frantsesarena Jacques Dubois-ek 1531n (in Maitena Etxebarria, 2000). Gramatika horiek helburu didaktikoa izateaz gain, kontzientzia sortzaileak ere baziren. Herrien eta hizkuntzaren arteko lotura zuzena egiten zen eta hori nabaria zen botereak egiten zuen hizkuntzaren erabilpenean. Kontuan hartu behar dugu euskarazko lehen liburua 1545ean argitaratu zela, eta lehen idazkitik bertatik argi agertzen da euskarak gutxiespena eta bazterketa pairatzen zituela. Bernard Etxeparek bere *Linguae Vasconum Primitiae* obran esplizituki adierazten du idaztean zeukan helburua euskara idatz zitekeela erakustea zela.

Sanskritoaren aurkikuntzak XVII. mendeko hizkuntzalaritza konparatua bultzatu zuen. Horrela, hizkuntzen arteko kideetasun-mailak aztertu eta hizkuntzen jatorriaren inguruko ikerketak egin ziren. Gramatika konparatuek loraldia izan zuten.

XVII. eta XVIII. mendeetan, ilustrazioaren garaian, hizkuntzen akademiak sortu ziren. Horien helburua hizkuntzaren erabilera arautzea eta hizkuntzaren izena eta irudia sustatzea zen. Italiararena izan zen lehena, 1582an. Frantsesaren akademia Richelieu kardinalak sortu zuen 1635ean. Ezarri zitzaizkion egitekoak frantses hizkuntza ezartzea, arauak ematea, denek ulertzeko modukoa egitea eta “garbitzea” izan ziren. Erabilera “ona” ezarri nahi izatea, funtsean, corpora planifikatzea da. Lehen egitekoa frantses hiztegia sortzea izan zen eta 1694an kaleratu zen.

Espainiako Real Academia Española (RAE), Frantziakoaren neurria egin zuten 1713an. Haren egitekoak mugaz bestaldekoak zituenaren antzekoak ziren, baina, gaztelaniaren akademiaren kasuan, batasuna mantentzea ere zereginen artean ezarri zuten.

Hizkuntzalaritza diakronikoak, gramatikak eta lan filologikoak gailendu ziren hurrengo urteetan, harik eta XX. mendearen hasieran hizkuntzalaritza modernoa sortu arte.

## 1.1.2. Hizkuntzalaritza modernoa

Ferdinand de Saussure-k (1857-1913) hizkuntzalaritzari ikuspegi berria eman zion. Garai hartako ikerketa-ildo nagusiak filologikoak eta filosofiari loturikoak ziren. Hizkuntzaren azterketan, ikuspegi diakronikoa zen nagusi eta gramatika eta fonetika historikoak ugariak ziren.

Saussurek, bere ikasle izandakoek post-mortem argitaratutako *Cours de Linguistique Générale* (1916) liburuaren bitartez, hizkuntzalaritzari izaera berria eman zion. Horregatik, hizkuntzalaritza modernoaren aitzindaritzat hartua izan da. Genevako irakasleak zientzia honen ikerketa-eremua definitu beharra ikusi zuen. Ordura arte oso modu zabalean definitzen zen, komunikazioa gauzatzeko edozein seinale-sistema hizkuntzalarien eremu barruan sartuz. Saussurek hizkuntzalaritza semiologiatik bereiztea bilatu zuen.

Lehenik eta behin, **lengoaia** (*language*), **hizkuntza** (*langue*) eta **hizkera** (*parole*) bereizi zituen. Lengoaia gizakiak duen komunikatzeko gaitasuna da; hizkuntza, gaitasun horren ondorioz, gizartean komunikatzeko eratutako **zeinu-sistema**; hizkera, sistema abstraktu horretatik hiztunak egiten duen erabilera konkretua da. Hizkuntza gizarteari dagokio eta hiztunak ezin du bere kabuz aldatu. Hizkera, aldiz, norbanakoari dagokio eta aldakorra da.

**Lengoaia:** gizakiek beren pentsamendua azaltzeko eta elkarrekin komunikatzeko duten ahalmena, zeinu-sistema (ahozkoa nahiz grafikoa) baten bitartez (hizkuntza) gauzatzen dena. Hizkuntzalaritzaren ikuspegitik giza gaitasuna da; soziolinguistikak, berriz, portaera soziala den aldetik aztertzen du.

**Hizkuntza:** giza talde bateko kideek elkarrekin komunikatzeko duten hitzezko adierazpidea. Zeinu-sistema.

**Hizkera:** pertsona edo giza talde baten hitz egiteko era. Hizkuntza jakin batetik, hiztunak egiten duen erabilera konkretua.

Esan daiteke, beraz, Saussurek hizkuntza gizarteari lotuta ulertzen zuela. Gizakiak bere inguruko gizartetik jasotzen du hizkuntza eta komunikatzeko erabiltzen du hizkeraren bitartez. Baina

## 1. SOZIOLINGUISTIKARI SARRERA

berak ez zion alderdi sozial horri erreparatu, gizartean sortutako kodeari edo zeinu-sistemari baizik. Hizkuntza zen hizkuntzalaritzaren ikerketaren objektua, zientziarako baliagarria den objektu enpirikoki ikergarria.

**Zeinu linguistikoaren** teorian, zeinuak izaera bikoitza du, hau da, objektu edo kontzeptu bati erreferentzia egiteko (adierazia), erreferente bat erabiltzen da (adierazlea). Adierazlea hitzunen ahotik irteten den kate fonikoa da. Adierazia, berriz, solaskideak adierazlea jasotzean egiten duen buru-irudia. Saussurek, gehiago zehaztuz, adierazlea ere kate fonikoaren buru-irudia dela dio, geure baitan hitz egitean, soinuen buru-irudia baino ez baita gauzatzen.

**Zeinu linguistikoa:** adierazle edo irudi akustiko baten eta kontzeptu baten elkargoa da. Zeinu linguistikoaren teorian, zeinuak izaera bikoitza du, hau da, objektu edo kontzeptu bati erreferentzia egiteko (adierazia), erreferente bat erabiltzen da (adierazlea). Adierazlea hitzunen ahotik irteten den kate fonikoa da (*mahaia* hitza). Adierazia, berriz, solaskideak adierazlea jasotzean egiten duen buru-irudia (*mahai* baten buru-irudia).

Bestalde, zeinua arbitrarioa da, hau da, soinuek (hizkiek hizkuntza idatzian) eta adierazten dituzten kontzeptuek ez daukate inolako loturarik euren artean. *Mahai* hitzak *mahai* kontzeptua adierazten du, baina beste edozer adieraz zezakeen, eta era berean, beste edozein fonema segida *mahai* kontzeptua adierazteko erabiliko litzateke gizartean horrela adostu balitz. Horixe da, hain zuzen ere, zeinuaren beste ezaugarri garrantzitsu bat: adierazi bati adierazle bat egokitze-ko erabakia gizartean hartzen da adostasunez, konbentzioz.

Zeinu hauek elkarren ondoan jartzen dira, elkarlotzeko arau batzuei jarraiki, hau da, sistema bat eratuz. Gramatika edo sintaxia dira sistema horren egituraketa-modua.

Horrela, enpirikoki azter zitekeen ikerketa-objektua mugatu zuen. Baina hizkuntza ez da beti berdin erabiltzen, ez da beti homogenea. Saussurek hitzunok egiten ditugun erabilera irregularreri *aldaketa librea* deitzen zien eta, balio zientifikorik ez zutenez, *kanpo-hizkuntzalaritzaren* eremutat hartzen zituen.

Saussurek, bestalde, hizkuntzari modu sinkronikoan begiratzen zion, garai bateko azterketa diakronikoekin apurtuz. Beraz, hizkuntza modu estatikoan aztertzen zuen, sistema uniformetzat hartuta.

Genevako irakaslearen ekarpenak eragin handia izan zuen ondorengo hizkuntzalaritzan. Joera honek, estrukturalismoaren sorrera ekarri zuen. Psikologian behaviorismoak indar handia hartu zuen eta joera horiek eragin zuzena izan zuten, besteak beste, hizkuntzak irakasteko metodologietan.

Leonard Bloomfield (1887-1949) da hizkuntzalari estrukturalistarik ezagunenetakoa. Zeinuaren teoriari jarraituz, hizkuntzan diren esanguradun unitaterik txikiena, morfema, eta esangurarik

gabeko gutxieneko unitatea, fonema, bereizi zituen (Bloomfield, 1933). Hizkuntzaren egituraren deskribapena zen eskola honen zeregina eta horretarako morfologian sakondu zuten, sistemen barneko elementuen arteko loturak aztertzeke.

### 1.1.3. Gramatika sortzailea

1957an Noam Chomsky-k **gramatika sortzailearen** oinarriak ezarri zituen, bere doktore tesian, gizakiok hizkuntzetarako doitzen gaituen gorputz-atala dugula adierazi zuenean. Atal horrek hizkuntzen jabekuntzan zuzenean eragiten du, arau sintaktikoak geureganatzea ahalbidetzen baitigu (Chomsky, 1957).

Hizkuntzaren mugagabetasuna eta sortzailetasuna azpimarratzeaz gain, hizkuntza-jabekuntzaren inguruko teoriak ere astindu zituen. Garai hartako behavioristek hizkuntzak imitazioz eta errefortzuen bidez ikasten direla defendatzen zuten. Chomskyk, ordea, gizakia sekula entzun gabeko esaldiak egiteko gai zela baieztatzen zuen; izan ere, egitura sintaktikoak ezagututa, esaldi kopuru mugagabea egin ditzake. Estrukturalismoaren aurrean sortzailetasuna ernaldu zen bezala, psikologian kognitibismoa gailendu zen, hau da, gizakiak ez du modu pasiboan ikasten, irrika-errefortzu-erantzun jokoaren arabera, baizik eta aktiboki, ulermenaren bitartez errealitatea interpretatuz.


Bestalde, Chomskyren ustez, hizkuntzarako doitzen gaituen atal horrek gramatika ezberdinak eratzea ahalbidetzen digu. Hori horrela izanik, hizkuntza guztietan errespetatzen den **gramatika unibertsal** bat dagoela baieztatzen zuen. Horren guztiaren adierazgarri, gramatika guztiek printzipio bertsuak dituztela da.

**Gramatika unibertsala:** gramatika sortzailearen arabera, gizakiok jaiotzez hizkuntza prozesatzea ahalbidetzen digun gorputz-atala dugu. Horri esker, hizkuntza-arauak sortu, jaso eta baneratzeko gaitasuna dugu. Ondorioz, bada hitzun orok jaiotzez dugun Gramatika Unibertsal bat eta munduko hizkuntza guztiak horren araberrakoak dira.

Estrukturalistek morfologia aztertzen zuten; Chomskyren jarraitzaile sortzaileek, berriz, sintaxiari ematen zioten garrantzia. Horrela, hizkuntzaren ezaugarri lexikoak eta sintaktikoak bereganatuta, hitzunik **hizkuntza-gaitasuna** edo gaitasun linguistikoa eskuratzen du.

**Hizkuntza-gaitasuna:** hizkuntza-kompetentzia. Hizkuntzaren inguruko ezagutza inplizitua da. Beste azpigaitasun batzuk barnebiltzen ditu: gaitasun lexikoa, gaitasun gramatikala, gaitasun semantikoa, gaitasun fonologikoa, gaitasun ortografikoa...

Sintaxia edo gramatika arauak zuhaitzen bidez marrazteko joera zabaldu zen eta, denbora luzean, hizkuntzak deskribatzeko eta irakasteko oso tresna erabilgarriak izan ziren.



**I. irudia:** zuhaitz honek esaldiaren egitura erakusten du. *Euskal Gramatika bideetan* (Goenaga, 1980).

Hala ere, hizkuntza-gaitasun kontzeptuak kritika zorrotzak jaso zituen; izan ere, hizkuntza-gaitasuna gaitasun komunikatiboaren alderdi bat baino ez dela leporatu zioten Chomskyri. Hizkuntza zuzen erabiltzen jakitea ez da nahikoa egoki komunikatu ahal izateko. Egoera eta testuinguru ezberdinetan hizkuntza modu egokian erabiltzea da hiztun batek lortu behar duena. Gaitasun linguistikoaren aurrean **komunikazio-gaitasuna** edo gaitasun komunikatiboa aldarrikatu zuten. Gaitasun komunikatiboak gaitasun linguistikoaz gain, gaitasun soziolinguistikoa, gaitasun diskurtsiboa eta gaitasun estrategikoa ere barnebiltzen ditu (Hymes, 1967 in Moreno Fernández, 1998).

**Komunikazio-gaitasuna:** egoera eta testuinguru ezberdinetan hizkuntza modu egokian erabiltzeko konpetentzia. Beste azpigaitasun batzuk barnebiltzen ditu: gaitasun linguistikoa, gaitasun soziolinguistikoa, gaitasun diskurtsiboa eta gaitasun estrategikoa.

Egituren deskripzio hutsera bideratutako ikuspegia hankamotz geratzen zen, sistemara mugaturik. Hizkuntza, elementu batzuk eta haien arteko lotura sistematikotik eta giza gaitasunetik harago doa. Hizkuntza komunikatzeko bitarteko moduan hartzea funtsezkoa da; fonemak, morfemak, lexikoa eta gramatika baino gehiago da. Elementu horiek guztiak helburu bat betetzeko baliatzen diren aldetik baino ez dute zentzurik. Zehatzago esanda, hizkuntza gizakiok gizatalde baten barruan komunikatzeko erabiltzen dugun zeinu-sistema da.

Horren aurrean sortu zen soziolinguistika, baina diziplina moduan egituratu aurretik ere, hizkuntzalariek hizkuntzaren izaera sozialari eta gizartean betetzen duen funtzioari buruzko kezka azaldu zuten eta artikulu eta liburu asko idatzi ziren gai horren inguruan.

### 1.1.4. Hizkuntza eta gizartea

Esan bezala, hizkuntza sistema huts bezala aztertzeak ez zituen hizkuntzalari guztiak ase. Hizkuntzaren bizitasunak denboran zehar hizkuntza aldatzea ekartzen du eta, gainera, hiztun guztiak ez dute hizkuntza berdin erabiltzen.

Antoine Meillet-en ustez (Etxebarria, 2000) lengoia ezin da gizarte testuingurutik eta hiztunengandik bereizita aztertu. Hizkuntza modu asozialean aztertzea izan zen, hain zuzen ere, metodo estrukturalistak eta sortzaileak jaso zuten kritikarik hedatuena.

Haren ikasle André Martinet-ek funtzionalismoa, linguistika soziala bultzatu zuen. Teoria horren arabera, hizkuntza helburu jakinetarako erabiltzen da, hau da, izaera instrumentala du. Funtsean, helburu komunikatiboari lotzen zaio. Azterketa gramatikalaz harago, testuinguru komunikatiboa hartu behar da kontuan. Ekintza komunikatiboa helburutik abiatuta egin behar da. Metodologiari dagokionez, deskripzio hutsetik azalpenerako urratsa ere ekarri zuen. Hizkuntzaren erabilera bakoitza egoera komunikatiboa gertatzen den testuinguruaren araberakoa da.

Eugenio Coseriu-k (1958, in Etxebarria, 2000) hizkuntza eta hizkeraren arteko harremanari erreparatu zion. Saussurek libretzat hartzen zituen aldaerak hain libreak ez zirela defendatu zuen. Hizkera hiztunak egiten duen hizkuntzaren erabilera erreala da, baina, betiere arau jakin batzuen arabera gauzatzen da. Arau horiek gizartean ohikoak diren erabilerei lotuta daude. Gizarte mailako aztura horiek hiztunak erabiliko dituen ahoskera, lexikoa eta morfosintaxia baldintzatuko dituzte. Coseriuaren ustez, arau horiek hiru mailatan eragiten dute:

- Maila diatopikoan: eremu geografikoen araberako arauak dira. Dialektologiarekin lotura zuzena dauka maila honek.
- Maila diastratikoan: maila sozialeko aldaerei eragiten diete. Adin tartekak, sexuak edota gizarte taldearen araberakoak izaten dira eta soziolinguistikaren hizkuntza-aldakortasunarekin lotu daiteke.
- Maila diafasikoan: egoera komunikatiboaren araberakoak. Testuinguruari erreparatzen dio eta pragmatikarekin du lotura.

Frantziatik ez ezik, Pragatik eta Ingalaterratik ere hizkuntzaren erabilera ezberdinak testuinguruaren araberakoak direla defendatzen zuten joerak zabaldu ziren. John Ruper Firthe-k, testu etnolinguistikoak aztertzean, testuinguruaren edo egoera komunikatiboen ezaugarriak kontuan hartzea ezinbestekoa zela ikusi zuen, sistemaren ezagutza hutsaz harago joan beharra azpimarratuz (J.R. Firth, 1957). 1978an bere ikasle Michael Halliday-k testuinguruaren garrantziaz bulzatutako teorien oinarriak ezarri zituen.

Filologian eta dialektologian ere gizarte aldagaia aztertzen zen. 1926an Ramon Menendez Pidal-ek ikerketa diakronikoetan (gramatika historikoetan eta hizkuntzen historietan) aldagai soziala ere sartu zuen. Ferdinand Brunot-ek (1905) ere, frantsesaren historia egitean alderdi sozialak aztertu zituen. Baita Rafael Lapesa-k ere (Lapesa, 1942) espainolaren historia egitean.

## 1. SOZIOLINGUISTIKARI SARRERA

Dialektoak eta estandarrak Italian dialektologiatik landu ziren. Bestalde, Benvenuto Terracini (1952, in Etxebarria, 2000) hizkuntzen eta kulturen arteko loturak aztertu zituen. Italiar eskola dialektologikoko ikertzaileek euren ikerketetan adinari edo sexuari buruzko aldagaiak aztertzen zituzten. Berdin egin zuten Andaluziako Atlas Linguistikoan ere (ALEA) (Alvar, Llorente eta Salvador, 1961-1973).

Marxismoak ere oso ekarpen handiak egin zituen gizartearen eta hizkuntzen arteko elkarreraginari dagokionez, nahiz eta eskola honetan sortutako lanek itzal txikia izan mendebaldeko lanen artean, izan ere, nolabaiteko betoa egon da, arazo politikoak bitarteko.

Karl Marx, Fredrick Engels eta Paul Lafargue, besteak beste, izan ziren, Etxebarriaren arabera, autorerik aipagarrienak. B.A. Larinek, adibidez, *soziologia linguistikoa* aipatu zuen 1928. urtean (Etxebarria, 2000).

Gizakiaren teoria orokor nagusi bat eratzeko asmoak lengoaiaren eta hizkuntzen ezaugarriak aztertzerantz bultzatu zituen. Gizakiaren eta hizkuntzaren arteko lotura nabaria ikusten zuten. Baita kontzientzia eta pentsaerarekiko ere. Aginte-taldeek hizkuntzaren erabilera politikoa egin eta hizkuntzan bertan eragin zuzena zutela defendatzen zuten.

Engelsek Erromako Inperioaren erorketa aztertu zuen. Bere ustez, erromatarren menpe ziren herrien kontzientzia faltak ekarri zuen latinaren ahulezia eta hizkuntza erromantzeen sorrera.

Lafarguek (1894) Frantziako iraultzak hizkuntzan eragindako aldaketak aztertu zituen. Bere ustez, iraultza aurretiko hizkuntzak aristokraziaren zantzuak zituen bere baitan. Ondorengoan, berriz, elementu burgesak agertzen ziren. Aldaketa sozialak gertatzeak eragin zuzena izan zuen hizkuntzan bertan.

Vladimir Ilich "Lenin"-ek, hizkuntzaren eta errealitate nazionalaren arteko lotura ezarri zuen hizkuntzen berdintasuna aldarrikatzeaz batera. Administrazioak eta eskolak estandarizatzailana egiten dutela esan zuen.

### 1.1.5. Soziolinguistikaren sorrera

1950eko hamarkadan, zenbait gertakari historiko eta zientifikok bultzatuta, gizarte-zientziek aldaketa sakona jasan zuten. Alde batetik, Bigarren Mundu Gerraren osteko bake-garaiak, Afrika eta Asiako deskolonizazioak, Amerikako herri indigenen askapen mugimenduek eta abar. Bestalde, zientziaren alorrean izandako aldaketek, teknologiaren garapenak eta diziplinarteko-tasunerako joerak giza zientzietan *modernismoaren garaia* deitu izan dena ekarri zuten (Azurmendi, 1999). Euskal Herrian ere, euskal pizkunde-garaiak eragin handia izan zuen *euskal soziolinguistikaren* sorreran.

Ingurumaria horretan, soziolinguistika hitza lehenengoz aipatu zuen autorea Haver C. Currie izan zen. Hiztunak duen gizarte mailaren eta bere hizkeraren arteko lotura aztertu zuen (Currie, 1952). Hala ere, eskuliburu eta autore gehienek onartzen dutenez, soziolinguistikak 1964an hartu zuen *eskola*-izaera, Kalifornian antolatutako nazioarteko kongresu batean. UCLA izenez ezaguna den bilkuraren emaitzak William Bright-ek bildu zituen (Bright, 1966).



Hasiera-hasieratik, diziplina honen ikerketa-eremuak zehaztea ez zen erraza izan. Gizartearen eta hizkuntzaren arteko elkarrenergina ikuspegi askotatik iker daiteke eta, mugimendu berriaren hasieran, jatorri zientifiko ezberdinetako ikertzaileek jardun zuten. Brightek berak, soziolinguistikaren ikerketen objektutzat honakoak jarri zituen:


- **Hizkuntza-aldakortasuna:** aldakortasuna aldagai ezberdinen arabera da, hain zuzen ere, igorlearen eta hartzailearen gizarte-identitateen eta egoera komunikatiboaren arabera. Aldagai horiek hizkuntza-dibertsitatean nola eragiten duten jakitea da soziolinguistikaren helburua: gizarte-mailako dialektokoak, egoera diglosikoak, adin edo sexu ezberdinekoen arteko ezberdintasunak, umeekiko hizkera...
- **Diakronia:** azterketa diakronikoak aldaketen arrazoiak bilatzen laguntzen du eta egungo egoera ulertzen lagun dezake.
- **Hizkuntzekiko jarrerak:** hizkuntza bati buruz eta haren aldaerari buruz hitzunez duten iritzia ere soziolinguistikaren ikergai dira, Brighten ustez.
- **Dibertsitatearen hedadura:** batez ere egoera kulturantz eta eleanitzetan, hizkuntzek hartzen duten eremu geografikoa eta gizartean duten pisu soziala ere zientzia berriaren intereseko gaiak dira.
- Azkenik, soziolinguistikaren **aplikagarritasuna** ere alderdi garrantzitsua da. Egoera soziolinguistikoen diagnosia egin eta sistema edo corpusaren egokitzapena zein hizkuntzaren estatusaren eta erabileraren normalizazioari begira dago. Era berean, helburu horiek lortzera bideratutako neurriak aztertzeraz eta aplikatzeraz begira dagoen diziplina da.

Harrezkero, hizkuntzaren eta gizartearen arteko elkarrenergina aztertzeraz bideratutako lanak ugaritu egin ziren. Adituen bilkurak antolatu eta artikulu franko argitaratu ziren sortu berri ziren aldizkarietan: *Language in society*; *Language, variation and change* eta Joshua Fishman-ek gidatzen duen *International Journal of the Sociology of Language*, besteak beste.

Gizartearen edo gizarte-testuinguruaren eta hizkuntzaren arteko harremanen azterketan, oso helburu eta jomuga ezberdinak agertu ziren hasiera-hasieratik. Ikertzaileen jatorrizko zientziek eta soziolinguistikara bultzatu dituzten interesek markatu dituzte ikerketen helburuak. Karmele Rotaetxek (Rotaetxe, 1990) lengoaiaren etnografia, hizkuntzaren soziologia eta hizkuntza-geografia ditu soziolinguistikaren mugarriztat. Beste zenbait autorek psikologia soziala edo psiko-soziologia ere sartu dute soziolinguistikaren inguruko diziplinen artean. Horrela, Emili Boix eta F. Xavier Vila (1998) katalanek, soziolinguistikaren inguruan alderdi soziala, psikologikoa eta linguistikoa bereizten dituzte.

Diziplinartekotasun horrek soziolinguistikaren magalean oso interes eta norabide ezberdinak dituzten ikerketak onartzea ekarri du.

Fishmanen *Sociology of Language* liburuaren gaztelaniazko itzulpenaren hitzaurrean Ramon Sarmientok honako diziplinen arteko lotura irudikatu zuen:



2. irudia: diziplinen arteko lotura (Fishman, 1972/1988), guk itzulia.

## Bariazionistak

Hizkuntzari edo corpusari zuzenean lotutako ikerketek hizkuntzak hitzunen ahotan izaten dituen aldaerak aztertzea eta horien arrazoiak gizartearen bilatzea dute helburu. William Labov-ek, joera honetako ikertzailearik entzutetsuenak, hizkuntzaren aldakortasuna eta honen motibazio soziala izan zituen aztergai. Hizkuntza baten aldaki bat edo beste bat hautatzean hitzunen ezaugarriek zuten garrantzia aztertzen zuten, eta, horrela, Saussurek defendatzen zutenaren aurrean, hizkuntzaren aldagarritasuna ez dela hautazkoa erakutsi nahi zuten.

Arestian esan bezala, Saussurek hizkuntza eta hizkera bereizten zituen, baina hizkuntzalaritzaren azterketa, bere ustez, enpirikoki aztergarria zen hizkuntzan lerratu behar zen. Hitzunek hizkuntza erabiltzean sortzen ziren aldaketak *bariazio libretzat* zituen eta, beraz, hizkuntzalarien ikerketatik kanpo geratzen ziren. Labov eta bere jarraitzaileek (bariazionista deituek) hizkuntzan gertatzen ziren aldaketak motibatuak zirela erakustea zuten helburu; hots, hitzunek hitz egitean erabiltzen dituzten aldaeretan eragiten duten aldagai sozialen sistematikotasuna aldarrikatzen dute.

Gizartearen esparru edo maila bakoitzean hizkuntza ezberdin erabiltzen dela erakustek talde sozialek erabilera-arauak dituztela erakusten du, dialekto sozialek edo **soziolektoak**, hain zuzen ere.

**Soziolektoa:** gizarte-talde jakin batek erabiltzen duen hizkuntza aldaera. Dialekto soziala. Aldaera diastratikoa.

Bariazionistek Saussureri beste kritika bat egiten diote: hizkuntza sistema moduan aztertzean, benetan aztertzen duena aldaera jakin bat dela, aldaera estandarra edo goi mailako klaseena, hain zuzen ere.

Beste alde batetik, hizkuntza-aldaeren inguruko jarrerak eta hizkera batzuen estigmatizazioa ere aztertzen zuten. Hitzunek hizkera bat entzutean hitzunari buruzko datu ugari jasotzen dituzte eta, nahita ala nahi gabe, baloratu egiten dituzte. Forma bat modernoa ala zaharkitua dagoela, norbaitek oso zakar hitz egiten duela edo beste batek intonazio polita duela esatean, hizkere-kiko, eta sarritan hitzunekiko, jarrerak agerian geratzen dira. Balorazio horiek hizkuntza-alda-  
ketaren oinarrian daude.

Bariazionismoaren azterketetan dialektologiaren antzeko metodologia erabiltzen da, baina azterketa diastratikoa (soziala) eginez, ez diatopikoa (geografikoa). Batak dialektoak aztertzen ditu, besteak soziolektoak edo, askotan esan den bezala, dialekto sozialak (eskuliburu honen bigarren atalean, ikerketa eremu honen inguruko xehetasun gehiago ematen dira).

## Antropologoak

Beste ildo batetik, Dell Hymes eta John Gumperz-en lanek, komunikazioaren etnografia eta identitatea zuten oinarri. Autore horien ustez, hizkuntzaren erabilera aztertzean, sistemaren egituraketaz gain, komunikazio-egoeren ezaugarriak izan behar dira kontuan. Zentzu horretan, hitzunak gizartearen funtzionamenduaren ezagutza behar-beharrezkoa du, interakzio egokiak gertatu ahal izateko. Komunikazio-gaitasuna terminoa sortu zuten (Gumperz eta Hymes, 1972).

Ikerketa ildo horren jarraitzaile gehienak hizkuntza amerindiarren azterketetatik zetozen. Hain kultura ezberdinetako hizkuntzak ikasteak, herri horien bizimoduari buruzko ezagutza sakona eskatzen zuen. Ez zen nahikoa hitzak eta egitura sintaktikoak ezagutzea. Humberto Lopez Morales-ek honako galdera jartzen du ikuspegi honen helburua ulertzeko: zer jakin behar du hitzun batek komunitate baten barruan egokiro komunikatzeko eta nola eskuratzen dira eza-  
gutza horiek? (Lopez Morales, 1993).

Zentzu horretan, **erregistroak** dira helburu komunikatiboari loturiko erabilerak edo aldaera funtzionalak. Hitzunok hizkuntzak bere baitan dituen elementu guztien zati bat baino ez dugu erabiltzen eta hautu hori egoera komunikatiboaren araberakoa da.

**Erregistroa:** solaskideen arteko harremanak, haien asmoak, gaiak, formaltasun-maila eta egoera definitzen duten beste hainbat faktore kontuan hartuta erabiltzen den hizkuntza-aldaera. Testuingurura egokitutako hiz-  
kera. Aldaera diatopikoa.

Erregistroa hiru elementuren araberakoa da: gaia eta helburua (zertaz eta zertarako), bidea (nola) eta gizarte mailako harremanak (norekin). Testuinguru komunikatiboak hartzen du garrantzia.

Joera horretatik hurbil, soziolinguistika interakzionala deiturikoa ibili zen. Funtsean, hizkuntza berari garrantzia eman beharrean, hizkuntza komunikaziorako tresna den heinean aztertzea da egitekoa. Hizkuntzaren bitartez zerbait egin egiten da. Norbaitengandik zerbait lortzeko hitz egiten dugu. Igorleak hartzailearengan zerbait eragiteko gauzatzen du bere hizkuntza-jarduera, eta zentzu horretan ulertu behar da hizkuntza. Fishmanek 1965ean *Who speaks what language to whom and when?* artikulua idatzi zuen. Izenak berak dioen bezala, komunikazio-egoeraren ezaugarriei begiratzen die. Teoria hori 1972an hobetua izan zen eta gerora erabakigarria izango zen kontzeptua ekarri zuen: erabilera-eremua (*domain*) (Fishman, 1972).

Bestetik, hizkuntzaren mugetan kokatzen diren elementuak ere soziolinguistikaren aztergaien artean koka daitezke: keinuak, prosodia...; normalean, hizkuntzaren etnografiari loturiko alderdiak. Elementu horiek gizartearen duten eragina eta horiekiko egiten diren balorazioak ere kontuan hartzen dira soziolinguistikan.

## Psikolinguistak

Psikolinguistek eta hizkuntzaren alderdi sozialaren ikuspegia landu duten autoreen artean ikuspegi kontrajarriak izan dira denbora luzean. Hizkuntzaren jabekuntza alderdi psikologikoen edo sozialen ondorioa den argitzeko nahiak eztabaida mamitsuak eman ditu. Baina bi zientzien osagarritasuna argia da eta ildo bietako diziplinek bat egin dute, besteak beste, jarrerren eta hizkuntza-jardueren inguruko ikerketetan. Hitzunek hizkuntza baten aurrean edo hizkuntza-aldara baten aurrean erakusten dituzten jarrerren inguruko azterketek hauen eragina eta dimentsioak zehaztea bilatzen dute.

Psikolinguistikaren beste ildo batzuetatik, Robert C. Gardnerrek eta Wallace E. Lambertek egoera elebidunetan ikasleek dituzten motibazioen eragina neurtu zuten (Gardner eta Lambert, 1972 in Moreno Fernandez, 1998). Hari honetako ikerketek arrakasta handia lortu zuten.

Psikologiari lotutako beste ikerketa eremu bat elebidunen egituraketa kognitiboa da, hau da, pertsona elebidunak hizkuntza bakoitza modu independentean prozesatzen duen edo H2-ko mezuak H1-erako itzulpena eginez barneratzen dituen. Hizkuntza baten eskurapen-prozesu sakonetan, hizkuntza batek bestearen lekua har dezake, eta, horrelakoetan, hizkuntza-ordezkapena gertatzen da. Horrek eragin zuzena du, batetik, hitzunaren identitatearekin, eta, bestetik, hizkuntzaren estatus sozialarekin. Kasu horietan, hizkuntzarekiko motibazio eta jarrerrek garrantzi handia hartzen dute norbanakoaren hizkuntza-aldaketan eta gizarte-mailakoan.

## Soziologoak

Soziologiari zuzenago lotutako ikusmoldeetatik aritzen diren ikertzaileei, berriz, elebitasuna, hizkuntzen ordezkapena, funtzioen banaketa, hizkuntza-leialtasuna eta planifikazioa bezalako arazoak interesatzen zaizkie.

Fishmanek berak **hizkuntzaren soziologia** terminoa sortu zuen, hizkuntzaren erabileraren eta gizarte antolaketaren arteko lotura aztertzeraz bideratutako ikusmoldeak biltzeko. Hizkuntzalaritzarekin berarekin zerikusi gutxi izanik ere, gizartearen eta hizkuntzaren arteko elkarre-

raginean oinarritutako bestelako ikerketa eremu ugari barnebiltzen ditu. Soziolinguistikaren barruan, adiera zabalean, alderdi sozialari hizkuntzari baino arreta handiagoa jartzen dioten ikerketa-eremuek, hizkuntzaren soziologian dute lekua autore batzuen ustetan. Baina, aurrerago azalduko denez, eztabaida terminologiko horrek ez du amaierarik izan, beste batzuek soziolinguistika deitzen baitiote.

**Hizkuntzaren soziologia:** diziplina soziolinguistikoa, gizarteak hizkuntzarekin duen harremana aztertzen duena. Askotan nahasi egiten dira soziolinguistika eta hizkuntzaren soziologia. Bereizgarri gisa esan daiteke lehenak hizkuntza aztertzen duela, testuinguru sozialarekin duen harremanaren bitartez; bigarrenak, berriz, gizartea du aztergai. Kanpo-soziolinguistika edo soziolinguistika zabala.

Hala ere, soziolinguistikan aritutako ikertzaileen helburuei erreparatuta, Fishmanek makro-arazoak eta mikro-arazoak bereizi zituen. Mikroak talde txikietan gertatzen diren elkarreraginei dagozkie eta, batez ere, elkarrizketen azterketen bitartez aztertuak izan dira. Ahozko elkarreaginaren bitartez gizarte-mailako erabilerak ikertzen dira. Hizkuntzalaritzatik gutxi landu dira, gehiago psikologo eta soziologoaren artean edo etnolinguisten artean. Makro arazoaren artean, hizkuntza-komunitatea elebakarra ala elebiduna den, hizkuntzak zenbat hitzun dituen, hizkuntza bakoitzak zein funtzio betetzen dituen, hizkuntzek hartzen duten prestigioa eta abar hartzen dira kontuan.

Fishmanek, hizkuntzaren egoera sozialak deskribatu zituen, bi koderen edo bi aldaeren arteko egoera diglosikoetan oinarrituz. Egoera elebakar eta elebidunetan gerta daitezkeen egoera diglosiko eta ez diglosikoak azaldu zituen. Diglosia elebitasunik gabe, diglosia elebitasunean, elebitasuna diglosiarik gabe eta ez diglosiarik ez elebitasunik ez dauden errealitateak bereizi zituen (eskuliburu honen 5. atalean xehetasun gehiago ematen dira).

Hizkuntzalaritza katalanak ekarpen handiak egin ditu egoera elebidunen azterketan. Lluís Arcil, adibidez, **hizkuntza-gatazkaz** aritzen da, helburutzat **hizkuntza-normalizazioa** edo **normalizazio linguistikoa** hartuta (in Ruiz Olabuenaga eta Ozamiz, 1986).

Gizarteetan **ordezkapen linguistikoa** (*language shift*, LS) gertatzearen arrazoiak eta moduak aztertzea da hizkuntzaren soziologiaren lana. Horretarako egoera diglosikoetan gertatzen den funtzioen banaketan oinarriturik, hizkuntzaren erabilera-eremuak eta elkarreragin-moduak aztertzen dira eta, denboran zehar izandako aldaketak zehaztu. Fishmanek, egoera horiek iraultzeko, *Reversing Language Shift* (RLS) prozesua proposatu zuen (Fishman, 1991). Estatusaren plangintzen oinarria izan zen horri, Euskal Herrian, **indarberritze-** edo **biziberritze-prozesuak** deitu izan zaie. Hizkuntzaren egoera juridikotik hasi eta esparruz esparruko proposamenetarako heltzen dira eta gure inguruan aplikazio ugari ezagutu ditugu, Euskararen Kontseiluak bultzatutako Plan Estrategikoa, Eusko Jaurlaritzak EAEn bultzatutako Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia edo hainbat eta hainbat erakunde, enpresa eta elkartetan egindako plangintzak (eskuliburu honen 5. atalean xehetasun gehiago ematen dira).

## 1.1.6. Soziolinguistikaren izenaz eta ikerketa-eremuez

**Soziolinguistikak**, beraz, hizkuntzaren eta gizartearen arteko elkarreraginak aztertzen ditu. Baina bi egitura horien arteko elkarreraginean aztergai eta ikuspegi ezberdinak agertu dira. Horrek zailtasunak sortzen ditu definizioa adosterakoan. Karmele Rotaetxeren ustez, hizkuntza eta gizartea elkarri eragiten dioten egiturak dira. Batean gertatutako aldaketek bestean eragiten dutela frogatzea da soziolinguistikaren helburua. Haren esparrua etnolinguistikak, geografia linguistikoak eta hizkuntzaren soziologiak mugaturik daude (Rotaetxe, 1990).

**Soziolinguistika:** gizartearen eta hizkuntzaren arteko elkarreragina aztertzen du. Bi soziolinguistika ezberdin bereiz daitezke: aztergai nagusia hizkuntza bera duena, bata eta hizkuntza entitate sozial moduan hartzen duena, bestea. Lehenengoa hizkuntzalaritza hurbilago dago; bigarrena, aldiz, soziologiatik.

Estrukturalismoaren eta gramatika sortzailearen aurrean, soziolinguistikak bete zuen lekuari *kanpo-hizkuntzalaritza* deitu izan zitzaion. Askorentzat, ordea, hizkuntzalaritza garaikidea da. Labovek, adibidez, hizkuntza gizartearengandik bereizirik ikertzeak ez duela zentzurik uste zuen, eta ondorioz, *soziolinguistika* terminoa errepikakorra zela. Bariazionismoa edo aldakortasunaren azterketa hizkuntzalaritzaren ikerketa-eremutzat zuen.

Jean Baptiste Marcellesi-k (in Rotaetxe, 1990) *bariazionismoa* izendatzeko *hizkuntzalaritza soziala* izena proposatu zuen. Horrek diziplina berriaren ikerketen helburuen eta ikuspegien aniztasunak izendapenean izan zuen isla agerian uzten du.

Sarritan aipatu izan da bi soziolinguistika ezberdin bereiz daitezkeela: aztergai nagusia hizkuntza bera duena bata, eta hizkuntza entitate sozial moduan hartzen duena bestea. Lehenengoa hizkuntzalaritza hurbilago egongo litzateke; bigarrena, aldiz, soziologiatik. Batak corpusa du jomuga; besteak, estatusa; batak hizkuntzari barrutik begiratzen dio; besteak, kanpotik; batak hizkuntzaren egiturari, besteak erabilerari; batak hizkuntza du aztergai besteak hiztunak eta hiztun taldeak.

Francisco Moreno Fernándezek, beste hainbat ikertzailek bezala, soziolinguistikaren ikerketa edo hizkuntzalaritzaren ikuspegitik edo soziologiarenetik hurbilago egin daitezkeela uste du. Zentzu horretan, bere ustez, soziolinguistika nagusiki hizkuntzari berari lotutako zientzia da, eta gizartean hizkuntzari lotutako arazoak aztertzea hizkuntzaren soziologiari dagokio. Korda horretakoak dira Humberto Lopez Morales eta Maitena Etxebarria bera.

Humberto López Moralesek, adibidez, soziolinguistika hizkuntzaren azterketara mugatzen dela defendatzen du, gizartearen azterketa soziologiari dagokiola esanez. Gainera, bere ustez soziolinguistika hitzezko komunikazioaz soilik arduratzen da. Horrela, ikerketa-eremutik kanpo uzten ditu semiologiari, etnografiari edo pragmatikari lotutako alderdiak (Lopez Morales, 1993).

Hala ere, Labovek, soziolinguistika izendapena gaitzetsita, hizkuntzalaritza hertsia (linguistiko)/zabala (soziologikoa) bereizketa proposatu zuen (Labov, 1972/1983: 236-237).

Jordi Sole i Camardons katalanak, berriz, *Soziolinguistika Gazteentzat* liburuan (Sole i Camardons, 1991), soziolinguistika ez dela hizkuntzaren barne-arazoez arduratzen defendatzen du, hori hizkuntzalaritzari dagokion arloa dela, alegia.

Gaur egun, jarrerak ez dira hain muturrekoak eta, soziolinguistikaren azpian, hizkuntzaren eta gizartearen arteko elkarreraginari loturiko ikerketa-eremu ugari hartzen dira. Nahiko zabaldua dago, *barne-soziolinguistika* hizkuntzari lotutako ikerketetarako eta *kanpo-soziolinguistika* besteetarako erabiltzea.

Hala ere, tokian tokiko bibliografiari begiratuta, leku batzuetan hizkuntzaren aldagarritasunari begira dauden lanak baino ez dira onartzen soziolinguistikatzat, baina beste zenbait lekutako tradizioan, soziolinguistikak askoz ere eremu zabalagoa hartzen du. Horixe da, hain zuzen ere, Euskal Herrian, Katalunian eta Kanadan gertatzen dena.


Euskal Herrian, tradizio sakona du soziolinguistikak, batez ere, hizkuntzaren normalizazioari begira egindako lanetan. Horrela, Eusko Jaurlaritzak hizkuntzaren estatusa ezagutzeko egindako ikerketari *Inkesta soziolinguistikoa* izena jarri dio, **Soziolinguistika Klusterrak** ere arlo horretako lanak jorratzen ditu eta, oro har, euskal hiztunek egoera soziolinguistikoaz hitz egitean, hizkuntzak gizartean duen egoeraren inguruan jarduten dute.

Jose María Sánchez Carrión “Txepetx”-ek berak, hizkuntzaren soziologia erabiltzen du batzuetan eta soziolinguistika beste batzuetan. Beste alde batetik, Jose Manuel Odriozolak, *Soziolinguistikaren atarian* liburuan ikuspegi zabalari lotu bazitzaion ere (Odriozola, 1993), 2003an Iñaki Caminok *Euskal Soziolinguistikaren atarian* lana adiera hertsitik bideratu zuen (Camino, 2005).

## 1.2. EUSKAL HERRIAN

### 1.2.1. Hizkuntzaren inguruko kezka Euskal Herrian

Euskarak gaur egun duen baino lurralde handiagoa hartu izan du historian zehar. Europako hizkuntzarik zaharrena dela uste da, 8.000 urte luze dituela. Paube iparraldean, Castro mendebaldean, Katalunia ekialdean, eta hegoaldean Nafarroako Erribera eta Errioxan barna izan zituen muga erromatarren garaian.



3. irudia: Euskara. Euskaldunon hizkuntza (Joseba Intxausti, 1990).

Euskarazko lehen erreferentzia idatzia Donemiliagako monasterioko glosetan aurkitutako hitz batzuk izan ziren, XI. mendekoak, hain zuzen. Hitzon esanahia argitzerik egon ez bada ere, zalan-tzarik ez dago euskaraz direla: *izioqui dugu* eta *guc ajutu ez dugu* dira esaldiok. Bestelako testigantzak, Euskal Herrira etorritako bidaiarien edo erromatarren idazkietan aurkitutakoak dira.

1545ean, esan bezala, Bernard Etxeparek, *Lingua Vasconum Primitiae* lana argitaratu zuen. Lan horretan, euskarak garai hartan jasaten zuen bazterketa azalarazten da. Hizkuntza erromantzeek nagusitasuna hartu zuten garai hartan, euskara ere idatz zitekeela eta besteen parekoa bazela aldarrikatzen zuen Donibane Garaziko bikario zenak. Hamabost poemaz osaturiko liburuan, Kontrapas bertsoan, hain zuzen ere, euskarari ezin idatz zitekeela egotzen ziotela erakusten du eta berak, liburu haren bitartez, kontrakoa erakutsi nahi izan zuela:

*Heuscarā  
ialgui adi campora*

*Berce gendec vste çuten  
Ecin scriba çayteyen  
Oray dute phorogatu  
Enganatu cirela.*

*Heuscarā  
ialgui adi mundura*

*Berceac oroc içan dira  
Bere goihen gradora  
Oray hura iganen da  
Berce ooren gaynera.*

Euskararen apologia egin zuen azken bi bertsoetan. Lehen beste batzuek gutxietsi zutela eta, idatz zitekeela erakutsi ostean, besteen gainetik egongo zela baieztatzen baitzuen. Bertso hauek garaiko egoeraren isla ona dira, inprentaren etorrerak beste hizkuntzei ekarritako nagusitasuna aipatzen baita. Inprentak hizkuntza erromantzeen garapenean izan zuen garrantzia agerian geratzen da.


Hurrengo lan idatzia Madrilan 2004an aurkitutako eta Patri Urkizuk *Dianea eta koplak* (1564-1567) titulupean argitaratutako Joan Perez de Lazarragaren (1548?-1605) lana izan zen (Urkizu,



2004). Euskarazko 37 koplaz gain, erdarazko 9 ere agertzen ziren eskuizkribuan eta mendebaldeko euskalkian idatzita daude. Lan honetan Euskal Herria hitza lehen aldiz agertu zen, hiru aldiz hain zuzen ere (eusquel erria).

Joanes Leizarragak, 1571 n, *Jesus Christ Gure Iaunaren Testamentu Berria* lana eman zuen. Joana III.a Nafarroako erreginak protestantismoa hedatu nahian agindutako itzulpen hartan, ahalik eta euskaldun gehienek ulertzeko moduko hizkera erabiliko zuela adierazi zuen, euskararen aldaeren arteko ezberdintasunak agerian utziz. Nolabaiteko estandarizazio nahi horretan lapurtera hartu zuen oinarritzat.

**4. irudia:** *Linguae Vasconum Primitiae* (Bernard Etxepare), *Dianea eta koplak* (Joan Perez de Lazarraga), *Jesus Christ Gure Iaunaren Testamentu Berria* (Joanes Leizarraga).



Lehen euskal gramatika 1745ean heldu zen Larramendiren eskutik. *El Imposible Vencido* izenez kaleratutako lanean beste hizkuntzek zuten gramatika euskarak ere izan zezakeela erakustea izan zuen helburu. *Hiztegi Hirukoitza* ere argitara eman zuen, euskara, gaztelania eta latina bilduz. Hizkuntzak beharrezko gramatika eta hiztegi osatua izanik, euskara besteen parekoa zela erakutsi nahi zuen. Blanca Urgellen ustez, euskara normaltzeko asmoak bultzatu zuen horretara. Gaztelaniako eta latineko hitz bakoitzerako baliokidea bilatu nahi izateak neologismoak sortzera eraman zuen (Urgell, 2005).

Minorizazio eta bazterketaren aurrean, eta garaiko hizkuntzei buruzko ikuspegitik, apologismoa egin zuen. Hizkuntzen jatorriari buruzko ikuskera biblikotik, euskara Babelako 72 hizkuntzetako bat zela pentsatzen zuen, penintsula iberiar osoko jatorrizko hizkuntza. Ikuskera horretatik, hizkuntzaren batasunaren aldekoa zen, Jainkoak sortutako hizkuntza izanik, batua behar baitzuen.

Penintsulako jatorrizko hizkuntza izanik, gaztelaniako hitz askoren etimologia euskaratikoa zela defendatzen zuen. Hona hemen zenbait adibide:

- Azuzena: zuzena hitzetik (zuzenen hazten den lorea da).
- Ahorrar: esku ahurratik (esku ahurrean izaten dena).
- Atraverse: trebetik (pertsona prestua eta ausarta).
- Buscar: puskatik (puskak aurkitzea kostatzen da eta).

Frantziako Iraultzaren ostean, euskarak, beste hizkuntza gutxituen antzera, zapalketa eta bazterketa gogorra jasan zuen, frantsesa ez ziren beste hizkuntzak baztertuta geratu baitziren.



## 1. SOZIOLINGUISTIKARI SARRERA

Horren inguruko adibide ugari aurki daitezke Juan Mari Torrealdaik argitaratutako *El libro Negro del Euskera* liburuan (Torrealdai, 1998).

Estatuen sorrerarekin, nazio hizkuntzen ideia indartuz joan zen eta harrezkero euskara bere lekua galduz joan da geografikoki zein sozialki.

XIX. mendean euskarak garai gogorra bizi izan zuen. Iparraldean migrazio handia egon zen Parisera eta frantses kolonietara. Hegoaldean, Cadizeko konstituziotik hasi eta mendean zehar izan ziren gerla Karlistetan gero, euskarak geografikoki nahiz maila sozialean atzera egin zuen nabarmen. Foruen desagertzea botere politikoaren galera ekarri zuen eta, ondorioz, geografikoki zein gizarte mailan, euskaldunon hizkuntzak artean izandako atzerapenik handiena pairatu zuen.

Hala ere, mende horretan izan zen ekarpen interesgarrikerik ere. Antoine D'Abbadie Lapurtarrak Lore Jokoak antolatu zituen. Urruñan hasi ziren bertsolari-txapelketa antzeko hauek, jarraipena izan zuten mende bukaera arte Euskal Herriko beste leku batzuetan (Juan Carlos Etxegoien, 2006). Abbadiek Luis Lucien Bonaparterekin harremana zuen eta 1863an Napoleon Bonaparteren iloba zenak, hain ezagun egin den euskalkien mapa argitara eman zuen. Koldo Zuazok hura hartu zuen oinarri gaur egungo mapa egiteko.



**5. irudia:** L.L. Bonaparteren euskalkien mapa eta Koldo Zuazoren euskalkien mapa (Zuazo, 2008).

Euskal Herritik Ameriketara euskaldun asko joan ziren eta, handik ere, urrats garrantzitsuak egin ziren. Lehen kazeta euskaldunak (*Euskaldun Gazeta* eta *Euskal Herria* aldizkaria) eta Iparragirrenen kanta sorta heldu ziren, hizkuntzarekiko eta herriarekiko atxikipenaren erakusgarri.

Garai honi buruzko azterketa sakona egin zuen Xabier Erizek bere doktore-tesian (Erize, 1997). Bertan, gainera, soziolinguistika historikoari buruzko bibliografia xehea aurki dezake nahi duenak.

XX. mendearen hasieran euskararen debekua gizarte-mailako arazoak eta identitateari loturikoak ziren nagusi hainbat esparrutan. Gainera, industrializazioak eta ondoriozko immigrazioak izugarritzko eragina izan zuten euskararen atzerapenean. Egoera hartan, Europan gailentzen zen nazionalismoaren aurrean, euskal abertzaletasunaren lehen pausoak eman ziren eta, ideologia

horren itzalpean, hizkuntzaren aldeko diskurtsoak ugaritu egin ziren. Hizkuntzaren estatusari buruzkoak ez ezik, corpusaren inguruko jarrerak ere agertu ziren, garbizalekeria eta apologis-moa, besteak beste. Dena dela, muturreko joera horiek garaiko testuinguru geopolitikoan ulertu behar dira.

Mende berriko Lore Jokoetan, Euskal Herriaren batasuna aldarrikatzen zen. Aldi berean, euskal ortografia bateratzeko eta euskararen batasunerako lehen proposamenak sortzen hasi ziren, literaturarako beharri zehatzekiko erantzuteko.

Hizkuntzak zituen gabeziei erantzuteko ekimen ugari sortu ziren, hala nola umeentzako ipuinak eta eskola-liburuak. Beste arlo batzuetako lanak bilduz, 1907an Julio Urkixok *RIEV/RIEB* (*Revista Internacional de Estudios Vascos*) aldizkaria sortu zuen. Ordurako, Resurrección María Azkuek 1905ean *Diccionario español-vasco-francés* argitaratu zuen.

1918an Eusko Ikaskuntza sortu zen eta, erakunde horren ekimenez, urte bat geroago Euskaltzaindia. Euskaltzaindiaren zereginak bi arlotan banatu ziren: hizkuntzaren beraren inguruko ikerlana batetik, corpusarekin zerikusia zuena, eta hizkuntzaren hedadura eta sustapena bestetik, estatusari loturikoa. Hona zeintzuk ziren Euskaltzaindiaren lehen estatutueta agertzen ziren helburuak:

1. *Izkeraketz eta gizarteketz, euskera ayolaz landu ta yagoten zain egotea, Bazkun aunen elburua da: andik ere bere izena.*
2. *Zainbide bioi dagokienez, Sail bitan ere bereizturik euskaltzaiñak beren arloan diardukete; euskal-ikerleen sailean, ta yagoleenean, lagun bakoitza bietan dagokelarik.*

Hortaz, **Iker** eta **Jagon** sailak dira Euskaltzaindiak corpusari eta estatusari begira dauden atalak, hurrenez hurren.

Horrela, euskal akademiak hizkuntzaren zatiketa dialektala gainditzeko aurretik izandako ahaleginak hartu eta prozesua abiatzeko urratsak egin zituen arrakasta handirik gabe. Azkuek *Morfología Vasca* eta *Erizkizundi Irukoitza* lanak argitaratu zituen.

Lizardik buru zuen Euskaltzaleak elkarteak, Eusko Ikaskuntzaren itzalpean sortua, euskal prentsa, literatura eta hizkuntzarekiko atxikimendua bultzatzeko, euskararen egunak, euskal antzerkiaren eta poesiaren egunak, *Yakintza* aldizkaria eta antzeko ekimenak gauzatu zituen.

Aipagarria da Euskaltzaindia sortu zen urtetik gerra hasi bitarteko garaia buruz Jose Manuel Odriozolak, orduko idazleen lanak oinarritzat hartuta, egindako azterketa soziolinguistikoa (Odriozola, 1992).

1936an, Eusko Jaurlearitzak egindako estatutuan, euskarak nolabaiteko ofizialtasuna eskuratu zuen, baina gerra garaia heldu zen eta euskarak galdu egin zuen gerra.

Gerra osteko urte gogorretan, ikerketa linguistiko filologikoetatik corpusaren batasunerako pauso garrantzitsuak eman ziren. Azkuek eta Federico Krutwig-ek Euskaltzaindia berregitea lortu zuten eta euskaltzain berriak sartu ziren. Aldi berean, literatura-ekoizpena ugaritu egin zen eta, zailtasunak zailtasun, ondorengo pizkunderako oinarriak jartzea lortu zuten.

Zentzu horretan, aipamen berezia merezi du Koldo Mitxelenaren ekarpenak. Euskal literatura-ren eta testu zaharren gainean eta hizkuntzaren historiaren inguruan egindako lanek euskara batuaren sorrerarako funtsezkoak izan ziren. Euskal fonetika historikoaren inguruko lanak (Mitxelena, 1961), esate baterako, ortografia-arauak ezartzeko ezinbesteko heldulekua izan zen. Lexikoari dagokionez, berak abiatu zuen *Orotariko Euskal Hiztegia*. Gainera, hizkuntzen ikerketa diakronikoa egiteko irizpideak ere ezarri zituen, gerora, antzinako euskararen (proto-euskararen) eta beste hizkuntzen inguruko ikerketetan ere erabili direnak (Mitxelena, 1963).

1960ko hamarkadan lehen ikastolak eta gau-eskolak agertu ziren. Mundu mailako gertakari-ekin euskararen eta kulturaren inguruan izandako zenbait gertakariak, Euskaltzaindiaren berrantolaketa eta euskal artearen garai oparoa besteak beste, *Euskal pizkundea* ekarri zuten. Gabriel Arestiren *Harri eta Herri* liburua (1964), Durangoko azoka (1965), *Ez dok amairu* abeslari eta artisten mugimendua, lehen ikastolak, gau-eskolak eta abar, garai hartan ereindako haziak izan ziren. Hizkuntzaren berreskurapenerako oinarriak jarri ziren. Teoria sakonetan sartu gabe, bestelako urratsak eskatzen zituzten inertiak sortzen hasi ziren. Adibidez, ikastolen kasuan, marko teorikoari gehiegi erreparatu gabe, ekinaren ekinez, guraso “zoro” batzuek euren haurrak ilegalak ziren ikastoletan eskolaratu zituzten, eskola-porrotaren beldur handiegirik gabe; euskaldun heldu askok ukatua izan zitzaizen hizkuntza ikasten hasi ziren etxe eta elizetako geletan bilduta. Horren guztiaren ondorioz, hizkuntzaren normalizazioa ezinbestekoa bilakatu zen.

Egoera berriak eskakizun berriak ekarri zituen eta, beste saiakera batzuen ondoren, 1968an Arantzazuko batzarrean, **euskara batua** sortzeko bideari ekin zitzaion. Harrezkero, Euskaltzaindiak horretan jardun du, euskararen batasunaren bidean hiztegia eta gramatika osatzen, besteak beste Euskal Herriko Atlasaren bitartez, euskararen corpusa biltzen eta eredu estandarra arautzen (5. atalean xehetasun gehiago ematen dira).

## 1.2.2. Euskal soziolinguistikaren garapena

### Hastapenak

Garai hartan nazioartean soziolinguistikaren inguruan garatzen ari ziren teoria eta eztabaidak 1970eko hamarkadan heldu ziren Euskal Herrira. Harreman estua egon zen Hego Amerikako herrien askapen prozesuekin, Israelgo hizkuntza-biziberritzeko plangintzarekin eta diktaduratik irtetear zegoen Estatuko beste herriekin. Horrek erraztu egin zuen joera berriak euskararen egoerara aplikatzeko aukera izatea.

Euskal Herrian soziolinguistika ikerketa linguistikotik aldentuta egin izan da; hau da, corpusari begira baino, estatusari begira garatu da. Hizkuntza egoera gutxituan dagoenez, batetik, hizkuntzaren estratifikazio sozialaren inguruko azterketek interes edo lehentasun gutxiago zuten gizarte-mailako normalizazio-prozesua garatzera bideratutako teoriak baino; bestetik, hizkuntza-aldakortasunaren azterketa euskalkien inguruan ardatzen zen.

Corpusaren inguruko eztabaidak estandarizazioaren inguruan eta, batez ere, euskalkiek arlo ezberdinetan izan beharreko lekuaren inguruan gauzatu ziren. Irakaskuntzarako nahiz arlo ezberdinetan corpusa sortzeko beharrak eredu estandarren osatze- eta hedatze-lana azkartu zuen. Estatusaren inguruko eztabaida, berriz, egoeraren diagnostikoa egin eta zabaltzen ziren aukeren aurrean, normalizazioa eskuratzeko bidean egin beharreko urratsei begira jarri zen.

1970eko hamarkadan, euskararen statusaren inguruko lanak agertu ziren. Pedro Irizarrek Euskal Herriko euskal hiztunen kopuruaren azterketa egin zuen (Irizar, 1973). Urte batzuk geroago, Euskaltzaindiak euskararen *historia klinikoa* egin zuen *Euskararen Liburu Zuriaren* bitartez. **Siadecok** koordinatutako lanean aditu ezberdinek euskararen diagnosi zabala egin zuten egoeraren azterketa alderdi ezberdinetatik eginez (Siadeco, 1978). Soziolinguistikaren sorreran jokoan sartu ziren diziplina ezberdinetatik edaten zuten lanok. Bost zati ondo berezitan hizkuntzalaritza, antropologia, soziologia, hizkuntza-politika eta, oro har, soziolinguistikarekin loturiko adar nagusiak jorratu zituzten. Hizkuntzaren diagnosi orokorra ekarri zuen, hizkuntzak eman behar zituen pausoei begira. Planifikaziorako oinarriak jartzea izan zuen helburu, kontzientzia pizteaz batera. Liburu horrek jarraipena izan zuen; bigarren atala hurrengo urtean kale-ratu zen *Hizkuntza-Borroka Euskal Herrian* titulupean (Siadeco, 1979).

Siadeco 1967an gizarteaz gertatzen ari zen garapen-ereduaren aurrean eragiteko asmoz sortutako kooperatiba da. Nahiz eta hasierako urteetan garaiko egoera politikoak euskararen arloa lantzea baimendu ez, hirigintzari, ekonomiari eta antzeko gaiei begirako lanetan datu soziolinguistikoak ere jasotzen zituzten. Harrezkero, hainbat ikerketa eta argitalpen egin dituzte euskararen egoera soziolinguistikoaren inguruan, hala nola, herri askotako diagnostikoak eta arlo jakinei bideratutako plangintzak.

Bi liburu hauek koordinatu aurretik, Siadecok beste bi ikerketa egin zituen: *Euskal Herriko azterketa soziolinguistikoa. Gaur egungo egoera eta etorkizunerako plangintza (1975)* eta *Euskararen azterketa soziolinguistikoa 1977an*. Euskal Herriko hegoaldera heltzear zeuden aldaketa politikoetarako prestaketa lanak ziren.

Herri-ekimen eta elkarte asko eratu ziren, euskararen normalizazioari eremu eta esparru ezberdinetatik sostengua eman nahirik; besteak beste, 1979an Euskal Herrian Euskaraz (**EHE**), 1983an Euskal Kultura Batzordea (**EKB**) eta 1983an Arrasate Euskaldun Dezagun (**AED**). Hizkuntza komunitatea trinkotzera, ofizialtasunaren eta hizkuntza eskubideen aldarrikapenera eta, oro har, norbanakoen zein erakundearen euskararen erabileran eta hizkuntzarekiko atxikimenduan eragitera bideratutako taldeak ziren.

## 1980ko hamarkada

Soziolinguistikaren teorien ekarpenik inork egin badu, hori Jose Maria Sánchez Carrión “**Txepetx**” dugu (eskuliburu honen 5. atalean bere teorien inguruko azalpen xeheagoak ematen dira). Bera izan zen soziolinguistika egituratu berriaren hausnarketak Euskal Herrira ekarri eta euskararen errealitatera egokitu zituena. Hizkuntzaren izaera minorizatuak markatu zuen Cartagenako semearen lana. Bere lehen ekarpena 1972an argitaratutako *El estado actual del vascuence en la provincia de Navarra (1970)* liburua izan zen (Sánchez Carrión, 1972). Bertan, hiz-

## 1. SOZIOLINGUISTIKARI SARRERA

kuntzaren atzerapenaren arrazoiak aztertu zituen eta, ordura arteko lanen aldean, ikuspegi berria sartu zuen.

*Eginen eta Punto y Hora* aldizkarian argitaratutako artikuluetan, hizkuntzaren estatusaz aritu zen batez ere, sortu berria zen soziolinguistikaren ikuspuntutik euskararen estatusaren inguruko gaiak jorratuz, hau da, elebitasuna, diglosia edo hizkuntza-ukipena bezalako kontzeptuak Euskal Herriko hizkuntzaren inguruko ikerketetan barneratuz... Artikulu gehienak *Lengua y Pueblo* liburuan argitaratu zituen 1980an (Sánchez Carrión, 1980).

Dena dela, bere lanik ospetsuena *Un futuro para nuestro pasado. Claves de la recuperación del euskara y teoría social de las lenguas* izan zen (Sánchez Carrión, 1987). Teoria ezberdinetan oinarrituta, hiztunak sailkatzen ditu, hizkuntzaren jabetza izateko egiten duten ibilbidearen arabera. Prozesu horretan bi ibilbide proposatu zituen: ibilbide naturala (jatorrizko hiztunek egiten dutena) eta ibilbide kulturala (hizkuntza helduaroan jasotzen dutenena). Prozesu horretan, bi ibilbideetan, ezagutza, motibazioa eta erabilera dira ardatzak. Hitztunen sailkapen horretan oinarriturik, euskararen berreskurapenerako eta herriaren egituraketarako teoria proposatu zuen (eskuliburu honen 5. atalean xehetasun gehiago ematen dira).

Hizkuntzaren normalizazio-prozesuan, gako batzuk aurkeztu zituen segida batean emanik, normalizazioaren eta galeraren arteko bidean: hiztunen trinkotasuna eta egituraketa, lege-estatusa, funtzioen banaketa, herri-identitatearen eta autokonfiantzaren indarra eta ondoriozko sormena.

Normalizaziotzat, Aracilen ikuspuntuari lotuta, elebakartasun soziala aldarrikatzen zuen, elebitasun erreala utopikotzat baitzuen. Elebitasun egoeretan diglosia nagusitu eta desoreka horrek prestigio eta estatus ezberdintasunak sortzen ditu eta, ondorioz, hizkuntza gutxitua arriskuan geratzen da.

Txepetxek soziolinguista katalan eta galegoekin harreman estua izan zuen. Interes eta helburu partekatuak izateak eta aldatzen ari zen errealitate soziopolitikoaren protagonista izateak *lruñean sortua* taldea sortzera eraman zituen hainbat arlotako adituak. Taldeak bitzta laburra izan zuen, baina eztabaida eta emaitza mamitsuak utzi zituen, hala nola, Getxon 1984an burututako hizkuntza minorizatuen soziologiari buruz egindako biltzarra eta ondoren argitaratutako liburua: *Hizkuntza minorizatuen soziologia*. Liburuan bertan adierazten denez, bost ikerketa-eremu jorratu ziren jardunaldiotan: *gutxiengotze prozesu historikoa, ordezkatzeko giza prozesua, gutxiengoatzearen ikerketa eta diagnostikoa, normalkuntzaren plangintza eta lege mugak, normalkuntzaren prozesu eta kontra-prozesuak* (Ruiz Olabuenaga eta beste, 1986).

Euskal soziolinguistikaren finkatze-garaia dela esan daiteke. Soziolinguistikaren ekarpenak Euskal Herriko errealitatera aplikatzeko saiakerak egin ziren. Gerora, aplikazio teoriko horiek normalizazioaren aldeko jardueren iparra erakutsi zuten. Horrela, Sánchez Carrión, Xavier Vilhar Trilho eta Jean Haritschellarrek hizkuntzaren alderdi politiko-juridikoari heldu zioten; Karmele Rotaetxe gaitasun komunikatiboaz aritu zen; Agustín Ozamiz hizkuntza eta ideologiaz; Kike Amonarriz udalek normalizazioan duten garrantziaz eta urratsak planifikatzeko beharraz... Gainera, Irakaskuntzaren alderdi ezberdinak aztertu ziren, hiztun elebidunaren ikuspegitik zein irakaskuntzak transmisioan duen garrantziaren aldetik; hizkuntzaren normatibazioa eta estandarizazioa ere estatuko beste ekarpenen bitartez, zein euskara batuan oinarrituta landu ziren;

komunikabideen errealitatearen azterketa eta aurrera begirako proposamenak Antxon Azkargortak, Josu Landak eta Juan Mari Torrealdaik egin zituzten, irratiaz, prentsa idatziaz eta telebistaz, hurrenez hurren. Jarreraren eta motibazioen garrantzia ere jorratu zuten, bai eta estatusari eta plangintzari buruzkoak ere, beste herrialde batzuetako adibideei begira (Yugoslavia eta Eslovenia) eta hausnarketa teorikoa (William F. Mackey, Jose Luis Alvarez Enparantza “Txillardegi”, Lluís V. Aracil...) eta diagnostiko-lanak aurkeztuz.

Arestian aipatutako *Hizkuntza minorizatuaren soziologia* liburuan, hurrengo urteetako euskalgintzaren norabidea markatu zen. Esate baterako, Kike Amonarrizek, udaletan eragin beharra azpimarratu zuen hizkuntzaren normalizazioan zuten garrantziagatik. Borondateetatik harago, plangintzaren beharra aldarrikatu zuen. Artean egindako urratsak aztertu zituen, hau da, udaletan egindako mozio hutsalak, itzulpenean oinarritutako politikak eta zenbait udaletan egindako urrats txikiak (batzorde batzuen eraketa, itzultzaileak dinamizatzaile-lana betetzen hastea eta euskara zerbitzuak sortzea), eta ondorengo urteetan udaletan garatutako hizkuntza-plangintzetako ardatzak eman zituen. Baliabide politikoak, teknikoak eta ekonomikoak jarri beharra eta udalean barrura begirako zein kanpora begirako plangintzak bereizi beharra azpimarratu zituen.

Bestalde, Iñaki Larrañagak, Gipuzkoako erabilera errealari buruzko artikuluan, diagnostikorako bi metodologia oso berritzaile aurkeztu zituen. Hizkuntza-paisaia neurtzekoa bata, eta kale-erabileraren neurketarakoa bestea; biak ere, osteko hizkuntza-plangintzetako diagnostikoetan ezinbestekoak.

Karmele Rotaetxek landutako *gaitasun komunikatibo* kontzeptua oso garrantzitsua izan zen euskalduntze-alfabetatzean. Ildo horretatik, Alfabetatze eta Euskalduntze Koordinakundeak, AEK-k, **Ekintza Bidezko Ikaskuntza** edo *Kulturgintza* deituriko metodologia komunikatiboa bultzatu zuen. Ikas prozesua programatzeko metodologia horrek, hizkuntzaren irakaskuntzarako metodologia komunikatiboa ez ezik, normalizazioan eragiteko bidea ere bilatzen zuen. Benito Fizek honela definitu zuen (Fiz, 2007):

*Ikuspegi honen oinarriak 1985ean argitaratu zen ELE aldizkariaren I. zenbakian azaldu ziren. Funtsezko kontzeptua sasoiari helduen hezkuntzaren munduko jardunbide aurrerakoi batzuetatik hartua zen, ikastaldeak eragile soziala izan behar zuten, ikastearekin batera ingurua eraldatzen lagundu behar zuten. Gure kasura ekarrita, gehienbat euskararen staturarekin nabaritzen zen beharra, euskararen presentzia edo irakaskuntza antidiglosikoa bezalako kontzeptuak erabiltzen ziren sarri.*

*Hau guztia kulturaren kontzeptzio zehatz batetik zetorren, kultura mundua eta komunitatea eraikitzeko eta eraldatzeko ekinbide bezala ulertzen zen, kulturgintza aktibitate sozial eraikitzailea da, beraz. Ikuspuntu pedagogikoa eta normalizatzailea ardatz batean lotzen ziren horrela: “ekintza”. Ikuspegi komunikatibotik hizkuntza-ekintzaren ideia jasotzen zen, hau da, benetako komunikazio-jarduerak antolatzea beharrezkoa da ikas-prozesua eragingarriago suertatzeko. Kulturaren pertzeptzio horretatik kultura-ekintza kontzeptua zetorren bestalde, komunitatean eragiteko jarduerak. Horrela bada, jarduera horietan murgilduta, ikasleak hizkuntza ikasi eta hizkuntzaren normalizazioan eragiten du.*



## 1. SOZIOLINGUISTIKARI SARRERA

Soziolinguistika teorikoaren aldetik beste ekarpen handi bat hasi zen garatzen, hain zuzen ere, Jose Luis Alvarez Enparantza “Txillardegik”-ren soziolinguistika matematikoa (Alvarez, 1984; Alvarez eta Isasi, 1994). Hizkuntzaren erabilera hiru aldagaien arabera dela erakutsi zuen: elebidun-kopurua, mintzakide-kopurua eta hizkuntzarekiko leialtasuna.

Norabide bakarreko elebitasun-egoeretan, A hizkuntza biztanle guztiak ezagutzen dute eta haietako batzuek B hizkuntza ere bai. Baina, gainera, edozein ahozko egoera komunikatibotan, solaskideak binaka, hirunaka, launaka... bil daitezke. B hizkuntza erabiltzeko, biltzen diren taldean guztiak ezagutzea ezinbestekoa da, bakar batek ezagutu ezean, A hizkuntza erabili beharko baitute. Talde batean biltzen diren kideak elebidunak edo elebakarrak izatea probabilitate-kontua da eta, beraz, B hizkuntza erabiltzeko aukerak ere bai; elebidun-kopuruari lotutako probabilitatea da. Egoera horri **egoera isotropikoa** deitzen zaio.

Ezaguna da Joxean Artzeren esaldia:

*Hizkuntza bat ez da galtzen ez dakitenek ikasten ez dutelako,  
dakitenek erabiltzen ez dutelako baizik.*

Arrazoia ukatu gabe, hizkuntzaren ordezkapenaren “erru osoa” hiltzunei leporatzen zitzairen, modu inplizituan. Horren aurrean, hizkuntzarekiko leialtasuna garrantzitsua izanik ere, beste alderdi batzuetan ere eragin beharra agerian utzi zuen teoria matematikoak; euskararen legeztatze edo baimentze hutsak, berez, ez duela erabilera bermatzen, alegia. Hizkuntzaren normalizatorako, erabilera handitu ahal izateko, euskaldunen kopurua handitu beharra ezinbestekoa da.

Txillardegik, bikote, hirukote, laukote eta boskoteetan B hizkuntza erabiltzeko aukera neurtzeko, honako formula proposatu zuen (Alvarez Enparantza, 1984):

$$PB = mB (w_2ex. 2 + w_3ex. 3 + w_4ex. 4)$$

*PB = euskararen erabilera-maila*

*mB = euskararekiko leialtasuna*

*w2 = bikotearen pisua*

*w3 = hirukotearen pisua*

*w4 = laukotearen pisua*

*eX = elebidunen proportzioa*

EKBk *teoria matematikoa* eta Siadecok 1984an Gipuzkoan egindako esperientzia baliatu zituen, 1989an **kale-erabileraren neurketa** egiteko. Harrezkero, 1993an, 1997an, 2001ean eta 2006an egin da (Altuna, 2002). Lehenengo hirurak EKBk, laugarrena Soziolinguistikaren Euskal Institutuak (SEI), eta azkena Soziolinguista Klusterrak gidatu dituzte. Soziolinguistika Klusterraren gidaritzapean, ikerketa-metodologia hau herri eta erakunde askotan aplikatu da, plangintzen diagnostikorako tresna ezin hobea izateagatik. Bestalde, egoera isotropikoan oinarriturik, *Begira* aplikazioa sortu da. Tresna horrek, datu soziologikoak erabilia, etorkizuneko erabilera antzemateko balio du eta ikerketa prospektiboak egitea ahalbidetzen du.



## 1990eko hamarkada

Hizkuntzaren normalizazioan ezagutzatik erabilerarako pausoa eman beharra azpimarratzen hasi zen. Hizkuntzaren transmisio-etena gaindituta zegoen, edo behintzat, irakaskuntzaren eta helduen euskalduntze alfabetatzearen bitartez, nolabaiteko berreskurapena sumatzen zen, eta, ondorioz, erabileran eragiteko baldintzak sortu beharra lehen mailako gai bilakatu zen euskalgintzan.

Hausnarketa horiek guztiak, teoria mailako ekarpena ez ezik, euskararen aldeko ekintzaileen zuzenbide oinarri teorikoa izan ziren, jomuga zehatzak ezartzen lagundu zutenak. Horrela, ondorengo urteetan emaitza ugari etorri ziren, hala nola, **Euskaldunon Egunkaria** (1990), **BAT Soziolinguistika aldizkaria** (1990), **Udalerrri Euskaldunen Mankomunitatea (UEMA)** (1991), Euskaraz Bizitzeko Hitzarmena (Amunategi, 2001), udaletako normalizazio-planak, herri-aldizkariak, hizkuntza-paisaia euskalduntzera bideratutako kanpainak eta, oro har, euskararen normalizazioa helburu zuten elkarte eta erakundeen ekimen gehienak.

**UEMA:** Udalerrri Euskaldunen Mankomunitatea. 1988an Euskal Herrian Euskaraz erakundearen ekimenari erantzunik, hainbat udalek *Euskararen Erabilpena Normalizatzeko Udal Arautegia* onartu zuten, bertako administrazioetan eta udalerrrian euskaraz bizitzeko bitartekoak jartzeko asmoz. Udal horiek UEMA sortu zuten 1991n. 2009an 61 udalerririk osatzen dute. Hiru helburu nagusi ditu:

- Udalerrri euskaldunetan herritarrek egiten duten bizitza sozial guztia, publikoa zein pribatua, euskaraz izan dadin bideak urratzea.
- Udalerrri euskaldun guztiek bat egini, euskara nagusi izango den lur-gunea osatzea.
- Udalerrri euskaldunen garapen sozio-ekonomikoa eta soziokulturala bultzatzea.

Bestalde, 1990eko hamarkadaren hasieran garrantzi handia hartu zuten hizkuntza-eskubideei eta legeztatzeari loturiko ikergai eta ekimenek. Ildo horretatik, 1990ean EKBk *Euskaldunaren Hizkuntza Eskubideak* liburua kaleratu zuen, Euskal Herriko egoera ezberdinetan administrazio bakoitzaren aurrean hitzunez dituzten hizkuntza eskubideak zehazteko asmoz.

Bitartean, Euskal Herriko hegoaldean, eta batez ere, EAEn, Administrazioan lehen plangintzak abiatzen hasi ziren. 1982ko Legean (10/1982 Euskararen Legea) oinarriturik, Herri Administrazioetan Euskararen Erabilera eta Normalizazioa Arautzen duen Dekretua (250/86) onartu zen. Hizkuntza-eskakizunak finkatu eta euskararen erabilera ahoz nahiz idatziz bermatzeko neurriak hartzen hasi ziren. Urte berean Nafarroako *Euskararen Legea* onartu zen, eskualde euskaldunetarako euskarari ofizialtasuna onartzen ziena. 1986an herrialdea hiru zonalde ezberdinetan banatua izan zen: euskalduna, mistoa eta ez-euskalduna.

## 1. SOZIOLOGIA SARRERA

Herri Administrazioen Hizkuntza Plangintzari buruzko Biltzarrean (1988) beste herrialdeetako ekarpenak biltzeaz gain, izandako esperientziak eta hausnarketak ere landu ziren. 1991n *Herri Administrazioen Hizkuntza Plangintza* liburua argitaratu zen biltzarreko emaitzak batzeko (HAEE, 1991).

Sorkuntza teorikoari dagokionez, EKBk, UEUko Soziolinguistika sailak eta *BAT* edo *JAKIN* aldizkariak hizkuntza-planifikaziora bideratutako ekarpen garrantzitsuak egin zuten. EKBk ia sorreratik mahaigaineratu zuen plangintzaren beharra eta oinarri teorikoak jorratu zituen.

Baina Administrazioan ez ezik, lan-munduan ere euskalduntze-planak abiatzeko beharra ikusten zen. 1970eko hamarkadan egindako ahaleginek, euskara ikasteko taldeak antolatzea eta itzulpenak egitera mugatuek, etenaldia izan zuten industria birmoldaketa eta krisiaren ondorioz. Baina 1990eko hamarkadaren hasieran, gaiari heldu eta euskara-planen lehen esperientzia pilotuak sortu ziren.

Gizarte-mailako eskariari erantzunez eta Euskararen Aholku Batzordeak proposatuta, Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Idazkaritza Nagusiak lan-mundurako plangintza proposatu zuen, lan-munduan euskararen erabilera zabaldu eta normalizatzea begira.

Mikroplangintza deitu ziren egitasmo horietan **Artez Euskara Zerbitzua** eta **Elhuyar Aholkularitza** izan ziren aitzindariak, HABEren eta Hizkuntza Politikarako Zuzendaritzarekin batera. ELAY enpresa izan zen lehena; Ikerlan, CAF, Arlan, MCC Koop. E., Fagor Ederlan, Ulma, Kutxa eta Labein hurrengoak. Mundu kooperatiboa izan zen, batez ere, eta bereziki Deba arrokoa, euskara lan-mundura hedatzeko ahalegina egin zuena. Enpresa horietako gidarien sentimendua eta konpromisoak ondorengo urteetarako oinarriak ezartzea ahalbidetu zuen. Fase pilotua amaitutakoan, emaitzak positiboki baloratu eta hizkuntza-mikroplangintzak hedatu egin ziren, baita beste profil bateko enpresa batzuetara ere ([www.erabili.com](http://www.erabili.com)).

Mikroplangintza pilotu horiek abiatu ziren urte berean (1991), hiru liburu garrantzitsu agertu ziren UEUko Soziolinguistikaren eta EKBren eskutik:

### ► *Soziolinguistika gazteentzat*

Iruñean Sortua taldearen emaitzetako bat dugu hau. Soléren liburuak soziolinguistika alderik zabalenera hartu zuen. Hizkuntzaren soziologiari lotutako alderdi nagusiak bildu zituen eta, Kataluniako ikuspegitik, normalizazio linguistikoa lortzera bideratutako teoria aurkeztu. Hizkuntzari berari lotutako ikergaiak hizkuntzalaritzari dagozkiola eta soziolinguistika bestelako arazoez arduratu behar dela defendatzen du egileak. Ondorioz, hizkuntza-ukipenari lotutako kontzeptuak lantzen dira. Elebitasun soziala gezurtzat hartzen da, egoera diglosikoak hizkuntza ahularen kontrakoa delako. Normalizazioa pertsona eleaniztunez osatutako gizarte elebakarra lortzea da.

### ► *Hizkuntza-normalkuntzarako ekinbideak udalerrri-mailan. Planifikaziorako orientabideak*

Borondatetik haratago, normalizazio-bidean gunerik hurbilenean nola eragin azaltzea du liburu honek helburu. Herri-ekimen ugari jarraituz sistemizatuzko oinarria eman nahi zitzaie, borondate onetik harago, plangintzaren dinamikan sartu eta tresna metodologikoz jantzi zitezien.

► *Giro urbanoko gazteak eta euskara*

Hiruretatik berritzaileena. Gizarteko sektore garrantzitsu horren azterketa erabile-  
rarako dituzten jarreraren inguruan garatu zuten Maria Jesus Lezetak eta Elena S.  
Martinek. Ezagutzatik erabilerarako urratsean, gazteek euskararekiko erakusten  
duten jarrera eta portaerak ezagutzera eman zituzten, azterketa kualitatibo baten  
bitartez. Erabileran eragiten duten faktoreak ezagutzea izan zuten helburu, gerora  
ekintza-planetarako erreferentziak izateko.

Euskararen beharrizan ugari erantzuteko, gizarte-talde, administrazio eta enpresak aritu ziren  
elkarlanean. Dinamika horiek euskara-teknikariak ugaritzea eskatzen zuten; izan ere, plangintzak  
gidatzeko ardura izango zuten langileak Administrazioan ez ezik, lan-munduan ere agertu ziren.  
Itzulpengintzatik eta irakaskuntzatik nagusiki etorritako langileen jarduna intuizioan eta ezagu-  
tza tazituan oinarrituta zegoen, formazio aldetik zegoen hutsunea agerian geratzen zen.  
Beharrizan horri erantzuteko, 1992an Iñaki Markok lehen ikastaroak eman zituen UEUren  
eskutik. Dena dela, heziketa-hutsune hori hamarkada osoan nabaria izan zen.

Bestalde, eremu askotan euskarak zuen egoeraren diagnostikoa eta proposamenak biltzen  
zituzten artikulu eta azterlanak egin ziren, hala nola, publizitatean, Justizian, Irakaskuntzan, gaz-  
teen eremuan, osasungintzan eta abarrean.

1993an Jose Manuel Odriozolak hizkuntzak eskuratu berri zituen funtzioak ez zirela nahikoa  
uste zuen. Askok uste zutenaz bestela, ikastolak, ETB... ez ziren hain erabakigarriak izan hiz-  
kuntzaren normalizazioan. Estatuaren helburu uniformatzailearen aurrean, eragin txikia zuten  
apurrak ziren, hizkuntza-boterearen egitura-harremanek ez diote euskaldunari euskaraz hitz  
egitea debekatzen, ezinezko bihurtu baizik (Odriozola, 1993).

Arestian esan bezala, 1997an Xabier Erizek *Soziolinguistika historikoa eta hizkuntza gutxituen his-  
toria: Nafarroako euskararen historia soziolinguistikoa (1863-1936)* doktore-tesia aurkeztu zuen.  
Hizkuntzaren galera aztertzeaz gain, euskarak XXI. mendera arte irautea ahalbidetu duten arra-  
zoiak aztertu zituen, hain baldintza aurkakoetan bizi izanik, gizaldi berrira heltzean duen bizin-  
darraren arrazoiak argitzeko. Horren arrazoi nagusia hizkuntza-komunitateak duen barne-anto-  
lamendua eta trinkotasuna dira. Taldearen bizitasuna da, beraz, biziraupena bermatu diona. Ezer  
baino lehen, *hizkuntza-komunitatea* eta *soziolinguistika* kontzeptuak bere tesian nola erabili zituen  
azaldu zuen, bi kontzeptuok modu ezberdinetan uler daitezkeela onartuz. Soziolinguistika adie-  
ra zabalean landu zuen, hau da, eleaniztasuna, hizkuntzen iraupena eta ordezkapena, hizkuntza-  
rekiko jarrerak, hizkuntza-hautaketa, hizkuntza-plangintza, hizkuntza-aldaketa, dialekto sozialak  
eta abar barnebiltzen dituen adieran. Hizkuntza-komunitatea, berriz, Max Weberrek (1993: 34)  
emandako adieran erabili zuen: hizkuntza bera erabiltzen duen eta talde-kontzientzia duen  
komunitatea.

Erizek tesia aurkeztu zuen urte berean (1997an), Artezek eta Elhuyarrek hasitako bidera beste  
enpresa bat etorri zen, Emun, hain zuzen ere. Enpresa, udal, udalerrri eta elkarteetan mikro-  
plangintzak ugaritu egin ziren.

## Hizkuntza biziberritzeko plangintzak

Baina enpresa horiek bideratutako plangintzak oso testuinguru erdaldunetan sortutako uhartekak ziren. Ondorioz, eragin txikia zuten hizkuntzaren normalizazioan. Euskararen berreskurapen-prozesuak dezelerazio aro batean sartzen hasia zen. Hortaz jabeturik, 1996an hausnarketa sakon bati hasiera eman zitzaion eta, horren ondorioz, 1997an **Euskararen Unibertsoa Jardunaldiak** egin ziren, Hizkuntzaren Normalizatorako Plan Estrategikoa egiteko asmoz. Euska-gintzaren bilkura hark gizartearen inplikazioa bilatu eta babes handia izango zuen plana diseinatzea zuen helburu. Euskararen eta euskarazko kulturaren egoerari buruz kezka bateriko irakurketa egin ostean, gogoeta, eragin soziala eta plangintza ardatz izango zituen prozesua abiaraztea erabaki zen. Horren guztiaren ondorioz, Bai Euskarari kanpainarekin hasi zen prozesuari hasiera eman zitzaion. **Bai Euskarari** akordioaren ondoren, **Euskararen Gizarte Erakundeen Kontseilua** sortu zen egindako Plan Estrategikoaren gidaritza aurrera eramateko.

**Euskararen Gizarte Erakundeen Kontseilua:** Euskararen Unibertsoa jardunaldi eta hausnarketa-prozesuaren ondorioz, 1997an sortu zen Euskararen Gizarte Kontseilua. Diagnostiko eta hausnarketa sakonen ondorioz, Bai Euskarari akordioa eta horren ondorioz sortutako Plan Estrategikoa eman zituen. Kontseiluaren helburuak gizarte-eragileengan eragitea eta plangintza bat garatzea dira.

Euskararen Gizarte Erakundeen Kontseilutik 2001ean **Hizkuntz Eskubideen Behatokia** sortu zen. Hizkuntzaren estatus juridikoaren azterketa egin eta, arlo publikoan zein pribatuan, euskaldunon hizkuntza-eskubideen aldarrikapena egitea da bere helburua. Besteak beste, urtero hizkuntza-eskubideen urraketen inguruko txostena kaleratzen du.

**Hizkuntz Eskubideen Behatokia:** Hizkuntz Eskubideen Behatokia Euskararen Gizarte Erakundeen Kontseiluak sustatu eta bideratu duen fundazioa da. 2001eko ekainaren 26an Iruñean sortu zen. Euskal Herriko herritarren hizkuntza-eskubideez arduratzen da. Bere egitekoak dira eskubide horiek Euskal Herri osoan, arlo publikoan zein pribatuan, babestu eta sustatzea, batetik; eta urraketak salatzea, bestetik.

Era berean, **Euskararen Aholku Batzordeak** bultzatuta, 1999an Eusko Legebiltzarrak **Euskararen Biziberritzeko Plan Nagusia** onartu zuen (Eusko Jaurlaritza, 1999). Hauxe da Euskal Autonomia Erkidegoan egin den hizkuntza-politikaren lerro nagusiak markatuko dituen plana, herri-administrazioek aurrera eramango dituzten ekimenak eta lan-lerroak bideratuko dituen.

**Euskararen Aholku Batzordea:** hizkuntza-normalizazioaren diharduten erakunde publiko nahiz pribatuaren ahaleginak eta ekintzak aztertzeke, bideratzeko eta koordinatzeko Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailari Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren bitartez atxikitako harreman-organoa.

**Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia (EBPN):** 1999an abiatuta, euskaraz bizi nahi duten herritarrei horretarako aukerak bermatzeko behar diren hizkuntza-politikako neurriak erabakitzea eta bultzatzea helburu duen plangintza estrategikoa. Funtsean, Euskal Herrian, maila pertsonalean, sozialean eta ofizialean, euskararen berreskurapen osoa lortzeko euskararen aldeko urratsak areagotzea. Hiru lan-esparru (edo helburu estrategiko) ezartzen ditu:

- Euskararen belaunaldiz belaunaldiko transmisioak etenik izan ez dezan lortzea.
- Euskararen erabilera gizarteko esparru guztietara zabaltzea.
- Euskara bera, komunikazio-tresna den aldetik, lantzea eta aberastea.

Euskarak 1998an zituen ahuleziak, indarguneak, aukerak eta mehatxuak aztertu ondoren, hizkuntzaren normalizazio bidean eman beharreko pausoak biltzen zituen plana egituratu zen. Printzipioen artean dago, maila pertsonalean, sozialean eta ofizialean euskaraz bizi nahi duten herritarrei horretarako aukerak bermatzea. Zentzu horretan, egoera soziolinguistikoa edozein izanik ere, euskararen aldeko diskriminazio positiboaren alde egiten du.

Planak hiru alderdi nagusi bereizten ditu:

- Euskara ondorengoetaratzea. Euskararen belaunaldiz belaunaldiko transmisioak etenik izan ez dezan lortzea. Horren barruan daude familia bidezko jarraipena, irakas-kuntzaren bidezko hizkuntzaren eskurapena eta hiztun helduak euskalduntzea.
- Euskararen erabilera. Euskararen aldeko auzogintza eta zerbitzugintza. Honen helburua euskara gizarteko esparru guztietara zabaltzea da. Esparruz esparruko azterketa egiten da.
- Euskararen elikadura. Hizkuntza bera lantzea eta aberastea. Corpusari begirako atal honetan hizkuntzaren kalitatea ez ezik, liburugintza, komunikabideak, publizitatea eta kulturgintza ere sartzen dira.

EBPN, gizarte arloetan ez ezik, inguru geografiko jakinetan ere garatzen da, tokian tokiko ego-

era soziolinguistikora egokituz. Horretarako, herri-tipologia baten arabera, lehenetsun batzuk markatzen dira eta, ondorioz, egokitutako neurriak.

Aurrerago sortutako Bai Euskarari ziurtagiriek eta EBPNtik eratorritako diru-laguntzek eragin handia izan dute eta, ondorioz, gero eta enpresa, elkarte eta udalerrri gehiago daude hizkuntza-planetan murgilduta.

## 2000ko hamarkada

Plangintza horiek jarduera soziolinguistikoaren etorkizuna baldintzatu dute. Alde batetik, beharrian jakinetara bideratutako ikerketak ugaritu dira. Bestetik, erabilera bultzatzeko kontuan hartu beharreko aldagaien inguruko lan teorikoek eta horien aplikazioek protagonismo berezia hartu dute.

2000. urtean Nekane Jausorok soziolinguistikarako prestakuntzaren inguruko diagnostikoa egin zuen *Soziolinguistika akademikoa* artikuluan (Jausoro, 2000). Bertan, normalizazioan aritu behar ziren teknikarien prestakuntzaren aldetik, gabezia handia sumatzen zen. Hutsune horri aurre egiteko, unibertsitateetan antzemandako hutsunea betetze aldera, Eusko Ikaskuntzaren **Asmoz fundazioak** Hiznet eta Linguanet ikastaroak abiarazi zituen.

Hiznet 2001ean sortu zen, esan bezala, Asmoz fundazioaren eskutik eta, gaur egun, erakunde horrek ez ezik Euskal Herriko Unibertsitateak ere berezko tituluen artean eskaintzen du, Hizkuntza Plangintza Unibertsitateko Espezialista izenpean. Lanean ari diren teknikarientzat eta bestelako ikasketak burututa hizkuntza-plangintzan sakondu nahi dutenentzat egokitutako graduondoko hau on-line gauzatzen da nagusiki. 31 kreditutan, oinarri teorikoak lantzeaz gain, graduondokoetan ohi den bezala, ikerketa lan bat egin behar da. Hiznet abiatu zenetik lan ugari burutu izan dira, gai eta ezaugarri metodologiko ezberdinak erabilia. Ikastaroaren webgunean eskuragarri dauden lan horiek ekarpen handia egin dute, besteak beste, idazlan hau osatzeko.

Hizneten anaia txikia Linguanet da. Graduondokoa egiteko aukera izan ez baina gaien interesa dutenei begira sortutako ikastaro hau 2004an hasi zen. Interneten bidez eta hiru tailerretan banatutako 50 ordutan, oinarri teorikoak lantzeaz gain, kasu praktikoak ezagutzeko aukera dago.

Azpeitiko Euskara Zerbitzuak 2003an **erabili.com** webgunea sortu zuen, gerora euskalgintzaren ezinbesteko tresna bilakatu dena. Bertan hizkuntzaren estatusarekin zein corpusarekin lotutako gaiak lantzen dira eta, denbora laburrean, hausnarketarako, informazio zabaltzeko eta eztabaidarako funtsezko erreferente bilakatu da.

Internet oinarritzko tresna eta leiho bihurtu da hizkuntzen panoraman. Globalizazioaren ikur nagusi bilakatu den sare horretan egotea ezinbestekoa da hizkuntza biziko bada. Zentzu horretan, euskarak ere sarean bere lekua izan dezan, ahalegin handiak egin dira nola erakundeetatik, hala gizarte eragile eta enpresetatik. Horren erakusle da **BAT** soziolinguistika aldizkariaren 48. zenbakia, 2003an *Teknologia berriak eta euskara* titulupean argitaratu zena.

Baina globalizazioak baditu bestelako ezaugarri batzuk ere: mugikortasunerako erraztasuna, migrazio kopuru handia, ingelesaren *nazioarteko hizkuntza* izaera, eleaniztasuna, kodeen nahasketa...

2006an UNESCO Etxeak *Hizkuntzen Mundua; Munduko hizkuntzei buruzko txostena* kaleratu zuen. Leioan, 1996an, hizkuntza-politikei buruz egindako Linguapax mintegitik eratorri eta Federico Mayor Zaragozak bultzatutako egitasmo horretan, munduko hizkuntzen inguruko azterketa sakona egin zen. Eusko Jaurlaritzako Kultura sailak sustatu eta EHUK argitaratu zuen. Bertan, munduko hizkuntzen egoera aztertzeaz gain, aditu askoren laguntzaz, minorizazio-egoeretara heltzeko arrazoietan eta aurrera egiteko bideetan ere sakontzen da. Egitasmoaren jarraipena Amarauna egitasmoaren bidez egiten da.


Plangintzen barruan transmisiorako, erabilera-arlo ezberdinetara hedatzeko eta hizkuntzaren kalitatea zaintzeko bideak jarrita, bestelako alderdi batzuk protagonismoa hartuz joan dira. Horrela, hizkuntza ezagutzera nahiz erabiltzera bultza dezaketen motibazioen inguruko azterketek garrantzia hartu dute.

Maria-Jose Azurmendik 1980ko hamarkadaren hondarretan psikosoziolinguiстикan oinarritutako azterketak egin zituen, ukipen egoeran zeuden hizkuntzen kasuetan, gazteen erabileran jarrerak, identitateak eta gizarte-testuinguruak duten garrantzia aztertuz (Azurmendi, 1986). Harrezkero, euskara ikasten ari diren helduek dituzten jarrerak eta motibazioek ikas-prozesuan duten eragina aztertzeraz bideratutako lan ugari agertu dira. Josu Peralesek 1989an Gipuzkoako udal-euskaltegietako ikasleen artean egindako lanaren ildotik joan dira, besteak beste, Nekane Arratibelen doktore-tesia (Arratibel, 1999), Maite Otegi ikerketa kuantitatiboaren zein kualitatiboaren bidez egindakoa (Otegi, 2006), edota Arratibelek berak, Maria-Jose Azurmendik eta Iñaki Garciak 2001ean kaleratutako *Menpeko hizkuntzen bizi-kemena* lana ere. Bertan, hizkuntzaren jabekuntzan eta erabileran eragiten duten faktore psikosozialak aztertu zituzten eta **bizindar etnolinguiстикoaren** garrantzia ere azpimarratu zuten.

Bizindar etnolinguiстикoari, 1980ko hamarkadatik erabiltzen den kontzeptua bada ere, indar berezia eman zion 2004an Ibon Usaralde eta Iñaki Martínez de Lunak egindako lanak. Ikerketa hartan, Andoain, Arrasate, Bergara, Hernani eta Lasarte-Oriako bizindar etnolinguiстикoa neurtu zuten, Howard Giles eta R.Y. Bourishen ereduari jarraiki. Bizindar etnolinguiстикoaren eta erabileraren artean harreman zuzena dagoela frogatu zuten (Usaralde eta Martínez de Luna, 2004).

Kezka ugari sortu dituen beste arlo bat gazteen erabilerari loturikoa izan da. Ezagutza-mailarik altuena duen gizarte taldea izanik, erabilerarako urratsean garrantzia duten aldagaiak aztertzeraz begira, 2000. urteko abenduan *Etorkizuna aurreikusten 99: Euskal Herriko gaztetxoak eta euskara* lana kaleratu zuten hainbat egilek (Martínez de Luna eta beste, 2000). Horretan oinarrituta, Martínez de Lunak *Euskal Herriko gaztetxoaren hizkuntza-egoera aztertzeke eredu orokorraren proposamena* eman zuen argitara (Martínez de Luna, 2001). Bertan, gazteen artean gertatzen den erabileraren nondik norakoak aztertzeke hiru alderdi hartu behar direla kontuan defendatzen du: lehenik eta behin, norbanakoaren ezaugarriak (gaitasuna eta hizkuntzarekiko jarrerak); bigarrenik, gizartearen egitura (hizkuntzak bertan duen prestigioa); hirugarrenik, harreman sareak (euskaldunekikoak eta besteekikoak). Hona proposatzen duen eskema:

### HIZKUNTZA BIZIAREN EUSKARRIAK (edo erabileran eragiten duten faktoreak)



6. irudia: hizkuntza biziaren euskarriak (Martínez de Luna, 2001).

Gazteen testigantza oinarri izanda, AMIA eskemaren bitartez, egoera sakon aztertu zuen eta horrela, metodologia hertsien aurrean, ikuspegi zabala eskaini.

Jarrerren inguruko teoriak emaitza praktikoak eman dituzte, hau da, ezagutza teorikoan oinarrituta plan eta egitasmo ugari sortu dira: Ulibarri programa irakaskuntzarako, Kuadrillategi talde naturaletarako...

2003an, Martínez de Lunak euskararen inguruko diskurtsoak aztertu zituen, eta disonantzia kognitiboa deitu zion pertsona batek dituen uste, sinesmen eta desio deklaratuak eta bere hizkuntza-jardueraren arteko desorekari (Martínez de Luna, 2003). Era beran, gizartearen dagoen soziolinguistikaren inguruko ezjakintasan uste okerrak sortzen dituela adierazi zuen. Horren ondorioz, euskalgintzan dabilzanek eta herritarrek, oro har, euskararen egoeraren inguruko hautemate ezberdina izaten dute.

Jarrerren inguruko alderdiekin amaitzeko, **Unesco Etxeak** 2009an erdaldunek euskarari buruz dituzten jarreretik ikerketa kuantitatiboa eta kualitatiboa burutu du: *Erdaldunen euskararekiko aurreiritziak eta jarrerak*. Bertan euskararen alboan bizi baina euskaraz ez dakitenek hizkuntzarekiko nahiz normalizazioarekiko dituzten jarrerak aztertu dira. Hainbat kasutan *bi mundu* bereizten dituztela ondorioztatu ahal izan da (Amorrortu eta beste, 2009).

## Globalizazioa

Mundu globalizatuan, kultura ezberdinak, eta, beraz, hizkuntzak, harremanetan daude. Baina harreman hori gauzatzeko, bi solaskideetako batek, gutxienez, bere lehen hizkuntza ez den hizkuntza ezagutu behar du. Hizkuntzak ezagutzeak, beraz, kultura eta pertsona asko ezagutzeko aukera ematen du. Hala ere, komunikazio horietan hizkuntza-hautaketa hizkuntza nagusien aldekoa izaten da gehienetan. Horrela, mundu-mailan ingelesak hartu du lingua franka izaera. Euskal Herrian, berriz, kanpotik datozen etorkinentzat espainola eta frantsesa dira komunikazio-hizkuntza nagusiak.

Egoera horietan, Iñaki Martínez de Lunaren ustez hiru aukera daude (www.euskonews.com):

- A aukera: jatorrizko hizkuntzak albo batera utzi eta komunikatzeko estatu- edo mundu-kode handiak soilik geureganatzea, eta horrela garapen ekonomiko eta kul-



tura-uniformetasunaren alde egitea.

- B aukera: hizkuntza gutxituaren komunitateak berearen alde egitea eta hizkuntza nagusiaren hitzun-komunitatearekin aurrez aurre jartzea, hau da, gatazka linguistikora jotzea.
- C aukera: hizkuntza-aniztasuna eta talde-identitateak zaintzea, kultura bakoitzak sortu duen iraupeneko eta herri-jakintzako ekosistema tradizionala desagertzeak ekarriko lukeen pobretasuna eta anomia saihesteko.

Globalizazioaz eta ingelesaren eraginaz, David Crystalen *Hizkuntzen Iraultza* euskarazko bertsoia argitaratu zen 2007an. Obra honetan munduko hizkuntzen panoraman eragiten duten hiru gertakari nagusiak aztertzen ditu: ingelesaren nagusitasuna hizkuntza global gisa, hizkuntza askok duten desagertzeko arriskua eta Interneten eragina hizkuntzetan. Hizkuntzen ekologiaren ikuspegitik, hizkuntza bakoitzaren biziraupena munduko beste hizkuntza gutxituen patuaren arabera ere badela uste du.

Egoera horrek eragin zuzena du hizkuntzen barne-egituretan ere; izan ere, batetik, hizkuntza gehienak anglizismoz betetzen ari dira; bestetik, ingelesa hain jatorri ezberdinetako hitzunek erabiltzeak sarritan hizkuntza horren kalitatean eragin zuzena izaten du eta, hizkuntzen biziraupenaren adierazgarri, ingelesaren aldaera berriak sortzen ari dira, ingelesa darabilten hitzunen hizkuntzek substratua uzten baitute.

Euskal Herrian mehatxu horiei aurre egiteko neurriak jartzeko beharra azpimarratu dute hainbat ikertzailek. 2000ko hamarkadan asko idatzi da etorkinak euskarara erakartzeko egin beharreko ahaleginez, ingelesak irakaskuntzan izan behar duen tokiaz eta Interneten nahiz teknologia berrietan euskarak izan behar duen presentziaren garrantziaz.

Testuinguru horretan, 2008an zehar Euskararen Aholku Batzordetik bultzatutako Euskara XXI eztabaida prozesua egoeraren azterketa egin eta erronka berriei aurre egiteko bidea argitzeko ahalegina izan da. Eusko Jaurlaritzak HPSren bitartez bultzatutako prozesu horrek Euskara Batzordetik sortutako txosten bat izan zuen oinarri eta hainbat adituk eta herritarrek egindako ekarpenen ondoren hizkuntza-politikaren oinarri izateko helburua duen bigarren txosten osatu bat kaleratu da (Eusko Jaurlaritza, 2009).

## Corpusaren inguruko kezak

Corpusaren plangintzari dagokionez, aztergai nagusiak euskara batua eta euskalkien arteko osagarritasuna, hizkuntzaren erregistro batzuetan izan daitezkeen gabeziak eta beharrian berrietara egokitzeko jorratu beharreko bideak izan dira (5. atalean informazio xeheagoa ematen da).

Euskara batuaren inguruko eztabaida sorreretan baino lasaiagoa da, baina bizirik jarraitzen du. Aldaera estandarren hedapenak, batetik, hitzunen artean komunikatzeko erraztasun handiagoa izatea ahalbidetu du, baina bestetik, hizkuntza idatzirako bultzatutako eredia izanik, jatorrizko hizkeren freskotasun eta aberastasun falta izan ohi du, batez ere zenbait erregistrotan.

Koldo Zuazok Deba ibarreko euskalkiari buruzko lanean (Koldo Zuazo, 1999) corpusari lotutako planifikazioan kokatuko hausnarketak egin zituen.

## 1. SOZIOLINGUISTIKARI SARRERA

Egindako bideaz, Zuazok batuak ekarri dituen sei onura azpimarratu ditu:

1. Euskaldun guztiok elkar ulertzen dugu.
2. Edozein gairi buruz hitz egiteko balio du.
3. Erdaldunek ikasi dute.
4. Euskara mundura hedatu du.
5. Herritartasuna sortu du.
6. Hizkuntza izaera lortu du.

Etorkizunari begira, euskara batua osatu beharra dagoela uste du eta, horretarako, herri-hizkerak iturria izan behar direla.

*Euskararen sendabelarrak* lanean (Zuazo, 2000) euskararen egoerari arazoak ikusten zizkion eta konponbideak premiazkoak zirela uste zuen, euskara batuaren beharra eta emaitza onak onartuta ere. Gaitz asko ikusten dizkio hizkuntzari eta berehalako irtenbideak behar direlakoan dago. Gaitz horien konponbidea euskalkietatik etor daitekeela uste du. Hortik, *nazioko batua*, *eskualdeko batua* eta *herrialdeko batua* bereizi zituen. Aldaera horietako bakoitzari esparru edo testuinguru ezberdinak dagozkio.

*Euskalgintza XXI. mendeari buruz* izenez burututako Euskaltzaindiaren nazioarteko XV. Biltzarrean, Zuazok euskara batua guztiz amaitu eta gauzatu gabe dagoela eta honako hiru pausoak eman beharra azpimarratu zuen:

1. Hizkuntza bere osotasun guztian arautu behar da.
2. Euskaldun guzti-guztiek erabat onartu behar dute Euskaltzaindiak aurkeztu duen eredia.
3. Euskaldun guztiek eredu hori ezagutu, eta erraz eta eroso erabiltzeko gauza izan behar dute.

Baina, hala ere, euskara batuari lau gaixotasun antzematen dizkio:

1. Hitzunak erakartzeko ahalmenik ez izana.
2. Hizkuntza sortzeko sena ihartu izana.
3. Guraso eta seme-alaben arteko hizkuntza lotura eten izana.
4. Euskara arrotz eta exotikoa garatu izana.

Euskalkiak eta batua erabiltzeko guneak, funtzioak eta egoerak finkatzea beharrezkotzat jotzen du. Egoera normalizatuan, herriari berari dagokio erabakitzea halako egoeretan nolako hizkera erabili. Izan ere, gizarteak berak zigortzen ditu erabilera ez-konbentzionalak eta saritzen erabilerak aberats, egoki eta emankorrak. Gaur egungo gizartean emankortasun hori bidera daiteke eta “modak” edo joerak elikatu egin behar dira.

Euskara batuak eremu ezberdinetan izan duen eraginaren inguruko kezka hedatu egin da. Euskara “jatorra”, tokian tokikoa, galduz doala eta eredu estandarrek (batuak) eta erdarek duten eraginak

hizkuntzaren kalitateari eragiten diotela nabarmendu dute hainbat autorek. Antton Kazabonek, Oiartzungo kasuan oinarrituta, lagunarteko solasaldietan **euskañol** izenez ezaguna den aldaera gailentzen ari dela dio eta garai bateko hizkera berreskuratzea zail ikusten du (Kazabon, 2002). Euskañol delako aldaerari atal berezia eskaintzen zaio eskuliburu honen 3. atalean.

## Soziolektoen azterketa

Bestetik, soziolinguistikaren alderdi linguistikoa ere, aldakortasuna (soziolinguistika zentzu herstian), lekua hartzen hasi da. Hizkuntzen aldaeran, dialektologiatik harago, *adina* aldagaiak hartu du garrantzi berezia. Horrela, Imanol Esnaolak bere doktore-tesian oinarritutako gazteen hizkerari buruzko lana kaleratu zuen 1999an (Esnaola, 1999). *Gazte-itxura* ematen zioten ezaugarriak, nagusiki, erdaratikoak zirela ondorioztatu zuen. Esnaolaren ustez, hizkuntzaren ezaugarrietan hiru mailako aldagaiak daude: orokorrak, eremu soziolinguistikoen arabera eta subjektuen arabera.

Beste ikerketa-ildo bat lanbide jakinei bideratutakoa da, jergak aztertzea begira daudenak. Horien artean, gehienetan lexikoa aztertu eta gordetzeko helburua duten lanak izan dira. Horren adibide garbia da Mikel Etxaburu Osak, 2007an burututako doktore-tesian, Ondarroako arrantzaleen inguruan egin zuen azterketa.

Sánchez Carriónnek hizkuntzaren soziologiaren ildotik *Soziolinguistikaren atarian* lana argitara eman zuen; Iñaki Caminok (Camino, 2003), berriz, *Euskal soziolinguistikaren atarian* artikulua kaleratu zuen. Hizkeren barne-egituraketa, arauen monozentrismo edo plurizentrismoa, euskalkien prestigioa eta beren funtzio komunikatiboak eta identitarioak aztertu zituen, baita estandarrak bete behar duen lekua eta bere inguruan sortutako jarrerak ere. Caminok berretsi zuen moduan, *maila geografikotik maila diastratikoan lan egitera jo dute hizkuntzalariek eta horrela soziolinguistikaren gunera hurbildu*.

Industrializazioak, urbanizazioak edota estandarizazioak hizkuntzaren baitan sortutako aldaketak hain handiak izanik, aldaera berriak aztertzea beharrezkoa da.

Bestalde, euskara batuak idatzizko ereduaren inguruko ikerketa ugari sortu ditu, baita ahozko hizkera eraldatu ere. Zentzu horretan, hiltunen ahotan hizkuntzak dituen ezaugarriak batu eta deskribatzeko ahaleginak ere izan dira. Dialektologiaren ekarpena izan da, batez ere.

Gotzon Aurrekoetxea buru duen EUDIA ikerketa-taldeko partaideek Euskararen Atlas Soziolinguistikoa (EAS) egitasmoa jarri dute abian. Lan honen helburua, batetik, azterketa geolinguistikoa egitea da, baina, bestetik, adinaren arabera aldea neurtzea ere bai. Ondorioz, ikerketa soziolinguistikoa ere bada.

Ekimen horren bultzatzaileen ustez, dialektologiak bi ildo barnebiltzen ditu: bertikalki nahiz horizontalki egindako azterketak. Horregatik, hizkeren arteko aldea geografikoki nahiz sozialki aztertu dituzte.

Baionako *Iker* taldeak ere, aldagai sozialek hizkuntzan duten eragina aztertzea bideratutako egitasmoak abiarazi ditu.

## 1.3. HARREMANAK AUZO–DIZIPLINEKIN

### 1.3.1. Dialektologiarekin

Dialektologiak hizkuntzen aldaera diatopikoak aztertzen ditu. **Dialektoa** hizkuntza baten aldaera geografikoa da, geolektoa; eremu jakin bateko hiztunek egiten duten sistema oso batean oinarritutako **azpisistema**.

**Dialektoa:** lurralde mugatu batean hitz egiten den hizkuntza-aldaera, sistema linguistikoa ezaugarri bereziak dituena. Geolektoa. Aldaera diatopikoa.

Hizkuntzaren inguruko zientzien artean, tradizio handienetakoa du dialektologiak. Grekoek sortu zuten dialekto hitza, eremu jakinetan erabiltzen zen hizkera mota izendatzeko.

Gerora, konnotazio ugari jaso ditu dialekto hitzak, batez ere hizkuntza-gatazka egoeretan, prestigio nahikorik lortu ez duten hizkuntzei modu despektiboan aplikatu baitzaie. Hizkuntza bat dialektotzat hartzeak funtzionaltasuna mugatu eta prestigioa gutxitzea dakar. Jarrera glotofobiko horien atzean, hiztun taldearekiko mespretxua ere gordetzen da; izan ere, bere hizkuntzaren gaineko erabakiak hartzeko gaitasuna ere ukatzen zaio.

Dialektologiak dialektoak aztertzeko helburua duen bezala, soziolinguistikaren zeregina da hizkuntzaren estratifikazioa azaltzea. Horretarako soziolektoen deskribapena egitea beharrezkoa da, dialektologiarentzat aldaera geografikoak aztertzeko den bezala. Koldo Mitxelena honela definitu zuen bi diziplina hauen arteko lotura:

*La sociolingüística, más reciente que adulta, trata ante todo de darles una nueva dimensión, en una estratificación que podemos llamar vertical, que complete la visión plana de la dialectología antigua y externa (Mitxelena, 1971b, 73. or. in Odriozola, 1992).*

Hizkuntzaren aldaerak hiru taldetan bana daitezke:

Dialektoa	Soziolektoa	Erregistroa
Aldaera diatopikoa	Aldaera diastratikoa	Aldaera diafasikoa
Kokagune geografikoaren arabera	Gizarte taldearen arabera	Egoera komunikatiboaren arabera
Adibidez: euskalkiak	Adibidez: gazteen hizkera	Adibidez: egoera formaletako hizkera

I. taula: hizkuntza-aldaerak.

Dialektologia tradizionalako metodologiak eta teknikak erabat pertinenteak dira izaera sozial-eko aldaeren inguruko datuen bilketarako eta konparaziorako. Dialektologiak aldaera diatopikoak aztertzen ditu, soziolinguistikak, berriz, aldaera diastratikoa du helburu. Hirietako dialektologian ere estratu ezberdinak dira, azken finean, aztertzen direnak. Zentzu horretan, soziolinguistika, bere zentzu hertsian, dialektologiaren oinordekoa dela esan daiteke.

Hala ere, dialektologiak aldaera geografikoak sistema diren heinean aztertzen ditu, hau da, azpi-sistemaren deskribapena egitea du helburu. Soziolinguistikak, berriz, aldaera gizarte-testuinguruan azaltzea bilatzen du. Alde batetik, hizkuntza-aldagai batzuen (lexiko, fonetiko nahiz sintaktiko) deskribapena egin eta horiek azaltzeko arrazoi sozialak bilatzen ditu. Labovek, New Yorkeko *r* fonemaren ebakerak aztertu zituenen, bakoitza gizarte maila bateko kideen ezaugarria zela ondorioztatu zuen (2. atalean informazio xeheagoa ematen da).

Bestetik, gizarte-talde ezberdinen hizkeren ezaugarri nagusiak biltzen ditu. Jergak deskribatzea hizkuntzaren aldakortasuna aztertzeko beste modu bat da. Dialektologia tradizionalak landa-eremuetako aldaerak aztertu ditu nagusiki. Hala ere, 50eko hamarkadan, dialektologia urbanoak lehen urratsak egin zituen. Hiria hizkuntza-arauen sorgune garrantzitsua da eta, beraz, bertan gertatzen diren aldaerak aztertzeko funtsezkoa da. Azterketa-mota horrek gizarte-dialektoak ezagutzea ekarri zuen. Horiei soziolektoak edo gizarte-dialektoak deitu zitzairen. Ildo berean, dialektologia soziala edo soziodialektologia izenak ere erabili dira (Moreno Fernández, 1998).

Soziolinguistikak, bestetik, aldaera bakoitzak duen prestigioa ere neurtzen du. Aldaketa linguistikoa gertatzeko, aldaera batzuk orokortu egin behar dira, hedatu. Hitzunek badute gaitasun soziolinguistikoa, hau da, prestigiozko aldaerak zeintzuk diren identifikatzen dute eta horiek erabiltzeko joera izaten du. Normalean gizarte-mailako goi-estratueta erabiltzen diren aldaerak izaten dira prestigio gehien lortzen dutenak eta, beraz, hedatzeko aukera gehien dutenak. Dialektologiak ere aldaeren hedapenari begiratu izan dio. Hizkuntza-aldaketan garrantzia hartzen duten indarguneak zeintzuk diren eta berrikuntzen hedapen-fluxuak nondik norakoak diren aztertzen da. Ondorioz, aldaketa bera bihurtu da aztergai. Gauza jakina da dialekto batzuek besteek baino prestigio handiagoa dutela. Bonaparteren laguntzaileek ere konstatatu egin zuten errealitate hori (2. atalean informazio xeheagoa ematen da).

Hizkuntza-corpusaren normalizazioari loturik, aldaera bat estandar bihurtzeko edo berria sortzeko langintzan aritzen diren hizkuntzalariek irizpide ezberdinak erabili ohi dituzte: hedatuena, gainontzekoentzat ulergarriena, botere politikoa edo ekonomikoa duen zonaldeetako... Estratifikazio soziala kontuan hartuz, normalean gizarte-maila altuko taldeen aldaerak hartu ohi dira oinarritzat.

Dialektologiak azterketa diakronikoan zein sinkronikoan tradizio handia du. Soziolinguistikak, berriz, azterketa sinkronikoa egiten du nagusiki.

Bestalde, metodologiari dagokionez, hizkuntza-geografian arituek (hizkuntza-atlasgintzan dihardutenek) erabiltzen dituzten isoglosak ez dira pertinenteak gizarte-mailako bariazioak neurtzeko.

## 1. SOZIOLINGUISTIKARI SARRERA

Dialektologoeok sarritan aldagai sozialak ere aztertu dituzte euren azterketetan; izan ere, dialektuak erabiltzen dituzten taldeak ez dira homogeneoak. Sarritan sexuaren edo adinaren arabera ezberdintasunak azpimarratu izan dira azterketa dialektologikoetan, hala nola, Manuel Alvar-ek egindako Andaluziako atlas linguistiko eta geografikoan.

Euskal dialektologiak ere gizarte-mailako datuak eman dizkigu, nahiz eta batez ere landa-eremuei begira egon den. Arestian aipatu bezala, Euskal Herriko atlas soziogeolinguistikoan ere belaunaldien arteko ezberdintasun linguistikoak neurtzen dira. Koldo Zuazok arrantzale eta barrualdeko herritarren artekoa, artzainena, mugalariena, eibartar langileena... aipatzen ditu (Zuazo, 2005). Iñaki Gamindek prosodiaren alderdia landu du aldagai sozialei loturik. 2009an Txillardegiri eskainitako BAT soziolinguistika aldizkariko alean, sexuaren aldagaia erkatu zuen prosodiari lotutako aldagaiekin. Bide berri horren lldotik, Bizkaiko gazteen prosodia euskaraz eta gaztelaniaz aztertu du, eskuliburu hau egin bitartean argia ikustekotan den lanean. Horiek guztiek agerian uzten dute, euskaraz ere, nahiz eta asko dagoen aztertzeke, gizarte-mailako ezaugarriak hizkuntzan islatzen direla.

### 1.3.2. Komunikazioaren etnografiarekin

**Komunikazioaren etnografia:** gizakien elkarreragina aztertzeraz bideratutako hizkuntzaren antropologiaren adarra. Talde etnikoak aztertzeraz bideratutako diziplina sorreran, edozein hizkuntzarako egoerak aztertzerazabaldu da. Dell Hymes du bultzatzaile nagusi.

Dialektologiaren ikuspegitik aldaera diatopikoak eta soziolinguistikatik diastratikoak aztertzen dira; komunikazioaren etnografiak, berriz, aldaera diafasikoen garrantzia azpimarratzen du, hau da, egoeraren arabera hizkuntzaren erabilera.

Dell Hymes (1971) izan zen arlo hau gehienbat jorratu zuena. Chomskyk proposatutako *hizkuntza-gaitasunaren* aurrean **komunikazio-gaitasuna** proposatu zuen. Bere ustez, hizkuntzaren ezagutzak, hau da, sistemaren ezagutzak, ez du komunikazioa modu egokian gauzatuko dela bermatzen. Hitzun batek gizarte jakin batean komunikatzeko hizkuntzaz gain, bestelako kontentzio asko ezagutu behar ditu. Elkarreraginerako arauak, arau moralak, gizarte antolamendua edota umorearen trataera ezagutzea funtsezkoa izango da komunikazioa modu egokian gauzatzeko.

Haurrek hizkuntzaren eskurapen prozesuan ez dituzte soilik hizkuntzaren arauak jasotzen, beste arlo askotako ezagutza ere eskuratzen dute aldi berean, egoki komunikatzen laguntzen dietenak. Adibidez, zein gairi buruz hitz egin dezaketen eta zeini buruz ez, noiz hitz egin eta noiz ez, nolako tonua erabili behar duten egoera bakoitzean eta abar. Finean, gizarte mailako adostasunak ezagutu behar dituzte, hizkuntza ezaugarri horiei egokitzeke.

Komunikazioaren etnografiak, hizkuntza gizarte-komunikaziorako tresna den aldetik aztertzen du, eta betiere, testuinguruaren baitan. Normalean komunitate edo talde txikiekin lan egiten du. Behaketan oinarritutako ikerketak egiten ditu, ikerketa kualitatiboa eginez, nagusiki.

Diziplina honen aitzindariak, hasieratik, hizkuntzaren erabilera egoera komunikatibora egokitzeko beharra azpimarratu zuten. Horretarako, gaitasun gramatikalaz gain, hiztunak gaitasun diskurtsiboa eta estrategikoa ere beharrezkoak ditu. Egoera komunikatibo bakoitzean modu egokian aritzeko gaitasuna.

Egoera komunikatiboa hiztunak hizkuntza erabiltzean eragina duten faktoreak dira. Igorlea, hartzailea, komunikazioaren helburua eta gizarte-esparrua dira elementu horiek. Hitztunek ez dute berdin hitz egiten amarekin edo lagunarekin, dirua eskatzeko ala doluminak emateko, banke-txean ala futbol-zelaian.

Hiztun batek tabernan, lagunartean, unibertsitatean irakaslearekin hitz egiten duen moduan hitz egiten badu, esaldi zuzenak egingo ditu, ez du akatsik egingo, baina komunikazioa arraroa izango da. Bere hizkera ez da egokia izango.

Chomskyren **zuzentasuna** kontzeptuaren aurrean, **egokitasuna** planteatzen zuten komunikazioaren etnografiaren inguruko ikertzaileek. Gaitasun komunikatiboak gaitasun lexikoa eta gramatikala behar ditu, baina baita elkarreraginerako gaitasuna edo egoera komunikatiboak ulertzeko gaitasuna edo gaitasun soziolinguistikoa ere.

Sarritan, komunikazioaren etnografiak hizkuntzaz kanpoko gaiak ere lantzen ditu, hala nola, isiluneen kudeaketa, intonazioa, hitzik gabeko komunikazioa eta abar. Horiek guztiak kultura bakoitzaren baitan aztertzen dira. Diziplina horren ikerketaren objektuak agurrak, zoriontzeko moduak, pragmatikari lotutako funtzioen azterketa eta abar izan dira. Maiz, hizkuntzak islatzen duen mundu-ikuskeraren azterketa ere egin izan da, bide batez.

Komunikazioaren etnografia antropologiaren oinordekoa da eta hizkuntza-amerindiarren azterketan du jatorria. Horregatik, danborren edo ke-seinaleen bidezko komunikazioa ere aztertu izan da bere itzalpean.

Azkenik, diziplina horrek badu loturarik diskurtsoen azterketarekin eta testu generoetan oinarritutako gramatikekin edo testuaren gramatikarekin; izan ere, testu-generoak gizarte edo kultura bakoitzean egoera komunikatibo bati erantzuteko konbentzio-maila nahikoa duen hizkuntza-unitateak dira.

Hizkuntzen irakaskuntzan, gero eta garrantzi handiagoa hartzen ari dira etnografiaren ekarpenak; izan ere, edozein hizkuntza ikasteko, testuinguru komunikatiboetan eragiten duten ezaugarri kulturelek egundoko garrantzia izango dute, ikasleak jatorrizko hiztunen jardueretara ahalik eta gehien hurbil daitezzen.

### 1.3.3. Testuaren gramatika: diskurtsoen azterketa

**Testuaren gramatika:** esaldiaren gramatikaren aurrean, 1970eko hamarkada hasieran Teun A. Van Dijk buru izan zuen eta testu generoen berezko arauak ezartzea bilatzen duen diziplina, ondoren diskurtsoen azterketa-rekin uztartu dena.

Hizkuntzaren ikerketa-eremua esalditik harago jarri beharra soziolinguistikaren sorrerarekin bat datorren helburua da. Sintaxian oinarritutako gramatikak, berez, ez zuen asmatu hizkuntzaren unitateen deskribapen osoa egiten. Komunikazioaren baitan, esaldiaz harago, esangura hartzen duten elementuak daude, egoera komunikatiboaren arabera aldatzen direnak. Hizkuntzalaritzara esparru ezberdinetatik hurbildutako adituek elementu horien funtzionamendua eta sistematikotasuna aztertzea bilatu zuten. Psikologiatik, soziologiatik zein hizkuntzen irakaskuntzatik ekarpen interesgarri eta bateragarriak egin ziren oraindik garapenean dagoen ikerketa-ildo horretara.

Esaldiaren muga gainditzearen aldeko lehen argudioak pragmatikatik etorri ziren. Pragmatikoen ustez, hitz egitean, hau da, hizkuntza erabiltzean, hiztunak helburu bat bilatzen du. Hiztunak helburu hori lortzeko hizkuntza modu estrategikoan erabiliko du, hau da, egoera komunikatiboaren interpretatu eta errekurtsio ezberdinak erabiliko ditu: ironia, intonazioa, metaforak... Horiek guztiak hizkuntzak berezkoak dituen errekurtsioak dira, baina estrukturalistek eta Chomskyren jarraitzaileek ez zituzten kontuan hartzen.

Hizkuntza-egintzek sarritan esaldi baten izaera dute, baina beste askotan luzeagoak ala laburragoak izan daitezke. Hartzailearengan eragina sortzeko, batzuetan nahikoa izaten da hitz bat edo sintagma bat: *Liburu bikaina!* edo *Hara!* bezalako unitateek esanahi zabala har dezakete testuinguru batzuetan. Beste batzuetan, aldiz, egitura landuagoa duen unitatea behar izaten da, hala nola, gutun bat jakinarazpen formalak egiteko.

Van Dijk-en ustez, esaldia gainditzeko duen unitate konbentzionala testua da eta, Chomskyren gramatikaren eraginez, testuaren gramatika egitea bilatzen du. Testua esatean, hala ere, ez da idatzizko testua esan nahi, baizik eta egoera komunikatibo batean sortzen den hitzezko ekintza osoa; ahozkoa nahiz idatzia, monologala ala dialogala. Bere helburua testuen egiturak azaltzea da, hau da, esaldien arteko koherentzia semantikoa ahalbidetzen dituzten arauak deskribatzea (Van Dijk, 1977).

Ildo horretatik, testuaren barruan sekuentzia ezberdinak daudela antzeman zuen. Esaldien arteko lotura logikoaz gain, testuek barne egituraketa orokorragoa dute, testu osoari koherentzia ematen diotenak. Egitura horiek bi mailatan gertatzen dira: forman eta esanahian. Formari dagokionez, esaldiak ahapalditan edo azpтитuluz antolatuta ager daitezke, adibidez. Esanguraren aldetik, eskema jakin bati jarraituz egituratutako ideia baten garapena egiten da; esate baterako, ideia bera indukzioz zein dedukzioz gara daiteke.



Baina gainera, testu eta diskurtsoetan, mota ezberdinak bereiz daitezke. Werlich-ek bost egitura mota bereizi zituen, bakoitza ezagumen-prozesu bati lotuta (Werlich, 1975):

- Deskribapen-motako egiturak (espazio antolamenduari lotuak).
- Narrazio-motako egiturak (denbora antolamenduari lotuak).
- Azalpen-motako egiturak (kontzeptuaren analisi eta sintesiari lotuak).
- Argudio-motako egiturak (jarrerari lotuak).
- Argibide-motako egiturak (ekintzari lotuak).

Jean Michel Adam-ek (Adam, 1992) bost horiei beste hiru gehitu zizkien (elkarrizketak, erretorikoak eta aurrasaleak), baina azkenean elkarrizketa bakarrik hartu zuen testu edo diskurtso sekuentziatizat, beste biak deskriptibo eta argibide motakoetan sartuz. Diskurtso-mota horiek testuinguru jakinetan gertatzen dira, hau da, egoera komunikatibo konkretuetan. Igorlea, hartzailea, igorlearen helburuak, gaia edo erreferentea, kanala eta toki soziala edo arloa testua baldintzatuko duten elementuak dira. Horien arabera lexikoa, ideien hurrenkera eta formalitate maila aukeratuko dira. Diskurtso horien prototipoak testu-generoak dira.

Testu-generoak, Adamen ustez, hiru mailatan daude elkarri lotuta (Adam, 1996):

- Alderdi pragmatikoa: berbaldiko makroekintza.
- Eduki globala edo makroegitura semantikoa.
- Eskema globala edo testuaren gainegitura.

Testuak egoera komunikatiboetara egokitzen dira eta, beraz, konbentzio batzuen arabekoak izaten dira. Sailkapen bat egiteko zenbait ezaugarri bereizi behar dira:

- Diskurtso-mota
- Ahozkoa/idatzizkoa
- Monologala/dialogala
- Igorlea
- Hartzailea
- Helburua
- Tokia, gizarte-arloa
- Egoera formala/Egoera informala

Testu egokiak egin ahal izateko, hizkuntzaren erabiltzaileak hiru eragiketa egiten ditu bere hizkuntza egintza baldintzatuko dutenak (Jean Paul Bronckart, 2004):

- Testuinguraketa: testuinguru bakoitzaren ezaugarrien interpretazioa eta bakoitzari dagozkion elementu linguistiko egokiak aukeratzea.
- Egituraketa edo planifikazioa: ideien hurrenkera hartzailearen egitura kognitiboan modu egokian eta eraginkorrean barneratzea begira antolatzea.

- Testualizazioa: ideien arteko konexibitatea, gaien kohesioa eta modalizazioa.

Hiztunaren gaitasun komunikatiboa eragiketa horietan hiztunak duen trebetasunen arabera izango da.

Euskal Herrian lan asko ari dira gauzatzen ildo honetatik, bai irakaskuntzara bideratutako lanetan, bai hizkuntzaren inguruko bestelako alderdietan. Horren adibide garbia da 2007an Itziar Plazaolak eta Maria Pilar Alonsok editatutako liburua. Bertan, lan ezberdin eta emankorrak ez ezik, ikerketa ildo honen ezaugarri nagusiak biltzen dira, eta Itziar Idiazabalek Euskal Herriko lanen ibilbidea laburbiltzen du.

### 1.3.4. Hizkuntzen irakaskuntzarekin

**Hizkuntzen irakaskuntza:** hizkuntzaren eskurapen edo ikaskuntza-prozesuaz aritzen den arlo zabala. Haurren hizkuntza-jabekuntza eta prozesu horren etapak aztertzetik hasi eta helduek bigarren hizkuntza (H2) ikasteko jarraitu beharreko bidea doitzera bideratutako ikerketa-eremuak barnebiltzen ditu. Egoera elebidunetan, hizkuntza bakoitzak irakaskuntzan duen lekua erabakigarria da, bai hiztunen ibilbide akademikoan, bai gizartearen normalizazioan.

Hizkuntzen irakaskuntza ikuspegi ezberdinetatik lotzen zaio soziolinguistikari. Alde batetik, hizkuntzaren aldagarritasunaren ikuspegitik, ikastetxea ikasleek etxetik dakarten aldaeraren eta gizartearen erabilera-esparru ezberdinetan egokia den hizkeraren arteko lotura baita. Hezkuntza-curriculumetan ondo zehaztu behar da hizkuntzaren aldaera bakoitza noiz eta nola landuko diren.

Bestetik, metodologiaren inguruko eztabaidan soziolinguistikak zeresan handia izan du azken hamarkadetan hizkuntzen irakaskuntzan. Hizkuntzaren inguruko ikuskera aldatzeak ikas-prozesuak irauli ditu.

Hizkuntzen irakaskuntzari buruz hitz egitean, bi prozesu ezberdin bereizi behar dira. Lehena, umeak egiten duen ibilbidea, ama-hizkuntzaren edo H1en ikas prozesua da; ikasketa prozesu naturala eta elkarreraginean oinarritua. **Hizkuntzaren eskurapena** esaten zaio eta beste ezagutza eta gaitasunak eskuratzeaz batera gauzatzen da. Bigarrena, helduak egiten duen bigarren hizkuntzaren (H2) ikas-prozesua da. Hizkuntza hau ez da beti atzerriko hizkuntza bat izaten, norberaren lurraldeko beste hizkuntza bat izan baitaiteke; horregatik, H2ren ikas-prozesua esaten zaio. Ibilbide hori ez da nahitaez helduaroan egiten; elebitasun goiztiarraren kasuan bi hizkuntzen barneratze-prozesuak nahiko parekatuta burutzen dira eta.

Hizkuntzen eskurapenaren eta irakaskuntzaren inguruko teoriak garaian garaiko hizkuntzalari-tzako eta psikologiako korronteen arabera izan dira. Saussurek bultzatutako hizkuntzaren ikuspegi berriak eta harekin batera garaiko psikologiaren joera behavioristek, errepikapenean

eta zuzentasunean oinarritutako ikas-prozesuak bultzatu zituzten. Formari begira egituratutako ikas-materialak eta ikas-prozedurak jarraitu ziren. Metodologia honetan, ikasleari eredu zuzena emanda, errepikapenaren bidez ikastea espero da, jokabide linguistiko zuzenak errefortzu positiboz sarituz. Leonard Bloomfield-ek (1933) metodo audiolinguala bultzatu zuen. Ikasleak “hizkuntza-ohitura onak” eskuratzea bilatzen zen. Ikasleari forma zuzenak aurkezten zitzaizkion eta berak imitazioaren bitartez ikasten zuen.

Haurren hizkuntzaren eskurapenean ere estimulu-erantzun joko horrek hartzen du parte. Haurrak estimulu baten aurrean hizkuntza-erantzun bat ematen du eta ondoren, ondorio positiboak jasotzean, hizkuntza-jarduera hori errepikatu egiten du. Umeek hizkuntza jasotzean barne eta kanpo estimuluak jasotzen dituzte. Barne-estimuluen artean gosea, mina edo poza egon daitezke; kanpo-estimuluak, berriz, pertsona nagusiek sortutakoak izaten dira.

Ondoren, kognitibismoaren eskutik zetorren Chomskyren gramatika sortzailearen teoriak, hizkuntzaren arau gramatikalak eskuratuta, nahi beste esaldi mota sortzea ahalbidetzen dela defendatzen zuen. Hortaz, lexikoa eta gramatika-arauak nahikoak dira hizkuntza-gaitasuna izateko. Garai hartan arau gramatikalen deskripzioan eta sailkapenean oinarritutako metodologiak ziren nagusi. Testuinguruari ez zitzaion erreparatzen; aitzitik, hizkuntzaren elementuak eta egiturak ezagututa, ikasleak edozein egoera komunikatibotan aritzeko gaitasuna izatea espero zen. Zuzentasunari erreparatzen zitzaion, hau da, esaldien gramatikaltasunari.

Baina soziolinguistikaren ekarpenek, hizkuntzen irakaskuntza-metodoak ere aldatu zituzten. Hizkuntza sistema huts bezala ikusteari utzi zitzaion. Hizkuntza helburu batekin erabiltzen den tresna izanik, helburu horiei lotuta ikastea bilatzen hasi zen. Horrela, metodologia funtzionalistek lekua hartu zuten. Hizkuntzaren bitartez, informatu, eskatu, agindu, aholkatu eta abar egiten dugu. Beraz, hizkuntza helburu horiei begira irakatsi beharko litzateke, hitzunak izango dituen beharrian errealei erantzutera begira.

Programa horiek ikuspegi komunikatiboaren hastapena izan ziren, izan ere, hizkuntzaren eta komunikazioaren arteko loturan jartzen zuten arreta. Programazioak beste modu batean antolatzea bilatzen zen, komunikazio-egoera ezberdinetan martxan jartzen diren prozesu psikolinguistikoak ikaslearengan aktibatuzko. Pedagogiaren ekarpenekin batera, metodologia hutsetik curriculumera pasatu zen, eta, horrela, ibilbidearen diseinu osoagoa lortu.

Arestian aipatu bezala, Hymesek gaitasun komunikatibo kontzeptua sortu zuen Chomskyren gaitasun linguistikoaren aurrean. Komunikatzeko gaitasuna izateko ez da nahikoa hitzak ezagutu eta zuzen jostea. Gaitasun komunikatiboa eskuratu nahi duen ikasleak bestelako gaitasunak bildu behar ditu (Hymes, 1971):

- **Gaitasun gramatikala:** sistema linguistikoaren ezagutza.
- **Gaitasun soziolinguistikoa:** hizkuntzaren erabilerari buruzko gizarte-arauen ezagutza.
- **Gaitasun diskurtsiboa:** egoera komunikatibo bakoitzean pertinenteak diren ahozko nahiz idatzizko testuak egituratzeko gaitasuna.
- **Gaitasun estrategikoa:** gabeziak gainditzeko, ahozko zein ez-ahozko estrategien erabilerari dagokiena.

## 1. SOZIOLINGUISTIKARI SARRERA

Hiztunak, hizkuntza ezagutzeaz gain, gizartearen ezaugarri askoren inguruko ezagutza ere beharko du, kodea gizarte-arauen arabera erabili ahal izateko. Pragmatikari eta kulturari loturiko alderdiak lantzea, beraz, ezinbestekoa da.

Metodologia komunikatiboak, funtsean, hizkuntzari ikuspegi soziala ematean etorri ziren. Metodo hauen ezaugarri nagusia hizkuntza bere testuinguruan eta helburu komunikatiboetara lotuta irakastea zen.

HABEk berak, 1999. urteko curriculumean, irakaskuntza komunikatiboaren alde, ondorengo aldaketak egitea proposatu zuen (HABE, 1999):

- Produktutik prozesura
- Esalditik testura
- Zuzentasunetik egokitasunera
- Gaitasun linguistikotik gaitasun komunikatibora

XXI. mendean, hizkuntzen irakaskuntzak garrantzi handia hartu du eta, eleaniztasuna kudeatzeko beharrak bultzatuta, programa eta metodologia ugari sortu dira. Curriculumetan tokian tokiko hizkuntzak ezagutzeaz gain, nazioarteko funtzioa beteko duen hizkuntza eta bestelako atzerriko hizkuntzaren bat jakitea bilatzen baita. Europako Kontseiluak **Europako Erreferentzia Marko Bateratuaren** bitartez, eleaniztasuna sustatzeko eta irakaskuntza-metodologia komunikatiboa bultzatzeko gomendioak egin ditu. Bertan, ikasten den hizkuntzaren testuinguru soziokulturala kontuan hartzea premiazkotzat jotzen da, eta ikasleak hiztun moduan aritzeko eskuratu behar dituen gaitasunak zerrendatzen dira, eta, besteak beste, gaitasun soziolinguistikoan sakontzeko beharra azpimarratzen da (HABE, 2005).

Hizkuntzaren soziologiatik ere ekarpen garrantzitsuak egin zaizkio hizkuntzen irakaskuntzari. Erabilera eremuak definitzea, egoera diglosikoen ezaugarriak deskribatzea, planifikazio linguistikoari loturiko alderdiak eta jarreraren inguruko gogoetak glotodidaktikaren erdigunean kokatu dira.

Erabilera-eremuak (*domain*) definitzeak hizkuntza ikasten duenaren testuingurura egokitzeko aukera ematen du, eremu bakoitzean izan daitezkeen egoera komunikatiboetara egokitutako ikas-prozesuak egokitu ahal izateko. Ekintzetara bideratutako metodologia komunikatiboetarako oso oinarri egokiak dira egoera errealetan oinarritutako atazak diseinatzeko.

Ikuspegi horretatik, diskurtsoen azterketa hizkuntzen irakaskuntzarako oinarri teoriko baliagarria gertatzen ari da. Testuinguru komunikatibo jakin batean zeregin (ataza) bat aurrera eramateko, ikasleak diskurtso bat sortu beharko du. Diskurtso horrek izaera argumentatiboa, narraitiboa, azalpenezkoa edota deskriptiboa izango du. Hizkuntzaren irakaskuntzaren zeregina izango da ikasleak bete nahi dituen helburuak lortzeko (konbentzitu, azaldu, argudiatu...) eta testuinguru komunikatibora egokitzeko estrategiak garatzen laguntzea. Horretarako, hiru aldi bereizten dira: egoera komunikatiboaren azterketa eta testu generoaren ezaugarriak zehaztea, edukiak hautatu eta modu egokian ematea edo planifikatzea eta hizkuntza-baliabide egoki eta aberatsak zuzen erabiltzea, hots, testu egokiak sortzea.

## Jarrerak eta motibazioak hizkuntzen ikaskuntzan

Motibazioak ere leku garrantzitsua betetzen du hizkuntzen irakaskuntzan; izan ere, ikaslea hizkuntza ikastera bultzatzen duten motibazioek erabat baldintzatuko dute ikas-prozesua. Txepetxek ikas-prozesuaren baitan, motibazioari berebiziko garrantzia ematen zion, batetik, ikasteari ekiteko pizgarritzat eta, bestetik, ezagutza eta erabileraren arteko zubitzat baitzuen. Motibazioak, beraz, hitzunaren portaeran eragiten duten aldetik, ikas-prozesuan kontuan hartu eta landu beharreko alderdia dira.

Hizkuntza ikastera bultzatzen duten arrazoiak ezberdinak dira ikasle bakoitzaren kasuan. Gizartean integratzea, lana bilatzea, hizkuntza horretako hitzun batekin ligatzea edo bibliografia kontsultatzeko gaitasuna eskuratzea izan daitezke arrazoiak, motibazioak. Gardner eta Lambert-en ustetan (1972), ikasleak multzo bitan bana daitezke. Batetik, joera integratzailea duten ikasleak; hauek H2ko hitzunenganako jarrera positiboa agertzen dute eta euren antzekoak izan nahi dute. Bestetik, jarrera instrumentala dutenak; hauek hizkuntza jakiteak ekarriko dizkien onurengatik ikasten dute: lanpostu hobea, soldata handiagoa...

Ildo horretatik, euskara ikasten ari diren ikasleen inguruko ikerketa ugari egin dira. Josu Peralesek 1989an egindako lanean, instrumentaltasunetik integratzailetasunera doan continuu-mean hiru orientazio-mota bereizi zituen: instrumentalak, tartekoak eta integratzaileak.

Siadecok 1996an honakoak bereizi zituen: motibazio afektibo-ideologikoak, motibazio komunikatzaileak eta motibazio pragmatikoak.

Maite Otegi Jauregik, Goierriko euskaltegietako ikasleak ikertu zituen eta motibazio integratzailearen eta instrumentalaren ezaugarriak zehaztu zituen eta ikasle askoren baitan biak agertzen direla azpimarratu zuen (Otegi, 2006).

## Hezkuntza-programak, elebitasuna planifikatzen

Azkenik, irakaskuntzak hizkuntzaren transmisioan eta normalizazioan duen garrantzia kontuan hartuta, egoera elebidun eta eleanitzetan curriculumean hizkuntzek izango duten tokiaren inguruko eztabaidan ere soziolinguistikak garrantzi handia hartu du. Heziketa-prozesua nagusiki zein hizkuntzatan egingo den, hau da, zein izango den irakaskuntza-hizkuntza, eta beste hizkuntzek zein toki izango duten zehaztea da hezkuntza-programen zeregina. Arlo horrek, pedagogiarekin eta psikologiarekin ez ezik, hizkuntza-planifikazioarekin ere lotura zuzena du.

Ikaslearen ama-hizkuntzaren, gizarte-egoeraren eta programak normalizazioaren aurrean hartzen duen jarreraren arabera, irakaskuntzan erabiliko den komunikazio hizkuntza kontuan hartuz, lau programa-mota bereiz daitezke: sumertsioa, segregazioa, mantenimendua eta murgiltzea.

	Sumertsioa	Segregazioa	Mantenimendua	Murgiltzea
<b>Helburua</b>	Hizkuntza gutxitua desagertzea	Hizkuntza gutxitua desagertzea	Hizkuntza gutxitua mantentzea	Hizkuntza gutxitua normalizatzea
<b>Ikasleen ama-hizkuntza</b>	Hizkuntza gutxitua	Hizkuntza gutxitua	Hizkuntza gutxitua eta hizkuntza nagusia	Hizkuntza gutxitua eta hizkuntza nagusia
<b>Irakaskuntza-hizkuntza</b>	Hizkuntza nagusia	Hizkuntza nagusia eta hizkuntza gutxitua	Hizkuntza gutxitua eta hizkuntza nagusia	Hizkuntza gutxitua
<b>Adibideak</b>	Gerra Zibil osteko eskola Euskal Herrian	Estatu Batuetako eskolak hispanoek ingelesa ikastera bultzatzeko	B eredua EAEn	D eredua Euskal Herrian

**2. taula:** irakaskuntza programak.

Irakaskuntza elebidunak berak bultzada handia jaso du soziolinguistikaren ekarpenekin; izan ere, hainbat autorek, inolako funts teorikorik gabe, umeak bi hizkuntzak aldi berean ikasteak garapen kognitibo eta pertsonalaren kalterako zela defendatzen zuten. Oro har, sumertsio programetan ikasten zuten hizkuntza gutxituko haurrak ebaluatzen zituzten, baina euren ulertzen ez zuten hizkuntzan. Ama hizkuntzan ebaluatuak ziren haurren aldean lortutako emaitza txarrek euren gaitasun intelektuala txikiagoa zela esatera eramaten zituen ikertzaileak. Baina hirurogeita hamarrek hamarkadatik aurrera sistema elebidunen onurak azpimarratzen zituzten lanak agertzen hasi ziren (Miguel Sigan, 2001).

## 1.4. IKERKETA-EREMU GARRANTZITSUAK

### 1.4.1. Aldakortasun linguistikoa

Soziolinguistikaren alderdi hau da, ikertzaile askoren ustez, benetako soziolinguistika. *Bariasionistek* hizkuntzalaritza tradizionalak zuen hizkuntzaren ikuspegi estatikoaren aurrean, hizkuntzaren aldagarritasunean jarri zuten arreta. Saussurerentzat neurgaitza zen alderdia, aldaera librea, motibatua zela erakustera zetorren diziplina berria.

Edozein hiztunek daki hizkuntza ez dela beti berdin erabiltzen. Ahoskerak, intonazioak, lexikoak, egitura sintaktikoak... aldatu egiten dira hiztunen ahotan. Hizkuntza erabiltzen duenak gramatikan eta hiztegiaren biltzen diren egiturak eta lexikoa aukeratu eta moldatu egiten ditu.

Moldaketa horietako asko ondo barneratuta daude hiztunen pertzepzio soziolinguistikoan, hots, **gaitasun soziolinguistikoa** dute.

Era berean, hiztunek euren burua eta besteak talde batean edo bestean kokatzen dute. Taldeko partaideek **hizkera-komunitatea** osatzen dute. Komunitatearen barruan erabilera-arauak daude eta *egokia* eta *desegokia* zer den finkatuta egoten da. Moreno Fernándezen ustez, komunitate hauek nahiko heterogeneoak izaten dira. Hiztun bera komunitate bat baino gehiagoko partaide izan daiteke eta, ondorioz, aldaera ezberdinak erabili une bakoitzean. Horregatik, sarritan zaila izaten da mintzamolde bakoitzaren mugak ezartzea (Moreno Fernández, 1998).

Hizkera-komunitateen kasuan Howar Giles-ek (Giles, 1975 in Moreno Fernández, 1998) hizkeraren moldaketaren teoria egin zuen. Honen arabera, hiztunek egoera bakoitzean hitz egiteko erabiliko dituzten elementuak (edo hizkuntzak, esan dezakegu) aukeratu egiten ditu itxura bat ala bestea emateko. Horrelakoetan, bi joera izan ohi dira: konbergentea eta dibergentea. Lehenengoa, taldeko partaidetasuna adieraztekoa izan ohi da; bigarrena, berriz, ezberdintzekoa.

Hizkuntzaren erabilera ezberdinak egoera geografikoaren edo gizarte-taldearen arabera izan daitezke, orain arte ikusitakoaren arabera. Lehenengoa, aldaera diatopikoa edo geolinguistikoa, dialektologiari dagokio. Bigarrena, aldaera diastratikoa edo soziala, aldiz, soziolinguistikari. Hirugarrena egoera komunikatiboaren arabera aldaera da, aldaera diafasikoa.

Aldagarritasuna aztertzen dutenen zeregina da aldakortasunean eragiten duten faktoreak zeintzuk diren, haien eragina norainokoa den eta gizarte talde bakoitzari zein aldaera dagokion azaltzea.

William Labov izan zen metodologia honen aitzindaria eta ikurra. Bokalen osteko *r* kontsonantearen inguruko ikerketa egin zuen, eta, fenomeno bakar horren arabera, hizkuntzaren estratifikazioa agerian utzi (Labov, 1966 in Lopez Morales 1993).

Hizkuntzaren eta gizartearen arteko elkarreraginaren ikertzaileek bi aldagai-mota aztertzen dituzte: hizkuntzarenak eta gizartearenak. Hizkuntzaren alderdiak dialektologian neurtzen diren berdina dira, hau da, hizkuntzari lotutako edozein mailatako elementuak: fonologia, intonazioa, lexikoa, sintaxia... Aldagai sozialei dagokienez, sexua, adina, gizarte-maila, jatorria eta abar izaten dira.

## 1.4.2. Hizkuntza-ukipena

Hiztun-komunitateak ez dira isolaturik bizi. Normalean elkarren ondoan eta elkarrekin harremanetan egoten dira. Oso hedatuta dago *estatu bat-hizkuntza bat* bikotearen ideia, baina errealitate oso urrun dagoela esan daiteke. Elebitasuna edo eleaniztasuna da egoerarik zabaldua eta, horren ondorioz, hizkuntza-ukipena. Lurralde elebakarretan, hizkuntza bat(zu)en galera eta beste baten inposaketa egon dela pentsa daiteke.

Hizkuntzak ukipen-egoeran daudenean, hiztun-multzo batek hizkuntzetako bat baino gehiago ezagutzen ditu; bestela, zaila izaten da ukipena gertatzea. Dena dela, hizkuntza-gatazka dagoen kasuetan, hizkuntza gutxituko hiztunak izaten dira, batez ere, elebidunak. Elebitasunaren para-

## 1. SOZIOLINGUISTIKARI SARRERA

doxa horixe da: hiztun elebakarrak dituen taldeak inposatu egiten duela komunikazio-hizkuntza edo lingua franca berea izatea.

Hizkuntza-ukipenezko egoeretan, hiru ondorio mota bereiz daitezke: pertsonengan gertatzen direnak, pertsona elebakar edo elebidunengan; hizkuntzaren berarengan eragiten dutenak, izan ere, kodeen arteko eragina nabaria izaten da (batez ere hizkuntza nagusiaren eragina igartzen da gutxituarengan); eta, azkenik, hiztun-komunitateengan edo gizartean gertatzen diren aldaketak.

### Elebitasuna hiztunengan

Elebitasun sozialetik bereizteko, autore batzuek elebitasuna (soziala) eta elebiduntasuna (norbanakoarena) bereizi izan dute, baina eskuliburu honetan ez dugu bereizketa hori erabiliko.

Gizarteak dena delakoagatik harremanetan jartzean, esan bezala, bi hiztun-komunitateetako hiztunetako batzuek bi hizkuntzen ezagutza eskuratzen dute. Pertsona horiek elebidunak dira, hau da, bi kodeak erabiltzeko gaitasuna dute. Gaitasun horri elebitasuna edo elebiduntasuna deitu izan zaio.

Autore batzuentzat hiztun elebiduna hizkuntza bietan naturaltasunez aritzeko gaitasuna duen pertsona da; beste batzuek uste dute, aldiz, berea ez duen hizkuntzan gutxieneko komunikazio-gaitasuna izatea nahikoa da elebiduntzat hartzeko.

Hiztun elebidunei alderdi ezberdinetatik begiratu izan zaie. Ikuspegi teorikoen arabera, pertsona elebidunen sailkapen ugari egin dira: hizkuntzen eskuratze-hurrenkera, gaitasuna, garatutako trebetasunak...

Elebitasunaren eskurapenean hiztunaren esku ez dauden faktore askok dute zerikusia. Hiztunaren motibazioek edo gizartean hizkuntza horretan aritzeko dauden aukerak, adibidez, erraztu egingo dute ikas-prozesua.

Txepetxek hizkuntza ikasten duten ikasleak egindako ikas-prozesuaren arabera sailkatu zituen, A, B, AB eta BA hiztunak bereizi zituen; AB jatorrizko hiztun alfabetatuak dira eta BA ibilbide kulturala egin duten hiztun jatorriak, hain zuzen ere, normalizazio prozesuan hiztun-komunitatearen erdigunean kokatu behar direnak (5. atalean informazio xeheagoa ematen da).

Ukipen-egoeraren alderdirik garrantzitsuenetakoa hiztun elebidunak izan dira, baina globalizazioaren garaian, gizarte askoren errealitate berria eleaniztasuna da eta, ondorioz, elebitasunaren gaineko ikuspegi asko egokitu egin dira beharrian berrietara. Hizkuntza-aniztasuna mehatxu moduan ikusi beharrean, aukera moduan hartzen ari da XXI. mendearen hasieran.

### Hizkuntzan

Baina hiztunarengan ez ezik, ukipenak ondorio linguistikoak ere baditu. Bi hiztun-komunitate edo gehiago elkartzean, kodeek eragina jasaten dute ezinbestean. Uriel Weinreich (1953) izan zen, hizkuntza-ukipenaz aritu zen lehena eta hizkuntza-sistemek elkarri nola eragiten dioten ikertu zuen. Kodearen interferentziak, kalkoak, maileguak edo aldaketa fonetikoak gertatzen



dira. Beraz, interferentziek sistemaren egituraren eragiten dute, hala nola, fonologian, morfologian, sintaxian eta semantikan.

Arestian aipatu bezala, hizkuntza-ukipena hitzun batzuek bi hizkuntzak hitz egitean gertatzen da. Hitzun horiek ikasitako hizkuntzaren ezaugarriak transferitu ohi dituzte beste hizkuntzara eta, ondorioz, bere kodean elementu berriak agertzen hasten dira. Normalean, hizkuntza gutxi-tuak jasotzen ditu hizkuntza nagusiaren elementuak, baina eragina norantza bietakoa izan daiteke. Hizkuntza gutxituko hitzunek, hizkuntza nagusian aritzean, euren jatorrizko hizkuntzaren eragina izaten dute eta, sarritan, ezaugarri horiek estigmatizatuak izan dira eta trufa eta txan-txa ugarirako arrazoi bilakatzen dira.

Hitzunek kode berriari buruz duten ikusmoldea oso garrantzitsua izango da forma berrien hedapenean. Irudi modernoagoa edo adierazgarriagoa lortuz gero, hedatzeko eta sistematizatzeko aukera handiagoak egoten dira.

Interferentzia hauek gertatzeko, Weinreichek norbanakoren mailako arrazoiak eta gizarte-mailakoak bereizi zituen. Lehenengoan artean hitzunak hizkuntzak bereizirik erabiltzeko duen gaitasuna, hizkuntza bakoitzaren ezagutza maila, hizkuntzak erregistratzeko modua (koordinatua ala ez) eta bakoitzarekiko jarrerak hartzen ditu kontuan. Gizarte-mailakoen artean, berriz, elebidunen kopurua, hitzun-komunitatearen trinkotasuna, talde bakoitzak duen elebidun-kopurua, hizkuntza bakoitzarekiko jarrerak eta estereotipoak, elebitasunari buruzko jarrerak, garbizalekeriaren antzeko jarrerak, taldeen arteko harremanak eta abar.

Norbanakoaren ezaugarrien araberako aldagaiak hitzunaren gaitasun komunikatibo eskasa izan dezakete oinarri, hau da, zenbait egoera komunikatibotara egokitzeko dituen gabeziak. Adibidez, hizkuntzari arrotza zaion eremu bateko hiztegia ez izateak maileguak hartzea ekar dezake.

Aldagai soziokulturalek, berriz, interferentziak barneratzea sustatzen dute, eta hizkuntza-aldaketa bultzatu. Horren aurrean, hizkuntzaren garbizaletasunak eta hizkuntza-fideltasunak aldaketen aurkako eragina izan dezakete.

Interferentziak hizkuntzaren maila guztietan gerta daitezke: fonologian, morfologian, sintaxian ala lexikoan.

Baina ukipen egoeran dauden hizkuntzen artean, sarri gertatzen dena da alboko hizkuntzaren hitzak inportatzea. Hitz horiei maileguak deitzen zaie. Maileguak hartzeko arrazoirik garrantzitsuenaren objektu berriei izena ematea izaten da. Askotan, hizkuntzari arrotza zaion eremu baten inguruko lexikoa eskuratzeko beharrak erabilera eremu horretan tradizio handiagoa duen hizkuntzaren lexikoa erabiltzea ekartzen du. Zientziaren eta teknologiaren garapenak, adibidez, ingelesezko adieren hedapena ekarri du.

Bestalde, atzerriko hitz edo terminoak erabiltzeak nolabaiteko modernitate kutsua ematen duelako irudikapen soziala heda daiteke, eta horrek maileguen ugaritzea ekarri.

Hizkuntzaren corpusaren inguruko planifikazioetan, maileguak jasotzeko baldintzak ezarri ohi dira. Euskararen kasuan, adibidez, Euskaltzaindiak 1986an eman zituen horren gaineko arauak (Euskaltzaindia, 1986); maileguak zein kasutan onar daitezkeen eta zeinetan bestelako bideak bilatu behar diren zehaztu zuen eta, behar denerako, horiek integartzeko modua ezarri zuen.

## 1. SOZIOLINGUISTIKARI SARRERA

Lexemak, hitzak eta sintagmak mailega daitezke, baina baita esanahi jakina duten esaldi osoak ere. Horrelako unitateak kode alternantziaren eragileak dira. Ohikoa izaten da euskaraz ari den hiztunak erdarazko esaldiak etengabe tartekatzea eta bi kodeak etengabe nahastea.

Kalkoak jatorrizko hizkuntzan hartu edo itzulpenen bidez jaso daitezke. Horrela, *footing* bere horretan jaso da, baina beste batzuetan, jatorrizko hizkuntzan egindako metafora edo irudi bat hartu eta itzulpenaren bidez jasotzen da. Adibidez, ordenagailuko kurtsorea mugitzeko tresnari *sagu* deitzea. Aipagarria da kalkoen inguruan Gotzon Garatek argitara emandako lana: *Erderakadak* (Garate, 1988).

Beste interferentzia garrantzitsu bat kodeen arteko alternantzia izaten da. Solasaldiaren hari nagusia hizkuntza batean eginda ere, beste hizkuntzaren esaldiak etengabe tartekatzean datza. Hiztun elebidun orekatuak abilezia handia eskura dezake bi kodeen artean aritzeko, sarritan horrela dabilela konturatu ere egin gabe.

Hizkuntza-ukipenaren ondorioz, sarritan elkarrekin harremanik izan ez duten komunitateak jarzen dira kontaktuan. Horrelakoetan ez da hiztun elebidunik izaten eta, ondorioz, komunikaziorako *lingua franca* bat behar izaten da. Nazioarteko hizkuntzarik edo komunean duten beste hizkuntzaren bat erabiltzerik ez dagoenean, elkartu diren komunitateen bi kodeetako elementuak dituzten “sistema berriak” sortu ohi dituzte. Kode berri horiek **pidginak** dira.

Hala ere, normalean bi hizkuntzek ez dute pisu bera pidginaren sorkuntzan. Pisu handiena hartzen duenari oinarri-hizkuntza deitzen zaio; besteari, berriz, substratu-hizkuntza.

Euskarak ere ezagutu du pidginik; hain zuzen ere, Kanadan eta Islandian bale-arrantzaleek bertako herriekin izandako harremanetatik sortutakoak. Bakkerrek Gipuzkoako Foru Aldundia-arentzat (Bakker, 1991) eta Nicolaas Deen holandarrak (1937) ikertu zituzten pidgin horiek.

Ezagun egin da, 1625. urteko kronika batean kontatua, euskaldunek indiarrei *Nola zaude?* galdetzean, indioek *Apezac obeto* erantzuten omen zutela.

Pidgina, esan bezala, oso funtzio jakinetarako sortzen zen. Hala ere, hiztun-komunitateen arteko harremanak estutu ahala, funtzio berriak jaso eta garatu egiten ziren. Pidgina belaunaldi baten ama-hizkuntza bilakatzean, hau da, gurasoengandik transmititua izatean, **kreolera** bilakatzen da.

### Gizartean

Munduko hizkuntzak, beraz, ukipen egoeran bizi dira. Hiztun-komunitateak, arrazoi ezberdinak tarteko, elkarrekin harremanetan sartzen dira eta, ondorioz, hizkuntzak ere bai.

Hiztun-taldeen arteko harremanak ez dira ia inoiz berdintasunean oinarritzen. Taldeetako bat botere-egoeran egoten da eta bestea menpean. Horretan garrantzi handia hartzen du kontak-tua gertatzeko arrazoiei begiratzek.

Honako arrazoiak aurki daitezke besteak beste: okupazioa edo kolonizazioa, merkataritza-harremanak, talde baten nagusitasun demografikoa, boterea eta prestigioa, migrazioak, hezkuntza, eragin ekonomikoa, erlijioa, komunikabideak eta abar.

Arrazoi horien ondorioz, taldeek elkarrekin harremana izaten dute, baina indarrak ez dira orekatuak izaten. Egoera horiek azaltzeko, Jordi Solé i Camardons-ek *hizkuntza-gatazka* terminoa proposatu zuen (Solé i Camardons, 1991: 53) honela definituz:

*Bi hizkuntza-aldaera norgehiagoka ari eta bietariko baten inbasioa edo desplazamendua, edota bestearen erabilera eremuen bariantek sortarazten direnean, hizkuntza-gatazka-  
ren aurrean gaude.*

Egoera horietan hizkuntza batek nagusitasun politikoa izaten du, goi-mailako funtzioak betetzeko eta hizkuntza ofiziala izateko. Beste hizkuntzak, gutxituak, erabilera-esparruak mugatuta ditu eta, gehienetan, erabilera-esparru informaletarako erabiltzen da.

Egoera horretara heltzeko, normalean hizkuntza gutxituaren jazarpena gertatzen da, bortizkeria. Beraz, egoera hori gertatzen da bi hizkuntza aurrez aurre daudenean; batak nagusitasun politikoa du eta, ondorioz, erabilera ofizial eta publikoa; bestea politikoki garaitua izan da eta familia eta lagunartera mugatzen da. Gatazka egoeraren arrazoen artean errepresio zuzen eta bortitza zein tolerantziaren atzean ezkututzen den errepresio ideologikoa daude.

Funtzioen banaketari diglosia deitzen zaio. Diglosia terminoa Charles A. Fergusonek (1959) sortu zuen hizkuntzen barneko aldaera ezberdinen erabilera estratifikatua izendatzeko. Horren arabera, hizkuntza bat goi-mailakoa edo H (*high*) izango da eta bestea behe mailakoa edo L (*low*). Aurrerago, Fishmanek kontzeptu hori elebitasun-egoerei aplikatu zien lau egoera proposatuz: elebakartasun diglosikoa eta elebakartasun ez-diglosikoa, elebitasun diglosikoa eta elebitasun ez-diglosikoa. Fishmanen ustez, elebitasuna norbanakoari dagokio eta diglosia gizarteari (Fishman 1972/95: 120).

Euskal Herrian aipagarria da Jose Maria Sanchez Carrion “Txepetx”-en lana. Diglosia elebitasun sozialaren adieran hartzen du, hain zuzen ere hizkuntza-hierarkia gertatzen den kasuetan gertatzen dena. Hizkuntza gutxituen soziolinguistikatik egoera hauek gatazka-egoerak direla pentsatzen da. Horren adibide garbia da arestian aipatu den Euskaltzaindiak 1979an argitaratutako liburua: *Hizkuntza Borroka Euskal Herrian* (Euskaltzaindia, 1979).

Katalunian indar handia hartu zuen joera honek eta eskola sortu zuela esan daiteke. Amerikar korranteek azterketa deskriptiboa egiten zuten. Katalanek ordea, asimilazioaren eta normalizazioaren arteko continuum bat proposatzen zuten. Tentsioa mantentzen da eta egoera aldakorra da. Diglosia, beraz, hizkuntza-gatazkaren aldi bat besterik ez da, hedatuen dagoen egoera.

Elebitasun orekatua, ondorioz, ez da normalean gertatzen. Funtzioen banaketa ez da parekatua izaten. Ideologia diglosiazaleek diglosia egoera desiragarritzat hartzen dute; beste soziolinguista batzuen ustez, aldiz, egoera horrek desoreka areagotu egiten du eta hori hizkuntza-ordezkapena gauzatzeko lehen urratsa da.

Hizkuntza-ordezkapena gaudituko bada, egoera horri buelta emateko hizkuntza normalizatze-ko prozesua abiatu behar da. Horixe da, hain zuzen ere, hizkuntzak indarberritzeko edo biziberritzeko prozesuen helburua (5. atalean informazio xeheago ematen da).

### 1.4.3. Hizkuntza–jarrerak eta hizkuntza–ideologiak

Gizakiok bizitzako edozein gertakari edo jardueraren aurrean ikusmolde edo hautemate ezberdinak izaten ditugu. Pertsona bakoitzak errealitatea jaso, interpretatu eta ondoren baloratu egiten du. Gauza batzuk gustuko izango ditu eta beste batzuk ez; gertakari batzuk justuak irudituko zaizkio, beste batzuk interesgarritzat hartuko ditu eta beste batzuek lotsa sentiaraziko diote.

Bestalde, gizakiak barne-irrikak, helburuak eta desioak ditu. Horiek, ikuspegi edo hautemateekin batera, motibazioen eragileak dira. Motibazioek jarduteko indarra eta norabidea ematen dituzte. Helburu bat lortzeko arrazoiek motibazioaren izaera markatuko dute. Adibidez, lanpostu jakin batek soldata handia izateak motibazio ekonomikoa sortzea bilatuko du. Eskaintzen den diru-kopuruak eta soldata jasoko duenaren beharrianak motibazioaren intentsitatean eragingo dute. Beste batzuetan, lan bat hartzeko motibazioa intelektuala izaten da, edo soziala, politikoa...

Hizkuntzari dagokionez, motibazioak bi multzo nagusitan bereizten dira: integratzaileak eta instrumentalak. Lehenengoan oinarrian hiztun-taldearen partaide izateko edo partaideen antza hartzeko nahia dago. Sarritan sentimendu identitarioak bultzatuta, motibazio integratzailea duen hiztunak hizkuntza ikasteko edo erabiltzeko berezko motibazioa izaten du. Motibazio instrumentala duenak, berriz, hizkuntza helburu jakin bat lortzeko baliatzea bilatzen du. Horrela, hizkuntzaren bitartez talde horretako partaideekin tratu komertzialak egitea, lantokian gora egitea, diru gehiago irabaztea... motibazio instrumentalaren adibide garbiak dira. Hizkuntza arrakastarekin, bizi-kalitatearekin, gizartean gora egiteko aukerekin eta abarrekin lotzeak motibazio instrumentala eragingo du.

Irrikak, nahiak, iritziak, motibazioak eta abarrak psikologiari dagozkion alderdiak dira. Horiek bizitzaren aurrean, eta kasu honetan hizkuntzaren aurrean, jarduteko joera jakinak izatea eragiten dute, jarrerak, hain zuzen. Jarrerek jokamoldea bideratuko dute. Hizkuntzaren aldeko jarrerak erabileran, ikas-prozesuan zein inguruan jarduteko moduan eragin zuzena izango dute.

Jarrera, askotan, adierazi egiten da; eguneroko bizitzan zein inkesta baten aurrean, jarrera agertu ohi da. Dena dela, batzuetan, jarrera batzuk azaltzeak arazoak sor ditzake, bai gizarte mailan ondo hartzen ez diren jarrerak izategatik, bai hiztunak argi ez dituelako edo adierazten ez dakielako. Zentzu horretan jarrera aitortuak eta aitortu gabeak edo ezkutukoak daude. Lehenengoak, esan bezala, galdetuta adierazten direnak dira. Bigarrenak aztertzeke, teknika bereziak behar izaten dira, zeharkako galderen bitartez, eta datuen nolabaiteko interpretazioa egiten da.

Baina hautemateen, motibazioen eta jarreraren eraketan garrantzi handia hartzen du testuinguruak edo gizarteak; izan ere, taldearekiko elkarreaginak, kultura bakoitzarekin izandako harremanek eta hizkuntzekin izandako bizipenek jarrerak bideratuko dituzte. Zentzu horretan, gizakiaren garapen-aldiek, bizipen-esparruek eta funtzioek eragin handia izango dute: gurasoek eta inguru hurbilak lehenengo, eskolak gero, aisialdiak, komunikabideek...

Maria-Jose Azurmendik hizkuntzaren ikuspegi psikologikoari eta ikuspegi soziologikoari ikuspegi psikosoziala gehitu zien (Azurmendi, 1987) gizabanakoaren eta gizartearen arteko elkarreagina aztertzeke.

Hizkuntzen erabileraren kasuan, arestian esan den bezala, hiztunek gaitasun soziolinguistikoa dute, hau da, badakite egoera bakoitzean eta toki bakoitzean zer eta nola hitz egin behar den. Egokitasuna taldeak partekatzen duen kontzeptua izanik, gizartea bera aldatzen den heinean moldatuz doa.

Gizartean gertatzen diren aldaketek eragin zuzena dute hiztunen hautemateetan eta, ondorioz, hizkuntzaren aldaketa bultzatzen dute.

Egoera elebidunetan jarrerak garrantzi handiagoa hartzen dute; izan ere, hizkuntzaren bizirau-pena jokoan egon daiteke. Motibazio egoki eta indartsuak eta aldeko jarrerak funtsezkoak izango dira, sarritan, hizkuntza-komunitateak bere hizkuntzari eutsi diezaion.

Euskal Herrian, egitasmo eta kanpaina ugari bultzatu izan dira motibazioak sortzeko eta euskararen aldeko jarrerak sustatzeko. Historian zehar hizkuntzaren desprestigioa bultzatzeko presioaren indarra handia izan da eta, horri aurre egiteko, ahalegin handiak egin dira eta egiten dira oraindik ere. Ikerketa ugari sortu izan dira gure artean, batez ere hizkuntza ez dakitenak ikas-tera bultzatzeko eta dakitenek ezagutzatik erabilerarako pausoa emateko.

Irrikek, motibazioek, jarrerak... mundua alda dezakete. Edozein ekimenek, aldeko jarrerak sortzen baditu, arrakastarako aukera handia izango du. Baina jarrerak bideratu egiten dira. Zentzu horretan, ideologia bakoitzak iritzi publikoa bereganatzeko bideak eta estrategiak jorratzen ditu, ondoren hizkuntza-politika babes dezan.

Ideologiak ideien sistema egituratuak dira. Beste kide batzuekin partekatzen diren ikuspegi, gurari, sinesmen, uste eta helburuek gizakia ideologia jakin batekin edo beste batekin lerrokatzerara eramaten dute. Ideologia bakoitzak helburu batzuk igurikatzen ditu eta horiek lortzera begirako pausok ematea bilatzen du. Ideologiak, gainera, sustatu egiten dira; hau da, jendearen atxikipena bilatzen da gehiago edo gutxiago hausnartutako estrategiak erabiliz.

Hizkuntzaren barne-ezaugarriak dagokienez, ideologiek hizkuntza baten ezaugarriak gorai-patzea, ezaugarri horiek babestu nahi izatea, kanpoko eraginaren aurreko mugak ezartzearen aldeko neurriak hartzea eta abar bila dezakete; adibidez, hizkuntza-garbizatasunaren kasuan. Hizkuntzaren corpusari lotutako politiketan eragin handia izan dezakete horrelako ideologiek.

Normalean, hizkuntza nagusi baten aldeko ideologiek hizkuntza horren *garbitasuna* eta baliagarritasuna gorai-patzen dituzte. Nazio-hizkuntzen defentsa egiten duten ideologiak horren adibide garbiak dira. Bide horretatik, gehienetan, hizkuntza gutxituaren desprestigiorako joera handia izaten da eta horretarako mitologiarekin lotutako ideiak hedatzera ere hel daiteke. Horren adibide ugari aurki daitezke Juan Mari Torrealdaireren *El Libro Negro del Euskera* liburuan (Torrealdai, 1998).

Egoera elebidunetan, batez ere hizkuntza-gatazka egoeretan, zein munduko hizkuntza-aniztasunari loturik, ideologia mota ezberdinak agertzen dira. Ideologia horiek komunitatearen defentsa edo aurkaritza dute oinarrian. Hizkuntza-komunitatearen aitortpenak bere hizkuntzaren eta etorkizunaren jabe dela onartzea suposatzen du eta, zentzu horretan, aurrez aurre aurki daitezke ideologia diglosikoak eta hizkuntza gutxituen aldeko ideologiak, besteak beste.

Hizkuntza-taldearen presentzia eta gizartean talde horrek duen indarrak garrantzi handia du hizkuntzaren normalizazioan. Bizindar etnolinguistikoak erabileran eragin zuzena duela frogatu

da (Usarralde eta Martínez de Luna, 2004). Hizkuntzak maila sozialean duen presentziak, eza-gutza-maila, erabilera-eremuak, hiztunen gaitasun ekonomikoa... funtsezko datuak dira hizkuntzaren osasuna neurtu ahal izateko. Taldearen presentzia horri *bizindar objektiboa* deritzote, H. Giles, R. Y. Bourhis eta D. M. Taylor ikertzaileen *Towards a Theory of Language in Ethnic Group Relations* (1977) artikuluan ospetsuan (in Erize, 2008: 108). Baina maila sozialeko datu horiei gizartearen ikuspegi psikologikoa ere gehitu behar zaie. Hori argitzeko asmoz, galdetegi bat prestatu zuten, 1981ean, Richard Bourhis, Howard Giles eta Doreen Rosenthal-ek (in Erize, 2008: 111). Batetik, aipatutako datu soziologikoez hiztunek egiten duten estimazioa dago (hiztunen ustez hizkuntzak gizartean nolako presentzia duen), eta bestetik, hiztunek hizkuntza-aniztasuna kudeatzeko moduez pentsatzen dutena. Zentzu horretan, hiztunek hizkuntzaren aldeko politikez uste dutena neurtu behar da, hau da, hizkuntzen arloko neurriek gizartean duten onarpena. Alderdi horri *bizindar subjektiboa* deitzen zaio.

Talde bakoitzak duen indarrari *hizkuntza-boterea* esaten zaio. Botere horren kudeaketa da, hain zuzen ere, hizkuntza-politikaren helburua.

#### 1.4.4. Hizkuntza-politika eta hizkuntza-plangintza

Sarri sinonimotzat jo izan badira ere, ezin nahas daitezke hizkuntza-politika eta hizkuntza-planifikazioa. Politikak lotura du ideiekin, legedi eta araudiekin, egitasmoak asmatzearekin... Plangintzak, berriz, ideia edo helburu horiek betetzera bideratutako erabakiak dira; helbururako norabidean diseinatutako egitasmo eta neurriak.

Hizkuntza-politika bakarrik da ezaguna arazoak daudenean (Siguan, 2001). Horrek ez du esan nahi, Portugalen, Estatu Batuetan edo Britainia Handian, adibidez, hizkuntza-politkarik ez dagoenik. Aitzitik, herrialde horietan, hizkuntza nagusi bat egotea eta hain hedatuta egotea hizkuntza-politika jakin baten ondorioa da.

Askotan pentsatzen da hizkuntza-politika eta planifikazioa hizkuntza gutxituei eta txikiei loturiko kontuak direla, baina esan daiteke gizarte guztiek arautzen dutela, inplizituki nahiz esplizituki, hizkuntzen erabilera.

Hizkuntzaren inguruko erabakirik ez hartzea, legedietan ezer ez ezartzea, hizkuntzen etorkizuna *erabiltzaileen esku* uztea, hizkuntza gutxituen aurkako politika sunsitzaille baten adierazlea izan daiteke. Estatu jakobinoek (Frantzia da adibide argia) hizkuntza nagusia, estatukoa, aberriarena, babestu izan dute historikoki, beste hizkuntza gutxituen aurrean ezikusiarrena eginez. Erabilera debekatu gabe baina inolako babes eta laguntzarik gabe, berez hiltzen uztea, oso politika sunsitzaillea da. Zentzu horretan, esan daiteke hizkuntza-politika inplizituak eta esplizituak daudela.

Hizkuntzaren egoeraren inguruko hausnarketa eta politikak indarra hartzen ari dira, estatu-hizkuntza askoren etorkizuna bermatzera begira ere. Frantzia bertan, esaterako, ingelesaren aurrerakadak eta Frantziako lurraldean dauden etorkinek frantsesaz jabetzeko dituzten zailtasunek neurriak hartzera bultzatu ditu bertako agintariak. Horrela, Frantziako Konstituzioak 1992an ezarri zuen lehenengoz frantsesa errepublikako hizkuntza ofizial bakar. Horren ondo-

ren garatutako legeen ondorioz, frantsesa babesteko neurriak hartu dituzte eta neurri horietatik eratorritako arau zigortzaileen ondorioz, isunak ere jarri izan dizkiete frantsesaren erabile-  
ra bermatu ez duten zenbait enpresa eta talderi. 2008an Estatuak Frantziako lurraldean dauden  
bestelako hizkuntza gutxituak bertako ondareztat hartu zituen, nahiz eta inolako babesik edo  
laguntzarik eman ez. Frantses Akademiak (*Académie française*) aipamen hori iraingarritzat hartu  
eta ezabatzeko eskatu du.

Ukipen-egoerek hizkuntza-aldaketak ekartzen dituzte, baina aldaketa horien atzean erabaki  
pertsonalak egoten dira, sozialki baldintzatutako erabakiak. Gizartearen baldintzapenaren atze-  
an, arrazoiak, helburuak eta erabakiak egoten dira; hain zuzen ere, edozein politikaren oinarri-  
ko ardatzak. Irizpide horien arabera egindako hizkuntza-politikek eragina izaten dute hizkun-  
tzen errealitatean, baina, sarritan bestelako erabaki politikoek ere ondorioak izaten dituzte hiz-  
kuntzetan, batzuetan bilatuta eta beste batzuetan ez. Adibidez, herri batean aurrera eramaten  
den etxebizitza-politikak eragina izango du herriko bizitzan, eta ondorioz, hizkuntzan ere bai.

Hizkuntza-politiken helburuak corpusari ala estatusari begirakoak izan daitezke. Lehenengoak  
hizkuntza, zeinu sistema den aldetik, modernizatzerara, osatzera, arautzera edo estandarizatzerara  
bideratutakoak izaten dira. Politika horien helburua hizkuntzaren batasuna zaintzea, idazteko  
bidea ematea, etengabe aldatuz doan gizartera egokitzeko doitzea eta abar izaten dira.

Hizkuntza gutxituen kasuan, hizkuntzak berreskuratu behar dituen esparru berrietan, kodearen  
aldetik gabeziak egotea izaten da ohikoena. Hutsune horiek betetzeko irizpideak ezarri eta neu-  
rriak hartzeko politika egokia behar da.

Estatusari begira dauden hizkuntza-politiken artean helburu askotarikoak daude. Batzuek uki-  
penean dauden hizkuntzetako bat gailentzea izaten dute helburu; beste batzuek, aldiz, eleaniz-  
tasuna zaintzea edo hizkuntza gutxitua suspertzea (biziberritzea edo indarberritzea).

Nazio-estatu asko XVIII. mende hasieratik hasi ziren elebakartasunaren aldeko hizkuntza-poli-  
tika bultzatzen. Harrezkero, Europako estatu gehienek hizkuntza-politika hori bideratu dute.  
Ondorioz, hizkuntza ofizialak funtzio publiko garrantzitsu guztiak bereganatzen ditu. Estatuak  
beren hizkuntzaren garbitasuna zaintzeaz, ezagutza hedatzeaz eta mugen barnean nahiz kanpo-  
an, prestigioa eman eta zabaltzeaz arduratzen dira.

Gainera, hizkuntza euren mugez gaindi sustatzeko bideak ere ematen dituzte, horretarako  
beren-beregi sortutako erakundeen bitartez: British Council, Alliance Française, Instituto  
Cervantes, Società Dante Alighieri, Goethe-Institut... Eusko Jaurlaritzak, aurrekoen irudira,  
Etxepare Institutua sortu du 2009an.

Hala ere, badira bestelako hizkuntza-politikak ere, globalizazioaren garaian indar berezia har-  
tzen ari direnak. Adibidez, zenbait estatuk hizkuntza-aniztasunaren aurrean jorratzen dutena.  
Politika hauek eleaniztasunaren sustapena eta defentsa egitea, tolerantziatik babeserako pausoa  
ematea eta abar eskatzen dute. Horren adibidetzat jar daiteke Europako Kontseiluko Ministro  
Batzordeak Europako kultura eta hizkuntzak ondareztat jotzen dituela, eta babestu beharraz  
ohartarazten du; izan ere, hizkuntza-aniztasuna mehatxutzat hartu beharrean, aberastasuntzat  
hartzen du (HABE, 2005).

## 1. SOZIOLINGUISTIKARI SARRERA

Bestalde, migrazioen aurrean edota atzerriko hizkuntza erabiltzen duten komunitate txikien aurrean, gutxiengoekiko errespetua bilatzea eta nazioarte-mailako tratatuak bultzatzea hizkuntza-politika berrien egitekoa da.

Bide horietan egin beharreko urratsak ere ugariak dira: maila juridikoan nahiz politikoan ofizialtasuna eskuratzea (lurren osoan nahiz zati batean); erabilera nahiz atxikimendua sustatzea; Administrazioan, irakaskuntzan, komunikabideetan eta bestelako alorretan hizkuntzaren inguruko irizpideak ematea eta abar.

Politika horiek guztiak gauzapeña behar dute, neurriak modu antolatuan eman eta helburuak lortzera bideratutako bidea marraztu. Helburuak lortzera begirako planifikazioa behar da.

Planifikazioa gizartean arlo askori aplikatzen zaio. Ezagun dira hiri bateko hirigintza-plana, lurralde jakin bateko garapen-plana, erakunde bateko plangintza estrategikoa, obra baten planifikazioa, familia planifikazioa edota era ezberdinetako gazte-planak. Era berean hizkuntzaren inguruko planifikazioa egiten da, indarrean den hizkuntza-politikaren helburuak betetzera begira.

Plangintza horiek dimentsio ezberdinak har ditzakete, aplikazio-eremua zein den; izan ere, plangintza estatu edo herri oso batean, udalerrri batean, gizarteko arlo jakin batean edo enpresa edo erakunde batean aplika daiteke. Gainera, plangintzaren iraupena ere ez da beti bera izaten. Plangintza batzuek 5 urte iraun dezakete eta beste batzuk, aldiz, urtaro baten buruan burutzeko diseinaturik egon. Zentzu horretan, plangintza-mota ezberdinak daude: plangintza orokorra, plangintza estrategikoa, plangintza operatiboa, programazioa, plana, egitasmoa... (J. Inazio Marko, 2006).

Politika ereduekin bezala, hizkuntza-plangintzei dagokienez, bi motatakoak bereiz daitezke: corpusari begira daudenak eta estatusari begira daudenak. Lehenengoa, hizkuntzaren beraren elementuei dagokie. Idazteko irizpideak ezartzea (alfabetoa, ortografia-arauak...), eredu estandarra deskribatzea eta maileguak eskuratzeko irizpideak ezartzea dira, besteak beste, plangintza horien zereginak. Bigarrena, berriz, hizkuntzaren erabilera arautu eta sustatzeari lotuta dago. Estatusaren plangintzei legeak egitea, hizkuntza-paisaia aldatzea, erabilera bultzatzea, sustapenerako kanpainak egitea eta abar dagokie.

Dena dela, plangintzaren eragileei dagokienez, planifikazioa estatuaren politikatik eratorria edo politika horren eraginaren aurka herritik bultzatua izan daiteke.

Plangintza horiek oso ezberdinak dira eragin esparrua zein den: nazioartea, estatua, estatu federatuak, erregioak, udalak, elkarteak, taldeak... Guzietan planifika daiteke hizkuntzaren estatusa eta erabileraren sustapena. Horrelakoetan honako urratsak egin behar dira:

1. Asmoak definitu.
2. Diagnostikoa egin.
3. Asmoak lortzeko mekanismoak finkatu.
4. Mekanismoak aplikatu eta ekintzak burutu.
5. Ekintzen emaitzak ezagutu (diagnostiko berria).
6. Neurri berriak ezarri.



Enpresa mundura ere hizkuntza-plangintzak indar handiz heldu dira, eta enpresa bakoitzaren ezaugarri egokitutako planak ezarri dira. Ondorioz, enpresa askoren kudeaketan, hizkuntza-irizpideek garrantzia hartu dute.

### 1.4.5. Hizkuntzak aztertzeke ikerketa-metodoak

Atal honetan modu laburrean ikusi den bezala, hizkuntzaren eta gizartearen inguruan egindako hausnarketa teoriko eta ikerketa zientifikoak asko eta anitzak dira. Liburu honen helburua irakurleak ezagutza teorikoak jasotzea da, noski, baina era beran, bere interesekoa izan daitekeen arloan ikertzeraz bultzatzea ere bai. Izan ere, ezagutza-mailan sakontzeko eta teoria areagotzeko, ezagutza tazituan geratzen dena ikerketen bidez teoriaren mailara igotzea ezinbestekoa da.

Edozein ikerketaren aurrean, ikertzaileak, bere ezagutza baliatuz, errealitateari buruzko hipotesi batzuk planteatzen ditu. Hipotesi horiek zuzenak diren ala ez frogatzea da edozein egitasmu zientifikoren helburua. Hipotesiak egiazkoak direla erakutsiz gero, ikertzaileak arrakasta izan duela esan daiteke; hala ere, kontrako emaitzak ere, guztiz baliagarriak dira zientziarentzat, hipotesiak baztertzea ahalbidetzen dute eta.

Frogatze lan horretan, errealitatea aztertzeke bideak berebiziko garrantzia izango du. Galdera egokiei erantzun zehatzak eman ahal izateko, ikerketa-metodo zuzena aurkitzea funtsezkoa da. Helburu ezberdinak dituzten ikerketek ez dituzte bide berdinarik jorratuko.

Ikerketa-lana marko teoriko baten testuinguruan kokatzen da beti. Ikerketak ekar ditzakeen berrikuntzak, aurretik egindako lanen ekarpenak kontuan hartu eta zientifikoki frogatutako ezagutzatik abiatuta eraikiko dira. Marko teoriko horren azalpenak egitasmoa testuinguru epistemologikoan kokatzen laguntzeaz gain, oinarria emango dio ikerketari.

Marko teorikoa zedarrituta, egindako hipotesiak frogatzeko metodologia zehaztu beharra dago. Datuak jasotzeko erabiliko diren teknikak baliagarriak izango direla erakutsi behar da. Zentzu horretan, metodologia ezberdinen inguruko eztabaidak ugariak eta sakonak izan ohi dira, batzuentzat hipotesiak frogatzeko balio duten datuak, beste batzuentzat urriak edo ez-argigarriak izan daitezke eta.

Datuak jasotzeko, aurretik egindako bilketak edo ikerketarako propio bildutakoak erabil daitezke. Era beran, ikerketa diakronikoak joera edo bilakaera aztertzeke erabiliko dira; sinkronikoak, berriz, unean uneko errealitatea deskribatzeko.

Metodoak azterketan erabiliko diren datuak nola eskuratu eta ondoren nola landu eta interpretatu zehazten du. Jarraituko den metodologia ikerketa abiatu aurretik zehaztea da ohikoa, nahiz eta batzuetan lana abiatuta aldatetak gerta daitezkeen (batzuetan arinak baina beste batzuetan sakonagoak). Ikerketa hasi aurretik, marko teorikoa, hipotesiak eta erabiliko den metodologia zehaztuz proiektua idazteak hasierako planteamendu teorikotik ez irteten lagun dezake, nahiz eta batzuentzat zurruntasun horrek emaitzak muga ditzakeen.

## 1. SOZIOLINGUISTIKARI SARRERA

---

Soziolinguistikak ez du datuak eskuratzeko berezko metodologiarik. Beste diziplina batzuetatik hartutakoak erabiltzen ditu deskribatzen dituen errealitateen inguruko informazioa jasotzeko. Aldaera soziolinguistikoak jasotzeko erabiltzen diren metodoak dialektologian erabilitakoak izaten dira, nahiz eta eskuratutako datuak gurutzatzeko erabiltzen diren aldagaiak, geografikoak barik, soziologikoak izan. Grabaketak eta elkarrizketak (egituratuak zein irekiak) dira, beraz, gehien erabiltzen direnak. Estatusaren inguruko ikerketetan, berriz, antropologian, soziologian, psikologian eta abarretan erabilitakoak dira.

Beste gizarte-zientziekin gertatzen den bezala, azterketak kuantitatiboak ala kualitatiboak izan daitezke. Ikertzailearen interesen, lanaren helburuen eta bestelako baldintzen arabera, metodo bat ala bestea erabiliko da.

Ikerketa kuantitatiboak errealitate zabalak behatu eta hurbilketak egiteko erabili ohi dira. Normalean, inkestak, erroldak eta, oro har, datu zenbakarriak biltzeko teknikak erabiltzen dira. Ikerketa kualitatiboetan, berriz, gizarte hautemateak, jarrerak eta abar jasotzeko eta sakon aztertzeko erabiltzen dira. Horretarako, taldekako eztabaidak, elkarrizketak eta, oro har, guztiz gidatu gabeko teknikak erabiltzen dira (liburu honen 6. atalean, teknika bakoitzari buruzko informazio zehatza ematen da).

Euskal Herrian, era guztietako ikerketak egin dira: Eusko Jaurlaritzatik egindako erroldaren azterketatik edo inkesta soziolinguistikotik hasi eta elkarte bateko partaideen motibazioak aztertzerainokoak. Teoria eta teknika berriak ere garatu dira, hala nola, Txillardegiren azterketa matematikoan oinarritutako kale-erabileraren neurketa.

Metodologia gehienek esparru ezberdinetan aplikatzeko aukera ematen dute. Beraz, ikertzaileak ondo pentsatu behar du zer ikertu nahi duen eta zein bidek emango dion aukera bere helburua modurik seguru eta emankorrenean lortu ahal izateko.



SOZIOLINGUISTIKA ESKULIBURUA

## 2. HIZKUNTZAREN ALDAKORTASUNA

*LOREN V. MARTÍNEZ BERMÚDEZ*





## 2. HIZKUNTZAREN ALDAKORTASUNA

### 2.0. SARRERA

Hizkuntzaren aldakortasuna da kapitulu honetan mintzagai. Chomskyren eskolako zenbait gramatikarik hizkuntza ez dela aldatzen aldarrikatu arren, beste batzuek onartu egiten dute hizkuntza benetan aldatzen dela, sakoneko egituretan ez bada ere, azaleko kontuetan behintzat bai.

Iritziak iritzi, ez da gaian aditua izan behar hizkuntza-komunitate bereko partaideek berdin hitz egiten ez dutela jabetzeko. Aldaerak norbanakoarenak izan daitezke, hiztunak parte hartzen duen taldearenak, geografikoak, testuinguruak eragindakoak... Hiztuna bera ere kontziente da ez duela lanean eta etxean, adibidez, berdin hitz egiten.

Aldaketak, bestalde, hizkuntza den sistema eta azpisisitemen arteko harremanek sortutakoak izan daitezke, hau da, arrazoi linguistikoek eragindakoak, intralinguistikoak beraz; edo kanpoko arrazoiak sortutakoak, hiztuna bizi den gizartearen edo egoera komunikatiboaren eragileek bulzatutakoak, hots, estralinguistikoak.

Oro har, aldaera diatopikoa, diastratikoa eta diafasikoa ezberdintzen dira. Lehena dialekto eta azpidialektoetan islatzen da; bigarrena, soziolektoetan; eta hirugarrena, diskurto-mota ezberdinetan.

Kapitulu honen helburu nagusiak bi dira: batetik, hizkuntzaren aldakortasuna zertan datzan azaltzea; bestetik, hainbatetan aldaera horiek gizartearen aldagaiek eragindakoak direla, hau da, hizkuntzaren, hiztunaren eta gizartearen arteko harreman korapilatsuan lotura eta ondorio zuzenak daudela erakustea. Izan ere, hizkuntzak hainbat helburu ditu, besteak beste, komunikazioa lortzea eta talde zein pertsonen identitatea eraikitzea. Helburu horiek lortzeko, gizarte-harremanak sortu behar dira. Hizkuntza horrela ulertuta, ekintza soziala da. Hori guztia dela eta, gizartearen egoera, gertakizun, mugimendu, helburu eta abarrei begira azal daitezke hizkuntzan gertatzen diren hainbat fenomeno.

Zeregin horretarako, adituen lan, metodo, pentsamolde eta iritziak ekarriko dira orrialdeotara, horrela irakurleak gaiaren ikuspegi orokorra izan dezan. Zer esanik ez, kapitulu honetan ez dira gaiaren nondik norako guztiak plazaratzen, helburua xumeagoa baita. Dena dela, inork interes handiagorik izanez gero, bibliografiara jo dezake informazio zabal eta zehatzagoren bila.

## 2.1. HIZKUNTZA EZ DA MONOLITIKOA

Hizkuntza aldakorra da. Edozein hiztunek daki bere hizkuntza ez dela uniformea, ez hizkuntza-komunitatean, ez hizkera-komunitatean, ez bere jardunean. Ezagun da hizkuntza ez dela beti berdin erabiltzen. Ahoskera, intonazioa, lexikoa eta egitura sintaktikoak aldatu egiten dira hiztunen ahotan. Gramatiketan eta hiztegiatan biltzen diren egiturak eta lexikoa aukeratu eta moldatu egiten dira hitz egitean.

**Hizkuntza-komunitatea:** soziolinguistikaren aztergai den unitate soziala da. Autore batetik bestera, terminoaren adiera aldatu egiten den arren, oro har, esan daiteke hizkuntza bera erabiltzen duten hiztunek osatzen dutela hizkuntza-komunitatea.

Esan daiteke, beraz, hizkuntzak, bizirik dauden neurrian, ez direla estatikoak: *ekintza da hizkuntza, ez emaitza bukatua* (Iñaki Camino, 2009). Historian zehar (diakronian) aldatu egiten dira nabarmen, baina hiztun garaikideek ere ez dute berdin hitz egiten; beraz, sinkronian ere ikus daiteke aldagarritasuna. Shakespeare, Cervantes, Etxepareren lana irakurrita, berehala konturatuko gara orduko ingelesa, gaztelania eta euskara ez zirela gaur egungoak bezalakoak, hainbat aldaketa fonetiko-fonologiko, morfosintaktiko eta lexiko gertatu dira hizkuntza horietan azken ia bostehun urteetan. Batzuk arrazoi linguistikoek sortutakoak (fonemen neutralizazioak: gaztelaniaz /b/ eta /v/ fonemena, bizkaieraz /s/ eta /z/-rena), eta beste batzuk arrazoi ekonomiko-sozialengatik gertatutakoak (besteak beste, zientzia- eta teknologia-aurrerapena dela eta, hainbat hitz zaharrituta geratu dira eta beste hainbat sortu, egokitu, mailegatu...).

Sinkronian ematen diren aldaketak ere nabarmenak dira: gazteek eta zaharrek ezberdin hitz egiten dute; gainera, oso arraroa izango litzateke aitona-amonek neska-mutilen aldaeran aritzea, eta alderantziz; familia- edo lagun-giroan eta lanean erregistro ezberdinak erabiltzen dira; erai-kuntzako langileek eta abokatuak ere ez dute berdin hitz egiten... Hau da, hizkuntza-maila ezberdinak izaten dira sinkronian: familiarra, zaindua, teknikoa, kultua, herrikoa, gizarte-talde jakinetakoa, hainbat azpitaldetakoa (argot-mota ezberdinak). Horrez gain, aldaera geografikoak daude: dialektoak, azpidialektoak...

**Aldaera:** aldagai multzo batean aldaki jakin batzuk hautatuz sortzen den hizkuntzaren erabilera sailkagarria, nolabaiteko sistema osatzen duena.

Bestalde, hizkuntza gehienak bestelako hizkuntzekin daude kontaktuan, eta ukipen-egoeran dauden hizkuntzek, ezinbestean, elkarren eragina jasoko dute bai fonologian, bai morfosintaxian, bai lexikoan. Gaur egun, ingelesa mundu-mailako komunikazio-hizkuntza nagusia da. Zientzia-arloan argitaratzen denaren ehuneko handi bat ingelesez dago. Informatika eta Interneten gara-

## 2. HIZKUNTZAREN ALDAKORTASUNA

penaren ondorioz, ingelesa oinarri duen hiztegi berezitu oso bat garatu da edozein hizkuntzatan. Beraz, ingelesaren eragina ia mundu osoko hizkuntzetan nabarmena da, neurri handi batean lexikoan baino ez bada ere.

Euskal Herrian, hizkuntza-ukipenak izaten dituen ondorioen oso adibide argia daukagu. Frantsesa eta espainolaren ezaugarriak barneratu egin dira euskararen maila linguistiko guztietan. Bestalde, neurri txikiagoan bada ere, bertan hitz egiten den gaztelanian euskararen hainbat zantzu aurki daitezke (*Hoy también no ha venido, eran para venir a las siete, caer ha hecho y romper la pierna, si lo sabría ya te diría...*).

Etengabeko aldaketa hizkuntza-ekintzaren berezko ezaugarria da. Hizkuntzalaritza tradizionaleko ikertzaile batzuek pentsatu izan dute aldaketak ausazkoak direla; beste batzuk, ordea, aldaketen arrazoa bilatzen ahalegindu dira hainbat eragile aipatuz: igorlearen gizarte-ezaugarriak (emakunetzkoa/gizonezkoa, gaztea/zaharra...); hartzailearenak (ezaguna/ez ezaguna, estatus altuago/baxuagokoa...); hizkuntza-ekintza gertatzen den esparrua (etxea, lantokia, aisialdirako lekua...); mintzagaia, helburua eta abar. Isabaert-ek (1977, *in Camino* 2009) dioenez, hizkuntza ez da mekanismo guztiz perfektua, zirrikitzu beterikoa baizik, eta horrexek zabaltzen die bidea aldaketei. Galdera nagusiak bi dira: zergatik aldatzen dira hizkuntzak? Nola gertatzen dira aldaketa horiek?

Hizkuntzetan indar kontrajarri bi aritzen dira, bata zentripeto dei dezakeguna eta bestea zentrifugoa. Lehenengoak batasuna eta egonkortasuna bultzatzen ditu, eta, oro har, komunikatzen eta elkarri ulertzen jarraitu beharrak elikatzen du; bigarrenak, berriz, aldakortasuna sortzen du, eta kapitulu honetan azalduko dira fenomeno horren zenbait arrazoi. Indar bakoitzak norainoko eragina duen, hizkuntzak bere horretan luzaroan iraungo du edo aldaketa-prozesu arina jasango du.

Aldaerak deskribatu, aldagarritasuna eragiten duten faktoreak zeintzuk diren zehaztu, euren eragina norainokoa den neurtu, gizarte-talde bakoitzari zer aldagai dagokion ikusi..., hori guztia da ikergai soziolinguistikaren adarra den bariasionismoan edo aldakortasunean.


William Labov-ek, diziplina honen aitzindariak, eta bere jarraitzaileek egindako ikerketa soziolinguistikoetan hainbat bereizgarri identifika daitezke. Tracy D. Terrell-ek (1983, *in Maitena Etxebarria*, 2002) honela sailkatu ditu:

1. Gune jakin bateko bereizgarri guztiak kontuan izan beharrean (dialektologia tradizionalean egiten den bezala), garrantzi teorikoa duten ondo mugatutako fenomenoak aztertzen dira.
2. Corpuserako datuak biltzeko, elkarrizketa askeen grabazioa erabiltzen da.
3. Gizarte-parametro jakin batzuei begira aukeratzen da hiztun-lagina.
4. Aztertutako fenomenoaren analisi eta estudio kuantitatiboak egiten dira.

Labov-ek, Weinreich-ek eta Herzog-ek (1968, *in Humberto López Morales*, 1993) planteatu zuten hizkuntzak egitura heterogeneoak direla, baina heterogeneotasun hori modu ordenatuan gertatzen dela, hau da, hizkuntzaren barruko eta kanpoko aldagaien ko-bariazioak definitzen du



hiztunak erabiltzen duen mintzamoldea edo aldaera. Labovek egindako lehenengo ikerketetan, eta geroagokoetan ere bai, frogatuta dago tesi hori. New Yorkeko ingelesa aztertu zuenean (Labov, 1966a, *ibid.*), bertako gaitasun soziolinguistikoa definitzen dituzten aldagaiak, batetik, gizarte- eta ekonomia-maila eta, bestetik, adina direla frogatu zuen: goi-mailako hiztunek /r/ fonema ahoskatu egiten dute kontsonante aurrean eta hitz- amaieran; behe-mailakoek, ordea, /r/ ahoskatu ez eta aurreko bokala luzatu egiten dute. Lan horretan, /th/ segmentu fonikoaren aldaerak ere ikertu zituen, soziolekto barruko lau estilotan (bat-batekoa, zaindua, testu-irakurmena eta hitz solteen irakurmena); emaitzek frogatu zuten, berriro ere, maila sozialak eta ekonomikoak eragin handia daukatela bertako hiztunek erabiltzen dituzten aldaeretan: maila altukoek bat-bateko estiloan aldaki frikaria nahiago dute; baxukoek, ordea, herskariak eta afrika-tuak. Manuel Alvarrek horrela irudikatu zuen hizkuntza-aldagarritasuna.



**7. irudia:** aldaera linguistikoen arteko harremanak azaltzen dituen piramidea. *Manual de dialectología hispánica. El Español de España* (Manuel Alvar, 2007: 39).

Hona hemen Labovek Philadelphian hizkuntza-aldaketa eta aldakortasunari buruzko lanetatik ateratako ondorio nagusiak (*in* Larraitz Garmendia, 2001):

1. Hizkuntza-aldaketak erdi-mailako gizarte taldeetatik sortzen dira.
2. Horren barruan, berritzaileak estatus handieneko pertsonak izaten dira.
3. Berritzaileek gizarte-elkarreraginean dentsitate mailarik handiena dute.
4. Hizkuntza-aldaketa gehienetan emakumeak gizonen aurretik doaz.
5. Sartzan diren etnia-talde berriek eskubide eta pribilegioak lortzen hasten direnean hartuko dute parte hizkuntza-aldaketan.

Puntu honetara helduta, komenigarria da hizkuntza, dialekto, soziolekto, idiolekto bezalako terminoei buruzko zehaztapen edo definizio batzuk argitzea, labur bada ere.

### 2.1.1. Hizkuntza

Hizkuntza sistema birtuala da, kontzeptu teorikoa, abstraktua. Saussure-ren, Pragako eskolaren eta Amerikako estrukturalisten ikuspuntutik, hizkuntza elkarri lotuta dauden zeinuen sistema da; bertako elementuek (soinuek, hitzek...) ez daukate berezko esanahirik, baizik eta sisteman daukaten oposizio- eta ekibalentzia-harremanek ematen diete.

### 2.1.2. Dialektoa

*Dialektos* forma grekoak Grezia osoan erabiltzen ziren sistema ezberdinak aipatzeko erabiltzen zen. Bakoitza literatura-genero jakin bateko sistema zen (jonikoa, genero historikoan; dorikoa, kantu koralean...). *Dialektos* Greziako herrialde bakoitzeko hizkuntzatzat hartzen ziren eta eremu horretako dialektoak (gaur egungo zentzuan) barnebiltzen zituzten.

Dialektoa berezko sistema lexiko, morfosintaktiko eta fonetikoak daukan aldaera da eta hizkuntza baino eremu geografiko mugatuagoan erabiltzen da. Sistema horrek eta eremu horretako hizkuntza estandarrarenak jatorri berbera dute, baina batzuetan ez du lortzen honek daukan estatus soziokulturala. Dialektoak, beraz, aldaera geografiko edo diatopikoak dira.

Prestigioa aipatzen da auzi honetan, zenbait eremutan hizkuntzak izaten baitu dialektoak baino prestigio handiagoa. Hiztun kopuru handia duten eta geografian sakabanatuak dauden hizkuntzen kasuan (ingelesa, portugesa, gaztelania), ordea, eragile honen ondorioak ez daude hain argi. Hizkuntza-komunitate horietan *estandarra* hizkuntza-aldaera bat baino gehiago da. Adibidez: BBCn erabiltzen den aldaera da Ingalaterran estandarra, baina ez New Yorken.

Dialektoak muga geografiko edo politikoez zehaztutako eremuetan zabaltzen dira. Aldaera geografikoaren erabilera, dena dela, ez da berdina hiztun guztiengan, hizkuntza gizartearen barneko egituraren isla ere baita; beraz, bereizgarri sozialek ezkutatu egin ditzakete ezaugarri dialektalak. Bestalde, gizabanakoa bizilekuz aldatzen bada, berarekin daraman hizkera ingurune berri horretako molde edo hizkuntza-aldaerara egokitzen da, neurri handi edo txikiagoan; etorkinek komunitateak sortzen badituzte, jatorrizko hizkuntza beraien entitateari eusten dion gizartelotura bihurtzen da eta, kasu horretan, dialektoak trinkoago eta luzaroago irauango du. Harreman-sarea hain dentsua ez denean, eta etorkina gizarte berrian integratu ahala, ezaugarri dialektalak ere ezabatuz joango dira.

**Aldaera diatopikoa:** dialektoa. Dialektoa berezko sistema lexiko, morfosintaktiko eta fonetikoak daukan aldaera da eta hizkuntza baino eremu geografiko mugatuagoan erabiltzen da.

### 2.1.3. Soziolektoa

Gizabanakoak intuitiboki egiten duen gizartearen sailkapena, neurri handi batean, hiztunen arteko ezberdintasun linguistikoeetan oinarritzen da: hiztuna, zer aldaera erabiltzen duen, halako taldekidea dela esaten da.

Aldaera linguistikoak estandar eta ez-estandarrik izaten dira. Azken horiek, inoiz jarrera negatiboa eragiten dute erabiltzen ez dituztenen artean; horrelakoetan, pentsa daiteke gizarte-maila baxu edo heziketa ezaren ondorioa dela aldaera ez-estandarria erabiltzea. Aldaera ez-estandarrik, beraz, sozialki markatutako elementuak ditu. Dena dela, erabiltzen den eremuan gehien-goaren hizkera izanez gero, baliteke ezkutuko prestigioa ere izatea. Bestalde, egoera desegokian estandarria erabiltzeak ere entzulearen gaitzespena ekar dezake.

Soziolektoa edo dialekto soziala, beraz, gizarte-talde jakin baten aldaera linguistikoa da. Aldaera diastratikoaren barruan ematen den fenomeno da, hiztunaren ezaugarri sozialen arabera aldaki multzoa baita. Soziolekto terminoaren barruan, lanbide jakin bati dagokion aldaera zein gizarte-mailari dagozkion aldaerak barnebiltzen dira. Soziolektoak, beraz, hainbat eragilek sortzen dituzte: gizarte-klaseak, heziketak, lanbideak, adinak, jatorriak... Gizarte-mailaketa argi eta zehatza dagoen herrialdeetan, soziolektoak hiztunaren klase soziala definitzen du, eta hori baliteke integrazio sozialerako oztopo izatea.

**Aldaera diastratikoa:** soziolektoa edo dialekto soziala. Gizarte-talde jakin baten aldaera linguistikoa da; hiztunaren ezaugarri sozialen arabera aldaki multzoa. Soziolekto terminoaren barruan, lanbide jakin bati dagokion aldaera zein gizarte-mailari dagozkion aldaerak barnebiltzen dira. Soziolektoak, beraz, hainbat eragilek sortzen dituzte: gizarte-klaseak, heziketak, lanbideak, adinak, jatorriak... Gizarte-mailaketa argi eta zehatza dagoen herrialdeetan, soziolektoak hiztunaren klase soziala definitzen du.

### 2.1.4. Idiolektoa

Idiolektoa norbanakoen aldaera da, hiztun bakoitzaren hizkera. Hau ere ez da estatikoa, hiztunaren esperientziek, bizipenek, beharrianek... eragingo baitiote; beraz, aldatuz eta garatuz joango da. Aldaketa, baina, ez da hiztunak hala erabakita gertatuko, elkarrekiko komunikazioa lortuko bada, nolabaiteko adostasun pragmatikoa egon behar da hiztunen artean; beraz, hizkera-komunitatean, idiolekto batetik bestera ezin da alde handirik egon; hori komunikagarritasunaren printzipioaren kontrakoa litzateke.

Hiztunak, bestalde, inguruan entzuten duena errepikatzeko joera dauka. Horregatik dio Caminok (2009): *Edozein unetan, lekuko baten mintzoa, hainbat mintzalagunengandik bildu diren ohituren bilduma berezi edo unikoa da.*

## 2. HIZKUNTZAREN ALDAKORTASUNA

Idiolektoa garatzen eta aldatzen doan hizkera da. Gizabanakoen idiolektoen arteko aldaketak ere sexuak, talde etnikoak, ikasketa-mailak, gizarte-klaseak eragingo dituzte. Hiztunak bizi duen momentu historikoa, bere egoera sozial edota ekonomikoak eragindako bizimoduaren aldaketa, harreman sarearen nolakotasuna... Horrek guztiak eragingo du hiztun bakoitzak daukan hitz egiteko modu errepikaezina.

Hizkuntza batean, beraz, hiztun beste idiolekto daude. Hiztunik ez daukan hizkuntzarik ez dagoenez, eta idiolektoek aniztasun eta aldagarritasun handia daukatenez, esan genezake hizkuntza, dialektoak eta soziolektoak idiolekto (hiztun) kopuru jakin batean ematen diren ezaugarrien abstrakzioak direla.

**Idiolektoa:** idiolektoa norbanakoen aldaera da, hiztun bakoitzaren hizkera. Ez da estatikoa, hiztunaren esperientziek, bizipenek, beharriazek... eragingo baitiote; beraz, aldatuz eta garatuz joango da. Hiztun beste idiolekto dago.

### 2.1.5. Estandarra

*Estandarra* hizkuntzaren beste aldaera bat da. Tokian tokiko soziolektoaren erregistro altuena izaten da eta Ferguson-ek (1959, in López Morales, 1993) honela definitu zuen:

- Aldaera estandarra funtzio formaletan erabiltzen da.
- Prestigio handia dauka.
- Literaturan erabiltzen da.
- Ikasi egiten da (ez da inoren ama-hizkuntza).
- Estandariztua dago.
- Ez da aldakorra.
- Gramatika landua dauka.
- Hiztegi aberatsa dauka arlo kultural eta teknikoan.
- Oro har, ama-hizkuntzaren fonologia dauka.

Dena dela, hedadura handiko hizkuntzek, eta txikiagoek ere bai, estandar forma bat baino gehiago dute. Edozein hizkuntza araututan irakurtzen duenak badaki estandarrak lexikoan, fraseologian eta gramatikan, neurri txikiagoan, desberdinak direla; are gehiago nabaritzen da ahozkoan, hizkera bakoitzaren berezitasun fonologiko eta prosodikoak (azentua, intonazioa, fonemaren tentsioaren iraupena) agerian geratzen direnean. Karmele Rotaetxek dioenez (Rotaetxe, 1990), estandarra balio sinbolikoa duen beste aldaera bat da eta gradu-eskala batean kodifika daiteke; gradu altuena, *norma* izango litzateke, eta baxuena, *estandar* deritzona.

## 2.1.6. Gaitasun soziolinguistikoa

Aldakortasuna eta beraren arrazoi sozialak ondo barneratuta daude hiztunen pertzepzio soziolinguistikoan. Solaskidearen hizkerak berari buruzko informazioa ematen digu. Adibidez, *h*-ren aspirazioak, *det* aditz laguntzaileak, esamolde batek edo erdaratik hartutako egitura sintaktiko batek hiztuna lapurtar edo baxenafarra, gipuzkoarra, gaztea edo euskaldun berria dela adieraz dezakete, hurrenez hurren. Hiztun-komunitate bateko kideek, beraz, ondo ezagutzen dituzte hizkeren eta gizarte-mailako faktoreen arteko loturak, hots, **gaitasun soziolinguistikoa** dute.

Hizkera-komunitate jakin batean, komunikatzeko, idatzi gabeko hainbat konbentzio daude, bertako partaideek ondo ezagutu behar dituztenak: elkarreraginerako komunikazio-arau linguistikoak, kulturalak eta sozialak. Euskaraz, adibidez, pertsona nagusiei hika ez hitz egitea, egoera formaletan biraorik ez botatzea, gauzak mesedez eskatzea...; azken hau, ingelesez nahitaezkoa ei da. Gizabanakoek duten ezagutza orokor horri gaitasun soziolinguistikoa deritzo.

Humberto López Moralesek honela definitzen du: gaitasun soziolinguistikoa arau multzo batek osatzen du; horretan, arauak bideratzen dituzten eragile linguistikoak ez ezik, hizkuntzatik kanpoko eragileak ere badaude, eta horiek, arauak betetze/ez betetzea, aldatzea bultzatzen dute. Batetik, arauak baldintzatzen dituzten elementu estrukturalak daude; bestetik, izaera soziala, geografikoa edo etnografikoa dutenak, arauai ñabardurak jartzen dizkietenak. Hiztunak jakin ohi du noiz erabili bata ala bestea; erabakia kontzientzia linguistikoak motibaturik dago, eta azken hau, testuinguru komunikatiboak bultzaturik. Hizkuntza-ekintza oro gaitasun soziolinguistikoaren isla da beti (López Morales, 2004: 49).

**Gaitasun soziolinguistikoa:** hizkera-komunitate jakin batean, komunikatzeko, idatzi gabeko hainbat konbentzio daude, bertako partaideek ondo ezagutu behar dituztenak: elkarreraginerako komunikazio-arau linguistikoak, kulturalak, sozialak. Gizabanakoek duten ezagutza orokor hori da gaitasun soziolinguistikoa.

## 2.1.7. Hizkera-komunitatea

Arestian aipatu dugunez, hiztunek euren burua talde batean edo bestean kokatzen dute, baita beste hiztunak ere. Hizkeraren bitartez, euren nortasuna adierazten dute. Ezberdina izan nahi izateak aldakortasunean eragiten du. Talde jakin batekoek soziolekto horretako berezitasunak izango dituzte euren hizkeran eta, era berean, beste talde baten soziolektoa definitzen duten bereizgarriak ez dituzte erabiliko; horrela, gizaratean kokatzen dira, eta inguruko hiztunak ere bai.

Taldeko partaideek **hizkera-komunitatea** osatzen dute. Komunitatearen barruan erabilera-arauak daude eta, adibidez, egoera jakinetan “egokia” eta “desegokia” zer den finkatuta egoten da.

**Hizkera-komunitatea:** gutxienez hizkuntza bat partekatzen duten hiztunen multzoa da. Hiztunek, hizkeraren bitartez, euren burua talde batean edo bestean kokatzen dute, euren nortasuna adierazten dute. Komunitatearen barruan erabilera-arauak daude. Nahiko heterogeneoak izaten dira. Hitzun bera komunitate bat baino gehiagoko partaide izan daiteke eta, ondorioz, aldaera ezberdinak erabili une bakoitzean.

Hainbat autore saiatu dira hizkera-komunitate kontzeptua definitzen ikuspuntu ezberdinetatik. Adibidez, Leonard Bloomfield-ek (1933: 42, in López Morales) ikuspuntu linguistiko hutsa erabili zuen: *hizkuntzaren bitartez erlazionatzen den jende taldea*. Baina definizio honek ez du balio soziolinguistikarako.

Francisco Moreno Fernándezen ustez (Moreno Fernández, 1998: 19), komunitate hauek nahiko heterogeneoak izaten dira. Hitzun bera komunitate bat baino gehiagoko partaide izan daiteke eta, ondorioz, aldaera ezberdinak erabili une bakoitzean. Horregatik, sarritan zaila izaten da mintzamolde bakoitzaren mugak ezartzea. Autoreak honela definitzen ditu: *hizkera-komunitatea gutxienez hizkuntza bat partekatzen duten hiztun multzoa da, baina, horrez gain, arau eta balore soziolinguistiko multzoa ere badaukate: hizkuntza-jokabide berberak, erabilera-arau berberak, hizkuntza-ekintza sozialki ebaluatzeko irizpide berbera, eredu soziolinguistiko berberak*.

Manuel Almeidak (2003: 107) ere aipatzen ditu hizkera-komunitateen heterogeneotasuna eta horrek dakartzan definizio-arazoak, balio unibertsala duten irizpideak zehaztu behar baitira hiztun-talde bat komunitate bereberek partaide den ala ez erabakitzeko.

Homogeneotasun ezak hainbat iturri izan ditzake. Baliteke komunitate berean erlijioa, kultura, pentsamolde politikoa direla eta, talde ezberdinak egotea; talde horien barruan ere ezberdintasunak egoten dira (adina, sexua, gizarte-maila...); bestalde, gaur egungo bizimoduak eraginda, komunitateak ere ez dira estatikoak.

Caminok (2009) *Le Page*-ren Erreferentzia Taldearen Teoria azaltzen du: norbanakoaren hizkuntza-jokaera partaide den taldearen hizkeraren isla da; izan ere, hizkuntza-ekintza, gizartean, identitate-ekintza ere bada.

Aldaerak, beraz, talde ezberdinen adierazgarriak dira. Hizkeren eta taldeen lotura psikologikoen ondorioz, komunitateko kideek baloratu egiten dituzte. Sarritan estereotipoak sortzen dira: zonalde batekoek txarto hitz egiten dute, norbaitek halako lekutakoa ematen du, hitz bat modakoa da edo bestea zaharkitua dago... Horren ondorioz, prestigiodun aldaerak sortzen dira. Soziolengaien kasuan, normalean, gizarteko goi-mailako hiztunek erabiltzen dituzten aldaerak izaten dira prestigiodunak.

Hizkuntzaren erabilera ezberdinduak egoera geografikoaren edo gizarte-taldearen araberrak izan daitezke, orain arte ikusitakoaren arabera. Lehenengoa, aldaera diatopikoa edo geolinguistikoa, dialektologiari dagokio; aldaera diastratikoa edo soziala, aldiz, soziolinguistikari.

Baina, era berean, hiztun batek ez du hizkera bera erabiltzen lagunarteko egoera ez-formaletan edo formaletan; ezta eskolako patioan, unibertsitateko bulego batean, amari dirua eskatzean edo lagunekin parranda bat gogoratzean ere. Zergatik? Bada, egoera komunikatiboak ere (hartzaila, igorlea, helburua, kanala...) eragin zuzena izaten duelako hitz egiteko moduan. Azken horri aldaera diafasikoa edo estilo-aldiera deritzo.

**Aldaera diafasikoa:** hizkuntza-ekintza jakin batean, testuingurua kontuan izanda (igorlea, hartzaila, helburua, erabilera-esparrua) erabiltzen den hizkera.

Hori guztia aldaera libretzat hartzeak hizkuntzaren inguruko edozein teoria hankamotz uzten du. Lehen esan dugunez, aldaerak deskribatu egin behar dira, zer eragilek sortu dituzten eta zer nolako eragina izan duten zehaztu, aldaera jakin bat zein gizarte-taldek erabiltzen duen ikertu, zer testuingurutan gertatzen den... Horretaz guztiaz arduratzen da bariazionismoa.

## 2.2. ALDAERA-MOTAK

Lehenengo eta behin, aldagai, aldaki eta aldaera kontzeptuak zehaztu egin behar dira. Jakina denez, hizkuntzak aukera ezberdinak eskaintzen ditu gauza bera esateko; hori gertatzen da elementu jakin baten ordez beste bat erabiliz gero, horrek esanahia aldatzen ez duenean. Aldagaia emaitza ezberdinak eman ditzakeen balioa da. Soziala ala linguistikoa izan daiteke; adibidez, sexua edo adina gizarte-aldagaiak dira; linguistikoaren artean, honako hauek egon daitezke: maila lexikoan, *berba/hitza*; maila fonetiko-fonologikoan, bokal arteko /r/-a; maila sintaktikoan, esaldiaren ordena. Aldakia aldagaiak ematen dituen emaitzetako bakoitza da: emakumezkoa, gaztea, *berba*, [r]-ren galera, *Subjektu-Aditza-Objektu zuzena* (SVO) hurrenkera sintaktikoa. Aldaera aldagai batzuetan aldaki jakin batzuk hautatuz sortzen den hizkuntzaren erabilera da.

**Aldagaia:** emaitza ezberdinak eman ditzakeen balioa da. Soziala ala linguistikoa izan daiteke; adibidez, sexua edo adina gizarte-aldagaiak dira; linguistikoaren artean: maila lexikoan, *berba/hitza*; maila fonetiko-fonologikoan, bokal arteko /r/-a; maila sintaktikoan, esaldiaren ordena.

**Aldakia:** aldagaiak izaten dituen emaitzetako bakoitza da. Aldagai sozialak generoa eta adina badira, aldakiak emakumezkoa eta gaztea izan daitezke, adibidez. Aldagai linguistikoa, maila lexikoan, *berba/hitza* bada, *berba* izan daiteke aldakia; maila fonetiko-fonologikoan,

aldagaia bokal arteko /r/-a bada, [r]-ren galera izan daiteke aldakia...

### 2.2.1. Aldagarritasunaren alderdi linguistikoak

Aldagai linguistikoak aztertzean, hizkuntzaren osagai guztiak izan daitezke behaketarako gai, baina badira aldagai bat aztergai interesgarri bihurtzen duten ezaugarriak. Maiztasuna, sistema itxietan txertaturik egotea eta estratifikazio sozial eta estilo ezberdinetan aldi berean duen hedadura dira, Morenoren ustez, esanguratsuenak. Ikergaiak, ezaugarri horietatik zenbat eta gehiago bete, orduan eta esanguratsuagoa eta baliagarriagoa izango da ikertzailearentzat (Moreno Fernández, 1998).

#### Aldagai fonetiko-fonologikoak

Hauxe da alderdirik ikertuena; izan ere, goian aipatutako ezaugarriak (sistema itxia, maiztasuna...) bete egiten ditu. Bestalde, fonemak ahoskatzeko modu ezberdinek, oro har, ez dute arlo semantikoan, esanahian, inolako aldaketarik eragiten. Dena dela, ahoskera alderdi deigarria da edozein hiztunentzat eta, ondorioz, ezaugarri jakin bat edo batzuk dituen hizkera entzunda, berehala igarriko da ezberdintasunak esanguratsuak direla hizkuntzaren alderdi sozialean. Fonema jakin baten ebaketa ezberdinak berehala ematen digu hiztunari buruzko informazio ugari.

Alderdi hau, gainera, ez da zaila aztertzen; izan ere, erraz demostra daiteke fonemen alternantziek, gehienetan, ez dutela esanahi-aldaketarik ekartzen, eta, ondorioz, aldagarritasunaren azterketarako elementu aproposa da. Horrez gain, aldaera bakoitza gertatzea ahalbidetzen duten aldagai sozialei lotzeko ere ez da zailtasun berezirik izaten.

Dena dela, azterketan neurtuko diren fonemak zehaztea zaila izaten da. Fonema baten aldakiak infinituak izan daitezke; batzuetan, faktore erregularrek sortutakoak (testuinguruak, aldaera geografikoa...); beste batzuetan, eragile aldakorrek eragindakoak (komunikazio-egoera edo hiztunaren ezaugarri fisikoak, adibidez). Azken horien eragina aztertzaileak neurtu beharko du. Gainera, bai batzuk bai besteak aldi berean gerta daitezke, hau da, batzuetan, eragile linguistikoek sozialekin batera eragiten dute aldaera. Horregatik, aztertuko diren aldagai fonetikoek baldintza jakin batzuk betetzen dituzten soinu guztiak barnebildu behar dituzte. Adibidez, aurrerago aipatzen den Bill Haddican-en lana dugu, euskararen /r/-ren galera aztertzen duena (Haddican, 2005).

Aldaki fonetikoak eragiten dituzten faktore linguistikoak hiru taldetan sailka daitezke. López Morales-ek (1993) honela banatzen ditu:

1. Aztergai den fonemaren kokapenak eragiten dituen faktoreak, hau da, kate fonikoan fonemaren posizioa zein den: silaba hasieran/amaieran, barruko silaban, hitz hasiera/amaieran... Adibidez, erdialdeko euskararen, bokalen arteko [r]-ak [0] ematen du, baina ez hitz amaieran.
2. Testuinguruak sortutakoak, hau da, aldakiaren aurrean zein atzean zer elementu dau-



den: kontsonante/bokal aurrean edo atzean, pausa atzean doan... [t] + [b] elkartzean, [p] ematen dute (*bat-batean*>[bapatean]).

3. Eragile funtzionalak, hots, aldaera zein kategoria gramatikaletan sartzen den: funtzioa, morfema-mota... Mendebaldeko eusakaran, *behar* berba, aditz funtzioa egiten bada, laburtu egiten da ([eininbisu]), baina izena bada, ez ([bearra/biarra dekot]).

## Aldagai morfologikoak

Alderdi honetan ere, faktore linguistikoek eta sozialek eragiten dute, bai bakoitzak bere aldetik, bai elkarrekin. Goian aipatu denez, aztergaririk egokiena maiztasun handia daukana, zorrotz egituratutako sistema batekoa dena eta distribuzio soziala zein diafasikoa (estilistikoa) duena da. Baldintza horiek guztiak esanahi gramatikala duten morfemek betetzen dituzte ondoen; horiexek dira aldaki fonetiko-fonologikoekin antzekotasun handiena dutenak, ikertzen errazekinak, beraz. Esanahi lexikoa duten morfemekin, ordea, zailtasun handiagoa sortzen da, aipatutako baldintza horiek ez baitituzte hain zorrotz betetzen.

Euskaraz, deklinabidearekin eta aditzarekin loturiko aldakiak dira adierazgarrienak. Bizkaieraren aldaera batzuetan, adibidez, soziatiboan *-gaz* atzizkia erabiltzen da (*nigaz, umeagaz, zuokaz...*); aditz laguntzailean *eutsi* erroa nor-nori-nork formetan (*deust, deustut, deuskuzu, deustet...*) eta abar. Aipagarria da Pedro Irizarrek L.L. Bonaparteren sailkapenean oinarrituta egin zuen aditz laguntzailearen sailkapena (Irizar, 1981).

## Aldagai sintaktikoak

Aldaki sintaktiko bik esanahi berbera duten frogatzea ere ez da erraza. Beatriz Lavanderak, 70eko hamarkadan (1977, 1978, 1979, 1982, 1984, in Almeida, 2003) plazaratutako hainbat artikulutan, zalantzak agertzen ditu aldagarritasunaren analisia arlo fonetiko-fonologikotik kanpo ere erabil daitekeen, ondo antolatutako esanahiaren teoriarik ez baitago. Egin egin daitekeela dio, baina horretarako irizpideak ezberdinak izan behar dira; lehenengo eta behin, aldaki sintaktikoen arteko sinonimia frogatu egin behar da beraien azterketari ekin aurretik. Adibidez, *Nork egin du lan hori?* eta *Lan hori nork egin da?* esanahi pragmatikoari dagokionez guztiz berdinak diren, hau da, aldagai berbereko aldaki bi diren frogatzeko teoria beharko litzateke, gero aldagarritasunaren teoria aplikatu ahal izateko. Hori dela eta, autoreak baliokidetasun semantikoaren irizpidea baino, funtzio- parekotasunarena erabiltzea proposatzen du, hau da, aztergai diren aldakiek komunikazio-helburu berdina duten ala ez ikusi beharko litzateke. Dena dela, D. Sankoff-ek eta Silva-Corvalán-ek (1988 eta 1988: 100, in Almeida, 2003) diotenez, bi hizkuntza-unitatek esanahi bera izan ez arren, dauzkaten desberdintasunak diskurtsoan neutraliza daitezke; beraz, soziolekto eta testuinguru jakin batean edo hizkuntza-ekintza batean baliokidetasun erreferentzial, sintaktiko eta pragmatikorik balute, nahikoa litzateke aldagai bereko aldakitzat hartzeko eta aztertzeko.

Antzematen da, beraz, aldagarritasun sintaktikoa eta fonologikoa ezberdinak direla, baina zertan? Silva-Corvalanek (1988: 98, in Moreno Fernández, 1998) bien arteko aldea hurrengo arra-

## 2. HIZKUNTZAREN ALDAKORTASUNA

zoietan datzala dio: hizkuntzan aldagarritasun sintaktikoa ez da fonologikoa bezainbeste gertatzen, maiztasun txikiagoa du, beraz; horrexegatik da, hain zuzen, kuantifikatzen zailagoa; baita erabileran aldakien lekukotasunak aurkitzeko zailtasunegatik ere; aldaki sintaktikoak gertatzen diren testuinguruak ere ez dira erraz aurkitzen eta zehazten; eta, azkenik, aldagai sintaktikoak aztertzean, baliteke aldakiek esanahi berdina ez izatea, eta kasu horretan, benetako aldakiak dira? Horretaz guztiaz gain, aldakortasun sintaktikoak estratifikazio sozialarekin uztartze-ko zailtasunak ere badaude; eta, gainera, estilo kontuei loturik egon ohi dira, hau da, aldagarritasun diafasikoarekin.

Horrexegatik, hain zuzen, bariasionismoak askoz gutxiago aztertu ditu aldagai sintaktikoak. Euskaraz, adibidez, *Tipo hori da super majoa* eta *Mutil hori oso jatorra da* aldakiak, semantikoki parekotzat jo badaitezke ere, pragmatikoki ezberdinak dira.

### Aldagai lexikoak

Aldagai lexikoak, sarritan, aldagai estralinguistikoak edo maileguak izaten dira. Aldagai sintaktikoekin gertatzen den bezala, aldagai lexikoak aztertzean ere lehenengo zailtasuna hitz bi balio-kideak diren ala ez frogatzea izaten da. Sinonimorik egon dagoen ala ez erabakitzeko eztabaida sarritan sortu izan da hizkuntzalarien artean. Gerta daiteke, eta gertatu egiten da, esanahi lexiko berbera duten bi esapidek, hau da, errealitate berbera adierazten duten bi hitz edo hitz multzok, esanahi pragmatiko ezberdina izatea.

Euskaraz, adibidez, *amodioa egin* eta *larrua jo* esapideen mamia berdina dela esan daiteke, hau da, errealitate berberari egiten diote erreferentzia. Baina erabileran ere berdina dira? Bata zein bestea erabiliko luke edozein hiztunek edozein testuingurutan? Seguruenik, ez. Hizkuntza-unitateak multzo handi bitan sailka daitezke: esanahi erreferentziala baino ez daukatenak eta ñabardura soziokulturalak ere badituztenak. Horri begira, euskal hiztun askok goian aipatutako esapideetan, lehenengoa eufemismotzat (ñabardura ezatseginak, gordinak... dituen termino "itsusia" ordezkatzeko erabiltzen den hitza) hartuko lukete eta bigarrena disfemismotzat (ñabardura peioratiboa duen terminoa, mespretxuzkoa ez bada ere); hirugarren forma bat ere badago, *harreman sexualak izan*, neutroa dela esan daitekeena.

Hona hemen beste adibide bat, Almeidak (1994, 2000) egindako ikerketa batetik hartutakoa. Galdera honakoa izan zen: *Nola deritzo bikotelaguna ez den batekin harremanak izateari? (¿Qué nombre se le da al hecho de mantener relaciones fuera del matrimonio?)*. Eta erantzunak: *adarrak jarri, engainatu, infidela izan (poner los cuernos, engañar, ser infiel)*. Kasu honetan, lehenengoa eufemismotzat, bigarrena disfemismotzat eta hirugarrena forma neutrotzat hartu zituzten aipatutako ikerketan parte hartu zuten lekukoek. Iritzi horiek gero, gizartean, nola daude sailkaturik? Las Palmas Kanaria Handikoan egindako beste ikerketa lexiko baten emaitzak (Vidal eta Diaz Peralta, 1996, in Almeida, 2003), sexu eta adinaren aldagaiei begira, honako hauek izan ziren: gizonen artean, gazteek erabiltzen dituzte gehien eufemismoak; horren arrazoia baliteke gazteek jaso duten heziketa-maila altuagoa izatea. Nagusien artean, ordea, bai gizonen bai emakumeen berdintsu erabiltzen dituzte. Disfemismoei begira, berriz, nagusiek erabiltzen dituzte gehien; baliteke gazteek gizarte- eta lan-arloan sartu ahala, unitate horien erabilera murrizten

joatea. Bestalde, emakumezkoen artean, zenbat eta gazteagoak izan, orduan eta disfemismo gutxiago erabiltzen dituzte. Emaitza horiek frogatzen dute aldaerek lotura handia daukatela adin eta sexuaren aldagaiekin. Arlo lexikoan, beraz, baliteke esanahiari begira aldagai baten hainbat aldaki aurkitzea, baina horrek ez du esan nahi maila pragmatikoan ere sinonimo bezala funtzioa dezaketenik. Izan ere, esanahi bera duten bi hitz, sintagma edo esapidetan ñabardurak aurki daitezke, eta horrek baliorik gabe utziko luke aldakortasuna helburu duen edozein ikerketa.

Bestalde, hizkuntzaren alderdi honetako aldagarritasuna aztertzeko erabiltzen diren metodoak ere ez dira oso emankorrak izaten. Materialak lortzeko egiten diren elkarrizketak ezin dira gehiegi luzatu; horregatik, zaila da aldagarritasunaren lekuko askorik aurkitzea. Zailtasunak zailtasun, eta ikerketarako dauden bestelako metodoekin konparatuta, galdeketa izaten da informazio beharrezkoa lortzeko modurik eragingarriena, are gehiago galdeketarekin batera hizkera-komunitatearen behaketa zuzena egiten bada eta dauzkan gizarte-egitura, kultura, ekonomia eta abar ere aztertuz gero. Moreno Fernándezek (1998) ere uste du aldagarritasun lexikoaren ikerketari ekiteko modurik onena inkesta dela; gainera, geografia linguistikoan ere oso erabilia izan da luzaroan, eta ondo frogatu da emaitzak izan badituela.

Ikusten denez, aldaki lexikoak jasotzea ez da erraza. Sarritan, solasaldien grabaketetan lekukoak ez du ikertzaileak bilatzen duen informazioa ematen. Horrelakoetan, inkesta bidezko datu-bilketa izaten da erabiliarena, eta bilatutako aldakien inguruko galdeketa zuzena egiten da informazio jakina lortzeko.

Baina sistema horrek mugak edo akatsak ere baditu, lortzen den materiala ez baita benetako testuinguru batetik modu naturalean jasotzen; beraz, lekukoak, hizkuntza-egoera horretan beharrik sentitzen denez, eta horrek bere jardunean eragina daukanez, normalean erabiltzen ez dituen aldaerak eman ditzake. Egoera horri Labovek **ikertzailearen paradoxa** deitu zion, eta honela definitu: *Soziolinguistikaren helburua komunitate batean erabiltzen den hizkera ikertzea da. Hizkera hori hiztunak sistematikoki beharrik sentitzen ez direnean erabiltzen duena da, baina hizkuntza bat zuzeneko behaketaren bitartez baino ezin da aztertu.* Ikusten denez, soziolinguistikaren helburua hizkuntza bere testuinguruan aztertzea da; inkestak, ordea, gaitasun hori mugatu egiten du. Hori dela eta, ikerketarako egoerarik egokiena, hiztunak aztertua izaten ari dela ez dakienean gertatzen da. Bestela, lekukoak bere jarduera molda dezake, bere ustez azterketan espero dena esaten ahalegintzeko.

**Ikertzailearen paradoxa:** William Labov-ek erabili zuen terminoa da. Soziolinguistikaren helburua komunitate batean erabiltzen den hizkera ikertzea da. Hizkera hori hiztunak sistematikoki beharrik sentitzen ez direnean erabiltzen duena da, baina hizkuntza bat zuzeneko behaketaren bitartez baino ezin da aztertu.

Eta, azterketa lexikoa, zertarako? Bada, hiztunek forma lexiko ezberdinak nola erabiltzen dituzten antzemateko eta azaltzeko; noiz forma bat eta ez bestea, norekin, zertarako..., hau da, hizkuntza-ekintza zein testuinguruan gertatzen den kontuan izanda, nola jokutzen den aztertu eta,

## 2. HIZKUNTZAREN ALDAKORTASUNA

hizkuntza/gizarte binomio horretan, zer arau dauden argitzen saiatzeko. Moreno Fernándezek (1998: 29) horrela azaltzen du: baldintza linguistiko eta estralinguistiko jakinetan alternantzia agertzen diren forma lexikoen erabilera azaltzen ahalegintzen da; forma horiek izenak, aditzak edo adjektiboak izaten dira. Baliteke komunitate berebetean elkartu diren jatorri geografiko ezberdineko unitateak izatea; forma kultoak eta herrikoak; estilo formal/ez-formalekoak; tabuak eta eufemismoak... Eta horrekin batera, gizarte-talde ezberdinen berezko lexikoa identifikatzen ahalegintzen da: gazteen hizkera, lanbide ezberdinetakoa, ghettoetako lexikoa eta abar.

Soziolinguistikak, beraz, elementu horien hautaketan aldaera sozial eta estilistikoak antzematea du helburu. Aldaera batzuk kultutzat hartuko dira, beste batzuk herri-hizkeratzat (*Horrek ez dauka zentzunik* eta *Horrek, pulamenturik bapez*); batzuek estilo formala erakutsiko dute eta beste batzuek ez-formala (*Hain da zaila, non ezin baitut egin* eta *Gatxa gero! Ezin yot in*).

Bestalde, hitz batzuk *tabu* kontsideratuko dira; hau gertatzen da gizartean eragin berezia duten gaietara loturiko hitzak zenbait testuingurutan aipatzeari egoki irizten ez zaionean. Normalean heriotzarekin, sexuarekin, gai eskatologikoekin eta abarrekin loturikoak izaten dira. Horiek saihesteko, eufemismoak erabiltzen dira. Berauek hitz bakarrak ala perifrasiak izan daitezke: *karramarroa* (minbizia), *seko geratu* (hil), *papa* (ipurdia)...

Zenbait hitz *gazte-hizkeratzat* hartuko dira eta beste batzuk lanbide jakin bateko jergaren adierazgarriak izan daitezke; adibidez, ikasleak esango du: *Penko pila egon da*, eta irakasleak: *Ez-gainditu kopuru handia egon da*.

Batzuetan bi aldakiren arteko ezberdintasunak lexikoak ala fonetikoak diren bereiztea ere zaila izaten da, hitz baten aldaki fonetikoak askotan iharturik edo fosilizaturik geratzen baita, maila lexikora pasatuz: *esan/erran; ireki/idegi/idi...*

Ikusten denez, lexikoan ere hizkuntzaren aldagarritasuna ageri-agerikoa da. Ikerketek ematen dituzten datuen bitartez, anabasa horretan ere nolabaiteko ordena jar daiteke.

### Aldagarritasuna diskurtsoan

Azken urteotan diskurtso eta hizketaldiari buruzko ikerketan asko aurreratu da, eta, horrekin batera, arlo horietan ematen den aldagarritasuna ere aztertzen hasi da. Dena dela, zaila da aldagarritasun lexiko eta morfosintaktikoaren mugak non amaitzen diren eta diskurtsoarenak non hasten diren jakitea. Beraz, lehenengo eta behin, diskurtsoaren ezaugarri edo bereizgarriak zehaztu egin behar dira, aztertuko direnak aukeratu, eta gero, zer funtzio betetzen duten zehaztu.

Adibide bat Barbara Horvarth-en lana (1985, in Almeida, 2003) izan daiteke. Lan horretan, iker-tzaileak Sidney-ko ingelesean adierazpen-perpauzetan ematen den tonu-aldaketa aztertzen du: normalean, behearanzko prosodia izaten zuten, baina duela hamarkada batzuetatik hona, goranzko tonuan ahoskatzen dira. Ikerketan, aldagai linguistiko bi aztertu ziren: testu-mota (deskriptiboak, narratiboak, azalpenezkoak...) eta hitz egiteko txandaren luzapena (hitz bakarrekoa, gehiagokoa, hitz bat eta elipsia...). Testu deskriptiboak, *nola?* galdera eginez lortu ziren; iritzizkoak, *zer uste duzu X-ez?*; azalpenezkoak, *zergatik...?*; faktikoak, *zer?*; eta narratiboak, *esadazu...* Aldagai sozialak adina, sexua, maila sozioekonomikoa eta etnia izan ziren. Ikerketaren ondorio-

ak, honako hauek: datu linguistikoei begira, esan daiteke tonuaren igoera elkarreraginerako egiten dela; kortesia adierazten du. Era berean, esan liteke hiztunak tonu-igotzearen errekurtsua entzuleak ulertzen diola ziurtatzeko erabiltzen duela; izan ere, tonu-igoera, batez ere, entzulearentzat informazioa denbora guztian berria den testuetan gertatzen da, hots, narrazioetan eta deskripzioetan (testu osoa ulertuko da baldin eta testuaren zati ezberdinak ulertzen badira). Eta hirugarren interpretazio bat izan liteke igorleak, prosodia igoeraren bitartez, bere jardunean jarraitu ahal duen konfirmatzeko eskatzen diola hartzaileari.

### 2.2.2. Aldagai sozialak

Hizkuntzan eragiten duten aldagai sozialak zeintzuk diren aztertzeko, tokian tokikoak aukeratzeari oso garrantzitsua da; izan ere, leku batetik bestera asko aldatzen da beraien eragina. Gizarte-antolaketan, aldagai bakoitzak garrantzi ezberdina hartzen du, arrazoi erlijioso, kultural edo politikoen arabera. Adinaren aldagaiak, adibidez, ez du berdin eragiten gizarte guztietan. Gizarte nomadetan, artapen handiagoko behar duten zaharrak oztupo dira beste kideentzat; horregatik abandonaturik edota heriotza errituala egitera beharturik izan daitezke. Gizarte sedentarioetan, ordea, nagusiek estatus handia izan dezakete eta, ekonomian edo kulturean, rol garrantzitsua bete: jakintsuak izan ohi dira, umeak zaindu ditzakete... Adibideotan oso jokabide ezberdinak ikusten dira; beraz, estatus, prestigio, botere sozial aldagaiak zehaztean, kontuan izan beharko da balio horiek kultura bakoitzean nola dauden antolatuturik, izaera unibertsala edo partikularra duten zehaztu ahal izateko.

Ikusten denez, hizkuntzetan eragiten duten arrazoi sozialek ez dituzte leku guztietan ondorio berberak izaten. Aitzitik, toki batean garrantzitsua den aldagaiak ez du zertan beste batean eraginik izan. Gizartearen egituraketa moduek, beraz, zerikusi handia dute ikerketa soziolinguistiko egiteko aldagaien hautaketan.

Gizarte konplexuek gizarte-estratifikazio handiagoko izan ohi dute eta, horrek, aldakortasun linguistiko handiagoko dakar; zenbat eta rol gehiago egon, orduan eta hizkuntza-errepertorio handiagoko beharko da, eta alderantziz. Gaztelaniaz edo frantsesez hitz egiten duten gizabanakoak munduko hainbat lekutan banatuta daude. Hizkera-komunitate bat baino gehiago betetzen dituzten arren, esan daiteke hizkuntza-komunitatea badirela. Kasu horretan, balizko komunitate horien konplexutasun maila altua da. Antilletan, Quebecen, Algerian eta Frantzian, kasu, guztiz gizarte-antolaketa ezberdina dago; hori dela eta, tokian tokiko harremanak eta rolak ere askotarikoak dira; eta horrek guztiak hizkuntza-aldaira kopuru handi-handia egotea eragiten du. Euskararen kasuan, ordea, kontrako gertatzen da: normalizatua ez dagoenez, aldakortasun sozial eta estilistiko gutxi dago.

Dena dela, gizarte txikiagoetan ere badago aldakortasun linguistiko. Adibidez, tribu nomadak (Joshua A. Fishman, *in* Rotaetxe 1990) hizkuntza-komunitate txikiak dira; bertako kideek lexiko murriztua eta kopuru txikia daukate, taldeko kide gehienek bizipen eta erantzukizun berdinak baitituzte. Hala ere, alderdi pragmatikotik begiratuta, horrelako komunitateetan ere, badaude bete beharreko arauak: menpekoek ez dute buruzagiak bezala hitz egiten; gurasoak eta seme-

## 2. HIZKUNTZAREN ALDAKORTASUNA

alabak, umeak eta nagusiak, gizonezkoak eta emakumezkoak ere ezberdin aritzen dira. Horrez gain, uneoro, zein rol betetzen duten (laguna, familiakoa, etsaia...) horrela jokatu dute hizkuntza erabiltzean.

Fishmanen ustez, komunitate txikietan ez ezik, modernoago eta handiagoetan ere gertatzen da erreperitorio-murritzapena gaur egun (*ibid.*). Ondorioz, murritzapen hori ez da gertatzen taldearen tamainagatik, baizik eta zenbait gizartek estratifikazio txikiagoa dutelako. Hizkuntza asko biltzen diren herrialdeetan, Indian adibidez, gizarte-funtzioa zein den, hizkuntza baten aldaera erabiliko dute: etxean bat, eskolan beste bat, administrazioan beste bat...; komunitate modernoak, ordea, hizkuntza berberaren aldaera ezberdinak baino ez ditu erabiltzen; horregatik, erreperitorioa mugatuagoa izango da. Dena dela, azken urteetan gauzak arin aldatu dira, hainbat lekutako pobreziazatik eta bizi-baldintza eskasengatik gizabanakoek emigratu egiten dute; bestalde, globalizazioaren ondorioz ere gizabanakoa gehiago mugitzen da munduan zehar. Hori dela eta, gero eta zailagoa da hizkuntza-komunitate elebakarrak aurkitzea. Beraz, Fishmanen azken uste hori ezin da ontzat eman gaur egungo egoera deskribatzeko.

Goian aipatutako guztia kontuan izanik, edozein azterketa soziolinguistikori ekin baino lehen, oso komenigarria da tokian tokiko nolabaiteko azterketa soziologikoa egitea, aztergai den komunitatean esanguratsuak izan daitezkeen faktoreak aurreikusteko.

Arestian esan dugunez, hiztunak, hitz egiten duenean, nahitaez, beraren izaera sozialari buruzko informazioa ematen du, erabiltzen duen hizkeraren bereizgarriek hainbat datu ematen baitituzte. Batzuk erraz identifika daitezke; izan ere, ez dira norbanakoarenak (idiolektoak) izaten, baizik eta talde jakin batenak. Beraz, nolabaiteko esanahi sinbolikoa hartzen dute. Hori dela eta, modu kontziente edo inkontzientean, identitate soziala indartzeko erabiltzen dira. Almeida (2003) bi taldetan sailkatzen ditu adierazgarri sozial horiek: batetik, talde baten ezaugarri esklusiboak (talde horrek baino ez ditu erabiltzen) edo preferentzialak (talde batek baino gehiagok erabili arren, modu ezberdinean egiten dute, hau da, erabilera-arau ezberdinei jarraituz); eta, bestetik, igorle eta hartzaileari loturiko bereizgarriak (adina, estatus soziala eta abar).

Aldagai sozialak, bestalde, ez dira banan-banan gertatzen. Hiztuna izan daiteke emakumezko gaztea eta lorazaina, emakumezko gaztea eta ingeniaria, gizonezko nagusia eta irakaslea, gizonezko gaztea eta eraikuntzako langilea...; beraz, kategoria sozialak ez dira kohesionaturiko entitateak, ez dira uniformeak.

Zailtasunak zailtasun, ikerketetan gehien erabiltzen diren aldagaiak sexua, adina, heziketa-maila, maila soziokulturala eta etnia izaten dira.

### Sexua/generoa

Gizabanakoen jokabideetan aurki daitezkeen ezberdintasunik sakon, sistematiko, iraunkor eta unibertsalenak generoaren inguruan antolatzen dira (Almeida, 2003). Gizakiaren alderdi guztiak, arrazionala eta emozionala, kulturala eta soziala, banakakoa eta kolektiboa..., generoari egotzi dakizkiokkeen ezberdintasunei begira antolaturik daude. Horregatik, gizabanakoek identitate soziala garatzeko, generoa kategoriarik garrantzitsuenaren den iritzia dago. Emakumezkoak eta

gizonezkoak berdinak/ezberdinak diren, zergatik, horrek zer eragin duen gizartearen egunero-kotasunean... hori guztia eztabaidagai izan da urte luzeetan, eta emandako azalpenetan, ikus-puntu biologiko, kognitibo, kultural eta politikoak izan dira nagusi. Horrekin batera, azken urteotan, ezberdintasunei antzeman eta horiek azaltzeko metodoen fidagarritasuna kolokan jarritz, iritzi horiek erlatibizatzen pentsamolde berria hasi da zabaltzen.

Gizonezkoen eta emakumezkoen gizarte-jokabideak aztertzean (berdinak/ezberdinak diren eta zertan), askotan *sexu* eta *genero* kontzeptuak sinonimotzat hartu izan dira; baina zenbait autoreren ustez, ez dira guztiz baliokideak.

McConnell-Ginet-ek eta Eckert-ek (1988 eta 1989, *ibid.*) diote komenigarria litzatekeela *sexu* berba gizakien berezitasun biologikoak aipatzeko erabiltzea, eta *genero* ezaugarri soziokulturaleri erreferentzia egiteko. Hau da, *sexu* kategorია naturala da eta *genero*a konbentzionala, ikasitakoa. Chambers-ek (*ibid.*) ezberdindu egiten ditu *genero*ak eragindako aldagarritasuna (ezberdintasun linguistikoaren azalpena komunitatean bizi duten egoera sozial ezberdinean aurki daiteke) eta *sexu*ak eragindakoa, bestelako arazoiek eragiten dutena (frogatuta dago txikitatik emakumezkoek hizkuntzaren hainbat arlotan, adibidez jarriotasunean, sintaxian, hiztegian, ulermenean, gaitasun handiagoa dutela). Autorearen ustez, baliteke azken honek emakumearen burmuinaren antolaketa globalean izatea jatorria; gizonezkoen burmuinean, ordea, funtzioak fokatuago edo lateralizatuago daude.

Dena dela, beti ez dira hain erraz ezberdintzen alderdi biologikoa eta kulturala, antropologiatik (Buxó Rey 1978/1988, in Almeida 2003) hartutako hurrengo adibide honetan ikus daitekeenez: zenbait gizartetan, emankor ez den emakumeak gizonezkoen estatus sozioekonomikoa har dezake (aita izan daiteke; abereak eta emaztegaia erosteko beste diru lortuz gero, emakumezko batekin edo gehiagorekin ezkon daiteke; berauek, lagunek edo auzokideek ernaldurik, seme-alabarik izanez gero, hura izango da umeen aita legala eta hauek aita bezala tratatuko dute; etxearen ardura hartuko du; seme-alaben ezkontzak antolatuko ditu...). Rol horri uko eginez gero, ordea, hainbat modutan arbuia izango da (neskazahar deituko diote, sorgintzat hartuko dute; azken finean, gizartetik at geratuko da). Autorearen planteamendua laburbilduz, bariasionismoan *genero* aldagaia kontuan hartzen bada, zaila izango da unibertsalak aurkitzea gizonezko eta emakumezkoen gizarte-jokabideetan; batetik, gizarte-mota asko daudelako (eta, ezagun denez, horietan batzuen eta besteen rola aldatu egiten dira); eta, bestetik, gizonezkoen eta emakumezkoen ohiko aktibitate ekonomiko, sozial eta kulturalak zeintzuk diren zehaztu egin beharko lirakeelako. Kasu horretan, oso aldakorak diren datuak eta horien interpretazioak konparatu egin beharko lirakeke, eta hori ez da zeregin erraza.

Dialektologian ere sexuen arteko hizkeren ezberdintasunaren inguruko kezkek ezagunak izan dira. Inkestak eta egiteko, emakumeak lekuko onak izan daitezkeen ala ez eztabaidatu izan da ikertzaileen artean. Dena dela, Euskal Herriko Atlas Linguistikokoan bertan, gizonezkoen testigantzak baino ez dira hartzen. Ikertzaile batzuek inkestetarako egokiagoak direla uste izan dute; beste batzuek forma arkaikoak hobeto batzen dituztela; aldi berean, emakumeek berrikuntzak gehiagotan erabiltzen dituztela ere esan izan da. Moreno Fernándezen ustez, egindako ikerketetan erabilitako datuak ez dira oso objektiboak eta erregularrak izan; horregatik, ez da frogatu emakumezkoa ez kontserbatzaileagoa ez berritzaileagoa denik.

## 2. HIZKUNTZAREN ALDAKORTASUNA

Horri dagokionez, Manuel Alvar-ek (1956, in Moreno Fernández 1998) Andaluziako herri batean egindako ikerketa batean ondorioztatu zuen arkaismoa edo berrikuntza, emakumeetan, sexuarekin baino bizimoduarekin duela zerikusi handiagoa: gizonezkoek, egiten duten lanagatik, mugikortasun handiagoa dute; hori dela eta, euren hizkera gaztelaniaren normatik hurbilago dago. Emakumeek, ordea, ez daukate beste aldaera bateko hiztunekin kontaktu handirik, eta hortik datorkie kontserbatzaileagoak izatea. Ikusten denez, ezaugarri horrek zerikusi handiagoa du mugikortasunari eta harreman-sareei loturiko aldagaiekin edo lantzen den gaiarekin, sexu/generoarekin baino. Eta, gainera, ondorioak ezin dira estrapolatu, ez baitira unibertsalak. Izan ere, hainbat lekutan, gaur egun emakumezkoen egoera soziala eta gizonezkoena ez dira hain ezberdinak.

Hiztun talde bakoitzean aldagai honek duen garrantzia ezberdina izanik ere, eta ikerketa batzuetan sexuak beste eragile batzuek baino garrantzi handiagoa hartzen duela argi geratu arren, ikerketa gehienetan adinaren ala ikasketa-mailaren garrantzia handiagoa izan ohi da, hau da, neska gazte baten hizkerak gazte ezaugarri gehiago izan ohi ditu *emakume* ezaugarriak baino.

Esan daiteke, beraz, emakumezkoen hizkera eta gizonezkoena desberdinak direla edozein hizkuntza-komunitatetan? Hots, egia unibertsala da hiztunaren sexuak benetan eragiten duela hitz egiteko moduan? Goian esan denez, ikerketari ekin baino lehenago, datu fidagarriak lortzekotan, aztertuko den eremuko gizarte-antolaketa behatu egin behar da, eta, gero, gizarte ezberdinetan egindako ikerketen emaitzekin alderatu.

Hala eta guztiz ere, badaude genero eta hizkuntza-aldaeraren arteko lotura frogatzen dituzten zenbait datu, munduan zehar hainbat komunitatetan egindako ikerketetatik ateratakoak (Almeida, 2003). Adibidez, emakumezkoek, diskurtsoa antolatzean, gizonezkoek baino gehiagotan erabiltzen dituzte izena edo aditza indartzen dituzten adjektibo edo adizlagunak (*gutziz, zeharo, erabat, batere...*); gauza bera gertatzen da *betegarriekin*, hau da, isiluneetan erabiltzen diren hitz edo formulekin (*badakizu...*, *horixe ba...*, *zera esan behar nizan...*); kortesia adierazteko asmoz, zeharkako eskaerak ere gehiagotan erabiltzen dituzte gizonezkoek baino (*Hurbil zintezke, mesedez? Lagunduko zenidake?* eta horrelakoak esango dituzte, *Etorri!* eta *Lagundu!* baino); baita *aparta* eta *liluragarri* bezalako esanahi jakinik gabeko adjektiboak ere.

Baina nola antzematen dira gizartean sexolektoak? Cadizeko Unibertsitateko irakaslea den M. Angeles Calero Fernándezek (Calero Fernández, 2007) egindako ikerketa lanaren emaitzetatik, honako ondorio hauek atera ziren. Emakumezkoak eta gizonezkoak kontziente dira euren hizkuntza-aldaerak dituen ezaugarri/bereizgarriez; baina ez, neurri berean, behintzat, bestearen soziolektoak dituenaz. Zergatik? Jaso duten heziketa psikologikoaren ondorioz (*curriculum oculto* egilearen hitzetan). Hau da, txikitatik, eskola mistoa aspaldikoa izan arren, sexu bakoitzak hainbat sinesmen, jarrera, jokabide ezberdin (baina euren izaeraren identifikatzaile) garatu ditu beste taldea benetan ezagutu gabe, hau da, elkarri buruzko ideiak sexu-estereotipo eta topikoren barruan noraino dauden egiaztatu gabe. Gizonezkoen idiolektoaren berezitasunak benetakoak direla uste duten emakumezkoek bete-betean sinesten dute horrela dela. Unibertsitarioek, ordea, ez hainbeste, goi-estratuetan mugitzen baitira eta gizonezkoen idiolektoaren berezitasunak (zakarkeria, aginte zuzenak, ondo hitz egiteko ardurarik eza, emakumezkoen hizkuntza-jarduna moztea...) leundu (*garbitu*) egiten dira. Beraz, isilpeko prestigioa (Trudgill, 1974, *ibid.*) behe-mailako gizabanakoen artean ematen da gehiago; horregatik, Lehen



Hezkuntza baino ez duten emakumezkoek adostasun handiagoa erakusten dute *maskulinolektoari* egotzen zaizkion bereizgarriekin. Gogora dezagun hemen ikerketa soziolinguistiko gehienek frogatzen dutela emakumezkoak kontzienteago direla hizkuntza-erabileren gizarte-balorazioaz ez ezik, kolektibo bakoitza definitzen duten bereizgarriez ere. Zeharkako proposizioak ez dira benetan femeninotzat hartzen, ezta proposizio zuzenak maskulinotzat ere. Dena dela, emakumeak konturatzen dira eurek inoiz gutxitan adierazten dituztela desioak modu zabal batean, baizik eta disimuluan edota zeharka.

Euskal Herrian, Iruñerrian egindako azterketa bateko emaitzek (Orreaga Ibarra; J.K. Lopez, Euskonews, 2009) frogatzen dutenez, gazteen artean ere badago ezberdintasunik (batez ere kalifikazioak egiterako orduan) sexu/genero aldagaiari dagokionez: *Mutil batek praka batzuk erosten baditu, eta nolakoak diren galdetuz gero, ia inoiz ez du "politik" hitza erabiliko. "Oso ondo daude nire galtzak" normalagoa litzateke. Biraoen aldetik ere desberdinak dira...*

## Adina

Urteak joan, urteak etorri, gizabanakoa aldatzen doa ezinbestean. Etengabeko aldaketa hori, itxuran ez ezik, izaeran eta jokabidean ere nabaria da. Jokabide horien artean, ingurukoekin komunikatzeko modua ere badago, eta arlo horretan bizitzan zehar gertatzen diren aldaketak ageri-agerikoak dira. Umetan ez da nerabezaroan edo gaztetan bezala hitz egiten. Zahartzaroan ere aldeak ikusten dira gazte-garaiarekin konparatuz gero.

Beste aldagaiak ez bezala, adina konstantea da. Gizartean gertatutako aldaketa soziokultural edo politikoen sexuen edo gizarte-mailen arteko harremanak alda ditzakete, ezberdintasunak handitu ala estutu. Adin-tarteak, ordea, beti izango dira berdinak.

Hiztunak oso kontuan hartzen du adina bizitzaren alor ezberdinetan, baita hizkuntzari dagokionean ere. Beraz, aldakortasunaren azterketetan aldagai garrantzitsua da, gizakiak bizi dituen egoera kognitibo ezberdinei eta gizarte-rolari loturiko ezaugarriak adierazten baititu. Moreno Fernándezek (1998), eragile sozialen artean, hiztunen adinak zehazten ditu argien eta indartsuen komunitate jakin bateko hizkuntza-erabilera ezberdinak; hau da, adinak, sexuak edo gizarte-mailak baino gehiago baldintzatzen du aldagarrtasun linguistikoa.

Dena dela, Eckertek (1997, in Camino 2009) dioenez, parametro hau aldakortasuna neurtzeko erabiltzen denean, adinaren estatus biologikoa baino, daukan gizarte-estatusa da esanguratsua. Hau da, adinaren ondorioz eskuratutako esperientzia eta gizarte-maila.

Adinak, berez, beste aldagai batzuen ezaugarriak barnebiltzen ditu. Mendebaldeko gizarteetan, Euskal Herrian, adibidez, gazteek ikasketa-maila altuagoa izan ohi dute, ondorioz, eredu estandarrekin harreman hurbilagoa izaten dute eta horrek isla izango du beraien hizkeran.

Zenbait autorek hizkuntza-aldien sailkapena egin dute. Hona hemen Labovek (1964, 1972/1983, in Almeida 2003), New Yorkeko datuak jasota, egindakoa:

1. Oinarrizko gramatika eskuratzea, ume-umetan.
2. Etxeko edo herriko hizkuntza eskuratzea, 5-12 urte bitartean.

## 2. HIZKUNTZAREN ALDAKORTASUNA

3. Pertzepzio sozialaren eskurapena, 14-15 urte bitartean.
4. Aldaera estilistikoez ohartzea, gutxi gorabehera 14 urtetik aurrera.
5. Estandarraren erabilera egokiagoak, helduaroaren hasieran.
6. Hizkuntzaren erregistro eta errekurtso guztien eskurapena, heziketa-maila handia eta hizkuntzarekiko arduraren berezia duten pertsonen lortzen dutena.

Gaur egun, ordea, hainbat komunitatetan ez da guztiz egia umeek hizkuntzaren oinarriak gurasoengandik ikasten dituzten baieztapena. Batetik, umeak askoz lehenago joaten dira haurtzaindegietara, eta horrela ez bada, guraso biek etxetik kanpo lan eginez gero, beste norbaitek hartzen du umearen arduraren; beraz, ezin daiteke esan gaur egun gurasoen eragina adin horretan hain erabakigarria denik. Izan ere, ikerketek bestelako datuak ematen dituzte. Kerswill-ek (1996, *in* Almeida 2003), Britainia Handiko herri batean (Milton Keynes) egindako ikerketa batean, umeen hizkera ez dela gurasoena bezalakoa ondorioztatu zuen. Kanarietako datuek diotenez (Almeida 2003), guraso batzuen lana dela eta, umeak zaindari karibetarren ardurapean geratzen dira, eta beraien hizkeraren antzeko aldaera egiten dute.

Chambers-ek (*in* Moreno Fernández, 1998) proposatzen duen sailkapenean, soziolektoak bereganatzeko, hiztunetan hiru ikastaldi bereizten dira:

1. Haurtzarora: hizkuntza familia eta lagunen bitartez ikasten den garaia.
2. Nerabezarora: hiztun garaikideekin sare-harremana handitu egiten denean eta, nagusiengandik aldentzeko eta identitatea markatzeko, argot edo jerga erabiltzen denean.
3. Helduaroa: hiztunak, batetik, estandarra gehiago erabiltzen du, eta, bestetik, nahi edo xede sozialei begira aldaera soziolinguistiko jakin bat aukeratzen du.

Esanahi sozialarekiko sentsibilizazio edo kontzientzia linguistikoari dagokionez, autore honek (Chambers 1955, *in* Almeida 2003) beste batzuekin batera uste du nerabezarora baino lehenago gertatzen dela eta, kasu batzuetan, umeen eta nerabeen artean aldagai sozialari eta genero-aldagaiari ere antzeman zaiela.

Hiztunen adinaren sailkapenak eta horretarako arrazoiek garrantzi handia hartzen dute ikerketa-lanak diseinatzean; izan ere, zenbat urtetik gorako hiztuna izango litzateke lekuko egokia? Oro har, 14 urte baino gehiago izaten dituzte ikergai diren gizabanakoek. Bestalde, zenbat adin-talde komeni da ikertzea soziolinguistika-lan batean? Betiko moduan, helburuak zein diren, halako jokabidea hartu beharko du ikertzaileak; dena dela, oro har, gutxienez hiru eta gehienez lau baino ez dira izaten. Gehiago izanez gero, seguruenik talde biren arteko berdintasunak handiak izango lirateke, ez esanguratsuak, beraz, eta, gainera, analisisa oztopatu edo zaildu egingo luke horrek.

Adinari begirako azterketetako emaitzek esango digute umeen eta gazteen hizkeren arteko ezberdintasunak zein diren, zer hizkuntza-ezaugarri ematen den gehiago nagusietan eta ez hainbeste edo batere ez gazteetan... , baita aldaera gehienak lexikoan, fraseologian eta diskurtsoan gertatuko direla ere. Horrez gain, hizkuntza-aldaketari buruzko informazioa ere eman dezakete aipatutako emaitzek. Adibidez, zaharren artean oso hedatuta dagoen forma jakin bat gazte-

en artean ia ez dela ematen ikusten bada, esan daiteke erregresio prozesuan dagoela, eta, horren ordez, beste forma bat zabalduko da, seguruenik gazteek bultzatuta. Dena dela, beti ez da horrela izaten. Gerta daiteke berrikuntza muturrean dagoen taldetik etorri beharrean, erdian dagoenak bultzatua izatea. Edota nagusietan oso arruntak diren formak erdiko taldean gutxituz joatea, eta berriro ere gazteen artean berpiztea. Kasu horretan, ez da erraza jakiten datuek benetako aldaera baten berri ematen duten ala gertatuko den hizkuntza-aldaketaren zantzuak diren.

Laburbiltzeko, esan daiteke gizabanakoek bizi dituzten aro ezberdinak erabilitako hizkuntza-aldieran islatu egiten direla, eta, alderantziz, beraien hizkera garai horietako nolabaiteko etiketa dela. Hazi ahala garatzen dira hizkuntza-gaitasuna lehenengo, eta kontzientzia linguistikoa geroago, ingurukoekin izaten diren harremanetan: umetan, gurasoekin; ondoren, inguruko familia eta lagunekin; aurrerago, partaide den multzo zabalagoarekin; gero, hizkuntzaren bestelako erabilera esparruekin (hedabideak, literatura, telebista); ondoren, lan-harreman eta arlo profesionalekin. Azken fasean, esperientzia guztien batura egin eta bere estiloa egokitze moduan dago hitzuna.

Hiztunen jardunean adinak duen eraginaren ondorioz, ezaugarri bereziak dituzten adin-hizkerak bereiz daitezke: umeen hizkera, gazteen hizkera, helduen hizkera, zaharren hizkera. Azken hau da azterketa dialektologikoetan euskaraz gehien aztertu dena.

### ► **Haur-hizkera**

Haur-hizkera aipatzen dugunean, errepikapen eta fonema-jokoz betetako aldaera etortzen da gogora, belarrirako goxoa, alaia, dibertigarria dena eta hiztegi berezitua duena.

Lan honetan, haur-hizkera umeek bizitzaren hasierako tarte horretan erabiltzen dutenari deituko diogu; ez, ordea, nagusiek beraiekin hitz egitean erabiltzen duten aldaerari, puntu honetan adinaren aldagaia azaltzen baita, ez egoera komunikatiboaren testuinguruari lotutakoak.

Baina *haur-hizkera* izendapenaren azpian, zer dago? Zer adierazi nahi da aipatzen denean? Bada, batetik, umeak, bizitzaren lehenengo urteetan, hizkuntzaz jabetzeko prozesuaren lehenengo pausoa egiten duen hizkera; eta, bestetik, haurrekin hitz egitean zenbait nagusik erabiltzen duten aldaera, bai hizkuntza irakasteko bitarteko gisa (hainbat ez dago ados puntu honekin, hizkuntza ondo ikasteko horrelakorik ez dela behar, are gehiago, kalterako ere izan daitekeela uste baitute), bai hurbiltasuna edo goxotasuna adierazteko.

Asko dira euskaraz umeen hizkera, baita umeekin erabiltzen den hizkera ere, aztertu dituzten lanak; adibidez, J.J. Zubirik *Hizpide* aldizkarian (49. alea), EHUko Itziar Idiazabalek zuzentzen duen ikerketa taldeak jasotako datuak erabiliz, *Haur-hizkeraren erabileraz* izenarekin plazaratutako lana (hemen ere bertako adibideak erabiliko dira). Bertan, haurrak egiten duen hizkeraren berezitasun batzuk aipatzen dira: maila fonetikoan, sinpleagoa izaten da, egitura fonikoa errazteko asmoz, kontsonante multzoak desagertu egiten dira (*p(l)aza, p(r)akak,...*), beste batzuk ezabatu edo ordezkatu (*sa[r]tu, sa[l]tatu; ekarri>ekali, ikusi>ikuxi*); morfosintaxian ez ohi da oso zuzena (ordena, komuntadura...); erabiltzen dituzten nozio semantikoak sinpleagoak edo orokorragoak izaten dira... Dena dela, lanaren helburua, batez ere, umeekin jardutean erabili ohi

## 2. HIZKUNTZAREN ALDAKORTASUNA

den hizkera (haur-hizketa) aztertzea da, beraren forma eta erabilerari buruzko berezitasunak (hiztegi berezia, doinu-aldaketa, zenbait soinuren ahoskatze ezberdinak...) plazaratzeko asmoz.

Haur-hizkeraren bereizgarriak orokorrak izan daitezkeen iritzi zabala dago (Snow eta Feguson, 1977; Rondal, 1990; Serra eta beste, 2000, in Zubiri, 2002): ondo ahoskatutako fonetika, tonua markatuxeagoa, erritmoa moteltsuagoa; gramatikalki ondo eraikitako morfosintaxia, baina sinpleagoa; hiztegi murriztua eta berezia; eta praktikan, azpisistema hau ez da egonkorra, haurra-aren gaitasuna garatu ahala, nagusiaren jardunaren maila ere igotzen baitoa.

Euskaraz, horiez gain, bestelako berezitasun batzuk ere baditu aldaera berezi honek (Zubiri, 2002): maila fonetikoan, hainbat fonemaren bustidura egiten da, batez ere kontsonante txistukarietan, baina baita bestelako kontsonanteetan ere, eta edozein hitz kategoriatan: *su>xu*, *zer>xer*, *isats>ixatx*, *ederra>edderra*, *aita>aitta/aitte...*, *polita>pollita...* Morfosintaxiaren mailan, batez ere hiru fenomeno gertatzen dira: aditz laguntzailea ezabatu ohi da, sistema konplexua baita, baina horrek ez du oztokatzen ulermena: *Nik ekarri eta zuk eman; Etorri, nik (zuri) emango yogur...*; artikulurik gabeko hitzak erabiltzen dira: *Non da pitxitxi (\*pitxitxia)? (katua); Hartu brun-brun (\*brun-bruna);* eta sintagmak azpimarratzeko (galdegaia indartzeko) errepikatu egiten dira esaldiaren hasieran eta amaieran: *Amona etorri da amona? Zer egin du Egoitzek zer?* Maila lexikoan, izen askok onomatopeia itxura hartzen dute (*mu, miau, be-be, brun-brun*) eta beste asko hizkera horretakoak baino ez dira (*kaka 'zikina, txarra', nini 'haur', mama 'ura, edaria', papa 'ogia', txitxi 'haragia', pitxitxi 'katua', toto/totto 'txakurra', punpa 'erori'...*).

Haur-hizkera umeak oraindik hitz egiten ez duenean hasten da erabiltzen eta, hiztun berriaren garapen psikolinguistikoa zein den, 4-5 urte izan arte ere luza daiteke. Helduek erabiltzen dute, baina, lehen aipatu den bezala, ez denek, hizkuntza bereganatze-prozesuan laguntza baino oztopo gerta daitekeela uste baita. Bestalde, aipatutako ezaugarriak ez dira sistematikoki agertzen, adibidez, ez dira kontsonante guztiak bustitzen uneoro. Azkenik, esan behar da aldaera hau ez dela edonon erabiltzen, baizik eta etxe-giroan, batez ere.

### ► **Gazte-hizkera**

Gazteek txarto hitz egiten duten uste zabala dago gaur egun. Uste baino, kezka ere bada hainbat arlotan, hezkuntzarenean, kasu. Askotan entzuten da gazteek hizkuntza pobrea dutela, hiztegi murriztua erabiltzen dutela, modu arduragabea hitz egiten dutela... Horixe baita nagusiek (gurasoek, irakasleek) beraiengandik jasotzen duten irudia. Dena dela, euren artean komunikatzeko ez daukate inolako arazorik, ondo ulertzen dute elkar darabilten *jerga* horretan; beraz, informazioa trukatzeko eta elkarrekiko harremanei eusteko balio badie, benetan esan daiteke hain hizkera pobretua dela? Adierazkortasunerako errekurtsio falta dutela?

Gazteek, janzkera eta orrazkerarekin bezala, hizkerarekin ere euren pentsamoldeak eta jarre-arak adierazten dituzte; gainera, horrela, euren arteko harremana estutu egiten dute; beraz, euren soziolektoan hitz egiten dute. Ezin daiteke esan leku guztietan berdina denik, baina badi-tu berezitasun nahiko orokor batzuk: estandarretik bereizteko arauak apurtzen dituzte eta talde-izaera indartzen duten elementuak erabiltzen dituzte; gainera, berrikuntza asko beraiek bultzatutakoak dira. Aurreko eta ondorengo adin-taldean daudenengandik bereizteko joerak esamolde, hiztegi eta diskurtsio bereziak izatea ekartzen du.

Euskararen kasuan, bizi den egoera soziolinguistikoa dela eta, kezka handiagoa dago; izan ere, gazteen hizkeran, Hego Euskal Herrian, gaztelaniaren presentzia gero eta zabalagoa da; era berean, Iparraldean areagotzen den presentzia frantsesarena da. Dena dela, ez da harritzekoa interferentzia eta *code-switching* kasuak gero eta gehiago izatea, komunitate berean bizi diren hizkuntza guztietan gauza bera gertatzen baita. Gazte euskaldunen kasuan, ordea, baliteke euskararen estrukturan baino erdarazkoetan aurkitzea adierazkortasun maila handiagoa. Edonola ere, joera hori gazteengan ez ezik nagusiengan ere ematen da; beraz, ezin esan haien soziolektorearen bereizgarria denik.

Hizkera-mota hau ere oso aztertua izan da azken aldian Euskal Herrian. Horra hor, adibidez, Kike Amonarrizen lana (Amonarriz, 2008). Bertan, gazte euskaldunen ezaugarri soziolinguistikoak aipatzen ditu autoreak: oro har, adierazkortasun-arazoak izaten dituzte; horregatik, erdarara jotzen dute behar dituzten errekurtsuen bila, euskaraz ez dauzkatelako, egon daudenak erabiltzen ez direlako edo beste hizkuntzetakoei indartsuago deritzelako. Hori guztia dela eta, euskaraz berrikuntza gutxi sortzen dituzte. Jarraian bai gazte-hizkeren (bat baino gehiago baitira), bai sortzen ari diren hizkera gazteen berezitasun orokorrak zerrendatzen ditu. Gazte-hizkera transgresiboa da, arauak apurtu eta botere-hizkuntzarengandik urrundu nahi baitute hiztunek; horretarako batua, euskalkia, erdara, dena batera erabiliko dute, ahoz ez ezik, idatziz ere bai. Jokabide horretatik sortzen diren aldaerek, bestalde, honako ezaugarri hauek agertzen dituzte: erdararen interferentzia-maila ezberdinak, euskaraz ari direnean batua eta euskalkia nahastea, tokian tokiko forma berriak edota zaharrak baina beste balio batekin erabilitakoak, euskalkien arteko interferentziak, akastun erregistroa ere onartuta dago; bestalde, adierazkortasuna lortzeko, gaztelaniara eta frantsesera jotzen dute, baita euskalkietara ere, baina askoz ere gutxiagotan. Horrek guztiak euskarazko argot berririk sortzea eragotzi egiten du.

Ahozkoan ez ezik, maila idatzian ere erabiltzen dute euren hizkera, batez ere teknologiaren garapenak ekarritako komunikazio-bide berrietan, posta elektronikoan, telefono-mezuak idaztean..., eta kasu horietan, idatzitakoak ulergarria izanez gero, ez dago araurik: ahalik eta pultsazio gutxieneko mezuak idazten dira, bokalik gabekoak, h-rik gabekoak, ahoskatzen den bezala idatzitakoak, nabarmendu nahi dutena maiuskulaz...

Iruñerrian egindako lanaren ondorioak (Ibarra eta Lopez, 2009) goian aipatutako en oso antzerakoak dira: estilo nahasia eta arduragabea, molde ezberdinak aldi berean eta, esanahia puzteko, *super guay*, *mega-fashion* eta antzerakoak erabiltzea, erdarazko lexikoa baina euskal fonetikara egokitua (*flipatu*, *mogolloi*, *putada*, *belarria jan*, *kutre*, *mobida*, *sobratua dago*...) eta, jakina, erdaraz/euskaraz sortutako esapideak.

Soziolinguistika Klusterrak 2007-2009. urteen artean, *Gazteen hizkuntza-erabilera, perspektiba eta prospektiba proiektua* garatu du. Erabileran eragiten duten faktoreen artean, gazte-hizkeraren beraren ezaugarriek garrantzia dutela ondorioztatu zen proiektuaren bukaerako txostenean (Soziolinguistika Klusterra eta beste, 2009).

### ► **Helduen eta zaharren hizkera**

Helduaroan esan daiteke hizkera nolabait egonkortu egiten dela. Batetik, lan-merkatuaren eraginak estandarra erabiltzera bultzatzen du hiztuna; bestetik, harreman-sarean tokian tokiko

## 2. HIZKUNTZAREN ALDAKORTASUNA

aldaera (bernakularra) erabiltzen dute. Garai honetako berezitasun handiena estandarren arauak errespetatzea izaten da.

Caminok dioenez (1992), herri txikietakoa emakumea, gizarte-mugikortasunik ez duenez, gordetzaileago agertzen da gizona baino; hirietan, ordea, estandarerako joera du, eta horren barruan prestigiodun formak erabiliko ditu. Dena dela, arestian aipatu bezala, tokian tokiko gizartearen ezaugarriak ezin dira ahaztu.

Zaharren hizkeraren berezigarria izaera gordetzailea izaten da. Baina horrek ez du esan nahi betiere berritasunen kontra agertzen dutenik euren burua. Izan ere, euren gizarte-sarean adin ezberdinetako hitzunekin aritzen dira; beraz, berrikuntzak ere txertatu egingo dituzte euren jardunean.

### Klase soziala

Ikertzaileen artean ez dago adostasunik aldagai hau izendatzeko orduan. Batzuek, adibidez López Moralesek (1993), terminoak dituen ñabardura ideologikoengatik, baztertu egin dute eta, beraren ordean, *maila* edo *estratu* terminoak erabili ohi dituzte. Manuel Alvarrek 1972an argitaratutako liburuak ere *Niveles Socioculturales en el habla de las Palmas de Gran Canaria* du izenburu; lan hau Espainiako soziolinguistikaren aitzindaria izan zen. Beste batzuek, ordea, ikerketetan aldagai honi buruzko datuek gizabanakoen maila soziokulturalari erreferentzia egiten diotela onartuta, nahiago dute *klase sozial* terminoa erabili, Almeida 2003an argitaratutako lanean, kasu. Horren ustez, termino-aldaketa horrek ikuspuntua ere aldatzen du, gizarte-antolaketa taldeen artean ematen diren harremanak modu ezberdinean nabarmentzen baitira.

Klase sozialak oso aztertuak izan dira soziolinguistika ikerketetan. Dena dela, ez da erraza kontzeptua definitzea. Marxismoaren kapitalista/langile dikotomia zaharretik (ekonomiari begira egindako sailkapena) hasi; klase, estatus eta boterean oinarritutako Weber-en sailkapenarekin jarraitu (lau talde: jabeak, administrariak, merkatariak eta langileak); eta gaur egungo Ipar Amerikako soziolinguistikaraino. Azterketa hori, gizarte-klaseen sailkapena egiteko, heziketa, irabaziak eta lanbidean oinarritzen da.

Gizartean klaseak, estratuak edo mailak egon badaudela gauza jakina da. Gizabanakoak dauzkan errekurso ekonomikoak, heziketa edota lanbidea zein diren, halako estatusa izango du komunitatean. Soziolinguistikaren zeregina, arlo honetan ere, aberastasun kultural eta ekonomiko horren eragina hizkuntzak nola islatzen duen azaltzea da; hau da, maila jakin bateko gizabanakoen hizkera eta beste maila batekoena berdina/ezberdina da? Zertan? Zergatik? Jokabide horiek unibertsalak dira ala tokian tokikoak?

Puntu honetara helduta, ezinbestekoa da Laboven lanaren garrantzia aipatzea. Bera da oinarri teorikoak, teknikak, eta, azken finean, lan-metodoa ezarri zituena. Ikertzaileak nabarmendu zuen aldaera sozialek eta estilistikoek aldagarritasunean duten garrantzia, eta hitzunen maila sozio-ekonomikoarekin eta diskurtsoaren formaltasun-mailarekin duten lotura azpimarratu ere bai. Izan ere, esanahi linguistikoa eta gizarte-esanahia ondo ezberdindu behar dira.

Gizartean dauden talde ezberdinen balioek eta arauak elkarri nola eragiten dioten, gizartean nolako harremanak sortzen dituzten aztertzean, batzuek aurkaketa moduan interpretatu dute;

beste batzuek, berriz, lankidetasun moduan (Almeida, 2003). Marxismoak lehenengo ikuspuntua hartzen du: ekoizpen-baliabideak dituztenek boterea ere badaukate eta horrek taldeen arteko gatazka edo borroka sortzen du. Funtzionalismoaren ikuspuntutik, ordea, estratifikazioa gizartearen berezko fenomenotzat hartzen da, orokorra baita. Dena dela, kohesioa ere badago, zeren eta adostasuna bai baitago balio estandarrek edo menperatzaileak onartzeko; bestela esanda, tesia estatusean eta adostasunean oinarritzen da gehiago, boterean eta gatazkan baino. Azken horrek du indar handien gizarte-maila aldagaiak hizkuntzan sortzen duen aldagarritasuna aztertzean (Labov 1966/1982, Guy 1988, Williams 1992, *in* Almeida 2003).

Baina zertan datza aipatutako irizpide-adostasun hori? Gizarte jakin bateko kideek, gizarte-maila edozein izanda ere, daukaten gaitasun soziolinguistikoari esker, badakite prestigiodun aldaerak (estatus sozial handienekoak) eta prestigiorik gabekoak zein diren. Aldaerak, zein taldek erabiltzen dituen, konnotazio positibo edo negatiboa izango dute. Estilo-aldaeretan, hau da, bariazio diafasikoan ere ikusten da jakintza implizitu hori; izan ere, hiztun guztiek prestigiodun aldaerak erabili ohi dituzte estilo formaletan.

Kontzientzia linguistiko horrek jokabide ezberdinak sortzen ditu: behe- edo erdi-mailako taldeko partaideek gizartean gora egin nahi badute, prestigiodun-aldaerak erabiliko dituzte goimailakoekin identifikatu nahian. Joera hau muturrera eramanez gero, hau da, estratifikazio-eskalan behe-rago dauden hiztunek goimailakoekin beren jardunean agertzen dituzten berezitasunak gehiegi erabiliz gero, hiperzuzenketa izeneko fenomenoak ager daiteke, eta horrek hizkuntza erabiltzean ziurtasunik eza adieraziko luke (Almeida, 2003).

Dena dela, egia da aldaera estandarra, batez ere, heziketaren bidez lortzen dela, eta gizarte-maila sozioekonomiko baxuko hiztunek, oro har, heziketa-maila handia lortzeko aukera gutxiago izan ohi dutenez (errekurtso edota motibaziorik eza dela eta), zaila izaten dute aipatutako mugak gainditzea.

Ikerketetan, klase sozialaren aldagaia talde-kopuru ezberdinetan banatu izan da; bitan banatze-tik (klase altua eta baxua) bost taldetan banatzeraino heldu da: baxua, ertain-baxua, ertaina, ertain-altua eta altua. Mailaketa hori egiteko, normalean bestelako aldagai batzuk hartzen dira kontuan, hala-nola, ikasketak, lanbidea, familiako diru-sarrerak. Horretarako, beste aldagaiekin bezala, aurretik tokian tokiko azterketa egin behar da. Izan ere, antolaketa politikoak, ekonomikoak edota sozialak asko aldatzen dira gizartea zein den. Beraz, lehen esan dugunez, eredu sozial bakoitzean aldagai ezberdinek hartzen duten garrantzia ere ez da beti bera izaten; hori dela eta, ikerketa diastratikoa egitean, aldagai horien eragina zein den jakitea funtsezkoa izango da. Zeregin horrek ematen dituen arazoak direla eta, sarritan instrukzio-maila, diru-sarrerak edota lanbidea bezalako aldagaiak modu independentean aztertu izan dira.

Labovek, New Yorkeko ingelesaren azterketa soziolinguistikoa egin zuenean (*in* Moreno Fernández, 1998), hiri horretako gizarte-taldeen inguruan J. Michael-ek (1962, *ibid.*) proposatutako mailaketa erabili zuen. Honek, ikasketak, lanbidea eta diru-sarrerak kontuan hartuta, eta aldagai bakoitzari 0-3 puntu arteko balioa emanik, 0tik 9 puntura arteko sailkapena proposatu zuen. Horrela, hiztunak lau kategoriatan geratzen dira banaturik: behe-klasea (0-1 puntu), langileak (2-5), klase ertain-baxua (6-8) eta klase ertain-altua (9).

## 2. HIZKUNTZAREN ALDAKORTASUNA

Beste autore batzuek bestelako aldagaiak ere kontuan hartu izan dituzte estratifikazioa modu zehatzagoan egin ahal izateko. Trudgill-ek, adibidez, Erresuma Batuan egindako ikerketan (*ibid.*), sei adierazle erabili zituen (lanbidea, ikasketa-maila, soldata, etxebizitza-mota, bizilekua eta aitaren lanbidea). Aldagai hauen aldea handiagoa den heinean, estratu edo maila bateko aldaera ere beste estratuetakoek erabiltzen duten hizkeratik aldendu egingo da. Estratifikazioa hizkuntza-aldaketen bultzatzailea izango da. López Moralesek (*ibid.*), hiru parametro erabiliz (heziketa-maila, lanbidea eta soldata), lau maila ezberdintzen ditu: behe-maila, erdi-baxua, erdi-maila eta erdi-altua.

Ikusten denez, aldeak alde, oinarrian oso antzerakoak dira klase, estratu edo maila sozialak eragiten dituen aldaerak aztertzean, mailaketa egiteko erabiltzen diren parametroak (batez ere, heziketa, lanbidea eta soldatarekin dute zerikusirik), baita gizarte-mailak ezartzeko orduan ere (lau, oro har). Dimensio anitzeko eredu honek tradizio handia dauka soziolinguistikan; izan ere, 60ko hamarkadatik hona erabili izan da. Horrek, ordea, ez du esan nahi arazorik gabeko eredia denik. Batetik, kontuan hartzen diren adierazle guztien garrantzia edo pisua ez da berbera izaten; konponbidea, bakoitzari haztapan ezberdina ematea litzateke. Bestetik, komunitate guztiek ez daukate eraketa berdina; horregatik, batean pisu handia duen adierazlea baliteke beste batean hain garrantzitsua ez izatea. Hori dela eta, bestelako bideak urratu izan dira, adibidez, gizarte-klasearen adierazleak, osotasun baten zatitza baino, aldaera independente bezala hartzea. Horrela, analisiek esango dute norainoko garrantzia duen bakoitzak (Moreno Fernández, 1988).

Arazoak arazo, ezagun da gizartean benetako estratifikazioa dagoela: hiztun baten jardunak, kontzienteki egoera komunikatiboak bultzatuta aldatzen ez badu behintzat, “salatu” egingo du zein mailakoa den. Oro har, esan daiteke gizartean zenbat eta maila altuagokoa izan, orduan eta aldaera arautuagoa edo estandarragoa erabiltzen dela, eta alderantziz; eta talde batetik bestera zenbat eta distantzia handiagoa egon, hainbat eta ezberdintasun nabariagoi antzemango zaiela. Egon badago nolabaiteko paralelotasuna hiztunak daukan gizarte-hierarkiaren eta bere hizkeran agertzen diren zenbait aldagairen frekuentziaren artean (Labov 2001, *in* Almeida 2003). Dena dela, tartean dauden taldeek hurbilen daukaten taldearen berezitasunak edo ezaugarriak ere berenganatzen dituzte; kasu horretan lotura ez da hain agerikoa izango, jakina.

Bestalde, aldaera diastratikoak aldaera diatopiko edo geografikoi lotu izan dira. Gizarte anglosaxoian, Trudgillek dioenez (1974, *in* Moreno Fernández 1998), estratifikazio baxuko aldaeretan aldagai geografikoetako ezaugarriak gordetzen dira; maila altuko estratuetako hizkeretan, ordea, aldaera estandarren ezaugarriak nabariagoak dira.

Horrek ere azalpen logikoa izan lezake: hiriguneetan eta inguruetan hizkera ezberdinak batzen dira, egoera ekonomikoa hobea izan ohi da, askoz ere errekurtsio gehiago dago, bai heziketa-maila altua lortzeko, bai bizipen ezberdinak izateko, bai beste estratu batekoekin elkarreraginean aritzeko. Horrek erregistro-kopurua handitzeko aukera ematen du, horien artean, estandarra. Herri txikiak, ordea, gizarte itxiagoak dira; bertan, aipatutako aukerak ez dira hain eskuragarriak; beraz, batetik, tokian tokiko erregistroari tinko heltzen zaio, eta, bestetik, gizartean gora egiteko egokiera gutxi egoten da.

Ondorio hori, ordea, ez da unibertsala, hizkuntza-komunitate guztietan ez baita joera berbera ikusten. Moreno Fernándezek aipatzen duenez, mundu hispanikoan ez da gauza bera gertatzen;



hau da, gizartearen gora egiteak ez dakar berarekin, eta ezinbestean, hiztunak bere jatorrizko aldaeraren bereizgarriak desagerraraztea edo baztertzea. Izan ere, estatus handia izan arren, nahiko erraz antzeman dakioke gizabanakoari nongoa den.

Jokabide horrek prestigioaren hautematearekin du zerikusi handia, hau da, gizabanakoaren ustez prestigiodun formak zein diren horiekiko jarrera bat edo bestea agertuko du. Baina, egia esan, prestigioa eta klasea oso loturik agertzen diren kontzeptuak dira. Hori dela eta, oro har, prestigioduntzat hartzen diren formak estatus edo botere sozial handia duten taldeetan agertzen dira; eta alderantziz, maila altuko taldeetan erabiltzen diren formek prestigio handia hartzen dute hiztunaren gogoan.

Gizarte-estratifikazioaren azterketak jarraian azalduko diren hiru kontzeptu berriak plazaratu ditu. Honako hauek dira: gizarte-sarea, hizkuntza-merkatua eta bizimodua. Goian aipatutako pentsamolde marxistan oinarritutako eredueta (gizataldeen arteko harremana borroka bezala ulertuta) erabiltzen dira, eta gizabanakoek produkzio-sisteman duten lekua, taldeen ideologia eta komunitaterako aspektu garrantzitsuetan erabakitzeak daukaten boterea adierazle esanguratsuak dira.

### ► **Gizarte-sarea**

Soziolinguistikan gizarte-sarearen kontzeptua Lesley Milroyk zabaldu zuen lehendabizi; honela definitzen du (*in* Moreno Fernández, 1998): *Gizarte-sarea gizabanakoen arteko harreman zuzenen bilbapen edo egitura da eta ondasun eta zerbitzuak trukatzeko, betebeharrak ezartzeko eta kideei dagozkien eskubideak onartzeko eragile moduan funtzionatzen du.*

Almeidaren ustez, eredia eragingarria da; izan ere, ez du aztertzen gizabanakoaren jokabidea gizarte-talde jakin bateko entitate bezala, errealitate soziokulturaletik kanpo, baizik eta harreman-sare baten barruan eta komunitatean bestelako posizioak dituzten gizabanakoekin izaten dituen kontaktuei begira. Sarean parte hartzen dutenak elkarri lotuta daude arrazoi ezberdinegatik. Gainera, eredu honek abantailak ditu gizarte-mota jakin bat behatzeko. Nekazaritzatik bizi diren herrietan, etorkinek osatutako auzoetan, adibidez, estratifikazioa ez da hain handia, eta horrelako kasuetan, gizarte-sarearen kontzeptua klasearena baino baliagarriagoa izan daiteke hizkuntza eta gizartearen arteko harremana aztertzean.

Sare sozialez aritzean, beraz, elkarrekiko harremanak dituzten norbanakoen taldeei egiten zaie erreferentzia. Sare sozialak izaera eta dentsitate ezberdinekoak izan daitezke. Dentsitatea neurtzeko, gizabanakoak dituen harreman-kopurua eta sarean posible diren harreman guztien kopurua erkatu egiten dira eta, horrela, *dentsitate-indizea* lortzen da. Zenbat eta harreman gehiago taldekideen artean, orduan eta dentsitate-maila altuagoko sarea sortuko da; eta alderantziz, harreman-kopurua txikia bada, dentsitate baxuko sarea eratuko da.

Bestalde, multiplizitate-indizea ere neurtzen da, hiztunen arteko harremanen izaerari begira. Harremanak aldi berean lotura-mota ezberdinetakoak direnean, hau da, hiztunak auzokideak ez ezik, lankideak eta lagunak ere badira, ugaritasun edo multiplizitate altuko sareak izango dira. Lotura modu bakarrekoa denean (lankidea adibidez), ostera, multiplizitate-indizea baxua izango da. Eta, beti bezala, honi dagokionez ere, gizartearen nolakoa den, lotura-motak ezberdinak izango dira.

## 2. HIZKUNTZAREN ALDAKORTASUNA

Azterketa soziolinguistikoa egiteko, indize horiek aldagai linguistikoekin erkatzen dira. Horrela, hiztun bakoitzari indize bat esleitzen zaio, beraren sare-mota zein den eta bertako kideekiko harremanen izaera eta kopurua zein diren kontuan izanda.

Dentsitate- eta multiplizitate-indizeak erabiliz, gizabanakoa komunitatearen balio-sisteman nola integratzen den ikertu nahi da (Almeida). Sarearen eskalan balio handiagoa dutenek, hau da, harreman-kopuru altua eta gizarte-dimentsio ezberdinetako loturak dituztenek, oro har, balio tradizionalei eutsi eta berrikuntzari uko egiten diote. Eta komunitatean harreman gutxi eta besteekiko lotura sinpleak dituztenek, berriz, arauak alde batera utzi eta bestelako balio-sistema beregana dezakete. Azken finean, sareak bai onurak, bai eskubideak, bai betebeharrak ekartzen dizkio gizabanakoari; beraz, arauaren presioa, sarean zenbat eta murgilduago egon, handiagoa izango da, eta berrikuntzena, berriz, txikiagoa.

Gal-ek (1979, *in* Almeida 2003) Austriako Oberwart herria aztertu zuen. Bertan, batetik, hungariera hitz egiten da, sistema tradizionalaren balioei lotuta dagoena; bestetik, hezkuntza alemana lan eta ondasunei lotutakoa. Hori dela eta, guraso elebidunen seme-alabak, lan-arloan estatus handia nahi izanez gero, elebakar bihurtzen dira. Bestalde, alemanean elebakarrak diren emakumezkoen artean joera bi ikusten dira: nekazariekin ezkondu eta aita-amaginarreben etxean bizi behar badira, hungariera ikasten dute bertako emakumezkoekiko solidaritate eta errespetua adierazteko; baina lurrari lotuta ez dauden langileekin ezkonduz gero, alemanari eusten diote.

Aurreko adibidetik zera ondoriozta daiteke: hainbat hizkera-komunitatetan herri-hizkera eta langile-klasea oso loturik daude. Oro har, herritarrek eusten diote kultura tradizionalari; ulerzakea da, beraz, hizkuntza-arloan ere berdin jokatzea. Bestalde, gizarte-maila honetan, dentsitate handiko hizkuntza-sareak sortzen direla ere ikusi dugu. Horrenbestez, harreman estuak izatea, herriko hizkera erabiltzea eta langile-klasekoa izatea elkarrekin ematen diren gertaerak dira, hau da, sare-mota, hizkuntza-aldaera eta gizarte-maila elkarrekin nahiko erlazionaturik agertzen dira. Zergatik, baina?

Autore batzuen ustez, helburua gizarte solidarioagoa lortzea litzateke; izan ere, gizabanakoen arteko lotura estuak lausotzea eta gizartean gora egin nahia bat etorri ohi dira. Bestela esanda, gizarte-maila altua lortzeak harreman-sarea ahultzea dakar. Beste batzuek, ordea, lotura estuak eta solidaritatea biziraupen ekonomikorako egokitzapen-estrategia moduan uler daitezkeela diote.

Teoria biak egiaztatzeko datu enpirikoak egon badaude ere, Almeidak bigarrenaren alde egiten du, batez ere, Fontanak (1994 *in* Almeida, 2003) egindako interpretazioan oinarrituta. Hauxe da: nazio-estatuaren sorrera (XVI. mendetik aurrera) eta, batez ere, kapitalismoaren garapenaren ondorioz, gizarte-talde politiko-ekonomiko boteretsuek, garapen ekonomikoa eta aurrerapena aitzakia hartuta, herritarren bizimodua (artisauek, langileak, nekazariak..) suntsitzeko edota asimilatzeko hainbat mekanismo eta ekintza jarri zituzten martxan. Autoreak dienez, European, ordura arteko bizimodu eta kultura tradizionalak elkarlanean, lehengaien ustiatze arrazionalen, familia-loturari eustean, teknika gizabanakoaren zerbitzuan zegoelako ustean... oinarritzen zen. Hori guztia, ordea, talde boteretsuen helburuetarako oztopo zen. Ildo horretatik jarraituz atera daitekeen ondorioa zera da: langileen artean herriko hizkera erabiltzeak dakartzan betebeharrak talde boteretsuek komunitatean beren balio eta bizimodua ezarri nahiaren kontrako erresistentzia moduan uler daitezke.

Sare sozialen ereduak eta gizarte-klasearenak ez dute zertan aurkakoak izan, autore batzuek horrela ikusi izan badute ere. L. Miroy (1992, *ibid.*) lehenengoaren alde agertzen da, batez ere, izaera unibertsalagoa duelako (gizabanako oro, komunitatean harremanak dauzkatenez, sare baten barruan daude; baina gizarte guztiak ez daude klase ezberdinetan antolaturik), eta bai herrietan, bai hirietan sortzen diren gizarte-antolaketa modu ezberdinak aztertzeko ere erabili daitekeelako. Labovek (2001, *ibid.*), ordea, auzo txikietarako gizarte-sareen ereduak abantailak dituela uste du, baina komunitate handietarako ez deritzo batere eragingarri.

Beste autore batzuek (Milroy 1992, Requena Santos; Ávila Muñoz 2002, *ibid.*) eredu biak elkarren osagarri izan daitezkeela uste dute. Izan ere, sarearen periferian dauden gizabanakoak, hau da, herriko normaren presiopean ez daudenak, erdi- edo goi-klasekoak izaten dira, eta harreman-sarean dauzkaten loturak ez dira hain trinkoak.

Lan honetan askotan aipatu denez, gizartean eredu anitz aurki daitezke; beraz, ez da erraza denak ongi aztertuko duen eredu bakarra edo unibertsala lortzea. Bestalde, soziolinguistikaren helburua hizkuntza eta gizartearen arteko loturak eta berorien egituraketa nolakoak diren argitzea bada, tokian tokiko egoeraren berezitasunei egokituta funtzionatzen badute eta emaitza fidagarriak lortzen laguntzen badute, zergatik ez erabili eskuragarri dauden metodo eta baliabide guztiak?

Asmo horrekin, gizarte-sare kontzeptua aplikatua izan da gurean ere, egoera mikrosozial batzuetan (lan-giroa, lagun-koadrila...), euskara/gaztelaniaren erabilera aztergai zuen ikerlan batean (Martínez de Luna eta beste, 1998).

**Gizarte-sarea:** azterketa sozialaren unitateetako bat da. Soziolinguistikan gizarte-sarearen kontzeptua Lesley Milroyk zabaldu zuen lehenabizi. Honela definitzen du: gizarte-sarea gizabanakoen arteko harreman zuzenen egitura da eta ondasun eta zerbitzuak trukatzeko, betebeharrak ezartzeko eta kideei dagozkien eskubideak onartzeko eragile moduan funtzionatzen du.

### ► **Hizkuntza-merkatua**

Hizkuntza-merkatu kontzeptua hiztunak produkzio-sisteman duen egoerari loturik dago. Hitztunek duten gaitasun ekonomikoa edozein izanda ere, gizartean duten funtzioaren arabera izango da euren jarduera linguistikoa. Lanbide jakin batzuetan diharduten hiztunak erabilera estandarretik hurbilago egongo dira euren lanak horrela eskatuta. Maila sozioekonomiko bera duten beste hiztun batzuek, ordea, ez dute “formaltasun” horren beharrik izango eta, ondorioz, ez dute hain aldaera formala erabiliko.

Bourdieu (1985, *in* Almeida, 2003) hizkuntza-merkatuaren funtsa eta gizartean betetzen duen funtzioa azaltzen ditu. Merkatu linguistikoa sortzeko baldintza egokiak estatua sortzean ematen dira, hizkuntza ofiziala ere sortu behar baita. Hizkuntza ofizialak, hau da, irakasleek, legegizonen, gramatikariek... zabalduko duten aldaerak kontrolatu eta batu egingo du merkatua. Hizkuntza ofizialaren erabilera merkatuaren bidez hedatu ahala, erabiltzen dutenentzat dauzkan onura

## 2. HIZKUNTZAREN ALDAKORTASUNA

material eta sinbolikoaren ideia ere zabalduko da; aberastasun linguistikoaren nolabaiteko sinboloa izango da.

Sankoff-ek eta Laberg-ek (1978, *in* Almeida, 2003) seinalatu zuten, goian aipatutako klase-kontzeptuak ez du beti balio izaten zenbait hizkuntza-ezberdintasun azaltzeko. Izan ere, akto-reek, irakasleek, hoteletako harreragileek..., gizarte-maila ezberdinetakoak izan arren, aldaera estandarra erabili ohi dute. Zergatik? Bada, egin behar duten lanarengatik. Gizabanako horiek, hizkuntza-merkatuaren erdian egongo lirateke; bestelako lanbideak dituzten hitzunak, hau da, estandarretik aldentzen direnak, berriz, periferian. Merkatu linguistikoari begira, beraz, hitzunak daukan lanbidea aldaera estandarrean duen gaitasunari dago lotuta.

Estandarrak gizabanakoaren bizitza sozioekonomikoan zenbaterainoko garrantzia duen zehazteko, ikertzaileek epaile-taldea aukeratu, lekukoaren historial sozioekonomikoa eta berauen egoera familiarrari buruzko datuak eman, eta gizabanako horiek hizkuntza-merkatuan zuten lekua modu sinplean (0 bazterreko egoeran daudenentzat, I erdikoentzat eta bitarteko balioak beste guztientzat) ebaluatzeko eskatu zieten. Gero, printzipio horiek Montrealen aplikatu, eta hona hemen emaitzak: merkatuaren erdigunean daudenek forma arautuak gehiago erabiltzen dituzte (zenbait aditzekin *être* laguntzailea eta ez *avoir*; *ce que* forma *qu'est-ce que* barik, *on* zehaztugabeko izenordea *ils* erabili beharrean...).

Labovek ere (1996/1982, *ibid.*) New Yorken erabili zuen metodo hau, baita frogatu ere Macy's izeneko dendako saltzaileek /r/-ren aldaera prestigioduna erabiltzen dutela publikoaren aurrean hartzen duten garrantzia zein den: sailburuek erabiltzen dute gehien, biltegiko langileek gutxien, eta saltzaileak tartean daude.

Merkatu linguistikoaren nozioak aldeko eta kontrakoak ditu: alde egoteko arrazoiak ikusi berri ditugu; kontrakoek eredu horretan estandarri ematen zaion gehiegizko garrantzia azpimarratzen dute. Horrez gain, arazoak sortu ohi dira hitzunak hizkuntza-merkatuarekiko duen lotura zehazterakoan, ez baita erraza modu zientifikoan egiteko irizpideak ezartzea.

### ► Bizimodua

Sare sozialen azterketaren bidez, gizarteko talde jakin batzuen inguruko informazioa lortzen da, ez gizarte osoarena. Lotura zuzena dute sare sozialek bizimoduarekin. Hain zuzen ere, horixe da aldakortasunaren beste ikerketa-eremu bat. Bizimoduaren kontzeptua T. Hojrup-ek aurkeztu du. Antropologo marxistak gizartea hiru taldetan banatuta ikusten du; talde bakoitzak berezko bereizgarri sozial eta ekonomikoa ditu eta, horrekin batera, bizimodu ezberdinak ere bai. James Milroy-k garatu du (*in* Moreno Fernández, 1998 eta *in* Almeida, 2003) izaera estrukturala duen aipatutako eredu teorikoa (talde baten bereizgarriak besteetan ematen direnei begira zehazten dira).

Teoria horrek, gizarte-sare txikiak egitura edo talde sozial handiagoekin erlazionatzen ditu. Talde horiek barne-antolaketa duten egiturak dira eta barrurako zein kanporako harreman-moduak ezarrita dituzte. Lanbideari, familiari eta beste kideekiko harremanei ematen zaie garrantzia. Aipatutako autoreek hiru bizimodu-mota bereizten dituzte mendebaldeko komunitate industrializatuetan:

1. Lehen sektorean aritzen direnek euren artean elkarlanean oinarritutako harremanak izaten dituzte. Oro har, familiak daraman lan autonomia dute; beraz, aisialdi eskasa. Talde honek dituen sareak dentsitate- eta multiplizitate-indize altukoak dira eta familia dute ezaugarri ideologiko nagusi.
1. Langileak kontrolatzen ez duen ekoizpen-sistemetan gertatzen da. Soldatapeko langileek osatzen dute, eta familia eta lana bereizirik daude. Lan-arloan mugikortasuna izan dezakete. Soldata eta lanean ematen ez den denbora aisialdirako erabiltzen dira. Auzokoekin eta lagunekin solidaritate-sarea izaten dute. Hemen, aisialdia da ezaugarria. Lanarekiko konpromiso-maila baxua badute ere, elkarren artean harreman estuak izan ditzakete, soldata hobia lortzeko asmoz sindikatuak sortzen dituztenean, adibidez.
3. Gaitasun handiko langileak. Enpresan boterea irabaztea dute helburu; horrela, nagusien kontrolpetik atera eta eurek bestelako langileen gaineko kontrola lortzea espero dute. Hori dela eta, lanarekiko konpromiso handia izaten dute, oso kompetitiboak dira, aisialdia ez dute disfrutatzen lanean egoten baitira... Lanean mugikortasun sozial eta geografiko handia izaten dutenez, lotura ahulak izaten dituzte. Ikusten denez, lana da talde hau bereizten duen balio ideologikoa.

Bestelako sailkapenik egitea badago, betiere, aztertutako komunitatean talde ezberdinak egonez gero. Izan ere, taldeen arteko harremanak eta taldeei lotutako kultura-jokabidea ez dira berdinak izango komunitate guztietan. Jadanik hainbatetan azpimarratu denez, tokian tokiko berezitasunak, gizarte-egitura eta abar oso kontuan izan behar dira analisi soziolinguistikoari ekin baino lehenago.

### 2.2.3. Bestelakoak

Ikerketa soziolinguistikoetan orain arte aipatutako aldagaiak izan dira ikertuenak. Hala ere, badira bestelako aldagaiak duten garrantzia txikiagoa delako edo beste aldagai batzuen baitan iker-tuak izan direlako leku txikiagoa izan dutenak.

#### ► *Ikasketa-maila*

Gizabanakoaren ikasketa-mailak lotura zuzena du erabiltzen duen hizkerarekin. Ezagun da zenbat eta ikasketa-maila altuagoa izan, orduan eta gehiago errespetatzen direla arauzko formak edota gero eta gehiagotan erabiltzen direla prestigiodun hitzak edo egiturak. Dena dela, bestelako aldagaiekin, lanbidearekin, gizarte-mailarekin eta abarrekin ere harreman estua dauka. Sarritan, harreman-sareen ezaugarriekin eta bizimodu-motarekin lotura nabaria izaten du, baita bidaiatzeko edota kanpoko komunitateekin harremanak izateko aukerarekin ere.

Oro har, heziketa, lanbide, klase, estatus eta boterearen arteko harreman estua egoten da: zenbat eta heziketa hobia, hobeto ordaindutako lanbidea eskura daiteke, eta, horrekin batera, estatus altuagoa, beraz, botere-ahalmen handiagoa.

## 2. HIZKUNTZAREN ALDAKORTASUNA

Aldagai hau neurtzeko, eskuratutako tituluak, eskolan emandako urteak, alfabetizazio-maila eta abar balia daitezke. Neurgailuak, beste aldagai batzuekin gertatzen den bezala, aztertuko den gizarte-ereduari egokitu beharko zaizkio. Hala ere, horrek arazoak sor ditzake azterketa kontrastibok egiteko orduan, askotan komunitate ezberdinetako heziketa-sisteman baliokidetzak topatzea ez baita erraza izaten. Beraz, aldagai honi dagokionez ere, ezin da unibertsalik ezarri; baina mailaketa zorrotza erabili barik eta orokortu daitezkeen erreferentziak (ikasten emandako urteak, kasu) erabiliz gero, errazagoa da komunitate ezberdinak alderatzean berdintasunak aurkitzea

Gure inguruan, normalean, honako mailaketa erabiltzen da: ikasketarik gabea, Lehen Hezkuntza burutua, Bigarren Hezkuntza burutua, Lanbide Heziketa burutua, diplomatua, lizentziatua, dokorea.

Goian esan denez, ikasketa-mailak hiztunak erabiltzen duen kodearekin harreman zuzena du. Horrela, ikasketa-maila baxua duen hiztuna kode murriztuan edo mugatuan arituko da seguruenik. Ikasketa-maila altua duenak, ordea, kode landuagorako sarbidea izango du.

Horri dagokionez, Basil Bernstein-ek defizitaren teoria garatu zuen. Autoreak (1975/1988, 1993/1996, 1996/1998, *in* Almeida 2003) Britainia Handian, 50eko hamarkadaren amaiera eta 60koaren hasierako langileen seme-alabek eskolan zergatik ez zuten arrakasta izaten aztertu nahi zuen. Horretarako ume horien jarduna eta erdi-mailakoena alderatu zituen eta ezberdintasun handiak aurkitu ere bai. Autoreak dioenez, horren arrazoa hizkuntza-gaitasunean ematen da, batzuek eta besteek esanahia eraikitzeko modu ezberdinak eta, beraz, esperientzia antolatzeke printzipio ezberdinak baitituzte. Behe-mailako ikasleek *kode murriztua* deitutakoa erabiltzen dute; erdi-mailakoek, *kode landua*. Kode bien jatorria klaseen arteko harremanetan aurkitu behar da, zeren eta horietan sortu, errepikatu eta egiaztatzen baitira komunikazio-modu ezberdinak: bata menperatzailea eta bestea menpekkoa. Horrek ondorio linguistiko, psikologiko eta sozialak izango ditu hiztunarengan.

Hona hemen kode landuak eta murriztuak dituzten ezaugarriak (*in* Moreno Fernández, 1998):

Kode landua	Kode murriztua
Ordena gramatikal egokia	Gramatika sinplea. Amaitu gabeko esaldiak eta egitura sintaktiko errazak
Lokailuen eta menpeko esaldien erabilera egokia	Lokailuen erabilera erraz eta errepikakorra
Logikotasuna eta denbora-espazioa zehazteko baliabide ugari eta egokiak	Interjekzioen erabilera ugaria
Lehen mailako izenordeen erabilera ugaria	Izenordeen erabilera ugaria
Adjektibo eta aditz laguntzaile egoki eta aberatsen erabilera	Adjektibo eta adizlagunen erabilera murriztua
Informazioaren antolaketa egokia	Diskurtsoan zehar gaiari eusteko zailtasunak
Antolaketa kontzeptual konplexuei egokitutako hizkuntzaren erabilera	Enuntziazio kategorikoak
Hiztegi zabala eta erabilera egokia (sinonimoak...)	Hiztegi murrizta
Zenbait adieraren azalpen esplizitua	Adieren transmisio implizitua

**3. taula:** kode landuen eta kode murriztuen ezaugarriak (*in* Moreno Fernández, 1998).

Ikusten denez, kode murriztua baino ez daukan hiztunak bai gramatikan, bai lexikoan, bai pragmatikan gaitasun eskasagoa izango du; kode landua ere badaukanak errekurtsio sintaktikoen erabilera handiagoa egingo du, baita sinbolismo-maila altuagoa adierazi ere.

Kode landua ez menperatzeak ondorio larriak ekar ditzake, adibidez, maila sozioekonomiko baxuko ikasleen eskolaratzean. Izan ere, eskola-porrotarekin lotura dauka. Kode murriztua baino erabiltzen ez duen ikasleak, eskolan kode landua erabiltzen denez, zailtasunak izango ditu hainbat kontzeptu bereganatzeko eta, oro har, bere ikas-prozesua behar bezala burutzeko.

Langile-klasekoen artean kode murriztua da nagusi; izan ere, hiztun guztiek eskuratzen dute modu naturalean eta aparteko ahaleginik egin gabe. Bestalde, euren diskurtsoa oso lotuta dago testuinguruaren oinarri materialari, eta honen laguntzaz baino ezin da azaldu. Erdi-mailakoek, ordea, biak erabiliko dituzte eta ondo ezberdinduko dute zein testuingurutan erabili ere. Hauen diskurtsoa ez da testuinguruaren menpeko, independentea baizik. Horrek pentsarazten du langileen seme-alabak ez lirakeela gai izango hainbat esperientzia hizkuntzaren laguntzaz antolatzeke, ezta pentsamendu logiko edo abstraktuak ere. Hori dela eta, ulertu ere ez lituzkete egingo, eta horrek azalduko luke umeon eskola-porrotaren ugaritasuna (Bernstein, *in* Almeida, 2003).

Kode bien iturburua, autorearen ustez, hiztunaren familia-motari, familia horren lanbideari eta, azken finean, umeari esanahiak sortzeko eskaintzen zaizkion aukera ezberdinei lotuta dago. Batetik, familia tradizionalean, kide bakoitzaren rola ondo bereizita dago; baina, aldi berean, euren arteko loturak estuak dira. Horrelako rol-sistema itxietan, umeak egokiera gutxi dauka adierazten dituen esanahiak aukeratzeko. Familia-mota hau, batez ere, langileen artean garatzen da.

Bestetik, rolak lausotuago definiturik dituen familia-mota dago, zeinetan kideen arteko harremanak modu konplexuagoan gertatzen diren. Testuinguru horretan, rol-sistema irekia ematen denez, hartzen diren erabakiak ez dira estatusaren eragilearen ondorio, baizik eta gizabanakoaren gaitasun psikologikoarena; gainera, kideek lan-harremanen sare konplexu batean hartzen dute parte. Giro horretan umeak esanahia erabakitzeko gaitasuna garatzen du.

Bernsteinen tesiak jarraitzaile asko baditu ere, kontrako iritzi asko ere sortu ditu. Dena dela, puntu honetan interesgarria dena baino ez da aipatuko: soziolinguista askoren ustez, kode murriztua ez da hizkuntzaren erabilera murriztua, beste erabilera-mota bat baizik.

### ► Lanbidea

Lanbidea eta gizarte-klasea guztiz loturik agertzen diren eragileak dira. Nolako lana betetzen den, halako estatusa hartzen da gizartearen, oro har. Aldagarritasunari dagokionez ere, frogatuta dago hiztunaren lanbideak eragin zuzena duela bere jardun linguistikoan. Ondo baloratutako lanbidea duten hiztunek prestigiodun aldaerak erabili ohi dituzte.

Beste edozein aldagairekin egiten den bezala, lanbidearena ikertzeko orduan ere, gizarte-azterketa egin behar da; izan ere, lanbide-motak definitu eta mailakatzean komunitate bateko erreallitatea ondo islatzen dela ziurtatu behar da. Bestalde, azterketa konparatiboa egin ahal izateko, bestelako komunitateetan ere ezarritako mailaketa aplikatu daitezkeen ikusi behar da, eta horrela ondorioak unibertsalak diren ala ez erabaki.

## 2. HIZKUNTZAREN ALDAKORTASUNA

lkerketa soziologiko batzuetan zazpi talde bereizten dira, eta horietatik izaten dira kontuan azterketa soziolinguistikoetan ere. Honako hauek dira: kualifikatu gabeko langileak, kualifikatutakoak, enplegatutakoak, enpresari autonomoak, erdi-mailako enpresariak, lanbide liberalak eta goi-mailako zuzendari eta enpresariak (Samper, *in* Moreno Fernández).

Bestelako mailaketak ere egin daitezke. Bentivoglio-k eta Sedano-k (*ibid.*), bost kategoriatan hauek ezberdintzen dituzte:

1. Kinkilari eta saltzaile ibiltariak, kualifikatu gabeko langile hiritarrak, laborariak, etxe-ko zerbitzua, kualifikatu gabeko zerbitzuak.
2. Merkataritxikiak, idazkari eta bulegariak, kualifikatutako langileak, artisauek, mekanikoak, saltzaileak, laguntzaile teknikoak, polizia, soldaduek.
3. Unibertsitateko profesionalak, lehen eta bigarren hezkuntzako irakasleak, enpresari eta ekoizle txikiak, erdi-mailako arduradunak, teknikoak, ikuskatzaileak.
4. Jardun libreko unibertsitateko profesionalak, arlo publiko eta pribatuko erdi-mailako gerenteak, graduaziodun militarrik, maila ertaineko enpresari eta ekoizleak, unibertsitateko irakasleak.
5. Goi-mailako funtzionarioak (botere betearazle, legegile eta judiziala), armadako goi-mailako ofizialak, enpresari handiak, arlo publiko eta pribatuko maila altuko exekutiboak, ondasun handidunak.

lkerketen emaitzetan, aldagai honi dagokionez, oro har, prestigidun lanbidea duten hiztunek aldaera prestigidunak erabiltzen dituztela ikusten da, eta alderantziz. Emaitzak, berriro ere, goian aipatutakoa frogatzen dute. Lanbide, heziketa-maila, estatusa eta hizkuntza-aldaeraren arteko harremana zuzena da.

Bestalde, lanbidearen aldagaiak eragiten duen aldagarritasuna hizkuntzaren maila guztietan antzeman badaiteke ere, lexikoan ematen da gehien. Horren adibide dira euskal dialektologian egindako zenbait lan. Koldo Zuazoren lana (Zuazo, 2005), Eneko Barrutiarena (Barrutia, 1996) eta Mikel Etxabururen arrantzaleen hizkerari buruzko tesia (2006), kasu.

### ► **Etnia**

Gizabanakoaren hizkuntza-jokabidea azaltzeko, etniaren aldagaia esanguratsua izan daiteke hainbatetan. Adibide argia ijitoen hizkera da; munduan zehar sakabanatutako talde etniko horrek, tokian tokiko hizkuntza bereganatu arren, berezko hizkera sortzen du bere jatorrizko hizkuntzaren ezaugarriak txertatuz. Gaur egun, ordea, talde etniko ezberdinez osatutako gizarteak gero eta gehiago dira; horregatik, aldagarritasuna ezin da beti azaldu parametro horri begira.

Dena dela, eta horregatik hain zuzen, oso aldagai garrantzitsua izan daiteke, zeren eta talde etnikoen arteko harremanak hainbat aldaera linguistikoren iturburu izaten baitira. Adibidez, etorkinek bizileku hartzen duten herriaren hizkuntza bereganatzen badute ere, euren ama-hizkuntzaren transferentzia linguistikoak egiten dituzte; hiztunen kultura-mailak eragina izango du interferentzia-kopuruan, eta zenbat eta luzaroago egon aukeratutako herrialdean, orduan eta ama-hizkun-



tzaren presentzia txikiagoa espero liteke. Baina jatorri bereko etorkinak elkarrengana hurbilduz gero, prozesua ez da arina izango, euren arteko komunikazioan ama-hizkuntza erabiliko baitute.

Etnia kontzeptua definitzeko, Hutchinson eta Smith-ek (1966, *in* Almeida 2003) aipatutako bereizgarriak lagungarriak dira. Talde etniko batek honelako ezaugarriak izan behar ditu:

1. Komunitatearen esentzia identifikatu eta adierazten duen izen arrunta.
2. Etniari, familia handi-handia balitz bezala, ahaidetasun fisikoaren zentzua ematen dion mitoa, kideek denboran eta espazioan jatorri berbera izan zuten lekuko.
3. Berezko memoria historikoa.
4. Elementu kultural bat edo gehiago konpartitzea: erlijioa, kultura...
5. Aberriarekiko lotura, fisikoa izan ez arren (diaspora).
6. Taldekideen arteko solidaritate-zentzua.

Egindako hainbat ikerketaren emaitzek etnia-eragilearen garrantzia utzi dute agerian. Giles-ek (1979, *ibid.*) hiztun beltzen ingelesean hainbat berezitasun aipatzen ditu: [r]-ren galera *far* bezalako hitzetan; *thing, this* eta antzeko hitzetan, [t] eta [d]-ren erabilera; orainaldian aditz kopulatioaren elipsia (*she [is a] big girl*); singularreko hirugarren pertsonaren markaren galera (*she hate[s] him*) eta abar.

Hala ere, arraza berez ez da hizkuntza-aldaeren sortzaile. Horren lekuko, egoerari buruz López Moralesek egin zuen lana (*in* Moreno Fernández, 1998). Autoreak dioenez, Karibe hispaniarrean, gizarte-baldintza berberetan bizi diren hiztunen artean ez dago hizkuntza-aldaerarik beltz eta zurien artean. Arraza batekoa izateak ez dakar ezinbestean aldaera jakin bat erabiltzea. Bestelako eragile esanguratsuagoak daude gizabanakoen jarduna determinatzen dutenak: maila soziokulturala, etorkin heldu-berriak izatea eta abar.

Gure inguruan ikusten denak ere baieztatzen du teoria, baina alderantzizko bidea eginda. Ijitoek, adibidez, aldaera berezia erabiltzen dute. Bestalde, hainbatek ez du kultura-maila handirik lortzerik izan eta batzuek gizartean integratzeko arazoak dituzte; horregatik, botererik ere ez daukate, ezta errekurtsio handirik ere. Estatus edota heziketa-maila handiagoa lortzen dutenek, aldiz, agerpen publikoetan erregistro estandarra erabiltzen dute, hori lortzeko baliabideak izan baitituzte. Bizi-baldintza hobeez, beraz, etniak eragiten dituen berezitasunak lausotu edo eza-batu egiten dituzte.

Historian atzera begira jarriz gero (ikuspuntu diakronikotik), ordea, Iberiar Penintsulan, adibidez, kontrako baieztapena egiteko argudioak aurki daitezke. Izan ere, etniak eta horrekin batera datorren erlijio ezberdinak ukipen-egoeran bizitzeak hainbat ondorio izan ditu. *Mozárabe* izeneko aldaeraren sorrera, kasu, Penintsulako lur musulmanetan bizi ziren Erdi Aroko kristauek erabiltzen zutena. Horrelako kasuetan, hizkuntza identitate-markatzaile izaten da; horregatik, iaera etniko edo erlijioso adierazteko eutsi nahi izaten zaio.

Laburbilduz, etnia eragilearen ondorio linguistikoak garrantzi handiagokoak edo gutxiagokoak izango dira, honakoen arabera: hiztunen bizi-baldintzak, bizi diren gizartean lortzen duten integrazio-maila, taldearen kohesioa edota bizitasun etnolinguistikoa.

### ▼ Jatorria

Historian zehar, gizabanakoek emigratu izan dute herri txikietatik gune handietara, bizimodu berriaren edo hobearen bila. Aurrera atera ahal izanez gero, bertara familiakoak, lagunak, ezagunak ere bildu izan dira helburu berberarekin. Horren ondorioz, jatorri bereko hiztun-mul-tzoak sortu izan dira hirietan. Normalean, herri bereko gizabanakoak, emigratzean, gune ber-berean kontzentratu izan dira. Horrela sortu ziren New Yorkeko auzo txinatarra, garai bateko Gasteizko auzo judutarra eta beste hainbat lekutako jatorri ezberdineko jendeak osatutako komunitateak.

Hiztun-talde horiek, neurri handiago edo txikiagoan, jatorrizko komunitatearen hizkuntza-bereizgarriak eraman dituzte bizileku berrira. Bertan, euren aldaerari eutsiko diote taldea nola-koa den. Euren arteko harreman-sarea dentsua izanez gero, gizarte berrian integratu ezean, gizarte horretan gora egiteko aukerarik izan ezean..., hizkuntza berria ikasi arren, haien hizke-raren bereizgarriek luzaroan iraungo dute. Eta alderantziz, euren harreman-sarea arina bada, gizarte berrian integratzen badira edota estatus altuagoa lortzeko aukera izanez gero, jatorriz-ko hizkuntzaren bereizgarriak galduz joango dira desagertzera, belaunaldi berriek ez baitu-tuzte gurasoen aldaeraren ezaugarriak gordeko, seguruenik.

Aldagai hau erabiltzen den ikerketetan, gizabanakoak hirira heldu direneko adinari begira mai-lakatzen dira. López Moralesek Puerto Ricoko San Juanen (1983, *in* Almeida, 2003) egindako ikerketetan, honelako mailak ezarri zituen: a) hiriburuan sortu edo bertara 6 urte izan baino lehenago heldutakoak, b) 6-12 urterekin heldutakoak, c) 13-20 urterekin heldutakoak, d) 20 urte baino gehiagorekin heldutakoak. Honelakoak aztertu zituen: /s/-tik datorren aspirazioaren galera, /r/-ren lateralizazioa, /d/-ren galera eta /rr/-ren belarizazioa. Emaitzetan ikusi zen lehe-nengo biak hirian bertan sortutakoak zirela eta beste biak herrietatik ekarritakoak.

Lehen aipatu denez, jatorri bereko etorkinek elkarrengana biltzeko joera izaten dute. Horregatik, jatorriak aldagarritasunean daukan eragina aztertzeko, auzoetako hizkera aztertzea lagungarria izan daiteke. Moya Corralek (2000, *ibid.*) Granadan egindako auzoen azterketaren emaitzak honako hauek dira: badaude ahaidetasun eta adiskidetasun lotura handia ematen den auzo tradizionalak, horietan gizarte-harreman estuak sortzen dira eta,aldi berean, hizkuntza-aldaera bernakularrari eusten zaio, hau da, herriko bertako hizkuntza erabiltzen dute. Bestalde, auzo berriak daude, 50eko hamarkadako immigrazioak sortutakoak; bertan, gizarte-harreman ahulagoak sortzen dira eta, ondorioz, estandarren ezaugarriak gailendu egiten dira. Adibidez, seseo izeneko fenomeno eta /c/-ren aldaki frikatiboa auzo tradizionaletan berrietan baino gehiago gordetzen dira (seseoa % 77 vs. % 26; /c/ frikatiboa % 36 vs. % 10).

## 2.3. ALDAKETA LINGUISTIKOA

### 2.3.1. Definizioa

Historian zehar hizkuntzek maila guztietako unitateetan izaten dituzten eraldaketei deritze aldaketa linguistiko. Horiek ez dira hizkuntzan ematen den aldagarritasunarekin nahastu behar. Azken horretan gertatzen diren aldaketak, ikusi dugunez, sinkronikoak dira, eta soziolinguistikaren ikergai, beraz. Haiek, ordea, diakronian gertatzen dira, hortaz, hizkuntzalaritza historikoko aztertzen ditu.

Oro har, bi eragile nagusik ekartzen dute hizkuntza-aldaketa: bata, kanpotik datorrena, mailegua; bestea, hizkuntzaren barruan sortzen dena, analogia. Eragile horien ondorioz, aldaketa linguistiko arlo fonetikoan, morfosintaktikoan eta lexikoan gauzatu izan da.

XIX. mendeko linguistikan zegoen ikuspegi biologikoa (hizkuntzak jaio, garatu eta hil egiten dira jasaten dituzten aldaketak direla eta) gaindituta, XX. mendeko soziolinguistikak bestelako azterketa egin zuen, batez ere, Labov eta bere jarraitzaileei esker.

Kapitulu honetan ikusi denez, hiztunen idiolektoa aldakorra da, baita hiztun taldeen soziolektoa ere. Aldaerak, besteak beste, eragile sozialek abiatzen dituzte nolabaiteko erregulartasunez, eta beraien analisi kuantitatiboa ere egin daiteke.

Labovek hizkuntzaren aldagarritasuna ez ezik, hizkuntza-aldaketa ere aztertu du. Bere teoriak dioenez, aldaketa linguistiko, oro har, gizartearen erdi-mailako taldeetan sortzen da eta, talde horien barruan, gizartean garrantzia duten pertsonak dira berriztatzaileak; horiek, bai talde barruan, bai taldetik kanpora, interakzio-indize altua daukate; eta emakumezkoen eragina azpimarratzen da zeregin horretan. Talde etnikoen eragina, ordea, gizartean integraturik ez daudenez, eta hori dela eta, besteak dituzten eskubide eta pribilegioak ez dauzkatenaz, ez da esanguratsua aldaketa linguistikoan.

Aldaketa linguistiko arrazoi estralinguistikoek eragindakoa izan daiteke, hiztunen egoera soziolinguistikoan ematen diren elkar eraginak sortutakoa; adibidez, beste hizkuntza bat hitz egiten dutenekiko harremanak, aldagai demografikoak eta horien eragin kulturalak eta abar. Hizkuntza-ukipenaren kasuan, eragina bi modutara zabal daiteke. Batetik, baliteke hiztunak bigarren hizkuntza ikastean bere ama-hizkuntzaren ezaugarriak txertatzea. Bestetik, ikasten ari diren hizkuntza berrian maila eskasa daukatenez, hiperzuzenketara jo dezakete, eta hori ere aldaketaren eragile da.

Hizkuntzak kontaktuan daudenean, komunitate elebidunetan, adibidez, edo arrazoi teknologikoak, erlijiosoak edo kulturalak direla medio hizkuntzan mailegu-kopuru handia sartzen denean, aldaketa gertatzeko aukera handiago egoten da.

Bestalde, hizkuntzaren barne-arrazoiak izan daitezke aldaketaren eragile eta, goian aipatu denez, hizkuntzaren maila guztiei eragiten diete. Maila fonetiko-fonologikoan artikulaziorako erraztasunari lotutako aldaketak gertatzen dira (asimilazioa, disimilazioa, epentesia). Dena dela, sal-

## 2. HIZKUNTZAREN ALDAKORTASUNA

buespenak ere badaude. Adibidez, II. Mundu Gerraren ostean, New Yorkeko hiztunek ordura arte euren hizkeran arrunta zen /r/-ren elipsia egin beharrean, /r/ inplosiboa ahoskatzen hasi ziren (in Almeida, 2003).

Maila morfosintaktikoan ematen diren aldaketak, askotan, anbiguitasun estrukturala saihestu nahiak eta zenbait unitateren gramatikalizazioak eragindakoak dira. Analogiaren eragina ere handia da, zeren eta hizkuntza-sisteman egon ohi den erregulartasunaren ondorioz, hainbat forma irregular ordezkatu egiten dira orokorragoak diren formekin. Ordezkatze-prozesu horretan, maiztasunak garrantzi handia dauka aldaketa gertatzeko: forma berrien maiztasuna zenbat eta handiago izan, orduan eta aukera handiagoa dago aldaketa gertatzeko.

Maila semantikoko aldaketek hitz baten esanahian gertatutako aldaketek ekartzen dituzte, haren esanahia murriztu edo zabaldu egiten denean; metonimia eta metaforarekin lotura daukaten fenomenoak dira. Maila lexikoko aldaketak, batetik, errealitatea adierazteko forma bat beste batek ordezkatzeko duenean gertatzen dira; eta, bestetik, kontzeptu berriak edo berezi-ituak adierazteko beste hizkuntza bateko hitzak mailegatzeko direnean.

### 2.3.2. Aldaketa linguistikoari buruzko teoria soziolinguistikoak

Aldagarritasunaren teorian, ez da onartzen sinkronia eta diakroniaren arteko muga zorrotza. Horrek esan nahi du hizkuntza-aldaketa ikuspuntu sinkronikotik ere azter daitekeela. Izan ere, aldaketa guztiek aldagarritasunean dute iturburu eta, aldagai linguistikoak eta sozialak zein diren eta zenbaterainoko eragina duten, aldagarritasunak aldaketa ekarriko du edo hizkuntza bere horretan geratuko da (Weinreich; Labov; Herzog, 1968, in Almeida, 2003).

Aldaketa denbora errealean aztertzeke, diakronian puntu bi aukeratu eta alderatu egin behar dira. Linguistika historikoan idatzizko dokumentuak baliatzen dira, hizkuntzan gertatutako prozesuen lekuko baitira. Metodo hau, ordea, ez da guztiz fidagarria; izan ere, dauden testuetan eskribauaren hizkeraren ezaugarri diatopikoek (dialektoa) eta diastratikoek (gizarte-maila) eragindako aldaketak zein diren zehaztea ere ez da lan erraza izaten.

Testurik izan ezean, aldaketa gertatu den edo bidean dagoen, eta beraren nolakotasuna zehazteko, azterketa sinkronikoa egin behar da, belaunaldi ezberdinen jardunean hizkuntza-forma jakinen jokabideari erreparatuz.

Ikuspuntu horretatik, hizkuntza-aldaketa ez da denbora errealean aztertzen, denbora erlatibo edo itxurazko denboran deritzon baizik. Adibidez, gazteen hizkeran maiztasun handiz ematen den aldaera linguistikoa garai bereko hitzun adinduagoengan gutxituz badoa, aldaketa berriztatzailea bidean dagoela esan daiteke. Era berean, nagusien artean maiztasun handiz entzuten den aldaera, bestelako hiztunek zenbat eta gazteagoa izan orduan eta gutxiago erabiltzen badute, forma hori erregresio prozesuan dagoela eta litekeena galtzea dela ondoriozta daiteke.

Dena dela, belaunaldi ezberdinetan aldaerek ematen dituzten datuen fidagarritasuna norainokoa den ez dago argi. Hori dela eta, bestelako informazioa kontuan izan dute ikertzaileek; aldaeren gizarte-estratifikazioa, adibidez.

## Aldaketa dialekto batetik bestera gertatzen da

Labovek (*in* Almeida, 2003) New Yorken hizkeran *r*-ren aldagarritasunari buruzko lanean, aldakien distribuzio soziala aztertu zuen, baina hizkera-estilo ezberdinak kontuan izanda, hau da, aldagai diastratikoak eta diafasikoak erabiliz. Bertan, erdi- eta behe- mailako gizarte taldeetan hiperzuzenketarako joera ikusten da, aldaketarako hastapena izan litekeena. Estilo ez-formaletan, bat-bateko elkarrizketan adibidez, erdi- eta behe- mailako hiztunek goi-mailakoek baino aldaki prestigiodun gutxiago erabiltzen dituzte. Estilo formaletan (hitz solteen irakurketa), ordea, hiperzuzenketara jotzen dute eta azken horiek baino maiztasun handiagoz erabiltzen dituzte prestigiodun aldakiak.

Autore honen ustez, hizkuntza-aldaketak, dituzten bereizgarri psikosozialak zein diren, bi motatakoak izan daitezke (1986/1982; 1972/1983; 1991, *ibid.*): behetik gorakoak eta goitik beherakoak. Bai batzuk, bai besteak azpitalde batean hizkuntza-forma jakin bat orokortzen denean hasien dira; horregatik, hasieran, identitate markatzaile har daitezke. Forma horiek, azpitalde horretako ondorengo belaunaldien erabileraren bidez, gero eta erabilera-esparru zabalagoa izango dute eta, horrela, beste gizarte-taldeetara hedatu. Hori gertatuz gero, aldaki horien esanahi soziala ere aldatzen joango da eta aldaketa gauzatuko da, beraz. Baina prozesu hori guztia modu inkontzientean gertatuko da. Horrela gertatutako aldaketei behetik gorako aldaketa deritze. Horrelako aldaketak herriko hizkeran sortutakoak dira, ez dira modu kontzientean gertatzen eta edozein gizarte-mailatan gerta daitezke.

Aldaketa sortzen duen taldea estatus altukoa ez bada, ordea, baliteke taldekideek, bitarteko instituzionalek (eskola, hedabideak...) duten eraginaren ondorioz, sortutako forma berriak baztertzea. Jokabide hau goitik beherako aldaketaren hasiera izango litzateke; izan ere, aldatutako formak zuzentzeko eta, horrela, estatus handiagoa dutenen prestigiodun aldaerara hurbiltzeko ahalegina da. Horrelako aldaketek, askotan, prestigio handiko formen gizarteratzea ekartzen dute. Aldaketa-mota hau goi-mailakoek zabalitzen dute modu kontzientean; batzuetan maileguak izaten dira, eta askotan, lehenengo eta behin, estilo formaletan ematen dira eta geroago zabalitzen dira herriko hizkerara. Dena dela, betiere ez dira hedatzen.

Puntu honetara helduta, hizkuntza-aldaketan eragiten duten faktore garrantzitsu bat azaltzea komeni da: prestigioa.

### ► Prestigioa

Prestigioa, hizkuntza-aldaketan, eragile estralinguistikoa da, hau da, forma jakin bat ez da berez prestigiodun edo prestigio gabea, nork, non eta zertarako erabiltzen duen baizik. Bestalde, gerta daiteke hiztun baten ustez prestigiodun forma dena beste batek horrela ez sentitzea. Hau da, forma edo erabilera baten aurrean, hiztunek jarrera ezberdinak har ditzakete.

Argotak, adibidez, euren hiztun-taldeetan izan ezik, gizarte-prestigio handirik izan ohi ez duten hizkuntza-aldaerak dira. Batez ere, talde marjinalak eta zenbait lanbide artistiko dutenek erabiltzen dituzte taldekideen arteko komunikazioan. Hainbat argot-mota daude, eta elkarri eragiten diotenez, ezaugarri eksklusiboak eta besteekin konpartitutakoak dituzte. Argota eta lagunarteko hizkera nahas badaitezke ere, ez dira berdinak: azken horiek izaera informala duten adie-

## 2. HIZKUNTZAREN ALDAKORTASUNA

razpenak dira, baina, haiek ez bezala, ez dira marjinalak, erabilera arruntekoak baizik. Bestalde, argot jakin bateko terminoak orokortzen direnean, argot izateari uzten diote.

Nola lortzen edo galtzen dute, baina, forma linguistikoek prestigioa? Oro har, gizarte-maila altuan edo botere-guneetan erabiltzen badira, prestigio handia lortuko dute; eta alderantziz, behe-mailako hiztunek erabiliz gero, galdu egingo dute. Dena dela, goian ikusi dugunez, salbuespenak ere badaude.

### Aldaketak gizarte-sarean du abiapuntua

Gizarte-sareen teorian oinarriturik, J. Milroyk (1980, *ibid.*) hizkuntza-aldaketari buruzko beste-lako teoria bat garatzen du, hiru ardatz nagusi dituena:

1. Hizkuntza-ekintza, salbuespenak salbuespen, testuinguru sozialean gertatzen da.
2. Hizkuntza-aldaera baten deskribapena egiteko, komunitatean indarrean dauden hainbat irizpide eta erabaki sozial oso kontuan izan behar dira.
3. Aldaketa bat gertatzekotan, horren kontrako indarrak (hizkuntza-leialtasuna, gizarte-sarea, talde-identitatea...) dauden eremuan gertatuko da.

Autore honek ere uste du aldaketa aldagarritasunean hasten dela. Bere lanetan aldagarritasunaren arauak eta hizkuntza-komunitatearen aztertzen eta azaltzen ditu. Aldaketa hizkuntza-komunitate bateko arauetan dagoen adostasunean dago; horrek adierazten du talde horretako hiztunen artean nolabaiteko akordioak daudela.

Bestalde, sare sozialaren ikuspuntutik, berrikuntza eta aldaketa ezberdintzen ditu. Berrikuntza hiztunak egiten du, eta baliteke gero hizkuntza-sistemari eragitea. Aldaketak, ordea, beti dauka eragina sisteman. Puntu honetan autorea ez dator bat linguistika kuantitatiboarekin, deskribatzen dituen aldagarritasun-motak hizkuntza-sisteman txertaturik baitaude eta arau erregularrei jarraituz gertatzen baitira. Bere ustez, komunitate bateko hiztunen artean sortzen diren harreman estuak indar kontserbatzaile izan daitezke eta, horrela, aldaketa-prozesua moteldu; lotura ahulek, ordea, herriko hizkeraren arauei heltzeko aukera murriztu egiten dute, batetik, eta, bestetik, aldaketa bultzatzen duten kanpoko presioen aurrean jartzen dituzte hiztunak.

### Aldaketa erregistro-aldakortasunean hasten da

Finegan eta Biber-en teorian (Edward Finegan; Douglas Biber, 1994), ordea, aldagarritasunaren eragile nagusia erregistro-aldaketa da. Beren lanean, aurreko hiru hamarkadetan soziolinguistika kuantitatiboak aztertutako aldagarritasuna, hiru motatakoa izan dela diote: testuinguru linguistiko ezberdini lotutakoa; hiztunaren bereizgarri sozial edo demografikoari lotutakoa; eta erabilera-egoerari lotutakoa. Eurek, berriz, uste dute aldagarritasun soziolinguistikoa azalduko duen teoria egokiak gizarte-dialektoen, hau da, soziolektoen eta erregistroen aldagarritasunaren artean dagoen harreman sistematikoa azaldu behar duela.

Hori dela eta, erregistro-aldakortasunaren eta gizarte-dialektoen zenbait eredu sistematiko deskribatzen dituzte, aldaera linguistiko askoren oinarrian erregistro-aldaketa dagoela argudia-

tuz. Horretarako, bi baieztapen egiten dituzte. Batetik, hiztun bakar batek hizkuntza-forma ezberdinak erabiltzen ditu egoera komunikatiboa zein den; bestetik, hizkuntza bera duten hiztun ezberdinek gauza berberak esaten dituzte, baina modu ezberdinetan. Aldagarritasun hau sistematikoa da, hiztunek ahoskera, morfologia, lexikoa eta gramatika aukeratzen baitituzte linguistikoak ez diren hainbat eragileri begira: hiztunaren helburua, igorle eta hartzailearen arteko harremana, hizketa-gaia, hizkuntza-ekintza zein egoeratan ematen den, hizketaren abiadura... Horrek guztiak eragiten dituen ahoskerak, forma lexikoeak eta gramatikalek estiloa osatzen dute. Estiloa, beraz, hizkuntza erabiltzeko modu berezi eta berezkoa dela esan daiteke.

Horri begira, zenbait egoera komunikatibo ezberdinak dira hiztunek aldaera zaindua egiteko daukaten aukera zein den. Adibidez, publikoan egiten diren diskurtsoetan, mezua planifikatu eta errebisatzeko aukera handiagoa dago, lagunen arteko elkarrizketetan baino. Horrek, argitasuna lortzeko baldintza hobeak eskaintzen ditu eta, beraz, hizkuntza-ezaugarri landuak sortzeko aukerak ere bai.

Laburbilduz, aldagarritasuna azaltzeko proposatzen duten ikuspegi soziolinguistikoak honako hauek adierazi eta azaldu behar ditu:

1. Egoera linguistiko edo testuinguru ezberdinetan ematen den aldagarritasun sistematikoaren eredua edo patroia.
2. Gizarte-taldeetan ematen den aldagarritasun sistematikoaren patroia.
3. Eredue bion artean dagoen paralelotasuna.

Bestela esanda, erregistroak eragiten duen aldagarritasuna eta soziolektoetan antzematen dena bat datozela erakutsi nahi dute. Euren ustez, erregistro-aldaerak sistematikoki gertatzen dira betetzen dituzten funtzioek eragindakoak direlako; hots, eragile funtzionala daukatelako. Gizarte-dialektoen aldagarritasuna aztertzean ere, aldagai berberetarako aldaera sistematikoak ematen dira, zeren eta gizarte-talde ezberdinetako hiztunek eta idazleek ahozko eta idatzizko erregistroak eskuratzeko aukera ezberdinak baitituzte. Beraz, erregistro-aldagarritasuna eragiten duten eredu funtzionalek, elementu berberetan ematen den dialekto sozialen aldagarritasuna ere eragiten dute.

## 2.4. EUSKAL HERRIKO ZENBAIT LANEN BERRI

### 2.4.1. Sobre la variación lingüística. [Maitena Etxebarria](#)

Maitena Etxebarriak (1985) *Sociolingüística urbana, el habla de Bilbao* izeneko lanean, Bilbon, espainolez /d/ foneman gertatzen den aldagarritasun fonologikoaren eragile linguistiko eta estralinguistikoak aztertu ditu, Laboven metodo kuantitatiboa erabiliz. Horretarako, hiztunen

## 2. HIZKUNTZAREN ALDAKORTASUNA

diskurtsoan gertatzen diren fonema horren aldaerei eta horiekiko jarrerei antzemateko galdeketa prestatu eta inkestak egin dira.

Kontuan izandako aldagai linguistikoak estatus gramatikala, testuinguru fonikoa eta hitz-mota izan dira; eta sozialak, estralinguistikoak, beraz, sexua, adina (hiru belaunaldi), maila soziokulturala, ikasketa-maila, ama-hizkuntza eta elebiduntasuna. Aldaki guztiak islatzeko, lau aldagai erabili dira (horzkari frikatiboa, horzkari erlaxatua, ia bokal bihurtutako trantsizioa eta fonemaren elipsia [0]). Lanaren azken helburua emaitzak hirietako espainolaren beste aldaerei buruz egindako ikerketa kuantitatibokoaren emaitzekin alderatzea da.

Ikerketa lan honetan, 3.422 kasutan aztertu da /d/ fonema horzkariaren bokalen arteko gauzaztea. Abiapuntuko hipotesia zen erabileran gertatzen den aldagarritasuna ez dela ausazkoa, aldagai librean balira bezala, baizik eta baldintza linguistiko eta soziolinguistikoek eragindakoa. Emaitzek hipotesia egiaztatu egiten dute: aldagarritasuna arau-multzo jakin bat betetzearen ondorio da; arauon aplikazio maiztasunaren eta zenbait eragile linguistiko eta sozialen artean harreman estua dago.

### 2.4.2. Euskararen atlas sozio-geolinguistikoa ikerketa-proiektua. [Gotzon Aurrekoetxea](#), [Jose Luis Ormaetxea](#)

Ikerketa-proiektu honetan azterketa geolinguistiko eta soziolinguistikoa egiten da Hego Euskal Herriko helduen eta gazteen hizkeren arteko desberdintasun fonologiko, morfologiko, sintaktiko eta lexikoak ikertzeko, 75 herritan egiten den galdesortaren emaitzak baliatuz.

Euskararen atlas sozio-geolinguistikoa proiekturako ikerketa bikoitza egiten ari dira; hizkera ikuspuntu soziolinguistikotik (adina faktore soziolinguistikoak eragindako desberdintasunak) eta geolinguistikotik (espazioa kontuan hartuta, hizkerak dituen berezitasunak) aztertzea baitu helburu. Belaunaldi ezberdinen aldaerak aztertuz, batuak edo estandarrak sortu zenetik hona, ohiko mintzaeran nolako eta zenbaterainoko eragina izan duen neurtu nahi da.

Batua erabiltzen hasi zenetik hona hizkera tradizionalekin harremanetan egon da. Indar bateratzaile faltagatik, batetik, eta hitzunen arteko harreman eskasengatik, bestetik, euskalkiak nahiko modu librean garatzen joan dira mendeetan. Egoera horrek hizkuntzaren aldagarritasun geolinguistikoa aztertzeko tartea ematen du. Batua, ordea, indar bateratzaile boteretsua da, eta berrogei urteotan eragin handia izan du hizkera tradizionaletan.

Hizkuntzaren aldagarritasun hori aztertzeko, adina eta faktore geografikoaren eragina zenbaterainokoa den ikusteko, bi belaunalditako hitzunek eguneroko bizitzan duten hizkuntza-egoera aztertu da. Nagusiek estandarrarekin izan duten harremana ez da handia; gazteek, berriz, jaiotzetik izan dute harremana batuarekin. Lan honen hipotesia: euskara batuaren eragina uste baino handiagoa da, eta azkarragoa gainera.

Euskararen ikerketa geolinguistikoa (aldaera diatopikoa), Bonaparteren garaitik hona, oso garatuta dago eta Euskaltzaindia egiten ari den Euskararen Herri Hizkeren Atlasa dugu horren leku-



ko. Ikerketa soziolinguistikoa (adinak, maila sozialak, ikasketek eta bestelako faktore soziolinguistikoez eragindako aldaera diastratikoak aztertzen dituen), ordea, ez dago hain landua.

Ikerketaren marko teorikoa parametro soziolinguistikoa eta geolinguistikoa oinarritutakoa da. Euskal Herri osoko aldaera geografikoak biltzen ditu proiektuak. Hiztunak baserri giroan hazitakoak dira, tradizioarekiko lotura galdu ez duen hizkera aztertu nahi baita; baina, era berean, eredu estandarra ere ezagutzen dute, beharra dela eta, kultura hiritarra ere ezagutzen dutelako.

Aldaera diastratikoak aztertzeko erabiliko den aldagaia adina da: gizon helduak (45-50 urte) eta gizon gazteak (20-25 urte). Aldaera diafasikoak aztertzeko, berriemailei familian eta lagunartean duten erregistroa ikertu nahi dela esango zaie, baina inkesta-moldea formala denez, baldintzatu egingo du hiztunen jarduna, eta erregistro jasoagoa erabiliko duten ustea dute ikertzaileek. Gogoratu behatzailearen paradoxa (ikus *Aldagai lexikoak* puntua).

Ikerketarako hizkuntzaren alor fonologiko, morfologiko, sintaktiko eta lexikoa landuko dira, hau da, hizkuntza bere osotasunean, baina alorren arteko interferentziarik ez da egongo datu-bilketan. Horrela, emaitzetan, batetik, arlo guztietako aldagarritasuna zertan den ikusiko da; eta, bestetik, zein alorretan dagoen aldagarritasun handiena, eta berau hizkera desberdinetan orekatua den jakin.

Ikerketaren emaitzek hizkeren sailkapena egiteko aukera ematen dute (ezaugarri arrotz gehien zeinek duen eta bereak zeinek gordetzen dituen ondoen). Bestalde, belaunaldien arteko ezberdintasunak zein eta zenbaterainokoak diren ere erakutsiko dute. Eta azkenik, estandarren eraginaren nolakotasuna (berdintze-joera bizia/eramangarria) ere argi ikusiko da.

Ikerketa-ildo honek hainbat aukera ematen ditu: hizkeren arteko berdintze-joerak zertan diren zehaztu; fenomeno horren indarra eta abiadura neurtu; eta etorkizunerako proiektzioa egiteko tresnak eman. Gainera, corpusaren planifikaziorako ere lagungarri izango dira emaitzak.

Hainbat helburu lortu nahi dira: aldaera geografikoetan, soziolinguistikoa eta aldaeren arteko berdintzearen faktoreetan sakontzea; ahozko hizkera dialektal eta hizkera ezberdinen datu transkribatuen datu-basea sortzea.

### 2.4.3. Hizkuntza–aldaketa eta identitatea. [Estibaliz Amorrortu](#)

Lan honen helburua, gazteen hizkeraren gaineko zenbait ohar eginez, horri buruzko hausnarketa eta eztabaida proposatzea da. Izan ere, seguruenik, gazteen bat-bateko euskararen ezaugarriak hizkuntzaren aldakortasunak eta identitateak eragindakoak dira, eta ez, behin eta berriro esaten den moduan, erabiltzen duten erregistro eskasak eragindakoak; beraz, gazteen aldaera aztertzeko orduan, jokabide arau-emaille hutsak baztertu egin behar dira eta jarrera soziolinguistikoei eutsi.

Identitatearen eta aldakortasunaren arteko lotura handia da. Gizarte-talde ezberdinek berezko aldaera dute (soziolektoa), gizabanakoek bezala (idiolektoa). Horien bidez, talde-nortasuna eta

## 2. HIZKUNTZAREN ALDAKORTASUNA

norbanakoarena adierazten dira. Gazteek, beraz, zaharrek ez bezala egingo dute; beraien hizkeren artean ere, aldaerak egongo dira. Identitatea, beraz, aldakortasunaren eragile esanguratsua da. Gazteen talde-nortasunak bideratzen du beren hizkera.

Gazteen ahozko hizkera aztertzen da lanean, ez erabiltzen duten erregistro formala. Aldaera horri leporatzen zaion pobrezia (erdal kutsua dauka, etxekoa eta batua nahasten dira...) aldagarritasunaren argitan azaltzen da: gizartean, aldaketa, ezberdin izatea, ez da begi onez ikusten, ideologia linguistiko garbizalea handia baita, bai Euskal Herrian, bai mendebaldeko gizarte gehienetan.

Erdararen eragina gehiegizkotzat jotzen da; hainbatek hurrengo pausoa hizkuntzaren heriotza izan litekeela uste dute. Amorrorturen ustez, ordea, konplikatua da kontua. Hizkuntza-fenomenoak gaitzetsi baino lehen, batetik, hiztunen gaitasun-mailari erreparatu behar zaio, eta bestetik, aldaketaren jatorriari, intralinguistikoa izan baitaiteke (eta kasu honetan baliteke joera unibertsala izatea) ala beste hizkuntza batek eragindakoa. Bestalde, aldaketaren gradualtasuna izan behar da kontuan. Ezin da esan, beraz, gazteen hizkera guztiz erdararen menpe dagoenik, lagunarteko erregistroan interferentzia maila nabaria bada ere, egoera formaletan, idatzian adibidez, ez baita hain handia.

Autoreak dioenez, hizkuntzak talde-identitatean eta norbanakoarenean indarririk izanez gero, hiztunek eutsi egingo diote. Beraz, gazte euskaldunentzat euskarak garrantzia badauka erabili egingo dute lagun arteko harremanetan, eta, horrela izanez gero, *code-switching*a, maileguak eta transferentziak bigarren mailara pasatzen dira.

Ikusten denez, jarrera arau-emaileak arintzea gomendatzen da lanean, baina ez maila guztietan. Erregistro formaletan, hiztunak berez zaintzen ditu arauak; intimoetan, ordea, taldekideek bezala hitz egiten du identitatea agertzeko.

### 2.4.4. Standarization, functional shift and language change in Basque. [Bill Haddican](#)

Artikulu honek *Aspects of language variation and change in contemporary Basque* doktorego-tesia du oinarri (William F. Haddican, 2005), eta autoreak Oiartzunen egindako elkarrizketa soziolinguistikoen bitartez lortutako datuen azterketa kuantitatiboa plazaratzen du. Helburua hizkuntza-plangintzari begira hartutako neurriek bertako euskaran zenbaterainoko eragina izan duten aztertzea da.

Lan honetarako datuak autoreak berak batu zituen 2001ean elkarrizketak eginez. Metodo horrek, seguruenik, elkarrizketatuak aukeratzen duen forma baldintzatzen du. Batetik, testuiguruaren formaltasunak bultzatzen ditu hiztunak forma estandarrak erabiltzera; gazteek, heziketa batuaz egin izanaren eta hedabideen eraginaren ondorioz, forma estandarrak erabiltzen dituzte, eta nagusiek, Oiartzungo hizkera baino, gipuzkera estandarra erabiltzen dute. Bestetik, elkarrizketagilea komunitateko partaide ez izateak ere hizkera zaintzea dakar. Jokabide horri aurre egiteko eta herriko formen erabilera bultzatzeko, ikertzaileak bertako formak erabili

zitzen, lekukoek beraren jardunean erregistro ezaguna entzutean, erregistro informalekoa erabil zezaten. Horri begira ere, lekukoak binaka harturik izan ziren elkarrizketatuak, edo komunitateko beste partaide baten aurrean egin zen elkarrizketa.

Bestalde, helburua herriko hizkeraz gehiago jakitea zela eta galderak eguneroko bizitzari buruzkoak izango zirela esan zitzairen: umeak, herriko bizimodua eta tradizioak, norberaren bizipenak, helburuak, hizkuntza eta ingurune biografikoa. Hiru adin-talde egin ziren: zaharrak (60-87), nagusiak (41-51) eta gazteak (20-25); eta hiru aldagai aztertu: *baino* (batuaz *baina*), *izan* eta *egon* aditzetako *-tu* atzizkia (partizipio marka) eta *-ik* amaieradun formek hartzen duten *-an* atzizkia (adizlagunak: *bakarrikan*; partitiboak: *dirurikan*; ablatiboak: *hemendikan*; motibatiboak: *zergatikan*).

lkerketak hiru ondorio nagusi eman ditu. Lehenengoa, datuetan denbora erlatibo edo itxurazkoan batueraren aldeko aldaketa prozesu indartsu dagoela ikusten da; aztertutako aldagai lexikoan eta morfologikoetan, forma ez-estandarrek, hau da, herrikoak, maiztasun handiagoz agertzen dira nagusiengan gazteengan baino; izan ere, azken horiek forma estandarrek gehiagotan erabiltzen dituzte. Bigarrena, belaunaldien arteko ezberdintasunak, batuaren sarrerak baino, bestelako arazoiek eragindakoak dira: euskararen erabilera-esparrua murriztu izana eta beste euskalkietako hitzunekin harreman-kopurua handitu izana. Hirugarrena, /b/, /d/, /g/ eta /r/ fonemen galera. Horrek sexu-aldagaiari begirako distribuzioa erakusten du; gizonezkoek emakumezkoek baino maiztasun handiagoz egiten dute galera.

### 2.4.5. Gazte euskaldunen lagun arteko hizkera hemen eta orain. Imanol Esnaola

Lan honetan, Imanol Esnaolak Euskal Herri osoan, eremu soziolinguistiko ezberdinetako gazteak aztertu ditu elkarrizketa bidez, gazteek erabiltzen duten aldaeraren ezaugarriak aztertzeke asmoz. Belaunaldi horretako partaideengan hizkuntza estandarrek (batuak) izandako eragina ere aztertu du. Ateratako ondorioen artean, esanguratsuen erdararen presentzia izan da; izan ere, horixe da gazteen hizkeraren elementu azpimarragarrienetakoa. Bi hizkuntzen arteko formula hibridoak erabiltzen dituzte, batez ere, esaldi mailako hizkuntza-atal esanguradunetan. Esnaolaren ustez, gazte hauen diskurtsoari “gazte” kutsua ematen dioten elementuak erdal jatorrikoak dira nagusiki.

Bestalde, hitzun bakoitzaren ibilbide linguistikoak eragin zuzena du bere errepertorioan. Etxean erabiltzen den hizkuntza eta hitzun gazteek egiten duten erabilera funtzionala erabakigarriak dira euren aldaera definitzean.

### 2.4.6. NORANTZ proiektua. Baionako IKER taldea

NORANTZ proiektuaren helburua Ipar Euskal Herriko euskaldunen hizkera berriak aztertzeke behaketarako tresna sortzea da. Horretarako, euskal hitzunen tipologiaren arabera soziolek-

## 2. HIZKUNTZAREN ALDAKORTASUNA

---

to ezberdinak kontuan hartuz, egungo hiztunek erabiltzen dituzten egitura gramatikalen eta fonetikoaren datu-basea sortu nahi dute, horrela, gaur egun bidean dauden aldaketak ikusi eta ondorengoak aurreikusi ahal izateko.

Lekukoak aukeratzeko hurrengo eragile soziolinguistikoak izan dira kontuan: adina (hiru talde: 30 urtekoak, 40-50 urte bitartekoak eta 60 urte baino gehiagokoak); ama-hizkuntza euskara duten ala ez; ikasketarik duten; eremua (hiria, hirixka eta baserria); eta sexua/generoa.

Erabiliko duten metodologiaren nondik norakoak honakoak dira: guztira, 51 hiztun elkarrizketatuko dituzte (27 gazte, 12 heldu eta 12 adindu); bakoitzak 600 item inguruko galdetegia erantzun eta hamar bat minutuko elkarrizketa (libre edo gidatua) egingo du. Galdetegia egiteak duen helburu bat da hemendik urte batzuetara galdeketa errepikatu eta emaitzak konparatu ahal izatea.



SOZIOLINGUISTIKA ESKULIBURUA

### 3. HIZKUNTZA-UKIPENA

*JEAN-BAPTISTE COYOS ETXEBARNE*





## 3. HIZKUNTZA–UKIPENA

### 3.0. SARRERA

Munduan 6.000 hizkuntza inguru daude eta 200 estatu. Beraz, nazio-hizkuntzez gain, hizkuntza ofizialez gain, asko izan daitezke herri bateko hizkuntzak. Papua Ginea Berrian, adibidez, 800 hizkuntzatik gora daude eta lau miloi biztanle (Félix Martí eta beste, 2005: 69); Kamerun edo Kongon 200 hizkuntza baino gehiago daude (Louis-Jean Calvet, 2002: 93). Europan herri bat baino ez da gutxi gorabehera homogeneous: Albania.

Munduko hizkuntzak, beraz, ez dira isolatuak, ukipenean dira. Albokotasunean izan ordez, zuzeneko harremanak dituzte nagusiki. Ondorioz, esan dezakegu mundua kokagune desberdinetan eleaniztuna dela eta hizkuntza-komunitateak etengabe gainjartzen direla.

*Hizkuntza-ukipena* adierazpena irudia da, ez baitira hizkuntzak beraiek kontaktuan. **Hizkuntza** desberdinen **hiztunak** dira kontaktuan daudenak, edo **hizkuntza-komunitateak**, aztertzailearen edo azterketaren ikuspegiaren arabera.

Hizkuntza-komunitate ezberdinetako hiztunak elkarrekin komunikatzeko gai ez baldin badira, elkarrekiko harremanik ez da. Hitzun-talde bakoitzak bere bizitza osoa bere hizkuntzan egiten du osoki eta beste taldeak berean. Horrelako kasu baten aurrean, ukipenik ez dagoela esan daiteke, baina lurralde berean guztiz isolaturik bi talde edo gehiago bizitzea pentsaezina da. Elkarren ondoan bizi diren taldeen artean, elkarren arteko harremanetarako bi hizkuntzak eza-gutzen dituen jendea egoten da. Beraz, hizkuntzak hitzun elebidunen bidez izaten dira elkartuak.

Bere *Language in contact* liburu fundatzailean, Uriel Weinrich-ek hizkuntza-ukipena honela definitu zuen: *Bi hizkuntza edo gehiago ukipenean direla esanen da pertsona berek txandaka erabiltzen baldin badituzte* (1953: 1).

Hizkuntza-ukipenaren ikerketa-eremua, norbanakoaz gain, komunitatea ere izan daiteke, edo bederen norbanakoarekin hasten bada, gizartera heda daiteke. Hizkuntzak eta hiztunak harremanetan daude, gizarte-mailako arrazoi ezberdinak direla medio, herriek topo egiten dutelako.

Horregatik, hizkuntza-ukipena hiru alderditatik azter dezakegu: **norbanakoa** (elebiduna, eleaniztuna edo hizkuntza-jabetze prozesuan dena), **hizkuntza-komunitatea** eta **hizkuntza**



bera. Izan ere, kontaktuen eragina hizkuntzen forman ere agertzen da. Hizkuntza-ukipenak ondorio linguistikoak ditu. Azken alderdi hori soziolinguistikaren lehen ikergaietako bat izan zen.

William Mackey kanadar soziolinguistaren esanetan, **elebitasunaren** kontzeptua ere hiru mailatan aztertu behar da: *Elebitasunaren alderdi horiek denek (hedapena, egonkortasuna eta funtzioa) norbanakoarengan, hizkuntzan eta taldean eragiten dute* (1976: 37). Norbanakoaren baitan, hiztun elebidunen ezaugarriak ezberdinak direlako; hizkuntza-talde edo komunitatean, bi hizkuntzek gizarte horretan funtzio ezberdinak beteko dituztelako; hizkuntzen eta barietateen ezaugarrietan, bi hizkuntzen erabilerak bakoitzaren corpusean eragina duelako.

Halere, Joshua A. Fishman soziolinguista estatubatuarrarekin, eta behar bada Weinrichen ikusmoldearen aurka, bi hizkuntzak ez dira bi talde desberdin islatuko balituzte bezala ikusi behar, baizik eta talde bakar bat bezala (Ofelia García eta beste, 2006: 13). Elebidunek hizkuntza-komunitate bakar bat egiten dute. Erabiltzen dituzten hizkuntzak ez dira monolitiko eta isolatuak, hizkuntzarteko sartzegradua dago, bi hizkuntzak erabiltzen dituztenek ezagutzen dituzten erabilera elebidun-ereduen arabera.

Horiek dira aipa daitezkeen elebitasunaren eta elebidunen lehen ezaugarri nagusiak.

Mackeyren *norbanakoa, hizkuntza eta taldea* bereizketa onartuz, hori da segituko den plana atal honetan: lehenik, hizkuntza-ukipenaren ondorio indibidualak aztertuko dira; bigarrenik, ondorio linguistikoak; eta, azkenik, ondorio sozialak. Bukatzeko, hizkuntzaren hautaketa, iraupena, ordezkapena eta hedapena landuko dira.

Hizkuntzen arteko ukipena ugarituz doa *mundializazio* edo *globalizazio* deitu den mugimenduatik. Garraio modernoek eta informazioaren eta komunikazioaren teknologia berriek produktuen, biztanlerien, ideien edota jakintzen mugimenduak errazten dituzte, eta hizkuntza-ukipena ere bai.

**Hizkuntza-ukipena:** munduko hizkuntza gehienak ez dira isolatuak, kontaktuan dira. Hizkuntza-ukipena, gizarte berean hizkuntza bat baino gehiago hitz egiten direnean, hizkuntza horien artean sortzen den erlazioa da. Hizkuntza-ukipena soziolinguistikaren ikergai nagusietatik bat da. Era orokorragoan, hizkuntza-ukipena hiru ikuspuntutaz azter daiteke: **norbanakoarena**, **hizkuntza-komunitatearena** eta **hizkuntza**arena berarena.

## 3.1. UKIPENAREN ONDORIO INDIBIDUALAK

Adierazi dugu herri elebakar gutxi direla munduan, nazio-hizkuntza bat bakarrik izanik ere, Frantzian bezala. Halaber, hiztun elebakar osoak gutxi dira, esan nahi baita hizkuntza bakarra jakin eta erabiltzen dutenak. Azken finean, hiztunek, denek, elebakarrak izanik ere, hizkuntza-barietate desberdin batzuk erabiltzen dituzte, formaltasun-mailaren, egoeraren edota solasgaiaren arabera (ikus 2. atala). Ildo horretatik esan genezake elebakarrak ez dela edo, bederen, hizkuntza-erregistro bakar bat duenik ez. Hemen elebitasunari buruz arituko gara.

Bi hizkuntza jakitea eta txandaka erabiltzea da **elebitasuna**, erabiltzaile horiek **elebidunak** dira. Soziolinguistikaren adar batek, hizkuntzaren soziologia deitutakoak, elebitasuna (edo eleaniztasuna) komunitateetan, taldeetan aztertzen du, hizkuntza bakoitzaren funtzio sozialak kontuan hartuz bereziki.

Psikolinguistika, bere aldetik, elebitasunari buruz interesatzen da jarduera psikologikoen argitan, banakako faktore psikologikoak kontuan hartuz bereziki. Pedagogiarekin batera, hizkuntza ikaste- eta jabetze-prozesuez ere kezkatzen da.

**Elebitasuna:** elebitasuna hiztun edo giza talde batek bi hizkuntza jakin eta erabiltzea da.

**Elebakartasuna:** elebakartasuna hiztun edo giza talde batek hizkuntza bakarra jakin eta erabiltzea da.

### 3.1.1. Banako elebitasuna

Elebitasun sozialetik bereizteko, autore batzuek elebitasuna (soziala) eta elebiduntasuna (norbakoarena) bereizi izan dute, baina eskuliburu honetan ez dugu bereizketa hori erabiliko.

Banako elebitasuna bi hizkuntzetan neur daiteke, ondorengo trebetasunak kontuan hartuz: **ulermena** eta **mintzamena**, **irakurmena** eta **idazmena**. Beraz, hizkuntza-gaitasunak ahozko hizkuntzan eta hizkuntza idatzian ebaluatzen dira; baita konpetentzia bikoitzak ere, esan nahi baita trebetasun horiek bi hizkuntza ezberdinetan neurtzen direla eta, batzuetan, alderatu. Europako Kontseiluak bultzatutako *Europako Erreferentzi Marko Bateratuan* trebetasun horietako bakoitzean eskura daitezkeen gaitasunak zerrendatu eta mailakatu dira, era ezberdinetako eskalen bidez, programa didaktikoak eta ebaluazio zein auto-ebaluazio sistemak egituratu ahal izateko (Europako Kontseilua, 2001).

Elebiduna izateak, hala ere, ez du esan nahi hiztunak hizkuntza bietan gaitasun berdina izan behar duenik. Hizkuntzen erabileraren errealitateak erakusten digu egiazko elebitasun orekatua utopikotzat hartzekoa dela, aparteko talentudun poliglota batzuen kasuan izan ezik.

Batzuek bigarren hizkuntza irakurtzeko bakarrik baliatzen dute (bibliografia kontsultatzeko, adibidez), beste batzuek mintzatzeko (baina alfabetatu gabe). Beraz, elebitasun-gradua aldatu egiten da aipatu ditugun lau gaitasun horien arabera. Oro har, hizkuntza baten *menderapen* oso nozioak adiera handirik ez du.

Halere, elebiduna **hiztun osoa** izan daiteke bi hizkuntzatan, esan nahi baita hizkuntzaren erabilera-eremu osoak gutxi gorabehera mendera ditzakeela, gizarte-funtzio guztiak betetzeko gai izanez, hizkuntza-kontzientzia biziarekin. Baina hiztun oso esapideak ez du esan nahi elebidunak bi hizkuntzetan gaitasun berdin-berdinak dituenik.

## Elebitasun-motak

Elebitasuna, beraz, jabeakuntzaren zein erabileraren arabera sailka daiteke, hiztun ezberdinak bereiziz. Hiztun bakoitzak bere hizkuntza-perfila egin dezake, hizkuntza bakoitzean duen ibilbidea eta gaitasun-mailak adieraziz. Horretarako, oso tresna baliagarria da Hizkuntza Portfolioa.

Ikus ditzagun elebitasuna sailkatzeko zenbait irizpide:

**Ikaste-ordenaren arabera**koa. Sailkapen hori bi hizkuntzak ikasteko hurrenkeraren arabera egiten da. **Ama-hizkuntza**, etxean gurasoengandik ikasitako lehen hizkuntza jakinez aitarren hizkuntza ere izan daitekeela, eta **lehen hizkuntza (H1)**, haurtzaroan lehenbizi ikasitako hizkuntza, ez dira arras sinonimoak. Ondorioz hobe da azken esamolde hori erabiltzea. Bi hizkuntza batera ikas daitezke haurtzaroan bakoitza gurasoetako batengandik. Orduan haurrak bi lehen hizkuntza dituela esan dezakegu. Euskaldun zaharrak dira euskara ama-hizkuntza edo lehen hizkuntza bezala ikasi dutenak. **Bigarren hizkuntza (H2)** lehen hizkuntzaren ondoren ikasten den hizkuntza da, eskolan, autoikaskuntzaz, edo zuzeneko esperientziaren bidez jasotakoa. Euskaldun berrientzat euskara da bigarren hizkuntza.

Beste alderdi garrantzitsu bat H2-ren eskurapena gertatzen den adina da. Honen arabera, **elebidun goiztiarra** deituko zaio H2 umetan eskuratu duen pertsonari eta **elebidun berantiarra** nagusitan egin duenari. Ezberdintasun honek berebiziko garrantzia hartzen du hiztunak izango dituen garapen neuropsikologiko, kognitibo eta soziokulturaletan. Maitena Etxebarriak dioenaren arabera, hiru izan ohi dira elebitasuna eskuratzeko garaiak: haurtzaroa (haurtzaro-elebitasuna), nerabezaroa (nerabezaro-elebitasuna) eta helduaroa (helduaro-elebitasuna) (Etxebarria, 1995).

**Gaitasunaren arabera**koa. Elebitasun **asimetriko** edo **desorekatua** dugu, hiztunak bi hizkuntzen ezagutza-maila berbera ez duenean, eta aurkakoa, **elebitasun simetriko** edo **orekatua**, teorikoa beraz, hiztunak bi hizkuntzen ezagutza-maila berbera duenean.

**Elebitasun kenkagarria** edo **kentzailea** da, bigarren hizkuntza ikastean, hiztunak lehendik zekien hizkuntzaren galera dakarren elebitasuna; kontrakoa, **elebitasun gehigarria** edo **gehitzailea**, bigarren hizkuntza ikastean, hiztunak lehendik zekien hizkuntzaren galerarik ez dakarren elebitasuna.

Antolaketa kognitiboa kontuan hartuta, adituek beste bi elebitasun-mota bereizten dituzte. Elebitasun **konposatuaren** kasuan, elebidunak errepresentazio kognitibo bakarra du baina bi

hizkuntza-kode; elebitasun **koordinatuaren** kasuan elebidunak bi errepresentazio kognitibo ditu eta bi hizkuntza-kode.

Hiztunak duen kultura-identitateak ere garrantzi handia hartzen du elebitasuna sailkatzean. Hiztun elebiduna **kulturbiduna** ala **kulturbakarra** izan daiteke. Izan ere, bigarren hizkuntza bat ikasten duen hiztunak eskuratzen duen hizkuntza berriaren ezaugarri kulturalak beregana ditzake, taldeko partaideekin elkarreraginean. Horrelakoetan jatorrizko hiztunek taldeko partaidetzat hartzeko aukera gehiago izango ditu eta, beraz, **kulturbiduna** izango da, bere jatorrizko testuinguruan zein berrian integratua egongo baita. Alderantziz, hizkuntza bera ezagutza, hizkuntza inolako integrazio-ahaleginik egin gabe bereganatzen duen hiztunak ez ditu kultura-arauak ulertuko eta arrotz sentituko da berea ez den kulturaren. Kulturbakarra izango da. Halere, badira kultura bien jabe diren gizaki elebakarrak ere, hizkuntza bera erabiltzeko moduan ez ezagutuagatik ere kulturaren ezaugarri gehienak ezagutzen dituztenak. Gauzak horrela, honako bereizketa egin dezakegu: **elebidun kulturbiduna, elebidun kulturbakarra, elebakar kulturbiduna** eta **elebakar kulturbakarra**.

**Elebitasun funtzionala.** Ikaskuntzaren ereduaren eta gaitasunaren arabera, José Maria Sánchez Carrión “Txepetx” euskal soziolinguistak hiztunen sailkapen bat aurkeztu zuen (Sánchez Carrión, 1987). 5. atalean landua, Txepetxen sailkapenean hizkuntza bat baino ez da hartzen kontuan, euskara, hain zuzen ere. Lehen ikaskuntza edo naturala haurtzaroan, etxean, familian egiten da; bigarren ikaskuntza edo ikaskuntza kulturala eskolan edo autoikaskuntzaz egiten da.

Horren arabera, A hiztunek hizkuntza familian, haurtzaroan ikasi dute eta naturaltasuna daukate. B hiztunak hizkuntza ikasten ari diren helduak eta gazteak dira, naturaltasunik lortu ez dutenak. AB hiztunak jatorrizko hiztun kulturizatuak dira, esan nahi baita hizkuntza familian, haurtzaroan bereganatu, eta eskolan ikasi eta landu egin dutela. BA hiztunek, berriz, hizkuntza bigarren hizkuntza gisa ikasi dute, ez familian, eta gero naturaltasuna berenganatu dute.

Sailkapen hori elebidunei aplikatuta, bi hizkuntzen ikaskuntza-eredua kontuan hartuz, elebidunen ondorengo tipologia proposatu zuen Txepetxek, elebakardunekin hasiz: *elebakardunak*, *erdi-elebidunak* (“*semibilingües*”), *sasi-elebidunak* (“*pseudobilingües*”), *elebidunak*, *bizielebidunak* (Sánchez Carrión, 1987: 158). Orotara sei elebidun-mota sailkatu zituen, lehen eta bigarren hizkuntzaren ikaskuntza bereiziz (*ibid.*: 162), ikaskuntza *natural* edo *kultural* irizpidearen arabera. *Bizielebidunak*, adibidez, AB-BA elebidunak dira bi hizkuntzak, familian, haurtzaroan, eta eskolan ikasi dituztelako edo naturaltasuna berenganatu dutelako, bi hizkuntzetan A hiztun izateko.

### 3.1.2. Banako eleaniztasuna

**Eleaniztasuna:** eleaniztasuna hiztun edo giza talde batek hiru hizkuntza edo gehiago jakin eta erabiltzea da.

Pertsona batek hiru hizkuntza edo gehiago ezagutzen eta erabiltzen dituenean **eleaniztuna** dela esaten da. Elebitasuna bezala, eleaniztasuna mota askotakoa izan daiteke.

Eleaniztasunaren kudeaketa eta garapena hezkuntza-politikaren eta hizkuntza-politikaren adarretatik bat da (ikus 5. atala). Helburu horiekin, Europako Kontseiluko *Europako Erreferentzi Marko Bateratuak* kultura-aniztasunaren eta eleaniztasunaren balioa azpimarratzen du:

*Europako kultura eta hizkuntzen ondarea balio handiko baliabidea da, babestu eta garatu beharrekoa, eta ezinbestekoa da hezkuntzan ahaleginak egitea aberastasun hori, orain arte bezala komunikaziorako oztopo izan ordez, elkar aberasteko eta ulertzeko tresna izan dadin (Europako Kontseilua, 2001: 15). Ikuspegi eleanitzak hau esan nahi du, ordea: gizabanakoak hizkuntza baten kultura-ingurunean duen hizkuntza-esperientzia zabaldu ahala, hasi familia-hizkuntzatik eta gizarte-hizkuntzaraino, oro har, eta beste herri batzuetako hizkuntzetaraino gero (izan eskolan edo unibertsitatean ikasiak, edo zuzenean esperientziaren bidez ikasiak), hizkuntza horiek eta kultura horiek ez ditu adimeneko gune berezietan gordetzen; aldiz, komunikazio-gaitasun bat garatzen du, hizkuntza-arloko ezagutza (ibid.: 16).*

Euskal Herrian ere eleaniztasuna gero eta gehiago bultzatu da hezkuntzan. Euskal Herriko Ikastolen Konfederazioak, adibidez, honakoa dio bere azken *Ikastolen Hizkuntza Proiektuan*:

*Konpetentzietan oinarritutako hezkuntzaren ikuspegi berriaren ondorioz, hizkuntzek inoiz baino garrantzi handiagoa dute eskolan, hizkuntza baita, azken batean, giza garapenerako tresna nagusia, eremu guztietan eta gure egiteko guztietan dugun bitartekoa (Euskal Herriko Ikastolen Konfederazioa, 2009: 31). Globalizazioaren ondorioz gero eta errazagoa da pertsonen mugikortasuna, eta gero eta handiagoa, beraz, kultura-aniztasuna kudeatzeko beharra (ibid.: 35).*

Soziolinguistek **hizkuntza-errepertorio** nozioa baliatzen dute norbanakoak dauzkan hizkuntzen eta hizkuntza-barietateen multzoa izendatzeko. Banakako elebitasunaren kasuan bezala, oro har eleaniztasuna ez da orekatua. Hizkuntza bakoitzean ahalmen desberdinak izanik, gaitasun konplexu eta desorekatua bezala ikusten dute, eta hizkuntza-errepertorio moten arabera-ko sailkapen asko badira.

### 3.1.3. Hizkuntzaz jabetzea, hizkuntza galtzea

Gaitasun elebiduna edo eleaniztuna etengabeko bilakaera prozesu batean kokatzen da. Hiztun elebidun baten bizi-ibilbideak barietate handiak eragiten ditu bere errepertorioan sartzen diren hizkuntza eta hizkuntza-barietate desberdinen ezagutzan eta, ondorioz, erabileran. Hitzunek beren lehen hizkuntza gal dezakete denborarekin, erabiltzeko aukerarik ez baldin badute.

Elebakarren kasuan ere, erabiltzen duten hizkuntza bakar horren ezagutza aldatu egiten da bizitzan zehar. Erabilera-eremuak eta uneak ere aldatzen dira gizartearen bizimodu-aldaketekin batera.

Soziolinguistek hitzunen tipologia asko proposatu dituzte. Arestian Txepetxek elebidunei buruzkoa ikusi dugu. Hizkuntza-komunitate jakin batean hizkuntzen jabetze-mailaren arabera-ko sailkapen bat honakoa izan daiteke.

### 3. HIZKUNTZA-UKIPENA

Bi muturrak dauzkagu: batean hizkuntza-jabetza (hiztun osoak), bestean ez-jabetza (ikasi ez dutenak) eta desjabetzea (hizkuntza galdu dutenak). Hitztun osoekin, hots, hizkuntza horrekin gizarte-funtzio guztiak betetzeko gai diren hiztunekin, hiztun ez osoak ditugu, *erdi-hiztunak* (ingelesez *semi-speakers*, gaztelaniaz *semilocutores*, frantsesez *semilocuteurs*).

Azken horiek sailkatzeko **gaitasun-maila** balia dezakegu: *hiztun inperfektuak*, ez osoak izanik ere, erabilera-egoera guztietan mintzatzeko gai direnak; *hiztun inperfektu ahulak*, hizkuntza-gaitasun murriztuagoa dutenak (*weak semi-speakers* ingelesez); eta hitz edo esamolde batzuez baino oroitzen ez direnak (ingelesez *rememberers*). Horrelako gaitasun-mailako eskala zehaztu daiteke.

Azken mailak, *oroitzen direnenak*, adierazten du hiztun horiek hizkuntza hori hobeki menperatzen zutela lehen. Beraz, ez zaie aplikatzen hiztun berriei, hizkuntza ikasten dutenei. Hizkuntza-komunitate jakin batean galtzen ari den hizkuntza gutxituaren kasuan erabilia da, edo beren jatorrizko hizkuntza galtzen ari diren etorkinen kasuan, adibidez.

Beraz, **hizkuntza-galera** nozioa giza talde batean nahiz hiztun batentzat erabil daiteke. Hitztun baten hizkuntza jakin baten ezagutzak atzera egin dezake denboran zehar. Baina, hiztuna hizkuntzarik gabe egoten ez denez, beste hizkuntza batek ordezkatzen du galtzen den hizkuntza hori.

Hizkuntza galtzen denean, aipatu dugun hiztunaren errepresentazio kognitiboa hizkuntza ordezkatzailean gauzatzen da eta ez galtzen den hizkuntzan. Hurrengo lerroaldean, galera- mekanismo hori euskara lehen hizkuntza izan duten pertsonekin irudikatuko dugu.

Hiztunengan hizkuntza-galera gertatzen denean, fenomenoak gizartera heda daiteke, eta horrek elebitasunera eramaten gaitu. Hizkuntza bat galtzeak beste batez jabetzea inplikatzeko du ordezkapen- mekanismoaren bidez, nahitaez. 3.4.2. lerroaldean hizkuntza-ordezkapena gizarte-ikus-puntutik azalduko da, hizkuntza batek beste hizkuntza baten erabilera-eremuak eta uneak irabazten dituenean gertatzen dena argitzeko. Baina nabari da hizkuntza-ordezkapena eta -galera fenomenoak hiztunengan gauzatzen direla.

#### 3.1.4. Euskaldunak, elebitasuna eta ondorio indibidualak

Azaldu ditugun nozio horiek guztiak euskararekin eta Euskal Herriko herritarrekin adieraz daitezke. Euskaldunek, denek, bakoitzak bere eraz, badakite intuitiboki zein diren hizkuntza-ukipenaren ondorioak, denak baitira, gutxienik, elebidunak.

#### **Euskaldun-motak: zaharrak, berriak, hartzaileak**

Euskara eta erdarak kontuan hartuz euskaldun-motak finka daitezke. Euskal soziolinguistikan euskaldun berri, euskaldun zahar eta euskaldun hartzaile nozioak oso erabiliak dira.

Arestian esan dugu euskaldun berrientzat euskara bigarren hizkuntza dela. Lehen hizkuntza erdara izanik, **euskaldun berriak** euskaraz ondo ulertzen eta hitz egiten du. Euskaldun berri gehienak errazago moldatzen dira erdaraz euskaraz baino.

**Euskaldun zaharrentzat**, aldiz, euskara lehen hizkuntza da eta euskaraz ondo ulertzen eta hitz egiten du.

**Elebidun hartzailea** da, euskaraz hitz egiteko gai ez dena, baina ondo ulertzeko eta irakurtzeko gai dena. Hau da, trebetasun hartzaileak ahozko ulermena eta irakurmena garatuta dauka, baina trebetasun sortzaileak (mintzarena eta idazmena) ez.

Hartzaileak hizkuntza irakurtzeko baino ez badu behar (bibliografia kontsultatzeko, adibidez) ez du hitz egingo. Hitzun-mota hau ez litzateke traba izan behar komunikazioa euskaraz egin dadin; adibidez, batzar batean, berak erdaraz jardun arren besteek euskaraz jardutea ahalbidetzen du. Euskaldun hartzailearen aurkakoa euskaldun sortzailea da, hau da, ahoz nahiz idatziz jarduteko gaitasuna dutenak.

## Euskaldun aktiboak eta pasiboak

Sailkapen hori gehiago zehaztu daiteke lehengo hizkuntza(k) eta oraingoa(k) irizpidetzat hartuz. Hona bi adibide. **Euskaldun zahar pasiboa** da, lehen hizkuntza euskara izanik, euskaraz ondo ulertzen eta hitz egiten duen arren, etxeko nahiz bizitzako beste arloetarako gaztelania edo frantsesa erabiltzen duen euskalduna. Aldiz, **euskaldun berri aktiboa** da, lehen hizkuntza erdara izanik, euskaraz ondo ulertzen eta hitz egiten duen eta esparru askotarako hizkuntza euskara duen euskalduna. Dena dela, euskaldun aktiboen kasuan gerta daiteke ezin hitz egin izatea, aukerarik ez izateagatik.

## Euskaldun elebakarrak, elebidunak, erdaldunak

Iduri luke euskaldun elebakarrik gehiago ez dela gaur egun. Euskal Herriko hiru lurraldeetan (EAE, Nafarroa eta Ipar Euskal Herria) egin zen 1991ko lehen inkesta soziolinguistikoak euskaraz baino ez zekiten hiztun multzoa aipatzen zuen: biztanleen % 1, hau da, 23.500 lagun, gutxi gorabehera. Halere, % 76 erdaraz “zertxobait” hitz egiteko gai ziren. 1996ko bigarren inkesta soziolinguistikoaren arabera euskaldun elebakarrak erdira jaitsi ziren: biztanleen % 0,5, gutxi gorabehera 12.400 lagun. Baina, geroztik, 2001eko eta 2006ko inkestek ez dute euskaldun elebakarrik aipatzen. Gehiagorik ez delako, ala, segur aski, gutxi direlako. Oso bestelakoa zen egoera XX. mendearen hasieran: 2003an Santa Graziko (Zuberoa) emakume batek bere 100 urteak ospatu zituen. Kontatzen zuen arratsalde bat bakarrik iragan zuela eskolan eta frantsesa ez zekiela.

Erdaldun elebakarrak elebidunak baino gehiago direla jakinda, esan daiteke euskara gutxiengoaren hizkuntza dela (ikus 3.4.2.), elebidun-kopurua emendatu izanik ere 1991tik 2006ra. Euskal Autonomia Erkidegoan eta Nafarroan gazteen artean dago elebidunen ehunekorik handiena; Ipar Euskal Herrian, aldiz, adinekoen artean. Baina emendatzen den **elebitasun** hori **asimetrikoa** da, erdarak hizkuntza nagusiak direlako gizartean, oro har, eta euskaldunen ehuneko handian ere bai. 2006an, IV. Inkesta Soziolinguistikoaren arabera, elebidunen banaketa honako hau da: erdal elebidunak, erdaraz euskaraz baino hobeto moldatzen direnak, % 38,9 ziren; elebidun orekatuak, % 30,3, bereziki gazteen artean; eta euskal elebidunak, % 30,7 (Eusko Jaurlaritzak, 2008).

## Eleaniztasuna Euskal Herrian

Historian zehar euskaldun batzuk elebidunak edo eleaniztunak izan dira, era desberdinetan. Zuberoan adibidez, zubereraz gain, biarnera edo frantsesa gutxi-asko ezagunak eta erabiliak ziren. Gaztelania ere batzuen hizkuntza-errepertorioan izan zatekeen. Fenomeno hori norbakoarena zen. Laborari zenbaitek, adibidez, tratulari biarnesekin negozioan zirenez, dialekto gaskoi hori menperatzen zuten, beraien abereak saltzeko, bederen.

Gaur egun Euskal Herriko Ikastolen Konfederazioaren proiektuak eleaniztasunaren hautua egiten du:

*Ikastolak Hezkuntzaren eta Hizkuntza Proiektuaren ardatza euskara duela, pertsona **euskaldun eleaniztunak** hezi nahi ditu, beste hizkuntzen beharrezko ezagutza eta erabilera erdiestea bideratuz. Hots, bertako hizkuntza propioaz eta ukipen-hizkuntzez gain (gaztelania eta frantsesa), nazioarteko harremanetan nagusi den hizkuntza-maila onean erabiltzea lortu nahi du...* (Euskal Herriko Ikastolen Konfederazioa, 2009: 41, hizki lodiak jatorrizko testuan dira).

Beraz, ikastoletan, euskara, gaztelania edo frantsesa, eta ingelesa (*nazioarteko harremanetan nagusi den hizkuntza gisa*) ikasiko dituzte haurrek.

## Euskararen galtzea inkesta soziolinguistikoan arabera

Arestian esan dugu hizkuntza-galera, hizkuntza-fenomeno guztiak bezala, maila indibidualean edo komunitate-mailan azter daitekeela. Komunitate-mailan, 2006ko *IV. Inkesta Soziolinguistikoaren* arabera, lehen hizkuntza euskara izan duten arren, orain euskara guztiz edo partez galdu dutenak biztanleriaren % 3 inguru dira (Eusko Jaurlaritza, 2008).

Iparraldean fenomeno hori indartsuagoa da: lehen hizkuntza euskara edo euskara eta frantsesa izan dutenen artean, 16.000 pertsonak euskara galdu dute guztiz edo partez (% 24,9), esan nahi baita biztanleria osoaren % 6,95. Euskal Autonomia Erkidegoan 59.973 lagunek euskara guztiz edo partez galdu dute, biztanleria osoaren % 3,24; Nafarroan 11.700 dira, % 2,29.

Halere, eta, oro har, galerak irabaziak baino txikiagoak izan dira.

16 urte edo gehiagoko biztanleriaren bilakaera

Herrialdea	1991		2006	
	Guztira	Elebidunak	Guztira	Elebidunak
EAE	1.741.500	419.200	1.850.500	557.600
Nafarroa	420.700	40.200	508.900	56.400
Iparraldea	208.900	69.100	230.200	51.800
<b>Euskal Herria</b>	<b>2.371.100</b>	<b>528.500</b>	<b>2.589.600</b>	<b>665.800</b>

**4. taula:** 16 urte edo gehiagoko biztanleriaren eta elebidunen bilakaera. Euskal Herria 1991-2006.

Iturria: *IV. Inkesta Soziolinguistikoa* (Eusko Jaurlaritza, 2006).



## Arrazoi indibidualak: objektiboak eta subjektiboak

Euskararen ezagutzak atzera egiteak norbanakoaren baitan arrazoi ongi ezagunak dauzka, eta euskara galdu duten hiztunak ez dira kasu bereziak hizkuntza gutxituen hiztunen artean.

Haur-denboran, euskarak etxean eta auzo-giroan zeukan indarra, ez zuen beste gizarte-eremuetan. Elizaren eragina, euskararen goi-mailako gotorleku zena, gero eta ahulago bilakatu zen. Lanean eta herriko kiroletan zuen lekua galduz joan zen. Lan-munduan ofizio izateko erdara beharrezkoa zen, euskara batere ez. Erdara zen gizartean gora egiteko gakoa. Administrazioan, hezkuntzan eta abarretan erdara hizkuntza bakarra zen. Irakaskuntzak rol garrantzitsua izan zuen euskararen galtze- prozesuan: jakintzaren hizkuntza erdara zen, baita eskolako hizkuntza bakarra ere.

Biztanleria baserritik hiri erdaldunetara joan zen. Mugikortasunagatik edo sakabanatzeagatik hiztun batzuk isolatuagoak ziren eta euskaraz mintzatzeko beharrik ez zuten.

Ezkontza mistoek ere beren eragina izan zuten: bikotekideetako batek euskara ez zekienean besteak maizenik ez zuen euskara transmititzen. Hego Euskal Herrian euskaraz mintzatzea publikoki debekatu izan zen frankismoaren garaian eta euskaraz hitz egiten zuenarentzat zigor gogorak zeuden, gaztelaniaz azkarrago ikas zezaten. Ipar Euskal Herrian ere Bigarren Mundu Gerra arte, eskolan euskaraz mintzaten zen haurra zigortua zen. Horri buruzko adibide ugari eta argiak aurki daitezke J.M. Torrealdaireren *El libro Negro del Euskera* liburuan (1998).

Denborarekin, eta bereziki XX. mendeko lehen zatian, ordura arte euskararen eta erdararen arteko indarrean zen oreka partziala desegin da.

Euskara galtzeko **arrazoi indibidualak objektiboak** zein **subjektiboak** izan ziren. Euskarak ez zuen balio praktikorik, baina ezta subjektiborik ere. Prestigioa erdararen alde zen, modernitateak erdararen alde. Euskara garai batean baztertu, gaitzetsi egin zen eta, ondorioz, hizkuntza-leialtasuna ahul bilakatu zen. Euskaldun izatea ez zen ezaugarri kultural eta sozial positiboa; euskara hizkuntza zaharkitua eta lehengo garaikotzat hartzen zen. Gutxiagotasun konplexua handituz zihoan euskaldunarengan. Arrazoi horiengatik denegatik hizkuntza-atxikimendua ahulduz joan zen (hizkuntza-jarrez eta irudikapenez ikus 4. atala).

Kasu batzuetan **hizkuntza-alienazioa** heltzen zen, esan nahi baita euskaldunaren sentimendua euskararen aurka bihurtzen zela. Jatorri linguistikoa ahaztuz edo ukatuz, jatorrizko euskaldun askok euskara baztertzen zuen, eta bere bizitzako esparru euskaldunetan erabiltzeari uzten zion.

Noski hiztun bakoitzaren euskararekiko ibilbidea berezia da; hemen galtze prozesuaren ezaugarri batzuk baino ez dira azaldu. Arrazoi horiek desagertu ote dira gaur egun?

## 3.2. UKIPENAREN ONDORIO LINGUISTIKOAK

### 3.2.1. Hizkuntza–alternantzia: interferentziak

Hiztun batek edo giza talde batek bi hizkuntza ezagutzen eta erabiltzen dituzenean, hizkuntza horietan eraginak izan daitezke. Bi hizkuntzek elkarri, edo bietatik bata besteari, eragiten diote. Eragin horiek izendatzeko, termino generikoa **interferentzia** da.

Halere, interferentzia terminoa esanahi estuan ere erabilia da, hau da, hiztunak diskurtso-egoeran bere hizkuntzaz kanpoko elementuak sartzen dituzenean, hizkuntzari mailegatzeko dionean edo hizkuntza hori kopiatzen duenean. Hizkuntza bera, sistema, kode edo egitura abstraktu gisa ez da ukitua. Orduan bat-bateko hautua da, ez hizkuntza-komunitatearena.

Elebidunaren kasuan, bi hizkuntza alternantzia-mota bereizi behar dira. Alde batetik, egoera desberdinen arabera gertatzen den hizkuntza-alternantzia, hau da, **alternantzia situazionala** deitzen dena.

Bestetik, **kode-aldaketa** (gaztelaniaz *alternancia de códigos*, frantsesez *alternance codique*, ingelesez *code-switching*). Esakune edo berbaldi berean hizkuntza bat baino gehiago txandakatuz hitz egitea da; adibidez, esaldi bat euskaraz hasi eta erdaraz amaitzea (kode-alternantzia), ala esaldi berean euskara eta erdara nahastea (kode-nahasketa).

### 3.2.2. Interferentzia–motak

Weinrichek interferentzia terminoa honela definitu zuen: *Interferentziak, hizkuntzaren sail egituratuaren kanpoko elementu sartzearen ondorioz, eredu berregituratzea berekin ekartzen du, sistema fonetiko osoan adibidez, morfologiaren eta sintaxiaren zati handian, eta hiztegiaren eremu batzuetan* (1953: 1). Beraz, **interferentzia fonetikoak**, interferentzia **sintaktikoak** eta interferentzia **lexikalak** ager daitezke.

Hona, adibidez gisa, **interferentzia fonetiko**-mota bat. Honetan elebidunak ez dio elementu fonetiko bat mailegatzeko sorburu-hizkuntzari, baina hizkuntza horren eraginagatik xede-hizkuntzak egiten duen bereizketa fonologiko bat ez du gauzatzen (*under-differentiation of phonemes*, Weinrich, 1953: 18). Euskarari hiru kontsonante txistukari frikatibo ahoskabe ditugu, z, s, x idazten direnak. Erdararen eraginagatik gazteek eta euskaldun berriek gehienetan, baina ez denek, s erretroflexa x bezala ahoskatzen dute, s hori erdararen ez delako. Zeharkako interferentzia daukagu hor. Fenomeno hori orokor bihurtzen baldin bada, orduan sistema fonologikoa aldatu dela esan daiteke.

Interferentzia gramatikala ez da oso alderdi landua. Hitzen ordena eta morfologia-mailako kalakoak izaten dira ohikoenak, hala nola, nor-nori-nork erabiltzea nor-nork aditzetan: adibidez, *Ikusi dizut esan Ikusi zaituten ordez*.

Hona, berriz, **interferentzia lexikal**-mota bat, zubererazko esaldi batean:

*Gük, laborariek, “impôts” paketa pakatzen dizügü.*

“Guk, laborariek, zerga asko ordaintzen dugu” (+-zü- zukako alokutiboa).

Hiztunak frantses *impôt* hitza sartu du, bat-batean heldu zaiolako. Ez dakigu *legar* edo *zerga* euskal izenak ezagutzen zituen, frantses hitzaz errazago oroitzen zen beharbada. *Laborari*, *paketa* eta *pakatu* aldiz ez dira interferentziak, baina bai hizkuntza erromanikoei mailegatu hitzak, zubereran sartuak dira aspaldidanik.

Interferentzia horiek sartzeko modu ezberdinak daude. Bi era nagusi bereiz ditzakegu **kode-aldaketan**: kode-nahasketa eta kode-alternantzia.

## Kode-nahasketa

Kode-nahasketa da esakune berean hizkuntza bat baino gehiago erabiliz hitz egitea; adibidez, esakune bat euskaraz hasi eta erdaraz amaitzea.

Hona esaldi bat euskaraz hasten dena eta frantsesez amaitzen dena:

*Bai, segur, on paie trop d’impôts.*

“Bai, ziur, zerga gehiegi ordaintzen dugu”.

## Kode-alternantzia

Kode-alternantzia da esaldi batetik bestera hizkuntza aldatzea. Normalki bi hizkuntza-kodeen ezaugarriak babestuak dira egoera horretan. Kode-nahasketa egoeran, aldiz, bi hizkuntza-kodeak nahasten eta hurbiltzen dira era batez.

Kode-alternantzia fenomeno hori ongi ezaguna da Euskal Herrian: solasaldi batean euskaraz agurtzea eta ondotik erdaraz aritzea. Adibidez: *Egun on? Comment vas-tu? Demain, tu es là?* “Egun on? Nola zara (zoaz)? Bihar, hor zaude?”, edo alderantziz erdaraz aritzea eta bukaeran *agur* edo *adio* esatea.

Interferentziak, kode-nahasketa eta kode-aldaketa, hiztun elebidun baten hizkeran agertzen dira, hizkuntza bat erabiltzen duenean. Hizkuntza, gizartearen komunikatzeko tresna den aldetik, ez da ukitua. Fenomeno horiek indibidualak dira.

Weinrichekin ohartu gara interferentzia kontaktuan diren bi hizkuntzetan izan daitekeela. Baina, praktikan, interferentzia gehienetan norabide berean gertatzen dira, hizkuntza batetik bestera, gehiengotik gutxiengora, hain zuzen ere. Gehienetan, interferentziak linguistikoak ez diren faktorengatik gertatzen dira, hala nola elebidunaren hiztun-ezaugarriak, ukipenean diren bi hizkuntzen banaketa funtzionala, etab. Euskararen kasuan erdaretatik euskararako transferentziak dira ohikoena.

### 3.2.3. Maileguak eta kalkoak

Maileguak eta kalkoak bereiztea garrantzitsua da: alde batetik, *interferentzia* eta, bestetik, *inkorporazioa*. Interferentzia mailegu puntuala da, norbanakoarena; mailegua, aldiz, talde-fenomenoa, sistematikoa. Kronologian interferentzia aurretik gertatzen da, bigarren etapan mailegua bilaka daitekeena.

Ondorioz, ez da beti erraza interferentzia-kasuak eta mailegatze-kasuak bereiztea. Integrazioa kode linguistikoan, hizkuntzan hain zuzen, erlatiboa da.

Era orokorrean, **maileguak** ez dira erabaki ofizialen ondorioak, baina bai lehenik hiztun baten, eta ondotik batzuen aukerak. Beraz, maileguak interferentzia integratuak dira, hizkuntza-komunitate osoak emeki-emeki onartzen dituenak.

Halere, mailegatze-prozesua eta, era orokorragoan, hizkuntza baten lexikoaren aldatzea ez dira beti horrela gauzatzen. Turkiako adibidea aipatzekoa da: turkierak zuen hiztegia aski sakonki aldatu izan zen 1920-1930. urteen artean. Aldaketa hori Mustafa Kemal errepublikako lehendakariaren nahia izan zen. Jatorri arabiarra zuten hitzak ordezkarako zituen; hitz turkiar zahar batzuk aurkituz, bizi ziren adiera dialektal batzuk erabiliz, hizkuntza-familia berekoak ere mailegatuz (azerbajjanerakoak adibidez), hizkuntzaren hitzen multzoa arras aldarazi zuen (Calvet, 1987: 190).

Hizkuntza-akademiak maileguak kontrolatzen saia daitezke. Euskararen kasuan, 1986an Euskaltzaindiak maileguzko hitz berriei buruzko arau batzuk eman zituen *Maileguzko hitz berriei buruz Euskaltzaindiaren erabakiak* liburuxkan (1986).

Maileguak, edozein eratan hautatuak ez direnez gero, indar-erlazioaren lekukoak dira. Hizkuntza bati eta ez beste bati, alor batean eta ez bestean mailegatzen zaio. Gaur egun ingelesak hizkuntza askori zientzietako, finantzetako, merkataritzako eta abarretako hitzak ekartzen dizkie; frantsesak bere aldetik sukaldaritzakoak, modakoak eta arteari loturikoak eman ditu.

Informatika-lexikoan asko dira ingelesetik euskaran sartuak diren hitz mailegatuak, baina baita **mailegu semantikoak** ere, esan nahi baita mailegatzen duen hizkuntzan hitz horrek berez ez duen esanahia, baina beste hizkuntzak baduena: *sagua* euskaraz, *mouse* ingelesetik, *sagu-kurtsore*, *mouse cursor*, etab. Maileguak sintomak dira, nazioarteko erlazio ekonomikoen, gizarte-erlazioen seinaleak.

Hizkuntzek beste aukera bat dute: **hitz berriak sortzea, neologismoak**, hizkuntza horien legeei jarraituz. Euskal Herrian Euskaltzaindiaren eta erakunde berezitu batzuen lana izan da, hala nola UZEI Terminologia eta Lexikografia Zentroarena, eta da oraino, behar berriak etengabe agertzen direlako.

Bere garaian, XIX. mendeko bukaeran, Sabino Arana Goirik euskarazko hitz berri asko asmatu zituen Bizkaian, hiztegia berritzeko asmoz, erdaratiko hitzez garbituz. Beste eskualdeetara hedatu ziren, bereziki, Gipuzkoara. Ipar Euskal Herrian ez zuen, hala ere, eragin handirik izan. Sabino Aranak sortu zituen neologismo asko politikaren eremukoak dira (*Euzkadi*, *alderdi*, *burukide*) edo hizkuntza, literatura eta kultura arlokoak (*idazki*, *antzoki*, *zenbaki*). Batzuek bizirik dira, baina gehienak galdu egin ziren denborarekin eta gaurko hiztunek ez dituzte erabiltzen.

**Kalkoak** dira hizkuntza batek beste bateko hitz, esamolde edota egitura sintaktikoak itzuliz sortzen dituen hitz, esamolde edota egitura sintaktikoak. Beraz, kalkoak morfologiaren eta sintaxiaren arloetan ere sor daitezke. Itzulpena ez da osoki librea, sorburu-hizkuntzari lotzen baitaio. Hitzez hitzeko itzulpenaz gutxi-asko egiten dira kalkoak.

Euskarazko *txartel elektronikoa*, adibidez, gaztelaniazko *billete electrónico*-ren kalkoa izan daiteke (*billet électronique* frantsesez). Gaztelaniazkoa bere aldetik ingelesezko *electronic ticket*-etik etor daiteke. Esamoldea ez da mailegatua izan, baina bai itzulia, euskaratua.

Hona hemen kalko-sintaxi adibide bat zuberotar hiztun baten hizkeran, baina kalko okerra.

1950eko hamarkadan Mauleko geltokian zuberotar batek geltokiko txartel-saltzaileari galdetu zion frantsesez *la [po] du train, s'il vous plaît?* "Paueko tren, plazer baduzu?".

Euskara frantsesa baino hobeto zekien hiztunak eta *Paueko tren* euskal egitura kalkatu zuen. *Le train de Pau* izanen zen itzulpen ona frantsesez. Frantses izen-sintagman izen determinatzailea izen determinatuaren ondoan kokatzen da; euskaraz alderantzia da, izenaren aurrean kokatzen da. Gainera, euskaran genero markarik ez da, baina frantsesez *train* "tren" maskulinoan eman behar da. Beraz *le* izan behar zen eta ez *la* esan zuen bezala. Gehiago ere bai: *la peau* [po] izenak "larrua" adiera du. Ondorioz, frantsesez egin zuen esaldiaren esanahia hori zen literalki: "treneko larrua, plazer baduzu?".

### 3.2.4. Pidginak eta kreolerak: komunikazio-hizkuntzaren bilaketa

Lehen hizkuntza desberdina duten bi hiztunek mintzatu nahi dutenean edo bataren hizkuntza baliatuko dute, edo bestearena. Baina elkar ulertzeko nahian bietatik batek bestearen hizkuntza ez baldin badu menperatzen, hirugarren hizkuntza bat erabil dezakete: **komunikazio-hizkuntza** (*lengua vehicular* gaztelaniaz, *langue véhiculaire* frantsesez); **lingua franca** ere batzuetan erabiltzen da.

Gauza bera da bi hizkuntza-komunitate desberdinen kasuan: komunikatzeko beste hizkuntza bat beharko da baliatu, komunikazio-hizkuntza bat. Horrela, hizkuntza baten komunikazio-tasa (*taux de vehicularité*) neur daiteke hizkuntza horren hiztun-kopuru osoaren eta ama-hizkuntza gisa dutenaren arteko erlazioa kalkulatzuz (Calvet, 1987: 89). Ingelesaren oraingo komunikazio-tasa, adibidez, biziki gora da.

Halere, hizkuntza-erkiderik ez baldin badute, beste hizkuntza bat asmatuko dute, hizkuntza misto eta murrizta, elementu eta osagai gutxiz osatua. Sortzen duten hizkuntzaren konplexutasuna bete behar dituzten komunikazio-funtzioen arabera izango da. Hizkuntza-mota berri hori **pidgina** edo **sabira** deitzen da. Printzipioz, pidgina ez da inolako hiztunen ama-hizkuntza, elkarrekin komunikatzeko tresna berria delako. Elkarrekiko hizkuntzarik ez duten norbanakoek edo komunitateek horrelako hizkuntza-tresna berriak sortzen eta erabiltzen dituzte.

### 3. HIZKUNTZA-UKIPENA

Pidginen agerpena hitzun eta hizkuntza desberdinen ukipenari zor zaio. Elkar ulertzen ez duten hitzunak batzen direnean, hizkuntza komunik ez dutelako sortzen dira. Baina komunikazio-tresna linguistiko berri hori esparru eta une jakinetara mugatzen da.

Hasieran helburu komertzialetarako soilik erabiltzen ziren pidgin zenbait hitzun batzuen ama-hizkuntza bihurtu dira. Beste kasu batzuetan Amerikara eraman ziren Afrikako edo Asiako esklaboek, nagusien mendebaldeko europar hizkuntzaren eta beren hizkuntzaren arteko fusioaz, hizkuntza berria sortu zuten, hizkuntza komun bat garatzeko premia zutelarik, beren haurren ama-hizkuntza bilakatu dena. Hizkuntza horiek **kreolerak** deitzen dira.

Oinarritzat hartutako europar hizkuntza horiek frantsesa, gaztelania, ingelesa, nederlandera eta portugesa izan dira, kolonizatzaileena. Hizkuntza horiek kreoleren **substratuak** dira.

Soziolinguistek hiru kreolera-barietate bereizten dituzte. Lehena, oinarri eman dion europar hizkuntzatik hurbilena dena, *akrolektoa*; bigarrena, europar hizkuntzatik urrun dena, *basilektoa*; hirugarrena, *mesolektoa*, akrolektoaren eta basilektoaren artean dagoen tarteko hizkuntza-barietatea da.

Kreoleren egituratzearekin hizkuntzek beren morfologia flexiboa galtzen dute, gutxi gorabehera. Kreoleren beste ezaugarri bat da azkar hazten direla, kontaktuan ez diren hizkuntzak baino azkarrago.

Halere, ikertzaileak ez dira ados kreoleren sorkuntza-prozesuari buruz. Batzuen ustez, kreolerak herri-hizkuntzak dira, hizkuntza menderatzailearen lexikoarekin (europar hizkuntzaren funtsezko hiztegia) eta Afrikako edo Asiako hizkuntzan oinarritua den sintaxiarekin. Baina azken alde hau ez da zinez frogatua izan. Ohartu behar da esklaboak, jatorriz, hizkuntza asko eta desberdinetakoak zirela. Afrikako hizkuntza horiek kreoleren **superstratuak** lirateke.

Bigarren hipotesiak dio *hurbilketaren hurbilketaren* bidez sortu direla. Esklaboak, lehen etapan, europar hizkuntzaz partzialki jabetu dira; gero esklabo-kopurua emendatzen zelarik, esklabo berriak lehen esklaboen bidez jabetu ziren hizkuntzaz eta horrela kreolera sortu, hurbilketaz hurbilketa.

Dena den, kreoleren sorkuntza hizkuntza-ukipen bereziaren emaitza da, prozesua zernahi den. Lehen determinatzailea hitzunen historia soziolinguistikoa da eta ez hizkuntzaren egitura. Lehen hizkuntza desberdinetako hitzunak izan behar dira, ukipeneko eleaniztasun-egoera berri batean daudenak, beraz. Kreolizazioak jatorrizko ez diren hitzun gehiengo handia behar du (John Holm, 2004: 24).

Kreoleren sorkuntza, batetik, hizkuntza-ukipen egoera berezien ondorioa da, eta, bestetik, hizkuntzaren aldaera-mota berezia da. Kreolerak hizkuntza gazteak dira, horregatik garrantzitsuak dira hizkuntzen sorkuntza ulertzeko.

### 3.2.5. Galzorian dauden hizkuntzak eta ondorio linguistikoak

Ondorengo azpiatalean **hizkuntzen heriotza** aztertuko da. Ohar daiteke galzoriko hizkuntzen forma ere ukitua dela. Hizkuntzaren forman bertan desagertzen diren sintomak irakur daitezke. Sintomak linguistikoak, fonologikoak, morfologikoak, gramatikalak, lexikalak edota semantikoak izan daitezke.

Sistema fonologikoa beste hizkuntza batekoan nahas eta urtu daiteke. Fonemen fluktuazio asko izan daitezke, esan nahi baita hizkuntza horren esanahiak bereizteko balio bereizgarria duten soinuak ez daudela guztiz finkatuta, nahasi egiten direla. Sistema fonologikoa, fonemen sistema, beraz, murriztu egiten da fonemak edo fonema aurkakotasunak galduz.

Morfologia sinplifikatu egiten da. Hitzen formen konplexutasuna murrizten da eta kategoria gramatikal batzuen ere bai. Galzorian ez dauden hizkuntzetan ere sinplifikazio-prozesua indarrean izan daiteke, baina hizkuntza-sistemaren beste zati zenbaitetan sinplifikazioak konpentsatuak dira aberastasun edo konplexifikazioen bidez.

Sintaxia aukerakoa bilakatzen da, esan nahi baita erlazio sintaktiko batzuk ez direla markatzen, testuinguruak edota komunikazio-egoerak sintaxiaren ahaltsuna ordezkatzen dutelarik. Lexikoaren aberastasuna murriztu egiten da eta, polisemiarengatik, hitzek esanahi bat baino gehiago eduki dezakete.

Hitzak mailegatzeak, halere, ez du hizkuntza automatikoki arriskuan jartzen. Ingelesaren hiztegi erdia kasik frantses jatorrizkoa da; halere, ingelesa ez dago galzorian, alderantziz egon ere. Baina desagertzeko den hizkuntza baten kasuan, mailegatze masiboak ez du hizkuntzaren lexikoa aberastean, integrazio morfologikorik gabeko ordezkapena baizik ez da gertatzen. Hizkuntzaren hitzekin gertatzen den bezala, hitzak sortzeko ereduak ere galdu egiten dira. Esanaldiak beste hizkuntza batekoak itzuliz sortzen direnean, hizkuntza absortzio-arriskuan dago.

Estilo aberastasuna ere gal daiteke. Normalizatu gabeko hizkuntzetako hitzunek, sarritan hizkuntza-erregistro bakar bat erabiltzen dute, hizkuntza-barietate bakar bat. Komunikazio-egoera jakin batean hitzunik ez daki erregistro egokia hautatzen, solaskideen, lekuaren, unearen araberakoa. Hizkuntza-barietate desberdinen arteko hauturik ez dauka, bat bakarrik menperatzen duelako.

Asko dira, beraz, galtzeko zorian dagoen hizkuntza baten ezaugarri linguistikoak. Zenbat eta sintoma horietako gehiago izan hitzun baten hizkeran, orduan eta mehatxatuago egongo da hizkuntza, hitzun horren kasuan bederen. Fenomeno indibidual horiengatik hizkuntza-komunitate baten hizkuntza gero eta pobreako bihurtu daiteke, desagertu arte.

### 3.2.6. Euskara ukipenean eta ondorio linguistikoak: beste adibide batzuk

Aurreko lerroaldeetan jadanik euskararen interferentzia, mailegu eta kalkoen adibide eman da. Hona beste agibide batzuk.

#### Euskara eta hizkuntza-ukipena historian zehar

Euskararen historia, hizkuntza gehienena bezala, hizkuntza-ukipen historia da. Badakigu euskara hizkuntza zaharra dela. Halere, euskararen historia Historiaurrean eta Antzinatean ez da ongi ezaguna. Garai hartako beste hizkuntzak desagerturik dira, eta beste batzuk bilakatzeko eraldatu edo ordezkatuak izan dira (ikus 3.3.5.).

Ondorioz, orduko hizkuntza-ukipenaren eragina ez da batere sakonki aztertu izan. Iberiera, hizkuntza ez-indoeuroparra, aipatzen da euskararen hitz batzuen antzekotasuna azpimarratuz. Iberieraz honako hitzok aurki zitezkeen: *abar* “adar”, *bios* “bihotz”, *biskar* “bizkar”, etab. (Etxegoien “Xamar”, 2006: 20). Ez dago argi, hala ere, hitz komunak ziren ala ez, eta zergatik; nork besteari mailegatu dizkion; beste hizkuntza bati zor zaizkion...

Bestalde, zelteraren eragina ere aipatzen da, hori hizkuntza indoeuroparra, Iberiar penintsulan zeltak eta iberiarrek bat egin zutelako. Dirudenez, *gezi*, *landa*, *maite*, *mando* zelterari mailegatuak dira (Etxegoien “Xamar”, 2006: 30).

Ukipenaren historiaren segida ezagunagoa da, latinaren eragina hain zuzen. Gaur egun gaztelaniaren, frantsesaren eta ingelesaren eraginak dira indartsuenak.

#### Zubererak Biarnoko gaskoiari hartutako hitzez

Gaskoia Gaskonian mintzatzen den okzitanieraren dialektoa da, hizkuntza erromanikoetako bat, Erdi Aroko lehen erdian agertu zena. Zubererak Biarnoko gaskoiari 1.600 hitz inguru maileguan hartu dizkio, bi hizkuntza horiek luzaz kontaktuan izan dira eta. Orain harreman linguistiko horiek agortuak dira, hartzun gutxi baitira biarneraz aritzen direnak.

Gaskoiak zubererari hitz asko eman dizkio sentimenduen, kalifikatzaileen (erdeinuzkoak ala ez), ekintza-izen eta aditzen, eguneroko tresna eta tekniken eremuan. Aitzitik, ekarpena ahula da familiaren, erlijioaren, denboraren edo espazioaren eremuetan, adibidez.

Horrek erakusten du erlazio ekonomikoak emankorrek zirela eta Biarnoa era batez garatuago zela, baina baita biarnesa hizkuntza literarioa zela ere. Familia-giroan, aldiz, euskara bakarra zen eta erlijiozko funtzioa ere bazeukan. 3.3.2. lerroaldean hizkuntza-funtzio sozialak aurkezteko dira.

Hona, besteak beste, hiru mailegatze-era desberdin. Zubererak biarnesetik hitz edo elementu bat hartzen du beste hitz bat sortzeko.



1. Eratorpena, atzizkia mailegatuz: *ematxot* “emakume txiki” (*emazte* “emakume” euskal izena + *-õt* atzizki txikigarri gaskoia), *mintzaje* “mintzaira, hizkuntza” (*mintzatü* euskal aditza + *-atge* atzizki gaskoia).
2. Eratorpena, hitza mailegatuz: *faizuzü* “modutsu” (*faizu* “molde, modu” hitz gaskoia + *-zü* oparotasun euskal atzizkia), *pintukari* “ardozaile” (*pintu* “pinta, txopin” hitz gaskoia + *-kari* euskal atzizkia).
3. Hitz-elkarketa, bi hizkuntzen hitzak baliatuz: *eskümantxo* “eskularru” (*eskü* “esku” euskal izena + *mantxo* “zorro” biarnes izena), *moskofi* “mokofin” (*mosko* “moko” euskal izena + *fi* “fin” adjektibo gaskoia).

## Euskañola

Hizkuntza bat ikasteen edo ongi jakiten ez denean, hutsune bat izaten da. Zerbait adierazi nahi eta modu egokia ez aurkitzean, lehen hizkuntzaren hitza edo esapidea erabiltzeko joera izaten da. Kasu horretan kode-nahasketa orokortua duen hizkera-mota ager daiteke. Euskara eta gaztelania nahasten dituen *euskañola* deitu izan da.

Euskañola bera edo antzekoak beti izan dira Euskal Herrian, euskara eta gaztelania, euskara eta okzitaniera edo frantsesa harremanetan bizi izan direlako. XVIII. mendeko apaizen sermoiak, adibidez, anitz euskañolez idatziak ziren (Joxean Agirre, 2008). Adierazkortasun bila erdarara jotzea mendekotasunaren sintoma da, erdaraz euskaraz baino hobeto egiten denaren seinalea. Baina seinale positiboa ere bai, euskarara hurbiltzeko urratsa den neurrian; izan ere, horren alternatiba erdaraz mintzatzea izan ohi da.

Norbanakoaren komunikazio-estrategia da, hiztunak euskaraz mintzatu nahi duenean erabilia.

Iparraldean euskañolak ez du esamolde baliokiderik, frantsesa eta euskara lotuko lituzkeenik. Horrek ez du esan nahi batzuek frantsesa eta euskara nahasten ez dituztenik euskaraz mintzatu nahi dutenean.

Frantsesaren eta okzitanieraren kasuan izen bat asmatu izan da, *francitan* (*français* + *occitan*); *franglais* (*français* + *anglais*), frantsesa eta ingelesa nahasten dituen, etab. Beraz, fenomeno hori biziki hedatua da munduan zehar. Hego Amerikako eta Ertamerikako jatorriko hiztunek AEBetan egiten duten ingelesari *spaninglish*-a esaten zaio. Norbanakoaren hizkeran gertatzen den bi hizkuntzaren nahasketa bereziak dira. Hiztunek hizkuntza batean jabetze-maila altuagoa dutenez, beste hizkuntza erabiltzean lehenengoaren agerpen-txertatze puntual eta errepikatuak egitean datza fenomeno hau.

## Euskal pidginak

Euskaldunak, arrazoi ezberdinak tarteko, bidaiariak izan dira historian zehar. Horren ondorioz, herri askorekin harremanak izan eta komunikatzeko modua bilatu behar izan zuten. Badirudi euskaldunek Kanadako tribu algonkinoekin kontaktua izan zutela, Montagnis-Innu eta Mikmak herriekin hain zuzen ere. Bestetik, Bakkerrek (Bakker eta beste, 1991) uste du San Lorentzo

### 3. HIZKUNTZA-UKIPENA

irlako Irokes, Inuit eta Abanki herriek ere izan zutela nolabaiteko pidginik.

XVII. mende hasieran balea-harrapaketak euskaldun asko bultzatu zituen Islandia eta Kanada aldera. Bertako biztanleekin eta bertara euren moduan joandako beste arrantzale batzuekin komunikatzeko, eusko-islandiar pidgina sortu zuten.

Nicolaas Deen holandarrak (1937, in Bakker eta beste, 1991) Islandian izan zen pidginaren inguruko ikerketa egin zuen. Gainera, pidgin horren inguruko hiztegi bat ere agertu da. Gipuzkoako Foru Aldundiak (1991) honen lana Peter Bakker eta beste aditu batzuenekin batera argitaratu zuen *Basque Pidgins in Iceland and Canada* liburuan.

1625. urteko beste kronika batek dioenez, arrantzale euskaldunek indiarrei *Nola zaude?* galdezen zietenean, indioek *Apezac obeto* erantzuten omen zuten.

Dena dela, euskarazko pidginen testigantzen artean, esaldirik luzeena honakoa da: *Christ Maria presenta for mi balia, for mi, presenta for ju bustana*. Esanahi zehatza hauxe da: “Kristo eta Mariak balea ematen didatenean emango dizut buztana”.

Lexikoari dagokionez, hona hemen adibide batzuk:

Pidgina	Euskara
elege	errege
endia	gauza asko
kea	kea
kezona	gizona
makia	makila
echpada	ezpata
origna	oreina

**5. taula:** euskarazko pidginaren adibide batzuk.

## Komunikazio-hizkuntza baten bila bi euskalkidunen artean

Teorian, **komunikazio-hizkuntza** da ama-hizkuntza bera ez duten partaideen artean erabiltzen den hizkuntza. Halere, hemen bestelako adibidea dugu. Lerro hauen idazlearen aita espartin-merkataria zen eta, behin, Azpeitian (Gipuzkoa) euskaraz hasi da mintzatzen, bere ama-euskalkiaz, zubereraz. Saltaileak, zuberotarraren hitzak ez ulertuz baina euskara zela konprenituz, bere ama-gipuzkeran erantzun dio. Ezin ulertuz, zuberotarrak segitu zuen ongi menperatzen ez zuen gaztelanian eta orduan elkar ulertzen hasi ziren. Elkarrizketa horretan, bi solaskideek, ama-hizkuntza bera izanik ere, komunikatzeko beste hizkuntza bat hautatu behar izan zuten.

Batzuetan hizkuntza beraren aldaeren arteko aldea hain handia da, hiztunek beste hizkuntza bat erabiltzea bila dezakete, normalean hedadura eta prestigio handiagoa duen hizkuntza edo, bederen, batera duten hizkuntza.

### 3.3. UKIPENAREN ONDORIO SOZIALAK

**Elebitasun** nozioa bi hizkuntza erabiltzeko gaitasuna duen norbanakoari aplikatzen zaiola esan dugu (3.1.1.). Batzuek izendapen hori komunitateari ere aplikatu diote, **elebitasun soziala**. Kasu horietan bi hizkuntza edo gehiago ukipenean daude komunitate edo gizarte berean. Hizkuntza-ukipen hori desberdina izaten da une eta toki bakoitzean.

Halere, **elebitasun sozialaren** edo **gizarte-elebitasunaren** ordez, **diglosia** da hedatu den terminoa. Fishman soziolinguista estatubatuarrak landu du bereziki kontzeptu hori. Elebitasuna, banako egitatea denez, esan nahi baita norbanakoaren gaitasuna, psikolinguistikari utzi zion, eta diglosia, hizkuntza bat baino gehiagoren erabilera gizarte batean, gizarte-egitatea izanik, soziolinguistikari (Fishman, 1972: 91).

Harentzat gizarte-faktore eta parametroak indibidualak baino interesgarriagoak ziren. Fishmanentzat norbanakoa, edozein, errore aldakorra besterik ez da gizarte-ikerketaren perspektiban (García eta beste, 2006: 17).

Diglosia, gertakari soziala bada, gizarte osoaren edo bederen gehiengoaren fenomeno da, edo hizkuntza-gutxiengo batena, edo gizarte-klase batena.

#### 3.3.1. Diglosia

Weinrichentzat elebitasuna fenomeno indibiduala zen bereziki. Jarraian Charles A. Ferguson elebitasun sozialari buruz interesatu zen, **diglosia** kontzeptua teorizatuz (Ferguson, 1959). Esan behar da Fergusonek baino lehen Jean Psichari (1854-1929) frantses helenistak diglosia (*diglossie*) terminoa, grekoz *di-* “bi aldiz” + *glóssa* “hizkuntza”, erabili zuela bi greko-mota hauek sailkatzeko: alde batetik, *katharevousa*, garbizaleek sustengatzen zuten hizkuntza jaso idatzia, eta, bestetik, *demotikoa*, eboluzioaren ondorengo gaur egungo forma arrunta (Henri Boyer, 2001: 48).

#### Fergusonen diglosia

Charles A. Fergusonen diglosia kontzeptuak arrakasta handia lortu du. Frantses *diglossie* hitza hartuz ingeles *diglossia sortu* zuen. Kontzeptua eraikitzeke lau kasu aztertu zituen, bakoitzean hizkuntza beraren bi barietate sailkatuz: Suitza alemanean, aleman estandarra eta tokiko aleman suitzarra; Egipton, arabiera klasikoa eta dialektala; Haitin, frantsesa eta kreolera haitiarra; eta Grezian greko garbitua eta demotikoa.

Ferguson diglosiaz mintzatzen zen hizkuntza beraren bi barietateen kasuan, eta horien arteko erabileren sailkatze funtzionala bereizi. Bata *goi-barietatea* (*high variety*) elizan, literaturan, mintzaldietan, unibertitatean... erabilia dena, eta bestea *behe-barietatea* (*low variety*) eguneroko solasaldietan, literatura herrikoian... erabilia da. Goi-barietateak behe-barietateak ez duen prestigio soziala du, mirespen handiko literatura sortzen du, estandarizatua da (gramatikak, hiz-

tegiak...), eskolan irakatsia da, etab. Behe-barietateak, aldiz, ez dauzka horiek oro; prestigiorik gabekoa da. Helduek hurrekin erabiltzen dute eta hurrek beraien artean. Behe-barietatea familiako transmisioaz ikasten dena da. Fergusonen hitzetan goi-barietatea *gainjarria* (*superposed*) dago, ikasia delako normalki eta era formalagoan.

Bederatzi dira Fergusonen goi (H) eta behe (L) aldaeren artean antzeman zituen ezberdintasunak:

1. **Funtzioak.** Aldaera bakoitza gizarte-funtzio batzuetan erabiltzen da, beraz, egoera sozial ezberdinetan.
2. **Prestigioa.** H-k L-k baino prestigio handiagoa izan ohi du.
3. **Literatur tradizioa.** H-k tradizio hori garatua izan ohi du; L-k, ordea, ez.
4. **Eskuratzeko bidea.** H barietatea hezkuntza sisteman ikasia izan ohi da; L, aldiz, berez haurtzaroan eskuratua.
5. **Estandarizazioa.** H aldaeran oinarrituta egiten da. Dena dela, L-k ere izan dezake nolabaiteko forma estandarra.
6. **Ezgonkortasuna.** Diglosiak aldatzeko joera izaten du.
7. **Gramatika.** Sistema gramatikal ezberdinak izan ditzakete. L-rena ez da hain konplexua izaten.
8. **Lexikoa.** Lexikoaren zati handia berdina bada ere, batzuetan forma ezberdinak erabiliko dituzte gauza berak adierazteko. H-k hiztegi garatuagoa izango du.
9. **Fonologia.** Lexikoarekin gertatzen den bezala, sistema fonologikoa oro har berdina izanik ere, badira ezberdintasunak ere (batzuetan bilatuak).

Diglosia horri **barne-diglosia** edo endodiglosia deitu izan zaio, hizkuntza bereko bi barietateen artean gertatzen delako.

Halere, Fergusonen modelo horren ezaugarrietatik bat gaitzetsi izan zen bereziki: diglosia ez zela egoera egonkorra, ez denboran, ez funtzioen banaketan, hark esaten zuen bezala.

3.3.3. Ierroaldean, **hizkuntza-gatazka** nozioa aztertuko dugu. Soziolinguista batzuek hizkuntza beraren barietateen edo ukipenean diren bi hizkuntzen egoera desorekatua dela azpimarratu dute.

Fergusonen diglosia egoeran, barietateen esparruak konpartimentatuak eta egonkorak dira, bi barietateen funtzioak ongi banatuak. Aitzitik, hizkuntzen edo hizkuntza-barietateen bizikidetzak dinamikoa da. *Barbaroen* hizkuntza gaitzetsia, adibidez, botere betearazlea indarrez hartu ondoren, prestigioduna bilaka daiteke *goi-barietate* berria izatera heldu arte.

## Fishmanen diglosia

Urte batzuk berantago Joshua A. Fishmanek Fergusonen kontzeptua bereganatu zuen diglosia nozioaren eremua hedatuz *Bilingualism with and without diglossia: Diglossia with and without bilin-*

*gualism* artikuluan (1972: 91-106). Alde batetik, elebitasuna, portaera indibiduala psikolinguistikari lotua dena, eta bestetik, diglosia, gizarte-fenomenoa dena, bereizi ditu. Diglosia bi hizkuntza edo hizkuntza-barietate baino gehiagorekin gerta daitekeela adierazi zuen.

Fishmanen ustez, diglosiarik gabe, esan nahi baita hizkuntza-funtzioen banaketarik gabe, orekatutako elebitasun sozial egonkorra ezinezkoa da (*stable balanced bilingualism*). Izan ere, norbanako elebidun orekatuak sortzen dituen gizarteak bi hizkuntzetatik bat bazter utziko du, funtzio-multzo batentzat eta berarentzat bi hizkuntza behar ez dituelako. Mackeyk ere esaten zuen komunitate elebidun independenteak ez duela elebiduna izateko arrazoirik (Mackey, 1976: 372).

Fishmanek honako sailkapena proposatu du elebitasun eta diglosia nozioen arteko erlazioak argitzeko (Fishman, 1972: 91-106):

ELEBITASUNA	DIGLOSIA
1. + Elebitasuna + Diglosia	2. + Elebitasuna – Diglosia
3. + Diglosia – Elebitasuna	4. – Diglosia – Elebitasuna

**6. taula:** elebitasun eta diglosia nozioen arteko erlazioak (Fishman, 1972).

- **Elebitasuna eta diglosia.** Hizkuntza-egoera honetan hizkuntza-komunitateko lagunak, kasik denak, elebidun izan behar dira. Fishmanek Fergusonen adibidea errepikatzen du, aleman estandarra eta tokiko alemana Suitza alemanean. Herri kasuak bakan direla azpimarratzen du, adibidetzat Paraguai jarriz, gaztelania eta guaraniarekin.
- **Elebitasuna diglosiarik gabe.** Estatu Batuetako immigranteen kasua da, ingelesa ikasten dutelarik beren jatorrizko hizkuntza gordez belaunaldi batez edo gehiagoz. Immigrazio elebitasunak egoera-espektrora biziki desberdina erakusten du, norbanakoarengandik talde immigratzaile osora heda daitekeelako. Elebitasuna diglosiarik gabe egoera aski iragankorra da Fishmanen ustez, funtzio nagusiak betetzen dituen hizkuntzak bestea ordezkatu dezakeelako, immigrazioaren kasuan harrera-herriko hizkuntzak, hain zuzen (1972: 105).
- **Diglosia elebitasunik gabe.** Garatu gabeko herrietan aurki daiteke egoera hori, non nekazaritza-eremuko biztanleria elebakarra den eta kolonizazio-hizkuntza ofiziala.
- **Elebitasunik eta diglosiarik ez.** Kasu hori aski teorikoa da; komunitate txiki eta isolatuena litzateke. Amazonian, adibidez, ezagun da holakorik badela oraino.

Orotara sailkapen hori aski artifizial eta determinista da, baina, halere, egoeren dibertsitatea hobeki ulertzen laguntzen du.

## Diglosia kontzeptuaren kritika

Era orokorragoan, Fergusonenarekin gertatu zen bezala, Fishmanen diglosia nozioa ere kritikatu izan da. Kreolerekin lan egiten zuten ikertzaileek eta soziolinguista katalanek bereziki agertu dute desadostasuna. Diglosia-egoerek sortzen zituzten gatazkak txikiesten zituela estimatzen zuten.

Bestalde, diglosia dinamikoa da eta behe-bariedade batzuen patua goi-bariedade bilakatzea da. Hori argi da hizkuntza erromantzeekin latinaren parean (gaztelania, frantsesa, italiara...); latina behe-bariedade bilakatu ez bada ere, betetzen zituen funtzio askotatik baztertua izan da.

Beste soziolinguista batzuek azpimarratu dute diglosiaren definizio horiek mekanizistak, deterministak zirela, batzuetan solaskideen askatasun banda handiagoa zela hizkuntza hautatzeko unean.

Oro har, halere, elebitasunaren eta diglosiaren arteko bereizketa baliagarria da soziolinguistikan

### Elebitasuna vs. diglosia

**Elebitasuna** banako nolakotasuna da; bi hizkuntza jakitea eta txandaka erabiltzea da.

Elebitasun-mota asko badaude: hizkuntza-jabetzearen arabera (lehen hizkuntza, bigarren hizkuntza), hizkuntzen jabetze-ereduaren arabera (familian, eskolan, autoikaskuntzaren, zuzeneko esperientziaren bidez), hizkuntza-gaitasunen arabera (etab).

**Diglosia** edo elebitasun soziala gizarte-egoera da. Hizkuntza-komunitate batean bi hizkuntza edo bi hizkuntza-bariedade desberdinen erabiltzea da. Hizkuntza edo bariedade horiek esparru eta funtzio desberdinetarako erabiltzen dira; bata funtzio formaletarako (administrazioa, hezkuntza, ikus-entzunezko hedabideak...) eta bestea informal eta pribatuetarako (familia, lagunartea).

Maizenik egoera diglosikoa desorekatua da funtzio horien banaketa bidezkoa ez delako. Gainera egoera diglosikoa dinamikoa da, hizkuntza batek, menderatzaileak, hain zuzen, bestearen funtzio eta erabilera-eremu berri batzuk bereganatzen dituelako denboran zehar.

Txepetxek, diglosia kontzeptua onartuz, hiru diglosia-maila proposatu ditu (1987: 346-347):

1. *Erdi-diglosia*, Fergusonen arabiera klasikoa eta herri-arabiera adibideari lotzen dena.
2. *Diglosia partziala* edo *funtzionala*, Belgikan edo Danimarka eta Alemania artean gertatzen dena, non hizkuntza batek funtzio guztiak ez baditu ere, mugako beste aldean denak dituen.
3. *Diglosia totala* edo *lurraldekoa* da, Euskal Herrikoa, adibidez, non euskarak funtzio guztiak ez dituen baina erdarak bai, euskararen lurraldean eta kanpoan ere bai.

Azken hau diglosia glotofagikoa (*diglosia glotofágica*) deitu du, bere prozesuaren bukaera herri-

hizkuntzaren desagertzea delako. Hizkuntza menderatzaileak egindako presioaren eraginez, hizkuntza menderatua desagertzeraino iristen da.

## Hizkuntza–ukipenaz Euskal Herrian bi hitz. Euskara eta diglosia: euskalkiak, euskara batua eta erdara

Euskararen kasuan, Euskal Herriko lurralde, gune batzuetan Fergusonen arabera *diglosia* adibidea daukagula esan daiteke. Hori gerta daiteke bi euskara desberdinen arteko elkarbizitzan bata goi-barietate bezala erabilia bada eta bestea behe-barietate bezala. **Euskara batua** eta **euskalki** baten kasua izan daiteke, euskara batu hori ikasi ez duten euskaldun zahar batzuentzat. Euskara batua da euskararen barietate estandarra, euskalkietako hainbat elementu bateratuz Euskaltzaindiak proposatu eta arautua duena XX. mendean zehar. Euskalkiak, berriz, euskararen dialektoak dira (ikus 2. atala).

Baina egoera hori aski teorikoa da euskaldun guztiak gaztelania edota frantsesa **erdarak** ongi dakizkitelako. Euskal Herriko lurralde osoan egoera ez da berdina, eta badakigu lurralde zenbaitetan euskaldun zahar horiek euskara batua ulertzeko arazoak dituztela. Hori gerta daiteke aitona-amonan, guraso eta haurren arteko harremanetan, haurrek eskolan euskara batua ikasten dutenean.

Zuberoan, adibide gisa, egoera diglosikoa Fishmanen adieran da eta ez Fergusonenean, zuberearen eta frantsesaren artekoa, biarnesa, aski galdua delako. Euskara batua sartzen baldin bada ere, bereziki lexikoa emendatuz, ezin da esan egiazko goi-barietatea denik. Frantsesa da funtzio hori betetzen duena.

Euskal Herrian euskarak funtzio guztiak inon betetzen ez baititu *erabateko diglosia* dagoela esan daiteke (gaztelaniaz *diglosia total*, frantsesez *diglossie totale*). Lurralde osoan egoera diglosikoa da, berdin-berdina ez izanik ere Euskadin, Nafarroan edo Ipar Euskal Herrian.

Ildo berean, *noranzko bakarreko elebitasuna dagoela* esaten dute (gaztelaniaz *ilingüismo unidireccional*, *unilateral*, frantsesez *ilingüisme unidirectionnel*, *unilatéral*), euskaldunak erdara ikastera behartuak izan direlako eta erdaldunak euskara ikastera, aldiz, ez. Aldiz, garai batean Euskal Herriko gune batzuetan bizitzeko, euskara ikastea beharrezkoa zen.

Euskara, gaztelania eta frantsesa **ukipen-hizkuntzak** dira. Baina euskara **gutxiengoaren hizkuntza** bilakatu da denborarekin; gaztelania edo frantsesa, aldiz, kanpotik etorri izanik ere, **gehiengoaren hizkuntzak** bilakatu dira, funtzio eta esparru formalez gain, funtzio eta esparru informalak bereganatuz euskaldunek euskara galtzen zuten neurrian.

### 3.3.2. Hizkuntza–funtzio sozialak

Hizkuntzak gizarte jakin batean errealitatea eraikitzeko, komunikatzeko edo balio sinbolikoa bideratzeko funtzio-multzoa dauka. Hizkuntza-funtzio sozial horiek, hizkuntza bera bezala, hizkuntza-komunitateen arabera aldatzen dira.

## Funtzioen zerrenda

Funtzioez hitz egitean, atal honetan ez zaie *funtzionalistek* egindako banaketari begiratuko, hau da, komunikazio-egoera bakoitzean hitzunaren helburu komunikatiboei begira egiten den banaketari (ikus adibidez Roman Jakobson, *Closing statements: Linguistics and Poetics*, 1960). Gizartean hizkuntzak dituen funtzio horiek bere estatusarekin ikustea izango da helburua, esan nahi baita gizarte jakin batean, egitura sozial jakin batean, hizkuntza horrek duen lekua, posizioa (hizkuntzaren estatusari buruz ikus 3.4.2 lerroaldean eta 5. atalean).

Fergusonek zazpi funtzio bereizten zituen: *nazioartekoa*, *ofiziala*, *komunikazio-hizkuntza* (ingelesez *vehicular*), *taldekoa* (*gregarioa*), *eskolatze-hizkuntza*, *eskola-ikasgaia*, *erlijiozkoa*; baina hiru hizkuntza-kategoria ere bereizten zituen: *nagusiak*, *txikiak* eta *aparteko estatusekoak*. Eta bost hizkuntza-mota: *bernakularrak*, *estandarrek*, *klasikoak*, *pidginak*, *kreolerak*.

William Stewart-ek (1968) Fergusonenei hiru funtzio emendatu zizkien 1968an: *hiriburukoa*, *probintziala* eta *literarioa* (*capital*, *provincial*, *literary*).

1984an Ralph Fasold-ek, aurrekoen lana baliatuz, zazpi funtzio definitu zituen atributu soziolinguistiko-sorta baten bidez: *ofiziala*, *nazionala*, *taldekoa*, *komunikaziokoa*, *nazioartekoa*, *eskolakoa* eta *erlijiozkoa* (*The sociolinguistics of society*).

Txepetxek ere zazpi funtzio horiek proposatu zituen hizkuntzen ezaugarriak definituz (Sánchez Carrión, 1987: 75): *nazioarteko hizkuntza*, *zibilizazio-hizkuntza* edo *kultura-hizkuntza*, *hizkuntza nazionala*, *tokiko hizkuntza*, *lan-hizkuntza*, *familia-hizkuntza*, *nortasun-hizkuntza* (*identidad o lengua de pensamiento*). Azken biak jabetze naturalaren mendean daude (*adquisición natural*); lehen biak, aldiz, bigarren ikaskuntzaren mendean (*aprendizaje secundario*).

Robert Cooper-ek aurkeztu zuen sailkapenean Stewarten *ofizial* kalifikatzailea hiru motatan bereizi zuen: *hizkuntza ofiziala*, *lanekoa* eta *sinbolikoa* (*statutory*, *working* eta *symbolic*) (1989: 99). Gainera beste bi funtzio gehitu ditu, *mass media* eta *lan-funtzioak* (*mass media*, *work functions*) (*ibid.*: 118).

Funtzio bata bestea estal dezake edo osa dezake, irizpide definitzaileak ez direlako berdin-berdinak adituen arabera.

## Funtzioen adibideak: euskara eta beste hizkuntzak

### ► **Nazioartekoa**

Herri askotako eliteek, kargudunek, erabiliak dira nazioarteko maila eskuratzen duten hizkuntzak. Hizkuntzaren hedapenaren faktoreak aztertuz ikusiko da zergatik hizkuntza bat nazioarteko hizkuntza bilakatzen den (3.4.3.). Europan latina eta ingelesa dira ezagunenak. K.a. III. mendean latina baserritar tribu txiki bateko hizkuntza zen, Erroma inguruko Latium eskualdekoa, etruskoen menpean zegoena. Orduan nazioarteko hizkuntza persiera bazen ere, hizkuntza xume hura Erromatar Inperio zabaleko hizkuntza bilakatu zen.



Halere, konkista militarrek ez du beti konkistatzaileen hizkuntza inposatzen. Erdi Aroan Eskandinaviatik jaitsi ziren normandiarrek Frantziako erreinu zati bat bereganatu zuten, eta frantsesa ere bai. Ondoren, hizkuntza hori inposatu zuten Ingalaterran, eta beraien jatorrizkoa galdu zuten.

Nazioarteko funtzioarekin batera, produkzio kulturalak, informazioa, ideiak, ohiturak, etab. leku askotara iristen dira. Horrek ere nazioarteko hizkuntza horren hedadura eta eragina indartzen ditu.

### ► **Ofiziala**

Ofizialtasunak herritarrei izendapen hori eskuratu duen hizkuntza erabiltzeko hainbat eskubide aitortzen die; baina estatus hori oso ezberdina da herri bakoitzean.

Euskal Autonomia Erkidegoko 1982ko Euskararen Erabilpena Arauzkotezko Oinarrizko Legeak dio: *Euskal Herriko Autonomia Elkartearen hizkuntza-ofizialak euskara eta gaztelania dira*. Nafarroako Foru Komunitatearen 1982ko Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Legeak dio: *1. Gaztelera da Nafarroako hizkuntza ofiziala. 2. Euskarak ere hizkuntza ofizial-maila izango du Nafarroako eskualde euskaldunetan*. Bi erkidegoetan euskara hizkuntza ofiziala da, baina era ezberdinean (ikus 5. atala).

Herri batzuetan, elebitasun ofiziala indarrean da ez bi hizkuntzen erabilera bultzatzeko, baina bai elebakartasun indibiduala eta hizkuntza-komunitateen nortasuna zaintzeko. Belgikan, adibidez, hiztunek, oro har, ez dituzte herriko beste hizkuntza ofizialak ikasten. Hiru hizkuntzak, frantsesa, nederlandera eta alemanera, estatuko lurralde-eremuaren zati batean baino ez dira ofizialak. Beste hizkuntza batzuk, ordea, lurralde osoan dira ofizialak, hala nola, ingelesa eta gaelikoa Irlandan edo luxenburgera, frantsesa eta alemanera Luxenburgon.

### ► **Nazionala**

Ofiziala eta nazionala ez dira kalifikatzaile sinonimoak. Estatus ofizialak herritarrei eskubideak aitortzen dizkie; nazional izendapenak, berriz, lurralde jakin batean bizi diren pertsonen berezko nortasunaren ezaugarri dela aitortzen dio hizkuntzari.

Deskolonizazioaren ondorioz, Afrikako, Hego Amerikako eta Asiako herri gazteek hizkuntza-plangintza honako arazo kezagarria dute: zein nazio-hizkuntza hautatu? Zein hizkuntza administrazioarako edota irakaskuntzarako? Kolonizatzaile ohiena (ingelesa, gaztelania, frantsesa...)? Tokiko hizkuntzetako bat? Baina, zein? Erabiliena?

Oro har, estatu kolonizatzailearena hartu izan dute, baina ez beti. Indonesian, adibidez, hizkuntza ofiziala eta nazionala indonesiera da, hizkuntza austronesikoa den malaysiararen aldaera. Kolonizatzaileen nederlandera kasik desagertua da orain.

### ► **Hiriburukoa**

Stewarten sailkapenean funtzio horrek (*capital*) ez du ofizialtasunarekin ikustekorik. Hizkuntza hori hizkuntza nagusia da nazio-hiriburuan, komunikazio-hizkuntza. Zentro politiko eta ekonomikotik hiri-aldirira hedatzen da.

### ► **Probintziala**

Stewarten sailkapenean hizkuntza probintzial bat ofiziala da lurralde jakin batean, euskara bezala Euskal Autonomia Erkidegoan.

### ► **Tokikoa**

Tokiko izatea da sailkapen honetako maila geografiko apalena. Tokiko hizkuntza eta **berezko hizkuntza** esapideak ez dira sinonimo. Azken hori lurralde batek historikoki berezkoa duen hizkuntza da. Euskara Euskal Herriko berezko hizkuntza da, inguruan dituen hizkuntza indoeuropararrak geroago heldu direlako lurralde honetara, eta probintziala, Euskal Autonomia Erkidegoan bederen. Iparraldean, aldiz, berezkoa da, baina tokikoa baizik ez da.

### ► **Zibilizazio-hizkuntza**

Munduko zibilizazio-mota batean nagusi den hizkuntza. K.a IV. mendean finkatu zen hizkuntza greko batua (*koine*), heleniar zibilizazioari lotua da; ingelesa, berriz, gaur egungo mendebaldeko zibilizazioari lotu zaio.

### ► **Kultura-hizkuntza**

Kultura-adierazpenak sortzeko eta zabaltzeko gai den hizkuntzen funtzioa da. Kalifikatzaile hori konnotatua izan daiteke. Goi-mailako kulturak eta behe-mailakoak lireratekeela ulertaraziko luke hizkuntza-funtzio horrek.

Hizkuntza bakoitzak kontzeptu, irudikapen, balio multzo bat dauka errealitatea ulertzeko. Hots, hizkuntza bat kultura bati lotua zaio. Norbanakoaren kontzeptu-kategoriak kulturari lotuak zaizkio eta denbora eta espazioarekin aldatzen dira. Balio-judizio bat da.

Gaur egungo munduan, kulturalki autosufiziente izatea garrantzitsua da hizkuntza-komunitate-entzat, hitzunak autoestimua izateko, bere hizkuntzaz pertzepzio positiboa izan dezan eremu kulturaletan (prentsa, irratitelebista, liburuak, zinema, zerbitzu kulturalak...).

### ► **Literarioa**

Munduan zehar zenbait hizkuntza idazketarik gabekoak dira oraino, ez daukate ortografiarik. Besteak literatura sortzeko gai dira. Sarritan, funtzio horrek literaturan erabiltzeko moduko erregistro landua duen hizkuntza dela adierazten du. Beraz, apreziazio-gradua daukagu *literatura-hizkuntza* esapide horretan ere, *zibilizazio-* eta *kultura-hizkuntza* izendapenetan bezala.

Euskarazko literaturak heldutasun-maila eskuratu du eta euskara hizkuntza literarioa bilakatu dela esan dezakegu. Baina bere prestigioa munduko literaturan ez da latinak, grekoak, gaztelaniak, frantsesak, ingelesak edo errusierak eskuratu dutena.

### ► **Komunikazio-hizkuntza**

3.2.4. Ierroaldean ikusi dugu hizkuntza desberdinak zituzten gizabanakoek eta hitzun-taldeek elkar ulertzeko komunikazio-hizkuntza batzuk sortu dituztela, pidginak, hain zuzen. Baina nazio-arteak izan gabe, xede horrekin sortuak izan gabe, hizkuntza batzuk hauta daitezke elkar ulertzeko. Hizkuntza horiek *komunikazio-hizkuntzak* bilakatzen dira (*lengua vehicular* gaztelaniaz,

*langue véhiculaire* frantsesez, *lingua franca* ingelesez).

Hego Amerikan XVI. mendean, adibidez, Andeetan misiolari espainiarrek kitxua, Inka estatuaren hizkuntza, eta aimara erabiltzen zituzten komunikazio-hizkuntza gisa, beren ebanjelizazio-lanean. Gaztelaniak funtzio hori geroago eskuratu du.

Halere, modu zabalagoan, hizkuntza komunikatzeko erabiltzen den edozein kasutan ere erabiltzen da izendapen hori. Irakaskuntzan, adibidez, jakintza transmititzeko irakasle eta ikasleek duten hizkuntzaren kasuan (ikus beherago *eskolatze-hizkuntza*).

### ► **Taldekoa**

Stewarten sailkapenean talde kultural edo etniko batek, tribu batek, adibidez, komunikazio-tresna normal gisa erabiltzen duen hizkuntza da.

### ► **Eskolatze-hizkuntza**

Irakaskuntzan, ikasleen eta irakasleen arteko harremanetan jakintza transmititzeko erabiltzen den hizkuntza. Euskal Herriko irakaskuntzan euskara B eta D eredueta eskolatze-hizkuntza da. B eredia eredu elebiduna da, irakaskuntza euskaraz eta gaztelaniaz edo frantsesez ematen da. D eredia murgiltze-eredua da, euskaraz irakasten da.

### ► **Eskola-ikasgaia**

Hizkuntza ikas-programako ikasgaia da bakarrik, euskara A ereduan bezala. Eredu horretan irakaskuntza gaztelaniaz edo frantsesez da eta euskara irakasgai bat besterik ez da.

### ► **Erlijiozkoa**

3.4.3. atalean ikusiko dugu hizkuntza batzuk erlijioari lotuak direla eta erlijioari esker hizkuntza horiek hedatu egin direla; arabiera islamari, hebreera judaismoari eta latina katolizismoari esker, besteak beste. Era batez, erlijioek hizkuntza horiek aterpetu dituzte, erlijiozko funtzioa beraien zat kontserbatuz, bederen.

Baina erlijioak garrantzi handia izan du hizkuntza gutxitu batzuk aterpetzeko ere, jakinez erlijiozko funtzioa goi-mailako funtzioa zela Fergusonen hitzetan. Euskararen kasua izan da mende askotan, apaizek eta elizgizonek euskara baliatu dutelako latinarekin batera. Kristau-ikasbidea euskaraz irakasten zuten. Gehiago ere, euskara ikertu eta landu egin dute. XX. mendea arte euskarazko idazki gehienak erlijiozkoak ziren, testu sakratuen itzulpenak bereziki (Ebanjelioa, Bibliako Itun Zaharra eta Berria, besteak beste).

Bestalde, misiolariak kristau ez diren herrialdeetan ebanjelio-aldarrikapena tokiko hizkuntzetan egin zuten. Horretarako hizkuntza horiek ikasi eta sarritan lehen deskribaketak eta gramatikak idatzi zituzten.

### ► **Lan-hizkuntza**

Lanean erabiltzen den hizkuntza da, laneko komunikazioa bideratzeko gaitasuna duena. Funtzio hori garrantzitsua da gaur egun. Ingelesak funtzio hori bereganatu du eta horrek munduan zehar hedatzen lagundu dio.

### 3. HIZKUNTZA-UKIPENA

Funtzio horrek lexiko teknikoak inplikatzen ditu. Gainera, prestigiozko funtzioa dauka hizkuntzak, gora egiteko baliatzen delako.

#### ► **Familia-hizkuntza**

Etxean ez ezik, familia-giroan senitartekoekin hitz egiten den hizkuntza da. Funtzio hori garrantzitsuenetatik bat da, garrantzitsuena ez bada, hizkuntza gutxituen kasuan bereziki Fishmanen Belaunaldien Arteko Etenaren Neurria eskalako 6. gradua da (1991, 2001). Ama-hizkuntza edo lehen hizkuntza da normalean, belaunaldiz belaunaldi transmititzen den hizkuntza. Mendez mendeko euskararen transmisioa oroitaraz dezagun, beraz, bere jarraipena segurtatu duena.

#### ► **Nortasun-hizkuntza**

Jakina da umeak bere nortasuna hizkuntzaren bitartez garatzen duela. Gizarte-talde eta norbanako bakoitzak ere hizkuntza jakin batekin (gehiagorekin elebidun edo eleaniztunen kasuan) lotzen du bere identitatea.

Zergatik ez oroitarazi **euskaldun**ek beren hizkuntza, **euskara** hain zuzen, nortasun-hizkuntzat hartu dutela hizkuntzarekin beren burua izendatuz eta halaber beraien herria **Euskal Herria**. Taldeek euren kideak eta besteak izendatzeko modua dute, *euskaldun* eta *erdaldun* izenak horren adibide.

## Hizkuntza bakoitzaren funtzioen elkarbizitza

Esan bezala, Fishmanen ustez elebitasun soziala, beraz diglosia, fenomeno egonkortua izan daiteke bi hizkuntzen artean diferentziazio funtzionala baldin badago. Beraz, kontaktuan diren bi edo hiru hizkuntzen funtzioak banatuak izan behar dira. Funtzio horiek banaketa osagarrian izan behar dira.

Eginkizunak bereizi ezean, osagarrizko baliorekin, bi hizkuntzetatik batek, edo barietate batek hizkuntza bakarraren kasuan, bestea mugituko du, rolen eta balioak nahasi eta fusionatu direlako.

Gizarte jakin batean hitzunik elebidun orekatuak balira egoera guztietan, komunitatearen elebitasun hori desagertu egingo litzateke; izan ere, gizarterik ez da bi hizkuntza behar duenik funtzio multzo bakar batentzat.

Baina elebitasun soziala edo diglosia ez da beti istilurik gabeko harreman-egoera, aitzitik ere.

### 3.3.3. Hizkuntza-gatazka

Gizarte batean bi hizkuntza edo gehiago ukipenean direnean lehian dira, ez dituzten funtzioak berenganatzeko edo dituztenak begiratzeko eta indartzeko. Soziolinguista batzuk **hizkuntza-gatazkaz** mintzatzen dira, zenbaitek gerraren irudia erabiltzen dute (ikus adibidez Calvet 1987, Toni Mollà 2002). Hizkuntzen existentziagatiko borroka ere aipatu da.

Hizkuntza-gatazkaren jatorri-puntua elebitasun soziala da, diglosia, beraz. Mundu elebakarrak

ez luke horrelako gatazkarik ezagutuko, baina horrelako mundua ilusioa baizik ez da. Eleaniztasuna da errealitatea, gizarteen aberastasun kultural handienetatik bat. Gizakiak eta botereek ez dute ezberdintasuna ongi onartzen (Calvet 1987: 76); munduko historiak hizkuntza-desberdintasuna ez onartzearen adibide asko eman dizkigu. Euskaldunek pairatu dituzten adibide ugariak aurki ditzakegu Torrealdaik idatzitako *El libro Negro del Euskera* liburuan (1998).

Mundu eleaniztuna gatazka zabalen eremua da, tentsio iraunkorra, gehiengoaren hizkuntza- eta gutxiengoaren artekoa, boterearen hizkuntza- eta hizkuntza gutxituaren artekoa edota bihotzeko hizkuntza- eta gokoaren artekoa.

*Hizkuntza-gatazka* modeloak **ikuspegi diakronikoa** hartzen du; modelo diglosikoa, aldiz, sinkronikoa da bereziki. Batzuetan hamarkada batzuk behar dira hizkuntza baten desagertze-prozesuaz ohartzeko, zenbaitetan mende batzuk (Boyer: 53). Hizkuntza menderatzaileak egindako presioaren eraginez, hizkuntza menderatua desagertzera iristen da.

**Hizkuntza-gatazka:** bi hizkuntza-edo bi hizkuntza-komunitateren artean gertatzen den lehia. Gizartean erabilera-eremuak eta funtzio sozialak eskuratzea eta, ondorioz, besteari nolabait kentzea da lehia horren funtsa.

### ***Hizkuntza-normalizazio* nozioa. Normalizazioa ordezkapenaren aurrean**

**Hizkuntza-normalizazio** nozioa minorizazio-egoeran dagoen hizkuntza egoera horretatik ateratzea adierazteko erabilia da. Minorizazioak hizkuntza hori gizarte-esparru eta funtzio batzuetatik baztertzen du. Normalizazio prozesuaren bidez, hizkuntzak esparru eta funtzio horiek eskuratzen ditu.

**Hizkuntza-normalizazioa:** minorizazio-egoeran dagoen hizkuntza egoera horretatik atera eta gizarte-esparru eta funtzio guztietara hedatzeko prozesua. Bi hizkuntza-edo bi hizkuntza-komunitateren artean gertatzen den lehia.

3.1.1. lerroaldean ikusi dugu nola Txepetxek elebidunak sailkatzen zituen lehen ikaskuntza- eta bigarren ikaskuntza-ereduaren arabera. A ikaskuntza, naturala, etxean, familian haurtzaroan egiten dena da; B ikaskuntza bigarrena edo kulturala da, eskolan edo autoikaskuntzaz egiten dena. Irizpide bera aplikatuz, Txepetxek hizkuntzak ere sailkatu zituen, une jakin batean zein egoeratan dauden azaltzeko: AB hizkuntzak naturalki eta kulturalki transmititzen direnak (gaztelania edo ingelesa, adibidez), A hizkuntzak soilik transmisio naturala dutenak (idazten ez diren hizkuntzak), B hizkuntzak soilik transmisio kulturala dutenak (latina, grekoa...) eta mintzatzen ez direnak, galdu direnak, beraz.

### 3. HIZKUNTZA-UKIPENA

Bere teorian, normalizazioaren helburua hizkuntzaren garapen osoa lortzea da; euskararen kasuan AB hizkuntza izatea da, funtzio natural eta kultural guztiak betetzen dituen hizkuntza izatea, garaian garaiko funtzio guztiak bete ahal izateko. Beraz, gaur egun informazioaren eta komunikazioaren teknologietarako hizkuntza egokia izatea, adibidez.

Soziolinguista batzuen ustez, gatazka hizkuntza-ukipenaren ezaugarri definitzaileetatik bat da. Mollà soziolinguista katalanak honakoa dio: *Hizkuntza-komunitate gehienak gatazka egoeran daude beste batzuekin, fenomeno horrek aldaketa linguistikoak eragiten ditu (hibridazioa), baita gizarte-esferan erabileretan ere (ordezkapena)* (Mollà, 2002: 58).

Ikusmolde horren arabera, hizkuntza-gatazka bi eraz burura daiteke: **normalizazioaren** bidez, esan nahi baita gutxitua zen hizkuntza komunikazio-eremu eta une guztietan nagusitzen dela lurralde jakin horretan, edo **ordezkapenaren** bidez, esan nahi baita hizkuntza nagusiaren garapen osoa. Hizkuntza-ordezkapen eta iraupen nozioak 3.4.2. lerroaldean azalduko ditugu.

Halere, Georg Kremnitz-en ustez, komunikazio-egoera elebakarren *normalizazio* ustea, hau da, elebakartasuna egoera *normala* dela pentsatzea, baztergarria da. Banako elebitasunari buruzko atalean esan bezala, hiztunak hizkuntza edo hizkuntza-bariedade bat baino gehiago dauzka eta bere gaitasunak asimetrikoak dira. Hizkuntzen kasuan ere, simetria orokorra ezinezkoa litzateke.

Hizkuntza berri bat komunikazio-esparru batean sartzeak ez die automatikoki beste hizkuntzei esparru hori kentzen. Komunikazio-batura osoa emendatzen da zenbaitetan. Interneten kasua ezaguna da, eta ohartzen gara euskarak, hizkuntza gutxitua baldin bada ere, leku aski handia eskuratu duela esparru horretan, erregistro mugatu batean izanik ere.

Azkenean, Kremnitz bat dator *normalizazio* terminoa begiratzearekin, baina ez hizkuntza baten monopolioaren adieran, baizik eta komunikazio-egoera denetan hizkuntza horren erabilera aukeraren adieran bakarrik. Horrela, definizioak gaur egungo komunikazio-egoera konplexu eta osagarriak kontuan hartzen ditu (2003: 18-19).

Ildo berean, Txepetxen ustez, euskararen normalizazioa ez da euskara botere-hizkuntza bihurtzea, boterea gaur egun ulertzen den bezala patologia kaltegarria besterik ez baita (Zalbide; Erize, 2008: 95). Helburua bikoitza da; alde batetik, hizkuntza gutxituaren komunitatea trinkotzea eta, bestetik, gizartean eragina lortzea, hizkuntza nagusiaren hiztunak etsaitzat hartu gabe. Azken helburu hori hizkuntzei buruzko printzipio ideologiko batean oinarritzen da, hizkuntza-komunitateen berdintasun- printzipioan, hain zuzen ere. Berdintasun horrek lurralde horretan botere politiko inpartziala izatea dakar.

Iduri luke horrela litzatekeela Finlandian, adibidez, finlandieraren (suomiera) eta suedieraren kasuan, bederen. Suediera, suediera-hiztunak biztanleriaren % 5 izanik ere, ofiziala da finlandiera bezala. Erakunde publiko guztiak elebidunak dira, haur-eskolatik unibertsitatera. Suediera nahitaezkoa da Finlandia osoko eskolatan. Anna-Riitta Lindgren soziolinguista finlandiarraren arabera, elebitasun paralelo eta berdina eraiki dute Finlandian.

## Hizkuntza-motak hizkuntza-gatazkaren modeloan

Pentsamendu-korrante honetan bereziki, baina soziolinguistika-teoria gehienetan ere bai, hainbat esapide erabiltzen dira ukipenean diren hizkuntzak izendatzeko: *gehiengoaren hizkuntza*, *gutxiengoaren hizkuntza* (eremu urriko hizkuntza), *hizkuntza menderatzaile*, *hizkuntza menderatu*, *hizkuntza gutxitu* (mendeko hizkuntza), *hizkuntza mehatxatu*...

Hona definizio batzuk, *gutxiengoaren hizkuntza* eta *hizkuntza gutxitu* nozioak bereizi beharko ditugula azpimarratuz.

**Hizkuntza menderatzailea:** hizkuntza-gatazkako egoeran, hizkuntza menderatuaren hainbat esparru eta funtzio irabazi dituen, gailen agertzen den hizkuntza.

**Hizkuntza gutxitua:** hizkuntza-gatazka egoeran, hizkuntza menderatzailearen esku hainbat esparru eta funtzio galdu dituen hizkuntza.

**Gutxiengoaren hizkuntza:** hizkuntza-ukipenean bizi den lurralde batean, gutxiengo batek erabiltzen duen hizkuntza.

**Gehiengoaren hizkuntza:** hizkuntza-ukipena bizi duen lurralde batean, hizkuntza gehienek erabiltzen duten hizkuntza.

Azken bi definizioak estatikoak eta neutroagoak dira, hiztun-kopuruak erkatzen dituzte bakarrik. Aldiz, lehen bietan ezegonkortasun dinamikoaren aurrean gaude, irabazteak eta galtzeak aldaketa suposatzen dutelako. Hizkuntza batek, gutxituak, erabilera-esparru eta funtzioak galdu ditu menderatzailearen mesedetan.

Halere, eta ildo berean, ohartu behar da erabilera-esparru berriak sor daitezkeela (teknologia berriak, inprimatze-teknika Erdi Aroan...). Horrelakoetan, hizkuntza menderatzaileak ez dio eremu berri hori gutxituari hartzen, beregaintzen baizik ez du. Kasu honetan ez dugu ordezkapenik, irabazte berri bat baizik.

Nozio horiek ukipenean diren hainbat hizkuntzari aplikatu zaizkie, berezko hizkuntza gutxituei bereziki, euskara, katalana, bretoiera, okzitaniera edo sardiniera bezalakoei.

## Hizkuntza-gatazka ez da bakarrik linguistikoa

Fishmanen ildoan, Mollàk ohartarazten du, teorikoki, gatazkarik gabeko *elebitasun soziala*, gatazkarik gabeko diglosia, posible dela, hain zuzen diglosia orekatua (2002: 149). Kasu honetan botere sozial, ekonomiko eta politikoa, prestigioa, bidezketasunean banatuak dira bi gizarte-taldeen artean, bi hizkuntza-komunitateen artean. Baina ohiko egoeran talde batek boterea dauka.

Mollàren ustez, hizkuntza-gatazka gainditzeko aterabide bakarra da hizkuntza-lurraldetasuna finkatzea (2002: 150); hizkuntza gizarte-egoera guztien erabilera-hizkuntza izatea, gizartearen bizitzako eremu publiko guztien hizkuntza. Mollàren esanetan *horrek beste hizkuntzaren itzulera inplikatzan du (ibid.)*. Elebitasunaz eta diglosiaz hauxe da bere konklusioa: *Gizarte-erabilera elebidunaren faltsutasunak eta elebitasun indibidualaren aldebarrekotasunak erakusten dute elebitasuna irreal, mitikoa dela* (2002: 159).

Munduan zehar hizkuntza gatazka-mota asko daude. Gehienetan gatazka ez da diglosikoa, linguistikoa, baizik eta politikoa, ekonomikoa, kulturala... Bi komunitateetatik batak bestearen mendekotasun politikotik libratu nahi du.

Hori zen Jugoslavia ohian Serbia eta Kroaziaren arteko kasua. Linguisten ustez, serbokroaziera hizkuntza bat baizik ez zen, nahiz maila tipologikoan, nahiz genetikoan. Baina kroaziarrek independentzia lortu nahi zuten eta hizkuntzak helburu horretan lagundu die. Serbian hizkuntza alfabeto zirilikoz idazten zen; Kroazian, berriz, latindarrez. Desberdintasun fonologiko, gramatikal eta bereziki lexikal batzuk ere baziren. Kroaziarren ustez, independentzia linguistikoa independentzia politikoa azkartu beharko zuen, batasun nazionalaren ezaugarrietatik bat berezko hizkuntza delako, nazio-nortasunarena.

Herriak nazio izatearen kontzientzia hartu eta estatu propioa eraikitzeko nahian hizkuntza propioa aldarrikatzeari **hizkuntza-nazionalismoa** dei dakiok. Horrelako hizkuntza-nazionalismoaren adibidea hizkuntza-leialtasunaren sailean sar daiteke, baina adiera zabalean; ez norbanakoak bere hizkuntza egoera guztietan erabiltzen duen hitzez hitzeko adieran.

Kasu horietan, ez dira hizkuntzak sortzen, kreolerekin gertatu bezala; ez dago hizkuntza-pizkunderik hebreerarekin bezala, baizik eta **hizkuntza-bereizketaren** prozesua. Hizkuntza bat ala biren existitzea ez da arazo teknikoa soilik, baita irudikapen arazoa ere. Herritarrek beren hizkuntza propioa izan behar dutela deliberatu dute eta helburu horretara behar diren ahalbiak indarrean ematen dituzte.

Azkenean, hizkuntza-gatazka hizkuntzaren erabilera-eremu denetan ager daiteke. 3.4.1. lerroaldean, adibidez, ikusiko dugu familia ere hizkuntza-gatazkaren eremua izan daitekeela. Argi da hizkuntza-gatazka kasuak ez direla hizkuntza-arazo edo komunikazio-arazo hutsak. Soziolinguista ezagunen artean, Robert Cooper da, beharbada, hori ondoen azpimarratu eta esplikatzen duena: helburuak kontsumitzaileen babesa, harreman zientifikoak, kontrol politikoa, garapen ekonomikoa, elite berrien sorkuntza edo ohikoak gordetzea, talde gutxituak baketzea edota nazio-askapenerako altxatzea izan daitezke, besteak beste, eta ez bi hizkuntza-komunitateren edo gehiagoren arteko komunikazioa hobetzea edo hizkuntza-arazoak konpontzea.

## Hizkuntza-gatazkaren modelotik gora

Hizkuntza-gatazkaren modeloak hizkuntzen arteko harremanak ulertzeko tresna bat aurkezten du. Baina, era batez, ez oso egokia. Hizkuntza gutxituaren sustapena ez litzateke egin behar beste hizkuntz(ar)en kaltetan. Bestalde, estatu-nazioaren hizkuntza bakarraren modelo erreproduzituko litzateke berriro ere. Bestetik, eta nolana ere, hizkuntza-komunikazio bat beharrezkoa da hizkuntza-komunitate desberdinen artean.



Hizkuntzen arteko bizikidetza, hizkuntzen arteko elkarbizitza litzateke helburua. Diskurtso moralaz gain, planteamendu zientifikoa ere beharrezkoa da. Hau da **hizkuntzen ekologia** erakitzen saiatzen dena (ikus 3.5. eta 5. atala).

### 3.3.4. Hizkuntza–aniztasuna

**Hizkuntza–aniztasuna:** eremu jakin batean, hainbat hizkuntza desberdin hitz egitea.

Hizkuntzalariek hiru hizkuntza-aniztasun mota bereizten dituzte. Batetik, munduan dauden hizkuntza-familien kopurua finkatzen eta aztertzen dute, jatorri beretik sortu diren hizkuntzak multzokatuz; aniztasun genetikoa deitzen dena dute aztergai. Bestetik, aniztasun tipologikoa aztertzen da, esan nahi baita munduko hizkuntzen egitura gramatikalean, fonologikoan, lexikokan, semantikan izan daitezkeen bariazioak eta inbarianteak, unibertsalak. Azkenik, munduan hitz egiten den hizkuntza-kopuruaz interesatzen dira, bere osotasunean eta lurraldeka, gizarte-tal-deka, etab. Hau da hemen aztertu gabe aipatzen duguna.

Esan dugun bezala, hizkuntza-aniztasunarengatik eleaniztasuna biziki hedatua dago munduan zehar. Halere, politika kolonizatzaileek eta, ondotik, asimilatzaileek kalte handia egin diote hizkuntza-aniztasunari, eta azken hori murriztuz doa. Koïchiro Matsuura jaunak, UNESCOko zuzendariak, 2006an adierazi zuenaren arabera, oraingo 6.000 hizkuntza ingurutik erdia desagertuko da mende honetan.

Hizkuntzak mantentzeko eta bizirik iraunarazteko hitzun-kopurua garrantzitsua dela jakina da. Kopurua erabakigarria izateko muga 10.000 hitzunean baldin bada, orduan munduko 6.000 hizkuntza horietarik % 59,4 galduko dira (3.564 hizkuntza) (Félix Martí eta beste, 2005: 101). % 30,1ek (1.806 hizkuntza) 1.000 hitzuneetik behera dituzte (*ibid.*)

Hona, besteak beste, Calvet (1987: 52-58) frantses soziolinguistaren herri-eleaniztasunaren tipologia bat: hizkuntza nagusi bakarrekiko eleaniztasuna (Espainia, Frantzia), hizkuntza nagusi gutxitu batzuekiko eleaniztasuna (Magrebiera klasikoa eta frantsesa eremu formaletan arabiera dialektalaren eta berberegaren aurrean), hizkuntza nagusi gutxituekiko eleaniztasuna (Afrikan frantsesa edo ingelesa tokiko hizkuntzen aurrean), txandakako hizkuntza nagusiekiko eleaniztasuna (*plurilinguisme à langues dominantes alternatives*, kreolera, lehen hizkuntza, eta europar hizkuntza), eskualdeetako hizkuntza nagusiekiko eleaniztasuna (Belgika, Suitza).

### 3.3.5. Hizkuntza–heriotza

Hizkuntza baten desagertzea ez da beti egiazko heriotza, transformazio prozesua paira deza-keelako edo, mintzatua izan gabe, hizkuntza idatzia egon daitekeelako. *Hizkuntza-heriotza* kau-sak hiru motatakoak izan daitezke.

### 3. HIZKUNTZA-UKIPENA

#### 1. Hizkuntzaren transformazioa

Fenomeno hori denbora bitarte baten buruan ohartzen da, aldaketa progresiboa baita. Latin arrunta hizkuntza erromanikoen oinarria da; arabiera klasikoak arabiera dialektal modernoak eman ditu denbora-epe laburrago baten buruan. Oro har hizkuntza denak aitzinean mintzatzen ziren hizkuntzen bilakaeraren ondorioak dira. Mintzatzen ez diren hizkuntza idatziak aparte dira, aldatzen ez direlako; usuenik erlijiozko hizkuntzak dira (latin klasikoa, arabiera klasikoa, sanskritoa...).

#### 2. Hitzunen iraungipena

Hizkuntza galtzen da azken hitzunek, beraien hizkuntza belaunaldi berriei eman gabe, hitz egi-teari uzten diotenean. Fenomeno hori aski azkar hedatu da. Bi astetan behin hizkuntza bat hil litekeela esaten da.

#### 3. Hizkuntza-ordezkapena (ikus 3.4.2.)

Ordezkapen-prozesuaren bukaeran hizkuntza baten heriotza gerta daiteke. Hizkuntza menderatzaile batek hizkuntza menderatua ordezkatzen du. Iberiar penintsulan adibidez, erromanizazio aurretik hainbat tribuk egiten zuten hizkuntza, iberiera beste hizkuntza erromaniko batzuek ordezkatua izan zen.

Hizkuntza baten erregresio-indizea jatorrizko komunitatearen hizkuntzaz mintzatzen ez diren hitzunik kalkulatu neur daiteke (*indice de régression* Calveten hitzetan, 1987: 147). Euskal Herrian, adibidez, indize hori 0,743 litzateke, biztanleen % 25,7 elebiduna delako 2006ko inkestaren soziolinguistikaren arabera (Eusko Jaurlaritza, 2008). Baina erabileraren ehuneko hartuko bagenu baxuagoa litzateke, zalantzarik gabe.

### Hizkuntza-pizkundea

Hizkuntza berriak sortzeaz gainera, kreolerekin bezala, hizkuntza-bereizketaz gainera, serbo-kroazierarekin bezala, **hizkuntza-“pizkunde”** kasu bat maiz izaten da aipatua, hebreerarena. Hebrearren hizkuntza aitzina Palestinan hitz egiten zen, K.a. III. mendera arte. Baina aramera hizkuntzak baztertu egin zuen orduan. Zorionez, liturgia- eta literatura-hizkuntza gisa geratu zen eta XIX. mendetik aurrera berreskuratzeko mugimendua sortu zen. XX. mendean, yiddisha hizkuntza germaniarra baino hobetzat hartu izan da eta Palestinan bizi diren juduen eguneroko hizkuntza bilakatu da.

Nazionalismo azkarraren, hezkuntza-programaren eta eskolatzeko masiboaren bidez (haurtzaindegia -1898-, bigarren mailako ikastetxeak -1906-), neologismoaren bidez (Hebraiera hizkuntzaren Akademia) hebreerak komunikatzeko eta balio sinbolikoa bideratzeko dituen gizarte-funtzio guztiak eskuratu ditu, berreskuratu. 1900-1910eko hamarkadetan hebreera baizik ez zakiten lehen hitzunik agertu ziren, 1.700 urte geroago (Cooper, 1989: 13).

Hebreeraren berpiztea eta eguneroko hizkuntza izateko berreskuratzea hizkuntza-politiken garaipen handienetakotzat emana da.

## 3.4. HIZKUNTZA–HAUTAKETA, IRAUPENA, ORDEZKAPENA ETA ZABALKUNDEA

Beren baitan hizkuntzak berdinak dira, maila linguistikoan bederen, baina bi edo gehiago baldin badira gizarte batean betetzen dituzten funtzioak desberdinak dira. Eskema orokorra hau zela ikusi dugu: ukipen-egoeran dauden bi hizkuntzetatik bata esparru eta une formaletan erabilia da, bestea informaletan, familian, lagunartean... Batak erabilera-esparru eta funtzioak irabazten ditu, besteak galdu. Prozesu diglosiko horrek eragin handia du hizkuntza-hautaketan, hizkuntza-iraupenean eta ordezkapenean, hizkuntzaren zabalkundearen.

### 3.4.1. Hizkuntzaren hautaketa

Komunikatu nahi duen egoera guztietan hitzunak erabiliko duen hizkuntza edo hizkuntza-aldaera hautatu behar du. Hori banako hautua da, interakzio-testuinguruko baldintzei lotua zaiena.

Baina gizarte-mailan ere hizkuntza-hautaketa egin behar da, lehen hizkuntza haurrari transmititzeko unean, etorkinak harrera-herrian integratu nahi duenean, eskola-sisteman ikasleak hizkuntzak ikasi behar dituzenean, etab.

Halere, beti ez da hauturik egiten. Estatu-nazioek eredu elebakar eta asimilatzailea inposatu baitute azken bi mendeetan zehar, nazio-hizkuntza bakarra hedatzea ahalbidetu dute, hizkuntza horrek beste batzuk ordezkatzeko baldintzak sortuz.

XX. mendeko hirurogeiko hamarkada arte euskaldunek erdara, gaztelania edo frantsesa ikasi dute eskolan, nahi ala ez, inposatu egin zaielako. Orduan, hizkuntzaren hautaketarik ez zegoen.

### **Hizkuntza–hautaketa ez da (guztiz) librea. *Hizkuntza–merkatua***

1982an *Ce que parler veut dire* liburuan Pierre Bourdieu frantses soziologoak **hizkuntza-merkatu** nozioa azaldu zuen. Gizarte batean hizkuntza bateko barietateei aplikatzen zitzairen. *Merkatu ofiziala* indar-erlazioen eremua da, non gaitasun legitimoa dutenek legea egiten duten. Hizkuntza-eta kultura-kapitala dutenek beren boterea inposatzen dute eta etekina lortzen. Ikuspegi horrek klaseko menderapenarekin, produkzio-bideen jabetzearekin, hots, marxismoaren doktrina ekonomiko eta sozialarekin zuen zerikusia. Geroztik *hizkuntza-merkatua* nozio hori ukipenean diren hizkuntzei eta hizkuntza-hautaketari hedatu zaizkie (Boyer, 2001 eta Calvet, 2002, adibidez).

Oro har, hizkuntza-hautaketa ez da hain librea. Lehen hizkuntza edo ama-hizkuntzarekin hasiz, gurasoek hautatzen dute edo haurrei inposatzen diete. Hori oinarritzeko datua da.

Bigarren hizkuntzaren kasuan, hizkuntza-merkatua indarrean da eta, ikusiko dugun bezala, lehen hizkuntzaren kasuan ere bai, oro har.

### 3. HIZKUNTZA-UKIPENA

Hizkuntza-merkatua hizkuntzen arteko balio-sistema da, hizkuntzen erabiltzeko beharren arabera egituratzen dena. Euskal Herritik kanpo euskararen “balioa” txikia da; ingelesarena, aldiz, mundu osoan da handia. Bi balio-mota ditugu. Batetik, balio estetikoak, prestigiodun hizkuntzek, zibilizazio “handietako” hizkuntzek dutena; bestetik, balio praktikoa, laneko hizkuntzak edo enplegua eskuratzeko hizkuntzak, zientzia-hizkuntzak, etorkinentzako integrazio hizkuntzak, etab. Hizkuntza batzuen ezagutzak gainbalioa ekartzen du; beste batzuenak, berriz, ez du ondoriorik.

Adiera horretan, beraz, hizkuntza guztiek ez dute balio bera, eta ezberdintasun hori hizkuntzen mundu antolaketaren erdian dago (Calvet, 1999: 12).

Era batez, **eskaintza-eskariaren legea** indarrean da hizkuntzen artean: alde batetik, gizarte-eskaria eta, bestetik, hizkuntzen eskaintza, esan nahi baita hizkuntzek dauzkaten izan-gaitasun funtzionalak (ikus hizkuntza-funtzioak, 3.3.2.).

Ikasteko den hizkuntzaren edo diren hizkuntzen hautaketa, maiz, hizkuntza berdinen artean egi-ten dela esaten da. Askatasuna teorikoa da, baina praktikan indar-erlazioek bideratzen dute hautaketa. Hizkuntza-merkatua inposatzen da.

Lehen hizkuntza gurasoek inposatua da, beraz. Gero testuinguru soziolinguistikoak gidatzen gaitu, egoeren arabera, auzo-hizkuntza batera, edo eskualdeetako komunikazio-hizkuntza batera, edo botere-hizkuntza batera (estatuarena adibidez, aurretik inposatua ez bada), edo nazio-arteko hizkuntza nagusira, esan nahi baita ingelesera. Ildo honetan, ingelesa mundializazioaren hizkuntza bilakatu da, merkatu mundialaren hizkuntza.

Calveten ustez, hiztunek edo hizkuntza-komunitateek merkatuko legeari jarraitzen diote. Zenbaitek beren hizkuntza uzten dute, ez diete haurrei transmititzen. Ez da *ganibeta eztarrian* dutelako, baina bai beren interesa hor dela uste dutelako, edo beraien haurrena (2002: 212).

Portaera, kasu honetan hizkuntza-hautaketa, hiztunen eta hizkuntza-komunitateen irudikapen linguistikoetan eta gizarte-erlazioen analisi intuitiboetan oinarritzen da.

Hizkuntza-politikek hizkuntza-hautaketa horiek bidera edo desbidera ditzakete, baina hiztunen onepenarekin eta ez errudun sentiaraziz.

#### Lehen hizkuntzaren hautaketa

Calvetek, bere *La guerre des langues*-en “Familiako gerra” atalean, Bamakon (Mali) egin duen inkesta bat aipatzen du (1987: 98-99).

Familietan gurasoen lehen hizkuntza hedadura handiko eskualdeetako hizkuntza (peul, sonay) edo hizkuntza nazionala (bambara) baldin bada, inkestatuek hizkuntza hori lehen hizkuntza gisa zaintzen dute. Baina, gurasoen lehen hizkuntza Maliko beste hizkuntza bat bada, inkestatuetatik erdiek beste lehen hizkuntza daukate eta ez gurasoena. Familian bambara lehen hizkuntza gisa ez dutenak, denak, eleaniztunak dira, eta gehienak bambaraz mintzatzen dira.

Horrek erakusten du hizkuntza nagusia, bambara kasu honetan, bigarren hizkuntza gisa beharrezkoa bilakatu dela, era batez nahitaezkoa. Baina inkestak erakusten du bambara lehen hizkuntza gisa dutenek ez dutela beste hizkuntza afrikarrik ikasi beharrik ere.

Niameyen (Niger) Calvetek guraso bakoitzaren **ama-hizkuntza** aldagaitzat hartu du (1999: 100-101). Bikote mistoen kasuan, esan nahi baita aita-amen ama-hizkuntza desberdina denean, inkestatuen ama-hizkuntza Nigerko hizkuntza nagusia da nagusiki (zarra edo hauwsa).

Azkenean, ama-hizkuntzarik ez dela esan daiteke, haurtzaroan amaren hizkuntza ez baita beti transmititua. Bada, ordea, **lehen hizkuntza** (Calvet, *ibid.*: 101). Familia eleaniztunak ere hizkuntza-gatazkaren eremua dira, gizartean indarrean diren gatazken oihartzuna baitira.

Egoera hori **Euskal Herrian** ezaguna izan zen eta bada oraino. Bi gurasoek beren lehen hizkuntza bera izanik ere, euskara hain zuzen, beren haurrei ez diete beti ematen. Euskararen ondoren ikasi duten erdara, gaztelania edo frantsesa, beraientzat bigarren hizkuntza dena, haurren lehen hizkuntza bilakatzen da. Guraso horiek ez dute beraien gurasoek egin zuten **hizkuntza-hautaketa** egiten, haurren lehen hizkuntza euskaratik erdarara pasaraziz.

XX. mendearen erdian, berrogei-berrogeita hamarreko hamarkadetan, fenomeno hori indarrean zen Ipar Euskal Herrian. Aita-amek, euskaldun zahar izanik, haur gehienei euskara transmititzen zieten eta haiek ongi mintzatzen ziren. Ondoko haurrei ere euskaraz mintzatzen zitzaizkien, baina erantzunak frantsesez ziren. Haur gazteagoei ez zieten euskaraz egiten. Belaunaldi batez, belaunaldiz belaunaldi familian transmititu zen euskara bazter utzia izan da eta frantsesa ondoko belaunaldiko lehen hizkuntza bilakatu. Eskema orokor hori ez da Ipar Euskal Herriko eremu guztietan horrela gauzatu. Baserrian, Nafarroa Beherako ibar batzuetan bereziki, ez bide da hain azkar izan; Zuberoakoetan, aldiz, bai, Basabürüko ibar goietan salbu.

Hegoaldean ere, Espainiako Gerra Zibilaren ostetik 70eko hamarkadaren erdialdera arte, gutxi gorabehera transmisioa ia guztiz eten zen eta, ondorioz, belaunaldi osoak izan dira gurasoena ez zen beste ama-hizkuntza izan dutenak. Horien seme-alabak ikastoletan euskaldundu ziren, sarritan euskara ukatu izan zitzaizen haiek bultzatutako ikastoletan. Belaunaldi galdua izan zen, nahiz eta askotan euskararen normalizazioaren alde modu ezberdinetan jardun, ez baitute hizkuntza jasotzeko aukerarik izan.

Halere, egungo guraso euskaldunek hizkuntza-leialtasun handiagoa dute. Ama hizkuntza euskara duten gurasoen familietan euskararen transmisioa eta erabilera-maila oso altua da. Txepetxen hitzetan *izateko nahia*, euskaldun izateko, euskara erabiltzeko nahia handiago litzateke.

Baina halere, eta oro har, **aukera kontziente bat** da gaur egun euskaraz bititzea, euskara gutxiengo hizkuntza baita.

**Immigrazioaren** kasuan ere, herri batera bizitzera joan direnek herri horren hizkuntza nagusia, bertako hizkuntza nazionala ikasten dute, eurena usu bazter utziz goiz edo berant. Harrera-herriko hizkuntza integrazioaren, promozioaren, gizarte-prestigioaren eta familiarik kanpoko eredu nagusiaren arabera egokitasunaren hizkuntza da. Haurra elebakarra izanen da, eta bere lehen hizkuntza gurasoena.

Halere, besteak bezalakoa izan nahiaren (asimilazioa) eta jatorriarekiko leialtasunaren arteko tentsioak dualtasunaren onarpena ematen du. Orduan harrera-herriko hizkuntza irakasteaz gain, beren jatorrizko hizkuntza emanen diote haurrari. Haurra elebiduna izanen da.

### 3.4.2. Hizkuntzaren jarraipena eta ordezkapena

Hizkuntzaren jarraipena eta ordezkapena soziolinguistikako ikergaiak izan dira aspaldidanik: Weinrichen (1953: 106-101) *Language shifts* (hizkuntza-ordezkapenak), Fishmanen 1964ko *Language maintenance and language shift as a field of inquiry* (hizkuntza-jarraipena eta ordezkapena ikergai gisa).

Hirurogeiko hamarkadan jadanik, Fishmanen ikusmoldean, hizkuntzaren jarraipenaren edo ordezkapenaren hiru ikergai nagusiak honako hauek ziren:

- Ohiko hizkuntza-erabilera eta elebitasun-mailaren eta kokapenaren neurketa gizarte-alderdi erabakigarrien arabera.
- Prozesu psikologiko, sozial eta kulturalak eta horien egonkortasunarekiko eta aldatzarekiko erlazioak ohiko hizkuntza-erabileran.
- Hizkuntza-portaera, jarrera, portaera kognitiboa eta ageriko portaera (García eta beste, 2006: 23).

Ikus daitekeenez, hirugarren gaia norbanakoaren ezaugarriei buruzkoa da. Eskuliburu honen hurrengo atalean aztertuko da.

Urtez urte gizarte-ekintza programa bat landu du Fishmanek hizkuntzen jarraipena segurtatzeko (1991, 2001, ikus 5. atala). Geroztik, beste soziolinguista batzuei esker, modelo teorikoak hobetu eta aberastu izan dira norabide horretan. Bi ikuspegiak, sinkronikoa eta diakronikoa, beharrezkoak dira jarraipena edo ordezkapena neurtzeko.

### Hizkuntzaren jarraipenaren eta ordezkapenaren definizioa

**Hizkuntzaren jarraipena** (edo hizkuntza-iraupena): pertsona edo hizkuntza-komunitate batek bere hizkuntzari eustea eta, beraz, hizkuntza hori ez galtzea.

**Hizkuntzaren ordezkapena:** hizkuntza batek beste hizkuntza baten erabilera-eremuak eta funtzioak irabaziz joatean gertatzen den prozesua. Hizkuntza men-deratzaileak aurrera egiten jarraitzen badu, jatorrizko hizkuntza desagertu ere egin daiteke.

Azken definizio hori norbanakoari edo hizkuntza-komunitateari aplikatu dakiok, hiztun batek edo komunitate batek bere hizkuntza uzten duenean eremu edo funtzio zenbaitetan beste bat erabiliz.

Lerroalde honetan, hizkuntza-iraupenaren eta ordezkapenaren arrazoiak azalduko dira, gizartearen, hizkuntza-komunitatearen edo taldearen baitan.

## Ordezkapenaren etapak

Ordezkapena baino lehen diglosia edo elebitasun soziala izan behar da. Gurasoak beren ama-hizkuntza ez den hizkuntza transmititzeko, elebidunak izan behar dira. Bigarren hizkuntza horretaz duten ezagutza-maila ez da erabakigarria. Garrantzitsuena hizkuntza hori transmititzeko borondatea da, hizkuntza-integrazio nahia hizkuntza-komunitate berrian.

Arestian immigrazioa aipatu da, familiako hizkuntzaren ordezkapenaren arrazoi batzuk aztertuz. Helduen immigrazio kolektiboan, lau etapa nabarmendu ditzakegu jatorrizko hizkuntzaren ordezkapen osoa arte.

1. Immigratuek bigarren hizkuntza beren lehen hizkuntzaren bidez ikasten dute eta lanean eta eremu formaletan erabiltzen saiatzen dira.
2. Gero eta immigratu gehiago dira bi hizkuntzetan mintzatzeko gai, interferentziak emendatzen dira.
3. Elebidun-kopurua handiena da, interferentziak egonkortuak dira, baita erabilera-eremuen banaketa ere.
4. Bigarren hizkuntzak, esan nahi baita harrera-herriko hizkuntza, lehen hizkuntza ordezkatu du eremu guztietan eremu pribatu eta murriztuetan izan ezik. Interferentziak apaltzen dira.

Hizkuntzaren ordezkapen- eta galera-prozesua soziolinguistek deitu duten **akulturazio**arekin batera doa, hitzunek jatorrizko ezaugarri kulturalak galdu eta beste kulturarenak hartzen dituztelako.

Era batez ere, testuinguru desberdinak kontuan hartuz, lau etapa horiek gutxiengoarena bilakatzeko den jatorrizko hizkuntzari eta atzerriko hizkuntza menderatzaileari aplikatu dakizkieke, euskarari eta erdarari, adibidez.

Ordezkapen-prozesuaren bukaeran hizkuntza ordezkatuak zituen gizarte-esparru eta funtzio guztiak galtzen ditu.

Hizkuntza-ordezkapenaren prozesua azkarra izan daiteke, eta belaunaldi batez hizkuntza batek beste batera pasatu. Hori da Euskal Herriko familia eta lurralde batzuetan gertatu dena, frantsesak edo gaztelaniak euskara ordezkatuz, baita Mendebaldeko Europako herri askotan eta, oro har, munduan zehar ere XX. mendean.

Baina prozesua luzea izan daiteke, hizkuntza bat emeki-emeki beste batean urtu edo desagitzen denean. **Absortzioa** deitu dakieke prozesu horri eta bere ondorioei (Calvet, 1987: 142). Latinaren adibidea dugu berriz; izan ere, latin arruntak prozesu motel, luze eta konplexuaren bidez tokiko hizkuntzekin nahasiz hizkuntza erromanikoak eman ditu.

## Hizkuntza gutxituen jarraipenaren edo ordezkapenaren eragile objektiboak eta subjektiboak

Hizkuntza gutxitu baten kasuan, ordezkapenarekiko **erresistentzia-indarrak** indibidualak dira, hala nola hizkuntza-leialtasuna (ikus 4. atala), eta baita kolektiboak ere, horien artean hizkuntza-politika eta hizkuntza-plangintza (ikus 5. atala). Indibidualetan **belaunez belauneko** ama-hizkuntzaren **transmisioa** da hizkuntzaren jarraipenerako baldintza nagusia. Lehena gabe ez dago bigarrenik, hezkuntza-sistemaren bidezko transmisioak ez duelako hizkuntzaren bitzitza segurtatzen. Latina irakatsia zen European ikastetxetik kanpo erabili ez arren, elizan salbu.

**Faktore demografikoa.** Gutxi mintzatua izan den hizkuntza batek iraun dezake hitzunek beren hizkuntzaren jarraipena garrantzitsutzat hartzen baldin badute, nortasun edo erlijiozko arrazoiengatik adibidez, hitzun-kopuru txikiak aurreikusarazten ez zuen ere. Beraz, faktore demografikoa garrantzitsua izanik ere, ez da erabakigarria.

Halere, gutxiengoaren hizkuntza-komunitatearen tamainak haren hizkuntza-leialtasuna determina dezake eta masa kritikoa izan daiteke, bereziki gizarteak integrazio-ahalbide asko eskaintzen dituenean (Calvet, 1999: 196). Halaber, garrantzitsua izan daiteke hitzunen banaketa lurraldean zehar: bilduak ala sakabanatuak diren, jatorrizko lurraldean dauden ala ez...

Beraz, faktore demografikoa hiru zatitan bereiz daiteke: **hitzun-kopurua** aztertua den gizartean, **proporzioa** beste hizkuntzetako hitzunen aurrean eta **banaketa** edo distribuzioa lurralde horretan.

Etorkinen kasuan, bizileku egonkorra eta segregazio kulturala segurtatzen dituzten komunitateek baino ezin diote beraien hizkuntza eutsi belaunaldi batetik gora Fishmanen ustez (García eta beste, 2006: 100). Bestelakoetan hizkuntza-komunitatea desegituratu egiten da.

**Kontrol edo babes instituzionala.** Hizkuntza gutxituen kasuan, adibidez euskararenean, sostengu instituzionala beharrezkoa da gutxitze prozesua geldiarazteko, hizkuntzak bereak dituen erabilera-esparru eta funtzioak zaindu eta berriak eskura ditzan. Sostengu instituzionala ez da bakarrik erakunde politikoena, estatua edo lurraldea gobernatzen dutenena. Babesa, eremu formal guztietan gauza daiteke: ekonomian, hezkuntzan, administrazioan, mass-medietan, kulturean, etab.

Ikuspuntu horretatik, komunitate euskaldunaren kontrola handiagoa da Euskadin Nafarroan baino. Ipar Euskal Herrian, aldiz, komunitate euskaldunak ez dauka kontrolirik, baina bai sostengu instituzional txikia, duela hogeitun urte ez zuena, Euskararen Erakunde Publikoaren sortzearekin 2004an.

Hizkuntza gutxitua duen komunitateak hobe du kontrol instituzionala eskuratzea, hizkuntza menderatzailea duen komunitatearen babesa baino.

**Hizkuntzaren estatusa.** Gizarte jakin batean hizkuntzak beste hizkuntzen aldean duen lekua edo posizioa ere garrantzitsua da. Estatus hori estatus sozioekonomikoan, estatus soziologikoan, prestigio soziokulturalean eta abarretan sailka daiteke (estatus nozioa 5. atalean azalduko da).



Faktore bakoitzaren neurria handia, ertaina edo txikia izan daiteke, eta horrela, hizkuntzaren jarraipenaren edo ordezkapenaren faktore objektiboak neur daitezke.

Euskararen kasuan, hain denbora luzean bizirik irauteko, jarraipenaren aldeko faktoreak aski positiboak izan dira historian zehar, nahiz eta estatus, demografia eta sostengu instituzionaleko irizpideak ongi bete ez. Lehena etengabeko familia-transmisioa izan zen. Halere, arestian esan bezala, bizi-baldintzak oso aldatu dira, eta hizkuntzentzat ere bai; euskararentzat, hizkuntzaren ukipen-egoera aldatu egin da. **Hizkuntza oso** egoeratik, esan nahi baita beharrezkoak diren funtzio guztiak betetzeko gai zen hizkuntza izatetik, **hizkuntza ez-oso** egoerara iragan da, euskal gizartea mundu modernoan sartzearekin, erdarak funtzio horiek bereganatu dituen neurrian.

Faktore subjektiboak faktore objektiboak bezain garrantzitsuak izan daitezke (Bourhis eta Landry, 2008: 161). Faktore subjektiboetan **hizkuntza-identitatea** eta **hizkuntza-kontzientzia** aipa ditzakegu. Lehena da pertsona- edo giza talde baten identitatearen eta hizkuntza baten artean dagoen lotura. Pertsona- edo giza talde bakoitzak hizkuntza jakin batekin (edo gehiagorekin) lotzen du bere identitatea. Bigarrena, hizkuntza-kontzientzia, da norberaren hizkuntzari kultura-balio bereizgarria ematek eta hizkuntza horrek norberaren hizkuntza-komunitatea definitzen duela kontsideratetik sortzen den motibazio arrazionala. Motibazio horren bidez, hizkuntzaren ezagutzari eustea eta ezagutza hori sakontzeko joera sustatzen da. Noski, hizkuntza-kontzientzia kolektiboa ere izan daiteke.

## Bizitasun etnolinguistikoa

Etnolinguistikak hizkuntzaren eta sistema soziokulturalaren arteko harremanak aztertzen ditu. Soziolinguista batzuek **bizitasun etnolinguistikoa** (edo **bizindar etnolinguistikoa**) kontzeptua erabiltzen dute, talde etnolinguistiko bati izaki kolektibo berezi gisa eratzeko eta jokatze gaitasuna ematen dioten faktore sozial eta estrukturalen multzoa izendatzeko. Talde etnolinguistikoa hizkuntza-eta kultura-ezaugarri bereziak dituen giza taldea da.

Bizitasun etnolinguistiko kontzeptuak gehiengo eta gutxiengo linguistikoaren arteko harremanak aztertzen ditu, besteak beste. Noski, eta haxe da hemen interesatzen zaiguna, bizitasun handiko talde etnolinguistikoek aukera handia izango dute bizirik irauteko, eta ondorioz, beraien hizkuntzak ere bai. Bizitasunaren faktoreak aurreko lerroaldean aipatu ditugunak dira, gutxi gorabehera. Faktore objektiboak eta subjektiboak uztartuz, kultura eta hizkuntza nagusiekiko ukipenean den talde etnolinguistiko batek komunitate bereizi bezala bizirauteko dituen aukerak neur daitezke.

Laugarren atalean bizitasun etnolinguistikoaren kontzeptua zehazkiago azalduko da.

### 3.4.3. Hizkuntzaren zabalkundea

Arestian ikusi dugu hizkuntza baten ordezkapenak bere ordezkari bat jartzea inplikatzeko zuela. Batak besteak betetzen zituen erabilera-esparruak eta funtzioak betetzen ditu. Hizkuntza

bat bestea ordezkatzuz hedatzen, zabaltzen da. Fenomeno hori izendatzeko erabili den terminologia honakoa da: euskaraz, **hizkuntza-zabalkundea** edo **hizkuntza-hedapena**; gaztelaniaz, *expansión lingüística*, *difusión lingüística*; frantsesez, *expansion de la langue*, *diffusion de la langue*; ingelesez, *language spread*.

## Hizkuntzaren zabalkundearen bi erak

Hizkuntza baten zabalkundea bi irizpideren arabera neur daiteke: hiztun-kopuruaren arabera edo dituen funtzioen arabera. Lehen ebaluazio-irizpidea **demografikoa** da, bigarrena **funtzionala**.

**Irizpide demografikoa.** Hizkuntza-jarraipenaz eta -ordezkapenaz mintzatzean (3.4.2. lerroaldean) bere baitan biltzen dituen osagaiak aurkeztu dira: hiztun-kopurua, proportzioa eta banaketa (kontzentrazio demografikoa).

Hiztun-kopurua neurtzeko, hizkuntza batez mintzatzea zer den jakin behar da, ezagutza eta erabilera-maila desberdinak izan daitezkeela jakinda. Hizkuntza gutxituen kasuan, ezberdintasun horixe da gertatzen dena, eremu eta une formaletan erabilia ez delako.

XIX. mendeko Mendebaldeko Europan adibidez, frantsesa zen hizkuntza erabiliena lehen hizkuntza bezala. Orain alemana da. Aldiz, ingelesa, lehen hizkuntzatzat dutenek ez ezik, beste hiztun askok ere ezagutzen dute, alemana baino askoz gehiagok. Jaiotza-tasa ez da berez eraginkorra, garrantzitsua baldin bada ere hizkuntza-komunitate txikientzat.

## Hizkuntzaren hedapenaren faktoreak

### ► **Faktore geografikoa**

Hizkuntzak, bide naturalei jarraiki, ibaien bidez zein itsasoetan zehar hedatzen ziren, merkataritzarekin, kolonizazioarekin eta abarrekin. Azken urteotan, garraioen garapenak eta aldaketa teknologikoez geografari lotua den faktore horren eragina murriztu egin dute. Baina, ikusten den bezala, geografia ez da bere baitan faktore abiarazle edo erabakigarri bat, errazte faktore bat da. Faktore erabakigarria komertzioa egiteko beharra da, edo kolonizatzekeo nahian komunikatzeko hizkuntza baten beharra.

### ► **Hiri-faktorea**

Hiria punpa gisa erabiltzen da, hizkuntzen hedapenaren mugimendua azeleratuz (Calvet, 1987: 131). Oro har, ohartzen da hirietako biztanleek errazki ordezkatzeko dutela hizkuntza, baserrikoek baino maizago. Baserriko biztanleriak beste hizkuntza-komunitate batetik edo beste hizkuntza-aldaeretatik bere burua kontzienteki isola dezake, edo benetan isolatuago egon nahi gabe (Fishman, 1972: 126-127). Hemen ere hiri-faktorea errazte faktore bat da, zeharkako faktorea.

### ► **Faktore ekonomikoa**

Harreman komertzialez hizkuntza-komunikazioa inplikatzeko dute eta, beraz, hizkuntza komun bat. Gaur egun ingelesa da nazioarteko merkataritzako hizkuntza. Immigrazioaren kasuan, harrera-herriko hizkuntza beharrezkoa izaten da lan-munduan.

### ▼ **Erliziozko faktorea**

Hizkuntza batzuen hedapena erlijio berezi bati lotua izan da, hala nola arabiera islamari, sanskrito hinduismoari, latina katolizismoari, etab. Hizkuntza horiek literarioak eta sakratuak ziren. Aipatu dugun hebreera, adibidez, Kristo aurreko judaismoaren hizkuntza zena, liturgia hizkuntza izateaz gain, hizkuntza mintzatu bezala berreskuratu ondoan, Israelgo hizkuntza nazionala bilakatu da XX. mendean.

### ▼ **Faktore militarra**

Hizkuntzak inbasio militarrekin batera ere hedatzen dira, inbaditzaileen edo konkistatzaileen hizkuntza inposatuz. Latina da adibideetatik ezagunena behar bada, hizkuntza erromanikoen iturburua. Arestian esan bezala kolonizazioak eragin handia izan du europar hizkuntza batzuen hedapenean Asian, Afrikan, Amerikan, Ozeanian eta hizkuntza autoktono asko hondatu eta galdu dira (Martí eta beste, 2005: 317-319).

### ▼ **Faktore politikoa**

Hizkuntzen hedapena botere politikoari ere lotu zaio. Hizkuntza batzuk, nazio-hizkuntzak izanik, estatu hedakorrekin hedatzen dira. Lurraldeko elitea estatu hedakorreko hizkuntza ikasten hasten da eta tokiko administrazioan baliatzen du, estatuko administrazioarekiko harremanetan. Ondotik, gizarte-klase baxuetako jendeak bere burua behartuta ikusten du agintzen duen elitearen hizkuntza ikastera. Hau da Euskal Herrian Espainiako eta Frantziako nazio-hizkuntze-kin gertatu dena. Botere politikoak eragin handia izan du gaztelaniaren eta frantsesaren hedapenean, euskal elebakartasunaren desagertzera arte.

Hizkuntzen egoera eta geroa hautaketa politikoen menpean dago. Politikaren alor hori hizkuntza-politika deitzen da. Hizkuntza-politika hizkuntza-plangintzan gauzatzen da. Bi alor horiek 5. atalean azertuak dira.

### ▼ **Faktore kulturala, prestigioa**

Hizkuntza bat prestigioduna izan daiteke, bere literaturarengatik edota zibilizazio-hizkuntza izateagatik, esan nahi baita munduko zibilizazio-mota bati lotua izateagatik (ingelesa mendebaldeko zibilizazioari, grekoa, latina, mandarin-txinera, etab.).

Hizkuntza baten edo barietate baten ezagutzak gizarte-mugikortasuna eta igoera eragin diezaioke hiztunari, batez ere goi-mailako klase soziokulturalena bada. Hizkuntza edo hizkuntza-barietate horrek prestigioa irabazten du. Ikusi dugun bezala, kolonizatzaileen hizkuntzaren kasua izan daiteke. Baina euskara batuaren kasua ere bada, euskalkien aurrean, euskaldun zahar batzuentzat. Prestigioak botere ideologiarekin dauka zerikusia.

Hizkuntza prestigioduna eta kultura-hizkuntza izatea ez da gauza arras berdina; literatura ospetsua izateak hizkuntzari prestigioa ematen dio. Prestigioa irizpide askotako faktorea da.

Halere, eragile kulturala pisu gutxikoa da eragile ekonomikoen eta politikoen aurrean. Horregatik, XIX. eta bereziki XX. mendeetan, XVIII. mendeko Europan gutxiengoak, eliteak edo gorteak erabiltzen zuen frantsesaren hedapena atzeratu da (Calvet, 1987: 270).

Horrela, nazioarteko merkataritzako hizkuntza izanik, zientzia modernoetako hizkuntza bakarra eta munduko lehen komunikazio-hizkuntza bihurtuz, ingelesa munduko **bigarren hizkuntza** erabiliena bilakatu da gaur egun, mandarinen atzetik. Ingelesaren berezko indarra handi handia da. Bizindar handi horrek bere hedapena indartzen du eta, alderantziz, hedapenak bizindarra handitzen du.

### Hizkuntza indartsuak eta ahulak: hizkuntza-darwinismorik ez

Hizkuntza-hedapena beste hizkuntza batzuen kalterako egiten da beti. Komunikazio-hizkuntzak edo nazioarteko hizkuntzak, hizkuntza desberdinetako edo herrialde desberdinetako hitzunek elkar ulertzeko erabiliak direnez, hizkuntzen arteko lehiaketaren ondorioak dira. Ondorioz, bi aukera badaude: edo beste hizkuntzei gehitzen zaizkie, edo aurreko lerroaldean ikusi dugun bezala, ordezkatu egiten dituzte.

Normalean, nazioarteko hizkuntzek ez dituzte besteak ordezkutzen. Komunikazio-hizkuntzak gizarte bateko klase baten hizkuntza bilaka daitezke, eliteenak, kolonizatzaileenak edo tokiko goiko klaseenak, adibidez. Transformazio-prozesuaren bidez kreolerak ere bilaka daitezke (3.2.4.).

Halere, azpimarratu behar da ikusmolde horrek deus ez duela ikustekorik hizkuntza-darwinismoarekin. Hona azken honen definizio bat: *Hizkuntzek Darwinen eboluzio-teorien arabera bilakaera dutela defendatzen duen hizkuntza-ideologia. Horren arabera, hizkuntza-komunitate indartsuenak gailenduko lirateke, ahulenak baztertuta* (UZEI, argitaratu gabe: 22).

Zabalkundeak ez dira ordezkapen prozesu naturalak; giza komunitateen, gizakien ekintzen ondorioak dira. Hizkuntza ahulenez ere beren lekua izan dezakete. Horretarako, hizkuntza-komunitate horren hizkuntza propioa biziraunarazteko borondatea azkar izan behar da, eta hori lortzeko politika egokia jarri behar da indarrean (5. atala).

#### 3.4.4. Euskararen hautaketa, jarraipena eta erdararen zabalkundea: beste ohar batzuk

Euskararen eta erdaren (gaztelania eta frantsesa) arteko aspaldiko erlazioek adibide ona eskaintzen digute 3.4. azpiatalean azaldu ditugun gogoetak, nozioak eta kontzeptuak irudikatzen. Alor horretan sartzen diren argitalpenak, lanak, ikerketak ugariak dira. Denak aipatzea edo laburbiltzea luzeegi litzateke. Hona, halere, gogoeta batzuk.

#### Faktore demografikoaz

Euskaldun-jendea, kopuruz, gutxiengoa da Euskal Herrian: biztanleen % 25,7 elebidunak dira eta % 15,4 elebidun hartzaileak, hots, euskaraz (ongi) hitz egin ez arren ulertzeko gai direnak (Eusko Jaurlaritza, 2008). Gainera, sakabanaturik daude, hiri handietan bereziki, erdaldunak kopuruz eta sozio-kulturaz nagusi diren inguruetan. Ipar Euskal Herrian Baigorri edo Hego

Euskal Herrian Markina herri euskaldunen adibideak dira. Orotara, hau da panorama demografiko orokorra. Oro har, euskaldunen kontzentrazio demografikoa ahula da.

## Belaunez belauneko transmisioa eta ingurune hurbila

Azpimarratu dugu jadanik nola garrantzitsua den euskararen familia bidezko transmisioa. Halere, familiatik kanpoko bizitzan, lagunartean, auzoan eta kale-bizitza hurbilean, euskararen presentzia murrizta izan daiteke, eta hori da usuenik gertatzen dena, euskaldunen kontzentrazio demografikoari lotua zaiolako.

Beraz, familiako transmisioa garrantzitsua izanik ere, ez da erabakigarria diglosia desorekatua gainditzeko. Esparru formaletan ez ezik, eskola salbu, gehienetan esparru informaletan ere euskarak indar handirik ez du.

## Euskararen berezko indarra eta ingelesarena

Ingelesaren berezko indarra, euskararenarekin konparatuz, oso handia da. Zalbidek eta Erizek *Zer ikasi nahiago dute gure arteko herritar heldu erdaldunek, euskara edo ingelesa?* galderari erantzunez hori erakusten dute (2008: 72-73). Mendebaldeko mundu osoan bezala ingelesa irakasteko kanpaina beharrik ez dago Euskal Herrian. Euskara irakasteko, aldiz, laguntza publikoa beharrezkoa da; euskara ikasteko nahia pizteko kanpainak beharrezkoak dira, bai heldu etorkinentzat, bai Euskal Herriko erdaldunentzat. Adibide horrek euskararen berezko indarra ingelesarena baino ahulagoa dela frogatzen du.

## Elebitasuna nahitaezkoa da

Elebidun edo eleaniztun izatea pertsona ikasien ezaugarria da, oraingo mundializazio egoeran, gero eta gehiago, beharrezko bilakatzen baita, edo hitzun-komunitate txiki batena. Euskaldunek hori aspaldidanik dakite eta, oraingo munduan ere, agertzen da euskara biziraunarazteko erdara ezagutzea beharrezkoa dela, kontraesankor iruditzen baldin bada ere.

## 3.5. ONDORIO GISA: HIZKUNTZEN EKOLOGIA, LEHEN IKUSPEGIA

Atal honetan, gizarte berean hizkuntza bat baino gehiago hitz egiten direnean, hizkuntza horien artean sortzen diren erlazioak azaldu dira, baita hizkuntza-komunitateen arteko erlazioak ere. Erlazio dinamiko horiek beraien gizarte-ingurunean aztertu dira. Hizkuntza-ukipenaren ondorio indibidualak, linguistikoak eta sozialak banan-banan erakutsi dira, jokoan diren prozesuak azalduz.

### 3. HIZKUNTZA-UKIPENA

Hizkuntza-ukipenari buruzko ikuspegi orokor eta globala eman nahian agertzen da **hizkuntzen ekologia** nozioa, hizkuntzen arteko erlazio konplexuak ulertzeko modelo bat ekartzen digu eta.

**Hizkuntza-ekologia:** *Hizkuntza baten eta bere inguru-menaren arteko harremanak aztertzen ditu* (Haugen, 1972). Ingurumena definitzeko kontuan hartzen ditu alderdi psikologikoak (hizkuntza horrek beste hizkuntza batzuekin duen harremana hiztunaren buruan) eta soziologikoak (gizartearekin duen harremana komuni-kazio bide gisa).

Ekologiak organismo bizien eta ingurunearen arteko harremanak aztertzen ditu eta ez dira izaki bizidunak. Halere, zientzia biologiko horren hurbilketa zientifikoa baliagarria izan daiteke gizar-te-zientzietan.

Oro har, hizkuntzen eta hizkuntza-komunitateen arteko erlazioak ekologiaren ikusmoldearekin uler daitezke. Hizkuntzek eta hizkuntza-komunitateek elkarrekin dituzten harremanak sistema dinamikotzat hartzen ditu hizkuntzen ekologiak, eta haien arteko orekaren eta hizkuntza-aniz-tasunaren ikuspegitik aztertzen ditu. Desorekatik aldaketa, erregulazioa sortzen da.

Hizkuntza bakoitzak bere **zoko ekologikoa** okupatzen du hizkuntza-ekosisteman, bere funtzioek eta ingurumenarekiko erlazioek determinatzen dutena (Calvet, 1999: 35). Asko aldatzen dira hizkuntzen egoerak munduan toki batetik bestera, eta eragiten dituzten faktoreak edo parametroak oso konplexuak dira. Hizkuntzen ekologiak tresna deskribatzaile zenbait ekartzen ditu horiek ulertzeko.

Maila gorena da hizkuntzen arteko mundu antolaketa. Munduko hizkuntzek *galaxia* bat egiten dute eta hiztun elebidunek elkartzen dituzte. Batetik, hizkuntza **zentralak** ditugu, adibidez, ingelesa mundu osoarentzat edo errusiera sobietar bloke ohian; bestetik, **periferikoak**, euskara bezalakoak. Eskuarki, hizkuntza periferikoko hiztunek hizkuntza zentral bat ikasten dute, edo goragoko hizkuntza bat bederen. Hau da joera orokorra, elebitasun bertikala.

Lau maila dira *hizkuntzen grabitazio-sistema* horretan: ingelesa bakarria maila gorenean, hamar bat hizkuntza bigarrean (arabiera, errusiera, frantsesa, gaztelania, india, portugesa, swahilia...), ehun bat hirugarren mailan (banbara edo wolofa Afrikan adibidez, txekiera edo armeniera Ekialdeko Europan) eta laugarrenean besteak (Calvet, 1999: 78-79), euskara tartean.

<b>1. maila</b>	Hizkuntza <i>hiperzentrala</i> ( <i>hyper-centrale</i> ): ingelesa
<b>2. maila</b>	10 bat hizkuntza <i>superzentral</i> ( <i>super-centrale</i> ): frantsesa, gaztelania, swahilia...
<b>3. maila</b>	100 / 200 hizkuntza zentral: banbara, wolofa, txekiera, armeniera...
<b>3. maila</b>	4.000 / 5.000 hizkuntza periferiko: euskara, okzitania, bretoiera...

**7. taula:** hizkuntzen grabitazio-sistemako mailak (Calvet, 1999).

Hizkuntza/gizarte bikoteak sistema autorregulatu bezala funtzionatzen du, giza egitatea kontuan hartzen duena. Hizkuntza egoeren autorregulazioa eta hizkuntzen barne-erregulazioa dira.

Kreolerak, adibidez, aklimatazio kasuak lirateke, belaunez belaun transmititzen diren hizkuntzak bilakatuak direlako ingurune berri batean.

Hizkuntzen ekologiak edo ekolinguistikak hizkuntzen eta ingurumenaren arteko harremanak aztertzen ditu, esan nahi baita hizkuntzen arteko harremanak, eta hizkuntza horien eta gizartearen artekoak; izan ere, gizartea hizkuntzen ingurumena da. Noski modelo hori metafora bat da, baina erlazio konplexu horiek ulertzen laguntzen digu, printzipio deskriptibo eta esplikatzailea ekarriz.

Modelo deskribatzaile eraginkorra izateaz gain, hizkuntzen ekologia hizkuntza-desberdintasuna mantentzeaz arduratzen da, hizkuntzek, denek, “txiki”-ek barne, gizadi osoari aberastasuna ematen diotela argudiatuz.

SOZIOLINGUISTIKA ESKULIBURUA

## 4. HIZKUNTZA-IDEOLOGIA ETA HIZKUNTZA-JARRERAK



*LIONEL JOLY CHARRASSE ETA BELEN URANGA ARAKISTAIN*





## 4. HIZKUNTZA–IDEOLOGIA ETA HIZKUNTZA–JARRERAK

### 4.0. SARRERA

Hizkuntzak, komunikatzeko ez ezik, taldea egiteko ere ezinbesteko tresnak dira. Hizkuntza bera erabiltzen duten pertsonen harreman-sare bat eratuta izaten dute eta sare horretako partaideek munduaren ikuskera edo mundua interpretatzeko modua partekatzen dute. Hizkuntza-komunitate horiek elkarren ondoan bizi dira eta botere-harreman ezberdinak izaten dituzte. Taldeen arteko elkarreragina arautzeko moduez dauden ikuspegi ezberdinek hizkuntza-ideologiak eragiten dituzte. Egoera elebidun, eleaniztun zein elebakarretan aritzeko moduez, justiziazko arauz eta eman beharreko urratsez arduratzen dira ideologiak.

Hizkuntzaren erabilera egokiaren eta hizkuntza-aldaera bakoitzaren erabilera-esparruei dagokienez, hizkuntza-ideologia arauemaile zorrotzak nahiz zabalagoak daude. Normalean hizkuntzaren estatusaren arabera joera bat edo bestea izan ohi da nagusi.

Horrek guztiak hiztunengan eragin zuzena du. Hitztun-komunitatearen errealitateak, hiztunen ideologiak eta abar, hiztunengan jarrera batzuk ala beste batzuk izatea ekarriko du eta horrek, zalantzarik gabe, eragin zuzena izango du hiztunen jardueran, hizkuntza bat ala bestea hautatzean, hizkuntza baten aldaera bat ala besta erabiltzean.

## 4.1. HIZKUNTZA–IDEOLOGIA

### 4.1.1. Definizioa

Hizkuntza-ideologia zabaltzen ari den terminoa da. Sorreran hizkuntza-antropologoek erabili izan dute eta soziolinguistikaren jarreraren inguruko ikerketekin zerikusi handia dauka.

Ezer baino lehen, terminoaren esanahi soziolinguistikoa egoki baloratzeko, *ideologia* bat zer den definitu beharko dugu. Autore batzuk ez dira ideologia linguistikoak aztertzearen alde, ideologia terminoa oso lausoa delako (Harold Schiffman, 2005: 1).

Harluxet Hiztegi Entziklopedikoaren arabera, ondorengo hau da ideologiaren definizioa:

**Ideologia:** garai, gizarte, talde, klase edo pertsona baten ideia–sistema, nolabaiteko doktrina filosofikoaren atala osatzen duena eta banakoaren nahiz taldearen jokabidea baldintzatzen duena.

Soziolinguistikaren alorrean ideologia linguistikoaren ikerketa-eremua mugatzeko, definizio bat baino gehiago erabili izan da. Oinarrian, **ideologia linguistikoak** konstruktuko kognitiboak dira. Hizkuntzei buruzko hautemate- eta balorazio-multzoak dira: hiztunak hizkuntzei balio morala, soziala edo politikoa ematen die. Ideologia linguistikoaren ikerketa-eremua konstruktuko kognitibo-afektibo horien azterketa da. Pertsonak hizkuntzei buruz egiten dituzten balorazioak aztertzea, alegia.

Ikerketa-eremua hizkuntza edo hiztun-talde zehatz bat izan daiteke, adibidez, euskararen inguruan dauden ideologiak, Antonio Tovar-ek egin zuen moduan (Tovar, 1980). Edo, oro har, hizkuntzei buruzko edo lengoaiaren balioari buruzko zeharkako saioak, adibidez, Europako nazionalismoen eta hizkuntzaren arteko lotura ideologikoa aztertu duten autoreak ditugu (Daniel Baggioni, 1997 eta Xabier Zabaltza, 2006).

Kontzeptua laburbiltzeko, Kataluniako hiztegi soziolinguistikoan agertzen den definizioa eman daiteke (Julen Arexolaleiba, 2005: 38):

**Ideologia linguistikoak:** hizkuntzaz hiztunak dituen sinismen-multzoak dira, eitura eta erabilera linguistikoa hautemateko duen modua arrazionalizatzeko edo justifikatzeko.

UZEIk argitaratu gabe duen hiztegiaren definizioa antzekoa da (UZEI, argitaratu gabe):

**Hizkuntza-ideologia:** pertsona edo giza talde batek hizkuntzei buruz dituen ideien multzoa. Ideologia hori erabilera, diskurtso edo portaera linguistiko jakin batzuen bidez adierazten da.

Definizio horiek adierazten duten moduan, hizkuntza-ideologia hizkuntza-irudikapenen, hizkuntza-jarreraren, hizkuntza-motibazioen eta hizkuntza-portaeren hiperonimo moduan uler daiteke.

### 4.1.2. Hizkuntza-ideologiaren funtzionamendua

Ideologia soziolinguistikoak aldakorrek eta interaktiboak dira. Gizarteak sortzen ditu eta hiztunei, kulturazio prozesuaren bidez eskuratzen dizkie. Errealitatea hautemateko tresnak ematen dizkio hiztunari. Norberaren portaerak arrazionalizatzeko balio dute. Horrela, ikasitako eta barneratutako hizkuntza-ideologiak erabiliz, hiztunak bizi duen errealitateari esanahi bat ematen dio. Beraz, hiztunaren ekintzak eta portaerak ulertzeko ere balio dute.

Alderantziz ere, pertsonaren eguneroko bizipenek, interesek eta abarrek ideologia linguistikoak moldatzen dituzte. Horrela, pertsona baten ideologia linguistikoa konstruktua aldakorra da. Ideologiak eragina du errealitatean (portaeran), baina errealitateak ere eragina du ideologiaren bilakaeran.

Interakzio honen norabide nagusia aztertu izan duten soziolinguistek, gainera, erakutsi dute nola ideologia linguistikoek portaeretan eragina izan dezaketen eta nola corpusaren bilakaeran ere ondorioa baduten.

Adibidez, ume baten gurasoek ideologia soziolinguistiko diglosiko bat badute, ideologia linguistikoak eragina izango du hizkuntzaren hautapenean eta, beraz, portaeran. Beraiek elebidunak izanik, euskara eta gaztelania ezagututa, haien ustez euskarak erabilera-eremu informaletarako bakarrik balio du. Ondorioz nahiz eta haien umearekin euskaraz hitz egin eguneroko bizitzan, gaztelaniazko eskola batera bidaliko dute.

Ideologia linguistikoek hizkuntzaren estrukturaren bilakaeran ere eragin handia dute. Hitz egiteko modu bat prestigioduna bada, baliteke gizartearen nagusitzea. Eskuliburu honen bigarren atalean adibide bat baino gehiago aurkituko du irakurleak.

Beste adibide bat izan daiteke XIX. mendearen bukaeran eta XX. mendearen hasieran euskararen estatusaren eta corpusaren inguruko eztabaidetan nagusi zen garbizaletasuna. Mendearren erdialdean, euskara batua finkatzean, maila ideologikoak corpusean zein eragin handia izan zezakeen argi ikusten da, adibidez, Villasante eta Omaetxebarriaren eztabaidetan (Luis Villasante, 1951, 1952 eta Ignazio Omaetxebarria, 1951).

### 4.1.3. Hizkuntza–ideologiaren inguruko eztabaidak eta adibide batzuk

Aurreko azpiatalean ikusi dugun bezala, ideologiak erabilera linguistikoa baldintzatzen du eta erabilerak berak ideologia linguistikoaren bilakaera ere bai. Askotan, adibidez, hizkuntza minorizatu bat desagertzear dagoenean, bere erabilera sinbolikoa izatera baino iristen ez denean, hizkuntzaren aldeko jarrerak gora egiten dute. Fenomeno honi *artazien fenomeno*a deitu dio Philippe Martelek (Martel, 2001:18).

Beste hipotesi batzuk ere eztabaidagai dira. Silversteinek (1979, 1985 in Woolard, 2009: 215) **Whorf**-en hipotesia eztabaidatu du (Whorfen hipotesiaren aurkezpena hurrengo kapituluan egingo da). Bere ustez, ideologia ez da bakarrik kontzepzio kulturala, baizik arrazionalizazio bat, existitzen den praktika bat desitxuratzen duena. Silversteinen ikerketa-muga hizkuntzaren egitura da. Bere helburua ez da bakarrik estruktura linguistikoa arrazionalizazioaren subjektua dela frogatzea, baita arrazionalizazioak estruktura linguistikoan eragina duela erakustea ere.

Ideologia linguistikoen adibide anitz eman daitezke. UZEIko hiztegian, adibidez, ondorengo adibideak aurkitzen dira (UZEI, argitaratu gabe):

**Egozentrismo glotikoa:** hizkuntza–aniztasuna murriztu eta giza hizkuntza bakarra (norberarena) ezarri nahi duen hizkuntza–ideologia.

**Ekologismo glotikoa:** egozentrismo glotikoari kontrajarritako hizkuntza–ideologia. Balio eta indar bereko bi behar hauek bateragarri egitean du oinarria: 1) hizkuntzen ekologia naturalari eustea, hau da, hizkuntza–nazio bakoitzak bere ondare linguistikoa zaintzeko duen eskubidearen eta arduraren bitartez, munduko hizkuntzen aniztasuna gordetzea, eta 2) esparru mugatu eta jakin batean (hizkuntza desberdinetako nazioen arteko komunikazioa bideratzeko, hain zuzen), bigarren hizkuntza bat komunikazio–hizkuntza gisa ezartzea.

**Hizkuntza–abertzaletasuna:** hizkuntza aberriaren gorengo ezaugarritzat jotzen duen ideologia.

**Hizkuntza–darwinismoa:** hizkuntzek Darwinen ebolutzio–teorien arabera bilakaera dutela pentsatzen duen hizkuntza–ideologia. Horren arabera, hizkuntza–komunitate indartsuenak gailenduko lirarteke, ahulenak baztertuta.

**Hizkuntza–liberalismoa:** hizkuntza–ukipeneko edo –gatazkako egoeretan inolako esku–hartzerik ez egitea babesten duen hizkuntza–ideologia.

**Hizkuntza–pluralismoa:** gizarte bateko hizkuntza–komunitateen berdintasuna, hots, erabiltzen diren hizkuntza guztiek eskubide berak dituztela aldarrikatzen duen ideologia.

**Ideologia ekolinguistikoa:** hizkuntza–aniztasuna eta hizkuntzen arteko oreka gorde behar direla aldarrikatzen duen hizkuntza–ideologia.

Mundu-mailan eleaniztasunaren aldeko ideologiak badira (lehen aurkeztu diren *ideologia ekolinguistikoa*, *ekologismo glotikoa* edota *hizkuntzen pluralismoa*, adibidez), baina kontrako ideologiak ere anitz dira. Jean Claude Beacco-k (Beacco, 2000) hiru garrantzitsuenak aurkezten ditu artikuluetan:

- Hizkuntza-ideologia ohikoenak hizkuntzen artean ezberdintasunak daudela dio. Ideologia horren arabera hizkuntza batzuk besteak baino egokiagoak dira, normalean norberaren hizkuntza eta kultura besteena baino hobeto baloratzen da. Alderantziz, katalanek eta okzitanoek frogatu duten moduan, **autogorrito** fenomenoak hizkuntza gutxituaren hiztuna bere hizkuntza hizkuntza menderatzailea baino okerrago baloratzen bultzatzen du.
- Nazioaren hizkuntza-ideologia. Honen arabera, hizkuntzak nazioa definitzen du eta, beraz, muturrera eramanda, nazioaren onerako estatuko beste hizkuntzak eta barrietateak desagertu beharko liriateke. Muturreko kasuetan hiztunak desagerraraztea proposa daiteke, alegia, genozidiorako deia egitea.
- Azken hizkuntza-ideologia nagusia ekonomiaren ideologia da. Ideologia honen arabera, eleaniztasunak kostu bikoitza du: batetik, ekonomikoa, itzulpenen kostua; eta, bestetik, munduko pertsonen arteko komunikaziorako dakarren kaltea. Bi eskola nagusi daude honen baitan: *basic english* baten hedapenaren alde egiten duten ekonomialariak eta politikariak, alde batetik; kasu honetan, nazio baten eredu kulturala, modu hegemonikoan, munduko eredu moduan ezartzea litzateke. Eta, bestetik, labortegiko hizkuntza baten alde egiten duten autoreak ditugu, adibidez, esperantoaren alde egiten dutenak (Claude Piron, 1994).

#### 4.1.4. Hizkuntza–ideologia eta iritzi publikoa

Ideologiak konstruktua bat direla ikusi dugu, eta iritzi publikoa ere konstruktua bat da. Pierre Bourdieuk bere obra osoan iritzi publikoak analizatzeko haien desegituraketa egin du. Iritzi

publikoa eraikin bat bada, eta bere analisisa egiteak konstruktua hura deseraikitzea eskatzen du, atzean dauden indarrak eta interesak ezagutu ahal izateko (Bourdieu, 1994).

Ideologia linguistikoak pertsonalak dira, bakoitzak bere ideologia linguistikoa du, bere inguruko kulturaren, bere irudikapen eta bere bizipen sozialen eta linguistikoaren arabera. Esan dugun moduan, ideologia hori aldakorra da. Noski, pertsonala da, baina giza talde baten edo **hizkuntza-komunitate** baten ideologia linguistikoa azter daiteke. Kasu honetan autore batzuek **iritzi publiko** baten azterketa egiten dela diote.

**Iritzi publikoa:** giza talde jakin baten uste, balio eta aurreiritziak.

Iritzi publikoa ez da berez existitzen den zerbait eta ez da bakarra. Ikertzaileak hautatu duen laginaren azterketaren ondorioa da. Gainera, iritzi publikoa, eraikia izanik, publizistak, soziologoak, psikosozialak eta politikari batzuk eraikitze horretan eragiten saiatzen dira.

Adibidez, berez, ejertzoak ez dira inon balio positiboekin lotzen, negatiboki markatuak dira. 2000ko hamarkadan Europako hainbat gobernu haien ejertzoen aldeko publizitate-kanpainak egiten hasi ziren iritzi publikoen marka horiek aldatzeko. Ejertzoak bakearen irudiarekin eta gurutze gorriarekin lotu ziren publizitate kanpaina haietan. Ondorioz, ejertzoak giza laguntza banatzeko balio zutela zirudien, besterik gabe, marka negatibo izatetik positibo izatera pasatu ziren.

Norbanakoaren kognizioa eta, beraz, iritzi publikoa alda daitezke. Normalean ez da fenomeno kontzientea, inkontzientea baizik.

Hizkuntzaren kasuan, hizkuntzari buruz giza talde batek duen iritzia aldatzeko saioak ere egiten dira. Horri soziolinguistikari hizkuntza-jarreraren plangintza deitzen zaio.

Eusko Jaurlearitzak 2005etik aurrera, UKAN kanpainarekin, euskara balio positiboekin lotu nahi izan zuen. Beste plangintza bat egin zuen 2009an *Pixka bat es mucho* kanpainarekin. Gipuzkoako Foru Aldundiak ere euskara aire freskoarekin lotu nahi izan zuen 2005. urtean *Aire, aire euskarari!* kanpainarekin.

Kanpaina horien helburua euskarari buruz dagoen iritzi publikoa baikorra izatea da. Hizkuntza balio positiboekin lotzen bada, teoriarik, bere erabilera igo behar da. Izan ere, norberaren izate kognitibo-afektiboan, euskara eta euskararen erabilera sentsazio positibo eta atseginekin erlazionatzen bada, gehiago erabiliko da.

## Iritzi publikoa eta hizkuntza: hizkuntza-irudimenaren eraikuntza

Ideologia linguistikoek imaginario edo hizkuntza-irudimen bat osatzen dute. Batetik, hizkuntzaren barne-arauak finkatzen ditu, hau da, zer den zuzena eta zer ez bereiztea ahalbidetzen du. Adibidez, *Liburu bat hartu dut* esatea zuzena da, baina ez *Bat liburu dut hartu*; eta, bestetik, erabileraren arauak ere finkatzen ditu, adibidez, zein estilo edo hizkuntza erabili behar den egoera

#### 4. HIZKUNTZA-IDEOLOGIA ETA HIZKUNTZA-JARRERAK

jakin batean modu egokian aritzeko. Gainera, hizkuntzak identitatean betetzen duen papera ere finkatzen du; adibidez, pertsona batzuen eta giza talde batzuen arabera, hizkuntzak komunikatzeko tresnak dira, besterik ez, eta beste batzuentzat hizkuntza taldearen nortasunaren funtsezko elementua da.

Faktore ugari eragina dute hizkuntza-irudimenaren eraikuntzan. Adibidez, lexikografoek hiztegi bat sortzen dutenean, arau batzuk sortzen eta finkatzen dituzte; hizkuntzaren zabalkundea gauzatzeko moduak ere eragina du, baita alfabetizazioaren historiak, hizkuntzak nazioaren eraikuntzan izan duen paperak eta abarrek ere. Oro har, hizkuntzaren inguruan historia osoan zehar jaso diren gertakariak hizkuntza-irudimena osatzen dute.

### Hizkuntza-irudimenaren ereduak

Hizkuntza-irudimenari dagokionez, hiru eredu nagusi ezberdintzen ditu Branca-Rosoff-ek (Branca-Rosoff *in* Boyer, 1996: 98).

Lehenengo eredu instrumental da eta kontzeptu honen osagai garrantzitsuena erregulartasuna da. Irregulartasunak sistematik at geratu behar dira. Esperantoa adibide garbia da, hizkuntza-laborategi batetik sortutako hizkuntza hau guztiz erregularra da, hizkuntza matematikoa dela esan daiteke.

Bigarren eredu *ondraduaren eredu* da. Elite mundutar baten erabileraren arabera finkatzen dira hizkuntza-arauak. Gortearen edo elite baten hizkuntza da zuzena kasu honetan, eta hizkuntzak ezberdintzeko balio du: gizarte-klaseak haien artean eta baita nazioak haien artean ere. Araua preskriptiboa da (modu honetan esaten da eta ez beste modu horretan), elitearen hizkuntza “zuzenaren” arabera finkatua.

*Egiazko eredu* da hirugarrena. Kasu honetan eremu geografikoa eta herria nabarmentzen dira, eremu geografiko horri dagokion biztanle-multzoa. Hizkuntza herri batena da, eta identitatearen defentsa (hizkuntzarena) etengabekoa da, hizkuntzaren garbitasunari eusteko.

Ideologia soziolinguistikoa bat osatzeko, benetako egoerak aztertzerakoan, ereduak nahasten direla ikusten da. Frantziako iritzi publikoak hizkuntzaz duen balorazioa eta barneratu dituen egiturak xehe aztertu ditu Henri Boyerek (Boyer, 2000 eta 2001).

Frantziako eta Espainiako kasuen azterketa Xabier Erize Etxegaraireren tesian ere aurki daiteke (Erize, 1997: 79-92). Boyerek, Frantziako kasuan hiru errepresentazio azalarazten ditu:

1. Hizkuntza historikoen hierarkia azaltzen duen errepresentazioa. Honen arabera, hizkuntza batzuk (frantsesa besteak baino gehiago) egokiagoak eta politagoak izango liriteke eta horregatik unibertsalak izateko joera izango lukete. Filosofiaz hitz egiteko edo ideiak garatzeko besteak baino egokiagoak izango liriteke.
2. Bigarren errepresentazioa politiko-administratiboa da. Frantsesari dagokionez, hizkuntza *nazionala* eta hizkuntza *ofiziala* batzen dira eta Frantziako eremu geografikoan geratzen diren hizkuntzak kanpoan uzten dira. Ez dira zuzenki hizkuntzak, *patois* izendatutako jergatzat hartzen dira eta oso estigmatizatuta daude.



3. Hirugarren errepresentazioa hizkuntzaren zuzentasunari lotuta dago. Frantses hizkuntza perfektua izatera ailegatu omen da. Berak eta bere erabilerak bat eta bakarra izan behar dute; arau apurtzea, bariazioa egitea, intelektualaren eta adimenaren aurkako atentatua egitea litzateke.

Boyerek aurkeztutako hiru errepresentazio horien arabera, Frantziako ideologia soziolinguistikoak, eskolaren bitartez zabaldu denak, bi ezaugarri nagusi ditu debekuari lotuak:

1. Lehiakiderik ez: hizkuntza nazionalak ez du beste hizkuntza baten lehia onartzen.
2. Desbideratzerik, bariazorik ez: arau legitimo bakarra dago eta beste bariazio guztiak oso estigmatizatuak dira.

## Euskal Herriko iritzi publikoa eta hizkuntzak

Iritzi publikoa kontzeptuari gehienetan esanahi nazionala ematen zaio; adibidez, Alemaniako iritzi publikoaz edota Espainiako iritzi publikoaz hitz egiten da. Berez, horiek sinplifikazioak dira. Giza talde batekin lotzen da iritzi publikoa eta ez da bakarrik tipifikazio geografiko baten arabera egiten; adibidez, Espainiako gune orokorrean Andaluziako iritzi publikoa.

Euskal Herriaren kasuan, adibidez, hizkuntzei buruzko bi iritzi nagusi aurki daitezke gutxienez, eta neurri handi batean hizkuntza-gaitasunari lotuta daude. Euskaldunena, alde batetik, eta erdaldunena, bestetik. Euskaldunen kasuan, adibidez, hizkuntzek norberaren nortasuna zehazteko balio handia dute; erdaldunentzat, aldiz, hizkuntzek balio komunikatiboa dute batez ere (Nekane Larrañaga, 1996; Eusko Jaurlaritza, 1995).

Bistan da, beraz, iritzi publikoaz modu zientifikoan hitz egitea oso zaila dela. Ikertzaileak kontuan hartu behar du ikerketa bat giza talde bati zuzentzen diola eta talde horri buruzko informazioa eskuratuko duela, besterik ez.

### ► *Maila politikoa*

Lehen esan dugun bezala, iritzi publikoa eta ideologia linguistikoak eraikiak dira, ez dira, berez, jaiotzean heredatzen den zerbait. Hizkuntza-irudimenak mendeetan zehar eraikitzen dira, hizkuntzalarien, politikarien, intelektualen eta abarren pentsamenduaren eta hizkuntza-erabileren arabera. Politikari dagokionez, eta gizartearen hizkuntza-arauei dagokienez, euskara **minorizatu** izan da eta horregatik, ideologia soziolinguistikoa, autogorrotoari lotua izan da. Minorizazioa izan da ideologia soziolinguistikoaren ezaugarri nagusietako bat Euskal Herrian urte askotan. Diktadura frankistaren ondoren, beste indar batzuekin sartu da lehian, tartean euskararen normalizazioaren eta berreskurapenaren aldeko indarrekin.

### ► *Maila linguistikoa*

Hizkuntzaren barruko arau formalei dagokienez, euskara batuarekin, hizkuntzaren erabilera idatzia nahiko finkatuta dagoen arren, ez da horrela ahozkoaren erabileraren kasuan. Azken kasu horretan, ez dago arau finkaturik. Araua etengabe aldatzen ari da, eta elkarriketa negoziatu

#### 4. HIZKUNTZA-IDEOLOGIA ETA HIZKUNTZA-JARRERAK

behar da: eremu geografikoaren arabera (euskalkiak), pertsonaren arabera (euskaldun berria, euskaldun zaharra), identitatearen arabera, eremuaren arabera (leku honetan eta gai honi buruz ondo ikusita dago euskaraz egitea edo ez, edota normalean erabiltzen dugun hizkuntza da ala ez...), ideologia soziolinguistikoaren arabera (hizkuntza-autogorrotuari lotuta, nortasunari lotuta...), elkarriketaren formaltasuna, erabiltzen den erregistroa, etab.

Ikusten denez, euskararen erabileran aldagai asko sartzen dira lehiari eta erabilera zaildu egiten dute. Ondorioz, euskaraz hitz egiteko egin behar den negoziaketa sailhesteko, irtenbide errazena erdararen erabilera da. Izan ere, erdararen erabilera gehienetan ez dago markatua eta, beraz, ez da negoziaketarik egin behar.

##### ► **Maila ideologikoa**

Euskaldunen artean estatu-nazioa eta hizkuntza lotzen dituen ideologia oso hedatua izan da. Hizkuntzei talde-nortasuna definitzeko balioa ematen zaie.

Ideologia hau Europan oso zabalduta dago eta horren barruan bi gizarte-mota ezberdintzen dira: *Gemeinschaft* gizartea: *compuesta por personas que comparten la convicción de que están ancestralmente relacionados* (Martínez de Luna, 1998: 144), edo *Gesellschaft* gizartea: *compuesta por individuos ligados por la convicción de que sus intereses se verán mejor protegidos y promovidos formando parte como miembros de esa sociedad* (Martínez de Luna, 1998: 145). Bi gizarte-mota horietan hizkuntza eta nazioa oso lotuta daude, nahiz eta modu ezberdinean lotuta egon. Kasu batean, hizkuntza eta berezko taldearen identitate kulturala bat datoz eta, bestean, komunikatzeko tresna preziatuena estatuaren hizkuntza da, ez hizkuntza minorizatua.

Euskal Herrian, Europako beste kasu gehienek egoera aplikatzeko joera egon da; besteen ideologien kalkoa egin eta Euskal Herrian ezartzeko joera. Alegia, hizkuntza-irudimen honetan, euskaratik protagonismo handia lortzen du, nazioa lotzen eta batzen duelako. Fenomeno hau hizkuntzaren garbitasunarekin bat etorri ohi da.

Garbizaletasunari dagokionez, ez dugu ahaztu behar nazionalismo tradizionalaren eragina. Ezaguna da Sabino Aranaren hizkuntza-garbizaletasuna; gainera, bere ustez, euskararen erabilera mugak jartzeko tresna zen, erdaldunek, “maketoek”, Euskal Herriko gizartean eraginik izan ez zezaten (Corcuera, 1979: 433).

Dena den, Aranaren nazionalismo arrazialista (Todorov, 1989: 212) hizkuntzak kulturaren eta kulturazioaren duen garrantzia nabarmentzen duen ikuspuntuarekin lehiari izan zen hasieratik. Campion beste imaginario horren adibide garbia da.

XX. mendeko 50 eta 60ko hamarkadetan, herriaren eta hizkuntzaren arteko lotura egiten duen ideologia zabaldu zen eta Krutwigek bere *Vasconia. Estudio dialéctico de una nacionalidad* (Federico Krutwig, 1963) erreferentzia bihurtu zuen. Sapir eta Whorfen hipotesiak zabaldu egin ziren frogaz zientifikoa moduan.

Politikak eta nazionalismoak eragin aparta izan dute euskararen ideologia linguistikoen erakuntzan; horregatik, gaur egun, hizkuntzaren despolitizazioaren aldeko ikuspuntua zabaltzen ari da. Bi zatitan banandu daiteke azken ikuspuntu hau.

Alde batetik, hizkuntzak tresnak besterik ez direla esaten dutenak daude. Normalean, pertsona horiek elebakar erdaldunak edo euskaldun berriak dira, ez dute ondo ezagutzen euskara (zerbait ezagutzen badute) eta euskarari buruz hitz egitean ikuspuntu hau azalarazten dute. Beraien erdarari buruz hitz egiten dutenean (maila teorikoa bakarrik ez den maila batean hitz egiten dutenean, behintzat) hizkuntzaren karga afektiboa, emozionala eta nortasunarekiko lotura onartzen diote. Hizkuntza-politika aztertuz gero, berdina gertatzen dela konturatuko gara: nazionalistak (*nacionalistas*) abertzaleak dira eta neutroak direnak, ez-nazionalistak, besteak, alegia, erdal nazionalistak. Beraz, batzuk markatuak dira (nazionalistak); besteak, berriz, ez dira markatuak, haiek eta haien ekintzak normalak dira.

Bestetik, euskararen normalizaziorako hizkuntzaren despolitizazioa ezinbestekoa dela pentsatzen duten autoreak kokatzen dira. Autore batzuk euskararen despolitizazioaren alde agertzen dira, merkatu linguistikoko oso bat osatzeko nahiaezko ezaugarria delako. Ikuspuntu honen arabera, euskararen erabilera markatua ez izateko, aurreiritzi batzuei lotua ez izateko, gizartea euskaraz bizi dadin, ideologia-mota guztietako pertsonen osatua dagoen eta gai guztiez euskaraz hitz egiten duen gizarte bat behar da. Aldiz, euskararen erabilera markatua bada, politizatua, merkatu linguistikoko oso baten osaketa ezinezkoa da. Ikerketa askoren arabera, aldiz, gaur egun gehienetan euskararen erabilera markatua da; alegia, ez da normala ikusten edota aurreiritzi zehatz batzuei lotuta dago (Lionel Joly, 2004).

## 4.2. HIZKUNTZA–BOTEREA

### 4.2.1. Definizioa

Soziolinguistikaren ikerlerro batek hizkuntzen boterea analizatzen du. Ikuspuntu honen arabera hizkuntzek botere bat edukiko lukete, hau da, batzuek besteek baino botere handiagoa izango lukete. Egoera soziolinguistikoen azterketek, adibidez, argi erakusten dute nola hizkuntza batzuek beste batzuk dominatzen dituzten. Nola batzuk menderatzaileak diren eta beste batzuk menderatuak.

Hizkuntza-boterearen inguruan bi ikuspegi nagusi ezberdintzen ditu Olatz Olaso (2008): ikuspegi soziologikoa eta ikuspegi psikolinguistikoa.

### 4.2.2. Ikuspegi soziologikoa

Mackey izan da ikerketa-lerro hau garatu duen lehenetariko bat. Mackeyk dioenaren arabera, ondorengo hauek dira hizkuntza baten boterea ezagutzeko kontuan hartu behar diren ezaugarri nagusiak (Olaso, 2008: 24-25):

## 4. HIZKUNTZA-IDEOLOGIA ETA HIZKUNTZA-JARRERAK

1. Demografia (demolinguistika). Ezaugarri konplexua da, honako aldagaiak dituelako: tamaina edo hiztun-multzoaren kopurua, hiztun-multzoaren batez besteko *per capita* errenta, bidaiari-kopurua, biztanleriaren trinkotasuna edo konpaktazio-dispersioa, nazio-produktu gordina, erlijio edo ideologia batekiko atxikimendua, liburutegi publikoetan hizkuntza-komunitateko hizkuntzan zenbat argitalpen dauden eta hizkuntza horretan urteko zenbat argitalpen argitaratzen diren.
2. Hizkuntza bakoitzaren banaketa geolinguistikoa, hizkuntza ofizial moduan.
3. Hizkuntza bakoitzak errazten duen mugikortasun sozialaren neurria, gehienbat migrazioaren bitartez.
4. Hizkuntza bakoitzeko hiztun-multzoaren ekonomia edo aberastasuna.
5. Hizkuntza bakoitzarekiko ideologia nagusia: garatze/mantentze/galtzearen aldekoa.
6. Hizkuntza bakoitzarekiko kultura.

### 4.2.3. Ikuspegi psikolinguistikoa

Tajfel eta Turner-en (1979) gizarte-identitateari buruzko teoriak oinarri hartuta, Giles, Bourhis eta Taylor-ek **bizindar etnolinguistiko erlatiboaren** kontzeptua sortu zuten Quebecen frantsesari buruzko legea prestatzen zihardutenean (Giles eta beste, 1977). Teoria honen bitartez ikertu nahi dute nola eta zergatik hizkuntza batzuk besteak baino botere handiagoak diren, zergatik batzuek irauten duten eta beste batzuek ez.

Beraz, hasieran kontzeptu hau tresna analitiko gisa proposatu zen, gehiengoa zen frantsesdun komunitatearen egoera neurtzeko ingelesdun elitearekiko; hain zuzen ere, hizkuntza-politikako eta ondoren egin beharreko plangintzarako nondik norakoak erabakitzen lagutzeko (Bourhis, 2001).

Honela definitu zuten bizindar etnolinguistikoa: talde arteko egoeretan talde bati izaki kolektibo desberdin eta aktibo gisa jokatzeko aukera handiagoa ematen diona (Giles eta beste, 1977). Beraz, zenbat eta bizindar etnolinguistiko handiagoa izan talde batek, aukera handiagoak ditu hizkuntza-komunitate gisa bizirik irauteko egoera elebidun edo eleaniztun batean; eta alderantziz, zenbat eta bizindar etnolinguistiko txikiagoa, orduan eta aukera gehiago talde desberdin gisa jokatzeari lagatzeko.

Bi abantaila ikusi zaizkio kontzeptuari (Erize, 2004): batetik, zehatza izateaz gain intuitiboa ere badela, edozeinek ulertzeko modukoa, eta bestetik, konnotazio positiboa duela soziolinguistikan erabili izan diren bestelako kontzeptuekin konparatuta (heriotza, ahultasuna, autogorrotza...).

Hasierako formulazioak faktore objektiboen hiru multzo nabarmendu zituen (Giles eta beste, 1977):

**Faktore demografikoak.** Hitztunen kopurua (migrazioak, jaiotza tasa eta ezkontza mistoak kontuan hartuta) eta lurraldean zer-nolako banaketa dagoen neurtzen da (ikuspegi soziologikoan aipatuak).

**Babes instituzionala.** Talde etnolinguistikoak zenbaterainoko ordezkapena duen erakundee-tan neurtzen da; babes informalak adierazten du taldeak zenbateraino antolatuta duen bere burua presio-talde gisa hainbat arlotan eragiteko; babes formalak, berriz, talde etnolinguistikoak zein neurritan dagoen ordezkatuta erabakiak hartzeko postuetan, negozioetan, industrian edo era-kunde publikoetan.

**Estatusa.** Hizkuntzaren prestigioarekin du zerikusia. Estatus ekonomikoa, soziala, sozio-histo-rikoa eta hizkuntzaren estatusa (komunitatean eta nazioartean) neurtzen dira

Hiru multzo horiek lotura zuzen-zuzena dute bizindar etnolinguistikoarekin. Zenbat eta demo-grafia aldetik osasuntsuagoa izan taldea, zenbat eta erakundeen kontrol indartsuagoa eduki eta estatus handiagoa aitortu, orduan eta errazagoa izango da talde horrek bere izaerari eta hiz-kuntzari eustea.

Kontzeptu hau bizindar etnolinguistiko (BIE) subjektiboaren kontzeptuarekin osatu du Bourhisek (1981); gizarteak bere bizindar etnolinguistikoak duen irudikapena ez du zertan izan benetan duen bizindar etnolinguistikoaren isla egokia. Azken hori neurtzeko galdetegi bat pres-tatu zuten eta Australian erabili zuten britainiar eta greziar jatorriko taldeen arteko harreman-ak ikertzeko (Bourhis eta beste, 1981).

Harrezkero, eredia zabaltzeko proposamena egin zuten eta Landry eta Allard-en eredu oroko-rra proposatu zuten (Landry eta Allard, 1984). Aurreko ereduari zenbait aldaketa egin zizkieten:

- Faktore objektiboen multzoei izenak aldatu zizkieten: kapital demografikoa (lehen-go bera), kapital politikoa (lehenko babes instituzionala), kapital ekonomikoa (babes instituzionalaren parekoa baina ekonomian) eta kapital kulturala (hau ere babes instituzionalaren parekoa baina komunikabideetan, hezkuntzan, erlijioan eta kultu-ran).
- Harreman-sareak gehitu zituzten.
- Maila psikologikoan bi faktore sartu zituzten: uste- edo sinesmen-sistema jarrereta-ra hurbiltzeko eta hizkuntza-gaitasuna.

Horren guztiaren emaitza hizkuntza-portaera da eta horren ondorioz bi elebitasun-mota bereiz daitezke: elebitasun gehigarria (ez duena bultzatzen norberaren hizkuntza galtzera) edo elebitasun kengarria (norberaren hizkuntza galtzera bultzatzen duena).

Ikerketa batzuek bizindar subjektiboa eta objektiboaren artean alderik ez egotea posible dela frogatu badute ere (GAO, 1990), normalean onartua dago zenbat eta bizindar subjektiboa posi-tiboagoa eduki talde batek, orduan eta aukera handiagoa duela handitzeko eta irauteko (Saint Blancat, 1985; Allard eta Landry, 1986).

Bizindar etnolinguistikoaren sortzaileek, jaso zituzten ekarpenak gehitzeko asmoz, euren ere-dua birformulatu egin zuten (Harwood eta beste, 1994) eta askoz ere eredu konplexuagoa sortu zuten, besteak beste, diskurtsoen azterketari buruzko atala gehituta.

Bizindar etnolinguistikoak Fishmanen hizkuntza-indarberritzeari buruzko teoriarekin batera era-bil daiteke, bata bestearen osagarri (Bourhis, 2001). Artikulu horretan Bourhis-ek Quebec-eko

## 4. HIZKUNTZA-IDEOLOGIA ETA HIZKUNTZA-JARRERAK

hizkuntza egoera aztertzen du eta egileak oraindik ere hasierako formulazioko terminologia erabiltzen du; izan ere, nahiz eta eredia eguneratu egin den, oraindik ere erabilgarria da, helburuen arabera, lehenagoko formulazioetan.

Gure artean bi lan nagusi egin dira bizindar etnolinguistikoaren inguruan:

- Gizarte-psikologiaren ikuspegitik aztertu zuten menpeko hizkuntzen ikaskuntza eta erabilera bizindar etnolinguistikoaren eta beste hainbat teoriaren arabera (Arratibel eta beste, 2001).
- Gipuzkoako bost herritan egin ziren neurketak (Usarralde; Martínez de Luna, 2004). Lanaren helburuetako batzuk ziren euskaren erabileran eragiten duten faktoreak identifikatu eta neurtzea eta herrien arteko konparazioa egitea. Beste helburuetako bat izan zen orain arte herri-mailan hizkuntza-plangintzaren alorrean egindakoa ebaluatzea eta aldian behin neurtzea bilakaera aztertzeko (Díaz de Tuesta, 2001).

Bost herritako bizindar objektiboa neurtu eta euskararen erabileran duen eragina aztertu ondoren, ondoko bi ondorio nagusiak atera zituzten:

- Zenbat eta bizindar etnolinguistiko handiagoa, orduan eta euskararen erabilera altuagoa. Bizindarra nolakoa, erabilera halakoa.
- Bizindar etnolinguistikoaren eta euskararen erabileraren arteko erlazioa ez da herri guztietan intentsitate berekoa. Bizindar etnolinguistikoa baxua denean, euskararen erabilerarekiko distantzia handiagoa da; aldiz, bizindar etnolinguistikoa altua denean, euskararen erabilerarekiko distantzia estuagoa da. Beste modu batera esanda, bizindar etnolinguistikoa baxua denean, euskararen erabilerarekiko lotura zehazten duen ratioa handiagoa da. Eta zenbat eta bizindar etnolinguistiko altuagoa izan, ratio hori txikiagoa da. Edo, bestela esanda, bizindarra neurri batean sendotzen denean, erabilera are nabarmenago igotzen da (Usarralde; Martínez de Luna, 2004).

### 4.2.4. Hizkuntza-merkatua

Hizkuntza-boterea modu askotara ulertu eta aztertu daiteke. 4.2.2. puntuan Olasok proposatzen zituen bi ikuspegi nagusiak aurkeztu ditugu. Ideologia linguistikoari kapitulu honetan leku handia eman zaenez, beraiekin jarraitu eta beste ikuspuntu bat emango zaio, hizkuntza-merkatuarena hain zuzen ere.

Aurreko kapituluan ikusi da ideologiak konstruktua bat direla eta interes batzuk suposatzen dituztela; politikoak, ekonomikoak, etab. Horrek hizkuntzaren inguruan merkatu oso bat garatzea ekarri du eta botere-interesak tartean daude.

Bourdieuaren arabera, komunitate batean dauden hizkuntzek merkatuan indar-harreman bat dute. Harreman horretan, botere eta prestigio handiena duenak erabakitzen du baita nola hitz egin behar den ere: zein hiztegi edota azentu erabili, adibidez.

Bourdieuaren iritziz, talde prestigidunak berari komeni zaizkion eta berarentzat egokienak diren arau linguistiko eta soziolinguistikoak hartzen eta inposatzen ditu. **Hizkuntza-komunitate** (ikus hurrengo kapituluan hizkuntza-komunitatearen definizioa) batean, hiztunak derrigorrez ezagutu behar ditu hizkuntza eta kulturaren inguruko arau horiek, bereziki menderatzaileekin harremanetan dagoenean, baina ez egoera horretan bakarrik. Auto-gorrotzailearen fenomeno arabera, menderatuak berak inposatzen dizkio menderatzailearen arauak bere buruari. Gainera, hizkuntza legitimoaren kodigoak ongi menperatzen ez direnean, **hizkuntza ez-segurtasuna** sentitzen da eta askotan hitzuna **gehiegizko zuzenketan** jausten da.

Hizkuntza-merkatua ez da lineala eta erabilera-eremu batzuek, azpi-merkatu batzuek, beraien arau propioak izan ditzakete eta arau menderatzailearekiko menpekotasun handiagoa edo txikiagoa eduki. Adibidez, administrazioan egiten diren erabilera formaletan menpekotasun handia dago, baina eremu informalago batean, lagunekin burutzen diren harreman informaletan, txikiagoa izan daiteke. Klase menderatuek propioak dituzten guneetan, sinbolikoki, arau menderatzaileak baztertuak izan daitezke.

Bourdieuak babesten duen tesiaren arabera, menderatzaileen kodeak hiru eginbehar ditu:

- Ludikoa.
- Kriptikoa: hizkuntza-kode bereziak sortzen dira beste pertsonak ez ulertzeko.
- Nortasun-funtzioa: hizkuntza taldearen ezaugarria eta besteengandik ezberdintzeko ezaugarri nagusienetakoa bihurtzen da.

Bourdieu z gain, beste autore batzuek ere irakurketa ekonomikoa soziolinguistikara aplikatu dute. Esaterako, Ferruccio Rossi-Landi *Language as work and trade* liburua argitaratu zuen (Rossi-Landi, 1983). Autore honek Saussure hartzen zuen abiapuntutzat eta Marx-en materialismo historikoan eta pentsaera ekonomikoan inspiratu zen teoria soziolinguistiko bat osatzen.

## 4.3. HIZKUNTZA-KOMUNITATEA ETA HIZKUNTZA-NORTASUNA

### 4.3.1. Hizkuntza-komunitatea

UZEIk hizkuntza-komunitatearen definizioa modu laburrean jartzen badu ere, kontzeptu horren interpretazioa aldarokorra izan da, ikertzaileen eta momentu historiko epistemologikoa-  
ren araberakoa. Peter L. Patrick-ek (2009) erakusten duen moduan, kontzeptu gatazkatsua da bere kontzepzioari dagokionez. UZEIren definizioa honakoa da (UZEI, argitaratu gabe: 22):

**Hizkuntza-komunitatea:** lehen hizkuntza bera duten edo hizkuntza berean mintzatzen diren pertsonen multzoa. Soziolinguistikak aztertzen duen unitate sozial nagusia da.

Mikel Zalbidetik aipatzen duen moduan (Zalbide, 2006: 238), kontzeptu honi izendapen anitz eman zaizkio hizkuntza guztietan eta bereziki euskaraz. Zalbidetik *hiztun-elkartea* erabiltzen du kontzeptu hau izendatzeko eta ondorengo izen hauek aipatzen ditu: *hiztun-taldea*, *hiztun-herria*, *komunitate linguistikoa*.

Richard A. Hudson-ek (Hudson, 1981), hainbat autoreren definizioak laburbiltzen eta aurkezten ditu (Lyons, Hockett, Bloomfield, Gumperz, Labov, Le Page, Bolinger) eta bere definizio propioa proposatzen du.

Laburbiltzeko, definizioak hiru ezaugarri nagusiren arabera aldatzen dira (Berruto, 1998):

- Hizkuntzaren ezaugarria.
- Oinarri sozio-geografikoaren ezaugarria.
- Arau soziolinguistikoaren ezaugarria.

Lehenengo ezaugarriak hizkuntza eta hizkuntzaren erabilera du oinarrian: hizkuntza-komunitatea hizkuntza jakin bat erabiltzen duen giza taldea da (Leonard Bloomfield, 1926). Hasieratik, gainera, aspektu komunikatiboa ere kontuan hartzen da, hizkuntza-komunitate bat hizkuntzaren bitartez harremanak dituen taldea da (Bloomfield, 1933). Definizio hau osatuz joan da. Horrela, John Gumperzek (Gumperz, 1971) hizkuntza-komunitatea eleanitza izan daitekeela dio; William F. Mackey-arentzat, aldiz, ez (Mackey, 1972).

Bigarren ezaugarria sozio-geografikoa da. Hizkuntza-komunitatea osatzeak eremu geografiko komun bat partekatzea inplikatzeko du. Horren arabera, hizkuntza-komunitatea entitate geografiko-politiko batean osatuko dute, hizkuntza bera konpartitzen duten pertsonak. Adibidez, autore batzuk hiri bat kontsideratu dute hizkuntza-komunitate bezala. Milroy eta Margayk Dublingoa aztertu dute, esaterako (Milroy eta Margay, 1980).

Hirugarren ezaugarria arau soziolinguistikoarena da. William Laboven ustez, adibidez, hizkuntza-komunitatea da arau soziolinguistiko berdinak konpartitzen dituen giza taldea. Alegia, hizkuntza erabiltzeko arau linguistiko berberak konpartitzen dituen eta, gainera, erabilera horietaz balorazio berdina egiten duen pertsona-multzoa (Labov, 1972).

Autore batzuek (Gumperz, 1971: 269) interakzioaren garrantzia azpimarratzen dute. Horrela, hizkuntza-komunitatearen barneko harremanak ugariak eta erregularrak izan behar dutela azpimarratzen dute. Beste autore batzuek, hizkuntza-komunitatea terminoa erabili baino, nahiago dute erabilera-komunitatea (*community of practice*) erabili (Eckert eta McConnell-Ginet, 1999: 185).

Ikusten denez, anitza da hizkuntza-komunitatearen definizioa. Autore batzuek bere balioa zalan-zalan jartzen dute konplexuegia delako (Ralph Fasold, 1996) edo, hizkuntza-komunitatea per-



tsonek osatzen dutenez, sinplifikazio handiegia delako pertsona horien guztien erabilerak eta balorazioak modu bakarrean sinplifikatzeak (Peter L. Patrick, 2009: 246).

Joshua Fishmanek sintesi interesgarri bat egin zuen (Fishman, 1971). Zalbidetik horrela laburbiltzen du Fishmanen definizioa (Zalbide, 2006):

**Hizkuntza-komunitatea:** aurrez aurreko interakzio linguistikoz (mintzajardunez, idatziz...) edota hiztun guztien integrazio sinbolikoaz, gutxienez gutxienez aldaera bat konpartitzen duten hiztun guztien multzoa da hiztun elkartea.

Euskal Herriko kasuan M.J. Azurmendik (Azurmendi, 1987: 265) hizkuntza-komunitatearen definizio berri eta integratzailea egin zuen, Olaso jasotzen duena (Olaso, 2008: 7). Fishmanen eredu oinarritutako definizio honetan bost osagai hartzen dira kontuan:

- Ingurune eta lurraldetasun politiko-juridiko-soziala.
- Hiztun-multzoa.
- Funtzionatzeko norma komunitario bereziak.
- Norberaren hizkuntzaren erabilera.
- Hiztun-multzoaren jokaera eta ekintzak.

Euskal Herriko hizkuntza-komunitatea aztertzean, maila sinbolikoa oso kontuan hartzea garrantzitsua da; alegia, hizkuntza-komunitatearen partaidea izateko zein ezaugarri behar den edo partaidea izatea Euskal Herriko biztanleriak nola definitzen duen aztertzea. Zentzu horretan aipagarria da Nekane Jausorok eta bestek *euskararen atxikimendu-komunitatea* deitu zutena. Talde horretan euskaraz aritzeko gaitasuna izan gabe, euskararen normalizazioaren aldeko jarrera zuten erdaldunak sartzen dira. Zonalde batzuetan, batez ere erdaldunetan, garrantzi handia izan zuten, beraiek sortu eta sustatu baitzituzten, adibidez, ikastolak eta gaueskolak (Jausoro eta beste, 1998).

Analisi hau egiten bada, ikusten da nola maila sinbolikoa gero eta garrantzi handiagoa hartzen ari den. Izan ere, euskaldunen hizkuntza-komunitatearen partaidea izateko borondatea da izan behar den ezaugarri nagusia biztanleriaren gero eta zati handiagoarentzat. Ikusiko dugunez, biztanleriaren hizkuntza-gaitasunaren arabera aldatzen da ikuspuntu hau (Joly, 2004).

### 4.3.2. Hizkuntza–nortasuna

UZEIk hizkuntza-identitatearen edo hizkuntza-nortasunaren definizio hau ematen du:

**Hizkuntza–nortasuna:** pertsona edo giza talde baten identitatearen eta hizkuntza baten artean dagoen lotura. Pertsona edo giza talde bakoitzak hizkuntza jakin batekin (edo gehiagorekin) lotzen du bere identitatea.

Norberaren identitatea bestearekiko konparaketaren arabera egiten da. Bourdieuk nortasunaren inguruan dioen bezala: *Cet être perçu qui existe fondamentalement par la reconnaissance des autres* (Bourdieu, 1982: 141).

Bestea existitzen delako, berarekiko egiten duen konparaketaren arabera definitzen du hiztunak bere burua eta, beraz, bere identitatea. Alegia, bestearen begien bitartez definitzen du bere burua. Identitatearen definizioan dialektika bat sortzen da: nork bere burua ezagutzeko bestearen jokaerak analizatu behar ditu, eta besteen jokaeren zergatiak ulertzeko, nork bere jokaera analizatu behar du.

Prozesu dialektiko horretan hizkuntzaren lekua zentrala da. Norbera edo komunitate bat definitzeko, identitatea definitzeko, nabarmenetarikoa den ezaugarria besteekin komunikatzeko ahalmena da, eta bereziki hizkuntza batez komunikatzeko ahalmena.

Grekoentzat barbaroak ziren grekoak ez zirenak, alegia, beste hizkuntza bat erabiltzen zutenak. Modu berean euskaldunen kasuan: euskaldunaren definizioa *euskaraz hitz egiten duena* da, besteak erdaldunak dira. Ikusten den bezala, karga afektibo batekin kontsideratzen da ezberdintasuna, eta historian zehar aldatuz joan da.

Hizkuntza eta nortasunaren arteko lotura ez da hizkuntzaren mailan bakarrik gelditzen, hizkuntza-komunitate orokor batean, azpi hizkuntza-nortasunak daude eta horiek, normalean, erabilera jakin bati lotuta daude. Adibidez, erabilera batzuek genero batekin lotura izan dezakete, alegia, gizonezkoek modu batean hitz egitea eta emakumezkoek beste modu batean; gizarte-maila izan daiteke beste identitate ezaugarri bat, etab. Oro har, aldaera- edo bariazio-mota bakoitzak identitate batekin lotura izan dezake, eta kontzienteak edo inkontzienteak, errebindikatuak edo ez-errebindikatuak izan daitezke (ikus eskuliburu honen 2. atala).

Identitate pertsonala ez da bat eta bakarra, egunean zehar adibidez aldatu egiten da, hiztuna langile, guraso, futbolaria, ehiztaria... izan daiteke egun berean. Aldaketa horiekin hizkuntzan eta hizkuntzaren irudikapenetan bariazioak egon daitezke. Horregatik, identitate soziala eta hizkuntza-identitatea ez dira lausoak eta mugiezinak, aldakorrak baizik. Oro har nortasun pertsonal eta gizarte-nortasunaren artean mediazio bat gertatzen dela esan daiteke (Tabouret Keller, 1996: 317).

### 4.3.3. Nortasuna, hizkuntza eta kosmobisioa

Soziolinguistikan bada modu hertsia bat hizkuntzaren identitatea definitzeko eta aztertzeko: pertsona edo giza talde baten identitatearen eta hizkuntza baten artean dagoen lotura aztertzea, hain zuzen ere. Hala ere, bada hipotesi bat oso zabaldua, nortasuna eta hizkuntza maila ideologikoan kokatzen dituen: Whorfen hipotesia, hain zuzen ere.

Europako nazioen eraikuntzaren prozesu historikoan eragin handia izan du Whorfen erlatibismo linguistikoak. Europako mentalitateetan oso sartuta dago eta egon da, eta Euskal Herrian indar handia dauka, bereziki euskaldunen artean.

Erlatibismo linguistikoaren jatorria urrundik dator eta, berez, Sapir (1884-1939) eta Whorf (1897-1941) maisuekin lotzen bada ere, kontzeptuaren oinarriak lehendik datoz; gutxienez Herder, Humboldt, eta Sapir-en irakasle zen Boasengandik. Hipotesi honen arabera, lotura bat egongo litza-teke hizkuntzaren eta pentsatzeko moduaren artean eta, beraz, hizkuntza eta kulturaren artean.

Alegia, hizkuntza bat mintzatzeak pentsatzeko era bat ekarriko luke, hizkuntza bakoitzak kosmobisio bat suposatuko luke, baita berari propioa izango litzaiokeen kultura bat ere. Erlatibismo linguistikoaren arabera, hizkuntzak determinatuko lituzke hizkuntza-komunitate baten kosmobisioa eta kultura. Horrela, hizkuntza eta nortasunaren arteko harremana ezin estuagoa litza-teke (Joly, 2009).

Whorfen teorizazioaren arabera, hizkuntzek kategoria-sistema bat osatzen dute, partikularra eta berezitua dena. Kategoria horien artean, kategoria gramatikalak edo hizkuntzen estruktura semantikoa aurkitzen dira, adibidez. Sistema horiek, hizkuntzari propioak zaizkionak, hiztunaren ikuspuntu kontzeptuala eta bere interpretazio estetikoak baldintza ditzakete.

Adibide famatuena eskimalen elurra izendatzeko modua da. Hizkuntza gehienetan hitz bakarra erabiltzen da; eskimalek, berriz, elurraren ezaugarrien arabera, 10 izen baino gehiago dituzte elurra izendatzeko. Amazoniako indigenen kasuan, gauza bera gertatzen da berdea kolorearekin, hitz bat baino gehiago dute berde ezberdinak izendatzeko.

Whorfen hipotesi hertsienaren arabera, hiztun elebakar baten hizkuntzak erabat baldintzatzen du bere kosmobisioa eta munduan duen ekiteko joera. Izan ere, honen arabera, munduko hizkuntzen estrukturak oso ezberdinak dira, eta estruktura horiek baldintzatzen dituzte hiztunen funtzio kognitiboak. Hala ere, ikuspuntu hori zalantzan jarri da bi modutan.

Alde batetik, zientzia kognitibistetako ikertzaileen kritika jaso zuen 1960tik aurrera, Chomsky eta bere jarraitzaileek munduko hizkuntzek uste zen baino estruktura unibertsal gehiago konpartitzen zituztela frogatu baitzuten.

Bestetik, hizkuntzek gizarte baten kultura, balioak eta orientazioak baldintzatu baino gehiago, horien isla direla frogatu zuten Fishmanek eta beste autore anitzek. Beraz, hizkuntza, kultura eta kosmobisioaren harremana ez da unilaterala, unibokoa eta norabide bakarrekoa: ez ditu hizkuntzak hizkuntza-taldeko hiztunen kosmobisioa eta kultura baldintzatzen, baizik eta bata besteari eragiten diote. Hizkuntzak eragina baldin badu kosmobisioan, kosmobisioak berak ere eragina dauka hizkuntzan (Joly, 2009).

### 4.3.4. Hizkuntza–nortasuna. Euskal Herriko kasua

Euskal Herriko eremu geografikoan, hizkuntza eta nortasunaren arteko harremana aztertzen direnean, konplexutasun bereziak agertzen dira: Euskal Herria eleanitza da eta, hiztunen hizkuntza-gaitasunaren arabera, kokapen geografikoaren arabera eta kokapen sozio-politikoaren arabera, aldakorra. Gainera, nortasun politiko-nazionala eta hizkuntza-nortasuna oso lotuta daude eta, berez, askotan gauza bera izango balira bezala aztertzen dira.

1990eko eta 2000ko hamarkadak aztertzen badira, hizkuntza-nortasunaz gizartean zabalduak diren irudikapenak gero eta konplexuagoak bihurtzen direla ikusten da, egoera eta errealitate soziolinguistikoa gero eta konplexuagoa delako (Joly, 2004).

Maila sinkronikoan, bi motatako azterketak egiten dira nagusiki euskal hizkuntza-nortasunaren nondik norakoak aztertzeko. Alde batetik, jendeari galdetzen zaio ea euskalduna, espainola edo frantsesa sentitzen den. Sarritan, kategoria nagusi horiei beste batzuk gehitzen zaizkie: nafarra, euskalduna eta espainola, euskalduna eta frantsesa, etab. Bestetik, euskalduna izateko zein ezau-garri behar diren galdetzen zaio.

Maila diakronikoan, Johan Järlehed-ek hizkuntza eta identitatearen arteko lotura aztertu du (Järlehed, 2008). Berak bost une edo praxi ezberdin aztertu ditu:

- Euskararen lekua euskal nortasun goiztiarraren artikulazioan, XVI. eta XVII. mendeen artean.
- Euskararen lekua Sabino Aranaren diskurtsoan.
- Euskararen lekua diskurtso zientifiko-kulturalean.
- Euskara oposizio eta erresistentzia-ikur bezala.
- Trantsizioaren garaia eta euskarari eman zaion lekua.

Beste autore batzuek ere euskararen lekua euskaldunen nortasunean kokatzen dute eta euskararen inguruko diskurtsoak aztertu dituzte maila diakronikoan, tartean Madariaga, Intxausti, Tovar, etab.

## 4.4. HIZKUNTZA–JARRERAK

### 4.4.1. Sarrera

Jarrerei buruz aritzea, gizabanakoek (eta taldeek) objektu, pertsona, erakunde edo ekimen zehatzen aurrean, alde edo kontra erantzuteko joerei buruz hitz egitea da (Icek Ajzen, 1988: 4).

Joera da jarrera, eta jarrera ezagutuz jokaerak aurreikusi nahi dira, ikuspegi psikologikotik abiatuz psikologia sozialera joanez.

Kontuan izan behar da jarreraren nolakotasunak ezagutzeak erkidego jakin baten pentsaera, sinesmenak, lehentasunezko gaiak eta nahiak ezagutzeko aukera ematen duela (Colin Baker, 1992: 9). Beraz, jarrerak aztertzean, norbanakotik taldera igarotzeko bidea egiten da.

Jarreraren inguruko azterketetan bi tradizio nagusitu dira (Ralph Fasold, 1996: 229): **ikuspegi mentalista** eta **ikuspegi behaviorista (konduktista)**.

- **Ikuspegi mentalistatik** abiatuta jarrera jokaerarako prestutasuna garatzen duen barne-sentimendua da, eta, beraz, ezin da zuzenean atzeman. Horregatik, haren izaera hainbat faktore kontuan hartuta ondorioztatu behar da. Ikuspegi horren baitan, jarrerak estimulu zehatzen aurrean nolabaiteko prestutasuna eragiten dituzten aldagaiak dira (Fasold, 1996: 229). Ikuspegi horrekin aritu dira lanean, besteak beste, Icek Ajzen (1988), Rebecca Agheyisi eta Joshua Fishman (1970), Robert Cooper eta Joshua Fishman (1974) eta beste hainbat ikertzaile.
- **Ikuspegi behavioristaren** tradizioan, ordea, jarrerak giza jokaeretan bertan daude, gizarte-egoerei erantzunez. Beraz, ikuspegi horretatik, jarrerei buruzko informazioa biltzeko nahikoa da jokaera horiek behatzea eta aztertzea. Hau da, jarrerak pertsonen portaeretan aurkitzen dira, estimuluari emaniko erantzun modura, eta, horrela, gertaeren deskribapenak eta azalpenak egin daitezke. Aztertzeko moduarengatik, erraztasun handiagoak ditu ikuspegi behavioristak, baina arazoak ere baditu, portaerak ezin dituelako iragarri; hau da, azalpenak ematen ditu, baina ezin du iragarpenik egin.

Esan bezala, jarreraren azterketek norbanakoen esparrutik (psikologiatik) giza taldeetara doaz (psikologia soziala). Ezagutza-eremu horren ikuspegitik jarrerak giza taldeen garaiko pentsaera, sinesmen, hobespen eta nahien adierazleak eskaintzen dituzte.

Hizkuntzen jarreraz aritzea, zehazki, hizkuntza edo aldaera desberdinetako hitzunek euren edo gainerakoen hizkuntzekiko duten jarreraz hitz egitea da. Hizkuntza jakin batenganako sentimendu baikor edo ezkorrak adieraztea, hizkuntza horren konplexutasun edo soiltasun linguistikoaz inpresioak ematea izango da; ikasteko duen erraztasunaz edo zailtasunaz, hizkuntza horren garrantziaz, dotoreziaz, estatus sozialaz eta abarrez. *Aldi berean, hizkuntza jarrerak hizkuntza hori hitz egiten duten hiztunei buruzko pentsamenduak adieraz ditzakete* (Fasold, 1996: 231).

**Hizkuntza-jarrera:** hizkuntza edo aldaera zehatz baten aurrean, alde edo kontra erantzuteko edo ekiteko joera da.

Ikuspegi mentalistaren arabera jarrera barne sentimendua da, eta, beraz, ezin da zuzenean atzeman. Ikuspegi behavioristaren ikuspegitik, aldiz, jarrerak giza jokaeretan daude. Nahikoa da jokaera hori behatzea jarrerak definitzeko.

## 4. HIZKUNTZA-IDEOLOGIA ETA HIZKUNTZA-JARRERAK

**Hizkuntza-jarrera** kontzeptuak oso gai-sorta zabala biltzen du bere baitan. Colin Baker-ek honako azpigaiak azpimarratzen ditu: hizkuntza baten aldaera soziala (soziolektoa), geografikoa (dialektoa) eta hizkera-moduen inguruko jarrerak; hizkuntza bat ikasteko jarrera; hizkuntza minorizatu baten inguruko jarrerak, hizkuntza bat erabiltzearen inguruko jarrerak; hizkuntza bat ikasteko gurasoen jarrerak eta hizkuntza-lehentasunezko jarrerak (Baker, 1992: 29).

David Lasagabasterrek beste azpigai hauek ere gaineratu ditu azken urteetako hizkuntza-jarre-rei buruzko ikerketa-lerro nagusi modura (Lasagabaster, 2003: 76): atzerriko hizkuntzei buruzko jarrerak eta horien ikasketa-prozesuetan duten eragina aztertzen dituzten ikerketak; ingele-sa *lingua franca* izatearen inguruko jarrerei erreparatzen dietenak; alboko hizkuntzei buruzko jarreraren ingurukoak, eta norberarengan duten eragina aztertzen dutenak. Bestalde, ikerketa ugarik frogatu dute hizkuntzen arteko ulergarritasun-mailan ere eragina dutela hizkuntza-jarre-rek, esate baterako, jarrera positiboak erraztu egiten duela ondo ezagutzen ez den hizkuntza bat ulertzea.

Hizkuntza-plangintzaren ikuspegitik hizkuntza-jarrerak aztertzea oinarrizko betebeharra da, hala, bere osotasunean, nola, hizkuntz(ar)en jabekuntzan eta jokaera sozialetan duten eragina ezagutzeko. Hizkuntza-plangintzarekin harreman estua duela esaterakoan komeni da honako ideia gogora ekartzea: ...azken finean, hizkuntza-plangintzak ez ditu helburu linguistikoak. (...) Giza jokaeretan eragina izateko ahalegin modura definitzea egokiagoa da, arazo linguistikoak konpontzeko saiakera-modua baino (Cooper, 1997: 48). Beraz, jarrerak ezagutzea ezinbesteko bihurtuko da jokaeran eragina izatea helburu bada.

### Hizkuntza-jarreraren inguruko azterketen garaiak

Oro har, hiru garai bereizi izan dira jarreraren inguruko azterketetan (Lasagabaster, 2003: 31). Lehenean (1920-1935), jarrerak neurtzeko metodologia garatu zen. Bigarreanean (1945-1965), komunikabideek jarreretan duten eragina aztertu zen gehienbat. Azkenik, hirugarrenean, 1970etik aurrera, jarreraren egitura, edukia eta funtzionamendua aztertu ziren.

Jarreraren ikerketen esparruan sortzen den arazo nagusietako bat zera da: kontzeptu psiko-soziologikoa izanik, ezin direla jarrerak zuzenean behatu eta neurtu. Behaketa modu berezituaren bitartez ondoriozta daitezke, inferentziaz, baina ez zuenean neurtu. Kontuan hartu behar dira, gainera, jarrerak baldintzatzen dituzten inguruko eragileak. Horien artean daude familia, lana, erlijioa, heziketa eta beste hainbat aldagai.

### Hizkuntza-jarrerekin erlazioa duten kontzeptuak

Arestian esan denez, interes handia du hizkuntza-jarreraren eta jokaeren arteko harremana eza-gutzeak eta azaltzeak. Gaur egun nagusi den ikuspegi mentalistaren arabera, hizkuntza batekiko aldeko jarrerak hizkuntza hori erabiltzeko, transmititzeko edo ikasteko joera markatuko du, besteak beste. Hala ere, jakina da hainbat aldagaik oztopa dezaketela joera horrek seinalatzen duen jokaera eta, ondorioz, gerta daitekeela hizkuntza hori hainbat esparrutan ez erabiltzea, ez transmititzea edota ez ikastea.

Jarrera eta **jokaeraren** arteko harremana aztertzen hasi aurretik, jarrera kontzeptuaren sinonimotzat hartu izan diren beste hainbaten inguruko azalpen laburra eskaintzea komenigarria da. Esate baterako, kontuan hartzekoa da **iritzi** kontzeptua. Iritziak, berez, estimulu zehatz baten aurreko sinesmenak edo pentsatzeko moduak dira. Baina erantzuteko joerarik, berez, ez dute erakusten. Erramun Baxoken hitzetan: iritziak dira norbere sentimenduen eta ideien adierazpenak. Jarrera da zerbait egiteko dugun joera (Bachoc, 2008: 63). Gainera, iritziak ahoz eman daitezke eta, aldiz, jarrerak, egoera psikologikoak direnez, ez dira agerian egoten, estalita baizik (Baker, 1992: 14).

**Hizkuntzaren inguruko iritzia:** hizkuntza horrekiko norbere sentimenduen eta ideien adierazpenak dira, ahoz adieraz daitezkeenak.

**Motibazioa:** ekintza edo jokabide baten iturburuan diren indar guztien bilduma.

Esate baterako, ohikoa izaten da jarrerak aztertzeko oinarrietan gai zehatzen inguruko iritziak biltzea. Adibidez, Eusko Jaurlaritzak buruturiko IV. Inkesta Soziolinguistikoa galdetzen zen zer nolako adostasuna duen mota honetako baieztapenekin: *Egjazki euskaldun izaiteko, euskaraz mintzatzen jakin behar da / Nahiago dut ingelesa ikasi, euskara ikasi edo hobetu baino / Nahitaezkoa da haur guztiek euskara ikastea* eta abar. Erantzunak, kasu honetan, iritziak izango dira eta ez jarrerak, nahiz eta jarrerak eraikitzeke oinarria izango diren.

Jarrerekin harremanetan dagoen bigarren oinarritzko kontzeptua **motibazioa** da. Kontzeptu honen inguruko hainbat eta hainbat definizio bil daiteke, eta guztien artean komunean duten ia ezaugarri bakarra da eragina duela pertsonen jokaeretan. Motibazioak azaltzen du zergatik erabakitzen duen pertsona batek ekintza bat egitea, esate baterako, hizkuntza bat ikastea edo erabiltzea; zenbateko ahalegina egingo duen eta zenbat denboraz eutsiko dion ahalegin horri. Baxoken hitzak berriro ekarriz, *motibapena da ekintza edo jokabide baten iturburuan diren indar guztien bilduma* (Bachoc, 2008: 63).

Jarrera eta motibazio kontzeptuak psikologiaren eta psikologia sozialaren baitan daude. Biek jokaera zehatz baterako nolabaiteko prestutasuna adierazten dute, eta ez bata ez bestea ez dira ageriko jokaerak; jarrerak jokaeretarako norabidea seinala dezake; motibazioak, ordea, norabide hori markatua du.

Motibazio kontzeptua bigarren hizkuntz(ar)en jabekuntzaren inguruko ikerketetan baliatu izan da nagusiki, erabakigarria baita motibazio eraginkorra izatea ikasketa arrakastatsua izan dadin, aurrerago ikusiko denez. Aldiz, hizkuntza-plangintzaren inguruko ikerketetan, hizkuntzen arteko gatazken ingurukoetan, hizkuntza-galera aztertzen dutenetan eta hizkuntzen biziberritze-gaitan biltzen diren ikerketetan, jarrera kontzeptua hedatuago dago, nahiz eta, sarri, jarreraren baitan motibazioa ere aztertzen den.

Hau da, jarrera eta motibazio kontzeptuen arteko bereizketa oso fina izan arren, badirudi ikerketa-tradizio zehatzei lotuta dagoela (Baker, 1992: 14).

## 4. HIZKUNTZA-IDEOLOGIA ETA HIZKUNTZA-JARRERAK

Atal honi amaiera emateko, interesgarria izan daiteke Erramun Baxokek arestian aipatutako azterketan egindako konparaketari erreparatzea. Euskararen ikaskuntzari buruzko iritzien, jarreraren eta jokaeren arteko desberdintasunak bildu zituen ikeritzaileak. Horretarako, euskara eskolan ikastearen inguruko iritziak ematen dituzten esaldiekiko adostasun-maila neurtu zuen:

- **Iritzia:** *Nahitaezkoa da haur guztiak euskara ikastea: ongi [iruditzen] zait, % 56.*
- **Jarrera:** *Haurrik bazenu eskolan euskaraz edo bi hizkuntzetan [ikastea nahi zenuke] ongi [iruditzen] zait, % 48.*
- **Jokaera:** *Zein hizkuntzatan egin zenituen ikasketak 1. mailan?: euskaraz euskaldunen % 12, herriarren % 4.*

Haur guztiak euskaraz ikastearen aldeko iritzia biztanlearen erdiak baino gehiagok aitortu dute; haurrik izanez gero euskaraz edo ele bietan ikasteko aldeko jarrera zortzi puntu beheragokoa da, eta errealitateak erakusten duenez, eurek euskaraz ikasi dutenen kopurua % 12raino jaisten da. Erramun Baxok honako interpretazioa eranstean du: *Urruntasun nabaria izanikan ere, iritzien ikerketak balio du, zeren-eta euskararen aldeko iritzirik gabe ez da jarrera baikorrik eta jarrera baikorra da, errealitatean, hautu eraginkorren iturburua* (Bachoc, 2008: 72).

### 4.4.2. Jarrerak eta jokaerak

Jarreraren gaineko ikerketak abiatu zirenetik oso eztabaidatua izan da jarrera eta jokaeren arteko harremana. Eztabaidaren muinean honelako galderak egon dira: jarrerak ezagutzeak jokaerak aurreikustea ahalbidetzen du? Iragar daitezke jokaerak? Hori izan da, hain zuzen, ikuspegi behaviorista eta mentalistaren arteko bereizgarri nagusietako bat; izan ere, lehen ikerketetatik agerian geratu zen, aitortutako jarreraren eta behaturiko jokaeren artean alde handiak gertatzen direla (Baker, 1992: 14). Sarri, alde nabarmena aurki daiteke pertsonak aitortzen dituzten jarreraren eta atzematen diren jokaeren artean. Nolanahi ere, badirudi gizakiek jarrera eta jokaeraren arteko oreka mantendu ohi dutela (Lasagabaster, 2003: 49) eta, beraz, bien arteko harremana izan, badela.

**Hizkuntza-jokaera:** hiztunak egoera soziolinguistiko jakin batean egiten dituen aukera linguistikoak. Komunikazio-testuingurua, solaskidea eta interakzio-lekua zein den kontuan hartuz, hizkuntza jakin bat aukeratu du, hizkuntza-erregistro jakin bat, eta abar.

Hala ere, jokaerak iragartzeko orduan kontuan izan behar da giza jokaera partikular guztiak aldagai-sorta bakar batek eragindakoak direla eta, beraz, aldagai horietako bakar bat moldatzea nahikoa dela erantzuna aldatzeko (Ajzen, 1988: 45). Horregatik, jokaerak iragartzeko probabilitatea ez da oso handia izaten. Nolanahi ere, jarreraren ezagutza ikerketa jarraituan oinarritzen bada, eta ikerketa horiek testuinguruko aldagai espezifiko eta orokorrak kontuan hartzen badituzte, jokaerak iragartzeko probabilitate handia izan ohi dute (Baker, 1992: 17-20).



Komenigarria da, bestalde, **jarrera aitortuen** eta **jarrera ezkutuen** arteko bereizketa egitea. Richard LaPierrek (1934) ondorioztatu zuen aitortutako jarrerren fidagarritasuna txikia zela, hau da, galdeketa zuzenaren bitartez jasotako erantzunak ez zirela nahi bezain ziurrak, eta komenigarria zela jokaerak behaketa zuzenaren bitartez neurtzea. Izan ere, aurreikusi gabeko hainbat aldagaik ere eragina izan ohi dute galdeketa horiei erantzuteko orduan. Valencia eta Isasik (1992) ondorioztatu zutenenez, honakoak dira, besteak beste, jarrerren inguruko erantzunak ematerako orduan eragina izan ohi duten bestelako faktoreak:

- **Gizarte-presioa:** gizartean onargarritzat hartzen diren erantzunak emateko joera izaten du inkestatuak.
- **Jarrerak portaera zehatzetan gauatzeko zailtasunak:** adibidez, nahiaren gainetik ezintasun psikiko edo sozialen eraginez.
- **Jokaera automatikoen garrantzia:** hainbatetan jokaera ez da hausnarketa kontziente batetik eratorria, ohiturek eraginda gauzatzen den jokaera baizik.
- **Ikertzaileak baldintzaturiko erantzunak ematea:** galdeketa egiten duenaren ezaugarriek (estatusa, sexua...) edo testuinguru fisikoak erantzuna baldintza dezakete.


Laburbiltzeko ondoriozta daitekeen ideia nagusia honakoa da: gai baten inguruko jarrerak ez dute zuzenean jokaera ziurtatzen, baina jokaera zehatz baterako prestutasuna eragiten dute.

Idea horren arabera, Icek Ajzen eta Martin Frishbein (1980) ikertzaileen eredua interesgarria da, jarreretatik abiatuta neurri onargarri batean portaerak aurreikus baitaitezke.



### 4.4.3. Jarrerren osagaiak

Ikuspegi mentalista batetik abiatuta, jarrerak alderdi kognitiboa, afektiboa eta konatiboa biltzen dituzte. Ikus 2. irudia.



**9. irudia:** jarrerren osagaiak (Ajzen, 1988; Agheyisi eta Fishman, 1970; Cooper eta Fishman, 1974).

## 4. HIZKUNTZA-IDEOLOGIA ETA HIZKUNTZA-JARRERAK

**Alde kognitiboa.** Ezagutza-arloari lotutako ideiak dira: iritziak, aurreiritziak eta sinesmenak. Ideia eta sinesmen horien arabera, hizkuntzak ezaugarri zehatzei lotzen zaizkie: hizkuntzak politak, ederrak, itsusiak, baliagarriak, baztertzailak eta sentimenduak adierazteko aproposak dira, besteak beste.

**Alde afektiboa.** Hizkuntzekiko sentimenduak biltzen dira alderdi honetan. Hizkuntzarekiko leialtasuna edota atxikimendua, identitate-sentimendua eta komunitatearekiko lotura bil ditza ke alde afektiboak.

**Alde konatiboa.** Jokaeratarako prestutasuna erakusten du alde konatiboak; egoera zehatze-tan erantzuteko joera definituko du.

Hiru aldagaien arteko harreman estuez erabateko adostasuna egon ez arren, soziolinguistika-arloan jarreraren ikerketek berebiziko garrantzia hartu dute; izan ere, badirudi hizkuntza edo aldaera desberdinen inguruko jarrerak informazio ugari ematen dutela pertsonak hizkuntza edo aldaera horiei buruz dituzten iritzien gainean, eta hizkuntza horietako hiztunen gainean ere bai.

Kontuan hartu behar da, bestalde, norbanakoarengan ez direla beti harmonikoak izaten jarre-ren hiru aldagai horiek. Adibidez, gerta daiteke hiztun batek hizkuntza batekiko adierazten dituen jarrerak bat ez etortzea bere jokaerekin: aurreiritzi kontziente eta ezkutuek eta sinesmen okerrekin oso sakon baldintza dezakete jokaerarako prestutasuna.

Jarreraren eta jokaeren arteko harremana aztertzen saiatzen diren ikerketak oso ugariak dira. Horietatik ondoriozta daitekeen ezaugarri nagusia da jarrerak ez direla jokaeren baliokide, ez dutela bermatzen zio bati modu zehatz batean erantzuteko prestutasuna, alegia. (Lasagabaster, 2003: 51).

### 4.4.4. Jarreretan eragiten duten aldagaiak


Jarrerak konfiguratzeko orduan biltzen diren aldagaiak identifikatzea izan da jarreraren inguruko ikerketen helburu nagusietako bat. Hainbat ikertzailek faktore genetikoaren eragina azpimarratu izan dute (Robert Baron; Donn Byrne, 1998), baina ez dago, itxuraz, adostasun nahikorik aldagai horren eraginaren inguruan. Hala ere, Lasagabaster-ek (2003) biltzen duen moduan, honako faktoreen eraginaren inguruan badago adostasun nahikorik:

- Gurasoen eragina: Robert Gardner-ek (1985), Ignaci Vilak (1998) eta beste ikertzaile ugari azpimarratu dute gurasoen jarreraren eragina seme-alabek izango duen jarreraren. Eragin hori bikoitza izango da: batetik, gurasoek rol aktiboa izango dute seme-alabengan sostengu eta pizgarri moduan; bestetik, rol pasiboa, euren hizkuntza-jarrerak biltzen dituen, bai hizkuntza ikasterakoan, bai hizkuntza hori hitz egiten duten hiztunenenganakoa.
- Eskolaren eragina: hizkuntzen ikasketetarako jarreraren eraikuntzan irakasleen eragina ikaskideena eta eskolarena ere kontuan hartzekoak dira. Komunikabideen eragina ere

garrantzizkoa da, batez ere telebistarena; ez soilik jarreraren eraikuntzan duen garrantziagatik, baita horiek aldatzeko duten rolaengatik ere, batez ere, pertsuasioaren edo limurketaren bidetik.

- Bestelako eraginak: egoera fisiologiko iragankorrek (adina, osasun egoera...), esperientzia zuzenek, erakunde sozialek eta erlijioek ere zer esana dute jarreraren eraikuntzan (Lasagabaster, 2003: 7).

Colin Baker-ek jarreretan eragina duten aldagaien eredu bat proposatu du galeseraren inguruko ikerketa bat oinarri hartuta. Ereduaren arabera, hizkuntza-jarreraren eragiten duten oinarriko aldagaiak generoa, adina, hizkuntza-esperientzia, eskola-mota, eta kultura-testuingurua dira.



**10. irudia:** jarreretan eragiten duten aldagaien arteko harremanen eredu orokorra sinplifikatua (Baker, 1992).

#### 4.4.5. Hizkuntza-jarrera positiboak eta negatiboak

Hizkuntza edo aldaera zehatz baten inguruko jarrera hizkuntza horren ospeari lotuta egon ohi da. Ospea gehienbat onarpen ofizialetik (estatus ofiziala, babes instituzionala, babes ekonomiko...) edota, identitate-emaile izaera tarteko, tradizio kulturaletik garatzen da, adibidez, literatura idatziak eta ahozkoak emandako estatusetik.

**Hizkuntza ofizialen** kasuan hizkuntzak berak ematen die ospe politikoa, ekonomikoa eta soziala hiztunei, eta hizkuntza prestigiodunen hiztunek beste hizkuntza batzuekin harremana dutenean (hizkuntza-ukipenezko egoeretan), ñabardurak sortzen dira.

#### 4. HIZKUNTZA-IDEOLOGIA ETA HIZKUNTZA-JARRERAK

Ukipenezko harremana hedatze-maila handiko hizkuntzarekin gertatzen bada, edo hizkuntza horrek mugaz haragoko beharriaz erantzuten badie, hizkuntza horrekiko **jarrera positiboak** agertuko dira, ez baditu, behintzat, taldearen nortasuna edota identitatea arriskuan jartzen. Esate baterako, mendebaldeko Europan Bigarren Mundu Gerratearen ondoren ingelesak hartu duen onarpen-mailak sortu duen jarrera oso aldekoa izan da ia oraintsu arte, hizkuntza hori erabiltzeak dakartzan abantailak handiak direlako mendebaleko gizartean. Nolanahi ere, Frantzia bezala Danimarkan edota Norvegian ere, hain positiboak ez diren jarrerak azaltzen ari dira ingelesaren hedaduraren aurrean; bertako hizkuntzaren erabilera-esparru zenbaitetan ingelesak hartu duen lekua kezka eragiten hasi da beste hizkuntza horien hiztun-komunitatean.

Ukipenezko harremana ospe gutxiagoko hizkuntzekin bada, hizkuntza ofizialeko hiztunek sarritan axolagabekeria edo gutxiespenezko jarrerak erakusten dituzte hizkuntza eta hiztun horiekiko (Martí eta beste, 2005: 299). Besteren artean, hori izan da munduko hizkuntzen galera-egoera larria eragin duen arrazoia. Stephen Wurm-ek dioen modura, *gaur egun galtze-arrisku bizioan dauden hainbat eta hainbat hizkuntza ez leudeke ataka horretan harremana izan duten hizkuntza handi eta nagusi diren hiztunen jarrerengatik ez balitz, horiek uste baitute elebakartasuna egoera normal eta desiragarria dela, eta ondorioz, mende hartutako hizkuntza zokoratzerara behartzen baitute...* (Crystal, 2000: 95).

Estatus ofizialik ez duten hizkuntzei dagokienez, ospe kulturalak eta erkidego-identitateak gartzatzen dute hizkuntzaren aldeko jarrera positiboa. Hiztunak hizkuntzarekin harro sentitzen badira, besteei entzutean gozatzen badute, ahal duten guztietan ahal bezain modu sortzailean erabiltzen badute, hizkuntza horrek etorkizunerako kondizio egokienak izango ditu. Crystalek dioen modura, hizkuntzarekiko jarrera positiboak sustatzea hizkuntzaren etorkizuna ziurtatzeko helburu bat da (Crystal, 2000: 97). Baina komunitate batek bere hizkuntza ordezkatzeko presioak jasotzen baditu, nahiz eta hiztunek beren hizkuntzaz harro daudela adierazi edo aldeko jarrera aitortu, prestigio handiagoko beste hizkuntza baten aldeko ordezkatzek gertatzen dira, arrazoi pragmatikoak direla medio (Martí eta beste, 2005: 301).

Nolanahi ere, kontuan izan behar da hizkuntzarekiko jarrerak ez direla komunitate osoan homogeneoak izaten. Alde batetik, hirietako eta landa-inguruneetako biztanleen arteko aldea nabaria izan ohi da, batez ere, urbanizazio azkarraren eraginez. Bestalde, belaunaldi gazteek errazago aldatu izan ohi dituzte euren hizkuntzaren aldeko jarrerak, ospe handiagokoa denaren alde eginez.

Norberaren hizkuntzarekiko **jarrera negatiboak**, sarri, hizkuntzaren ordezkatzeko-prozesuak eragindako lotsa-sentimenduetan dute iturburua. Egoera hori oso nabarmena da munduko hizkuntza indigena askotako hiztunengan, baina baita Europako herrialdeetan ere, gutxiengo hizkuntzak estatuen asimilazio-politikapean daudenean. Gainera, hizkuntzen inguruko jarrerak hiztunen ingurukoak ere islatzen dituztenez, oso zabalduta daude hizkuntzen mailakatzeko behar aldean geratzen diren hiztunekiko jarrera negatiboak.

Historian zehar sortutako jarrera negatibo horien eragina modu ugaritan ager daiteke bazterretako hizkuntzetako hiztunengan: gutxiagotasun sentimenduak, lotsa eta konfiantzarik eza, ondorengoei norberak bizi izandako zailtasunak ekidin nahi izatea eta abar. Eragin hori norberaren hizkuntza ezagutzea ukatzeraino hel daiteke. Ezaguna da, esate baterako, migrazio mugiri-

menduetan pertsona etorri berri askok euren herrietan osperik gabeko hizkuntzetan hitz egiten badute, hizkuntza bera ukatzea (Uranga eta beste, 2008: 15).

Jarrera negatibo horiek, hainbat kasutan, kide gehienek hizkuntza gordetzeari eta erabiltzeari uko egitea eragiten dute. Mundu zabaleko hizkuntzetako lekukotasun ugari jaso dituzte, besteak beste, Hagège (1982), Lastra (1992), Crystal (2000), Würm (2001), eta Martí eta beste (2005) ikertzaileek azken urteetan.

Jarrera negatiboek, esan bezala, hizkuntza alboratzea, bere transmisioa etetea edota ez ikatea ekarri ohi du. Horrela, hizkuntzaren ekoizpen naturala (hiztun erkidegoan hizkuntza belaunaldiz belaunaldiko iragaita) eta erreproduktzioa (hiztun berriak irabaztea) galtzen dira (Europako Batzordea, 1996), biziraupenerako oinarritzko bi betebeharrak, hain zuzen.

Kontuan izan behar da, gainera, joera hori aldatzeko ahaleginak ere, oztopoz beterikoak izan daitezkeela. Norberaren hizkuntza ukatzerainoko lotsa sentitzen duen hiztuna edo komunitatea bere hizkuntzaren balioaz jabearazteak ez du arrakasta erraza izango. Zaila da hizkuntzaren kiko gogo sortzea etengabe bazterketara bultzatua sentitu den hiztunarengan, edota hiltzorian dagoen hizkuntza batean hitz egiten duela esan zaion hiztunarengan (Crystal, 2000:102).

#### 4.4.6. Jarrera integratzaileak eta jarrera instrumentalak

Hizkuntzen inguruko ikerketetan ondorioztatuenez, ukipenezko egoeretan hizkuntza bat erabiltzeko, alde batera uzteko edo ikasteko orduan eragina duten jarrerak gutxienez bi dimentsio dituzte: integratzailea eta instrumentala.

**Jarrera integratzaileak** ikuspegi soziala eta pertsonen arteko elkarrenganako eragina islatzen dituzte. Esan daiteke hizkuntza jakin batekiko jarrera integratzaileak lotura duela hizkuntza horrekiko atxikimenduarekin, edo hiztun-komunitate horrekiko edo talde horren kultura-adierazpenekiko identifikazio-mailarekin. Martí eta beste (2005) diotenez, komunitate elebakarretan jarrera integratzaileak nagusi direnez, hizkuntzaren kiko eta komunitatearen kiko afektuzko sentipenak sortzen dira; elebitasun- edo eleaniztasun-egoeretan, alabaina, gatazka sor daiteke, identitateen arteko tentsioak sortzen direlako (Martí eta beste, 2005: 298).

**Jarrera instrumentalek** hizkuntza edo aldaera horretan hitz egitearen ikuspegi pragmatikoa adierazten dute; hizkuntza edo aldaera bat onura ekonomikoarekin edo gizarte-mailan promozio aukerak handitzearekin lotzen bada, hizkuntza horrekiko jarrera instrumentalak garatuko dira. Ohikoak dira jarrera horiek, esate baterako, bigarren hizkuntza bat ikasteko orduan. Hizkuntza gutxituen kasuan, mantentzeko aukera egon daiteke hizkuntza horrek estatusa ematen duen neurrian, arrakasta soziala edo pertsonala izateko aukera handitzen bada, edota oinarritzko ziurtasuna eta biziraupenerako aukera indartzen badira (Baker, 1992: 32).

**Jarrera integratzailea:** hizkuntza horretako erkidegoaren parte izateari edo izan nahiari erantzuten dio. Hizkuntzen identitate-emaile izaeran ere adierazten da,


## 4. HIZKUNTZA-IDEOLOGIA ETA HIZKUNTZA-JARRERAK

baiza atxikimendu-sentimenduarekin ere. Hizkuntza-erkidegoaren parte direnen eta izan nahi dutenen joera adierazten du. Jarrera integratzailea motibazio sinbolikoarekin lotzen da, eta jarrera izanarazle modura ere definitu izan da euskal tradizioan.

**Jarrera instrumentala:** hizkuntza edo aldaera zehatz hori hitz egiteak dakartzan onurak kontuan hartuz, horren alde ekiteko joera. Onura horiek ekonomikoak edota sozialak izan daitezke.

Jarrera instrumentala **motibazio pragmatiko** modura ere ulertu ohi da, arrakasta motibazio edota truke-ordaineko jarrera modura ere definitzen da.

Euskararen kasurako Iñaki Martínez de Lunak hiru motibazio-iturburu bereizten ditu (Martínez de Luna, 1996: 48): **motibazio sinbolikoa**, Euskal Herriko partaide izateari lotua; **arrakasta-motibazioa**, gizartearen elite sozio-ekonomiko eta politikoen hizkuntza-ereduari jarraitzeari lotua; eta ezaguna den **motibazio pragmatikoa**.



**1.1. irudia:** arrakasta-ereduen balio-sistemen irudia. Unibertso sinbolikoa (Iñaki Martínez de Luna, 1996).

Martínez de Lunak aurkezten duen ereduen arabera, motibazioen eragina hizkuntza-eremuan agertzen da; inguruneko baldintzek **motibazio pragmatikoak** sortzen dituzte eta horiek hizkuntza-eremuan erabakigarriak dira. Mendeko hizkuntza ikasteko eta erabiltzeko prozesuak aurrera eramateko, abiatzean maila goreneko edo indar handieneko motibazioak behar dira (adibidez, Motibazio Sinboliko-I), batez ere inguruneko baldintzak hizkuntza horren kontrakoak

badira. Kasu horretan, motibazio sinbolikoak oztopo hori gainditzeko adinakoak badira eta, indartsu irauten badute (Motibazio Sinboliko-II), hizkuntza ikasi edo erabiltzeraino heltzea posible izango da. Euskarari dagokionez, kasu askotan motibazio sinbolikoak ez dira nahikoa inguruneak ezartzen dituen baldintza eskasak gainditzeko. Egoera horietan, ikas-prozesuari ekin eta eusteko zein erabilerarako ahaleginek porrot egiten dute.

**Arrakasta-motibazioei** buruz esan daiteke Euskal Herriko elite gehienen hizkuntza-eredua erdara izan dela eta oraindik ere horixe dela. Beraz, arrakasta-ereduaren aldetik ez da motibazio arrakastatsurik sortu. Sozialki arrakasta-ereduko hizkuntza erdara denez, euskarak eragin horren aurka egin behar du (Martínez de Luna, 1996: 50).

Nekane Larrañagak Euskal Herri osoko gaztetxoek jarreraren bilakaeraren azterketa egin zuen 1991tik 1999ra bitartean. Horretarako gazteek euskarari buruz idatzitako idazlanetan oinarritu zen. Bertan, euskararekiko bi jarrera-mota bereizi zituen: **jarrera izanarazlea** (jarrera integrazilea) eta **truke-ordaineko jarrera** (edo instrumentala). Lehenaren arabera, euskara norbere izateari edo izan-nahiari lotuta agertzen da honako iritziei lotuta: *Euskara gure hizkuntza da, euskaldun egiten gaitu, hizkuntza zaharra da, mantendu beharreko tradizioa da, Euskal Herriaren izaera eta oinarria hizkuntza da...* Truke-ordaineko jarreraren arabera, aldiz, euskara ikasiz gero zerbait jasoko da, esate baterako, lana topatzeko, ikasketetarako nahiz komunikaziorako baliagarria izango da...

Biak jarrera positiboak izan arren, lehenak eraginkorragoak direla ondorioztatu du ikertzaile horrek euskararen aldeko jokoerak (jokaera positiboak) aurreikusteko orduan (Larrañaga, 1992: 249).

Ikerketa honen emaitzetan bada azpimarratzeko ondorio bat: euskal gaztetxoek euskararekiko joerak denbora-tarte horretan berdintsuak izan arren, trukerako jarrera indartu egin da, hau da jarrera instrumentala garrantzia hartzen ari da denboran zehar. Gainera, azpimarratzekoa da, jarrera izanarazleek indar handiagoa dutela iparraldean EAEn eta Nafarroan baino, eta alderantziz, truke-ordaineko baliorik handienak EAEn jaso direla, eta txikienak Iparraldean (Larrañaga, 2006: 252).

Jone Miren Hernándezek eginiko Euskal Herriko gazteen jarreraren ikerketaren ondorioetan ere, jarrera instrumentalaren indartzea antzeman da.

## 4. HIZKUNTZA-IDEOLOGIA ETA HIZKUNTZA-JARRERAK

	EUSKARAREN ALDEKO JARRERAK	EUSKARAREN AURKAKO JARRERAK
LEHEN	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Euskararen ezagutza: gure hizkuntza da</li> <li>- Euskararen erabilera: <ul style="list-style-type: none"> <li>• Hurbileko komunitatean integratzeko baliagarria da.</li> <li>• Egunerokotasunean.</li> </ul> </li> <li>- Euskararen inguruko motibazioa: izaera eta izateko erari lotuta dago.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Euskararen ezagutza: existitzen ez den hizkuntza da.</li> <li>- Euskararen erabilera: hizkuntza mugatua da.</li> <li>- Euskararen motibazioa: baliorik gabeko hizkuntza da.</li> </ul>
ORAIN	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Euskararen ezagutza: ikuspuntu pragmatikoa, identitarioa, kulturala du.</li> <li>- Euskararen erabilera: pragmatikoa, militantea, egoera eta funtzio zehatzei lotuta dago.</li> <li>- Euskararen inguruko motibazioa: kulturala, politikoa, gizabanakoa, komunitarioa, pragmatikoa du.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Euskararen ezagutza: inposatua, onartua, errealitatean kokatua da.</li> <li>- Euskararen erabilera: funtzio gutxiko hizkuntza da, eskolan ikasitakoa, gustukoa ez dena, erabiltzen ez dena, nahikoa ikasten ez dena...</li> <li>- Euskararen inguruko motibazioak: biolentzia eta politikari lotua dagoen hizkuntza da, arraroa, <i>sentitzen</i> ez den hizkuntza...</li> </ul>

**8. taula:** Euskal Herriko gaztetxoek euskararen aldeko eta kontrako jarrerak (Jone Miren Hernández, 2000).

Euskararen inguruko diskurtsoak aztertu ondoren, I. taulan ageri denez, euskararen aldeko jarrerak, lehen, motibazio integratzailearekin identifika zitezkeen bereziki, honako adierazpideen bitartez emanak: *Gure hizkuntza da, hurbileko komunitatean integratzeko baliagarria da, izaera-ekin lotura du.* Aldiz, gaur eguneko balioetan ikuspegi pragmatikoa agerian jarri da.

Aurkako jarreretan euskara ukazioarekin lotzen zen lehen (ez da existitzen, edota *existitzen bada, erabilera mugatukoa edo baliorik gabekoa da*). Gaur egun, aldiz, euskararen ezagutza nabarmen zabaldu da, eta aurkako jarrerak bestelako ezaugarri negatiboekin adierazten dira: *inposatua da, eskola-hizkuntza da, gustukoa ez den hizkuntza da, menderatzen ez dena, biolentzia edo politikarekin erlazionatzen dena...* (Hernández, 2000: 67).

Beraz, bi joera nagusi ageri dira: euskararen inguruko sentimendu positiboak adierazten duen aldeko jarrera eta aurkakoa. Nolanahi ere, Hernándezek azpimarratzen du bi muturren arteko aldea gaur egun lehenagokoa baino txikiagoa dela; jarrera horiek *continuum* batean kokatzen direla, alegia. Halaber, kontuan izan behar da gazte gehiagok ezagutzen dutela euskara, baina ezagutzaren zabaltze horrek hiztunen motibazioetan aldaketak eragin dituela: euskara ezagutu arren ezagutza hori inposatua delako sentimenduak nabarmentzea, hizkuntza politizatuta dagoelako ideia agertzea edo *sentitzen* ez den hizkuntzatzat hartzen dela dioten adierazpenak jasotzea aldaketa horien lekuko dira.

Aipatu aldaketa oso agerian geratzen da EAEko gazteen euskararekiko jarrera ezberdinak aztertzerakoan. Euskara eskolan ikastearen ondorioz ezagutza asko zabaldu da, baina ezagutzatipologia desberdinak eragin ditu: *Euskararen hedatze-prozesua ziurtatu da baina, ezagutza behar bezala finkatzea lortu ez denez, euskararekiko motibazioetan eta euskararen erabileran izugarri*



antzematen da aldaketa: ikaste-prozesua era ezberdinetakoa izan daitekeenez, euskararen erabilerak eta euskararekiko sentimenduek forma asko har ditzakete eta, horrela, anbiguotasuna bultzatu. Hortik sortzen dira gaur egungo kontraesan nagusiak: euskara jakin bai baina erabili ez, euskara ondo jakin ez, baina motibazio altua adierazi, euskararekiko motibazio altua izan, baina euskara ikasi ez (Hernández, 2000: 79). Horiez gain, ohikoak diren arrazoiak ere ematen dituzte gazteek euskara ez erabiltzeko. Horien artean honakoak azpimarra daitezke: ezagutza-maila nahikoa ez edukitzea, ingurune gaztelaniadun bat izatea (familia, lagunartea, auzoa, hiria...), ohiko harremanetan ezarritako ohiturak eta euskarak ematen duen marka ekidin nahi izatea, besteak beste.

Euskararen marka identifikatzerakoan, euskara caseroa-rekin (baserritarra), gazte borrokarekin, edota gazte jatorraren (mendizaleak, kirolzaleak, kulturazaleak...) irudiarekin lotzen da. Aldiz, gaztelania, frantsesa, ingelesa eta alemana aukeratzeko orduan ematen dituzten arrazoiak honakoak izan ohi dira: *Horiek hizkuntza handiak eta boteretsuak dira, hiritarrak, konplexuak, irekiak, zabalak eta aukera ugari ematen dutenak*. Euskara, aldiz, hizkuntza txikitzat, sinpletzat, mugatuztat edo gatazkatsutzat hartzen dute gazte horiek (Hernández, 2000: 81).

Nafarroan, erabileraz gain, euskararen ezagutza zabaltzea da kezka iturri berezia. Hala ere, euskaraz dakiten gazteek hizkuntza hori ez erabiltzera bultzatzen dituzten arrazoiaren artean antzekoak izan ohi dira: ingurune hurbila gaztelaniaduna izatea, ingurunearen presioa, ohiko harremanetako ohitura, euskarak ematen duen marka ekidin nahi izatea... Izan ere, Nafarroan, euskaraz hitz egiteak marka nabarmenagoa uzten du; hizkuntzarekiko konpromiso eta atxikimendu berezia adierazten du, eta, sarri, konpromiso hori zentzu politikoan ulertzen da.

Gazte nafarren artean euskara dakitenek eta euskara defendatzen dutenek beren identitatea euskarari oso lotua dute. Esan daiteke, beraz, **motibazio integratzaileak** nagusitzen direla eremu horretan. Alabaina, sarri, erabilera bigarren maila batean kokatzen dute, eta horretarako aurkitzen dituzten arrazoiak maila sozialekoak dira gehiago, maila pertsonalekoak baino. Bestalde, jakin ez arren, euskara defendatzen dutenak ere ugari dira. Talde horietako kideek ere, hizkuntza identitatearekin lotzen dute, baita konpromiso politikoarekin ere, abertzaletasunarekin. Azkenik, euskara bitartekaritza dutenak ere badaude, motibazio pragmatikoak bultzatuta euskara ikasteko grina dutenak.

Euskal Herriko Iparraldeko euskararen inguruko jarrerak ezagutzeko interesgarria da Erramun Baxokek eginiko IV. Inkesta Soziolinguistikoaren irakurketa (Bachoc, 2008).

Baxoken iritziz euskararen aldeko motibazioa, Iparraldean, nortasun kolektiboan bilatu behar da, motibazio integratzailean, beraz. Eremu horretan, gehiengo handi batek bere burua euskalduntzat dauka, bereziki euskara dakitenen eta bertan sortuak direnen artean. Kontuan izan behar da hemen biztanleriaren gehiengo handiak nortasun bikoitza duela adierazten duela: euskalduna eta frantsesa. Beraz, Iparraldean, gehiengo handi batentzat biak izango dira etorkizuneko hizkuntzak; euskara eta frantsesa.

Erramun Baxokek inkestatuen jarrera ondorioztatu du Inkesta Soziolinguistikoak jasotako iritzietako erantzun baikorrak eta ezkorrak aztertuz. Euskararen erabilera eta ikaskuntza sustatzeari buruzko erantzunetan bildutako datuen arabera, populazioaren % 41,2 euskararen erabilera eta ikaskuntza sustatzearen aldekoak edo oso aldekoak dira. Kontuan izanda, inkestaren

#### 4. HIZKUNTZA-IDEOLOGIA ETA HIZKUNTZA-JARRERAK

arabera, elebidun eragileek eta hartzaileek populazioaren % 31 osatzen dutela, agerian geratzen da euskararen aldeko jarrera dutenak euskaraz dakitenak baino askoz gehiago direla (Bachoc 2008: 74), eta horiengan ere, motibazioa integratzailea nagusitzen dela. Euskararen aldeko jarrera sorlekuak baldintzatzen duela ikusi du, gainera; bertan sortutakoek jarrera baikorrakoak dituzte Euskal Herritik kanpo sortuak direnek baino. Bestalde, ikusi ahal izan da euskararen sustapenaren inguruan jarrera baikorrenak, esate baterako, barnealdean daudela.

Euskara sustatzeko jarrerak adinaren arabera aztertzerako orduan, Baxoken azterketan nabari da nagusiek jarrera aldekoagoa agertzen dutela gazteek baino, eta hor jartzen du Baxokek bere arreta, hain zuzen ere: *Gazteengan motibazioa sustatzen ez bada, hizkuntza-politikak ez du luzaz ondorio eraginkorrik emanen* (Bachoc, 2008: 76).

**Barne-motibazioa:** norbanakoaren barnean norbere uste, afektu eta nahietatik sortzen den motibazioa da.

**Kanpo-motibazioa:** norberarengandik at dagoen presioa dela-eta garatzen den motibazioa da.

UNESCO Etxeak erdaldunen euskararekiko aurreiritzien eta jarreraren inguruko ikerketa egin du (Aморrortu eta beste, 2009). Azterketa hori abian jarri zuten aipatu diren bi dimentsioak kontuan hartuta, hau da, dimentsio integratzailea eta instrumentala. Nolanahi ere, ikerketak berak eraginda, beste dikotomia-ardatz bat erantsi zioten. Dikotomia hori **barne-motibazioek** eta **kanpo-motibazioek** osatzen dute. Barne-motibazioak norbanakoaren barnean sortzen direnak dira, norbere uste, afektu eta nahietatik. Kanpo-motibazioak, norberarengandik at dagoen presioa dela-eta heltzen direnak dira. Gakoa da presio horrek nolako erantzunak eragiten dituen jakitea, kontuan hartuta presio hori desagertzerakoan erantzuna ere desagertzekeela (Aморrortu eta beste, 2009: 35-36). Hau da, adibidez, kanpo-motibazioak eremu jakin batean euskara erabiltzea eragiten badu, hau da, kanpoko presioak, nahikoa izan daiteke presio hori desagertzea eremu horretan euskaraz hitz egiteari uzteko.

Ikertzaile horien esanetan, barne-motibazioak zein kanpo-motibazioak balio integratzailea eta instrumentala izan ditzakete.

Ikerketaren alde kualitatiboak eman dituen emaitzen artean honako ideiak nagusitzen dira:

- Euskararen **balio instrumentalari dagokionez:** euskarak ez du, izatez, balio instrumentalik, batez ere ingelesarekin alderatuz gero, baina azken hiru hamarkadetan balio instrumentala irabazi du. Balio hori handiagoa da lan-esparru jakinetan, irakas-kuntzan esate baterako. Euskararen errekupeziorako balio instrumentalak garrantzi handia du baina ez da nahikoa. Zaindu behar da balio instrumental horren handitzea kanpoko presioaren eraginez soilik ez izatea.
- Euskararen **balio integratzaileari dagokionez:** euskarak badu norbanakoaren eta gizartearen nortasuna eraikitzeke balioa, hau da, euskal gizartearen integratzeko balioa. Baina garbi dago euskara jakin gabe euskal lurralde osoan bizi daitekeela. Horren

inguruan *bi mundu egoera* modura definitu duten kategoria agertzen da. Horren arabera, mundu bakoitzaren mugak euskararen ezagutzak jartzen ditu. Gerta daiteke *bi munduko* egoeran bizi den pertsona egoera horretaz ez ohartzea; euskararen mundu bat dagoela ohartzea eta ontzat ematea edota euskararen mundua dagoela onartuz ere, mundu horri urduritasunez eta gaitzespenez begiratzea.

Alde horretatik, esan daiteke ikerketa honek Hernándezek gaztetxoek hizkuntzekiko jarreraren ikerketan ondorioztatu zuen antzeko ideia baieztatu egiten duela. Ikertzaile horrek dioenez: *Euskal Herria eta bere hizkuntza-errealitatea zatituta agertu da historikoki bi talde ezberdinetan. Talde bakoitzak mundu bat osatzen du. Mundu homogeneous, globala, autonomia eta beste taldea-rengandik urrunda. (...) Zatiketa horrek bi hizkuntza-komunitate ezberdin nabarmentzeaz gain, bi unibertso ezberdinen existentzia azpimarratzen du* (Hernández 2000: 61-62).

Aipatzen ari garen Amorrortuk eta bestek buruturiko ikerketa berean *Bai-bainako jarrera* duten pertsona-taldea ere definitu da. Ikertzaile horiek honela definitu dute talde hori: *Euskararekiko eta euskararen aldeko hizkuntza-politikari buruzko jarrera ez sutsua edo ez-grinatsua duten lagunak dira. Ikertzaileen hitzetan pertsona horiek iritzi-sorta konplexu eta zehaztua dute, zenbaitetan iritzi kontrajarriak dituzte eta euskararen aldeko konpromiso-maila epela. Euskararen alde jarreraren inguruko mailakatzean jarrera kritikoetatik iraganez, aurka kategoriara doan continuum batean kokatzen dira* (Amorrortu eta beste, 2009: 185). Esan daiteke (eta azpimarratzekoa da) euren euskararekiko jarrera ez dela aurkakoa, aldiz, euskararen aldekoak bai, baina ñabardura edota muga zehatzekin.

***Bai-bainako jarrera:*** euskararekiko eta euskararen aldeko hizkuntza-politikari buruzko aldeko jarrera ez sutsua edo ez grinatsua da. Iritzi-sorta konplexu eta zehaztua, zenbaitetan kontrajarria ere bai.

Talde honen aipua hona ekartzearren arrazoia, ikerleek eurek emandako hitzetan aurkitzen da: *Jarrera epeleko pertsonak bereziki interesgarriak dira euskararen normalizaziorako (...). Jarrera epela edota konplexua dutenek, rol aktiboa joka dezakete euskararen normalizazioan, modu eta maila desberdinetan* (Amorrortu eta beste, 2009: 185).

Talde honetako kide gehienek honako ezaugarri nagusiak dituzte: ez-euskaldunak dira, hizkuntza nagusia gaztelania den ingurune soziolinguistikoa bizi dira eta euskararekin harremanetan dagoen mundua ezezaguna edo erabat urruna delako pertzepzioa dute.

Ikerketak emandako emaitzen arabera talde honetako kideek aitortzen dituzten euskararekiko jarrerak, oro har, aldekoak edo positiboak dira; ez dute zalantzan jartzen euskara babestearen eta mantentzearen aldeko ahalegina egin beharra, baina mugak jarri behar direla deritzote. Ondorengo zehaztasunak egiten dituzte ahalegin horren inguruan:

- Hizkuntza-plangintza gaietan hainbat muga zehatz jartzen dute: lanpostu-lehian ez dute onartzen euskarak berezko baliorik edo betekizuna izatea.
- Hizkuntza-plangintza desberdintasun soziolinguistikoak kontuan izan gabe egiten delako pertzepzioa dute, eta ez dute onartzen. Hizkuntza-politika, egitekotan, des-

## 4. HIZKUNTZA-IDEOLOGIA ETA HIZKUNTZA-JARRERAK

berdintasun horiei egokitutakoa egin behar dela deritzote: *Ez da berdin Barakaldo edo Zeanuri.*

- Inposizioaren pertzepzioa. Funtsezko adostasunaren eta norbanakoaren erabakia errespetatu beharra azpimarratzen dute. Azken finean zera diote: *Euskarari lagundu bai baina ezin dela inposatu.*

Halere, ikerketak ondorioztatu du parte hartu duten biztanleen erdia baino gehiago (% 55,5) euskararen mundutik hurbil sentitzen dela. Eta honelako ideiak azpimarratu dituzte:

- Gainera, gehienak, gutxienez, seme-alabek euskara ikas dezaten ahalegina egiteko prest daudela aitortu dute.
- Euskara ikasteko edo euskaraz mintzatzeko motibazioei dagokienez, barne-motibazioak nabarmentzen dira: *jakin-mina, errespetua eta seme-alabei lagundu nahi izatea.*
- Kanpo-motibazioen artean emaniko arrazoietan motibazio integratzaileak ere agertzen dira: *nire kide guztiek dakitelako, bestela, arraroa naizelako* moduko adierazpeneetan azalduta. Baina sarri “inposaketa” modura ere hartzen dira, lehen esan bezala.

Atal hau amaitzeko esan dezagun azken urteetan gero eta azterlan gehiago egiten ari direla Euskal Herriko hizkuntzen inguruko jarreraren inguruan. Ez da eskuliburu honen xedea horien guztien zerrendatze zehatza eskaintzea. Nolanahi ere, Josu Peralesek 2001. urtean, BAT aldizkari-rako idatzitako artikuluan, xehetasun handiz eskaini zuen horren lekukoa. Irakurleak XX. mendeko laurogeigarren hamarkadatik hasita gaurdaino egindako hogeita hamar ikerketa baino gehiagoren berri zehatza aurkituko du bertan. Era berean, 2006an David Lasagabasterrek ikerketa-lana jasotzen duen liburuan ere, bertako zein nazioarteko ikerketen inguruko erreferentzien inguruko bilduma oso interesgarria egin zuen.

### 4.4.7. Aurreiritziak

Hizkuntza-aurreiritziak hizkuntzari buruzko uste orokortuak dira, beste modu batean esanda, *ez-adituen hizkuntzalaritza*. Uste orokortu horien eragina garrantzi handikoa da ondorio sozialak izaten dituztelako (Jesús Tusón, 1996). Amorrortu eta besteren hitzetan *hainbat talde baztertzeko bestelako aurreiritzien isla izan daitezke, eta, gainera, euskararen testuinguruan garrantzitsuagoa dena, aurreiritziok elebitasun edo eleaniztasun egoera sustatzeko sano kaltegarriak izan daitezke, hizkuntza txikiari eustea edo ikasteko ahalegina egitea oztopatzen dutelako* (Amorrortu eta beste, 2009: 155).

**Hizkuntza-aurreiritzia:** hizkuntza edo aldaera zehatz baten inguruan orokortu diren uste edo sinesteak. Aurreiritziek balio-judizio bihurtzen dira egitate diren ala ez kontuan izan gabe eta hizkuntzetatik hiztunenganako jauzia egiten dute.

Aurreiritziek jarreteran dute eragina, eta mesedegarriak edo kaltegarriak izan daitezke.

Tusónek dioenez, balio-judizioek sortzen dituzte hizkuntzekiko aurreiritziak, hau da, egitate-judizio neutroak izatek norberaren esperientzian, eta esperientzia kolektiboan oinarritutako judizioetara igarotzen dira, norberaren gustuan edo jasotako heziketan oinarrituta. Hizkuntzen inguruko ideiak, iritziak edota judizioak norbanako guztiengan daude. Baina aztertu behar da judizio horiek egitateak diren ala ez, eta nola, sarri, oinarri faltsuetan finkaturik **balio-judizio** bihurtzen diren. Kontuan hartu beharreko lehen datua: hizkuntzen inguruko iritziak norberaren hizkuntza abiapuntutzat hartuta garatzen dira. Beraz, izatekotan ere, norberaren hizkuntzarekiko iritziak lirateke, ez berezko egitate-judizioak. Beraz, aurreiritziek norberaren argazkia proiektatzen dute eta horien bitartez, munduaren eta pertsonen inguruko jarrerak eratzen dira. Egile horren iritziak, *publiko egiten duguna gara, bereziki esaten duguna* (Tusón, 1996: 18), eta aurreiritzi horiek jokoerak baldintzatuko dituzte.

Gainerako kasuetan bezala, hizkuntzekiko aurreiritziek balio positiboa edo negatiboa izan dezakete: *gustuko dut/ez dut gustuko, ederralitsusia, erraza/zaila...* Hizkuntzen jarreteran gertatu ohi den modura aurreiritzi horiek ez dute eragiten objektuen gainean soilik; alderantziz, objektu edo gai jakin horrekin lotura duten gizaki edota giza taldeengan islatzen diren proiektzioak dira, eta hor sortzen dira benetako arazo etikoak (Tusón, 1996: 19).

Tusónen arabera, hizkuntzen inguruko aurreiritziak honako taldeetan bil daitezke, besteak beste:

- Hiztun-kopuruaren arabera: bereizketa kuantitatiboa eginez, hau da, hiztun-kopuru handia/txikia.
- Kalifikatzaile subjektiboen arabera: goxoak, ederrak, argiak, errazak...
- Egokitasunaren arabera: kultura-hizkuntzak, nazioartekoak, literaturarako egokiak, lege-testuetarako aproposak, maitasunerako ezin hobeak, zientzia eta teknologiarako goi-mailakoak, sentimenduak adierazteko bereziak, turismorako baliagarriak edo lan-mundurako ezinbestekoak.

Sailkapena baliatuz, hizkuntzak eta hiztunak balioarekin edo balio-ezarekin lotzen dira. Horrela, sarri, ezaugarri ez hain positiboekin bat datozenak kalifikatzaile negatiboekin uztartuko dira. Eta, horrela, *hizkuntza komunikaziorako tresna neutroa, pentsamenduaren adierazpide eta pertsona inteligentziadun izaki modura finkatzeko elementu nagusi izatek, dominazio zutoihal eta suntsitze-tresna izatera hel daiteke* (Tusón, 1996: 25).

Francisco Moreno Cabrerak ere hizkuntzekiko aurreiritzien inguruko lan sakona egin du mitoen, aurreiritzien eta beste topikoen oinarri faltsuak agerian jarriz. Babelgo madarikaziotik abiatuta (munduko aniztasuna Jainkoaren zigorra delako ideia) egungo *mito* ugari *desmitifikatu* ditu.

#### 4. HIZKUNTZA–IDEOLOGIA ETA HIZKUNTZA–JARRERAK

- **Hizkuntzen jatorrien ingurukoak:** hizkuntza primitiboetan gramatika oso gutxi garatuta dago edo ez dago garatuta.
- **Hizkuntzen hiztun–kopuruen ingurukoak:** hizkuntza handiak (hiztun–kopuru handikoak) eta txikiak (hiztun–kopuru txikikoak) daude. Hizkuntza jakin batek hiztun–kopuru txikia badu, ikasteko oso zaila delako da. Zenbat eta hiztun–kopuru handiagoa, hainbat aberatsago eta perfektuagoa izango da hizkuntza.
- **Estatua, nazioa eta hizkuntza estandarra:** hizkuntza estandarra gainerako aldagaiak baino hobea, perfektuagoa da. Hizkuntza–aldaera ez estandarrek ezegonkorrak, kultura gabekoak eta pobreak dira. Gainera, ez dute gramatikarik; beraz, ez dira zuzenak.
- **Hizkuntza errazak/zailak:** hizkuntza errazak aisa hedatzen dira; hizkuntza zailak ez. Hizkuntza zailtako hiztunek hizkuntzak ikasteko gaitasun handiagoa dute. Hizkuntza batzuen sintaxia oso pobrea da. Hizkuntza batzuek irregularitasun asko dituzte.
- **Hizkuntza–aldaerak eta gizarte ospea:** elkar ulertzeko hizkuntza bera hitz egitea beharrezkoa da, are gehiago, hizkuntza–aldaera bera. Goi–mailako giza taldekoek behe–mailakoek baino hizkuntza–maila hobea darabilte. Hizkuntza estandarra egon ezean kaos komunikatiboan erortzeko arriskua agertzen da.
- **Ama–hizkuntzaren ingurukoak:** ama–hizkuntza bakarra da eta ez da inoiz ahazten. Ama–hizkuntza hobekien hitz egiten dena da.
- **Hizkuntza eta lexikoa:** hizkuntza primitiboek ez dute abstrakziorako gaitasunik, ez eta egungo gizarte aurreratuetako ezagutzak adierazteko baliabiderik ere.
- **Hizkuntza idatzia/hizkuntza–aldaera:** hizkuntza–aldaerak hiztunen zabarkeriaren ondorio dira; kode idatziak hizkuntza goi–mailakoa bihurtzen du ez dutenen aldean; kode idatzirik gabeko hizkuntzek ez dute literaturarik.

**9. taula:** hizkuntzen inguruko mitoak, aurreiritziak, topikoak (Juan Carlos Moreno Cabrera, 2000).

Joan Mari Torrealdai (1998) bere aldetik, mendeetan zehar izandako euskararen inguruko hainbat aurreiritziren eta debekuren lekukotasun–bilduma oso interesgarria eskaini du. Euskara, frantsesa eta gaztelaniaren inguruko hainbat aurreiritziren isla diren lekukotasunak biltzen ditu 3. taulak.

- Euskaraz ez dira pentsamendu modernoak sartzen (Pío Baroja) (1901).
- Euskara ez da gai kultura adierazteko (Miguel de Unamuno) (1901).
- Euskara modernizatzea ahalegin absurdo da (Miguel de Unamuno) (1901).
- Euskaraz ezin da unibertsaltasunez pentsatu (Miguel de Unamuno) (1920).
- Euskal grafiak hizkuntza espainola bortxatzen du (Bizkaiko eta Gipuzkoako Gobernadorearen Agindua) (1936).
- Espainola hitz egitea planta on eta dotorezia–kontua da (Luis de Galisonga) (1937).
- Euskara aberriaren minbizia da (Luis Antonio de Vega) (1937).
- Euskal izenak ergelkeria separatista dira (Luis Antonio de Vega) (1938).
- Espainola kultura–hizkuntza bakarra da (Jaime Oliver) (1939).
- Frantzia handian euskara txikiarentzat lekurik ez da (Georges Pompidou) (1972).

**10. taula:** euskara, frantsesa eta gaztelaniaren inguruko hainbat aurreiritzi (Joan Mari Torrealdai, 1998).

Euskararen inguruko aurreiritzietan sakontzeko, argigarria da Amorrortuk eta bestek (2009) eginitako azterketa ere. Lan horretan **aurreiritzi mesedegarriak** eta **oztopatzaileak** aztertu dira.

- **Euskararen ezaugarrien ingurukoak:** hizkuntza ederra da. Zaila da. Euskalduna izateko ondo hitz egin behar da.
- **Euskararen etorkizunaren ingurukoak:** galtzear dago. Euskarak arrosa koloreko etorkizuna du.
- **Ikastearen ingurukoak:** umeez erraz ikasten dute euskara. Helduentzat oso zaila da. Heldu batzuk ez dira gai euskara ikasteko. Murgiltzea da euskara ikasteko metodo bakarra.
- **Hizkuntzei buruz oro har:** hizkuntza bi jakinda askoz errazago ikasten dira beste batzuk. Hobe da denontzat hizkuntza bakarra egotea. Lehen hizkuntzan ikasi behar da arrakasta akademikoa izateko.
- **Elebitasunaren ingurukoak:** elebitasun individualik ez dago; ezinezkoa da elebidun izatea.
- **Jokabide sozialaren ingurukoak:** heziketa txarrekoa da denak euskaldunak ez badira euskaraz berba egitea.

**I. I. taula:** euskararekiko hainbat aurreiritzi mesedegarri eta oztopatzaile (Amorrortu eta beste, 2009).

Egileen arabera, aurreiritzi mesedegarriek euskararekiko irudi ideala islatzen dute, honako adierazpideekin emanak: *euskara hizkuntza aberatsa, egitura berezikoa eta xehetasun-maila handikoa* da. Aurreiritzi horiek, zalantzarik gabe, jarrera positiboak garatzeko bidea ematen dute.

Baina *Erdaldunen euskararekiko aurreiritziak eta jarrerak* izeneko ikerketa honetan nagusitu diren aurreiritziak oztopatzaileak dira. Esate baterako, euskara ikastea oso zaila delako iritzia oso zabaldua dago, eta horrek konplexuak sortzen ditu. Adinarekin hizkuntza ikastea oso zaila delako aurreiritzia elkartzen da sarri aurrekoekin, eta, beraz, ondorio oso kaltegarriak ditu euskarari ikasteko orduan. Izan ere, zailtasunez gain, ondo hitz egin beharrak asko mugatzen du egin beharreko eginahaletan inplikatzeari (Amorrortu eta beste, 2009: 173). Horri gehitu behar zaio euskal gizartean hedatu diren jarrera arauemaileek sortzen duten ziurtasunik eza; ikertzaileek ondorioztatu dute jarrera arauemaileek ez dutela inolako mesederik egiten erdaldunen jarrerak euskararen aldeago jarri nahi izanez gero.

Beste arrazoi-sorta bat biltzen dute ikerleek euskararen sustatze-lanaren ondorioz sortu diren hainbat aurreiritzi oztopatzailearen inguruan. Izan ere, euskara galtzear egotearen aurreiritziaren parean, euskara galtzeko arriskutik etorkizun zurrak izango duen egoera batera berez igaroko delako ziurtasuna dute hainbat eta hainbat lagunek. Aldaketa hori, nonbait, egindako (eta egiten diren) suspertze-ahaleginen ondorioz gertatuko da. Ikertzaileek *arrosa koloreko etorkizuneko* egoera bezala definitu duten aurreiritzi hori oso kaltegarria izan daiteke, euskararen aldeko ekimenak sustatzeko nahia ahuldu dezakeelako.

Nolanahi ere, uste orokortuak biztanleria ia eremu guztietan atzematen dira, eta euskaldunen gan ere agerikoak dira: *euskaldun berrien euskara-maila oso kaxkarra da; zaharrek txokokeriak erabiltzen dituzte baina ez euskara jaso, eta gazteek euskañola egiten dute*. Beraz, aurreiritziak hiztun-talde ia guztiak ukitzen dituzte. Jarrera ezkorrak eta euskararen erabilera sustatzeko oztopatzaileak sortzeko oinarria jarrita dago, beraz.

### 4.4.8. Bigarren hizkuntzaren jabe-kuntzan hizkuntza-jarreraren eragina

Bigarren hizkuntza (H2) ikasteari dagokionez, ikasleen jarreraren izaera instrumentala eta integratzailea izan dira gehien aztertu direnak, batez ere, Gardner eta Lambert-en (1959) lanez geroztik. Jadanik hasierako lanetan jakin zen bigarren hizkuntza ikasteko orduan motibazio integratzaileak instrumentalak baino eraginkorragoak direla (Gardner; Lambert, 1959), (Baker, 2003: 33). Hala ere, ez da ahaztu behar ez dela beti horrela izaten; izan ere, kanpo hizkuntzen edo nazioarteko hizkuntzen kasuetan batez ere, motibazio instrumentala indartsuagoa izan ohi da integratzailea baino.

Gaur egun nagusi diren motibazioen teoriak, honako ideien inguruan biltzen dira: *ixaropen eta balioen teoria* (motibazioa arrakasta izateko ziurtasun-mailak eman behar du); *helburuen teoria* (ikaste prozesuan helburu mailakatuaren bitartez moldatzen da motibazioa) eta *norberaren balioaren teoria*. Nolanahi ere, teoria desberdinetatik harago, erabat orokorra den ideia da bigarren hizkuntza ikastea ikasleek hizkuntza horretako hitzunen ondare kulturalaren zantzuak ere hartzen dituztela. Beraz, hizkuntza hori ikasteak hitzun-komunitate horren hainbat elementu kulturalaz jabetzea ekarriko du.

Motibazio sailkapenetan hainbat definizio arazo ere sortzen ari dira. Kontuan izan behar da, gainera, kategoria horiek ez direla beti modu berean ulertzen, hau da, badira hainbat arrazoi instrumentaltzat edo integratzailetzat har daitezkeenak, baita ikertzaileen artean ere. Esate baterako, *atzerrira bidai egitea* moduko arrazoiak Spolsky-ren ustez (1969), motibazio integratzailea islatzen dute eta Gardner-en ustez, instrumentala.

Bi joera horiek, nolnahi ere, ez dira halabeharrez aurkariak eta baztertzailak; pertsona berean motibazio instrumentala eta integratzailea osatzen dituzten arrazoiak *continuum* batean koka daitezke. Dena dela, ikertzaile gehienek bat egiten dute esatean orientazio integratzaileak beste komunitateko kideekin identifikatzeko nahia erakusten duela; ikasten ari den bigarren hizkuntza hori duen komunitateko kideekin harremanetan jartzeko borondate ona, afektiboki baloratzen dena, hain zuzen.

Hizkuntzaren irakaskuntzan motibazio integratzailearen kontzeptuan garrantzia hartzen duten faktoreak honakoa dira: H2 hizkuntza eta hitzunei buruzko interesa eta jarrerak, ikaste-prozesuari buruzko jarrerak eta motibazioaren intentsitatea.

Gardner-en motibazio integratzailearen ereduan (1985) motibazio integratzailea honako alda-gaiekin elikatzen da:

- **Integratibotasuna:** noranzko integratiboa, H2rekiko interesa, H2ren hitzunen aurreko jarrerak.
- **Motibazioa:** H2 ikasteko desioa, ahalegina, H2 ikastearekiko jarrerak.
- **Ikasteko egoeraren aurreko jarrera:** H2ren irakaslearen ebaluazioa, hizkuntza-ikastaldiaren ebaluazioa.



Ondorengo hamarkadetan eredu honek ekarpen ugari izan ditu. Horien artean leku berezia hartu dute Dörnyeiren lanek (1994). Ikertzaile horren ereduak motibazioaren kontzeptualizazioa hiru mailatan jartzen du:

- **Hizkuntza-mailan:** joera integratzaileak eta instrumentaleko elementuak biltzen dira.
- **Ikaslearen mailan:** bere ezaugarri indibidualak jasotzen dira, batez ere, norberarenganako konfiantza.
- **Ikasteko egoeraren mailan:** egoera bakoitzari lotutako motiboak multzokatzen dira.


Harrez gero, ikertzaile berak, Istvan Ottórekin batera (1998), motibazioaren bilakaera hiru fase-tan garatu behar dela azpimarratu zuen. Eredu horri erantzunez, **lehen fasean**, motibazioa sortu egin behar da; **bigarrean**, motibazioa elikatu; eta, **hirugarrean**, ebaluazioa egin behar du ikasleak. Azken finean Dörnyeik hezkuntzan aplikatzeko eredu diseinatu zuen honako unitate giltzarriak zehaztuz:

- Motibaziorako oinarritzko baldintzak sortzea.
- Hasierako baldintzak sortzea.
- Motibazioa elikatzea eta babestea.
- Atzera begirako autoebaluazio positiboa bultzatzea.

Euskal Herriko testuingurura etorri, Sánchez Carrión “Txepetx”-ek, motibazioa honela definitzen du: *Hizkuntza bat ikasteko edo hizkuntza horri atxikitze bultzatzen duten arrazoiak, nahiak eta interesak* (Sánchez Carrión, 1991: 35), eta berebiziko arreta jartzen dio gai honi, hizkuntza ikasteko gutxieneko baldintzak motibazio kontzeptu honekin zer ikusia duelakoan, bai eta ondoren hizkuntza hori erabiltzeko orduan ere. Bere ikuspegitik, hizkuntza bat ikasteko edo hizkuntza bati eusteko eragina duten faktoreak hiru dira:

- **Motibazioa:** hitzuna ikastera bultzatzen duen arrazoi edo interesa, nahikotasun-maila batera heldu behar duena, halabeharrez, ikasten hasteko. Txepetxek hauek bereizten ditu: motibazio barrukoak edo funtsezkoak, eta kanpokoak, kulturalak edo arrazoizkoak.
- **Ezagutza:** hizkuntza horren funtzionamenduaren barneratze-prozesuaren ondorioa, hizkuntza erabiltzeko gaitasuna.
- **Erabilera:** komunitateak momentu historiko batean dituen hizkuntza-funtzioetan hizkuntza horren erabilera-maila.

#### 4. HIZKUNTZA-IDEOLOGIA ETA HIZKUNTZA-JARRERAK



**12. irudia:** hizkuntzaren jabeakuntzaren eragile nagusiak. Txepetxen eredua (1991).

Txepetxek H2 ikasteko prozesua lehen hizkuntzaren jabeakuntzaren prozesuaren alderantzizko bidean jartzen du. Lehen hizkuntzaren ikasketa-prozesuan motibazioa ez da kontzientea, baina bigarren hizkuntzaren jabeakuntzaren abiapuntua motibazioa halakoa izango da. Txepetxen iritziz, azaleko motibazioak baino garrantzi handiagoa dute sakoneko motibazioek hizkuntzaren ikasketa-prozesua has dadin. Gainera, azpimarratzen du ikasketaren lehen helburua, halabeharrez, erabilerak izan behar duela, motibazio hori elikatzen jarraitzeko, eta etsipenezko sentimenduak sor ez daitezen (Sánchez Carrión, 1991: 45-47). (Txepetxen eskema berriz aipatuko da 5. atalean *Hizkuntza Biziberritzeko Ereduak* azaltzean).

Motibazioaren garrantzia **bigarren hizkuntza ikastera** bultzatzeko duen ahalmenean datza, zeregin horretan kemen nahikoa adierazten dutelako, behin aipaturiko nahikotasun-maila hori hartzen duenean (Martínez de Luna, 1996: 40).

- Motibazioak *nahikotasun-mailara* iristean baino ez du jardungo ikasten pertsona helduak, baina hizkuntza horretan neurri bateko gaitasunaz jabetuz gero, motibazioak iraun beharko du, hizkuntza erabiltzeari ekin ahal izateko.
- Ikasten ari den bigarren hizkuntza horretan pertsona nagusiak bat-bateko erabilerarako gaitasunik lortu ezean, motibazioa makaltzeko eta behera etortzeko arriskuan aurki daitezke.
- Egoera diglosiko batean azaleko motibazioak eta sakonekoak ez dute beti bat egiten. Esate baterako, azaleko motibazioak menpeko hizkuntzaren alde izateko itxurarik badu ere, barneko motibazioak nagusia den hizkuntzaren defentsan jotzen du askotan. (Martínez de Luna, 1996: 42).

Baina motibazioak berebiziko garrantzia du, arestian esan bezala, ahulduta eta galduz doan hizkuntza baten berreskurapenean *lehen hizkuntzari eusteko* ere.

Hona lñaki Martínez de Lunak aipatzen ari garen artikuluan laburbildu eta ondorioztatu dituen hainbat ideia:

- Komunitate bateko kideak, arrazoi soziopolitikoak direla medio, hizkuntza-esparru batzuk beren ama hizkuntzaz bete ezinean aurki daitezke. Ondorioz, esparru horietan jadanik sarturik dagoen hizkuntzan arituko dira, beren jatorrizko hizkuntza alde batera utzita.

- Jatorrizko hizkuntzaren erabilera gutxieneko maila batetik jaisten bada, ezagutzan eta bere aldeko motibazioetan ere beste hainbesteko beherakada gertatuko da.
- Jatorrizko hizkuntza kulturarako bide baliagarria denean, hiztunak arrazoizko motibazioak eta arrazoi kulturalak erantsiko dizkio eta, hizkuntza-kontzientziak bultzatuta, hizkuntza horren ezagueran sakonduko du.
- Hizkuntza-funtzio guztiak eskuratzean, hizkuntzaren ahalmen interaktiboa eta elkarren arteko harreman sozialak asetzen dira.

Azken urteetan egin diren lanetan, hizkuntzaren jabekuntzaren gaineko jarreraren eta motibazioen inguruko ikerketek ere interesa izaten jarraitzen dute, ez bakarrik ukipenezko bigarren hizkuntzetara aplikatuz, baita atzerriko bigarren hizkuntzetara aplikatuz ere. Arratibel eta bestek (2001) azaltzen dutenez, motibazioa modu desberdinetan uler daiteke:

- Motibazio integratiboa eta integralaren ordeztu, gehiago azaltzen dira motibazio intrinseko (barneko nahia) eta estrinseko (kanpoko beharra) modura.
- Motibazioa testuinguruaren arabera alda daiteke.
- Gizarteko egoeraren ondoan, orain gizabanako bakoitzaren testuinguruari garrantzi handiagoa ematen zaio.
- Gizabanakoaren nortasunaren aldagaiak eta irakaskuntza-ikaskuntzaren aldagaiak duten garrantzia azpimarratzen da.

Josu Peralesek 1989an (Perales, 1998) Gipuzkoako euskaltegi publikoetan egindako lanean motibazioak sakon aztertu zituen. Hona hemen lan horren ezaugarri eta ondorio nagusiak:

- Guztiz instrumentaletik guztiz integratibora doan *continuum* batean biltzen diren zazpi orientazioak hirutan birkokatzen ditu, eta instrumentalak, tartekoak eta integratiboak bereizten ditu. Zenbat eta gazteagoak izan ikasleak, hainbat eta era nabarmenagoan eragiten die motibazioaren noranzko instrumentalak; hori gazteagoak lana aurkitu beharrean egoteari egotz dakioko. Gizonezkoek joera handiagoa daukate tarteko orientazioa ez hautatzeko eta eskala osoan zehar sakabanatzeko, hots, elkarren antz txikiagoa dute eta emakumezkoak baino integratiboagoak izateko joera dute.
- Noranzko integratiboak gehiago eragiten die Euskal Herrian jaiotako gurasoen seme-alabei Euskal Herritik kanpo jaiotakoenei baino. Noranzko instrumentala ikasle unibertsitarioei beste guztiei baino gehiago eragiten die. Zenbat eta euskaldunago izan lagunartea, hainbat eta noranzko integratiboagoa izango du motibazioak.
- Langile ez-espezializatuek, etxeko langileek eta teknikariek noranzko integratiboak eraginda ikasten dute batik bat, eta irakasleek noranzko instrumentalak eraginda. Zenbat eta motibazio integratibo handiagoa izan ikasleak, hainbat eta gehiago saiatzen da euskara ikasten.
- Noranzko integratiboak eragindako ikasleek instrumentalak eragindakoek baino puntu gehiagorekin ebaluatzen dute jasotzen duten irakaskuntzaren kalitatea. Jarrera positiboak motibazio integratiboari loturik azaltzeko joera dago.

#### 4. HIZKUNTZA-IDEOLOGIA ETA HIZKUNTZA-JARRERAK

Siadecok, 1996an egin zuen helduen euskalduntzeari buruzko azterketan, Euskal Herriko 20-39 urte bitarteko erdaldunek osatutako unibertsoa hartu zuen aztergai. Motibazioari buruzko datuak aztertuta, honela sailkatzen dira motibazio-motak:

- Motibazio afektibo-ideologikoak (nahi dudalako, gure hizkuntza delako...)
- Motibazio komunikatzaileak (euskaldunekin hobeto komunikatzeko)
- Motibazio pragmatikoak (lanean behar dut, lana aurkitzeko, ikasgaia gainditzeko...)

Nafarroa eta Iparraldeko euskaltegietako ikasleek motibazio afektibo-ideologiko handiagoa agertzen dute beste guztiek baino. Arrazoi komunikatzaileak garrantzitsuagoak dira, oro har, Gipuzkoan, Nafarroan eta Iparraldean. Motibazio pragmatiko altuena Gipuzkoan azaltzen da, zehazki, Donostian, eta baxuena, Nafarroan (Iruñean) eta Gasteizen, hau da, zonalde erdaldunenetan.

Maite Otegi Goierri euskalduntze-alfabetatze lanetan diharduten euskaltegietako ikasleen motibazioak aztertu zituen. Emaitzen artean azpimarratzekoa da bai euskara ikasteari ekiteko, bai euskara ikasten jarraitzeko, motibazio nagusia integratzailea dela, baita barnetegikoen artean ere. Ikasle horiek, jarrera positiboa dute euskaldunenganako, baloratu egiten baitituzte. Honek, ikaste-prozesua errazago burutzen lagunduko die.

Motibazio-motaren arabera, nolabaiteko bereizketa egin daiteke ikasleen ezaugarrien arabera:

- Eragile integratzaile sendoagoa dute gaitasun handiagoa dutenek, lurralde euskaldunagoak direnek, adin nagusiagoarekin hasitakoek, lortzeko igurikapen handiagoa dutenek, euskara ikasteari kostu psikologiko txikiagoa hautematen diotenek, euskararen eta euskaldunen egoeran eragiteko borondate nabarmena dutenek, eragile instrumentalak ere sendoa dutenek, erabilerari buruzko jarrera positiboa dutenek...
- Eragile instrumental sendoagoa agertzen dute gazteek, gaitasun handiagoa dutenek, B edo D ereduan ikasi dutenek eta euskararen erabilera txikiagoa den lurraldeetan bizi direnek.
- Ikerketa horretan ikasleek adierazi dituzten ikasteko arrazoiatariko batzuk honakoak dira:
  - Integratu nahia, hizkuntzarekiko konpromisoa, konplizitatea.
  - Euskararen beharra lanerako. Motibazio honen balorazio soziala integratzailea baino ahulagoa da.
  - Haurrentzat euskara nahi duten gurasoak. Hauetako askok familia euskaldundu nahi dute, horren garrantziaz ohartu baitira.

Aipatzeko bestelako emaitza batzuk honakoak dira:

- Denborarekin ikasleen euskarari buruzko jarrerak onerako aldatzen dira.
- Euskara lanerako behar duten ikasleen artean, batzuk euskara maitatzera heltzen dira. Beste batzuek, aldiz, hasieratik amaieraraino gorroto dute eta titulua ateratakoan gaztelaniaz egiten dute.

- Hizkuntza-politikari buruz iritzi kontrajarriak agertzen dituzte ikasleek: batzuek behartuta daudela uste dute eta horren aurka agertzen dira, ez baitaie bide egokia iruditzen.

Amorrortu eta bestek (2009) eginiko lanean ere euskara ikasteko motibazioetan barneko motibazioak eta kanpoko motibazioak ageri dira. **Barneko motibazioen** artean *nahi dudalako* edo *gogoa dudalako* moduko formulazioak agertzen dira; baita identitate arrazoiengatik eta integrazio arrazoiengatik, kontzientzia linguistikoa edota politikoari erantzunez sortzen direnak ere atzematen dira, nahiz eta ez diren ohikoenak. **Kanpoko motibazioen** artean, balio **instrumentalekoak** nagusitzen dira: *seme-alabei laguntzeko, lanpostuak lortu edo mantentzeko*, eta balio **integratzaile** modura deskriba daitekeen *gizartearen presioarengatik* sortutakoak.

SOZIOLINGUISTIKA ESKULIBURUA

## 5. HIZKUNTZA–POLITIKA ETA HIZKUNTZA–PLANGINTZA



*IMANOL LARREA MENDIZABAL ETA PAUL BILBAO SARRIA*



## 5. HIZKUNTZA-POLITIKA ETA HIZKUNTZA-PLANGINTZA

### 5.0. SARRERA

Soziolinguistika aplikatuaren alorrean garrantzi handia dute hizkuntza-politikaren eta hizkuntza-plangintzaren inguruko gaiak, batez ere hizkuntza bat baino gehiago duten lurraldeetan.

Atal honetan hizkuntza-politikaren oinarriak aztertuko dira, arreta berezia eskainita hizkuntza-aniztasuna antolatzeko moduei. Ondoren, politikaren gauzatzea, alegia, hizkuntza-plangintzaren ingurukoak aztertuko dira, kanpoko adibideekin batera euskararen normalizazioan izan diren adibideak nabarmenduta.

### 5.1. HIZKUNTZA-POLITIKA

Erakunde publikoek hizkuntzen erabilera antolatzeko eta arautzeko egiten dituzten esku-haritzeen multzoa da hizkuntza-politika. Oso garrantzitsua da batez ere hizkuntza bat baino gehiago gobernu beraren administraziopean daudenean (munduko estatu gehienak eleaniztunak dira, eta oso gutxi izan dira estatu elebakarrak historian zehar). Estatuak komunikazioaren bitartez, besteak beste, exekutatzen dute boterea, eta komunikazioaren oinarria hizkuntza denez, estatuentzat oso garrantzitsua da hizkuntza eta horri dagokion politika, hain zuzen ere, hizkuntza-politika.

Estatu guztiek arautzen dute hizkuntza, nahiz eta batzuek ukatu egiten duten hori. Esate baterako, eskolan zein hizkuntza irakatsiko den erabakitzen dute eta, horrenbestez, jendeak ikasiko duen hizkuntzan eragiten dute (Kenneth McRoberts, 2003).



Botereak betidanik hartu izan ditu hizkuntzaren inguruko erabakiak. Nazio-estatu modernoaren sorrera oso garrantzitsua izan zen hizkuntza-kontuetan; izan ere, homogeneousatzena jo zuten eta estatu bakoitzak hizkuntza bakarra behar zuela hasi zen hedatzen. Frantziako Iraultzak asko indartu zuen ideia hori, hain zuzen ere iraultzaren idealen izenean: hiritar guztiak berdinak ziren, eta, horrenbestez, hizkuntza bera behar zuten. Ideia hori gainerako estatuak ere bere egin zuten eta ordutik hizkuntza asko desagertu dira horren ondorioz, edo desagertzeko arriskuan jarri dira azken mendeetan.

**Hizkuntza-politika:** erakunde publikoek hizkuntzen erabilera antolatzeko eta arautzeko egiten dituzten esku-hartzeen multzoa da hizkuntza-politika. Oso garrantzitsua da batez ere hizkuntza bat baino gehiago gobernu beraren administraziopean daudenean (munduko estatu gehienak eleaniztunak dira, eta oso gutxi izan dira estatu elebakarrak historian zehar). Estatuak komunikazioaren bitartez, besteak beste, exekutatzen dute boterea eta komunikazioaren oinarria hizkuntza denez, estatuentzat oso garrantzitsua da hizkuntza eta horri dagokion politika, hain zuzen ere, hizkuntza-politika.

### 5.1.1. Hizkuntza-politika eta -plangintzaren hastapenak

Hizkuntza-politika eta -plangintza, arlo akademiko gisa, XX. mendearen bigarren erdialdean garatu zen, batez ere hizkuntza-plangintza izenez, hainbat faktorek eraginda (Emili Boix i Fuster eta F. Xavier Vila i Moreno, 1998).

Garai hartan, alde batetik, Afrika eta Asiako herrialde askoren deskolonizazio-prozesua gertatzen ari zen eta estatu asko sortzen ari ziren. Horren ondorioz, estatu berri horiek hizkuntzaren inguruko erabakiak hartu behar zituzten eta ez zen lan erraza; izan ere, europarrek ezarritako muga politikoak errespetatu zituzten eta muga horien barruan hizkuntza desberdinetako herriak geratu ziren. Gehienetan, sekula idatzi ez ziren hizkuntzak hitz egiten zituzten eta ez zuten elkar ulertzeko *lingua franca*rik. Gainera, independentziarako prozesu gehienak metropoli-gaizatu ziren, edo behintzat kolonizatzaileen hizkuntzetan hezitako eliteek gidatu zituzten. Egoera horretan, estatu askok kolonizatzaileen hizkuntzarekin jarraitzea erabaki zuten (batez ere frantsesa edo ingelesa) bi argudio erabilia: alde batetik hizkuntza hori talde etniko batena ere ez zenez, taldeen arteko desberdintasunak saihesten ziren eta beste aldetik, mendebaldearekiko eta modernotasunarekiko loturei eusteko bidea errazten zuen. Beste estatu batzuek, berriz, bertako hizkuntzaren bat aukeratu zuten bizitza publikoaren funtzionamendurako. Tanzanian, adibidez, swahilia aukeratu zuten, ordurako *lingua franca* gisa erabiltzen zutela bertako herri askok merkataritzarako, edo Magrebeko herrialdeetan arabiera, zuen tradizio handiagatik.

Beste alde batetik, immigraziotik jaiotako gutxiengoan egonezin eta aldarrikapenengatik ere (finlandiarrak Suedian eta hispanoak AEBetan) hainbat herrialde garatutan hizkuntza-politikari buruzko erabakiak hartu behar izan ziren.

Gainera, hainbat herrialdetan asko ari zen handitzen hizkuntzaren egoeraren inguruko kezka garai hartan, mugimendu nazionalistak indartzen ziren heinean. Quebec-en, adibidez, frantsesdunak gehiengo izan arren, ingelesa gailentzen ari zen eta frantsesa gero eta egoera arrisku-tsuagoan zegoen; Belgikan, berriz, frantsesa zen hizkuntza nagusia hainbat eremutan, baita nederlandez egiten zuten biztanleak gehiengo ziren Flandriako eskualdean ere.

Horrek guztiak azterketa- eta jakintza-alor berri honetara erakarri zituen zenbait aditu eta ikertzaile. Goian aipatutako gaiak azken hamarkadetan beste interesgune bat gehitu zaie, hain zuzen ere, ingelesaren mundu-mailako hedapenari eta, horrekin batera, desagertzen ari diren hizkuntza ugari buruzkoa.

### 5.1.2. Hizkuntza-politikaren ereduak

Bi joera egon dira hizkuntza-politika eta plangintza aztertu eta lantzearen inguruan (Boix i Fuster eta Vila i Moreno, 1998) arlo zientifiko-akademikoan zein arlo aplikatuan:

- ▶ **Eredu teknokratikoa:** Ipar Amerikako gune anglofonoan garatu zen nagusiki. Batez ere, hizkuntzaren balio instrumentalari ematen zioten garrantzia. Lan asko egin zuten garabidean ziren herrialdeetan. Hizkuntzari lotutako gai guztiak gobernuen eta adituen esku egon behar zirela uste zuten, hizkuntzen inguruko erabakiak irizpide “objektiboetan” oinarrituta hartu ahal izateko. Eredu honi jarraitzen ziotenek ez zioten begiratzen horren guztiaren ostean zeuden alderdi sozial, historiko, politiko eta ideologikoei. Goitik beherako ikuspegia zuten, herritarren parte-hartzea kontuan hartzen ez zuena, alegia. Euren lanaren alorra adierazteko, batez ere *hizkuntza-plangintza* (*language planning*) terminoa erabili zuten eta horrek eragina izan du geroztik alor honetara beste ikuspegi batetik hurbildu direnek erabili izan duten terminologia. Einar Haugen izan zen eredu honetako aitzindarietako bat. Eredu honetan sartzen da Ameriketako Estatu Batuetako *Summer Institute of Linguistics* izeneko, herrialde horretako talde erlijioso protestante kontserbatzaileei lotua.
- ▶ **Partaidetzako ereduak:** aurreko ikuspegiarekin ados ez zeuden adituak hasi ziren honela lanean. Adibidez, Quebec-en, ikuspegi desberdinarekin zihardutela nabarmentzeko, terminologia ere desberdina erabili zuten. Hala, *hizkuntza-kudeaketa* (*aménagement linguistique*) terminoa erabiltzen hasi ziren. Beste horrenbeste gertatu zen Katalunian ere, baina han *hizkuntza-normalizazioa* (*normalització lingüística*) terminoa erabiltzeari ekin zioten. Bi lurraldeetan aitzeko ikuspegia erabiltzen hasi ziren, behetik gorakoa, herritarren parte-hartzea lehenesten zuena, gizarteko eragile guztiek dutelako zeresana hizkuntzaren inguruko erabakietan. Hain zuzen ere, horregatik ematen zioten, adibidez Katalunian, garrantzi handia jendea antolatuta egoteari euren lurraldeko hizkuntza gutxiagotua berrindartzeko helburua zutenek.

Hizkuntza-politikak arrakasta izan dezan, ikuspegi bien arteko oreka lortzea ezinbestekoa da; izan ere, gobernuak herritarren parte hartzerik gabe zaila izango du bide demokratikoen bidez nahi dituen aldaketak lortzea hizkuntzen inguruan; baina, era berean, gizarte zibileko erakunde-  
ei ere, adituen eta agintarien elkarlanik gabe, oso zaila egingo zaie hizkuntza aurrera ateratze-  
ko dituzten helburuak lortzea eta lorpenei irauraraztea.

### 5.1.3. Helburuen arabera hizkuntza-politikak

Estatu guztiek dute hizkuntza-politikaren bat, nahiz eta sarritan ez egon idatzita eta ez izan esplizitua. Horrelakoetan, hizkuntza-politika inplizitua dela esaten da. Adibidez, Erresuma Batuak edo Amerikako Estatu Batuek ez dute hizkuntza ofizialik legez ezarrita, baina ingelesez jarduten dute (dena den, AEBetan, maila federalean hori gertatu arren, 20 estatu inguruk ingelesa dute hizkuntza ofizial bakartzat eta gero eta eztabaida handiagoa dago gaiaren inguruan). Beste zenbait estatuk (Frantziakoak edo Espainiakoak, tartean), berriz, euren hizkuntza nazionala zein den idatzita daukate, sarritan lege-arau nagusia duten konstituzioan.

Hizkuntza-politika, hau da, hizkuntzari buruzko erabakiak hartzea, oso lotuta dago lurralde bakoitzeko hiztunen hizkuntza-kulturari, alegia, hiztunek hizkuntzarekin zerikusia duten kon-tuetarako erabiltzen dituzten ideia, balio, sinesmen, jarrera, aurreiritzi, mito eta gainerako kul-tur bagajearekin (Harold Schiffman, 2006). Beraz, hizkuntza-politikatzat ez da hartu behar soi-lik esplizitua, idatzizkoa, *de jure* eta goitik beherako hizkuntzari buruzko erabakiak hartzea. Oso garrantzitsua da inplizitua, idatzi gabea, ezkutukoa edo-eta gaiaren inguruan dauden ideia ez ofi-zialak kontuan hartzea, hizkuntza-politikaren emaitzan sekulako eragina izan dezaketelako. Maiz, hizkuntza-politika agerikoa gisa hartu da, eta ezkutuan geratzen diren hizkuntzari buruzko ideia kulturalak ez dira kontuan hartu. Beste askotan, gaiaren inguruan sortu diren mitoekin jokatu da; hain zuzen ere hizkuntza-kultura horren ondorioz sortu diren mitoekin. Adibidez, Indian hamabost urteko epea jarri zuten 1950eko konstituzioan ingelesaren ordez hindi hizkuntza egi-teko Indiako hizkuntza nagusia. Epea iritsi zenean, tamil hiztunek horren aurka egin zuten oso gogor eta horren arrazoi nagusia lurraldean hizkuntzari buruz zegoen kultura izan zen: euren hizkuntza garbiena zela uste zuten (besteak beste, literatura-tradizio oso luzea duelako), eta tamil hizkuntza “zikintzen” zuenatariko bat india zela pentsatzen zuten.

### 5.1.4. Hizkuntza-aniztasuna antolatzea

Hizkuntza-aniztasunaren antolamendu juridikoari buruzko arloa oraindik berri samarra bada ere, zenbait aurrerapen egin dira Europar Batasunean, Quebec-en eta Katalunian, besteak beste. Horren ondorioz, hasi dira finkatzen hizkuntza-zuzenbideko zenbait printzipio (Boix i Fuster eta Vila i Moreno, 1998):

- **Lurraldetasun-printzipioa:** printzipio honen arabera, herritar guztiei hizkuntzaren aldetik tratamendu berbera eskaintzen zaie bizi diren lurraldearen arabera, bakoitza-

ren ezaugarri pertsonalak edo sozialak kontuan hartu gabe. Horren oinarria da historikoki lurralde horretan hizkuntza-komunitate bat egon dela; horrenbestez, hizkuntza hori izan behar da lurralde horretan nagusi eta kanpotik iristen direnak hizkuntza horretara integratu behar dira. Printzipio honi jarraituta hizkuntza-aniztasuna arautzen den lekuetan, estatua hizkuntza-erregimen desberdina duten lurraldeetan antola daitezke. Hala egin zuten, adibidez, Suitzan, Finlandian edo Espainian; horietan guztietan estatua hainbat lurraldetan banatu zuten eta lurralde bakoitzari bere hizkuntza-politika eman zioten. Lurralde bakoitzean, gainera, hizkuntza bakarra edo gehiago egon daitezke.

- **Pertsonaltasun-printzipioa:** hizkuntza-politika lurralde osoan berdina da, baina pertsonaren zenbait ezaugarriren arabera (jatorria, etnia, ama hizkuntza eta abar) bermatzen zaio hizkuntza bat erabili ahal izango duela edo zerbitzuak eskaintzen zaizkio hizkuntza horretan. Aurreko printzipioarekin batera ere aplikatu daitezke, hau da, lehendabizi lurraldearen arabera eta gero pertsonaren arabera.
- **Funtzionaltasun-printzipioa** (Albert Bastardas i Boada, 2000): honen oinarria da biztanle elebidun edo eleaniztunen artean hizkuntzaren funtzioak hierarkiarik gabe bana daitezkeela. Adibidez, Luxenburgon aplikatzen da printzipio hau eta pertsona bakoitzak nahi duen hizkuntzan bete ditzake funtzio guztiak.

Egoeraren arabera, **estrategia desberdinak** erabili dituzte hizkuntzen aldeko eragileek. Hala, Quebec-en frantsesdunek lurraldetasun-printzipioa ezartzeko eskatzen zuten eta frantsesdunak gutxiengoa diren lurraldeetan, berriz, pertsonaltasun-printzipioa ezartzeko eskatzen zuten, frantsesaren erabilera ahalik eta neurririk handienean bermatzeko.

Hizkuntza-politika zehazteko **eredu desberdinak** daude onartzen den hizkuntza-kopuruari begiratuta. Hemen muturrak nabarmentzen badira ere, *continuum* bateko osagaitzat dituzte egi-leek (Boix i Fuster eta Vila i Moreno, 1998):

- **Eredu elebakarra:** politika honen aldekoek hizkuntza-aniztasuna arazo gisa ikusi izan dute, aurrerapenaren oztopo gisa eta nazioaren osotasunaren eta batasunaren mehatxu moduan. Horregatik hizkuntza nazional bakarra bultzatu dute estatu bakoitzarentzat. Eredu hau nagusia izan da azken mendeetan, batez ere nazio-estatuak gartzten hasi zirenetik. Frantziako Iraultzak eragin handia izan zuen arestian aipatu den moduan. Eredu elebakar hau, dena den, bi motatakoa izan daiteke gutxienez. Eredu elebakar erradikala da epe laburrean biztanle guztiak elebakar bihurtu nahi dituen; adibidez, Alemania nazian koakzio fisikoa erabili zuten zenbait gutxiengo nazional germenizatzeke; alegia, zuzenean suntsitu ez zituzten gutxiengoen aurka. Eredu hori izan du nagusi Espainiako Estatuak esate baterako Francoren diktadurapean XX. mendean. Bada ere elebakar honen beste aldaera liberalagoa ere, epe luzeagora eta bitarteko leunagoekin jokatzen duena, esate baterako Britainia Handikoa edo Ameriketako Estatu Batuetakoa. Herrialde horietan erabiltzen diren argumentuak hizkuntza bakarra erabiltzeko utilitaristak dira, eraginkortasuna da estatu batek zein hizkuntza erabili hautatzeko behar duen irizpidea. Betiere, jokabide horren atzean ingelesaren

nagusitasuna dago; izan ere, nagusitasun hori kolokan ikusi dutenean (adibidez, etor-kin hispanoen eraginez AEBetako zenbait estatutan) diskurtsoa arras aldatu dute eta gero eta erradikalagoa egin dute.

- **Eredu eleaniztuna:** estatuan hizkuntza bat baino gehiago egotea onartzen du eredu honen arabera zehazten den hizkuntza-politikak. Eredu honetan ere gradu desberdinak egon daitezke. Alde batetik, kontrol-eredua dago (K.D. McRae, 1994). Kontrol-ereduak estatu barruko lurralde autonomoetan baimentzen du eleaniztasuna, baina segimendu zorrotza egiten dio, ez dadin hizkuntza nagusia zalantzan jarri (eredu hau dago ezarrita, adibidez, frasierarekin Herbehereetan).

Hala, gatazka sortzen da maila desberdinetako erakundeen artean hizkuntza-politikaren inguruan. Esate baterako, Espainian, Estatu-mailako erakundeetatik segimendua egiten zaio gaztelania ez den beste hizkuntzaren bat duten lurraldeetan egiten den hizkuntza-politikari. Adibidez, udaletan ordenantzen bidez edo autonomia-erkidego-etako organoetan legeen bidez hizkuntza gutxituen inguruan hartutako erabaki politikoek aurka egin izan dute azken hamarkadetan. Eredu honen beste aldaera bat kontsentsuzkoa da. Kontsentsuzko ereduan estatua osatzen duten hizkuntza-komunitate guztiei eskubide eta betebeharrak aitortzen zaizkie; adibidez, finlandiarrei eta suediarrei Finlandian, kantoien araberrako hizkuntzen antolamenduarekin lau hizkuntza ofizialetako hirtunei Suitzan edo flandriarrei eta frantsesdunei Belgikan. Kontsentsuzko eredu honetara bi bidetatik irits daiteke: estatuaren hasieratik talde guztiak berdintasunez tratatu direlako (Suitzako kasuan) edo egoerak horretara eraman dituelako (Belgikako kasuan lehen frantsesdunak ziren nagusi).

Europako Batasuneko estatuek dituzten hizkuntza-politikak aztertuta, Miquel Siguan-ek (1996) bost mota proposatu ditu:

- **Elebakartasuna:** estatu-hizkuntza hartzen dute hizkuntza nazional gisa; multzo honetan daude Portugal eta Frantzia.
- **Hizkuntza gutxiengoekiko babesa edo tolerantzia:** hizkuntza bakarra onartzen dute hizkuntza nazional gisa, baina beste hizkuntza-komunitate batzuk ere onartzen dituzte eta nolabaiteko babesa eskaintzen diete; talde honetan dute Britainia Handia (galesarekiko) eta Holanda (frisierarekiko).
- **Hizkuntza-autonomia:** hizkuntza nazional bakarra dute, baina beste hizkuntzaren bat duten lurraldeek autonomia dute eta hizkuntza koofizialak dituzte; mota honetakoak dira Espainia eta Italiako eskualde batzuk.
- **Hizkuntza-federalismoa:** estatuak egitura federala du eta lurralde bakoitzak bere hizkuntza du, nahiz eta hizkuntza guztiak hartu hizkuntza nazionaltzat. Belgika edo Suitza izango liriateke horren adibide.
- **Hizkuntza-aniztasun instituzionala:** hizkuntza nazionaltzat hizkuntza bi edo gehiago onartzen dituzte eta guztien erabilera bultzatzen dute lurralde osoan; honen adibide da Luxenburgoko, eta agian Irlanda eta Finlandia ere sartu ahal izango liriateke.

## 5. HIZKUNTZA-POLITIKA ETA HIZKUNTZA-PLANGINTZA

Aurreko sailkapenez gain, **hizkuntza-politika** bat zer nolakoa den **aztertze faktore hauek** erabil daitezke (Robert Cooper, 1997):

- **Eragileak:** hauxe da alderik nabarmenena goian azaldu diren parte hartzeko ereduen eta eredu teknokrataren artean; gaur egun estatu-nazioek gero eta askatasun txikiagoa dute euren hizkuntza-politika erabakitzeko; izan ere, integrazio politiko eta ekonomikoaren ondorioz, estatuaz goragoko erakundeak sortu dira eta gero eta indar handiagoa dute (Europar Batasuna, Mercosur...).
- **Populazio-xedea:** agintariak ezarritako arauak herritar guztientzat izan daitezke. Adibidez, Espainiako Konstituzioaren 3. artikulua herritar guztientzat ezartzen du gaztelania ezagutzeko beharra eta erabiltzeko eskubidea. Baina gerta liteke hizkuntza-politika herritar batzuentzat bakarrik izatea. XX. mende hasierako Palestinan, esate baterako, hebreera biziberritzeko ahaleginak soilik judutarrak zituzten helburu.
- **Lortu nahi diren helburuak.** Bi izan ohi dira gehien erabiltzen diren helburuak: lurralde bat hizkuntzaren alderditik bateratzea, gainerako hizkuntzak desagerrarazita (hauxe izan da, hain zuzen ere, duela gutxi arte hizkuntza-politika gehienek zuten azken helburua, eredu elebakarraren barruan); edo hizkuntza-ordezkapenari aurre egitea eta hizkuntza gutxiagotua indartzea (helburu hau gero eta gehiago erabiltzen ari da azken hamarkadetan).
- **Baldintzak:** eragin nahi den gizartearen ezaugarriak hartu behar dira kontuan. Faktore koiunturalak une zehatz bati lotuta daude: egoera ekonomikoa, hauteskunde-emaitzak edo eskaintza teknologikoa. Faktore estrukturalak epe luzeagorakoak dira: sistema ekonomikoa, kokapen geografikoa eta abar. Mediterraneo inguruan, adibidez, katalanez egiten den herrialdeetan, turismo handia dago eta horrek Europako biztanle asko erakarri ditu bertara bizi izatera. Faktore kulturalak komunitatearen balioei eta ideologiei lotuta daude. Azkenik, badira informazioari lotutako faktoreak ere, gizarteari buruzko azterketak eta datuak behar izaten baitira gizarte hori nolakoa den jakiteko.
- **Bitartekoak.** Eragile bakoitzak bere bitartekoak ditu: gobernuek, esate baterako, legeak eta bestelako arauak erabil ditzakete; hedabideek, berriz, iritzi publikoa alda dezakete argitaratzen dutenaren bidez; hizkuntzaren aldeko elkarteek kanpainen edo bestelako ekintzen bidez iritzia sor dezakete. Hauek dira kontuan hartu behar diren printzipioak bitartekoei ahalik eta etekinik handiena atera ahal izateko (J.C. Corbeil, 1983):

  - **Konbergentziaren printzipioa:** hizkuntza-politikaren barruan hartutako erabaki guztiak bide berean badoaz eta ez badago euren arteko kontraesanik, arauen eragina handiagoa izango da.
  - **Dominantziaren printzipioa:** sozialki dominatzaileak diren aktoreen eragina handiagoa izango da gizartean baztertuagoak direnena baino.
  - **Persistentziaren edo inertzia sozialaren printzipioa:** portaera sozialek, oro

har, eta hizkuntzaren ingurukoek, bereziki, behin eta berriz errepikatzeko joera dutenez, lehendik dauden portaerak aldatzea zailagoa da berriak sortzea baino.

- **Hizkuntza-sistemaren barne-koherentziaren printzipioa:** zenbait hizkuntza-aldaketa ez dira onartzen hizkuntza sistemaren barne koherentzia zalantzan jartzen dutelako, adibidez, oso fonetika desberdineko hizkuntza batetik datozen maileguak.
- ▶ **Eraginak.** Hizkuntza politika baten eraginak zeintzuk diren jakiteko ezinbestekoa da ebaluazioa egitea. Hizkuntza politika bat **ebalutzeko hiru modu** egon litezke (François Grin, 2006):
  - **Arauek, produktuak eta emaitzak zeintzuk diren neurtzea:** arauen eraginkortasuna da neurtu beharrekoa, ez araurik dagoen ala ez; azken finean, ezarritako arauak zenbaterainoko eragina izan duten da jakin beharrekoa. Adibidez, politika baten helburua baldin bada hezkuntza sistemaren bitartez arriskuan dagoen hizkuntza indarberritzea, politika hori behar bezala ebalutzeko irizpidea izan behar da, helburua zenbateraino lortu den adieraziko duena; alegia, hizkuntza zenbateraino indarberritu den adieraziko duena. Adibidez, hizkuntzaren ezagutza edo erabilera zenbateraino hazi den.
  - **Kostu-ebaluazioa:** oso ikerlan gutxi dago arlo honetan eta hizkuntza politiken kostuen ebaluazio gutxi egiten denez, edo egiten direnek ez dutenez behar bezalako hedapenik izaten, sarritan uste faltsuak hedatzen dira. Adibidez, Europako erakundeek, gure inguruko beste erakunde publiko batzuekin konparatuta, hizkuntza askoren erabilera kudeatzen dute eta hori dela eta, askotan entzun izan dira horrek dakarren diru xahuketarekiko kritikak. Bada, Europar Batasuneko erakundeetan, 15 kide ziren garaiko datuen arabera, 11 hizkuntzatan jarduteak sortzen dituen itzulpen-kostuak 1,82 -koak ziren biztanleko eta urteko, hain zuzen ere Europar Batasunaren aurrekontuaren % 0,8 besterik ez.
  - **Kontrafaktualtasun-kontzeptua:** horrek jasotzen du egin dena egin izan ez balitz zer gertatuko zen eta zenbateko gastuak egongo ziren; adibidez, hezkuntza sistema elebidun baten politika batek dakarren kostua neurtzeko, sistema osoaren kostuak hartu daitezke kontuan edo, kontrafaktualtasunaren kontzeptua erabilita, sistema elebakarra izatearen eta elebiduna izatearen arteko kostu desberdintasuna. Kasu honetan bien arteko kostuen aldea % 3 edo 4koa denez, alde hori izango da hezkuntza sistema elebiduna izateak sortutako kostua.

Dena den, gehienetan aski zaila da hizkuntza-politika baten ebaluazioa egitea, eta oraindik ere sarritan ez da daturik egoten edo ez da jakiten nola egin.

## 5.2. HIZKUNTZA-PLANGINTZA

Hizkuntza-plangintza terminoaren bidez, beste batzuen hizkuntza-portaeran eragiteko, hizkuntzen eta hizkuntza-aldaeren irakaskuntzan, egituran eta funtzioetan egindako ahalegin kontzienteak adierazten dira (Cooper, 1997). Hizkuntza-politikan hartutako erabakiak gauzatzera bideratutako ekimen planifikatuak biltzen ditu hizkuntza-plangintzak, edo zentzu zabalagoan, hizkuntzen erabileran edo egituran eragiteko esku-hartze kontzienteak (Xavier Lamuela, 1994); izan ere, sarritan, esku-hartze horiek ez dira izaten aski planifikatuak ez baitute plan batek izan behar duen ezaugarriarik, nahiz eta hizkuntza-plangintza izena jarri.

Hizkuntza-politika hausnarketa, eztabaida, erabaki eta botereari lotuta dago, eta hizkuntza-plangintza, berriz, exekuzioari eta hartutako erabakien aplikazioari (Bastardas i Boada, 2009). Horixe da bien arteko desberdintasun nagusia.

Hizkuntza-politika batez ere gobernu erakundeei dagokie, baina edozein talde edo erakundek ere, barne-funtzionamendurako zein kanpo-harremanetarako, hizkuntza-politikari loturiko irizpideak izan ditzake; esate baterako, enpresetako euskara-planetan egiten den gauzatariko bat hizkuntza-politika zehaztea izaten da. Era berean, politika horiek gauzatu ahal izatera bideratutako hizkuntza-plangintza gobernuen esku egon daiteke, baina baita erakunde pribatu edo gizar-te-erakundeen esku ere. Hala, Katalunian zein Euskal Herrian protagonismo handia izan dute hizkuntzaren aldeko mugimenduek.

Arestian esan dugunez, hasiera batean ingelesezko terminoa (*language planning*) goitik beherako ikuspegi teknokratarekin garatu zenez, Quebec-en frantsesezko termino desberdina erabiltzeari ekin zioten (*aménagement linguistique*). Orain, berriz, ingelesera ere igaro da termino hori eta *language management* erabiltzen hasi dira (Jiri Nekvapil, 2006).

Hizkuntza-plangintza terminoa lehen aldiz Haugen-ek (1959) erabili zuen, batez ere aurrerago azalduko den corpusaren plangintza adierazteko. Geroago, berriz, hizkuntza-plangintzaren kontzeptua zabaldu egin zen, Soziolinguistikaren ikuspegi hertsiairen eta zabalaren bereizketarekin bat, eta ezberdindu egin ziren corpusaren eta estatusaren plangintza (Heinz Kloss, 1969):

- **Corpusaren plangintza:** hizkuntzari berari dago lotuta, alderdi linguistikoa lantzen du; emaitzarik esanguratsuenak dira gramatika eta hiztegi arauemaileak, terminologia-lanak, ortografia, puntuazio-arauak eta abar.
- **Estatusaren plangintza:** hizkuntzaren alderdi soziala lantzen du; hemen sartzen dira, adibidez, estatus legala ezartzea, hizkuntzaren alde egindako kanpainak, hizkuntza-transmisioa bermatzeko egindako ekimenak, helduak alfabetatzeko ekintzak eta abar.

Aurreko biak dira hemen erabiliko direnak, nahiz eta egile batzuek hirugarren bat ere bereizten duten (Cooper, 1997): irakaskuntzaren plangintza (*acquisition planning*). Hain zuzen ere plangintza-mota honetan sartu ziren hizkuntza irakasteari lotutako ekintza guztiak: Israelgo gobernuak hebreera ikasteko ematen dituenak, Zeelanda Berrian maoria ikasteko sortutako *kohunga*



reo edo “hizkuntza habiak” eta abar. Dena den, hemen estatusaren plangintzaren osagai gisa aztertuko da irakaskuntzaren plangintza.

Estatusaren plangintza da bi plangintza motetan zailena eta gehienetan corpusaren plangintzaren atzetik joaten da, batez ere hizkuntza gutxiagotueta. Hala eta guztiz ere, estatusari lotutako helburuek gidatzen dute corpusaren plangintza ere (Joshua A. Fishman, 2006a). Adibidez, hizkuntza teknologia berrietan sartu nahi bada, orduan teknologiari lotutako terminologia garatu beharko da, baina herri baten hizkuntza sinboliko soil gisa utzi nahi bada, berriz, ez du zentzurik izango terminologia berriei heltzeak. Dena den, giza eta gizarte-jarduera oro hizkuntzan oinarrituta dagoenez, nolabaiteko akordio bat behar da zenbait punturen gainean gizarteak funtzionatu ahal izan dezan: zein hizkuntza erabiliko den zein funtziotarako eta nola idatziko den.

Sarritan, bi plangintza-motak elkarrekin doaz eta txanpon beraren (hizkuntza-plangintzaren) aldetzat jo dira. Askotan, dena den, ez da aukerarik egoten biak egiteko eta hizkuntza-plangintzaren mota bakarra hautatzen da. Ez da komenigarria hizkuntza batentzat estatus berri batera iristea horretarako kode egokirik eduki gabe; eta alderantzizkoa ere ez: zertarako amaiera gabeko modernizatzeko-prozesuetan sartu, ez badu lortzen funtzio horiek betetzeko estatusik (Fishman, 2006b).

**Hizkuntza-plangintza:** hizkuntza-plangintza terminoaren bidez, beste batzuen hizkuntza-portaeran eragiteko, hizkuntzen eta hizkuntza-aldaeren irakaskuntzan, egituran eta funtzioetan egindako ahalegin kontzientek adierazten dira (Cooper, 1997). Hizkuntza-politikan erabakitakoak gauzatzeko ekimen planifikatuak biltzen ditu hizkuntza-plangintzak, edo zentzu zabalagoan, hizkuntzen erabileran edo egituran eragiteko esku-hartze kontzienteak (Lamuela, 1994); izan ere, sarritan, esku-hartze horiek ez dira izaten aski planifikatuak ez baitute plan batek izan behar duen ezaugarriarik, nahiz eta hizkuntza-plangintza izena jarri.

## 5.2.1. Corpusaren plangintza

Corpusaren plangintzan hizkuntza-kodea edo sistema bera beharrian berrietarako prestatzen da.

Corpusaren plangintzaren **helburuak** hainbat izan daitezke hizkuntzaren eta bestelako faktoreen arabera (Boix i Fuster; Vila i Moreno, 1998):

- **Normatibazioa:** hizkuntzaren edozein mailatan hizkuntza-arauak zehaztea, idazteko sistema bat aukeratzea (alfabeto latindarra, arabiarra, zirilikoa...), ortografia finkatzea, gramatika edo hiztegi arauemailea egitea. Honi oso estu lotuta dago gero aztertuko den estandarizazioaren kontzeptua.

## 5. HIZKUNTZA-POLITIKA ETA HIZKUNTZA-PLANGINTZA

- **Hizkuntza garbitzea:** hizkuntzaren aldetik zer den zuzena eta zer okerra finkatzea. Normalean, beste hizkuntzetatik jasotako mailegu eta kalkoei buruzko irizpideak zehazten dira, baina baita barne-aldaketen ingurukoak ere.
- **Terminologia eta baliabide estilistikoak lantzea:** hizkuntza bereganatu edo berreskuratu dituen arloetan (teknikan, zientzian, literaturan...) jardun ahal izateko sistema doitzea da. Hizkuntza teknikoak lantzen duten liburu edo ikasgaiak eta estilo-liburuei lotuta dago.
- **Hizkuntzaren erreforma:** arauak aldatzean datza. Eraldaketa hori txikia izan daiteke, portugesak 1980 inguruan, edo alemanak 1990eko hamarkadan egindakoen modukoa. Baina batzuetan sistemaren berregituraketa oso handia izaten da. Esate baterako, Atatürk-ek XX. mende hasieran turkiera guztiz aldatu zuen azken helburu gisa okzidentalizatzea eta desarabizatzea zuela. Horretarako, besteak beste, alfabetoa aldatu zuen eta arabiarra erabiltzetik latindarra erabiltzera pasatu zen; hizkuntzan eragin zituen aldaketa horiek, jakina, gizartean egin ziren beste aldaketa batzuekin bat zetozen eta bere ildo politikoaren barruan zeuden.

Corpusaren plangintzan garrantzitsua da **estandarizazio-prozesua**, hau da, hizkuntza baten aldaera estandarra zehaztu, ezarri eta lantzeko prozesu linguistiko eta soziala, garaian garaiko funtzioak behar bezala betetzeko prestatuta gera dadin hizkuntza. Haugen-ek (1983) eredu hau proposatu zuen hizkuntza-estandarizazio formalerako, alegia, estandarizazioa programatutako prozesu baten bidez egiten denerako:

	Forma	Funtzioa
Gizartea (estatusa)	1.- Hautatzea	3.- Inplementazioa
Hizkuntza (corpusa)	2.- Kodetzea: - Lexikalizazioa - Grafizazioa - Gramatikalizazioa	4.- Elaborazioa

**12. taula:** hizkuntza-estandarizazioaren faseak (Haugen, 1983).

Horrela, **Haugen-ek lau faseko eredu**a sortu zuen, betiere kontuan hartuta lau fase horiek ez dutela zertan bata bestearen ondoren gertatu (Boix i Fuster eta Vila i Moreno, 1998):

1. **Hautatzea:** estandarraren oinarrian zein aldaera egongo den aukeratzen da. Normalean dialekto bat aukeratzen da estandar gisa (hori egin zuten italierak edo frantsesak); beste aukera bat da aldaera berri bat garatzea, osagaiak dialekto batetik baino gehiagotik hartuta (aukera honi konponentziala deitzen zaio, eta horrela egin dute Filipinetan filipinera sortzeko tagalog hizkuntza herrialdeko beste hizkuntza batzuekin osatu zutenean). Sustatuko den aldaera zein izango den aukeratzeko irizpideak hainbat izan daitezke: sarritan dagoeneko botereguneetan erabiltzen dena aukeratzen da, eta dialektorik hedatuena edo prestigiorik handiena duena izan ohi da gehienetan.

2. **Kodetzea:** hitzun guztientzat arau esplizitua jartzean datza, hizkuntza erabiltzerakoan modu bat baino gehiago egoteak sortzen dituen zalantzak ezabatzeko; forma bakarra onartzen da, gehienetan.

Faktore hauek eragiten dute kodetzean (J. Bañeres, 1987):

- **Ekonomikoak:** normalean aukeratzen den aldaera jende gehienak erabiltzen duena izaten da, ekonomikoki indartsuena den lurraldekoa, sektorerik aberatsenean erabiltzen dena edo sektore intelektualek erabiltzen dutena.
- **Nazionalak:** hizkuntza dominatzailearen antz gutxien duten aldaerak, edo mugimendu nazionala indartsuen dagoen eskualdeetan hitz egiten dena aukeratu izan da zenbait kasutan.
- **Kultural eta literarioak:** hizkuntza klasikotik hurbilen dagoena edo prestigiodun idazleek erabiltzen dutena.
- **Pertsonalak:** kodetzearen egileari hurbilen egiten zaizkion formak aukeratzen dira faktore hauek indar handia hartzen dutenean.

Kodetzeak hiru azpiprosesu ditu (Haugen, 1983):

- **Grafizazioa:** grafia eta ortografia aukeratu behar dira; hau da, hizkuntza horretan nola idatzi behar den.
  - **Lexikalizazioa:** hiztegi arauemailea sortu edo, behintzat, lexikoaren forma estandarrik zehaztu behar dira, hiztunek jakin dezaten zeintzuk diren hitz zuzenak eta zeintzuk okerrak eta hitz bakoitzaren zein forma dagoen onartuta eta zein ez.
  - **Gramatikalizazioa:** gramatika arauemaileak adierazten du hizkuntzaren osagai gramatikalak nola erabili behar diren.
3. **Inplementazioa:** araututa dagoena hedatu egin behar da, bai ezagutza-mailan, hiztunek forma estandarria ezagutu dezaten, baita erabilera-mailan ere. Fase hau gizarteari askoz ere lotuago dago eta oso garrantzitsua da; izan ere, arestian esan bezala, hizkuntza estandarizatzeke aurretik egindako ahalegin guztiek ez dute ezer askotarako balio izango, baldin eta hiztunek erabiltzen ez badute.
4. **Elaborazioa:** baliabide terminologiko, sintaktiko eta estilistikoak garatzen dira. Fase hau bat dator hizkuntzak funtzio berriak irabaztearekin, horrek beharrezkoak sortzen baititu. Askoz ere garrantzitsuagoa da fase hau gizartean aldaketa handiak gertatzen direnean, teknologian eta bestelako jakintza-arloetan, adibidez. Horrek guztiak behar terminologiko berriak sortzen ditu abiadura handian.

Eredu honen arabera, beraz, desberdinak dira hizkuntza kodetuak eta hizkuntza estandarizatuak. Hizkuntza kodetuek araututako aldaera bat dute, baina baliteke oraindik ere gainerako faseak bete gabe izatea eta gizartean hedatu gabe egotea; hizkuntza estandarizatuak, aldiz, azalduko lau faseak bete dituzte.

Corpusaren plangintzan norabide desberdinak daude, eta hartzen den norabidea ideologikoki

## 5. HIZKUNTZA-POLITIKA ETA HIZKUNTZA-PLANGINTZA

bat etorri ohi da agintariek duten ideologia orokorrarekin. Hauek izan litezke corpusaren plangintzaren **norabideak** (Fishman, 2006a):

- **Garbitasuna edo herrikoitasuna:** askotan egin izan da garbitasunaren alde plangintzetan; adibidez, Espainiako Hizkuntzaren Akademiaren leloa *Limpia, fija y da esplendor* da. Hizkuntzaren garbitasunaren alde egiten denean, batez ere beste hizkuntza batzuetatik hartutako maileguen aurka egiten da (euskaraz, adibidez, *telefono* hitzaren ordez *urrutzikina* erabiltzea). Ingelesaren kasuan, berriz, akademiarik ez dagoenez, gehiago jo da herrikoitasunaren ildotik, itxura batera, behinik behin. Horrek guztiak hizkuntzarekin berarekin baino herrialdearen historiarekin eta faktore politikoekin du zerikusia (adibidez, Turkian frantsesaren forma “garbiak” begi onez ikusten zituzten, eta arabierazko maileguak, berriz, arbuatu egiten zituzten Atatürk-en garaietan).
- **Berezitasuna edo mendebaldetasuna:** aurrekoari lotuta dago; berezitasunaren izenean uko egiten zaio maileguak onartzeari, hizkuntza isolatzeari ematen diote garrantzia. Mendebaldetasunaren aldekoek, berriz, hizkuntza ingelesera hurbiltzeko ahalegina egiten dute.
- **Klasikotasuna edo panifikatzea:** hizkuntza bat noiz jaiotakoa den zehatz-mehatz esatea ezinezkoa da, baina hizkuntza batzuk beste batzuk baino zaharragoak dira zalantza barik (hala, latina zaharragoa da galiziera baino, jakina). Hizkuntzen antzinatasunak halako erakarpen-indar bat izan ohi du eta sarritan planifikatzaileek klasikotasunerantz jo izan dute; adibidez, Indian hindi hizkuntza nagusi bilakatzeko modernizatu zutenean, sanskritoko elementu asko erabili zituzten, besteak beste, hizkuntza klasikoa zenez, prestigio handia zuelako sanskritoak, nahiz eta horrek zailtasun handiak sortu jende askok, batez ere musulmanek, ez zituelako sanskritoazko hitzak ulertzen. Panifikazioaren alde egiten dutenek, berriz, zenbait herriren batasunaren alde egiteko, noizbait herri horiek guztiek hitz egin omen zuten hizkuntza desagertua berreraikitzea jotzen dute. XIX. mendean, adibidez, Iliria herrialdearen batasunaren alde egin zuten Balkanetan eta, ustez, han hitz egindako hizkuntza berreraikitzen saiatu ziren. Horrelako saiakerek ez dute arrakastarik izan eta ez dute lortu euren helburua betetzerik; aipatutako adibidean ez zuten lortu Iliriako hizkuntza berreraikitzerik.
- **Einbau eta Ausbau sistemak:** hizkuntza-araua ezartzean izaten diren irizpideen joera ezberdinak bi sistema hauetan lerra daitezke. Lehenengoak (*Einbau*) inguruko hizkuntza indartsutik hurbil geratzea izaten du helburu; bigarrenak (*Ausbau*), aldiz, inguruan duen hizkuntza indartsutik ahalik eta urrunen geratzen diren erabakiak hartzea, desberdintasunak ahalik eta handienak izan daitezen. Eraginak oso desberdinak izaten dira: *Einbau*k sarritan hizkuntza-ordezkapena bultzatzen du. Pakistan XX. mendean Indiatik bereizitako herrialdea da, batez ere erlijioarengatik (pakistandar gehienak musulmanak dira). Pakistanen urdua dute hizkuntza nagusia, eta Indian, berriz, hindia. Bi hizkuntzak oso-oso antzekoak dira, baina bi estatuen arteko desberdintasunak nabarmentzeko gero eta desberdinago egiten ari dira bi hizkuntzak (hindiak sanskritorantz jo duelako).

Beraz, corpusaren plangintza ere, nahiz eta itxura batera politikoki neutroa izan, autoritateak hizkuntza-ordezkapena bultzatzeko erabil dezake. Beti dago lotuta hiztun-komunitatean denboran zehar gertatzen diren aldaketa ekonomiko eta politikoei. Adibidez, moldaviera errumanieraren dialektotzat hartzen zen II. Mundu Gerra baino lehen. Gero, Moldavia sobietarren mendean geratu zenean, hizkuntza desberdintzat hartu zuten eta alfabeto zirilikoa jarri zioten idazteko. Ondoren, Moldavia independentearen lehen urteetan errumanieraren hurbileko hizkuntza gisa aurkeztu zuten eta alfabeto latindarrean idazteari ekin zioten berriro. Orain, berriz, errumanieraren ahozko aldaera gisa onartu da ofizialki, eta idatzizko errumaniera jarri zaio literaturarako eredu gisa (Fishman, 2006b). Horrenbestez, corpusaren plangintzan hartzen diren erabaki askok ere eragin sozial handia dute eta taldeen arteko botere harremanak alda ditza-kete, talde bataren edo bestearen aldaera edo alfabetoa aukeratu delako, esate baterako.

Esperientzia askotan ikusi da corpusaren plangintza dela lehendabizi egin beharrekoa, estatusaren plangintzaren aurretik. Gainera, agintariak hizkuntza-aniztasunaren aurka daudenean, errazagoa da botereak corpusaren plangintza egiteko baimena ematea estatusarekin lan egitekoa baino.

**Corpusaren plangintza:** hizkuntza-plangintzaren osagaietako bat da, alderdi linguistikoa lantzen duena. Honen barruan lantzen dira, besteak beste, gramatikak, hiztegiak, ortografia-arauak... Azken helburua hizkuntza-kodea bera beharrian berrietarako prestatzea da. Helburu hori lortzeko garrantzitsua da plangintza-mota honetan hizkuntzaren estandarizazio-prozesua, hau da, hizkuntza baten aldaera estandarra zehaztu, ezarri eta lantzeko egiten den prozesu linguistiko eta soziala.

## Euskararen corpusaren plangintza

Euskararen kasuan aurrerapen handiak egin dira XX. mendearen bigarren erdialdean eta batez ere azken hamarkadetan.

Euskal Herria administrazio eremu desberdinetan zatituta egon da mendeetan zehar eta azken mendeetan, gainera, Bidasoaren alde banatan erdara desberdin bat izan da nagusi (gaztelania Hegoaldean eta frantsesa Iparraldean). Herrialde desberdinetako euskaldunen artean harreman gutxi egon denez, dialekto asko garatu dira eta elkarri ulertzeko zailtasunak gero eta handiagoak izan dira. Gainera, euskara Euskal Herri osorako goi-mailako zereginetan ez denez erabili ez da egon maila horretako euskara-eredu bakarrik.

Euskararen historian zehar, banaketa izan da nagusi eta horrek galarazi du euskara estandarra sortzea. XVI. mendean Iparraldean Lapurdiko kostaldeko euskarak hartu zuen indar eta prestigio handia, baina indar hori ez zen iritsi Hegoaldera eta XVII. mendean ahultzen hasi zen. Hegoaldean, berriz, XVIII. mendean Gipuzkoako euskara indartu zen eta euskalkiekiko errespetuaren aldeko aldarriak gertatu ziren Larramendi, Kardaberaz eta Mendibururen eskutik.

## 5. HIZKUNTZA-POLITIKA ETA HIZKUNTZA-PLANGINTZA

Bizkai aldean ere izan zuen jarraitzailek Gipuzkoako euskara erabiltzearen aldeko ideiak (adibidez, Mogel). Dena den, XIX. mendean indartu egin zen Bizkaian bertako euskalkiaren aldeko jarrera eta zenbaitek gainerako euskalkietatik gehiago bereizteko ahalegin handiak egin zituzten arkaismoak berpiztuta eta tokian tokiko berezitasunak bultzatuta.

XIX. mendearen bigarren erdian Sabino Aranak Eusko Alderdi Jeltzalea sortu zuen. Euskararen batasunaren aurka agertu zen eta horrek eragin handia izan zuen bere garaian eta hurrengo hamarkadetan, batez ere Hegoaldean eta bereziki Bizkaian. Aranak hainbat arrazoi eman zituen euskararen batasunaren aurka (Zuazo, 2005): euskalkien artean ez zegoela alde handirik, galdu egingo litzatekeela euskalkien aberastasuna, desberdintasunak sortuko liratekeela jende ikasiaren eta ikasi gabearen artean eta ez zegoela horrelako egitasmoa bideratzeko jende aditurik. Sabino Aranaren helburua Euskal Herri federala lortzea zen, sei herrialdez osatua eta bakoitza bere euskalkiarekin. Gainera, euskara erdaretatik ahalik eta gehien urruntzeko helburuarekin garbizaletasuna bultzatu zuen Sabino Aranak, maileguak gaitzetsi zituen eta ustez euskara garbikoak ziren hitzak asmatu zituen, emaitza gisa oso euskara ulergaitza sortuz.

Hala eta guztiz ere, Sabino Arana hil eta gero, XX. mendearen hasieran, izan ziren euskararen batasunaren aldekoak Eusko Alderdi Jeltzalean, batez ere euskara lan-tresna nagusi zutenen eskutik (idazleak, kazetariak eta irakasleak). Hala ere, EAJren zuzendaritzak euskararen batasunaren aurkako erabakia plazaratu zuen 1916an Aranaren arrazoiak berretsita; izatekotan ere, Bizkaiko euskarari aitortzen zioten euskalkien arteko nagusitasuna.

Giro horretan sortu zen Euskaltzaindia. Bera da euskararen corpusari lotutako gaietarako erakunde nagusia. Sorrera 1919. urtean izan zuen Frantziako eta Espainiako hizkuntza-akademien ereduari jarraituta. Bere egiteko nagusien artean euskararen estandarizazioa zuen. 1920an estandarizazioaren gaia aztertzeke batzarra izan zen eta gaiaren inguruko txosten asko aurkeztu ziren. Gaiaren inguruan zegoen iritzi-aniztasuna agerian utzi zuen batzar hark: euskaltzain asko batasunaren kontra zeuden eta alde zeudenak ere ez ziren iritzi berekoak. Hauek ziren han aurkeztutako aukerak (Zuazo, 2005): jatorrizko euskara berreraikitzea, Bizkaiko euskarari ematea lehentasuna, Gipuzkoako euskara lehenestea, gipuzkera osotua eta euskara osotua. Ortografiaren batasunari buruz, berriz, gehienak aldekoak ziren, nahiz eta horretan ere aukera bat baino gehiago egon. Ortografiari buruzko zenbait erabaki hartu ziren 1920an.

Espainiako Gerra Zibilak eta II. Mundu Gerrak eragin handia izan zuten garaiko gizartean eta geldialdi handia ekarri zuten euskararen estandarizazio-prozesu zailean. Geroztik izandako industriaren gorakadak aldaketa handiak ekarri zituen: hiriak hazi egin ziren, etorkin asko iritsi ziren Hegoaldera eta ideologia berriak hasi ziren hedatzen. Hala, gizartean ere haustura sortzen hasi zen, esate baterako, hirietako eta baserri giroko jendearen artean eta erlijiozaleen eta ezkerzaleen artean. Banaketa horrek eragin handia izan zuen XX. mendearen bigarren erdialdean gertatu zen euskararen estandarizazio prozesuan. Izan ere, batasunaren aldekoek gizarte hiritar eta industrial berrira egokitu nahi zuten euskara eta horretarako estandar baten beharra ikusten zuten. Beste batzuek, berriz, euskara batez ere tokian tokiko ahozko jardunerako aldarrikatzen zuten eta horretarako nahikoa zuten euskalkiekin. Federiko Krutwigek, adibidez, euskara goi-mailako kulturara hedatu beharraren alde egin zuen eta horretarako Leizarragaren lapurtera klasikoaren bidetik jo zuen; hasieran jarraitzaile asko izan bazituen ere, aldendu egin

zitzaizkion gero. Iparraldean, berriz, eredu nafar-lapurtarra zen nagusi bertako komunikabide idatzietan

Gainera, 1960ko hamarkadan mugimendu politikoa eta kulturala asko indartu ziren: besteak beste, ikastolak sortu ziren, helduentzako gau eskolak ere bai, euskal kantariak eta artistak indar handiz agertu ziren, Euskal Herri batu eta independentearen aldeko ideiak hedatu ziren. Horrek guztiak handitu egin zituen euskara tresna gisa erabiltzen zutenen estandar baten beharra.

Prozesu luze eta zaila izan da, saiakera bat baino gehiago izan dituena.

Horrenbestez, Baionan Euskal Idazkaritza sortu zen garaiko eragile politiko eta sozial garrantzitsuenen ordezkariekin (Txillardegia, Telesforo Monzon, Roger Iriart, Xabier Kintana, Jean Louis Davant...), herrialde gehienetako pertsonak tartean zirela. Euskararen batasunaren oinarriak finkatzeko txosten bat prestatu zuten eta Baionako biltzarra antolatu zuten 1964an proposamena eztabaidatzeko. Batzarrak arrakasta handia izan zuen, euskara batua sortu beharra aldarrikatu zuten eta Euskaltzaindiari horren alde lan egin zezala eskatu.

Euskaltzaindiak Koldo Mitxeleneri eskatu zion prestatu zezala euskararen batasunari buruzko txostena eta Arantzazuko biltzarra antolatu zuen 1968an. Mitxeleneren proposamenak Baionako erabakiak hartu zituen oinarri eta handik atera ziren euskara idatziaren batasuneko lehenengo arau-multzoa, ortografiari, morfologiari, deklinabideari eta neologismoei buruzkoa. Estandar hori proposatzeko, oinarri hartu zuten, lehenik, gipuzkera eta nafarrera eta, bigarren mailan, ertzetako euskalkietako aldaerak (Zuazo, 1988).

Hegoaldean, batez ere, gatazka gogorra sortu zuten orduko erabakiek. Eztabaida sutsuak izan ziren ortografiaren arloan eta *h* letra hartu zen desadostasunen ardatz moduan. Hizkuntzaren arlotik zeharo urrundu ziren eztabaidak eta politikaren alorrean garatu ziren batez ere: *h* letraren aurkakoei letra hori marxismoaren, iraultzaren eta elizaren aurkakoen sinbolo gisa hartu zuten eta ETA egin zuten *h*-a zabaltzearen erantzule. Euskaltzaindiaren buru zen Luis Villasante frantziskotar fraideak ere parte hartu behar izan zuen eztabaidan hartutako erabakiak defendatuz.

Biltzar hartan hartu zen bidea batzuek gogor kritikatu bazuten ere, ez dira haien jarrerak tesuinguru politiko eta kulturaletik kanpo ulertu behar. Are gehiago, kritiko agertu ziren gehienak euskara batuaren aldeko jarrera garbia izan zuten eta aldaera berriaren sustapenean modu aktiboan hartu zuten parte. Era berean, idazle gehienak arauak erabiltzen eta euskara batuan idazten hasi ziren eta, handik aurrera indar handiz sortu ziren alfabetatze- eta euskalduntze-ikastaroetan ere, euskara batua irakatsi zuten. Geroztik sortu ziren komunikabide gehienek ere euskara batua erabili izan dute, batez ere, Euskal Herri osora iristen zirenek. Gainera, handik gutxira, frankismoaren ondoren, administrazio publikoan euskara idatzia erabiltzen hasi zenean ere, euskara batua erabili zen.

Hurrengo urteetan, 1980ra bitartean, hainbat oinarritzko erabaki hartu zituen Euskaltzaindiak (aditzaren paradigmak, ortografiari buruzko zenbait kontu...). Ondoren, zenbait lan egin dira, deskriptiboak (alegia, hizkuntza nola erabili izan den deskribatzen dutenak) eta arau emaileak (hain zuzen ere, euskara nola erabili behar den esaten dutenak):

## 5. HIZKUNTZA-POLITIKA ETA HIZKUNTZA-PLANGINTZA

- Lexikogintzan Orotariko Euskal Hiztegiak 1970. urte arte euskaraz historia guztian argitaratu den literatura-corpora aztertu du, XX. mendeko euskararen corpus estatistikoa osatu da eta hiztegi batuko zerrendak argitaratzen joan dira urteetan (zerrenda horietan zenbait aldaera hobesten dira baturako eta beste batzuetan gomendioak ematen dira forma baten edo besteren alde).
- Gramatikagintzan, gramatika deskriptiboa argitaratu da *Euskal Gramatika. Lehen Urratsak* (EGLU) izeneko liburuetan. Euskal literaturan gramatikazko osagaiak nola erabili izan diren jasotzen dute.

Azken urteetan, gainera, Euskaltzaindiak bere arau eta gomendioak argitaratu ditu hizkuntzaren corpuseko zenbait osagai finkatzen joateko. Gaur egun, material horiek guztiak Interneten daude edonoren eskura Euskaltzaindiaren webgunean ([www.euskaltzaindia.net](http://www.euskaltzaindia.net)), eta zenbait ikastaroren eta argitalpenen bidez, hartutako erabakien hedapena egin da.

Hiztegi gintzan ere aurrerapauso handiak egin dira eta hiztegi asko argitaratu dira, orokorrak zein espezializatuak eta hainbat hizkuntzatarakoak. Gehienak gaur egun Internet bidez kontsultatzeko moduan daude. Terminologiaren alorrean EUSKALTERM terminologiaren banku publikoa sortu da. Teknologia berrien aurrerakadari erantzuteko ere zenbait tresna sortu dira, tartean XUXEN ordenagailuan erabiltzeko zuzentzaile ortografikoa.

Internetek aurrerapen eta erraztasun handiak ekarri ditu dagoeneko euskararen corpusaren plangintzara: edozeinen eskura jarri ditu ahalmen handiko bilaketa tresnak formatu berrietan (hiztegiak, Euskalbar, euskararen corpora...), hartutako erabakien hedapena asko erraztu du (Euskaltzaindiaren arauak, hiztegi batua...) eta kontsultak egiteko eta elkarlanerako bideak ireki ditu (*Duda-muda*, *Itzul* posta zerrenda, zalantzak argitzeko *Jagonet* zerbitzua...).

Beraz, zenbait mendetan lortu ezin izan den euskararen batasuna hamarkada oso gutxitan lortu da arrakasta handiz. Koldo Zuazoren (2005) ustez, hori horrela izan ahal da aukeratutako aldaerak betetzen zituelako estandarerako behar diren baldintzak:

- Demolinguistikoa: hitzun asko izatea.
- Sozioekonomikoa: azpiegitura egokia izatea hizkera zabaltzeko, herri haziak, besteak beste.
- Soziolinguistikoa: prestigioko hizkera izatea.
- Linguistikoa: hitzun gehientzat ulerterraza eta ikasterraza izatea; horretarako, lagungarri izan ohi da erdigunean egotea geografikoki.
- Literatura-tradizioa.

Dena den, batuak zailtasunak ere sortu zituen, eta oraindik ere sortzen ditu nahiz eta gero eta gutxiago, jatorrizko hitzunengan. Adibidez, euskarazko telebista sortu berriko euskara ulertu ezin izateak kontrako jarrerak sortu zituen: batzuek *Hori ez da euskara* esaten zuten, eta beste batzuek, berriz, *Gure euskara txarra da*. Horrelako aurreiritzi asko sortu izan dira, esate baterako, mendebaldeko euskara hitzunengan, batuarekiko distantzia handiagoa dutelako, eta lehen azaldu diren eztabaiden eta desadostasunen ondorioz. Azken urteetan euskalkiek eta batuak



zer nolako harremanak eta bakoitzak zein funtzio izan beharko luketen lantzen ari da eta zabal-tzen ari da euskalkien alde egin daitekeela eta egin behar dela, eta, aldi berean, batuaren alde ere bai; hain zuzen ere, batua eta euskalkiak osagarriak direla eta guztien beharra dagoela (Zuazo, 2001).

**Euskara batua:** euskararen aldaera estandarra. Euskaltzaindiak, euskararen akademiak, 1968an onartu zituen euskara batuaren oinarriak. Proposamena Koldo Mitxelenak prestatu zuen Txillardegik eta beste zenbait-tek 1964an Baionan Euskal Idazkaritzan erabakitakoak oinarri hartuta. Erdialdeko euskara hartu zen euskara batuaren sustrai gisa. Zenbait desadostasun sortu bazi- ren ere, batez ere Hegoaldean *h* letra hartuta aitzakia gisa, gizartean onarpen zabala izan zuen eta denbora gutxian hedatu zen euskara lan-tresnatzat zutenen artean. Aurretik ere izan ziren hainbat saio euskararen batasuna lortu eta hizkuntza estandarra lortzeko, baina batek ere ez zuen izan arrakastarik.

### 5.2.2. Estatusaren plangintza

Plangintza-mota honen helburua hizkuntza-aldamera bat bultzatzea izan ohi da. Beraz, lotuta dago hizkuntzaren funtzioei. Hizkuntza-plangintzaren helburua gizartean aldaketa eragitea da, eta hori askotan oso zaila izan ohi denez, ez dira beti arrakastatsuak izaten arlo horretako ekime- nak.

Plangintza dimentsio ezberdinetan izan daiteke (J.I. Marko, argitaratu gabea):

- **Norbanakoetan:** adibidez, hizkuntza ikasteari lotutako planak.
- **Taldean:** belaunaldi arteko transmisioa bultzatzeko planak, esate baterako.
- **Organizazioetan:** enpresetan zein elkarteetan hizkuntza bat sustatzeko planak.
- **Sektore ekonomiko eta sozialetan:** merkataritzan euskara sustatzeko planak.
- **Komunitatean:** adibidez, herrietako euskara-planak.
- **Ekosisteman:** maila orokorrean egiten diren planak, Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia edo Bai Euskarari Akordio Estrategikoa.

## 5. HIZKUNTZA-POLITIKA ETA HIZKUNTZA-PLANGINTZA



**13. irudia:** plangintzaren aplikaziorako maila sistematikoa (Marko, 2001).

Piramide honen goieneko geruzetan egiten den plangintza makro-mailakoa da eta erditik behera egiten denean, berriz, mikro mailakoa.

**Estatusaren plangintza:** hizkuntza-plangintzaren osagaietako bat da. Hizkuntzaren alderdi soziala lantzen du; hemen sartzen dira, adibidez, estatus legala ezartzea, hizkuntzaren alde egindako kanpainak, hizkuntza-transmisioa bermatzeko egindako ekimenak, helduak alfabetatzeko ekintzak eta abar. Estatus-plangintzaren azken helburua da hizkuntza batek, edo hizkuntza-aldamera batek gizartean duen egoera aldatzea. Bi plangintza-motetan zailena da, gizartean aldaketa bat lortzea duen helburu.

Makro-plangintzak gizarte osoa edo talde ezberdinak dituzte helburu eta, ondorioz, egitura konplexua duten eremuetara bideratuta daude, ekosistema, komunitate edo sektore jakinetara, beraz. Hizkuntza gutxiak dituzten herrialdeen testuinguruan kokatuta, **hizkuntza-normalizazioa** da guri egokien datorkigun terminoa.

Herrialde katalanetan hizkuntzaren inguruan zegoen egoerari eta giroari egokitzeko hizkuntza-politika edo -plangintza kontzeptuak nahikoa ez zirelakoan, Lluís Aracil (1965) valentziarrak hizkuntza-normalizazioa terminoa asmatu zuen, hizkuntza-ordezkapenaren aurkako prozesu soziala adierazteko, hain zuzen ere, eremu urriko hizkuntzak sustatzeari lotuta. Dinamikotasuna eta aldaketa adierazten zituen eta arrakasta handia izan du Euskal Herrian ere. Kontzeptuan Katalunian hizkuntza indarberritzeko landu beharreko guztia bildu zuten: kodea arautzea edo corpusaren plangintza, sustapen terminologikoa, ezagutza hedatzea, erabilera hedatzea, etorkinak elebiduntzea, pertsona arteko hizkuntza-portaera aldatzea... Kontzeptua hain zabala bihurtu zenez, nahasmena sortu du eta zehaztasuna galdu du gehiegizko polisemiaren eraginez. Nazioarteko arlo akademikoan Katalunia sartu ahala gero eta gutxiago erabili da terminoa: orain legearen izenean ez da normalizazioa agertzen, politika baizik (Bastardas i Boada, 2009).

Ez da nahasi behar hemen aurkeztu den hizkuntza-normalizazioa frantsesezko *normalisation linguistique* terminoarekin; izan ere, horrek hizkuntzaren egiturari buruzko arau bakarria ezartzea esan nahi baitu, hain zuzen ere, corpusaren plangintzari buruzko atalean aztertu den hizkuntza-estandarizazioa.

**Normalizazioaren helburuak** maila desberdinekoak izan daitezke (Boix i Fuster; Vila i Moreno, 1998):

## 1. Helburu politiko eta juridikoak

- Gutxieneko helburua: nahi dutenek hizkuntza gutxitua erabili ahal izatea alor guztietan; hau da, hizkuntza-eskubideak bermatzea.
- Helburu ertaina: gutxieneko helburua eta orain arte gutxitua izan den hizkuntza erakunde guztien **hizkuntza ofiziala** izan dadila; hau da Katalunian eta Euskal Herrian ardatz gisa erabili dena.
- Gehienezko helburua: hizkuntza gutxitua izan dadila hizkuntza ofizial bakarra bere lurraldean. Helburu horixe aukeratu zuten Txekian edo Polonian.


## 2. Helburu soziolinguistikoak

- Gutxieneko helburua: hizkuntza gutxituak erabilera eremu guztiak bere egitea.
- Helburu ertaina: gutxienekoa eta hizkuntza hori ez dakiten herritarrak elebiduntzea.
- Gehienezko helburua: lehengoak eta aloglotak (kanpotik beste hizkuntza batekin iristen direnak) integratzea hitzun-komunitateko kide aktibo bihur daitezen eta ondorengoei hizkuntza transmiti diezaieten.

## Normalizatorako neurriak

Helburu juridikoak ezarrita, ofizialtasuna ezarrita eta eskubideak finkatuta, horiek garatzeko neurriak ezarri behar dira; izan ere, lortu nahi den helburua erdiesteko neurriak hartu beharra dago. Estatusaren plangintzan oso desberdinak izan daitezke hartzen diren **neurriak** (Boix i Fuster; Vila i Moreno, 1998):

- **Neurri enblematikoak:** balio sinbolikoa dute eta errazena dira hartzen; adibidez, erakunde bati izena hizkuntza gutxituan jartzea (Irlandan *garda* poliziarri eta *Eire* Irlandari; Euskal Herrian ere asko eta asko dira horrelako kasuak bai eremu formaletan eta baita informaletan ere; adibidez, Hegoaldeko osasun zerbitzuei euskarazko izena jarri zaie: Osasunbidea eta Osakidetza).



- **Neurri zigortzaileak eta penalizatzaileak:** honelako neurriek ondorio praktiko handiagoak dituzte eta asko erabili izan dira historian zehar batez ere oso ideologia hierarkiko edo autoritarioetan (adibidez, Francoren diktadurapean Espainiako Estatuan).
- **Neurri despenalizatzaileak:** honelako neurrien bidez lehen debekatuta egondako hizkuntzaren funtzioei bide ematen zaie: adibidez, aurretik haurrei euskarazko izenak jartzea debekatuta egon zen eta gero hori egin ahal izateko baimena eman zen.

- **Jarduera afirmatiboak edo diskriminazio positibokoak:** hizkuntzen inguruan sortutako desberdintasunak konpontzeko ezartzen dira, eta ez dituzte soilik eremu urriko hizkuntzetarako ezartzen; adibidez, merkatua zuzentzeko neurriak hartzen dira Espainian eta gaztelaniazko filmak egiteko diru-laguntzak ematen dituzte, nahiz eta gaztelania ez izan eremu urriko hizkuntza.

## 5.3. EUSKARAREN ESTATUS JURIDIKOA

### 5.3.1. Lege-estatusa: ofizialtasuna

Hizkuntza bati ofizialtasunaren estatusa esleitzen zaionean, eraginkortasun juridiko osoz erabili ahal izango da; alegia, gure kasuan, euskaraz egiten diren ekintza zein adierazpen guztien baliozkotasun eta eraginkortasun juridikoaren aitortzaren ondorioa da ofizialtasuna. Are gehiago, herritarrek beren hizkuntza-eskubideak baliatzeko aurkitzen dituzten oztopoak zein zailtasunak kentzeko betebeharra dute herri-aginteei.

Espainiako Auzitegi Konstituzionalaren ekainaren 26ko 82/1986 Epaiak ezarri zituen, neurri batean, ofizialtasunaren mugak. Aipatu epaiak honela dio: *...es oficial una lengua, independientemente de su realidad y peso como fenómeno social, cuando es reconocida por los poderes públicos como medio normal de comunicación en y entre ellos y en su relación con los sujetos privados, con plena validez y efectos jurídicos.*

Hala ere, formalki, errealitate soziolinguistikoak berdintasun juridikoa desitxuratu ezin dezakeen arren, egia ere bada errealitate soziolinguistikoa hartu dela ofizialtasunaren muina modulatzeko. Alegia, formalki berdintasun juridikoa legoke bi hizkuntza ofizialen artean, baina materialki ez. Hartara, botere publikoen jarduerak egoerak orekatzera zuzendu beharko liriateke.

Halaber, kontuan izan behar dugu euskararen ofizialtasuna lurralde eremu zehatz batean aplikatzen dela, baina horrek ez du esan nahi lurralde horretako tokiko erakundeek besterik ez dutela horren bermearen erantzukizuna. Aitzitik, lurralde horretan dauden administrazio guztiek dute ofizialtasunaren ondorio juridikoak bermatzeko derrigortasuna: gobernu autonomikoek eta horien mendeko erakundeek, udalek eta toki-administrazioek, lurralde historikoetako administrazioek, ofiziala den eremuetan kokatutako Estatuko administrazioak, erakunde autonomoaren izaera duten administrazio-erakundeek (INEM, INSS, RENFE...) eta abar. Hortaz, ofizialtasuna estatus hori aitortzen zaion lurralde osora zabaltzen da.

**Lege-estatusa:** hizkuntzari esleitzen zaion legeko aitortza. Lege-estatus ohikoena ofizialtasuna izaten da.

**Ofizialtasuna:** hizkuntzari esleitzen zaion lege-estatusa. Horren ondorioz, hizkuntza horrek lege balioa izango du estatus hori esleitu zaion lurralde horretan.

## Hizkuntza-aniztasunaren kudeaketa Euskal Herrian

Euskal hizkuntza-komunitatearen lurraldeak 20.950 km<sup>2</sup> besterik ez hartu arren, euskararen estatusa eta, ondorioz, euskaldunon hizkuntza-eskubideak bost/zazpi erregimen juridikoren mende daude: Ipar Euskal Herria; Euskal Autonomia Erkidegoa; Nafarroan, legeak ezarritako eremu euskalduna, mistoa eta ez-euskalduna; Kantabrian, Turtzioz eta Gaztela Leonen, Trebiñu.

### ► Ipar Euskal Herria

Hizkuntzaren inguruko legeria, aginduak eta ebazpenak izan arren, 1992ra arte ez zen hizkuntzen inguruko aipurik izan Frantziako Konstituzioan. Urte horretan Konstituzioaren bigarren artikulua moldatu, eta subirautzari lotutako I. tituluaren bigarren artikuluan frantsesa Errepublikako hizkuntza zela jaso zen: *la langue de la République est le français*.

Ordutik, Frantziako Konstituzioa aldatzeko zenbait saiakera izan badira ere, 2008ko uztailera arte ez da aldaketarik izan.

Alta, 2008ko uztailaz geroztik Bosgarren Errepublikako Frantziako Konstituzioaren 75.I. artikulua berriaren arabera, erregio-hizkuntzak Frantziako ondare dira: *Les langues régionales appartiennent au patrimoine de la France*. Hala ere, oraingoz, eta Frantziako Ministerioek herritarren eskaerei emandako erantzunetan oinarriturik, artikulua berri horrek ez dio ireki aterik inolako eskubide berriari.

Hizkuntzaren beraren araubideari dagokionez, eta 1992ko Konstituzioaren aldaketaren ondoren, 1994ko abuztuaren 4an 94-665 Legea onartu zen, Jacques Tubon Kultura eta Frankofonia Ministroak sustatua. Lege berri horrekin hizkuntza-arau berri bat jarri nahi izan zuten abian, Estatuko jardun guztiak arautzeko, hain zuzen ere. 94-665 Legeak frantsesaren erabilerara mugatzen du araudia, eta kanpoan geratzen dira Frantziako Estatuko beste hizkuntzak, berezkoak eta berezkoak ez direnak. Hartara, frantsesa ez beste hizkuntzak erabiltzeko askatasuna legeak arautzen ez dituen eremuetara mugatuko da, edota, frantsesaz gain, beste hizkuntzen erabilera baimentzen duten eremuetara.

Arrazoi horrengatik herritarren hizkuntza-eskubideak ez daude legez aitortuta, eta horien egikaritzea administrazio bakoitzaren borondatearen mende geratzen da. Bestalde, eskubidearen alde aktiboa, hau da, euskaraz zuzentzearena, ez dago aitortuta frantsesa erabiltzen ez bada. Hartara, euskararen erabilerak balio sinbolikoa du; balio juridikorik gabekoa, alegia.

### ► Hego Euskal Herria

Hego Euskal Herrian hizkuntza-eskubideak nola dauden araututa aztertzeko, interesgarria da Espainiako Estatuan aplikatzen den sistemaren lau ezaugarri nagusiak kontuan izatea:

## 5. HIZKUNTZA-POLITIKA ETA HIZKUNTZA-PLANGINTZA

- **Gaztelania ezagutzeko derrigortasuna:** Espainiako Konstituzioaren hirugarren artikulua ezarria. Hartara, ez dago gaztelaniaren ez-jakintasuna argudiatzerik.
- **Berezko hizkuntzaren izaera:** zenbait autonomia erkidegotan tokiko hizkuntzak berezko izaera hartzen du. Izaera hori tokiko hizkuntzaren erabilera lehenesteko neurriak justifikatzeko ezaugarri bihur daiteke.
- **Hizkuntzaren gatiko diskriminazio-eza:** Espainiako Estatuak berretsitako nazioarteko hainbat itunek propio jasotzen badute ere, Espainiako Konstituzioak saihestu egin zuen hizkuntzaren gatiko diskriminazioa jasotzea.
- **Ofizialtasuna:** herritarren eskubideak aitortzeko sistema. Espainiako Estatuak berezko hizkuntza desberdina duten lurraldeetan hizkuntza-ofizialtasun bikoitzaren sistemak arautu zituen.

Hori horrela izanik, hona hemen lurraldeetako bakoitzean indarrean dauden legeen arabera euskarari esleitzen zaizkion estatusak:

### Euskarak estatus ofiziala

- Euskal Autonomia Erkidegoan (EAE): Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan.

Euskadiko Autonomia Estatutuaren 3/1979 Lege Organikoaren seigarren artikulua arabera, euskarak, Euskal Herriaren berezko hizkuntzak, hizkuntza ofizialen maila izango du gaztelaniarekin batera, eta herritar guztiak izango dute bi hizkuntzok ezagutzeko eta erabiltzeko eskubidea.

- Nafarroako legeriak ezarritako eremu euskaldunean.

Abuztuaren 10eko Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko 13/1982 Lege Organikoaren bederatzigarren artikulua arabera gaztelania da Nafarroako hizkuntza ofiziala eta euskarak ere hizkuntza ofizialaren maila izanen du Nafarroako eskualde euskaldunetan.

Halaber, 13/1982 Lege Organikoak eskualde horiek zehaztu eta euskararen erabilera ofiziala arautuko zuen foru-lege bat izanen zela aurreikusi zuen, hain zuzen ere, 18/1986 Foru Legea, euskarari buruzkoa.

18/1986 Legearen 2. artikulua gaztelania eta euskara Nafarroako berezko hizkuntzak izendatu zituen, eta hortaz, herritar guztiei aitortzen zaie ezagutzeko zein erabiltzeko eskubidea. Hala ere, 3. artikulua 2. atalean gogorarazi egiten du Nafarroako hizkuntza ofiziala gaztelania dela, eta euskararen ofizialtasuna eremu batean besterik ez dela aitortzen.

Azkenik, 18/1986 Legeak 5. artikuluan legearen ondorioetarako hiru eremu bereizi zituen: eremu euskalduna, eremu mistoa eta eremu ez-euskalduna. Hartara, ofizialtasunak eragiten dituen betebeharrak juridiko guztiak legeak ezarritako eremu euskaldunean besterik ez dira aplikatzen.

## Euskarak estatus ofizialik ez

Euskarari estatus ofiziala esleitu ez zitzaion guneetan hiru egoera jasotzen dira:

- Nafarroako legeriak ezarritako eremu mistoa

18/1986 Legearen III. kapituluak legeak ezarritako eremu mistoan euskararen erabilpena arautzen du. Eremu mistoan, hortaz, ez da euskararen erabilpen ofiziala arautzen, eta ondorioz, ofizialtasunaren ondorio juridikoak ez daitezke aplikatu. Edozelan ere, euskararen zenbait erabilera aitortzen dira.
- Nafarroako legeriak ezarritako eremu ez-euskalduna

18/1986 Legearen IV. kapituluak legeak ezarritako eremu ez-euskaldunean euskararen erabilpena arautzen du. Eremu mistoan bezalaxe, ez da erabilpen ofiziala arautzen
- Kantabriako eta Gaztela-Leongo legeriek ezarritako ofizialtasun-eza, Turtziozen eta Trebiñun, hurrenez hurren.

Bi autonomia-erkidego horietako estatutuetan ez da jasotzen euskararen inguruko aipurik.

### 5.3.2. Hizkuntza-eskubideak esparruka

**Hizkuntza-eskubideak:** norbanakoak edota taldeak eremu pribatuan zein publikoan hizkuntza edo hizkuntzak hautatzeko duten giza eskubide zibila da.

#### ➤ Administrazioa

**Ipar Euskal Herria:** Frantziako Estatuko 94-665 Legearen ezaugarri nagusia botereek hizkuntzaren aferan ezartzen duten derrigortasun-maila handia da. Horrela, I. artikulua adierazi bezala, frantsesa irakaskuntzaren, lanaren, hartu-emanen eta zerbitzu publikoen hizkuntza da. Horren ondorioz, administrazio publikoarekiko jardunak frantsesez izan behar du halabeharrez, eta administrazioek ez dute inolako derrigortasunik herritarren eskubidea bermatzeko (ez ikuspegi aktibotik, ezta pasibotik ere).

**Hego Euskal Herria:** Hego Euskal Herriari dagokionez, eta euskarak estatus ofiziala duen eremuetan, Azaroaren 26ko Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legeak administrazioarekiko harremanetan herritarren hizkuntza-eskubide batzuk onartzen ditu. Horrela, 35. artikulua arabera, autonomia-erkidego bakoitzean lurralde horretan ofizialak diren hizkuntzak erabil daitezke prozeduretan. Hala ere, Legearen 36. artikulua Estatuko Administrazio Orokorraren prozedurak gaztelaniaz izapidetuko direla jaso zuen. Dena den, interesdunek autonomia-erkidegoan ofiziala den beste hizkuntza ere erabil dezakete, autonomia-erkidego horretan kokatutako Estatuko administrazio orokorreko organoetara jotzen dutenean. Kasu horretan, interesdunak aukeratutako hizkuntzan iza-

## 5. HIZKUNTZA-POLITIKA ETA HIZKUNTZA-PLANGINTZA

pidetuko da prozedura. Hartara, prozedura euskaraz egin ahal izango da, baldin eta autonomia-erkidegoan kokatuta dagoen organoetara jotzen bada. Hala ere, kontuan izan behar dugu lege hori Estatuko administrazio periferikoari zuzentzen zaiola, erkidegoetako eta toki-administrazioetako hizkuntza-eraentza erkidegoetako legeriak arautzen baitu.

**EAE:** Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan 3/1979 Lege Organikoaren seigarren artikularen garapenerako onartu zen 10/1982 Legea, azaroaren 24koa, Euskararen Erabilera Normalizatzeko Oinarrizkoa. Lege horren seigarren artikularen arabera, herritar guztiei aitortzen zaie, Autonomia Erkidegoaren lurraldean, herri-administrazioarekiko harremanetan euskara zein gaztelania erabiltzeko eskubidea, eta beren aukerako hizkuntza ofizialean hartuak izatekoa.

Horretaz gain, aipatu behar da Euskal Funtzio Publikoari buruzko 6/1989 Legeak, bosgarren tituluan, hizkuntza ofizialen erabilera bermatzeko hizkuntza-eskakizunak zehaztuko zirela agertzen duela, baita lanpostuak betetzeko zein lan egiteko beharrezkoak diren euskarazko hizkuntza-gaitasunaren mailak ere.

3/1979 Lege Organikoak, 10/1982 Euskararen Legeak eta Euskal Funtzio Publikoari buruzko 6/1989 Legeak jasotakoa egikaritzeari begira, hainbat dekretu eta lege jarri izan dira indarrean. Horietarik nagusiak aipatuko ditugu:

1. **Administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko 86/1997 Dekretua.** Lau elementu nagusi arautzen ditu: lanpostuei dagozkien hizkuntza-eskakizunak egiaztatzea, lanpostuak betetzeko hautaketa-prozesuetan eskakizunak baloratzeko modua definitzea, baliokidetasunak zein salbuespen-arauak eta derrigortasun-datak zehaztea.
2. **Euskal Antolamendu Sanitarioaren 8/1997 Legea.** Osakidetzak, Euskal Osasun Zerbitzuak, euskara normalizatzeko plan berezia ezarriko zuela jasotzen du, hain zuzen ere, herritarren nortasuna, duintasuna eta intimitatea errespetatzeko, baita zerbitzu sanitarioez baliatzerakoan berdintasun-printzipioa bermatzeko ere.
3. **Euskararen erabilera Osakidetzan normalizatzeko 67/2003 Dekretua.** Aurreko Legeak aurreikusitako planaren oinarriak arautzen ditu, Osakidetza arian-arian euskaraz baliatzen joateko.
4. **Euskal Herriko Poliziari buruzko 4/1992 Legea.** Euskal Administrazio Publikoak beren mendeko poliziako funtzionarioek behar bezalako hizkuntza-gaitasuna lor dezaten saiaturiko direla jasotzen du, herritarren hizkuntza-eskubideei erantzun ahal izateko.
5. **Ertzaintzan euskararen normalkuntza-prozesua arautzen duen 30/1998 Dekretua.** Arestian aipatutako legeak ezarritakoa egikaritzen du, polizia-kidegoaren izaera eta berezitasun funtzionalak kontuan hartuz.

**Nafarroa:** Nafarroari dagokionez, 18/1986 Legearen II. kapituluak euskararen erabilpen ofiziala arautzen du eremu euskaldunean, eta, beraz, ofizialtasunaren ondorio juridikoak jasotzen ditu: administrazio publikoekin euskara erabiltzeko eskubidea, euskarazko jardueren balio juridikoa, etab. Esan behar dugu euskara erabiltzeko eskubideaz ari garenean, Auzitegi Gorenak 5284/2005 epaiaren bidez argitu egin duela bi norabideetan bermatu behar dela eskubide hori.



Izan ere, Nafarroako Gobernuak Nafarroako Administrazio Publikoetan euskararen erabilera arautzen duen otsailaren 10eko 29/2003 Foru Dekretuaren 15. artikulua arabera, egoitza eremu mistoan duten Nafarroako Foru Komunitateko Administraziozko zerbitzuetatik eremu euskalduneko pertsona fisiko nahiz juridikoei igortzen zaizkien komunikazio eta jakinarazpenak gaztelaniaz bidali behar ziren, hartzaileak euskarazkoa propio eskatu arte. Epai horren arabera, aldiz, ofizialtasunak herritarrei dokumentazioa euskaraz ere jasotzeko eskubidea aitortzen die, eta, beraz, ez dute zertan propio eskatu. Ondorioz, artikulua hori baliogabetu dute.

Legeak ezarritako eremu mistoari dagokionez, 18/1986 Legearen 17. artikulua hiritar guztiei administrazio publikoei euskaraz zuzentzeko eskubidea aitortzen die. Hala ere, 18/1986 Legean ez dago aitortuta legeak ezarritako eremu euskaldunerako aurreikusten den eskubidearen antzekorik, alegia, zerbitzua, jakinarazpenak edota komunikazioak euskaraz jasotzerik. Eskubidearen alde pasiboa ez dago aitortuta, beraz, legeak ezarritako eremu mistoan.

Administrazio publikoetan euskararen erabilera arautzeko 29/2003 Dekretuak ezarri zuen egoitza eremu mistoan duten Nafarroako administrazio publikoen eta haiei lotutako zuzenbide publikoko entitateen bulego, langela eta egoitzetako errotiluak, paperen idazpuru eta membretak, zigilu ofizialak eta gainerako identifikazio- nahiz seinalizazio-elementuak gaztelaniaz idatzi beharko direla; baita xedapenak, oharra, argitalpenak, iragarkiak eta mota guztietako publizitatea ere.

Legeak ezarritako eremu ez-euskaldunetan 18/1986 Legeak hiritarrei administrazio publikoetara euskaraz zuzentzeko eskubidea aitortzen die, baina administrazioek gaztelaniazko itzulpena eska diezaiekete. Eremu horretan ere, eta 29/2003 Dekretuaren arabera, administrazio publikoek eta haiei lotutako zuzenbide publikoko entitateek egiten duten jarduera, inprimaki, zigilu, agiri, jakinarazpen, komunikazio, seinalizazio, errotilazio, argitalpen eta publizitate oro gaztelaniaz izango dira.

Herritarren eskubideak bermatzeari begira 203/2001 Foru Dekretuaren bidez Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen plantillan euskararen ezagutza zein lanpostutan zen derrigorrezko eta zeinean merezimendu zehaztu zen. Euskara langaia duten lanpostuak (euskara-teknikariak, itzultzaileak..) baino ez zituen jaso euskara-eskakizuna dutenen zerrendan. Halaber, beste bakan batzuen kasuan euskara merezimendutzat hartzea ezarri zuen. Hala ere, merezimendu gisa baloratzeko azken irizpideak ekainaren 15eko 55/2009 Dekretuak arautu zituen. Horren arabera, legeak ezarritako eremu mistoan % 3 baloratuko da euskararen ezagutza eta zenbait lanpostutan % 6. Legeak ezarritako eremu euskaldunari dagokionez, % 6 baloratuko da euskararen ezagutza, eta zenbait lanpostutan % 10. Azkenik aipatu behar dugu 2009tik aurrera A mailako lanpostuetan ingelesaren ezagutza merezimendu gisa baloratuko dela, % 10 gehienez.

## ➤ Hezkuntza

**Ipar Euskal Herria:** 1951ko Deixonne Legeak propio jaso zituen eskualdeko hizkuntzak, eta bigarren artikulua arabera, hizkuntza horiek erabili ahal izango dira frantsesaren ikasketarako onuragarri baldin badira. Halaber, erregio-hizkuntzen hautazko irakaskuntza ere aurreikusten du.

## 5. HIZKUNTZA-POLITIKA ETA HIZKUNTZA-PLANGINTZA

Bestalde, Hezkuntza Kodearen 312. artikuluan ere jaso egin zen eskualdeko hizkuntzen eta kulturen irakaskuntza aukerakoa izango zela eta haur zein lehen hezkuntzan posible izango zela eskualde-hizkuntza erabiltzea frantsesaren ikaskuntza-prozesua errazteko. Halaber, kontuan izan behar dugu 94-665 Legeak, Toubon legeak, propio jaso zuela frantsesa zela irakaskuntzaren hizkuntza.

2001eko uztailaren 31ko *Arrêté* edo erabaki betearazle batek hiru hezkuntza-eredu bereizi zituen eta, ondoren, zirkularren bidez zehaztu ziren aipatu ereduak: euskara ikasgai hartzen duen eredu, hezkuntza elebiduna eta murgiltze bidezko eredu. Horietaz gain, zalantzarik gabe, frantses hutsean zen eredu ere bazegoen. Hala ere, 2002ko urriaren 28ko Estatu Kontseiluaren Erabakiak balio gabetu egin zituen murgiltze bidezko eredu zein hezkuntza elebiduna arautzen zituzten zirkularrak. Dena den, 2003ko ekainaren 5eko zirkular batek baliozko bihurtu zuen hezkuntza elebiduna. Hartara, murgiltze bidezko irakaskuntza zentro pribatuetan besterik ez dago eskuragarri.

**Hego Euskal Herria:** ofizialtasunaren ondorioz, botere publikoek beren hizkuntza-planetan hizkuntza ofizialen irakaskuntza txertatzeko beharra dute, betiere, derrigorrezko hezkuntza amaitutakoan hizkuntza ofizialen ezagutza bermatzeari begira. Horrela jaso zuen Auzitegi Konstituzionaleko 1983ko urriaren 27ko 87/1983 Epaiak: *una regulación de los horarios mínimos escolares que no permita una enseñanza eficaz de las 2 lenguas oficiales resultaría inconstitucional*.

Bi hizkuntza ofizial dauden erkidegoetan bi hezkuntza-eredu jarri zituzten abian Estatu Espainolean. Antoni Miliñek baliatzen dituen kategoriei jarraiki, alde batetik, *hautazko hizkuntza-separatismoa* legoke, eta bestetik, *hizkuntza-baterakuntza* edo *elebitasun osoa*. Lehen eredu EAEn, Nafarroako eremu euskaldunean, mistoan eta Valentzian aplikatzen da. Eredu horrek ikasleak hizkuntza ereduak banatzen ditu; bigarren sistemak, aldiz, ez ditu ikasleak banatzen, maila batetik gora, behinik behin. Hau da, lehen eskolatze-unean ikasle bakoitzaren ama-hizkuntza baliatzen bada ere, maila batetik aurrera ikasle guztiak elkarrekin jartzen dira eta denek hizkuntza berean jasotzen dute hezkuntza.

Hartara, azaroaren 24ko 10/1985 Legearen 17. artikulua propio jaso zuen derrigorrezko ikastaldia bukatzerakoan ikasleek, aukera berdinak izanda, bi hizkuntza ofizialak benetan erabiltzeko adina jakingo dituztela ziurtatzera bideratutako neurri guztiak hartuko dituela.

**EAE:** halaber, EAeko 1/1993 Legeak, Euskal Eskola Publikoari buruzkoak, hirugarren artikuluan jaso egin zuen ikasle guztiak, baldintza berberetan, derrigorrezko irakaskuntza-aldia bukatzean, bi hizkuntza ofizialen ezagupen praktikoa izango dutela bermatu behar dela, euskararen erabilerara bultzatuz eta normalkuntzari lagunduz.

10/1985 Legeak ezarritakoa ahalbidetzeko uztailaren 11ko 138/1983 Dekretuak Euskal Herriko irakaskuntza ez-unibertsitarioan hizkuntza ofizialen erabilerara araupetzekoak, irakaskuntza elebiduna hiru ereduren arabera izango zela jaso zuen: A, B eta D ereduak hain zuzen ere. Lehenak gaztelania du irakaskuntza-hizkuntza eta euskara ikasgai besterik ez da; bigarrenak bi hizkuntzak izango ditu irakaskuntza-hizkuntza; azkenak euskara izango du irakaskuntza-hizkuntza.

**Nafarroa:** Euskararen Foru Legearen 24. artikulua ofizialtasunak derrigorrezko hezkuntza ezartzen dituen betebeharrak jaso zituen, eta ondorioz, hezkuntza-maila ez-unibertsitarioetan derrigorrezkoa da euskara eta gaztelaniaren irakaskuntza, ikasle guztiek oinarriko eskolartzearen bukaeran bi hizkuntzetan gaitasun-maila nahikoa frogatu ahal izan dezaten. Horren ondorioz, hezkuntza-ereduak arautzen dituen 159/1988 Foru Dekretuaren eta Dekretu hori garatzen duen abuztuaren 30eko 848/1988 Foru Aginduaren arabera, legeak ezarritako eremu euskaldunean euskararen eta gaztelaniaren irakaskuntzak derrigorrezkoak dira eta euskarazko irakaskuntza ere bermatu behar da, B eta D ereduaren bitartez.

Legeak ezarritako eremu mistoari dagokionez, Euskararen Foru Legearen 25. artikulua jaso zuen euskara irakaskuntza sartzea mailaka egiten dela, ikastetxeetan eskatzen dutenendako euskarazko irakaskuntza duten ereduak sortuz. Hortaz, eskaeren arabera eskainiko ditu administrazio publikoak euskarazko irakaskuntza-eredua edota euskara ikasgai duen ereduak, eta inolako eskaerarik egin ezean haurrek gaztelania hutsean jasoko dute hezkuntza. 159/1988 Foru Dekretuaren eta 848/1988 Foru Aginduaren arabera, A, B eta D ereduak eskaeraren arabera eskainiko dira. Eskaerarik izan ezean, G ereduak eskainiko da, hain zuzen ere, gaztelania hutsean.

Euskararen Foru Legearen 26. artikulua legeak ezarritako eremu ez-euskalduneko irakaskuntza arautu zuen. Hartara, euskararen irakaskuntza bultzatua izanen dela jaso zuen, baina ez dio aipurik egiten euskarazko irakaskuntzari. 158/1988 Dekretuak eta 848/1988 Foru Aginduak jaso bezala, euskara irakasgai duen ereduak borondatezkoa izango da eta administrazioak baimenduko du, baldin eta taldea osatzeko gutxieneko ikasle-kopurua biltzen bada. Euskarazko irakaskuntza, aldiz, ez du ahalbidetzen.

## Justizia

**Ipar Euskal Herria:** Lapurdin, Nafarroa Beherean eta Zuberoan legeak ez du euskaraz egiteko eskubiderik aitortzen, ez idatziz, ezta ahoz ere. Esan behar da, hala ere, auzitegi batzuetan euskara-frantsesa interpretea jarri zaiela Hego Euskal Herriko herritarrei, Frantziako nazionalitatea ez izateak frantsesaren ezagutzatik salbuesten dituelako.

**Hego Euskal Herria:** euskara ofiziala den eremuetan gurea bezalako hizkuntzei esleitu zaien ofizialtasun-estatusak prozedura juridikoetan ere hizkuntza hori erabiltzeko eskubidea zabaldu beharko lieke. Horren aurrean, Botere Judizialari buruzko 6/1985 Lege Organikoaren 231. artikulua arabera, jarduketa judizial orotan, epaile, magistratu, fiskal, idazkari eta epaitegietako gainerako funtzionarioek Estatuko hizkuntza ofiziala, hots, gaztelania erabiliko dute. Hala ere, epaile, magistratu, fiskal, idazkari eta epaitegietako gainerako funtzionarioek Autonomia Erkidegoetako berezko hizkuntza ofizialak ere erabili ahal izango dituzte, betiere, aldeetako bakar bat ere aurka agertuko ez balitz, indefentsioa alegatuz hizkuntza ez ezagutzeagatik. Hartara, akusatua ez den parte batek erabaki dezake prozedura beste hizkuntza batean egitea. Horrek Espainiako Estatuak Erregio edo Gutxiengoen Hizkuntzen Europako Ituna berretsita-koan hartutako konpromisoen kontra egiten du. Izan ere, 9. artikuluan hartutako konpromisoen arabera, herritarrek eskubidea beharko lukete prozedura zibila, penala edo administratiboa euskaraz burutzeko. Hala ere, Europako Kontseiluko Adituen Batzordeak bat egin du Espainiako Auzitegi Konstituzionalak 166/2005 Autoaren bidez esandakoarekin. Auto horren bidez, aski

garbi utzi zuen ez dagoela zertan egin aldaketarik egungo araubidean Euroitunean hartutako konpromisoak betetzeko; izan ere, itzultzaileak eta interpreteak herritarren eskubidea bermatzeko mekanismo egokiak dira.

### ➤ Hedabideak

**Ipar Euskal Herria:** Lapurdin, Nafarroa Beherean eta Zuberoan abuztuaren 4ko 1994-665 Legeak inposatu egin zuen frantsesaren erabilera telebista- zein irrati-saioetan.

Conseil Supérieur de l'Audiovisuel erakundeak, artikulua horretan oinarritutako irizpideak kontuan hartuta, ikus-entzunezkoetan frantsesaren erabilerari buruzko urtarrilaren 18ko 2005-2 Gomendioan, frantsesa ez erabiltzeko salbuespenak eta kasu zehatzak azaldu zituen, baina une oro atzerriko hizkuntzez ari da.

**EAE:** Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan 5/1982 Legeak, 1996an eta 1998an aldatua, EITB kate publikoa sortu zuen eta telebistetan zein irrati-tan euskara hutsezko kanalak eta irrati-etxeak bermatu zituen.

Irrati pribatuei dagokienez, azaroaren 11ko 240/1986 Dekretuak Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan, Maiztasun Modulatuak Uhin Metrikoetako Irrati hedapeneko etxeentzako baimena emateko prozedura jartzen du. Dekretu horrek baimenak ematerakoan kontuan hartu beharreko irizpideak zehaztu zituen. Irizpideen artean, bereziki, Euskal Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialen erabilera orekatua azpimarratzen zen; baina ez zen kuota zehatzik ezarri. Halaber, ez zuen bermatzen euskarazko irrati-kate pribaturik.

Telebistei dagokienez, Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan urriaren 3ko Lurreko Uhinen bidezko telebista-zerbitzua arautzen duen 190/2006 Dekretua dago indarrean. Euskarazko eskaintza bermatzeari begira, 22. artikuluan indize soziolinguistikoen arabera hizkuntza-irizpide progresiboak zehaztu ziren, bai udalek zuzenean kudeatutako telebista-kanalean, baita subjektu pribatuek kudeatutako telebista-kanalean ere. Honetan ere, ez zen bermatzen euskarazko telebista-kate pribaturik.

**Nafarroa:** Nafarroak ez du telebista-kate publikorik, eta, irrati-dagokienez ere, ez dago Nafarroan euskaraz emititzen duen irrati publikorik. Bestalde, 439/2004 Errege Dekretuaren ondorioz, Nafarroari lurreko telebista digitalean esleitutako demarkazioak legeak ezarritako eremu mistoan eta ez-euskaldunean daudenez, ez dago euskarazko telebista sortzeko aukerarik.

### ➤ Eremu sozioekonomikoa

**Ipar Euskal Herria:** Lapurdin, Nafarroa Beherean eta Zuberoan herritar euskaldunek ez dituzte aitortuta kontsumitzaile gisa hizkuntza-eskubideak. Bestalde, kontuan izan behar dugu abuztuaren 4ko 94-665 Legearen ezaugarri nagusia eragiten duen eremuetan datzala. Izan ere, legeak bi eremu subjektibotan eragiten du, hain zuzen ere, zuzenbide pribatuko pertsonengan eta zuzenbide publikoko pertsonengan. Bigarren taldeak barnean hartzen ditu zerbitzu publikoaren egitekoa duten zuzenbide pribatuko pertsonak.

Horrela, 94-665 Legearen bigarren artikuluan propio jaso zen ondasun baten, produktu baten edo zerbitzu baten izendapenean, erabilera-jarraibideetan, deskribapenean eta bermerako baldintzetan frantsesaren erabilera derrigorrezkoa dela, baita faktura zein ordainagiritan ere. Hartara, euskararen erabilera borondatezkoa izango da beti.

Halaber, kontsumitzaileen eta erabiltzaileen eskubideak biltzen dituen *Code de la consommation* delakoaren 121-68 artikulua arabera, erabiltzailea Frantzian bizi bada edo ondasunetako bat Frantzian badago, eskaintza frantsesez idatziko da.

Horrez gain, lege-babesik eza agerikoa izan arren, badago egoera makurtzen duen beste faktore bat, hain zuzen ere, Europako Batasuneko zuzenbidea. Hainbat arteztarautan produktuen etiketak eta abarrak arautzen dira, eta derrigortasuna ezartzeko aukera Europako hizkuntza ofizialei besterik ezin zaie ezarri. Hartara, Euskal Herri osoan zaila gertatzen da euskararen derri-gorrezko erabilera ezartzea.

**EAE:** Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan 6/2003 Legeak, Kontsumitzaileen eta Erabiltzaileen Estatutuarenak, zioen azalpenean ez zik 4. artikuluan ere propio jasotzen ditu kontsumitzaileen hizkuntza-eskubideak. Hartara, aipatu Legearen VIII. kapituluak luze eta zabal jaso zituen kontsumitzaileen eta erabiltzaileen hizkuntza-eskubideak, besteak beste, ondasun eta zerbitzuei buruzko informazioa euskaraz jasotzeko eskubidea, edota enpresa edo establezimenduekin dituzten harremanetan euskara erabiltzeko eskubidea.

6/2003 Legeak aitortutako eskubideen bermea garatzeari begira, Kontsumitzaileen eta Erabiltzaileen Hizkuntza-eskubideei buruzko uztailaren 1eko 123/2008 Dekretua jarri zen indarrean. Dena den, Dekretu horrek ez zuen 6/2003 Legeak jasotzen duen eremu guztia arautzen.

**Nafarroa:** araudiak ez du inolako eskubiderik jasotzen kontsumitzaile eta erabiltzaile euskaldunei dagokienez. Kontsumitzaileak eta erabiltzaileak babesteari buruzko ekainaren 20ko 7/2006 Legeak ez ditu hizkuntza-eskubideak aipatzen eta, beraz, Nafarroan dagoen bestelako ordenamendu juridikoari eutsi behar zaio herritarrek aitortuta izan ditzaketen eskubideak identifikatzeko.

### 5.3.4. Eta hizkuntza-eskubideen urraketen aurrean, zer?

Gizarte batean indarrean dagoen legeriak hainbat eskubide aitortzen dituen arren, ezin ondo-riorizta daiteke eskubide horiek osoki bermatzen direnik. Arrazoi horrengatik, besteak beste, administrazioak berak mekanismoak izaten ditu legeriak aitortutako eskubideak berma daitezela segurtatzeko. Hartara, legeriak aitortzen dituen hizkuntza-eskubideak bermatzeko ere balia-garriak dira administrazioak aurreikusten dituen mekanismoak.

Hego Euskal Herriari dagokionez, legeak aitortzen dituen eskubideen babeserako erakundeak *Ombudsman* delakoaren figura baliatzen dute. Horrela, Espainiako Kongresu eta Senatuak, Eusko Legebiltzarrak eta Nafarroako Parlamentuak hautatzen dituzten Herri-Defendatzaile edo Arartekoak ditugu.

Herritarrek legeak aitortzen dizkien hizkuntza-eskubideak Herri Administrazioaren jardunaren ondorioz urratu zaizkienean aipatu instituzioetara jo dezakete. Institutio horiek kasua aztertu eta urraketa gertatu dela ondorioztatutakoan, berau eragin duen erakunde zein administrazio-etara jotzen dute horri buruzko informazioa jasotzeko. Erantzuna aztertutakoan, Arartekoak zein herri-defendatzaileek gomendioak egiten dizkiote erakundeari. Hala ere, Arartekoak edota herri-defendatzaileak egiten dituzten gomendioak ez dira lotesleak, baina horiei erreparatzen ez badiete, propio jasotzen dute urtero parlamentuen aurrean aurkezten dituzten txostenetan.

Hizkuntza-eskubideei loturik, Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak ELEBIDE, hizkuntza-eskubideak bermatzeko zerbitzua, abian jarri zuen 2006ko urriaren 17an. Zerbitzu horretara herritarrek legeak aitortutako hizkuntza-eskubideen urraketak helaraz ditzakete. Aipatu erakundeak gestioak egiten ditu eskubideak urratu dituzten erakundeekin.

Azkenik, aipatu behar dugu Euskalgintzako hainbat eragilek sortutako Euskararen Gizarte Erakundeen Kontseiluak ere zerbitzu publiko bat jarri zuela abian 2001ean herritarren hizkuntza-eskubideen babeserako, Hizkuntz Eskubideen Behatokiaren *Euskararen Telefonoa*, hain zuzen ere. Aipatu zerbitzuak ez dio zuzenean erreparatzen indarrean dagoen legerari. Izan ere, Euskal Herri osorako egiten du lan, eta legea oinarri izango balu, hainbatetan herritarrak eskubidez gabeturik egongo lirateke. Behatokiak berezko hizkuntza-komunitateko edozein hiztunek bere lurraldean bere hizkuntza erabiltzeko duen eskubidea hartzen du oinarri eskubide-urraketei izaera emateko. Prozedurari dagokionez, Behatokiak herritarrek salatutako urraketen berri zuzena helarazten die kexak eragin dituzten erakunde, instituzio zein enpresei. Halaber, kudeatutako urraketa guztiakin hizkuntza-eskubideen egoera jasotzen duen txostena argitaratzen du urtero.

## 5.4. HIZKUNTZA BIZIBERRITZEKO EREDUAK

Aurreko ataletan hizkuntza-politika eta plangintzari buruzko kontzeptuak azaldu dira. Atal honetan, berriz, hizkuntzak berreskuratzeko zenbait eredu aztertuko dira, arlo horretako ekimenak ulertzeko oinarri zientifikoa eskaintzeko asmoz. Batez ere Euskal Herrian eraginik handiena izan duten egileak aztertuko dira: Txepetx eta Fishman.

### 5.4.1. José María Sánchez Carrión, “Txepetx”

José María Sánchez Carrión “Txepetx” Cartagenan jaio zen eta batez ere 1980ko hamarkadan jardun zuen lanean Euskal Herrian. Bere lanik ezagunena *Un futuro para nuestro pasado* da (Sánchez Carrión, 1987). Liburu horrek eta Txepetx lanak eragin handia izan du Euskal Herrian. Txepetx lanaren inguruko dibulgazio liburu erakargarria egina du Xamarrek *Orekan* izenburuarekin (Juan Carlos Etxegoien “Xamar”, 2001).


Txepetxek landu duen ezagutza-arlo berriari bi izen eman dizkio: Hololinguistika eta Hizkuntza Esperientziaren Teoria Autokonsistentea (Sánchez Carrión, 1999).

Txepetxek, 4. atalean ikusi bezala, garrantzi handia eman dio hizkuntza bat ikasteen eragiten duten faktoreak aztertzeari. Ikaskuntzaren Teoria osatu du eta **hiru faktore**ren bidez azaltzen du hizkuntza ikasteko egiten den ibilbidea: **motibazioa, ezagutza eta erabilera**.

Faktore horiek elkarri lotuta daude. Txepetxek ontzi komunikatuak balira bezala irudikatzen ditu.


Hala, hiru ontziek elkar elikatzen dute, betiere nahikotasun-mailatik gorago baldin badaude. Ontziren bat ez bada iristen nahikotasun-mailara ontzien arteko konexioa hautsi egiten da eta ikaskuntza prozesua eten. Hori gertatzen da, adibidez, hizkuntza ikasteari ekin dion pertsona heldu batek denbora aurrera joan ahala gogoia galtzen badu: bere motibazioa asko jaisten bada, eskoletara joateari laga egingo dio eta ezin izango du gehiago ikasi, ezta erabili ere. Oso garrantzitsua da hori kontuan hartzea hizkuntzak ikasteko prozesuak luzeak izan ohi direlako eta gorabehera handiak sor daitezkeelako bidean. Ikaskuntza prozesuan, beraz, hiru faktoreak dira zaindu beharrekoak.

Hizkuntzaren ikaskuntzan **bi ibilbide mota** bereizten ditu:



**14. irudia:** hizkuntza ikasteko ibilbide naturala (Etxegoien “Xamar”, 2001).

- **A ibilbidea:** primarioa edo naturala; haurtzaroan gertatzen da eta hizkuntzarekiko motibazioa, ezagutza eta erabilera berezkoak dira; ibilbidea berezko erabilerarekin hasten da; izan ere, haurrak bere inguruan entzungo du hizkuntza eta poliki-poliki erabiltzen hasiko da. Horrek berezko ezagutza gero eta handiagoa ekarriko dio eta ingurukoekin komunikatzearen bidez bere beharrak aseko dituzenez, berezko motibazioa indartuko zaio.



**15. irudia:** hizkuntza ikasteko ibilbide kulturala (Etxegoien “Xamar”, 2001).

- **B ibilbidea:** sekundarioa edo kulturala; heldu batek hizkuntza ikasten duenean gertatzen da eta motibazioa, ezagutza eta erabilera induzituak dira. Ibilbide honen hasieran motibazioa dago (lanerako behar duelako, norberaren arbasoen hizkuntza berreskuratu nahi duelako, bidaiatzeko, inguruan integratzeko...), horrek bultzatzen du hizkuntza ikastera. Ezagutza handitu ahala, erabiltzeko aukera handiagoa da eta erabilerak motibazioa sustatzen du. Horrela, zirkuituak etengabe jarraitzen du funtzionatzen.

## 5. HIZKUNTZA-POLITIKA ETA HIZKUNTZA-PLANGINTZA

Egoera normal batean, hiztun batek lehendabizi A ibilbidea egingo du, ibilbide naturala, alegia, baina gero B ibilbidearekin osatuko du eskolaren eta ingurune kulturalaren bidez. Horrela sortzen dira hiztun osoak, berezko ibilbidea eta kulturala, biak, eginak dituztenak. Hiztun oso horiek AB ikurrarekin adierazten dira. Baliteke prozesua alderantzizkoa izatea, hau da, heldu bat hizkuntza ikasten hasten denean lehendabizi B ibilbidea egiten du eta gero naturaltasunez barneratzera iristen bada, A ibilbidea. Beraz, mota horretako hiztunak BA hiztunak izango dira. Horiek ere hiztun osoak dira, AB motakoak bezalaxe. Hiztun osoak, AB zein BA, egon behar dira komunitatearen erdigunean, eta eurak izan behar dira gainerako hiztunen erreferentzia eta eredu.

Laburbilduz, honela multzokatzen dira hiztunak:

- **AB, jatorrizko hiztun kulturizatuak:** txikitan A ibilbidea egin zuten eta gero eskolan osatu zuten B ibilbide kulturalarekin; ama-hizkuntza dute eta eskolan ere hizkuntza horretan ikasi dute.
- **BA, heldu bertakotuak:** heldu eta gero ikasi dute hizkuntza (B ibilbidea) eta naturaltasunez barneratzera iritsi dira (A ibilbidea).
- **A:** jatorrizko hiztun primarioak; ez dute ibilbide kulturala egin eta, ondorioz, alfabetatu gabe daude. Ama hizkuntza dute, baina ez dute eskolan ikasi; duela gutxi arte euskaldun ia guztiak horrelakoak ziren, eskolatu gabeak zirelako edo eskolan erdaraz bakarrik irakasten zelako.
- **B:** ikasle helduak; ikasten ari dira, baina oraindik ez dute hizkuntza naturaltasunez barneratu.
- **Ø:** ez dakite hizkuntza.

Hizkuntzen egoera sailkatzeko ere erabil daiteke terminologia hori. Mota hauetako hizkuntzak izan ditzakegu:

- **AB:** naturalki eta kulturalki transmititzen diren hizkuntzak (ingelesa Erresuma Batuan, frantsesa Frantzian edo portugesa Portugalen).
- **A:** transmisio naturala besterik ez duten hizkuntzak; eskolan ez dira irakasten (euskara duela gutxi arte, munduko beste hizkuntza asko).
- **B:** transmisio kulturala besterik ez duten hizkuntzak, soilik eskolan irakasten dira (latina, greziera klasikoa...).
- **Ø:** transmititzen ez diren hizkuntzak.

Kasu honetan ere, AB egoera da orekatu eta osatu bakarra, eta, hain zuzen ere, egoera horretara iristea izango da hizkuntza-normalizazioaren helburua.

Txepetxen lanaren beste osagai garrantzitsu bat esparruen edo funtzioen teoria da. Esparrua oinarritzko unitate bat da, eta bertan kokatzen diren hiztunen hizkuntza-portaera baldintzatu edo aldatzen du (Sánchez Carrión, 1981). Esparruak ez dira espazio fisikoak, burukoak baizik eta lotuta daude hizkuntzak betetzen dituen funtzioei.



Hauek dira hizkuntzaren **funtzioak**:

- **Norberaren identitatea:** funtzio hau soilik betetzen duten hizkuntzak ez ditu inork hitz egiten, soilik hiztun isolatuak dituzte; gaur egun gero eta hizkuntza gehiago ari dira egoera honetara hurbiltzen; hizkuntzaren funtzio hau hizkuntzaren ikasketa naturalari oso lotua dago. Hiztun guztiek dute euren burua talde baten barruan definitzeko beharra. Ez egitea antinaturala da.
- **Familia:** gehienez ere funtzio hau betetzera iristen diren hizkuntzek desagertzeko arrisku handia dute eta egoera horretan daude leku askotan okzitaniera edo aragoiera, esate baterako.
- **Lana:** globalizazioaren eraginez, hizkuntza-funtzioen eskalan lana mailaz igotzen ari da gero eta harreman gehiago dagoelako hizkuntza desberdina duten herrialdeen artean, enpresak nazioartekotzen ari direlako eta jendearen mugikortasun fisikoa askoz ere handiagoa delako orain.
- **Herria:** gaur egun, herria ere aldatzen doa hizkuntza-funtzioen eskalan, jendea gero eta gehiago mugitzen delako bizilekuz eta mugikortasun sistemak indartu egin direlako.
- **Nazioa:** adibidez, esloveniera, albaniera, estoniera gehienez ere maila honetara iristen dira.
- **Kultura edo zibilizazioa:** bere lurraldetik kanpo irakasten eta ikasten diren hizkuntzak multzo honetan sartzen dira; adibidez, alemana, gaztelania, portugesa, italiara...
- **Nazioartea:** funtzio hau betetzen duten hizkuntzak dira prestigiorik handiena dutenak; gaur egun, mundu-mailan nazioarteko hizkuntza nagusia ingelesa da, herrialde desberdinetako biztanleek elkar ulertzeko erabiltzen dutelako.

Nazio-mailara arteko funtzio guztiak betetzen ditu normalizatuta dagoen hizkuntzak. Ordea, horietako baten bat betetzen ez badu, egoera gutxituan dagoela esan nahi du.

Kontuan hartzeko **hiru puntu** azpimarratzen ditu Txepetxek hizkuntzen funtzioen inguruan:

- Hizkuntzaren prestigioa lotuta dagoela betetzen dituen funtzioei, ez dela berezko ezaugarri bat eta denborarekin edo egoerarekin aldatu egiten dela; adibidez, errusierak oso nazioarteko balio handia zuen Europako herrialde komunistetan, baina ez zuen batere nazioarteko funtziorik hortik kanpo; gainera, erregimen komunistak erortzearekin batera errusieraren egoera ere asko aldatu da.
- Hizkuntza guztiak daude besteren batekin lehian, nahiz eta kasu bakoitzean maila desberdinean gertatu lehia hori; frantsesa ingelesarekin lehian dago nazioarteko funtzioetan (gero eta gutxiago, borroka hori galtzen ari delako azken urteetan); alemana, berriz, lehian dago ingelesarekin kultura-mailan, baina hor ere ingelesa garaile ateratzen ari da; izan ere, alemanez ikasteko gero eta behar txikiagoa dago jakintza-arloetara iristeko.
- Prozesua dinamikoa eta ezegonkorra denez, egoerak asko aldatzen dira.

## 5. HIZKUNTZA-POLITIKA ETA HIZKUNTZA-PLANGINTZA

Horretatik guztitik, hizkuntzaren normalizaziorako **bi ondorio** ateratzen ditu Txepetxek:

- Hizkuntza guztiak lehian daude hizkuntza erabiltzeko nazioarteko baldintzak aldatzen ez diren bitartean.
- Hizkuntza batek hizkuntza nazionala izan behar du kultura-hizkuntzatzat onartua izan dadin; beraz, hizkuntza bat kultura gisa balora dezaten, bere hiztunek hizkuntza nazional bati dagozkion funtzio guztiak bete behar ditu; izan ere, bestela ondoko hizkuntza hartuko du komunitateak eta berea utzi egingo du.

Txepetxen iritziz, oso garrantzitsua da hizkuntza-komunitatea. Hitzuna, hizkuntza eta gizartea lotzen dituen unitate soziala da hizkuntza-komunitatea.

Hau da hizkuntza-komunitatearen egitura zirkulu zentrokideetan adierazita: erdian AB taldea eta ondoan BA taldea, hau da, hiztun osoak; gero A taldea (jatorrizko hiztun primarioak) eta ondoren B taldea (ikasten ari direnak); hizkuntza-komunitatetik kanpora  $\emptyset$  taldea geratzen da, hain zuzen ere hizkuntza hori ez dakitenak.

AB eta BA taldeek osatzen dute komunitatearen zentroa eta horri deitzen dio Txepetxek gune simbolikoa, hizkuntzari garapen osoa ematen diotelako. Zenbat eta handiagoa izan gune hori, orduan eta indartsuagoa izango da hizkuntza.


Dena den, hizkuntza-komunitatea desartikulatuta dagoenean, egitura aldatu egiten da eta horren ordez erdian  $\emptyset$  taldea egongo da eta hizkuntza-komunitatea hutsune horren inguruan egongo da.

Hizkuntza baten funtzioak beste batek hartzen dituenean hizkuntza-ordezkapena gertatzen da. Hizkuntza batek iraun dezan, berriz, oso garrantzitsua da gune simbolikoaren indarra, eta gune horixe da, hain zuzen ere, hizkuntzaren normalizatzeko gakoa.

Txepetxek lantzen duen beste kontzeptu bat **estatu hedakorra** da eta horrela definitzen du: estatu mota honek bide ematen du boterea duen gutxiengoak bere hizkuntza-komunitatea erabil dezan estatuaren barruan dituen bestelako hizkuntza-komunitate naturalak suntsitzeko eta deuseztatzeko.

Estatu hedakorrek euren burua nazio-estaturat aurkezten dute, baina European, adibidez, oso gutxi dira benetako nazio-estatuak (Islandia, Malta, Monako...), hau da, hizkuntza bakarra dutenak. Estatu hedakorrek hizkuntza bakarrari uzten diote lekua eta bestelako hizkuntzak dialektotzat eta kategoria gutxiagokotzat jotzen dituzte. Hori lortzeko, estatu hedakorrek beste hizkuntzen estandarren aurka egiten dute, estandar hori debekatuta edo estandarrik ez dagoen kasuetan ez utzita estandar hori garatzen.


Estatu hedakorra oso garrantzitsua da hizkuntza-ordezkapenean; izan ere, bere erdigunean hizkuntza arrotzaren hiztunak daude eta hizkuntza horretan adierazten dira erabaki eta mezu guz-



**16. irudia:** hizkuntza-komunitate egituratua (Sánchez Carrión, 1987).

tiak. Hori dela eta, jendeak hizkuntza hori ikasten du eta kanpoko hizkuntza hedatzen da eta jatorrizko hizkuntza-komunitatea desartikulatuta geratzen da.

Hizkuntza-ordezkapenetik normalizaziora jauzi egiteko, eskema batean jasotzen ditu Txepetxek galera eta normalizazio bilakabideen eskema:



**17. irudia:** galera- eta normalizazio-prozesuak (Sánchez Carrión, 1987).

- Galera-prozesua.** Oklusio-puntuan hasten da eta urrats hauek ditu: funtzio-defizita, aldebakarreko elebitasun soziala, gutxiagotasun-konplexua, hizkuntza-komunitatea desegituratzea eta legezko diskriminazioa; urrats hauek elkarri oso lotuta daude eta Txepetxek *traba* deitzen die.
- Normalizazio-prozesua:** urrats hauek ditu: gune sinbolikoa nuklearizatzea, hizkuntza-komunitatea trinkotzea, legezko babesa lortzea hizkuntzarentzat, funtzioak berreskuratzea, lurraldetasunezko elebakartasuna lortzea, gutxiagotasun konplexua galtzea eta autokonfiantza berreskuratzea eta, azkenik, irekitasun puntu batera iristea.

Ordena horri jarraitu ezean, alferlanean jarduteko arriskua dagoela dio Txepetxek. Normalizazioa lortzeko diskurtso berri bat behar dela aldarrikatzen du hiztun osoak batzeko eta gune sinbolikoa trinkotzeko, hizkuntza-komunitatea artikulatu dadin.

- **Haustura-tentsioa** euskarak hiztunak galtzeari utzi eta hiztun komunitatea berre-raikitzeari ekiten dion unea da; galera-prozesuaren zirkulu suntsitzaile hori apurtzen du menpekotasun-harremanari buelta emateko, baina horrek bi gauza eskatzen ditu: zirkulu horretan indarrez ekitea eta zirkulu horretako norantza aldatzea; horrela, diglosia glotofagikoari, alegia, hizkuntza desagertzea dakarrenari, aurre egingo zaio eta normalizazio-prozesuari ekin.

Haustura tentsioak **aldaketak** eskatzen ditu hiru mailatan:

1. Hizkuntzan: funtzio nazionala eta kultura-mailakoa lortzea edo berreskuratzea esan nahi du.
2. Banakako hiztunengan: hiztun osoentzat hizkuntzaren gune sinbolikoan sartzea, ondo ez dakitenentzat ondo ikastea eta hiztun oso bilakatzea, umeentzat hizkuntzaren ikaskuntza naturalean haztea, ezer ez dakitenentzat ikasten hastea eta hizkuntza-komunitatetik zeharo kanpo geratu direnentzat motibazioa lantzea.
3. Hiztun-taldeetan: AB eta BA hiztunek osatzen duten gune sinbolikoaren inguruan biltzea dakar.

Beraz, normalizazioaren lehen pausoa da AB eta BA hiztun osoak trinkotzearena, eurak baitira hizkuntza horretan osorik bizitzeko moduan daudenak eta horregatik eurek sor ditzakete gainerako hiztunen egoera optimizatzeko erakundeak eta mekanismo sozialak. Era berean, garrantzitsua da normalizazio prozesuak baldintza batzuk betetzea: berdintasunaren diskurtsoan oinarritzea eta izateko nahia edukitzea (norberaren hizkuntzaren alde zerbait egiteko gogoia izatea, beste inoren zain egon gabe).

Hizkuntza-komunitatea trinkotzean elementu hauek lotu behar dira, betiere, herri-mailatik hasita gero nazio-mailara iristeko:

- Hizkuntzaren ikaskuntzaren ibilbide naturala eta kulturala.
- Ezagutza eta erabilera, elkarrekin parekatzera iritsi arte.
- Talde soziolinguistikoak, belaunaldien arteko loturak indartzeko.

Haustura-tentsiora iristeko trabak bi motatakoak izan daitezke: alde batetik, hizkuntzarekiko motibazioaren eta ezagutzaren artean daudenak, eta, beste aldetik, hizkuntzaren ezagutzaren eta erabileraren artean daudenak. Ontzien arteko fluxua alde bietarakoa denez, trabak ere alde bietarakoak izan daitezke (motibaziotik ezagutzara eta ezagutzatik erabilerara, edo alderantziz).

Normalizazio-prozesuan traba horiek hautsi eta hizkuntzaren garapen osora iristea da helburua. Hizkuntzaren garapen osoak AB motako hizkuntza izatea esan nahi du, hain zuzen ere, funtzio guztiak betetzea. Normalizaziorako hiru axioma nagusi ematen ditu Txepetxek:

- Hizkuntza gutxiagotu bateko hiztunentzat hizkuntza-garapen osoa lortzea eta hizkuntza horretan lortzea garapen hori gauza berbera da.
- Estatu baten barruan gutxiagotuta dagoen hizkuntza-komunitate batek ezin du espe-ro izan bere egoeraren konponbidea estatu horren ekimenetik etorrriko zaionik; izan

ere, konponbide hori batez ere komunitatearen trinkotzetik etorriko zaio.

- Arriskuan dagoen hizkuntza-komunitate baten normalizazioa ez zaie bakarrik komunitate horretako hitzunei interesatzen, baizik eta gainerako herritar guztiei eta gizateria osoari ere bai, gizartea giza garapenerako bidean jartzten duelako.

Garrantzi handia ematen dio Txepetxek boterearen gaiari. Normalizazioa lortzeko hizkuntza-botereak eta botere politikoak bat egin behar dute, lurraldean garrantzirik handiena duten pertsonaiak hizkuntzarentzat ere garrantzitsuak izan daitezen. Bi botereak ez badatoz bat, botere politikoa hizkuntzaren zerbitzura jarri beharko litzateke.

Goian esan bezala, Txepetxek diskurtso berri baten beharra sumatzen du normalizazioa lortzeko. Diskurtso berri hori berdintasunaren diskurtsoa da (Sánchez Carrión, 1999). Hizkuntza gutxituak funtzioak berreskuratu behar ditu, baina, gainera, hizkuntza nagusiak ez duen funtzio garrantzitsu berria lortu behar du, ez baita nahikoa hizkuntza nagusian egiten den guztia berdin-berdin baina hizkuntza gutxiagotuan egitea. Funtzio berri horrek hizkuntzen berdintasuna bultzatu eta eredu iraunkorra garatuko du herri, hizkuntza eta kultura guztien artean. Helburua, beraz, ez da hizkuntza gutxitua gehiengoaren hizkuntzaren ordeztzea; gainera, hizkuntza nagusiaren hitzunik ez dira etsaiak, eta normalizazioak ez du esan nahi inor baztertea.

Azken helburua, beraz, hizkuntza-nazioen elkarbizitza da, eta horrek bi forma izan ditzake:

- Autonomia osoa (LAUS eredu edo TAU egitura): nazio bakoitza oso-osorik autonomoa da eta beste nazio batzuekin batzen da nazioarteko erakundeetan.
- Konfederazioa (NYR eredu edo Hed egitura): kolinquismoa, hizkuntza-nazio bat baino gehiago elkarrekin federatzen dira, berdintasunean.

Bere ekarpen teorikoak Bilbon nola gauzatu aztertu zuen Txepetxek (Sánchez Carrión, 1999). Lan horretan berretsi egiten du Bilbon euskararen normalizazioa lortzeko oinarria euskaldunen komunitatea trinkotzean oinarritu behar dela eta, gainera, oinarritzko baldintza kuantitatiboak (hiztun-kopurua) eta kualitatiboak (izateko nahia) badaudela horretarako.

## 5.4.2. Fishmanen RLS (Reversing Language Shift) edo hizkuntza indarberritzea

Joshua A. Fishman mundu-mailan soziolinguistikako egilerik garrantzitsuenetakoa da. Aitzindaria izan da hizkuntzaren soziologian eta oso egile emankorra da. Euskal Herrian behin baino gehiagotan egon da, tartean Eusko Jaurlaritzaren aholkulari-lanetan, eta eragin handia izan du azken hamarkadetan egin den hizkuntza-politikan (Zalbide eta Erize, HIZNET argitaratu gabe).

Fishmanek kezka handia du munduko leku askotan gertatzen ari den hizkuntza-ordezkapenarekin (ingelesaz *language shift*) eta kezka horri erantzun nahian argitara eman zuen hizkuntzak indarberritzeko bere eredu (ingelesaz *Reversing Language shift, RLS*) (Fishman, 1991). Geroztik,

## 5. HIZKUNTZA-POLITIKA ETA HIZKUNTZA-PLANGINTZA

eredu horrek oihartzun handia izan du eta duela gutxi berritu egin du (Fishman, 2001) zenbait hizkuntzaren egoera, tartean euskararena ere bai, bere ereduaren arabera aztertuta.

Bi hizkuntza lurralde berean dauden egoera hartzen du aztergaitzat: bat menpeko hizkuntza da (X-era eta bere hiztunak X-dunak) eta bestea hizkuntza nagusia (Y-era eta bere hiztunak Y-dunak). Hizkuntza-ordezkapena gertatzen da hiztun-talde batek hainbat funtziotan X-eratik Y-erara aldatzen duenean sistematikoki. Garrantzitsua da azpimarratzea aldaketa hori ez zaiola gertatu behar banakako hiztunari, baizik eta hiztun-talde bati. Gainera, hizkuntza-ordezkapena ez da bat-batean eta arlo guztietan batera gertatu ohi, jardungune batzuetatik hasita baizik (hauek dira jardunguneak: familia, auzoa, lana, aisia, eskola, eliza eta administrazio publikoa). Jardungune bakoitzean ere baliteke harreman sare guztietan ez gertatzea aldi berean hizkuntza-ordezkapena (adibidez, familiako harreman-sareak hauek dira: senar-emazteen artekoa, anai-arreben artekoa, gurasoen eta seme-alaben artekoa...). Hori guztia hizkuntza-trebetasunekin lotzen du Fishmanek eta hizkuntza-ordezkapena horietako bakoitzean gerta daitekeela azaltzen du (lau trebetasunak hauek dira: hitz egin, entzun, idatzi eta irakurri). Beraz, hizkuntza-ordezkapenaren ardatzetariko bat erabilera esparruena da, erabilera esparrutzat hartuta jardunguneak eta harreman sareak.

Hizkuntza-ordezkapenaren beste ardatza denborarena da, bat-batean ez denez gertatzen, garrantzitsua delako aztertzea urteetan zer-nolako bilakabidea izan duen hizkuntzaren erabilerak.

Fishmanen hizkuntza indarberritzeari buruzko teoriak oinarri bat du: hizkuntza bati eustearen zutabe nagusia belaunaldi arteko transmisioa da. Hizkuntza bat ez bada gurasoengandik seme-alabengana transmititzen ez du etorkizunik eta hori oso kontuan izan behar da hizkuntza indarberritzeko ahaleginak giterakoan.

Bere ustez, hizkuntza-ordezkapena ez da isolatuta gertatzen, bestelako faktore eta egoerekin batera baizik. Hauek dira hizkuntza bat zergatik ordezkatzen den aztertzerakoan aurkitzen diren zenbait arrazoi:

- **Hizkuntza erabiltzeko eta defendatzeko debekua:** hori bi komunitateen arteko egoera gatazkatsuaren erakusgarri da, hizkuntza nagusiko komunitateak menpeko hizkuntza duena ez duela errespetatzen adierazten duelako; hizkuntzaren gaian hala gertatzen bada, beste horrenbeste gertatuko da bestelako arloetan ere. Euskal Herrian hori gertatu da urte luzeetan bai Frantziako Estatuaren aldetik, bai Espainiako Estatuaren aldetik.
- **Dislokazio fisikoa eta demografikoa.** Dislokazio honek hiru arrazoi fisiko izan ditzake: gosetea, katastrofe naturalak eta beste pertsona batzuek eragindako txikizioak (adibidez gerrak edo genozidioak); arrazoi demografikoen artean, berriz, migrazioak daude (etorkinak iristea edo bertakoek alde egitea), jaiotze tasak jaistea eta urbanizazioa. Oso garrantzitsua da fisikoki osasuntsuak eta demografikoki X-dunetz konzentratuak diren gunek izatea X-erak bizirik jarrai dezan. Gune horietan X-era izango da nagusi; hizkuntzaren arnasmuneak izango dira. Arnasmune horiek ez dira ghetto isolatuak izango, are gutxiago gaur egungo gizarte globalizatuan isolatuta egotea ia-ia ezinezkoa delako.

**Hizkuntzaren arnasguneak:** Fishmanek *breathing space* deitzen ditu. Hizkuntza gutxitua indarberri dadin ezinbestekoa da hizkuntza hori nagusi izango den gune geografikoak egotea. Ez dira ghettoak, ez baitira isolatuta egon behar. Gune horietako biztanle gehienek dakite hizkuntza gutxituan hitz egiten eta hizkuntza hori normaltasunez erabiltzeko baldintzak daude eta belau-naldiz belaualdiko transmisioa naturaltasunez gertatzen da.

- ▶ **Dislokazio soziala** askotan gertatzen da X-dunen taldea egoera sozial txarragoan dagoela, botere gutxiago daukalako; horrenbestez, X-dunei dagozkien elementuek ere, tartean hizkuntzak, prestigio txikiagoa izango dute eta egoera sozial hori hobetzeko Y-era ikasi beharko dute, sarritan X-dun izateari lagata eta suizidio kulturalari bide emanda. Horren aurrean, Fishmanek elebitasun egonkorra eta aniztasun kulturala proposatzen ditu, maila orokorrean ezin bada, gutxienez X-dunen artean. Komenigarria iruditzen zaio, gainera, X-dunen kontrolpean egongo den oinarri ekonomiko bat edukitzea; izan ere, oso garrantzitsua da X-era gizarteko ordainsari sisteman behar bezala txertatua egotea, X-dunen taldea ere erakarria izan dadin.
- ▶ **Dislokazio kulturala** modernizazioaren eta demokratizazioaren ondorioz eragin liteke dislokazio mota hau; izan ere, gizarte-mota desberdin asko elkarrekin harremanetan jartzen dituzte batak zein besteak eta ahuldu egiten dituzte tokian tokiko desberdintasun kulturalak eta homogeneousazio handia eragin hezkuntzaren eta komunikabideen bitartez, esate baterako. Dena den, irtenbide gisa Fishmanek dio menpeko hizkuntza duten komunitateek ezin diotela uko egin ez demokraziari eta ezta modernizazioari ere, eta horregatik lotu egin behar direla kultura eta hizkuntza indarberritzea modernizazioarekin eta demokratizazioarekin. Hizkuntzak aurrera egin dezan oso garrantzitsua da komunitateak sentimendu positiboa izatea hizkuntza horrekiko eta bere nortasun sozialarekiko.

Hizkuntza-ordezkapenaren prozesua gelditu eta buelta emateari Fishmanek *Reversing Language Shift (RLS)* deitzen dio, eta euskaraz **hizkuntza indarberritzea** esaten zaio.

Hizkuntza indarberritzeko, berebiziko garrantzia du diagnostiko egokia edukitzeak eta Fishmanek tresna bat eskaintzen du egoeraren diagnostikoa egiteko: belaualdi arteko etenaren eskala (*Graded Intergenerational Disruption Scale, GIDS*). Lurrikarak neurtzeko Richter-en eskalaren antzeko funtzionamendua duen eskala da, zenbat eta handiagoa izan eskalan dagokion zenbakia, orduan eta larriagoa izango da egoera.

Hauek dira Fishmanen eskalaren zortzi mailak, larrienetik hasita (Fishman, 1991):

**8. maila:** hizkuntza berreraikitzea azken mohikanoen artean. Geratzen diren hiztunak zaharrak dira eta ez dute harremanik beste hiztunekin, ez dago hiztun komunitaterik edo sarerik. Horrelako egoera batean egin litekeena da adituek hizkuntza berreraiki eta ikasi nahi duten heldu

## 5. HIZKUNTZA-POLITIKA ETA HIZKUNTZA-PLANGINTZA

batzuei irakatsi. Behin egoera honetara iritsiz gero oso zaila da egoerari buelta ematea. Maila hau gertatu zen Nafarroako edo Arabako zenbait herritan azken euskalduna isolatuta gelditu zenean.

**7. maila:** zaharrek bakarrik hitz egiten dute. Badago hiztun sare bat, baina hiztun gehienei seme-alabak izateko garaia pasa zaie eta ondorengoek ez dakite hizkuntza horretan hitz egiten. Gazteei hizkuntza irakasteko eta eurekin X-erazko harreman sareak sortzeko erabil litezke X-dun zaharrek. Helburua da seme-alabak izan ditzakeen belaunaldia X-eraz jakin eta egingo duena eta hurrengoek hizkuntza horretan egingo diona. Adibidez, Zeelanda Berrian haur eskola maorietan aitona-amonak erabili dituzte haurrek hizkuntza ikasi eta erabil dezaten (Benton eta Benton, 2001). Eskalaren maila hau Ipar Euskal Herriko herri askotan gertatzen ari da XXI. mendearen hasieran.

**6. maila:** belaunaldi arteko ahozkotasan informala, kontzentrazio demografikoa eta sustapen instituzionala lortzea. Egoera honetan belaunaldi guztietako jendeak daki X-eraz, baina gero eta sarriago egiten dute beste hizkuntzan euren artean, baita ingurunerik intimoenetan ere. Fishmanen ustez ezinbestekoa da hizkuntzari bizirik eustea etxe barruan eta lagun artean. Egoera honi aurre egiteko bi puntu ikusten ditu: gazteek X-eraz egitea lortu behar da eta demografikoki kontzentratua eta belaunaldien arteko etenik gabeko gunek sustatu behar dira. Gure kasuan gazteek arazorik gabe leku guztietan euskaraz egingo duten gunek dira horiek, batez ere euskaraz biziko diren gunek. Ezinbestekoa da hizkuntzarentzat arnagunek izatea. Horrelako gunerik sortu ezin denerako, beste proposamen batzuk egiten ditu: ahal diren bide guztiak erabiltzea X-dunek elkarrekin harremana izan dezaten Internet bidez, telefonoz, elkarrekin egiteko ekintzak antolatuta... komunitate-sentimendua indartzeko eta horrekin batera familia barruko ekintzak eratzea X-eraz ez dakiten kideak hizkuntzara ahalik eta gehien hurbiltzeko. Seigarren maila hau funtsezkoa da, hori gainditu ezean ez dagoelako zereginik. Maila honetako egoera gaur egun Euskal Herriko toki askotan gertatzen da.

**5. maila:** X-dunak euren hizkuntzan alfabetatzea. Horretarako, kontuan hartu behar da seigarren maila gaindituta egon behar dela. Alfabetatzeak beste hizkuntzarekiko menpekotasunetik askatzen lagunduko die hizkuntza gutxituko hiztunei eta elkarrengandik hurbilago egoten. Azken hamarkadetan lan handia egin da alor honetan Euskal Herrian.

Hemen bukatzen da eskalako multzo bat eta beste bat hasten da. Hemendik aurrera ezinbestekoa da agintarien parte-hartzea, baina honainoko lau mailetan batez ere hiztun-komunitateak egin behar du lan eta izan behar du protagonistak ezinbestean.

**4. maila:** lehen mailako derrigorrezko hezkuntza X-eraz. Bi motatakoa izan liteke maila hau: 4a) X-dunen kontrolpean eta X-dun irakasleekin dauden eskolak edo 4b) Y-dunen kontrolpean dauden eskolak X-era sartu dutenak. Fishmanentzat argi dago 4a motako eskolek aukera gehiago dutela hizkuntza indarberritzen laguntzeko. Maila honetan ere lan handia egin da Euskal Herrian, XX. mendeko 60ko hamarkadatik aurrera.

**3. maila:** hizkuntza lanean erabiltzea. Lagungarri da hau hiztunei oinarri ekonomikoa ematen dielako. Bi motatako enpresak bereizten dira: X-dunen esku daudenak eta Y-dunen esku daudenak nahiz eta X-dun langileak eduki. Dena den, arriskutsua ere izan daitekeela dio Fishmanek; izan ere, ekonomikoki arrakastatsua suertatzen bada komunitatearen lurraldea, baliteke Y-dun etorkinak iristea lan bila eta X-eraren egoera artean ere zailagoa bihurtzea. Berrito ere prak-



tikotasunerako deia egiten du Fishmanek eta egingarritasunari arreta berezia jartzeko eskatzen du: hizkuntzaren arnaguneetan edo hortik hurbil daudenetatik ekiteko eta gogoan izateko familia eta lagunarte hurbila dela garrantzitsuena hizkuntzaren indarberritzean. Maila honetan, XX. mendeko azken hamarkadatik aurrera egin da lan batez ere Gipuzkoa eta Bizkaian, baina oraindik ere enpresa gehienetara ez da iritsi.

**2. maila:** hizkuntza administrazio publikoan eta tokiko komunikabideetan erabiltzea. X-dunentzako lanpostuak sortzen dira eta horrek X-dun izatearen bideragarritasun ekonomikoa handitzen du. Eredu honetan ere egingarrietatik ekiteko gomendatzen du, hain zuzen ere, hizkuntzaren arnaguneetan daudenetatik. Horrek arrisku bat duela esaten du, hain zuzen ere gorago egiteko Y-erazko lanpostuetara igaro behar izatea.

**1. maila:** hizkuntza goi-mailako hezkuntzan, lan-munduan, komunikabideetan eta administrazio publikoan. Hau da maila gorena hizkuntza indarberritzean, baina arriskua ez da desagertzen; izan ere, hizkuntza-ordezkapena gertatzeko arriskua ez da sekula desagertzen eta komunitateak erne egon beharko du.

Hizkuntza indarberritzea lortzeko, helburu errealistak jarri behar dituzte hizkuntza-politikako eragileek, duten boterearen, bitartekoen eta baldintzen arabera, hizkuntza-ordezkapenaren muina zein den ahaztu gabe, hain zuzen ere belaunaldien arteko transmisioa. Ahaleginak modu egokian sekuentziatu behar dira alferlanik ez egiteko.

Prozesuari buelta emateko oinarria hitzunen eta hizkuntzaren defendatzaileen autoantolamendua izan behar da; ezin da prozesua utzi hizkuntzaren biziberritzean interesik ez dutenen esku, Fishmanen ustez, oso garrantzitsua iruditzen baitzaio hizkuntza-komunitatearen zeregina. Plangintzaren eragin-eremuei dagokienez, garrantzi handia ematen dio familiari, norberaren hurbileko komunitateari (*Gemeinschaft* deritzon horri) eta identitateari; hain zuzen ere boterari eta kanpoko gizarteari (*Gesellschaft* deritzon horri) baino garrantzi handiagoa. Hizkuntza berarekin batera doan kultura osoarekin ulertu behar da. Etengabe gertatzen da kultura-aldaketa gizarte batean, baina gizarteak aldaketa hori gidatzeko ahalmena behar du, autoerregulatzeko, horrela X-erazko arnaguneak eta harreman sarea eraiki ahal izateko. Hizkuntza galtzen duen gizarteak, besteak beste, autoerregulatzeko gaitasuna ere galtzen du.

Hizkuntza-politika asko nazio-mailan bakarrik eztabaidatzen dira eta hori ez da maiz mailarik egokiena Fishmanen ustez; izan ere, makro mailako politikak baino mikro mailakoak beharko ditu oso egoera larrian dagoen hizkuntzak eta familietatik hasi beharko da, edo ahozkotik idatzizkotik baino lehentasun handiagoarekin, edo lehen mailako eskoletatik goi-mailakoetatik baino. Lehentasunak argi edukitzeari oso garrantzitsua deritzo Fishmanek hizkuntza indarberritzeari ekiteko orduan.

Fishmanek behin eta berriz dio ezerk ez duela ordezkatzen hizkuntza eguneroko bizitza informalean presente egotea, ezinbestekoa baita hori hizkuntzak bizirik iraun dezan. Dena den, arlo hori oso zaila da lantzen eta aurrerapenak ez dira errazak lortzen zenbait arrazoi direla medio: alde batetik, plangintzarako aukera handirik ez du ematen eremu informalak eta, beste aldetik, hizkuntza indarberritzearen aldekoek Y-dunak nagusi diren gizarte-eremuetatik aldentzea eskatzen du eta horien ordez X-eraz funtzionatuko duten sareak sortzea.

Gainera, RLSk askoz ere eragin handiagoa eta zabalagoa izan dezake gizateriaren arazo nagusiak konpontzen laguntzeko potentziala baitu. Izan ere, hizkuntzak ordezkatzeko prozesuak asko azkartu dira bizimodu modernoaren alderdi negatiboen ondorioz (aldaketa sozialeko eta botere teknikoko desberdintasun handiengatik) eta horren beste ondorio batzuk anomia eta alienazioa dira. Beraz, RLSrekin, hizkuntzaren gaiari heltzeaz gain, modernotasunaren dislokazio soziokulturala gainditzeko bidea irekitzen da.

**RLS (*Reversing Language Shift*), hizkuntza indarberritzea:** funtzioak eta erabilgarritasuna galduz doan hizkuntza batek hizkuntza-ordezkapeneranzko joera hori etetea eta egoera iraultzea. Joshua A. Fishmanek ordezkapena jasaten ari diren hizkuntzak indarberritzeko sortutako eredia da. Hizkuntza bat indarberritzeko, hiztunak eta jardunguneak edo eremuak irabazi behar ditu. Fishmanek zortzi mailako eskala sortu zuen hizkuntzaren egoeraren diagnostikoa egiteko eta maila bakoitzean hizkuntzaren ordezkapen prozesua geldiarazteko zeintzuk diren lehentasunak definitu zituen. Garrantzi handia ematen dio hizkuntza harreman hurbilenetan erabiltzeari.

## 5.5. EUSKARA INDARBERRITZEKO SAIOPEN ADIBIDEAK

Euskal Herrian ahalegin asko egin dira euskara bultzatzeko batez ere azken hamarkadetan. Hemen horietako batzuk aztertuko dira, maila, alor eta mota desberdinetakoak: bi maila orokorrekoak, hau da, makro mailakoak (bata gizarte-mugimenduak bultzatua eta bestea gobernuaren eskutik doana); eta beste hirurak mikro mailakoak (bata ekimen pribatuan batez ere erakunde-mailari dagokiona eta besteak pertsonen arteko hizkuntza-erabilerari buruzkoak talde-mailari dagokiona eta pertsona-mailakoa).

### 5.5.1. Bai Euskarari Akordioa

Eusalgintzako hainbat eragilek Euskararen Gizarte Erakundearen Kontseilua sortu zuten 1997an euskararen normalizazio-prozesua azkartzeko eta hiru lan-ildo hartu zituen hasieratik: gogoe-ta, plangintza orokorra eta presio edo eragin soziala.



Bai Euskarari Akordioa eskaini zitzaizen arlo guztietako gizarte-eragileei, eta horren bidez euskararen normalizazio-prozesuan parte hartzeko hitza eman zuten. Akordioan parte hartzen zutenek hizkuntza-normalizaziora iristeko plan estrategikoa prestatu eta ezartzeko konpromisoa hartzen zuten.

Lehen eragileen sinatze ekitaldia 1998an egin zen (Koldo Castañeda, 2002); geroztik, beste eragile batzuei zabaldu zitzaizen eta guztira 899 erakundeak sinatu zuten akordioa. Sektoreka antolatuta (Hegoaldean 23 eta Iparraldean 10: mundu asoziatiboa, sindikatuak, mundu asistentziala, lan-mundua, unibertsitatea...), bakoitzak sektorean euskarak zuen egoeraren diagnostikoa egin zuen AMIA matrizea erabilia, helburuak formulatu zituzten eta sektore bakoitzerako euskararen inguruan hartzeko modukoak ziren konpromisoak zehaztu zituzten eta horietatik gutxienekoak zeintzuk ziren erabaki. Ondoren, eragile bakoitzak konpromiso horietatik zeintzuk hartuko zituen adierazi zuen. Hala, 2000. urtean Hegoaldean eta 2001ean Iparraldean 520 gizarte-eragilek konpromiso minimoak hartu zituzten.

Konpromisoak erakunde-mailakoak edo sektore-mailakoak ziren eta funtzionamenduaren arlo desberdinak hartzen zituzten: hizkuntza-paisaia, barne-komunikazioa, langile edo kideen euskalduntzea, giza baliabideen kudeaketa, bezeroen aurreko komunikazioak, euskara lan-hizkuntzat hartzea, euskara-plan osoa lantzea eta egiturazkoak (Gutiérrez, 2008).

Kontseiluak Bai Euskarari Ziurtagiria sortu zuen erakunde batek konpromisoak betetzen dituela ziurtatzeko. Hiru maila ditu ziurtagiriak: *Bidean* euskararen normalizaziorako gutxieneko neurriak hartzen dituzten erakundeentzat, *Guk zerbitzua euskaraz* zerbitzua euskaraz eskaintzen dutenentzat eta *Guk zerbitzua eta lana euskaraz* zerbitzua euskaraz eskaini eta euskara lan-hizkuntzat duten enpresa, saltoki eta bestelako erakundeentzat. Erakunde bati zein ziurtagiri mota dagokion erabakitzeko, arlo hauek aztertzen dira: erakundeko kideen hizkuntza-gaitasuna, irudia eta hizkuntza-paisaia, kanpo harremanak, barne harremanak eta programa informatikoak.



**18. irudia:** Bai Euskarari Ziurtagiriaren mailak.

Geroztik, Bai Euskarari Akordioa herrietara zabaltzeko ekimena gauzatu zuen Kontseiluak 2000. urtean hasita.

Kontseiluak Eusko Jaurlaritzarekin hitzarmena sinatu zuen 1999an Bai Euskarari Akordioa eta Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia bateragarri egiteko.

Prozesu osoan garrantzi handia eman zaio metodologiari: enpresetan plan estrategikoa egiteko metodologia erabili da gizarte-eragileekin eta hori berrikuntza nabarmena izan zen euskal-

gintzan. Gainera, adierazpen sinbolikoetatik haratago joan nahi izan da eta horregatik konpromiso zehatzak hartzeko bidea sustatu da maila desberdinak ezarrita. Prozesu guztian komunikazioa ere nabarmen landu da, jendaurreko agerpen asko egin dira, komunikabideetan presentzia handia izan du eta Internet ere erabili da gizarteari egiten ari zenaren berri emateko. Beste ezaugarri garrantzitsu bat parte hartzea izan zen, bai gizarte-eragileena sinatze-ekitaldietan edo plan estrategikoa lantzeko prozesuan eta hori gauzatzean, baita herritarrena ere egin ziren ekitaldietan (Bai Euskarari kanpaina eta bukaeran futbol-zelaiak betetzea, edo lanordu bat akordioaren alde emateko kanpaina) (Gutiérrez, 2008).



### 5.5.2. Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia (EBPN)

Eusko Jaurlaritzak antolatutako Euskararen Aholku Batzordeak aurreko bi hamarkadetan gauzatutako hizkuntza-politikaren emaitzak eta hizkuntza-normalizazioan erabilitako baliabideak aztertu zituen 1996 eta 1998 artean (Miren Mateo, 2002). Hortik abiatuta Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia onartu zuen Euskararen Aholku Batzordeak eta Eusko Jaurlaritzak. Plan hori 1999an onartu zuen Eusko Legebiltzarrak.

Diagnostikoa egiteko AMIA (hurrengo puntuan, 5.5.3.an, sakontzen da kontzeptu honetan) matrizea erabili zuten eta han jasotako aurkako eta aldeko faktoreak kontuan hartuta EBPN izeneko plan estrategikoa diseinatu zuten Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publikoak aurrera eramateko ekimenak eta lan-lerroak bideratzeko. Helburu nagusia hau zen: *euskaraz bizi nahi duten herritarrei horretarako aukerak bermatzeko behar diren hizkuntza politikako neurriak erabakitzea eta bultzatzea* (Eusko Jaurlaritzak, 1999). Hiru **helburu estrategiko** ezarri zituzten:

- **Euskara ondorengoetaratzea:** euskararen transmisioan etenik ez egotea.
- **Euskararen erabilera:** euskararen aldeko auzogintza eta zerbitzugintza. Euskaldun gazteentzat euskara helduaroan atsegin eta gaztelania bezain baliozko egitea eta hori lortzeko euskarazko zerbitzuen eskaintza eskolaz kanpoko beste erabilera eremuetara zabaltzea.
- **Euskararen elikadura:** euskaraz eroso eta erraz hitz egiteko elikatzea liburu, irratia, aldizkari, egunkari, telebista eta abarren bidez.

Helburu estrategiko bakoitzari **helburu zehatzak eta egitasmo-proposamenak** gehitu zizkieten diagnostikoko arloak erabilita: irakaskuntza, euskalduntze-alfabetatzea, familia bidezko jarraipena, administrazioa, informazioaren eta komunikazioaren teknologia berriak, enpresa mundua, aisia, kirola, erlijioa, corpus-plangintza eta euskararen kalitatea, prentsa idatzia, liburgintza, irratia, telebista, publizitatea eta kulturagintza.

Horretaz gain, EBPNk hizkuntza-politikarako behar diren giza eta diru-baliabideei buruzko irizpideak ezartzen ditu.

EBPN herrietara hedatzeko hamar eredu desberdin sortu ziren biztanle-kopurua eta egoera soziolinguistikoa kontuan hartuta eta Euskal Autonomia Erkidegoko hiriburuetarako eredu bana prestatuta.

Hona hemen udalerrien sailkapena:

HIZTUN EUSKALDUN- KOPURUA	BIZTANLE-KOPURUA		HIRIBURUAK		
	>10.000	<10.000			
< % 15	A1	A2	BILBO	DONOSTIA	GASTEIZ
% 15-% 50	B1	B2			
% 50-% 70	C1	C2			

13. taula: udalerrien sailkapena EBPNren arabera.

### 5.5.3. Mikroplanak

Makro mailako ekimenak oso garrantzitsuak dira egiten ari denari osotasuna ematen diotelako, marko orokorra ezarri eta norabidea finkatzen dutelako eta duten bolumenagatik sarritan gizartean oihartzun handia izaten dutelako. Dena den, ekimen horiek aplikatzerakoan mikro mailari heldu behar izaten zaio neurriak eraginkorrak izatea nahi bada. Atal honetan, plangintzaren aplikaziorako maila sistemikoetatik barrenengoak aurkeztuko dira, hain zuzen ere, organiazioa, taldea eta norbanakoa. Maila hauetan oraindik ere zeregin handia dago eta garrantzitsua izango litzateke praktikaren eta teoriaren loturak indartzea eta beste jakintza-arlo batzuetan landutakoak aplikatzea.

Edozein planek honako faseak ditu:

- Planaren **definizioa**: horretarako komenigarria izango da egoeraren diagnostiko ona edukitzea, helburuak argi ezartzea eta helburu horietara iristeko ekintzak eta bitartekoak zehaztea (nork zer noiz nola egingo duen). Diagnostikorako tresna ezagun bat AMIA matrizea da eta oso erabilgarria da egoera laburbiltzeko balio baitu; lau zatiko lauki batean zati bakoitzean faktore-multzo bat jasotzen da: aukerak, mehatxuak, indarguneak eta ahuleziak. Honen arabera, planaren funtsa izango da aukerak aprobetxatzea norberaren indarguneak erabilita etor daitezkeen mehatxuei aurre egiteko norberaren ahuleziak gaingiduta. Plana arrakastatsua izan dadin, garrantzitsua da definizioaren fase honetatik eragileen parte-hartzea bermatuko duten bideak eta teknikak erabiltzea.


## 5. HIZKUNTZA-POLITIKA ETA HIZKUNTZA-PLANGINTZA

AUKERAK (kanpoko faktore positiboak)	MEHATXUAK (kanpoko faktore negatiboak)
-	-
-	-
-	-
INDARGUNEAK (barruko faktore positiboak)	AHULEZIAK (barruko faktore negatiboak)
-	-
-	-
-	-

14. taula: AMIA matrizea.

- Planaren **implementazioa**: plana exekutatzean edo gauzatzean datza; planak aurrera egin ahala behar diren aldaketak egingo zaizkio, betiere aurreko fasean definitutakoa kontuan hartuta. Implementazioa behar bezalakoa izan dadin, garrantzitsua da beste faseak ondo prestatuta izatea eta behar besteko bitartekoak izatea dirutan, pertsonetan eta egituretan.
- Planaren **ebaluazioa**: fase honetan planean aurreikusitakoak zein neurritan bete diren aztertzen da; komeni da fase hau ez uztea harik eta plana bukatu arte, batez ere plan luzeetan. Etengabeko ebaluazioa egitea komeni da, inplementazioa egiten ari den bitartean behar diren zuzenketak eta aldaketak egin ahal izateko. Ebaluazioa bi motatakoa izan daiteke: prozesuarena (egindakoak behar bezala egin diren) eta emaitzena (zer lortu den). Adibidez, hiztunen alfabetatzea sustatzeko plan bat egiten bada, prozesuaren ebaluazioan neur daiteke zenbat ikastaro antolatu diren, zenbat jendek parte hartu duen, guztira zenbat eskola ordu eman diren eta abar; baina emaitzak ebaluatzeke, esate baterako, alfabetatze-maila lortu duten ikasleen ehunekoa neurtu beharko da.

Ebaluaziotik ondorioak atera behar dira eta planaren definizioa berritu. Horrek esan nahi du ebaluazioa maila desberdinetakoa izan daitekeela eta planaren garai desberdinetan egin behar delako, plana bukatu arte zain egon gabe.



19. irudia: PDCA zikloa.

Plangintzaren ziklo honi PDCA zikloa deitzen zaio, faseen ingelesezko siglengatik (*Plan, Do, Check* eta *Act*; alegia, planifikatu, egin, egiaztatu eta doitu).

Denboraren aldagaia kontuan hartuta planak alde batetik epe laburrerakoak edo operatiboak izan litezke eta beste alde batetik epe luzerakoak edo estrategikoak. Gainera, plan baten barruan hierarkia desberdinetan multzokatu litezke ekimenak: plan batek hainbat programa izan ditzake; programa bakoitzak, berriz, zenbait proiektu eta

proiektu bakoitza jardueretan eta atazetan banatu liteke, orokorrenetik zehatzenera. Dena den, sarritan erakunde bakoitzak bere terminologia erabiltzen du.

Ondoren, mikroplanen adibide batzuk ikusiko ditugu. Euskal Herrian helburu eta jomuga askotara bideratutako mikro mailako planak gauzatu dira, sarritan makroplanen babespean. Aipagarriak dira, besteak beste, transmisioa indartzeko programak, EraLan (<http://www.soziolinguistika.org>), Buruntzaldeko egitasmoa, merkataritzan eragiteko egitasmoak, Kirola euskaraz, Ulibarri programa (<http://www.ulibarri.info/>) eta ahozko erabilera sustatzeko egitasmoak. Guztiak hemen jasotzea ezinezkoa denez, goian aipatutako maila bakoitzerako adibide bakar bat azalduko dugu:

- Organizazio-mailarako, lan-munduko euskara-planak.
- Talde-mailarako, Kuadrillategi.
- Eta norbanakoaren mailarako, mintzapraktika-programak ([www.mintzapraktika.org](http://www.mintzapraktika.org)).

#### 5.5.4. Lan-munduko euskara-planak

Irakaskuntzan ahalegin eta aurrerapen handiak egin ondoren, nabarmena zen euskaraz ikasitako gehienek lan-mundura jauzi egiten zutenean erdaraz funtzionatu behar zutela. Horregatik eta lanak helduen bizitzan duen garrantziagatik (bai eskaintzen zaion denboragatik, baita sozialki duen garrantziagatik ere) lan-munduan euskara bultzatzeari gero eta garrantzi handiagoa ematen hasi zitzaion, azken urteetan lehentasunezko helburu bihurtzeraino. Arlo honetan erreferentzia garrantzitsua izan da Quebec-en enpresen frantsestean izan duten esperientzia.

Plan pilotuak egin ziren 1990eko hamarkadako hasieran hainbat enpresatan Eusko Jaurlaritzaren parte hartzearekin. Horren ondorioz, arlo sozio-ekonomikoan euskara sustatzeko tresna garatu zen: euskara-planak. Prozesu planifikatua proposatzen zen, hain zuzen ere, enpresako beste hainbat arlotan ekimenak garatzeko metodologia erabilia osagai hauek kontuan hartuta: egoeraren diagnostikotik abiatuta lortu nahi diren helburuetara iristeko egin beharrekoak zehazten dira epe batzuen barruan eta baliabide zehaztuekin.

Hasierako proba pilotuetatik, enpresa mundura hizkuntza-plangintzak indar handiz heldu dira, enpresa bakoitzaren ezaugarri egokitutako planak ezarriz. Ondorioz, enpresa askoren kudeaketan, hizkuntza-irizpideek garrantzia hartu dute.

Beste plangintza askotan bezala, honako urratsak dira enpresetako plangintzetan eman beharrekoak (Elhuyar, Erabili.com):

### Diseinua

Planak izango dituen ezaugarriak definitzen dira fase honetan. Horretarako:

- Enpresaren gaineko informazioa bildu: elkarrizketa eta behaketen bidez enpresaren

## 5. HIZKUNTZA-POLITIKA ETA HIZKUNTZA-PLANGINTZA

ezaugarriak, euskararen presentzia, hizkuntzarekiko sentiberatasunak eta bestelako informazioak biltzen dira.

- Euskara Batzordearekin planaren ardatzak, helburuak, adierazleak eta egitura adostu.

### Abiatzea

Diseinuan zehaztutako plana martxan jartzean datza fase hau. Teknikariak fase honetan dituen eginkizun nagusiak:

- Planaren berri eman langile eta arduradunen artean eta haien iritziak bildu.
- Diseinuan zehaztutako ardatzak eta helburuak noiz/nork eta nola gauzatuko dituen zehaztu.
- Planeko egiturak (lantaldeak, euskara-batzordea) abiatu.
- Langileen euskalduntze-programa abiatu.

### Garapen-fasea

Fase honetan euskara-planak dakartzan aldaketa nagusiak gauzatzen dira. Teknikariak ondoko lanen ardura izan ohi du:

- Euskara Batzordea gidatu.
- Helburuak lantzen dituzten lantalde edo hobetze-taldeak gidatu.
- Euskalduntzea antolatu eta euskaltegiekiko harremanak gauzatu.
- Planaren eboluzioa jasotzen duten adierazleak elikatu.
- Planaren memoriak landu.
- Euskararen erabilera areagotzeko bitartekoak enpresaren eskura jarri.

Atal honen azken epealdian jarraipen fasearen oinarriak ezartzen dira. Garapenean aurreikusitako egiturak eta neurriak gauzatutakoan, etorkizunean enpresak bere kabuz euskara kudeatzeko. Horretarako, teknikariak ondoko lanak garatzen ditu:

- Euskararen eta planaren egoeraren diagnostia egin.
- Euskararen jarraipena arautuko duen hizkuntza-politika adostu.
- Planaren jarraipena ziurtatuko duen egitura diseinatu.

### Jarraipen-fasea

Euskara-planaren garapen-faseak dakartzan aldaketa eta sistematizazio-faseen ostean jarraipen-fasea zabaltzen da. Fase honetan enpresa bera da euskararen kudeaketaren arduradun osoa, eta



soilik aldizkako laguntza jaso ohi du aholkularien aldetik (auditoretza edo ikuskapenak egiteko, itzulpenak, etab.).

Enpresetako euskara-planen azken helburua erakundean euskararen erabilera handitzea da, euskara enpresaren funtzionamenduan txertatzea. Hori lortzeko, hizkuntzaren erabilera lantzeaz gain, euskararen ezagutza eta hizkuntzarekiko motibazioa ere landu behar dira. Beraz, euskara eskoletatik askoz harago doaz euskara-planean jasotzen direnak.

Euskara-planetan enpresaren inplikazioa ezinbestekotzat hartu da hasieratik eta hori bermatzeko plana dutenek euskara-batzordea osatu behar dute, enpresako zuzendaritzaren ordezkari eta guzti. Euskara-batzorde horren eginkizun nagusia planaren gidaritza izaten da, gaiak aztertu eta hartu behar diren erabakiak hartu edo dagokion organoari bideratu erabaki dezan.

Planaren inplementazioan askotan erabiltzen den tresna erabilera-taldeak dira. Talde hauek kalitate planetako komunikazio-zirkuluetan dute oinarria, partaideak langileak dira eta euren eguneroko lanean euskararen erabilerari lotutako gaiak lantzen dituzte motibazioa eta ezagutza ere landuta.

Enpresa askotan euskara-planaren ondorioz hizkuntza-politika esplizitatu eta zehaztera iristen dira hizkuntzen kudeaketa araututa gera dadin erakunde barruan. Hauek dira, beraz, enpresetako planen urrats nagusiak: diseinua, abiatzea, garapen-fasea eta jarraipen-fasea.

Eusko Jaurlaritzak urtero diru-laguntza deialdiak atera ditu euskara-plana duten enpresentzat. Eta gaiak duen garrantziaren adierazgarri LanHitz programa eratu zuen euskara-planen berri emateko Euskal Autonomia Erkidegoko enpresei. Programa horren barruan euskara-planetarako hainbat tresna ere garatu dira eta Interneten jarri dituzte.

Erakunde batek euskararen normalizazioan egin dituen aurrerapenak frogatzeko bi ziurtagiri daude: Kontseiluak sortutako Bai Euskarari Ziurtagiria, Bai Euskarari Akordioari buruzko atalean azaldu dena, eta Eusko Jaurlaritzak sortu duen Bikain ziurtagiria (Eusko Jaurlaritzaren 53/2009 Dekretua). Bikain ziurtagiriak hiru maila ditu eta antz handia du kalitatea kudeatzeko EFQM ereduarekin.

Bikain ziurtagirian guztira 1.000 puntu lor daitezke euskarak erakundean duen presentzia, erabilera eta kudeaketa baloratuta lau ardatzetan: komunikazioa eta irudi korporatiboa, kanpo-harremanak, barne-harremanak eta hizkuntza-kudeaketa. Talde batek egindako ebaluazioan erakundeak lortzen duen puntu-kopuruaren arabera hauek dira ziurtagiriaren hiru mailak:



- Beltza: oinarrizko maila da (200-399 puntu).
- Zilarra: tarteko mailakoa (400-699 puntu).
- Urrea: goi-maila (700-1.000 puntu).



Lan-munduaren arloan aurrerapenak egin badira ere, oraindik ere enpresen gutxiengoak dauka edo eduki du euskara-planen bat.

**20. irudia:** Bikain ziurtagiriaren mailak.

### 5.5.5. Pertsona arteko erabilera sustatzeko programak

Hizkuntza bat bizi dadin ezinbestekoa da hiztunak edukitzea eta hiztun horiek hizkuntza erabiltzea. Hizkuntza biziberritzeko, erabilera sustatu nahi izaten da, baina askotan zaila izaten da pertsonen arteko hizkuntza-ohituretara iristea, eremu oso pribatua delako. Horren mota desberdinetako ekimenak jarri izan dira abian: ezagunak dira Euskal Herrian hiztunak kontzientziatzeke eta euskaraz egitera animatzeko egin izan diren publizitate-kanpainak. Dena den, azken urteetan zenbait ekimen sortu dira zuzenean pertsona artean euskararen erabilera zuzenean bultzatzeko eta horietako bi azalduko dira hemen.

#### Kuadrillategi egitasmoa

Gazteen lagunartean euskararen erabilera sustatzeko hainbat herritan egin den esku-hartzea eta ikerketa da Kuadrillategi egitasmoa. Batez ere 2000. urtetik aurrera egin dira esperientzia sistematizatuak herrietako euskara-elkarteen edo udaletako euskara-zerbitzuen eta Kuadrillategi Ikerketa eta Aholkularitza elkartearen eskutik (Egizabal eta beste, 2004).

Talde batean euskararen aldeko jokaera errazago gerta dadin zenbait baldintza objektibo bete behar dira: taldekide gehienek jakin behar dute euskaraz, taldearen lidergoak euskaldunen esku egon behar da, taldearen inguruko giroa euskalduna izatea. Badira, gainera, beste zenbait baldintza subjektibo: euskaraz egitea desiragarritzat jo behar dute, euskaraz egitea egingarria eta erabilgarria iruditu behar zaie, euskaraz egiteak neurriko ahalegina eskatu behar die.

Egitasmo honen oinarria da lagun-taldearen arauak finkatzen dutela zein hizkuntzatan egin eta erdaraz egiten badute, hori aldatzeko modu bakarra taldearen araua gainditzea dela, hain zuzen ere, euskaraz hitz eginez, horrela araua hautsi egiten baita. Horretarako, aisialdiko eskaintza bat egiten zaie herriko gaztetxoek lagun-taldee eta eskatzen zaie egitasmoan parte hartzen ari diren denboran euskaraz egiteko konpromisoa.

Beraz, Kuadrillategi egitasmoa aisialdiko eskaintza soilaren itxurarekin eskaintzen zaie gaztetxoei. Gaztetxoek taldeka eman behar dute izena, B edo D ereduan ikasiak izan behar dira eta egitasmoko jardueretan euskaraz hitz egin behar dute. Egitasmoan kulturako tailerrak eta oporraldietako jarduera ludikoak eskaintzen dira dinamizatzaile baten ardurapean.

Bi urtean, 2001etik 2003ra, egindako ikerketan emaitza hauek lortu zituzten:

	Hasierako gazte-kopurua	Bukaerako gazte-kopurua
Euskararen aldeko joera	55 (% 52,3)	62 (% 59)
Joera nabarmenik ez	27 (% 25,7)	40 (% 38,1)
Erdararen aldeko joera	23 (% 21,9)	3 (% 2,8)
Guztira	105 (% 100)	105 (% 100)

**15. taula:** Kuadrillategi egitasmoaren emaitzak 2001-2003 (Egizabal eta beste, 2004).

Datu horien arabera, beraz, Kuadrillategi tresna erabilgarria izango litzateke gaztetxoek lagun arteko harremanetan euskararen erabilera sustatzeko.

## Mintzapraktika-programak

Programa hauetan euskaraz hitz egiteko ohitura duten pertsonak harremanetan jartzen dituzte ohiturarik ez dutenekin euskara-maila hobetu eta erabiltzeko ohitura indartzeko. Sarritan tokian tokiko euskara-taldeak antolatzen du programa, eta berrogeita hamarren bat horrelako egitasmo daude Euskal Herri osoan, bakoitza bere izenarekin: Mintzalagun, Berbalagun, Zaharberri, Solaskide, Mintzakide ([www.mintzapraktika.org](http://www.mintzapraktika.org))...



Programari esker hiru, lau edo bost pertsonako taldeak sortzen dira, euren gustuko ekintzak egin ditzaten, astean behin elkartuta eta horretaz gain noizean behin ekintza osagarriak antolatzeko talde guztientzat. Gainera, urtean behin Mintza Eguna antolatzen da Euskal Herriko osoko mintzapraktika-programetako jendea elkartzeko.

Horrelako lehen programa Donostian sortu zen 1993an Bagera euskara-taldearen eskutik eta gero beste herri batzuetara hedatu zen. Ekimenaren arrakasta ikusita, Topaguneak (euskara-elkarteen federazioak) eta zenbait euskaltegi egitasmoa gehiago landu zuten eta hedatu egin zuten.

Aurrez aurreko programez gain, badira programa birtualak ere, Internet bidez egiten direnak. Ekimen horiek e-mintzapraktika izena dute.

Programa honen bidez euskararen inguruko kezka bati konponbidea eman nahi zaio; hain zuzen ere, azken urteetan euskaraz dakitenen kopuruak gora egin du, baina euskaraz egiten dutenen kopurua ez da hainbeste igo eta horrek mugatu egiten du euskararen erabilera. Mintzapraktika-ekimenaren bitartez, euskararen erabileran gehien eragiten duten faktoreetan eragin nahi da: hiztunaren euskaraz hitz egiteko gaitasun erlatiboan, harreman-sareko euskaldunen dentsitatean eta hizkuntzarekiko atxikimenduan. Gainera, iristen oso zaila den eremu batera iristea lortzen dute; alegia, eremu pertsonalera, harreman pertsonalen arlora, bizitza pribatura (Oskar Zapata, 2007).

Hauek dira antolatzaileek partaideen helburu pertsonalez gain landu nahi dituzten helburuak: euskal hiztunen kopurua handitzea, euskara erabiltzeko gune berriak irabaztea, euskaraz egiteko sare berriak sortzea, euskara naturaltasunez transmititzea ingurune informalean, hizkuntzarekiko atxikimendua sortzea. Erronken artean, antolatzaileek programa hauen eraginkortasuna neurtzearena aipatzen dute.

Katalunian ere bada antzeko programa bat, *Voluntaris per la llengua* izenekoa. Han bikoteak egiten dituzte eta 5.000 bikote inguru egitera iritsi dira (Guerrero eta Sanz, 2008).

Asko dira, beraz, euskara sustatzeko azken hamarkadetan abian jarri diren ekimenak, auzo-mailakoak zein nazio-mailakoak. Hizkuntza aurrera ateratzeko nahia adierazten du horrek guztiak.

## 5. HIZKUNTZA-POLITIKA ETA HIZKUNTZA-PLANGINTZA

---

Dena den, sarritan aipatu izan dira ekintzailetasun hutsaren arriskuak eta komenigarria izango litzateke hizkuntza biziberritzeko ekintzen inguruko ikerketa indartzea, ekimenak zenbateraino diren eraginkorrak aztertzeari lehentasuna emanda, diziplina anitzeko ikuspegia erabilia.



SOZIOLINGUISTIKA ESKULIBURUA

## 6. HIZKUNTZAK AZTERGAI: IKERKETA–METODOETARA OINARRIZKO HURBILPENA

*JONE M. HERNÁNDEZ GARCÍA*





## 6. HIZKUNTZAK AZTERGAI: IKERKETA–METODOETARA OINARRIZKO HURBILPENA

### 6.0. SARRERA

Hizkuntzaren arloan funtsezko elementua da errealitate soziolinguistikoaren azterketa. Hizkuntza gizakia eta gizartearen isla da, berezko elementua eta oinarrizko ezaugarria. Hori dela eta, hizkuntzak gizakia eta gizartea ulertzeko bide zuzena eskaintzen du; edo, beste modu batean esanda, gizakia eta gizartea aztertzeko, hizkuntza ezinbesteko adierazle bihur daiteke. Halere, kezka edozein izanda, bilatzen dena zehaztea bezain garrantzitsua da bilatzen den horri galdera egokiak zuzentzea. Izan ere, hizkuntza informazio-iturri ezin hobea izan daiteke, betiere zer eta zertarako, nola eta nori galdetu asmatzen badu ikertzaileak. Zeregin horretan jartzen du arreta kapitulu honek, izan ere, hizkuntzaren gaineko jakin-mina teorikoa nahiz aplikatua izan, aurrera egin nahi izateak metodologiaren gaineko hausnarketa eskatzen du.

### 6.1. HIZKUNTZAREN ARLOA ETA BEHAR METODOLOGIKOAK

#### 6.1.1. Metodologia: beharrezko gidaritzza

Arazo edo kezka baten aurrean errealitateak ez du berez erantzungo. Erantzunak bilatu egin behar dira, eta bilatze horretan nola galdetu jakitea funtsezkoa da. Itan egokiak topatu behar dira irtenbide aproposak aurkitu ahal izateko. Zeregin horretan metodologia ezinbesteko tresna da gizarte-zientzietan eta, orokorrean, ikerkuntza-lanetan. Izan ere, metodologiak gidaritzza eskaintzen du erantzunak non eta nola bilatu jakiteko. Horrela, arlo metodologikoan aurrera egin ezean, zaila izango da, oro har, ezagutzaren arloak garapenik izatea. Gauza bera aitortzen zuen José Ignacio Ruiz Olabuenagak, soziologo eta metodologoak (Ruiz Olabuenaga, 1990: 85):



*Bi dira, nire ustez, soziolinguistikak gure artean aurkitu dituen oztopoak: bata, jarrera politikoekin izan duen lotura estuegia; bestea, datu linguistikoak kaptatzeko, hala nola sortze-ko, zehaztasun metodologikorik eza.*

Ruiz Olabuenagak hitz horiek datzi zituenetik hamarkada batzuk igaro diren arren, oraindik, behin edo behin, sortzen dira hizkuntzari loturiko gertakariak ikertzeko erabiltzen diren metodo eta tekniken inguruko eztabaidak, ikerkuntza akademikoan zein aplikatuan arlo metodologikoak betetzen duen lekuaren adierazgarri.

Hausnarketa soilik maila teorikoan kokatzen dutenek agian pentsa dezakete kezka metodologikorik gabe bizi daitekeela. Gainerakoek, hizkuntzaren gainean interesa azaltzen duten orok (ikasleek, teknikariek, irakasleek, arduradun politikoek eta abarrek) euren zereginaren momentu batean edo bestean, behar metodologikoei aurre egin beharko diete. Izan ere, edozein egitasmo gauzatu ahal izateko, metodologia zehatz bat aplikatu beharrean daude ardura duten pertsona edo taldeak.

Egitasmoa teorikoa edota aplikatua izan daiteke. Batzuetan doktore-tesiaren bideak sustatuko ditu arlo metodologikoaren inguruko itaunak; beste batzuetan aisialdi-talde batean edo enpresa batean bete beharreko helburuek (euskararen erabilera bultzatzeko egitasmo bat, esate baterako) sortaraziko dituzte galderak. Ez du garrantzi handirik zein den gaia edo egoera, helburu horietara iristeko metodologia egokia ezarri behar da hasiera-hasieratik.

**Metodologia:** ikerkuntza-arloan metodologia oinarritzko elementua da. Metodologiak ikerketaren norabidea eta izaera definitzen du, bere bitartez ikerlanak izango dituen ezaugarriak, proposatuko dituen galdera-motak, helburuak eta abar zehaztuko dira. Hori dela eta, ezinbesteko gidaritza da ikertzailearentzat. Hainbatetan metodologia eta teknika nozioak sinonimotzat jo dira, horregatik ohikoa izaten da bata bestearen ordez erabiltzea. Gizarte-zientzietan, gehienetan bi metodologia-mota bereizten dira: kuantitatiboa eta kualitatiboa, baina, batzuetan, horiek "metodo" bezala izango dira aurkeztuak. Edozein kasutan, bereizketa tradizional hori askotan izan da eztabaidatua eta, egun, asko dira beste era bateko sailkapenak proposatzen dituztenak. Testu honetan bertan proposamen horietako batzuk aurkezten dira.

Kezka metodologikoak ikerketa-prozesu baten edo egitasmo baten bidean bete beharreko urratsak finkatzen laguntzen du. Definitze- eta zehazte-prozesu horretan, argi eduki behar da ez dagoela gauzak planteatzeko modu bakarra; izan ere, arazoak bezainbeste dira topa daitezkeen irtenbideak. Dena dela, irtenbide batzuk beste batzuk baino egokiagoak izango dira.

## 6. HIZKUNTZAK AZTERGAI: IKERKETA–METODOETARA OINARRIZKO HURBILPENA

Hortxe dago, hain zuzen ere, gakoa: metodologiaren inguruan zenbat eta ezagutza sakonagoa eta zabalagoa izan, orduan eta aukera gehiago egongo dira aukeratzen dena baliagarria edo zuzena izateko.

Horregatik ulertu behar da kezka metodologikoa ez dela, inolaz ere, bigarren mailakoa. Are gehiago, arlo teorikoak eta aplikatuak aurrera egiten badute, neurri handi batean eremu metodologikoan ere berrikuntzaren alde egiten delako da. Horrela gertatu izan da edozein gizarte-zientziaren eremuan, eta hizkuntzaren arloan ere bai.

Aurrera egitearen aldeko apustu honetan, nahitaez, funtsezko ariketa bat gauzatu behar da: aurretik egindakoa ezagutu eta horren gainean hausnartu. Aztergaia edozein izanda ere, horren inguruan aurretik egin dena, esan dena, edota aplikatu dena ezagutu behar da, une bakoitzean zientzia-arloaren errealitatea zein den jakiteko eta aurrerantzean eman beharreko urratsak zeintzuk diren aurreikusi ahal izateko.

Joan den mendearen bukaeratik, euskararen kasuan, hizkuntzaren erabilera kezka nagusi bihurtu da. Horren gainean ikerketa bat egitea baldin bada asmoa, edo egitasmo zehatz bat diseinatzea baldin bada helburua, horren inguruan osatutako teoriak ezagutzea ez da nahikoa. Horretaz gain, egindako proposamen metodologikoetara hurbiltzea ezinbestekoa da. Zergatik? Proposamen bakoitzak begirada berezi bat eskaintzen duelako eta, hori dela medio, arazo zehatz baten aurrean egon daitekeen konponbide originala mahai gainean jar dezakeelako. Horregatik, ez da gauza bera euskararen erabilerari buruz hitz egitea eroldako ehunekoak eskuan izanda, edo azken kale-neurketan bildutako datuak jaso ondoren egitea. Atal honen helburua ez da izango metodologiarik egokiena zein den erabakitzea, baizik eta erakustea arazo berberaren aurrean irtenbide ezberdinak egon daitezkeela aukeran eta bakoitzak planteamendu ezberdinak bideratuko dituela. Adibidearekin jarraituz, eroldako datuek irakurketa zabal eta orokorrak egitera eramaten dute; Kale Neurketaren emaitzek, berriz, Jose Luis Alvarez Enparantza, “Txillardegí”-ren *Eredu matematikoaren* garapena bideratu izan dute.

Metodologiaren gaineko erabakiak ez dira, beraz, nolanhikoak, eta ezinbestekoa da tentuz, arretaz eta patxadaz hartzea. Prozesu honen abiapuntua ezagutza da. Zenbat eta gehiago jakin dagoen inguruneari buruz, orduan eta hobeto bideratuko dira egin beharreko ekintza edo jarduerak.

Han eta hemen egindakoa ezagutu, baloratu eta aplikatu. Ikertzaile edo teknikaririk ausartenek ezaguna dena garatzeko ahaleginak egingo dituzte proposamen berritzaileak osatzeko asmoz. Eta berrikuntza-arlo metodologikoan ere behar-beharrezkoa da, lan-eremua edozein izanda.

### 6.1.2. Metodologiaren gauzapenerako oinarrizko urratsa: proiektuaren diseinua

Arestian aipatu den moduan, ikertzaile, irakasle, ikasle edota teknikariren jardueretatik, hizkuntzari lotuta sor daitezkeen kezka, arazoak edota galderak ugariak izan daitezke. Patxi Juaristik esan duen moduan, ikerketa bakoitza *mundu bat da* (Juaristi, 2003: 23), berezia eta modu bere-



**21. irudia:** *Gizarte ikerketarako teknikak* liburuaren azala (Patxi Juaristi, 2003).

zian ulertu eta landu beharrekoa. Halere, Juaristik berak aipatzen duenez, ikertzaile guztiak (euren kezka teorikoa nahiz aplikatua izan), lehenago edo geroago, galdera orokor batzuei erantzun beharko diete. Hau da, *ikerketak bakoitzaren berezitasunak eta beharrezko ahantzi gabe, badaude modu batera edo bestera ikerketak guztiak eman behar dituzten pauso batzuk* (Juaristi, 2003: 23).

Urrats horien artean metodologiak berebiziko pisua du eta egile edo ikertzaile bakoitzak horri dagozkion urratsak zehaztu eta antolatu beharko ditu. Horrek normalean proiektu baten itxura hartzen du eta, aurrerantz, dokumentu hori bere gida izango da. Batzuek sinesten ez badute ere, proiektu bat zirriborratzea eta idaztea oso lagungarria izaten da arazo edota aztergai baten aurrean egon daitezkeen ideiak, susmoak, hipotesiak eta jakintza azalertzeko eta antolatuta agertzeko. Horrela, esan daiteke proiektu bat osatzeko arrazoiak bi aspektu nagusitan laburbil daitezkeela:

- Alde batetik, proiektua ariketa ezin hobea izan daiteke helburuak argitze aldera.
- Bestetik, behin proiektua ezarrita, aurrera begirako urratsak irudikatuzko eta gauzatuzko oso tresna praktikoa izan daiteke, egin beharrekoa modu argian adieraziko delako.

**Proiektua:** edozein ikerlan abiatzeko garaian proiektua funtsezko elementua izaten da. Bertan, ikertzailea bere eginbeharraren nondik norakoak azaltzen ditu eta, aurrera begira, ezinbesteko gida bihurtuko da. Proiektua dokumentu batean jasotzen da eta bere ezaugarriak edota atalak alda daitezke ikerlan-mota batetik bestera, ikertzaile batetik bestera eta abar. Edozein kasutan, proiektuak ikergaiaren definizioa eta justifikazioa, ikerketaren helburuak, erabiliko diren metodologia eta teknikak eta lanerako egutegia oinarritzko elementuak kontsidera daitezke. Ikerketaren izara oso akademikoa denean, marko teorikoa (gaiarekiko hurbilpen edota testuinguru teorikoa) eta hipotesiak azaltzea komeni da. Dena dela, proiektua ikertzailearentzat ezinbesteko tresna baldin bada ere, ez da modu estatikoan ulertu behar; ikerketak berak, prozesuak, moldaketak planteatzera bultza dezake ikertzaile.

Aurrerago azalduko denez (ikus *diseinu teorikoaren* inguruko ohar laburrak), proiektu batean, atal metodologikoz gain, beste puntu batzuk ere biltzen dira, baina metodologikoa atal garran-

## 6. HIZKUNTZAK AZTERGAI: IKERKETA–METODOETARA OINARRIZKO HURBILPENA

tzitsuenetakoa da, bertan eginbeharrekoak nola gauzatuko diren edota informazio-bilketa nola ahalbidetuko den zehazten delako. Hau da, proiektu horren zerizana, nagusiki, metodologiaren atalean gauzatuko da.

Beraz, hizkuntzaren inguruko asmoa, kezka edo aztergaia edozein eratakoa izanda, horri aurre egiteko orduan, guztiz lagungarria izango da nonbait adierazita uztea, besteak beste, ZER, ZER-GATIK eta NOLA gauzatuko den eginbeharreko hori. Halere, esan behar da proiektuaren erabilgarritasunaren inguruan jarrera ezberdinak topa daitezkeela. Jarrera hauek batzuetan kontrajarriak izaten dira eta, bertan, muturreko ikuspegiak talka egiten dute. Zergatik? Arrazoi nagusia horrela laburbil daiteke: batzuek proiektuaren beharra defendatzen dute; beste batzuek, berriz, proiektuaren baliagarritasuna zalantzatan jartzen dute, eta, aldiz, aztertu beharreko horrekin lehenbailehen harremanetan jartzea aldarrikatzen dute. Euren ustez, bakarrik bizipen horretatik, errealitatearekin izandako kontaktu horretatik, sor daitezke galderak eta aztergaiak, eta horiei erantzuteko moduak.

Azkenengo jarrera hau ohikoa gertatu da, esate baterako, antropologiaren arloan. Hori dela eta, hainbat antropologok uste dute proiektua osatu baino lehenago, hau da, ikerketa objektua, helburuak nahiz metodologia zehaztu aurretik, lekuan lekuko lana egin behar dela. Horregatik, alde aurretiko murgiltze-ariketa egitearen alde positiboak azpimarratzen dituzte. Hori horrela, antropologiaren eremuan bertan, badira kontrako iritzia dutenak eta proiektuaren alde positiboak azpimarratzen dituztenak. Horien ustez, ikertu nahi den errealitateak ez du inolako informaziorik emango ikertzaileek ez baldin badakite zer eta nola galdetu. Horretarako proiektua ezinbesteko tresna bihurtzen da, bertan galdera horiek zeintzuk diren eta nola azaldu nahi diren aurreikusten delako.

Antza denez, ez da erraza gertatzen gai honen inguruan erabateko adostasuna lortzea. Azken finean, argi gelditzen da edozein jarrera edo posizionamendu, neurri handi batean, ikertzaile, irakasle, ikasle edota teknikariaren formazioan, pentsaeran edo bizipenen baitan egongo dela. Atea irekita dago bakoitzak egokitzat jotzen duena aurrera eraman ahal izateko. Halere, orrialde hauetatik, proiektuaren baliagarritasuna berriro azpimarratu nahi da. Arrazoi nagusiak ez dira ostera aipatuko, goian laburbildu baitira. Dena dela, komenigarria da proiektuaren ezaugarrien inguruan funtsezko ideia batzuk nabarmentzea:

- Lehenik eta behin, esan behar da proiektu batek, eraginkorra izateko, malgua eta aldakorra izan behar duela. Ikertzailea ezin da ikertu nahi duen errealitatearen gainean jarri, hura baldintzatuz edo mugatuz. Erabili beharreko logika alderantzizkoa izango da: errealitate bat aztertzeko proiektu baten gidaritza izanda ere, azalarazten diren emaitzen menpe egon behar du, ezustekoak (atseginak edo ez) onartuz. Horrela jokatuz ezean, arriskua dago proiektuan ezarritako hipotesiek edota aurreiritziek guztiz baldintzatzeko ondorioak eta, oro har, errealitatearen interpretazioa.
- Bestalde, onartu behar da, neurri batean edo bestean, proiektua prozesu osoan zehar gauzatuko den zerbait dela. Honorio Velascok eta Angel Díez de Radak adierazten duten moduan, batzuetan, zaila izaten da proiektuaren “momentua” bukatutzat ematea, informazioa jaso bitartean ere bai, dokumentu horretara bueltatzeko beharra senti daiteke eta (Díez de Rada; Velasco, 2006: 93).

- Azkenik, eta esandakoak esanda, ulertu behar da proiektua iparrorratz moduko bat dela, norabidea markatzeko balio duena eta, hainbat egoeratan, kaosa ekiditeko lagungarria gertatuko dena. Hortik aurrera ez da harrizkeoa izaten behin lekuko lana hasita konturatzea aurreikusitakoa guztiz aldatu behar dela edo, Martyn Hammersly eta Paul Atkinsonek dioten moduan, bakarrik ikerketa egitean konturatzea ikerketaren objektua edota benetako helburuak zeintzuk diren.

Ikertzaile bakoitzak deskubritu eta erabaki behar du zer-nolako jarrera garatu nahi duen tresna honen aurrean. Era berean, pentsatu beharko du zer-nolako proiektua eta zein ezaugarri metodologiko erabilia garatu nahi duen. Berez, Díaz de Rada eta Velascok dioten bezala, proiektua osatzeko grina ideiak sistematizatu nahi izatetik badator, hurrengo pausoa proiektuaren atalak zeintzuk diren jakitea da. Aipatutako bi egileek honela deskribatzen dute hastapeneko fase hori (Díaz de Rada; Velasco, 2006: 93-95):

*Los primeros momentos de una investigación suelen consistir en un intento de sistematizar en un proyecto ideas previas generadas a partir de experiencias concretas o de lecturas. El proceso por el cual los investigadores prestan atención a determinados objetos y sienten curiosidad por determinados campos es oscuro, pero la voluntad de sistematización suele aparecer muy pronto. Esa voluntad cobra cuerpo en la elaboración de un diseño: un plan de trabajo en el que el investigador trata de hacerse una idea de cómo transcurrirán las cosas.*

Aspektu zehaztutara joaz, esan behar da edozein proiektutan bi atal nagusi daudela. Alde bategatik, kezka teorikoak lantzerantz zuzendutako atalak daude; bestetik, arlo teknikoa jasotzen dutenak. Printzipioz, argi dago bigarren hori dela metodologiarekin lotura zuzena duena, baina kezka metodologikoak atal teorikoarekin ere izan behar du harremana; azkenean, proiektu batean kapitulu guztien arteko koherentzia mantentzea ezinbesteko baldintza da eta. Hori esanda, proiektu arrunt batean biltzen diren puntuak zerrendatuko dira jarraian:

#### ➤ Diseinu teorikoa:

1. Ikergaiaren definizioa, alegia, ikergaiaren objektuaren zehaztapena.
2. Ikerketa edo proiektuaren interesak edota arrazoiak.
3. Gaiari buruzko sarrera teorikoa, hau da, irakurlea gaiari kokatu ahal izateko beharrezkoa den informazioa (gaiaren inguruko literaturaren aipamena, oinarritzko datuak, egindako lanak, beste egile batzuen ekarpenak eta abar).
4. Helburuen zehaztapena.
5. Hipotesien formulazioa: bertan ikergaiaren inguruan ikertzaileak dituen aurreiritziak edo usteak azaltzen dira.

#### ➤ Diseinu teknikoa:

1. Metodologiaren aukeraketa.
2. Tekniken zehaztapena.
3. Kronograma edo ikerketaren fase ezberdinen zehaztapena.

4. Aurrekontua (hala badagokio).
5. Baliabideak: ikerlana aurrera eramateko dauden giza baliabideak edota baliabide materialak.

Une oro ikerketaz ari da hitz egiten, baina proiektuaren eskema edozein egoeratan izan daiteke lagungarria: egitasmo bat diseinatzeko, esku-hartzerako jarduera bat aurreikusteko eta abarretarako. Oso garrantzitsua izango da kasu bakoitzean eta egoera bakoitzean jakitea zein atal landu behar diren edo nola aurkeztu behar diren. Hau da, proiektu bat garatzeko oinarrizko eskema onartuta egon arren, eskema hori aldagarria eta moldagarria da, egilearen nahiaren edota betebeharraren arabera. Era berean, esan behar da oso interesgarria izango dela iker-tzaile, irakasle, ikasle edota teknikari bakoitzak eskema hori barneratzea eta bere gustu edota estilora egokitzea; azken finean, proiektua bere egileari dagokio, eta bertan bere ezaugarriak, lan egiteko moduak eta interesak islatu beharko lirateke.

Edozein kasutan, azpimarratu nahi den ideia da proiektuan gauzatzen dela metodologiaren arloan egindako apustua eta horren gainean landutako aspektu guztiak, bai teorikoak bai praktikoak, bertan azaldu eta justifikatu egin behar direla. Izan ere, neurri handi batean, aukeratzen den metodologiak lortuko den informazioa baldintzatuko du. Eta ezin da ahaztu informazio hori izango dela, bukaeran, ondorioetarako lehengaia eta euskarria.

Horregatik, metodologia eta tekniken inguruan erabakitzen den guztia, funtsezkoa izango da. Hori dela eta, horren inguruan informatzea eta hausnartzea ez da inoiz alferrikako lana gertatuko. Horren ildotik, labur bada ere, datorren epigrafean metodologia eta tekniken inguruko hainbat aspektu garrantzitsu azalduko dira.

### 6.1.3. Metodologia nagusiak eta teknika ezberdinak

Edozein ikerlan edo egitasmo martxan jartzeko garaian metodologiaren zehaztapenak duen garrantzia nabarmendu ondoren, kontzeptu horren atzean egiten den funtsezko bereizketari erreparatu nahi zaio une batez. Izan ere, metodologiaz hitz egitean bi mota nagusi aipatzen dira: alde batetik, metodologia kuantitatiboa litzateke; bestetik, kualitatiboa dago. Eta jakin behar da horietako bakoitzak ikuspegi eta planteamendu zehatz eta berezi bat dakarrela. Halere, horrek ez du esan nahi bateraezinak direnik. Aitzitik, askok bi metodologiaren arteko uztarketa irtenbiderik egokiena dela diote, eta bateko zein besteko teknikak erabiltzearen alde agertzen dira.

Hori egia bada ere, argi eduki behar da metodologia-mota bakoitzak bere ezaugarri eta berezitasunak dituela, eta horiek ondo ezagutu behar dira modu egokian erabiltzeko, hau da, erabaki ahal izateko noiz komeni den bata eta noiz bestea (edo biak batera) erabiltzea.

Oro har esanda, aspektu batzuek metodologia bat edo bestea aukeratzen laguntzen dute. Horien artean garrantzitsuenak ikerketaren helburuak eta izaera dira: zein motatako ikerlana da? Zein helburu ditu? Lan akademikoa da? Lan aplikatua? Jarraipena izango al du, hau da, garai ezberdinetan jasotako datuen arteko konparaketa egin nahi da? Horiek dira, besteak beste, metodologia aukeratzeko orduan buruan eduki beharreko galdera batzuk.

Beste kasu batzuetan, metodologia zehazteko, bezeroaren nahia edo beharra zein den kontuan hartu beharko da. Era berean, ikerlana edo egitasmoa burutzeko dagoen denbora, dirua edota bitartekoak elementu garrantzitsuak izango dira. Proiektuaren egilearen jarrera epistemologikoa ere erabakigarria gerta daiteke (bere mundu ikuskera, eta zehazki, zientziak garatutako teoria edo azalpenen inguruko jarrera), hau da, zilegi izan daiteke, adibidez, metodologia bakarren aldeko apustua egitea eta horretan trebatu nahi izatea. Dena dela, komeni da ateak irekita uztea eta ikerketa baten aurrean dauden aukera metodologiko guztiak aztertzea.

Esanak esan, betiko galderak jarraitzen du mahai gainean: noiz erabili metodologia bat eta noiz bestea? Nola jakin noiz erabili **metodologia kuantitatiboa** eta noiz **metodologia kualitatiboa**? Esate baterako, herri bateko gaztetxoek euskararen inguruan dituzten iritzi, uste, behar edo nahiak ezagutzeko, zein estrategia erabiltzea komeni da? Aldiz, ikertzailearen asmoa bada gaztetxo horiei zuzendutako egitasmo batek lortutako atxikimendua (aldeko eta kontrako jarrerak) neurtzea, zein metodologia izan daiteke egokiena?

Esan den bezala, aukeraketa hori egiteko beti egongo dira arrazoi pertsonalak (ikuskerari edota jarrera teorikoei lotutakoak) eta kanpoko arrazoiak (dirua, denbora, bezeroaren nahiak eta abar). Baina horiek alde batera utzita eta bakarrik ikergaiari begiratuta, metodologia bat edo bestea aplikatzeko ondorengo irizpideak erabil daitezke:

➤ Metodologia kuantitatiboa honako kasuetan erabiliko da nagusiki:

- Ikerketa esploratzaile bat egin nahi denean, oinarritzko ikerketa bat, argazki orokor bat jaso nahi denean, aurretik datu zehatzik ez dagoela. Hori dela eta, askotan errealitate baten gainean osatzen diren diagnostikoak oinarrian teknika kuantitatibo bat dute (gehienetan inkesta bat).
- Fenomeno baten hedapena ezagutzeko. Inkesta baten bidez populazio-talde handi batera iristen da (eta talde horretan egon daitezkeen azpitaldeetara) eta horren bidez fenomeno edota gertakari baten inguruko oinarritzko informazioa jasotzeko aukera egoten da. Hau izaten da askotan helburua hizkuntzaren inguruko inkestak egiten direnean: funtsezko datu batzuk eskuratzea hizkuntzaren ezagutza, erabilera edota horrekiko motibazioaren gainean.
- Gertakari baten aurrean egon daitezkeen oinarritzko jarrerak ezagutzeko. Adibidez, zenbat dauden jarduera, ekintza edota egitasmo baten alde edo aurka.
- Gai bat edo batzuen inguruan dauden oinarritzko jarrera eta diskurtsoak denboran zehar nola aldatzen diren ikusteko. Informazio-mota hau eskaintzen dute bereziki aldiro errepikatzen diren ikerketek.

➤ Metodologia kualitatiboa honako kasuetan erabiliko da nagusiki:

- Gertakari baten aurrean egon daitezkeen ikuspuntu, jarrera eta iritzi ezberdinak sakontasunez ezagutzeko. Zerbaki edota ehunekoetatik haratago iritsi nahi da eta horretarako populazioaren diskurtsoak jaso eta horietan sakontzea komeniko litza-teke.

## 6. HIZKUNTZAK AZTERGAI: IKERKETA–METODOETARA OINARRIZKO HURBILPENA

- Gai zehatz baten inguruan pertsonak eduki ditzaketen esperientziak, bizipenak eta pertzepzioak sakontasunez ezagutzeko.
- Gai baten konponbidea bilatzeko garaian, proposamen eta ideia ezberdinak jasotzeko, hau da, ekarpenak, irtenbideak edota egitasmoak irudikatzen hasteko.
- Gertakari edo gai baten garapenean (eboluzioan) sakontzeko eta etorkizunerako lan-ildoak aurreikusteko, sormen-lana bultzatzeko eta taldekako hausnarketa sustatzeko.

Gainera, kontuan hartu behar da batzuetan ikerketek fase ezberdinak dituztela. Horrela, posible da lehenengo fase batean metodologia kuantitatiboari loturiko teknika bat erabiltzea (arazo baten inguruan egon daitezkeen elementu nagusiak azalarazteko) eta, ondoren, ildo horietan sakontzea teknika kualitatiboak erabiliz (gaia edo helburuen arabera metodologiaren ordena alda daiteke). Edo alderantziz, aurrena teknika kualitatibo bat aplikatu, ondoren kuantitatiboa egin ahal izateko.

Bukatzeko, behin metodologia bakoitzaren gaineko oinarrizko ezaugarri batzuk aipatuta, bakoitzak bere baitan biltzen dituen ikerketarako teknika ezberdinak aurkeztuko dira labur-labur.

Olatz Altunak, Kontxesi Berrio-Otxoak, Nekane Jausorok eta Zesar Martinezek azaltzen dutenez (2008: 4), teknika hitzak ondorengo esan nahi du:

*Ezagutza teorikoari kontrajartzen zaion arte praktikoa da. Ikerketarako teknikak, zentzu horretan, prozedura metodologikoa gauzatzeko erabiltzen ditugun tresna zehatzak eta partikularrak dira.*

**Ikerkuntzarako teknikak:** teknikak ikertzaileak bere ikerlana aurrera eramateko dituen tresna zehatzak dira. Lortu behar duen informazio-mota edozein izanda ere, ikertzaileak teknika ezberdinen artean egin beharko du aukeraketa bere helburuak betetzeko. Teknika gauzatzen den momentuari landa lana edota lekuko lana deitu izan zaio gizarte-zientzietan, eta hori lanaren zati enpirikoa izango da. Teknika bat edo bestea aukeratzeko garaian ikergaiaren izaera, ikerketaren helburuak eta neurri handi batean ikertzailearen preferentziak izaten dira aldagai erabakigarrienak. Dena dela, kontuan hartu behar da beti ez dela erabiltzen (edo ez dela erabili behar) teknika bakar bat. Are gehiago, ikertzaile asko triangulazioaren alde agertzen dira. Kasu honetan edozein gai aztertzeke orduan gutxienez hiru teknika ezberdin erabiltzen dira emaitzek oinarri enpiriko sendoa dutela ziurtatzeko. Gizarte-zientzietan ohikoak diren tekniken artean inkesta, elkarriketa sakona, bizitza historia edo eztabaida-taldeak aipa daitezke, besteak beste.



Tekniken izaera, beraz, guztiz praktikoa eta operatiboa da, datu-jasoketa eta informazio-bilketarako ikertzaile, irakasle, ikasle edota teknikariek eskura dituzten tresnak dira eta. Baina, zeintzuk dira tresna horiek?

Ezer baino lehen esan behar da gizarte-zientzietako teknikari buruzko eskuliburuetan oso ohi-koa izan dela bi eratako teknikari bereizketa egitea. Aurretik aipatu bezala, teknika-motak bi multzo nagusitan sailkatu ohi dira: batetik, teknika kuantitatiboak; bestetik, teknika kualitatiboak. Juaristik azaltzen duenez (Juaristi, 2003: 14), honela deskribatu ohi dituzte eskuliburu gehienek bi teknika-multzo hauek:

*(...) alde batetik, adierazgarritasuna ziurtatu eta gizarte-fenomenoen kontaketa ahalbidetzen duten teknikak eta, bestetik, adierazgarritasuna ziurtatzen ez dutenak, baina gizarte-fenomenoak sakonean ezagutzeko gaitasuna duten teknikak.*

Lehenengoak teknika kuantitatiboak deiturikoak dira; bigarrenak, aldiz, kualitatiboak.

Banaketa horretatik abiatuta (dio Juaristik), oso arrunta izaten da teknika-multzo bakoitzak dituen abantailak eta desabantailak azpimarratzea. Konparazio-ariketa horretan kuantitatiboa eta kualitatiboaren arteko tentsio moduko bat irudikatzen da, non askotan *elkarren etsai bezala* (Juaristi, 2003: 14) azaltzen diren.

Dena dela, badaude, Juaristiren ustez, joera horren kontra agertzeko bi arrazoi nagusi (Juaristi, 2003: 14):

- Bi teknika-mota hauek elkarren osagarri dira, eta praktikan, gizarte-fenomenoen eza-gutza zehatzena ikerketa-prozesuan biak nahasten direnean lortzen da.
- Gizarte-zientzietan erabiltzen diren ikerketa-teknika batzuk ezin dira modu errazean teknika kualitatiboen eta kuantitatiboen artean sailkatu, bien ezaugarriak biltzen dituztelako. Kasu horren adierazlea izango litzateke, Juaristiren ustez, behaketa teknika.

Gauzak horrela, Juaristik beste era bateko sailkapena proposatzen du. Ikerketa-teknikek informazioa biltzeko erabiltzen dituzten estrategiak dira sailkapen horretarako irizpideak. Hona hemen, laburbilduta, berak proposatzen dituen lau bide edo teknika-mota (Juaristi, 2003: 14-15):

- Lehen bidea: gizakien bizitzan parte-hartze kontrolatua eginez, portaerak, jarrerak edo gertaerak sortu edo manipulatzeko. Adibidea: ikerketa-saioa edo, konbentzionalki, esperimendu bezala izendatzen dena.
- Bigarren bidea: gizakiei, euren ikuspuntuei, jarrerari edota portaerari buruz era sistematikoan eta kontrolatuan galdetzea. Adibideak: sakoneko elkarrizketa, bizitza-historia, eztabaida-taldea, inkesta eta *delphi* teknika.
- Hirugarren bidea: inolako manipulazio edota aldaketarik egin gabe, gizakien portaerak era sistematikoan eta kontrolatuan begiratzea. Adibidea: behaketa zuzena.
- Laugarren bidea: beste batzuk sortu edota bildu duten materiala aztertzea. Adibideak: eduki-azterketa eta iturri ez-zuzenen azterketa (beste batzuek sortu, bildu edo gorde dituzten estatistikak, testuak, dokumentuak, bestelako materialak eta abar).

## 6. HIZKUNTZAK AZTERGAI: IKERKETA–METODOETARA OINARRIZKO HURBILPENEA

Juaristiren proposamenak interesgarria dirudi, eta horregatik txertatu da kapitulu honetan. Halere, planteamendu horren kontrasterako beste sailkapen bat ere azaldu nahi da, metodologia eta teknika ezberdinak sailkatzeko beharrak sortzen dituen planteamendu ezberdinak islatzeko asmoz.

Kasu honetan, Olatz Altunak eta bestek proposatutakoa (2008: 13) hartuko da hizpide. Egile hauen proposamenak interesgarria ematen du, besteak beste, metodologia eta tekniken esparrua zabaltzen duelako; izan ere, eurek osatutako eskeman ohiko banaketari (metodologia kuantitatibo eta kualitatiboan arteko banaketa, alegia) hirugarren bide bat gehitu diote: metodologia kritikoa edo parte hartzeko metodologia deitutakoa.

Egile hauen ustez, metodologia nagusiak hiru dira, eta euren planteamendu eta ezaugarriak modu trinkoan laburbiltzen dituzte, ondoren azaltzen den antzeko taula batean (Altuna eta beste, 2008: 13):

	Metodologia kuantitatiboa	Metodologia kualitatiboa	Parte hartzeko metodologia edo metodologia kritikoa
Helburuak	Gertaera sozialak azaldu, aurreikusi eta kontrolatu	Jokabide sozialen zentzuak eta esangurak ulertu	Errealitatearen aldaketan esku hartu
Objektua	– Gizabanakoen ekintzak – Gertaera sozialak	Aktoreen diskurtsoak, signifikazioak	Subjektu kolektiboan interesak eta beharrak
Hizkuntza	Zenbakiak	Kontzeptuak, metaforak	Sozio–historikoa, estrategikoa
Subjektua	Lagina	Aktore sozialak beren kokapen sozio–estrukturaletan	Aktore sozialen auto–diagnostikoa
Diseinua	Sistematikoa, egituratua, errepikakorra	Irekia, malgua, aldakorra	Prozesu irekia: ekintza–hausnarketa–ekintza
Teknikak	– Inkesta eta galdetegiak – Kasuen erregistroa	– Eztabaida–taldea – Elkarriketa sakona – Bizitza–historia – Behaketa zuzena	– Parte hartzeko ikerketa – Esku–hartze soziologikoa

**16. taula:** Metodologia nagusien sailkapena (Olatz Altuna, Kontxesi Berrio-Otxoa, Nekane Jausoro, Zesar Martinez, 2008) (edukia zertxobait moldatua).

Taula hau osatzeko, etnografia eta gizarte-sareen azterketa aipatu beharko lirateke. Biek proposamen bereziak dakartzate; izan ere, beren baitan izaera kuantitatiboa eta kualitatiboa duten teknikak biltzeko aukera dago eta, gainera, hainbatetan parte hartzeko metodologiaren arrastoak ere suma daitezke.

Ondoren, teknika ezberdinei buruzko ezaugarri batzuk aipatu nahi dira taulan agertzen den informazioa osatzeko asmoz.

## Inkesta/galdetegia

Inkesta da metodologia kuantitatiboen artean dagoen tekniarik ohikoena. Onarpen zabala du, eta askorentzat, tekniarik zehatzena eta baliagarriena da gizarte-zientzietan egiten diren ikerketei nolabaiteko oinarri zientifikoa emateko. Azken finean, Juaristik dioen moduan, *ikertzaile askorentzat balioko ikerketa bakarrak dira kontaketa onartzen dutenak eta laginketa-errorea eta fidagarritasuna neurtzea ahalbideratzen dutenak* (Juaristi, 2003: 85).

**Inkesta/galdetegia:** metodo kuantitatiboen barruan kokatzen den teknika nagusia. Inkestaren bidez, aztergai den populazioaren lagin adierazgarri bati ikertzaileak sortutako galderei erantzuteko eskatzen zaio. Jasotako erantzun guztien kontaketa eta erregistroa egin ondoren, analisia egin behar da. Analisi hau nahi bezain konplexua izan daiteke hainbat aldagai gurutzatuz edo aldagaien arteko loturak neurtuz. Egun, inkesta bat egiteari loturiko urrats nahiz betebeharrak gehienak programa informatiko berezien bitartez gauzatu daitezke.

Deskribatzea eta azaltzea dira metodo kuantitatiboaren helburu nagusiak, baina, kasu honetan, helburu hauek ikergaia “neurtuz” lortzen dira (zenbakiak edota ehunekoak erabilia). Altunak eta bestek azaltzen dutenaren arabera, *metodo kuantitatiboak faktu edo gertaera sozialak neurtzen ditu, eta horretarako zenbakien beharra dauka, baina maiztasunen kontaketa beharra ere. Era honetara, gertakari eta egoera sozialak baliabide matematikoak erabiliz deskribatzen dira; lortzen dituen datuen analisia (analisi estatistikoa) zein hipotesien kontrastea matematiketan sostengatzen dira* (Altuna eta beste, 2008: 46).

Baina matematikoaz gain, inkestak badu beste era bateko oinarria. Izan ere, aipatutako egileen ustez, inkesta komunikazioaren teorian ere oinarritzen da, hau da, elkarrizketatzailea eta elkarrizketatuaren arteko hitz-jardunean. Ikuspuntu horretatik, beste teknika askorekin gertatzen den moduan (besteak beste, elkarrizketa sakonekin, eztabaida-taldeekin edo bizitza-historiarekin) inkestarekin ere informazioa gizakiei galdetuz lortzen da. Hau da, inkestatuaren subjektibitatean oinarritzen da.

Aipatu beharreko beste aspektu bat informazioaren adierazgarritasunari dago lotuta. Izan ere, askotan, inkesta teknika aipatzean, tentsio moduko bat sortzen da informazioaren aberastasuna eta adierazgarritasunaren artean. Batzuen ustez, inkestak adierazgarritasuna ziurtatzen du maila handi batean, eta hori beste lorpen batzuen gaineratik (sakontasuna, esate baterako) jartzen da. Horregatik inkestaren bitartez, *azaleko informazioa lortzen da, baina bere jarraitzaileek populazio baten inguruko informazio adierazgarria jasotzen dela aldarrikatzen dute* (Juaristi, 2003: 86).

## 6. HIZKUNTZAK AZTERGAI: IKERKETA-METODOETARA OINARRIZKO HURBILPENA

Halere, teknika honen abantailak eta desabantailak entzuteko aukera izango da beti. Horren aurrean batzuen zein besteen argudioak ezagutzea da bidezkoena, ikertu beharreko egoera edo arazoaren arabera erabaki bat hartu ahal izateko. Hauek dira, laburbilduta, Juaristik, teknika horren gainean azaltzen dituen aldeko eta kontrako arrazoiak (Juaristi, 2003: 86-87).

Inkestaren abantailak:

1. Informazio-iturri aberatsa da.
2. Teknika egokia da erraz zenbatu daitezkeen fenomenoak aztertzeko, besteak beste, gai baten inguruan dagoen iritzi publikoa zein gertakari baten ildotik sortutako gizar-te-jarrerak.
3. Lortutako datuen balioa eta erabili den galdeketaren fidagarritasuna beste teknika batzuetan baino errazago azaldu edo justifika daitezke.
4. Laginaren erabilpenean oinarritutako teknika denez, populazio handiei buruzko generalizazioak beste teknika batzuetan baino errazago egin daitezke. Are gehiago, kontuan hartutako populazioaren tamaina ezaguna eta informatzaileen hautaketa probabilistikoa denean, lagin-errorea zenbatekoa den jakin daiteke.

Inkestaren desabantailak:

1. Kasu batzuetan inkestaren bitartez informazioa lortzeko arazoak sor daitezke, besteak beste, gizakien barneko edo ezkutuko gaiak aztertu nahi badira (sexu-portaerak, etxeko arazoak...), edo hitz egiteko arazoak dituztenengandik informazioa lortu nahi bada (umeak edo pertsona zaharregiak...).
2. Inkestatzaile bat baldin badago galderak egiten, bere eragina nabarmena izan daiteke, hau da, elkarrizketatzailearen jarrera, ahotsa, tonua, janzkera eta inkesta aurkezteko erak elkarrizketatuaren erantzunak baldintza ditzake. Horrek, ondorioz, ikerketaren emaitzen kalitatea kolokan jar dezake.
3. Neurri handi batean, elkarrizketatuak erabakitzen du zein informazio eman nahi duen eta zein ez, hau da, gerta daiteke galdeketari (osoari edo zati bati) erantzute-ari uko egitea.
4. Esandakoaz gain, argi utzi behar da fenomeno asko ezin direla inkestaren bitartez ikertu, aztertu beharreko hori kuantifikatzen zaila edo ezinezkoa delako. Horri lotuta, autore batzuek diote inkestak ematen duen informazioa oso azalekoa dela eta benetan balio duena zenbakien azpian ezkututzen den sakoneko informazioa dela. Horrela bada, informazio hori lortzeko elkarrizketa sakonak, eztabaida-taldeak edota bestelako teknika kualitatiboak egokiak dira.
5. Bukatzeko eta aurrekoari lotuta azpimarratu behar da inkesta kuantitatiboaren kasuan inkestatuak, printzipioz, ez duela adierazten errealitatean egiten duena, baidarik galdetzen den horri buruz duen irudikapena edo bere ekintzei buruz duen irudikapena. Gainera, ezin da ahaztu galdera berak eta galdera egiteko moduak erantzuna baldintzatzen dutela neurri handi batean. Horrela, galdera itxiek, erantzun

posibleak emanda dituztenek (a,b,c,d), argi bideratzen dute erantzuna. Horri gehitu behar zaio inkestatuaren presentziak duen eragin zuzena (batez ere galdetegia inkestatzaile baten laguntzarekin betetzen denean).

Bestela, inkesta baten diseinuan, gauzapenean eta analisisian kontuan hartu beharrekoak asko eta anitzak dira, baina argi dago horren guztiaren berri ematea ez dela eskuliburu honen helburua. Horretarako badira, zorionez, metodologiaren gaineko testu berezituak. Hori dela eta, inkestarren inguruko aipamenak bukatzeko, azken ohar batzuk gehitu nahi dira, besteak beste, inkesta bat prestatzeko eman beharreko pausoei buruz.

- Galderak prestatzeko eta zehazteko, ikerlana edota egitasmoaren helburuak, hipotesiak eta gaiari buruzko teoriak funtsezkoak izango dira.
- Galdera-motak ere oso garrantzitsuak izango dira. Kasu honetan, erabaki behar da galdera itxiak (inkestatuari aukera ezberdinen artean aukeratzea eskatzen zaio) edo irekiak (inkestatuari ez zaio aukera finkorik ematen, berak nahi duena erantzuten du) izango diren.
- Galderen formatua erabakitzeko orduan, kontuan hartu behar da erantzunak jasotzeko erabiliko den teknika. Printzipioz, hiru teknika edo modu nagusi daude: aurrez aurreko inkestak, posta (arrunta zein e-posta) bidezko inkestak eta inkesta telefonikoak. Web bidezko galdetegiak gero eta gehiago ari dira erabiltzen. Argi dagoenez, itaunak aukeratzen den prozedurari egokitu behar zaizkio: ez da gauza bera aurrean inkestatzailea edukitzea, galderak telefonoz egin behar izatea edo galdetegia bakardadean bete behar izatea (inongo laguntza edo gidaritarik gabe). Halere, aukeratutako moduak erantzunetan eragin dezakeen errorea txikiagoa izan dadin eta inkestatzailearen lana errazteko, modu konbinatuak erabiltzen dira gero eta gehiago. Kapital sozialari buruzko azken inkestan, esaterako, EUSTATEk lau metodoak erabili ditu (aurrez aurrekoa, posta bidezkoa, telefono bidezkoa eta Internet bidezkoa).
- Aurrekoari lotuta, galderen idazketa ere azpimarratu beharreko aspektua litzateke, batez ere inkestatuak berak erantzun behar badu, papera aurrean duela. Juaristik esaten duen moduan (Juaristi, 2003: 95-96): *Ondo idatzitako galderak ondo ulertzen dira, erraz dituzte erantzunak, eta, ondorioz, balioko emaitzak eta ikerketak ematen dituzte. Txarto idatzitako galderek, aldiz, zalantzak sortzen dituzte, eta balio gutxiko erantzunak ematen dituzte.* Bestalde, komeni da galderak ahalik eta laburrenak izatea.
- Galderen ordena ere garrantzitsua da, horrek erantzutean eragina izan dezakeelako. Hain zuzen ere, hasierako galderek ondoren datozen galderen erantzunak bidera ditzakete.
- Modu berean, komeni da galderak era logiko, koherente eta erakargarrian aurkeztea, bai edukia eta bai maketazioari dagokienez (batez ere postaz denean; alegia, inkesta norberak bete behar duenean), bestela inkestatua erraz nahas daiteke eta erantzun okerrak eman ditzake.

## 6. HIZKUNTZAK AZTERGAI: IKERKETA–METODOETARA OINARRIZKO HURBILPENA

Puntu hau amaitzeko, inkesta batean ager daitezkeen galderak hiru motatakoak izan daitezkeela azpimarratu nahi da. Altunak eta bestek azaltzen dutenaren arabera (2008: 66), hiru galderamotak hauek izango lirateke: gertaerei edo faktuei buruzkoak, jarrera eta iritziei buruzkoak eta sailkapenerako datuak (esate baterako, datu soziodemografikoak: adina, sexua, hezkuntza-maila eta abar).

- Gertaerei buruzko galderei dagokienez, errealitateko ekintza edo objektu ukigarriei buruz jakiteko egiten dira eta, kasu honetan, interpretazio subjektiboak edo balorazio pertsonalak kanpoan uzten dira. Adibidez: *Euskarazko prentsa irakurtzeko ohitura duzu?* Kasu honetan bai edo ez erantzutea eska daiteke.
- Jarrerrei eta iritziei buruzko galderak norbanakoen balorazio subjektiboa ezagutzeko asmoarekin egiten dira. Balorazioen norabidea eta intentsitatea aztertu ahal izateko estandarizatutako hainbat eskala erabili daitezke. Eskalak tresna aproposak dira gai konplexuak aztertzeko. Baina Juaristik nabarmentzen duen moduan (Juaristi, 2003: 122), euren arazo nagusia ikertzaileen subjektibitatearen arabera eraikitzen direla da. Horrela, indizeak egiteko aukeratzen diren itemak zein bakoitzari ematen zaion puntuazioa ikertzailearen ikuspuntuaren arabera zehazten dira. Ondoren, jarrerak eta iritzia neurtzeko bi eskala aipatuko dira, besteak beste, euskararen gaineko zenbait azterketatan erabili izan direlako:
  1. Thurstone-ren eskala: Altunak eta bestek dioten moduan, eskala-mota honek jarrera bati buruzko proposizio-multzo bat jasotzen du. Proposizio hauek baieztapen baten forma dute eta inkestatuari baieztapen horiekin ados ala aurka dagoen adieraztea eskatzen zaio. Adibidea: *Euskal Herrian, gaur egun, euskara jakitea oso baliagarria da lanpostu bat lortzeko.*
    - Ados
    - Aurka
  2. Likert-en eskala: eskala-formatu erabilienetakoa da. Kasu honetan item edo baieztapen matrize bat eratzen da eta inkestatuari bere iritziarekin bat datorren erantzun-kategoria hautatzeko eskatzen zaio. Eskala-mota honetan, normalean erantzuteko bost kategoria erabiltzen dira (adibidez: *oso ados, ados, zalantza, aurka, oso aurka*). Puntuazioak (1, 2, 3, 4, 5 edo alderantziz, 5, 4, 3, 2, 1) neurtzen den jarrerarekiko erantzunak duen esanahiaren arabera ematen dira. Adibidea: *Benetako euskalduna izateko ez dago zertan euskara jakin*. Aukeran dauden erantzunak:
 

Oso ados	Ados	Zalantza	Aurka	Oso aurka
----------	------	----------	-------	-----------
  3. Osgood-en diferentzial semantikoa: kasu honetan galdeketa erantzuten duenak elkarren aurkakoak diren bi adjektibo ditu estimulu gisa. Batetik bestera hainbat posizio agertzen dira (normalean zazpi inguru) eta inkestatuari batean kokatzea eskatzen zaio. Adibidez, *Etorkizuna Aurreikusten 99: Gaztetxoak eta euskara* izeneko ikerketan (Berrio-Otxoa, 2000) horrelako galdera egin zitzaizen inkestatuei: *letik*

9rako eskala honetan, zein puntuazio emango zenioke euskarari? Adibidez, lehen lerrotik hasita, ezaiguzu euskara zaila ala erraza den zuretzat. “1” jartzen baduzu oso zaila izango da eta “9” jartzeak, berriz, oso erraza dela adieraziko du.

Erantzunak ondorengo aukeren arabera eman behar ziren:

Zaila	1	2	3	4	5	6	7	8	9	Erraza
Arrotza	1	2	3	4	5	6	7	8	9	Gurea
Alferrikakoa	1	2	3	4	5	6	7	8	9	Beharrezkoa
Iragana	1	2	3	4	5	6	7	8	9	Etorkizuna
Herria	1	2	3	4	5	6	7	8	9	Hiria

Esan behar da, aipatutakoaz gain, beste eskala-mota batzuk ere badaudela. Juaristik, esaterako, sailkapen-eskalak eta ebaluazio-eskalak aztertzen ditu (Juaristi, 2003: 123-129), baina jarrera- eta iritzi-eskalak dira, gehienbat, hizkuntzaren arloan erabiltzen direnak, eta horregatik nabarmendu nahi izan dira hemen.

## Elkarrizketa sakona

Egun, elkarrizketa gizarte-zientzietan oso finkatuta eta zabalduta dagoen teknika da. Elkarrizketaren bitartez informazioa bilatzen da, giza komunikazioa, alegia, pertsonen arteko komunikazioa erabiliz. Bi protagonista nagusi daude: elkarrizketatua eta elkarrizketatzailea. Eta bi horien artean egoera komunikatibo bat sortu behar da. Hori litzateke, behintzat, helburua.

**Elkarrizketa sakona:** elkarrizketa irekia edota elkarrizketa kualitatiboa ere deitu izan zaio. Metodo kualitatiboan kokatzen den teknika da eta gizarte-zientzietako hainbat diziplinatan oso hedatua da, besteak beste, soziologian eta antropologian. Bi subjekturen arteko aurrez aurreko interakzioa da, bata ikertzailea eta bestea elkarrizketatua. Oinarrian komunikazio-egoera bat da eta emaitza positiboak lortzeko komunikaziorako bideak, estrategiak zein baldintzak garatu behar dira elkarrizketari loturiko zeregin guztietan zehar.

Juaristiren ustez (Juaristi, 2003: 139), teknika honen helburua zera litzateke: (...) *elkarrizketatua-arentzat garrantzitsua eta adierazgarria dena ezagutu (...). Elkarrizketa oinarritzat hartuz, elkarrizketatuak bere mundua, bizitza zein ondo ezagutzen duen arlo edo gai bat nola ikusten, sailkatzen eta bizi duen ezagutu daiteke.*

Hortik abiatuta esan behar da elkarrizketa-mota ezberdinak daudela. Altunak eta bestek ondorengoak ezberdintzen dituzte, batez ere erabiltzen den gidoi-motaren arabera (gidioa askeagoa edota zorrotzagoa izan daiteke):

## 6. HIZKUNTZAK AZTERGAI: IKERKETA-METODOETARA OINARRIZKO HURBILPENA

- Elkarrizketa egituratua: inkesta moduko bat da; kasu honetan, beraz, galdeketa da, eta ez gidoia, erabiltzen den tresna.
- Elkarrizketa erdi-egituratua: bi dinamika ezberdin tartekatzen ditu. Hasieran elkarrizketatua modu librean mintzatzen da eta, horretarako, gidoi ireki bat erabiltzen da. Ondoren, gidoi itxi baten bidez, galdera zuzenak (itxiak) egiten dira.
- Elkarrizketa irekia edo elkarrizketa sakona: elkarrizketa-mota hau da gehienbat hurbilpen kualitatiboan erabiltzen dena. Kasu honetan gidoia guztiz irekia eta malgua da, eta egoeraren arabera eta elkarrizketatuaren “gogoia”-ren arabera alda edo birformula daiteke. Landu beharreko gaiak eta helburuak gidoian jasotzen direla ziurtatu behar da, baina, hortik aurrera, elkarrizketa libreki antola daiteke.

Egoera eta helburu ezberdinekin planteatu daiteke elkarrizketa erabiltzea, baina gehienetan teknika oso egokia suertatzen da pertsonen ikuspegia, bizipenak eta esperientziak jasotzeko. Horregatik, ezinbestekoa izaten da elkarrizketetan etxekotasuna eta lagunarteko harremana sortzea; alegia, konfiantzazko harremana. Ikuspuntu horretatik eta Juaristik azpimarratzen duenez (Juaristi, 2003: 140), elkarrizketa ez da ondo aterako elkarrizketatuaren eta elkarrizketatzailearen artean mesfidantza badago, mendetasun-harremana sortzen bada edo elkarrizketa susmo txarrekin hasten bada. Era berean, kontuan izan behar da gogo gabe eta konpromisoz egiten diren elkarrizketek informazio gutxi ematen dutela. Beraz, elkarrizketatua lasai eta motibatuta egotea funtsezkoa da, eta horretan saiatu behar du elkarrizketatzaileak elkarrizketa prestatzean. Horretarako ondorengo alderdiak oso kontuan hartu behar dira:

- Elkarrizketaren helburuak nola azaltzen diren: elkarrizketatuak behar duen informazioa eduki behar du (zein den elkarrizketatzailea, zertarako egiten den elkarrizketa, zergatik izan den hautatua, nola erabiliko den elkarrizketatik sortuko den informazioa eta abar). Batzuetan ez da beharrezkoa edo komenigarria gaiaren inguruko xehetasun guztiak ematea, baina giro lasai hori lortzeko gutxienezko informazioa izatea beharrezkoa da.
- Elkarrizketa noiz eta non izango den: elkarrizketarako eguna, ordua eta tokia aukeratzeko garaian oso garrantzitsua da elkarrizketatuaren beharretara egokitzea, eta horixe izan behar litzateke elkarrizketatzailearen helburua. Elkarrizketatuak eroso sentitu behar du eta horretarako beharrezkoak diren baliabideak jarri behar ditu iker-tzaileak.
- Elkarrizketarako prestatzen den gidoia bera: elkarrizketa batean zehar landuko diren gaiak eta galderak egiteko modua zein ordena oso aspektu garrantzitsuak dira, besteak beste, lortu nahi den konfiantzazko harremana garatzeari begira. Hori dela eta, gidoia osatzeko *inbutuaren estrategia* erabiltzea egokia gerta daiteke, hau da, inbutu baten antzera, logikoa dirudi galdera orokorretatik hasi (konpromisorik gabeko galderak, ari-nak, errazak) eta zehatzagoetara pasatzea (galdera delikatuagoak, pertsonalagoak...).

Printzipioz, elkarrizketatuak eragozpenik jartzen ez badu, saioa grabatu egingo da (hitzak gutxienez).



Bestalde, edozein elkarrizketa egiteko garaian gidoia funtsezko tresna izango da, eta horren prestatze-lana ahalik eta serioena izatea merezi du. Izan ere, gidoi horren baitan, elkarrizketatuarekiko harremanaz gain, oro har elkarrizketaren erritmoa, giroa eta, funtsean, informazioaren kalitatea egongo dira. Eta zertan oinarritu gidoia prestatzeko? Alde batetik, noski, ezarritako helburuak hartuko dira kontuan; beste aldetik, ikertzaileak bere intuizioa erabiliko du. Dazkan hipotesiak, gaiarekin harremana duten pertsonen iritzia, irakurritako teoriak edo aurretik egindako elkarrizketak hartuko ditu abiapuntu gisa gidoia osatu ahal izateko. Puntu honetan komeni da azpimarratzea inkestaren kasuan ere prozedura bera aplikatu beharko dela, gidoia pentsatu, landu eta diseinatzea funtsezko urratsa baita bilatu nahi den informazioa behar bezala jasotzeko.

Bestela, teknika diren aldetik, elkarrizketak eta inkestak antzekotasun handiak dituzte. Hori dela eta, askotan honelako zalantzak sor daitezke: noiz erabili bata eta noiz bestea? Zein abantaila eta desabantaila dituzte batak eta besteak? Inkestaren kasuan jada aipatu izan dira berau erabiltzeko aldeko eta kontrako argudioak. Puntu honetan elkarrizketak biltzen dituen indargunak eta ahuleziak laburbilduko dira, berriz ere, Juaristiren proposamenari erreparatuz (Juaristi, 2001: 141).

Sakoneko elkarrizketa edo elkarrizketa irekiaren abantailak:

1. Sakoneko elkarrizketetan sortzen den komunikazio-mota (konplizitatea) egoera egokia da anonimatua edo intimitatea eskatzen duten gaiak aztertzeko.
2. Aztergai diren gaien arrazoiak edo zergatiak sakonean ezagutzeko eta informazio aberatsa lortzeko aukera ematen du elkarrizketak. Era berean, zenbakien azpian ezkutatzen den informazio konplexua hobeto ezagutzen laguntzen du.
3. Oso teknika egokia izan daiteke gai bati buruzko informazio gutxi dagoenean. Esate baterako, gaiari lehen hurbilpena egiteko, komenigarria da gaian adituak direnekin edo gaiarekin nolabaiteko lotura dutenekin sakoneko elkarrizketak egitea.

Sakoneko elkarrizketa edo elkarrizketa irekiaren desabantailak:

1. Kasu batzuetan, arrazoi ezberdinak direla medio, elkarrizketatuek arazoak izan ditzakete euren iritzia behar bezala egituratzeko eta azaltzeko. Esate baterako, hori pertsona edadetuen edo umeen kasua izan daiteke.
2. Beste batzuetan arazoak egon daitezke ikertzaileentzat garrantzitsua den informazio hori lortzeko, bai elkarrizketatuak eman nahi ez duelako, bai nola eman (nola adierazi) ez dakielako. Ikuspuntu horretatik, esan daiteke ikertzailea, neurri handi batean, elkarrizketatuaren menpe dagoela; izan ere, berak erabakitzen du azken finean zein informazio eman eta zein ez (hau inkestaren kasuan ere gertatzen da).
3. Elkarrizketatzaile bat dagoen neurrian, erabiltzen den teknikak eragina izan dezake elkarrizketatuarengan Hori dela eta, elkarrizketatzailearen itxurak, galderak egiteko moduak, ahotsak, keinuek eta abarrek, eragina izan dezakete, eta horrek informazioaren kalitatea baldintza dezake.

Esandakoak esanda, argi dago elkarrizketaren teknikaren kasuan, elkarrizketatzaileen paperak, jarrerak, ahotsak, itxurak edota jokabideak eragina izan dezaketela elkarrizketatuaren erantzunetan eta, oro har, informazioaren jasoketa prozesu guztian funtsezkoa izango dela. Beraz, elkarrizketa planteatzeko eta bideratzeko trebezian oinarrituko dira neurri handi batean lortutako emaitzak. Hori jakinda, ikertzaileak dena jarri behar du bere aldetik elkarrizketa ondo atera dadin. Teknika honen kasuan azpimarratu behar da komunikazio-egoera hori lortzea izan behar duela helburu. Hori dela eta, horretarako behar diren abileziek protagonismo berezia bereganatuko dute, besteak beste, hitz egiteko trebetasuna, pertsonen aurrean egoteko jakinduria eta, gauza guztien gainetik, entzuteko gaitasuna. Horrekin batera, ezinbestekoa da malgua izatea eta prest egotea edozein momentutan (egoeraren arabera, elkarrizketatuaren jarreraren arabera eta abar) gidioa aldatzeko, galdera berriak sortzeko edota aurreikusi gabeko gaiak mahaigaineratzeke. Azken batean, komunikazio-egoera egokia lortzeak izan behar du lehentasuna.

## Bizitza–historia

Bizitza–historietan elkarrizketatuek euren bizitza kontatzen dute. Teknika kualitatibo honen bitartez, gizakiek euren bizitzari ematen dioten zentzua ezagutu nahi da. Horretarako, elkarrizketa saio bat edo batzuen bidez, elkarrizketatuarentzat garrantzitsua eta adierazgarria dena ezagutu nahi da. Halere, Juaristik azpimarratzen duen moduan (Juaristi, 2003: 159), bizitza–historietan *elkarrizketatuak arlo edo gai zehatz bat nola ikusten, sailkatzen eta bizi duen ezagutu beharrean, bere mundua edota bizitza nola ulertzen duen ezagutu nahi da.*

**Bizitza–historia:** metodo kualitatiboaren barruan toki garrantzitsua duen teknika da. Bizitza–historiarekin banakako esperientzia berezia ezagutzea bilatzen da, hau da, pertsona baten definizioa bizi izan duen egoera bati buruz, edota bere bizitza osoari buruz. Kontuan hartu behar da kasu honetan ez dela “egia” bilatzen, baizik eta subjektuak bere egia nola eraikitzen duen eta bere bizipenei eta bizitzako fase ezberdinei zentzua nola ematen dien aztertzea.

Bizitza–historian zehar, elkarrizketatuaren bizitzako etapak, gertaerak edo momentu garrantzitsuak jasotzen dira. Ikuspuntu horretatik, Altunak eta besteek azaltzen duten moduan (2008: 30), esperientzia eta oroitzapen kontzeptuak funtsezkoak izango dira; azken finean, ez zaigu “egia” interesatzen, baizik eta subjektuak “bere egia” nola eraikitzen duen, nola ematen dien esanahia bere bizipenei.

Gehienetan, informazioaren iturri bakarra elkarrizketatua izango da, baina, beste batzuetan, emandako informazioa osatu ahal izango da berak idatzitako idazkiak, bizi izandako tokietara egindako bisitak, argazkiak, eskutitzak edo lagun eta senitartekoei egindako elkarrizketak erabiliz material gisa. Gerta daiteke bigarren mailako informazio–iturri hauek (elkarrizketatua ez

denaz gainerako guztia: materialak, inguruko pertsonak...) datuak lortzeko modu bakarra izatea ere. Kasua edozein izanda ere, argi eduki behar da bizitza-historia bat osatzeko garaian erabiliko diren informazio-mota guztiak oso bereziak izango direla, pertsonalak eta bizipen eta sentimenduz beteak. Horregatik, beti konfiantzazko giroa eta lagunarteko harremanak gauza guztien gainetik jarri beharko dira.

Bizitza-historia bat osatzeko garaian ohikoa da elkarrizketa bat baino gehiago egin behar izatea. Posible bada, hau da, elkarrizketatuak trabarik jartzen ez badu, saio guztiak grabatuko dira. Egoera horretan, aurreko teknika deskribatzerakoan esan den moduan, funtsezkoa izango da gidoia oso ondo prestatzea. Gidoia elkarrizketan ez galtzeko eta hitz egin beharreko gai guztiei buruz hitz egiteko erabiliko da. Baina, kontuan hartu behar da, sakoneko elkarrizketetan bezala, gidoiari ez zaiola zorrozki jarraituko. Ikertzaileak, edozein momentutan, elkarrizketak hartzen duen norabidea ikusita, gidoia egokitzeko prest agertu behar du.

Orain arte esandakoari erreparatuta, argi dago antzekotasun asko daudela sakoneko elkarrizketen eta bizitza historien artean. Kasu bietan pertsonen ikuspuntu, jarrera edo portaerak ezagutu nahi dira euren testigantza modu zuzenean jasota. Halere, Juaristiren azalpenarekin jarraituz (Juaristi, 2003: 163-164), esan daiteke bizitza-historiek badituztela sakoneko elkarrizketek ez dituzten abantaila eta desabantaila batzuk.

Bizitza-historien abantailak:

1. Bizitza-historietan sortzen den konplizitatea eta harreman hurbila oso egokia da pertsona batek bere bizitzari ematen dion zentzua edota bere bizitzaren gorabeherak ezagutzeko eta aztertzeko. Sakoneko elkarrizketekin esan den bezala, teknika honen kasuan ere zenbakien azpian ezkututzen den informazio konplexua hobeto ezagutu daiteke.
2. Bizitza-historia gertakari sozialak ulertzeko oso tresna garrantzitsua izan daiteke; izan ere, fenomeno sozial askoren kasuan, pertsona batzuen bizi-esperientziatik baino ezin uler daitezke. Ideia hori argitzeko, bizitza-historietan aditua den Joan Josep Pujadas-en hitzak (Juaristik aipatuta) ekartzeak egokia dirudi (Juaristi, 2003: 160):

*(...) el método biográfico puede, y tal vez debe, consistirse en un método nuclear dentro de las aproximaciones cualitativas en las ciencias sociales, haciendo la salvedad de que puede ser incluso útil para determinados tipos de survey (ikerketa) cuantitativos. Su interés reside en que permite a los investigadores sociales situarse en ese punto crucial de convergencia entre: 1. el testimonio subjetivo de un individuo a la luz de su trayectoria vital, de sus experiencias de su visión particular y, 2. la plasmación de una vida que es reflejo de una época, de unas normas sociales y de unos valores esencialmente compartidos con la comunidad de la que el sujeto forma parte.*

Pasarte honetan bereziki azpimarratu nahi da Pujadasek planteatzen duen azkenengo ideia hori, alegia, bizitza garai historiko, arau eta balio batzuen isla bezala agertzearena. Bertan, bizitza-historiak ikuspegi mikro eta makroen arteko lotura ezartzeko duen gaitasuna agerian gelditzen da, hau da, eguneroko bizitza, bizitza arrunta eta

gizarte-egituraren artekoa, arau edota erakunde nagusiak barne. Ildo beretik, nabarmendu behar da bizitza-historia oso teknika erabilgarria izan daitekeela gizarte-aldaketek bizitza “errealen” dituzten eraginak irudikatzeko eta aztertzeko.

Bizitza-historien desabantailak:

1. Elkarrizketan oinarritutako teknika izanik, elkarrizketatu batzuek arazoak izan ditzakete euren iritzia behar bezala egituratzeko eta azaltzeko.
2. Neurri handi batean, ikertzailea elkarrizketatuaren menpe dago; izan ere, berak erabakitzen du, modu kontziente edo inkontzientean, zer kontatu eta zer ez (eta nola kontatu). Gerta daiteke, beraz, elkarrizketatuak eman nahi ez izatea ikertzailearentzat garrantzitsua izan daitekeen informazioaren bat, edo informazio hori modu traktatsean ematea. Horrek, ziur aski, ikertzailearen azterketa baldintzatu egingo du.
3. Sakoneko elkarrizketaren kasuan gertatzen den moduan, bizitza-historia osatzerakoan kontuan hartu behar da elkarrizketa egiten duenak dauzkan protagonismoa eta eragina. Horrela, besteak beste, elkarrizketatzailearen itxurak, hitz egiteko moduak, ahotsak eta abarrek, eragina izan dezakete elkarrizketatuaren erantzunetan eta, oro har, informazioaren jasoketa prozesu guztian.

Teknika honen azalpenarekin bukatzeko, bizitza-historia bat egiterakoan bereziki aztertu beharreko arloak zeintzuk diren aipatu nahi da, jasotako material guztiaren artean zein aspekturi erreparatu behar zaion ikusteko.

Alde batetik, aztertzen ari den pertsonaren bizitzaren oinarriko dimentsioak ikertu behar dira. Horretarako oso garrantzitsua izango da pertsona hori bere testuinguruan kokatzea eta bere testigantza horren baitan ulertzea. Horrekin batera, bere ingurukoekin izan dituen edota azterketaren unean dituen harremanak ezagutzea ezinbestekoa izango da.

Beste aldetik, pertsona horrek bere bizitzan izan dituen inflexio-puntuak eta gertaera garrantzitsuak ezagutu eta aztertu behar dira. Horiek, gehienetan, pertsona horren bizitzako fase ezberdinak ezartzeko balio dute, alegia, bere bizimodua noiz eta zergatik aldatu den jakiteko.

Azkenik, bizitzan zehar aldaketen aurrean hartutako erabakiak, moldaketak, berrantolaketa-prozesuak eta bilakaera-prozesuak aztertzea funtsezkoa izango da.

## Eztabaida–taldea

Teknika kualitatibo honen kasuan, pertsonen zuzendutako galdera irekiak dira, berriro, funtsezko estrategia informazioa eskuratzeko: informatzaileei galdetuta lortzen du ikertzaileak bere azterketa osatzeko beharrezkoa diren datuak. Halere, elkarrizketa sakonean edo bizitza-historian ez bezala, eztabaida-taldearen kasuan galderak gizaki bakarrari egin beharrean talde bati egiten zaizkio. Hau da, gai edo gertakari baten inguruan dauden iritzia, ikuspuntuak edo pentsaera ezberdinak ezagutzeko talde-eztabaida bat sortzen da.

**Eztabaida-taldea:** metodo kualitatiboan kokatutako teknika da. Kasu honetan pertsona bakarra edo gutxi batzuk izan beharrea, talde bat (8-10 kide) izango da protagonista. Talde hau ez da izango naturala (familia bateko kideak edo koadrila bat, adibidez), ikerketari begira eraikia baizik. Zentzu honetan, esan daiteke iker-tzailea, eztabaida-talde bat egitean, egoera esperi-mental baten aurrean aurkitzen dela. Bere helburua taldearen bitartez gizartean gai edota gertakari baten inguruan egon daitezkeen posizio edota diskurtso ezberdinak azalaraztea eta erreproduzitzea da. Hori dela eta, taldeak sortutako diskurtsoak eta egoerak izango dira analisiari aurre egiteko eta ondorioak ateratzeko langaia.

Gogoratu behar da, kasu honetan, eraikitako talde batekin egiten dela lan (taldekideak ezezagunak dira euren artean), ez talde naturalekin (familiak edo lagunak, esate baterako). Ikuspuntu horretatik, eztabaida-talde bat egoera esperimentazio moduan uler daiteke, non, teorian, iker-tzen ari den gaiaren inguruan egon daitezkeen gizarte-posizio ezberdinak erreproduzitzen diren. Posizio ezberdin horiek diskurtsoetan gauzatzen dira eta horiek analisirako lehengai bihurtzen dira.

Kasu honetan, eztabaida-taldearen moderatzailea (gehienetan ikertzailea bera) eta eztabaida-talde horretarako gonbidatutako kideak dira protagonistak. Gune horretan sortzen eta gartzten da eztabaida, kontuan hartuta harremanek eta diskurtsoek bi norabide izango dituztela. Alde batetik, moderatzailea eta taldekideen artean sortuko da harremana; bestetik, taldekideen artean emango da eztabaida. Azken hau da, hain zuzen ere, bereziki bilatu beharrekoa. Ildo horretatik esan daiteke teknika honen azken helburuak honako hauek direla:

1. Alde batetik, gai baten arlo garrantzitsuenak ezagutzea.
2. Bestetik, gai horren inguruan taldekideen artean egon daitezkeen ikuspuntuak iker-tzea eta sor daitezkeen adostasun eta desadostasunak aztertzea.

Helburu horiek bete ahal izateko, moderatzailearen lana oso garrantzitsua izango da, eta bere eginkizun nagusia hitz gutxitan azaldu daiteke: taldekideen artean eztabaida eta iritzien truka-keta ahalbidetuko duen giroa sortzea.

Horrekin batera, argi dago eztabaida ondo antolatu behar dela, eta, horretarako, aztertu nahi diren gaiak gidoi egoki batean bildu beharko lirateke. Gidoia eztabaidan zehar ez galtzeko eta hitz egin beharreko gai guztiei buruz hitz egiteko erabiliko den tresna da. Betiere kontuan hartuta gidoia ez dela modu zurrunean erabili behar. Gidoian aurreikusten zen ordena nahiz gal-deren planteamendua eztabaidak hartzen duen norabidearen arabera aldatu daitezke. Hori bai, komenigarria dirudi gidoian zerrendatutako gai guztiak lantzea, hori ikerketaren helburuak bete ahal izateko funtsezkoa da eta.

## 6. HIZKUNTZAK AZTERGAI: IKERKETA-METODOETARA OINARRIZKO HURBILPENA

Aurretik aztertutako bestelako teknika kualitatiboekin konparatuz, hau da, elkarrizketa eta bizitza-historiarekin alboratuz, zer-nolako abantailak eta desabantailak ditu eztabaida-taldearen teknikak? Hauek dira Juaristik azpimarratzen dituenak:

Eztabaida-taldeen abantailak:

1. Kasu honetan, neurri batean, ikertzailearen lana taldeak egiten du; izan ere, talde-dinamikak berak laguntzen du ikuspegi, bizipen eta iritzi ezberdinak sorrarazten. Hori dela eta, esan daiteke sakoneko elkarrizketetan edo bizitza-historian ikertzaileak bete beharreko rol-motibatzailea taldeak berak bereganatzen duela.
2. Eztabaida-taldea oso teknika egokia da gertakari edo gai baten inguruan egon daitezkeen iritzi eta ikuspuntu ezberdinak ezagutu ahal izateko. Beste kasu batzuetan prozesu batean inplikaturik dauden arlo (pertsona) guztien pentsaera jasotzeko baliagarria izango da.

Eztabaida-taldeen desabantailak:

1. Gai guztiak ez dira egokiak eztabaida-taldearen bitartez aztertzeko. Esate baterako, oso gai pertsonalak edo intimoak direnak. Kasu horretan, Juaristik aholkatzen duen moduan (Juaristi, 2003: 171), *zenbat eta gehiago hurbildu ikerketa arlo pertsonaletara, orduan eta gomendagarriagoa da sakoneko elkarrizketa erabiltzea*. Hori dela eta, kome-ni da gogoratzea ez daudela teknika onak edo txarrak, denak erabilgarriak direla. Gakoa, beraz, honetan datza: ikerketa araberako teknika egokia aukeratzen jakitean.
2. Kasu honetan ere, moderatzailearen figura aipatu behar da; izan ere, berak eztabai-da zuzentzen duen heinean eragin nabarmena izan dezake talde-dinamikan (galderak egiteko modua, erabilitako tonua, jendearekiko agertutako jarrera, janzkera...).
3. Ikertzailea taldekideen menpe dago; hau da, nahiz eta moderatzailea izan gaiak mahai-gaineratzen dituena, taldeko partaideen esku dago zer esan eta zer ez. Gerta daite-ke, beraz, eztabaidan parte hartzen dutenek ikerketarako garrantzitsua den informazioa eman nahi ez izatea, edo informazio hori azaltzeko zailtasunak topatzea.

Orain arte esandakoaz gain, eztabaida-talde bat egiteko beste aspektu batzuk ere kontuan hartu beharko dira. Besteak beste, ondorengoak azpimarratu nahi dira:

- Taldearen tamainari dagokionez, egokiena zortzi kide izatea da. Baten bat gehiago edo gutxiago onar daiteke, baina inoiz ez bost baino gutxiago edo hamar baino gehi-ago, bi kasu horietan eztabaida-taldeetarako beharrezkoa den dinamika apurtuko bai-litzateke.
- Taldekide-motari buruzko aipamenekin jarraituz, esan behar da taldea osatzerakoan taldeko partaideen harremanek simetrikoak izan behar dutela. Horren esanahia Altunak eta besteek ezin hobeto azaltzen dute (2008: 26): taldean ezin dira errepi-katu gizarte-espazioan dauden botere-harremanak. Horregatik, harremanek simetri-koak eta ez baztertzailak izan behar dute. Ideia hori argitu nahian, egileek adibide argigarria jarri dute (Altuna eta beste, 2008: 26): *Gure ikerketa merkaturatuko duten*

*auto berri bati buruzkoa baldin bada, ez genituzke gizon-emakumez osaturiko taldeak egingo, autoen gaia, oraindik ere, gai maskulinoa delako; eta hori horrela izanik, egileek ondorioztatzen dute talde misto batean emakumezkoak isiltzeko arrisku handia egongo litzatekeela.*

- Taldekideei buruz orain arte esandakoak esanda, talde bat osatzeko zer nolako profilak aukeratu behar dira? Zer da egokiena? Taldekide guztien ezaugarriak antzekoak izatea (hau da talde homogeneoak bultzatu behar dira) ala kontraste handiko pertsonak elkartzea? Hau da, talde heterogeneoak osatu behar dira? Adituek esaten dutenez, egokiena talde homogeneoak osatzea litzateke, baina, betiere, heterogenotasun puntu batekin, nolabait, diskurtsoari edota eztabaidari bizitasuna emateko.
- Zenbat irauan behar du eztabaida-talde baten saioak? Normalean, bi orduko iraupe-na izaten dute. Horretaz gain, esan behar da bilerarako tokia ondo aukeratu behar dela. Posible bada, leku atsegina izango da, “neutroa”, konnotaziorik gabekoa eta ondo kokatuta dagoena. Elkarrizketa eta bitzta-historien kasuan bezala, guztiz kome-nigarria da eztabaida grabatzea.
- Normalean, eztabaida-taldea pertsona bakarrak dinamizatuko du. Gerta daiteke bigar-ren pertsona bat egotea laguntzaile moduan, baina, kasu horretan, garrantzitsua izango da laguntzailea bigarren mailan gelditzea, isilik, oharrak hartzen. Horrela tal-dekideek argi bereiziko dute bakoitzaren rola eta errazago onartuko dute dinamiza-tzailearen papera. Azkenik, esan behar da ezinbestekoa dela dinamizatzaileak edo koordinatzaileak bere iritziz edo usteak ez azaltzea, hau da, balorazio pertsonalak alde batera uztea.
- Bukatzeko, dinamikaren inguruko azken ohar bat: eztabaida-talde baten garapenean zehar, aspektu eta detaile asko eta asko hartu behar dira kontuan, baina zerbait nabarmendu behar izatekotan, dinamikaren hasiera eta bukaera da, bi momentu horiek bereziki zaindu beharrekoak baitira. Hasiera, taldeari harrera ona emateko (jendea girotzeko, beldurra eta mesfidantzak uxatzeko); bukaera, partaideak sentsa-zio onarekin gelditzeko.

## Behaketa zuzena

Behaketa zuzenak gizakien portaera begiratzea eta aztertzea du helburu, betiere modu siste-matiko eta kontrolatuan eta inolako manipulazio eta bitartekorik gabe. Bestelako teknikan ez bezala, behaketa zuzenean ez da estimulu berezien eragina jasotzen, pertsonen portaerak bereziki behatzen dira. Behaketa zuzena zertan den ulertzeko lagungarria izan daiteke S.J. Taylor eta R. Bogdanek horren inguruan ematen duten definizioa ezagutzea (Taylor; Bogdan, 1992: 31): (...) *investigación que involucra la interacción social entre el investigador y los informan-tes en el milieu [testuingurua] de los últimos, y durante la cual se recogen datos de modo sistemá-tico y no intrusivo.*

**Behaketa zuzena:** metodo kualitatiboan du oinarria, baina askoren ustez, metodo bakar baten mugak gainditzen dituen teknika da. Izan ere, behaketa aurrera eramateko, metodo kuantitatiboan oinarritutako teknikak ere erabil daitezke. Hori litzateke, esate baterako, hizkuntza-erabilera ezagutzeko egiten den Kale Neurketaren kasua, non ikertzaileek galdetegi itxi bat erabiltzen duten. Behaketak gizarte-antropologiarekin du harreman zuzena, historikoki diziplina horretan kokatu izan delako. Horrela, antropologoek garatu dute bereziki teknika hau, gehienetan etnografiaren lanketari lotuta. Behaketak ikertzaileari ikertzen ari den giza-taldean txertatzea eta inplikatzeari eskatzen dio. Hori modu zurrunean edo malguan uler daiteke, baina nolabaiteko lotura eman behar da, behaketak bertan egoera eta egoera deskribatzea eskatzen baitu.

Egia da behaketa egunero eta modu arruntean egiten den zerbait dela, baina gizarte-ikerketetan aplikatzen denean oso tresna baliagarria bihurtu daiteke. Horretarako, Juaristik aholkatzen duen moduan, helburuak behar bezala zehaztu behar dira, pausoak sistematikoki planifikatu eta behatzen ari dena teoria orokorragoekin harremanetan jarri. Bestela, *inbutuaren hurbilpen-estrategia* aplikatzea komeni da, hau da, behatzeko garaian gauza orokorretatik hasi eta, ondoren, zehatzetara pasatzea.

Baina noiz erabili behar da behaketa zuzena? Egia esan, oso teknika egokia izan daiteke tesuinguru askotan, baina bereziki modu agerian edo publikoan egiten diren ekimen eta portae-rak aztertzean. Euskararen Kale Neurketa behaketa zuzenaren adibide ezin hobea da. Jakina denez, kasu horretan, behaketa Euskal Herriko hainbat herritako kaleetan egiten da. Bertan, ikertzaile-talde bat aritzen da euskararen erabilera publikoaren inguruko datuak jasotzen. Horretarako, aplikatutako teknika behaketa izaten da: bertan entzuten eta sumatzen dena jasotzen da hizkuntzaren erabilera publikoaren adierazle gisa.

Esanak esan, eta Juaristik aitortzen duenez, teknika hau baloratzeko garaian erraz aurkituko dira horren aldeko nahiz kontrako iritziak. Hori dela eta, jarraian behaketaren abantailak eta desabantailak aipatuko dira labur-labur.

Behaketaren abantailak:

1. Oro har, beste tekniken kasuan baino eragin gutxiago sumatzen da pertsonengan behaketa gauzatzerakoan. Juaristik dioenez (Juaristi, 2003: 197), *ikertzaileak gutxiago baldintzatzen ditu aztertu nahi diren portaera eta adierazpenak, eta horrek datu hobeak lortzen laguntzen du.*
2. Behaketa baldintza naturaletan egiten baldin bada, errealitatea den bezala ikertuko da, batere aldaketa, eragin edo manipulaziorik gabe.



3. Orain arte aipatutako beste teknika batzuetan ikertzailea, neurri handi batean, iker-tuaren menpe gelditzen zen, berak erabakitzen baitzuen zein informazio eman. Baina behaketa zuzenaren kasuan, ikertzaileak erabakitzen du zer den berarentzat garrantzitsua eta nahi duena behatzen du.
4. Hainbat kasutan, gainera, behaketa ezinbesteko teknika bilakatuko da; izan ere, egoera, momentua edota ikertuak direnen ezaugarriak direla eta (umeak, oso pertsona nagusiak eta abar) erabil daitekeen teknika bakarra izango da.
5. Behaketak ikerketaren testuinguruan murgiltzea dakar eta horrek indar berezia ematen dio teknika honi.

Behaketaren desabantailak:

1. Behaketak orainaldia ikertzeko baino ez du balio, ez du balio ez iraganerako eta ez etorkizunerako.
2. Gertakari, egoera edo portaera batzuk ezin dira zuzenean behatu, gizakien intimitatearekin loturik daudelako edo ezkutuan geratzen direlako.
3. Fenomeno batzuk ezin dira behaketaren bitartez aztertu, aldi berean baina toki ezberdinetan harremanetan dauden ekintzak gertatzen ari direlako. Kasu horretan irtenbidea izaten da behaketa pertsona ezberdinen artean banatzea.
4. Gehienetan, behaketa oinarritutako ikerketak beste teknika batzuekin egiten direnak baino luzeagoak izaten dira. Denbora (falta) beraz, muga izan daiteke teknika hau erabiltzeko orduan.

Behaketa-mota ezberdinak egon daitezke. Juaristik azaltzen duenez (Juaristi, 2003: 199), gizarte-antropologian (eta kultura-antropologian) erabiltzen diren parte hartzeko behaketak daude mutur batean; bestean, egoera kontrolatuetan egiten diren behaketak daude, esate baterako laborategietan egiten diren esperimentuak. Bi behaketa-mota horien artean era askotako behaketak egon daitezke; horregatik, garrantzitsuena zera izango da: ikertzaileak zehaztea kasu bakoitzean zer behatuko duen, zein pauso emango diren eta nola gauzatuko den teknika. Zeregin horietan ezinbestekoa izango da ikerketaren helburuak eta hipotesiak kontuan hartzea; izan ere, ezinezkoa da begien aurrean agertzen diren gauza guztiak behatzea. Behin aspektu horiek definituta, aztertzen ari den portaeran eragiten duten faktoreak zeintzuk diren ezagutu behar da, ekintzak eta portaerak gertatzen diren testuinguruan kokatu eta deskribatu behar dira, eta portaera horien maiztasuna eta iraupena ere zehaztu.

Behaketa zuzenaren kasuan, nola biltzen da informazioa? Oso garrantzitsua da notak hartzea eta behatutako guztiaren berri ematea. Deskribatze-prozesu horretan formula ezberdinak egon daitezke (momentuan bertan idatzi, behaketa egin ondoren idatzi...), eta egoeraren arabera erabaki beharko da zein den gauzak egiteko aukera edo modu egokiena. Aldi berean, batzuetan behaketa ohar deskriptiboetan gauzatzen da; beste batzuetan protokolo baten edo alde zuretik diseinatutako fitxen bitartez jasotzen da informazioa (hauxe da, esate baterako, Kale Neurketan egiten dena).

**22. irudia:** Soziolinguistika Klusterrak Kale Neurketa egiteko erabiltzen duen fitxa.

Teknika honen deskribapena bukatzeko, Juaristik berak aipatzen duen puntu bat nabarmendu nahi da (Juaristi, 2003: 207): zer-nolako harremanak egon behar dira behatzaile eta behatuen artean? Argi dago behaketa zuzenean, beste teknikan ez bezala, ikertzaileak ikertzen ari den horrekin harreman zuzenean egiten duela lana (ikertzen ari den pertsonen aurrean jartzen da inolako bitartekorik gabe). Ondorioz, beharrezkoa suertatzen da ikertuen aurrean bere burua behar bezala kokatzea. Kokapen hori funtsezkoa izango da ikertzailearen eta behatuen arteko harremana modu egokian gauzatzeko.

Juaristik proposatzen duenez, behatzaile lau modu desberdinetan ager daiteke behatuen aurrean:

1. Behatzailea ezezaguna da ikertzen ari den taldearentzat, eta era naturalean parte hartzen du behaketa egiten duen bitartean.
2. Behatzailea ezezaguna da taldearentzat, eta era artifizial batean parte hartzen du (asmatutako rol edo paper bat betetzen).
3. Behatzailea ezaguna da, eta ez du taldean edo ikertzen ari den egoeran parte hartzen (kanpotik behatzen du).
4. Talde batean integratzen da eta ezaguna da behatzailea.

Juaristiren ustez, aukerarik onena ezaguna den behatzailearena da. Dena dela, bere iritziz (Juaristi, 2003: 209), askotan ezezkoa da horrelako behaketa bat egitea (kartzelan, psikiatrikoan, monasterioan...) eta, ondorioz, ikerketaren berezitasun eta baliabideak kontuan hartuz, beste behaketa-mota batzuetan pentsatu beharko dugu.

## Bestelako informazioa/materiala

Orain arte aipatutako tekniken bitartez ikertzaileak iturri zuzenetik informazioa lortzeko aukera du. Baina badaude iturri ez-zuzenen bidez informazio baliagarria eskuratzeko moduak. Praktikan bide hau askotan erabiltzen da gizarte-zientzien eremuan garatzen diren ikerketa eta azterketetan.

Baina zertan datza iturri ez-zuzenen azterketa? Juaristik definitzen duen moduan (Juaristi, 2003: 229-230), *iturri ez-zuzenen azterketa beste pertsona edo erakunde batzuek (erakunde publiko zein pribatuak, ikertzaileak, gobernuz kanpoko erakundeak...) bildu, sortu edota gorde dituzten estatistika, dokumentu, grabaketa eta material pertsonalen (biografiak, egunerokoak, memoriak, eskutitzak, argazkiak, edozein erregistro ikonografiko edo ondasun pertsonalak...) azterketan oinarritzen den ikerketa teknika da.*

Teknika honen kasuan, beraz, ikertzaileak beste batzuek, euren gogoz edo beharrez “sortutako” materialaren gainean lan egiten du. Horren azterketara bideratzen du arreta, eta hortik hainbat informazio baliagarri eta ondorio ateratzen ditu.

Askotan, iturri ez-zuzenen erabilerak beste teknika batzuen bitartez lortutako datuak osatzen laguntzen du, baina gerta daiteke iturri ez-zuzena delako teknika izatea ikerketa burutzeko dagoen bide bakarra. Kasu horretan, material horren kalitatea eta zuzentasuna ziurtatzea merezi du, ikertzailearentzat iturri nagusia izango baita.

Bestela, aurretik aipatu den moduan, iturri ez-zuzenen azterketan erabil daitezkeen materialak era askotakoak izaten dira. Juaristik horiek sailkatzeko modu erraz bat proposatzen du:

1. Dokumentu idatziak: liburuak, edozein eratako literatura, egunkariak, notarioen aktak...
2. Zenbakiak eta estatistikak dituzten dokumentuak.
3. Aurreko bi kategorietan sartzan ez diren dokumentu edo materialak: filmak, irudiak, argazkiak, diskoak...

Teknika honen inguruko aipamenekin bukatzeko, azpimarratu nahi da, askotan, zuzenak ez diren iturrietako material horretara iristeko, oso egokiak izaten direla erakunde ofizialek eskaintzen dituzten informazio-guneak. Gainera, gaur egun kontuan hartu behar da informazio horietako asko on-line eskuratzeko aukera dagoela.

## Gizarte-sareen azterketa

Pertsona oro bere egunerokotasunean gizarte-sareak sortzen eta osatzen ari da. Txikitatik pertsona guztiek euren erreferentziatzko harremanak dituzte, eta denborarekin horiek aldatzen joango dira harreman-sare ezberdinak osatuz. Prozesu hori oso garrantzitsua izango da pertsona baten bizitzan, eta, hainbat egilek diotenez, kapital-mota bat osatzen laguntzen du, harreman-kapitala, hainbat egoeratan funtsezkoa bihurtuko dena.

**Gizarte-sareen azterketa:** gizarte-sareak aztergai bihurtu dira diziplina eta jakintza-arlo ezberdinetan, hala nola, soziologian, antropologian edota enpresen eremuan. Azterketa-mota honetan harremanak dira protagonistak; pertsonen arteko loturak, talde ezber-

dinen arteko loturak eta abar. Harreman horien edukia eta helburua aldatuko dira ikergaiaren arabera; edozein kasutan, harreman horiek osatzen duten egitura litza-teke aztergai nagusia. Teknika horretan elementu kuantitatiboak eta kualitatiboak txerta daitezke eta, gainera, tresna bisualak eskaintzen ditu, sareak modu grafikoan ager daitezke eta.


Iñaki Martínez de Luna, Nekane Jausoro, Kontxesi Berrio-Otxoa eta Ibon Idirinek azaltzen dutenez (Martínez de Luna eta beste, 1998), gizabanakoak, besteekin harremanetan jartzean, gizarte-sareak eraikitzen eta osatzen ditu bere inguruan, eta beste horrenbeste gertatzen da instituzio (enpresa, elkarte...) baten inguruan. Gizarte-harremanak sortzen direnean, gizarte-sare bat baino gehiago gauzatzeko eta sare ezberdinak eratzeko aukera ematen da. Esate baterako, askotan gertatzen da lanpostuan sare formal eta informal anitzak agertzea. Sareen azterketak era guztietako harremanak eta loturak izan ditzake aztergai. Kasua edozein izanda ere, metodo honen helburua gizabanakoak gizarte-egituran non eta nola dauden kokatuta ikertzea izango da.

Esandakoak esanda, argi gelditzen da gizarte-sareen azterketak maila mikroa eta makroa biltzen dituela, eta era berean, bere gauzapenean posible da teknika kuantitatiboak (inkesta) eta kualitatiboak (sakoneko elkarrizketa) uztartzea. Ikuspegi eta hurbilpen aberatsa eta osatua eskaintzen du.

Baina zergatik izan daiteke interesgarria sareen azterketa hizkuntza ikertzeko orduan? Martínez de Luna eta bestek ezin hobeto ebazten dute zalantza hau (1998): *Hizkuntzaren erabilera interakzioan sortu eta hedatzen da. Hori dela eta, interakzioaren ikerketa funtsezkoa zaigu erabilera edo erabilerarik eza aztertzeke orduan. Eta ezinbestean, interakzioa aipatzen dugunean harremanak aipatu behar ditugu, hots, gizarte-sareak.*

Egile horien ustez, argi gelditu behar da gizarte-sareen azterketa ez dela banakako ikuspegian kokatzen, hau da, ez du bere analisia gizabanakoaren ezaugarrien arabera egiten. *Alderantziz, gizarte-egituran gizabanakoak non eta nola dauden kokatuta funtsezkoa izango da ikuspegi honetan. Sareak aipatzen direnean ez dira zentzu metaforikoan aipatzen, aktoreen arteko gizarte-harremanen egitura adierazteko baizik.*

Sareen azterketetan elementu garrantzitsu bat adierazpen grafikoa da. Bertan, partaideen arteko harremanak puntu eta marren bidez irudi bilaka daitezke. Irudi horrek soziograma du izena. Soziograma horretan oinarrizko osagaiak ondorengo hauek lirateke: alde batetik, nodoak (gizabanakoak); bestetik, beraien arteko harremanak, hau da, marrak. Gizarte-sare batean kontuan hartu beharreko beste osagai garrantzitsu bat sarean aktore bakoitzak duen kokapena da. Horri dagokionez, sare batean ondorengo bereizketa antzeman daiteke: alde batetik, erdiguneko kokapena (gizabanakoaren inguruan harreman-puntu asko dagoenean); bestetik, inguruko kokapena.



**23. irudia:** lan-esparruko harreman formaletan euskarak eta gaztelaniak duten presentzia erakusten duen soziograma (Iñaki Martínez de Luna eta beste, 1998).

Horri lotuta, Martínez de Luna eta besteek gizarte-sareetan ezberdintzen diren osagai morfologikoak ere aipatzen dituzte. Ondorengoak dira:

1. Kokagunea: sare bat mugatzeko erreferentzia moduan hartzen den aktore zehatza (edo aktore zehatzak).
2. Eskuragarritasuna: sare barruko eskuragarritasunak aktoreek elkarrengana iristeko beharrezkoak dituzten urratsen berri ematen du. Hori bi modutan uler daiteke: bate-tik, aktore bakoitzarekin harremanetan jar daitezkeen aktoreen kopurua edo proportzioa; bestetik, aktore batek beste batekin harremanetan jartzeko erabili edo zeharkatu behar duen bitartekari-kopurua.
3. Trinkotasuna (dentsitatea): sare baten harreman- edo lokarri-kopurua adierazten du trinkotasunak.
4. Maila (*rango/degree*): aktore baten inguruan sare bat eraikitzen denean, gainerako pertsonen horrekiko harreman-aukera ezberdinak izango dituzte. Batzuek bitartekari-rik gabeko harreman zuzenak izango dituzte; besteek, aldiz, zeharka, bitartekarien bidez edukiko dituzte loturak; lehenengoak maila gorenekoak dira; azkenengoei, berriz, maila apalagoa edo arrunta dagokie.

Morfologiarekin zerikusia duten beste bi kontzeptu aipatu behar dira: zentralitatea eta bitartekaritza (edo *betweenness*). Lehenengo sarean dauden aktore garrantzitsuenen finkapenari dagokio; bigarrenak, aldiz, aktore bat sareko beste aktoreen artean nola dagoen kokatuta adierazten du.

Gizarte-sareen azterketen aurkezpena bukatzeko, azpimarratu behar da azterketa-mota honek baduela jada tradizio bat soziolinguistikan eta, oro har, hizkuntzaren gaineko ikerketetan. Baina

## 6. HIZKUNTZAK AZTERGAI: IKERKETA–METODOETARA OINARRIZKO HURBILPENEA


hori esanda ere, aitortu behar da euskararen inguruan egin diren azterlanen artean protagonismo eskasa izan duela.

Euskarari lotutako ikerlanen artean oso gutxi dira gizarte-sareen azterketa erabili izan dutenak. Adibide solte horietako bat Iñaki Martínez de Luna eta bestek egindako azterketa izango litzateke. Egileek azaldutakoaren arabera (1998), bi gizarte-sare ezberdin aukeratu ziren, sareen metodologiaz baliatuz, hizkuntza-soziologiara hurbilpen-proba bat egin nahirik. Alde batetik, lagun-koadrila bat aukeratu zen sarearen kokagune bezala, gizarte-sare berezko eta aldakorra, alegia. Bestetik, udaletxe txiki bateko (7.000 biztanle inguruko udalerrria) langileen arteko harremanak izan ziren aukeratu zen beste sarearen kokagunea. Azken sare horretako partaideak erakundeko langileak ziren eta, ikuspuntu horretatik, sarea era formalean eratuta zegoen.

Gizarte-sareetan oinarritutako beste teknika bat *mintzagrama* da. Mintzagrama teknika, UEUK sortu eta landutakoa da eta 1997-98 ikasturtean erabili zen lehenengoz. Modu esperimentalean erabili bazen ere, bere erabilgarritasuna eta eraginkortasuna erakutsi zuen. Geroztik aurreapenak ezagutu ditu teknika honek, batez ere, informatikari esker, baina oinarrian bere helburua mantendu du: hiztunaren jarduera behatzeko eta aztertzeko modu eraginkorra garatzea. Kasu honetan, lehentasuna taldeetan ematen den jarduera litzateke. Berdin dio lan-talde zein ikastalde izan; Xabier Isasik eta Lore Erriondok adierazten duten moduan (Isasi; Erriondo, 2009:4), *mintzagrama teknika, taldeen baitako hizkuntzaren berbazko erabilera aztertzeko lanabesa da, taldekideen arteko ahozko komunikazio-sarea aztertzekoa, alegia. Taldea ezinbestekoa da; izan ere gure eguneroko jardueran, taldeak sustatu, bideratu eta mugatzen baitu gure hizkuntza-portaera.*

Praktikan, mintzagramaren oinarria galdetegi bat da. Ikasgela batean aplikatzen denean, ikasleek edo irakasleek bete dezakete. Isasik eta Erriondok gauzatutako esperientziaren kasuan, taldeko partaideei (ikasleak) taldekide bat hautatzea eskatu zitzaion, irizpide bakarra proposatuz: pertsona horrek nagusiki euskaraz ala erdaraz hitz egitea. Orain arte erabilitako galdetegietan horrelako itaunak planteatu ohi dira: *Norekin hitz egiten duzu beti edo ia beti euskaraz? Edo, kontrako: Norekin hitz egiten duzu beti edo ia beti erdaraz?* Jakina, hautaketa egiteko orduan, hizkuntzarenaz gain, bestelako irizpide batzuk erabiltzen dira. Isasi eta Erriondoren esanetan, *hauek norberarenak dira, bakoitzak jar ditzakeenak. Hurbiltasuna, adiskidetasuna, estimazioa, miresmena edo antzeko irizpideak izaten dira norberak erabiltzen dituenak solaskidea aukeratzeko momentuan. Baliteke bestelako iritzia —aurreiritzia— erabiltzea, hala nola, euskaltzaleena edo erdaldunena izatea, kargu garrantzitsua duena edo berritsuena izatea. Inork ezin kontrola dezake bakoitzak solaskidea aukeraterakoan lerabilkeena* (Isasi; Erriondo, 2009: 5).

Galdetegi taldean osatu ondoren, datuak batu eta zenbakietara pasatzen dira. Aplikazio informatiko bat erabiliz, mintzagramak irudikatzen dira. Ondoren, mintzagrama interpretatu egiten da. Batetik, taldeak zer joera erakusten duen aztertzen da: irekia (harremanak denon artean), itxia (harremana pertsona batengan zamatua) edo zatikatua (azpitaldeak euren arteko harremanik gabe); bestetik, taldeko egiturak zeintzuk diren antzematen da: zein bikote, izar edo lider, kate, irla, azpitalde, etab. agertzen den. Hortik informazio aberatsa sortzen da, adibidez, eskuhartzea diseinatzeko eta planifikatzeko. Mintzagrama-teknika, noski, ikasleekin ez ezik bestelako giza taldeekin ere erabili daiteke.



24. irudia: euskararen mintzagrama baten adibidea (Xabier Isasi; Lore Erriondo, 2009: 13).

## Parte hartzeko metodologia

Altunak eta bestek aipatzen dutenaren arabera (2008: 107), parte hartzeko metodologia izenburupean soziologian, pedagogian eta psikologia sozialean bereziki garatutako ikerketa-metodologiak biltzen dira. Hiru diziplina horietan landu diren parte hartzeko metodologiaren inguruko lanek ez dituzte izan planteamendu eta abiapuntu teoriko berdinak, baina egileek izenburu beraren azpian sar daitezkeela uste dute, besteak beste ondorengo ezaugarri orokorrak dituztelako:

1. Ezagutza eta ekintza uztartzen dute. Printzipioz ez dago ekintza praktikorik ikerketa-prozesutik kanpo; izan ere, aktoreen praktika aldatzea edo hobetzea izaten da ikerketaren sakoneko helburua.
2. Ikerketa-mota honek ohikoa den subjektu-objektu dikotomia kuestionatzen du, eta subjektu-subjektu eredia defendatu. Aktore sozialen partaidetza aktiboa funtsezkoa kontsideratzen da eta hori lortzen da, gehienbat, ikertzaileen koordinazio eta dinamizazioaren bitartez. Neurri handi batean, beraz, aktore sozialak ikertzaile bihurtzea da parte hartzeko ikerketen helmuga.
3. Aktore sozialek, gogoeta kolektiboaren eta informazio-bilketaren bitartez, beren praktika indibidualak eta kolektiboak aztertzen dituzte. Horretarako egokiak izan daitezkeen teknika edota dinamika ezberdinak erabiliko dira, eta gehienek kutsu kualitatiboa dute.
4. Aktore sozialen auto-diagnostikoa osatu eta gero, euren praktika hobetzeko helburuak definitzen dituzte, baita helburu horiek gauzatzeko estrategiak ere. Horrela, ekintza-azterketa-ekintza prozesu irekia abiatzen dute.

Printzipioz, Altunak eta bestek azaltzen duten moduan (2008: 107), metodologia honen gauzatzeko teknika oso berria da eta azken urteetan ari da garatzen bi norabide nagusitan: *ildo pragmatiko batetik (planifikazio estrategikoa eta hobekuntza/kalitate taldeak)*, eta *ildo kritiko edo eraldatzaile batetik (esku-hartze soziala eta komunitarioa)*. Azken hori izan da, bereziki, ikerketa honen

## 6. HIZKUNTZAK AZTERGAI: IKERKETA–METODOETARA OINARRIZKO HURBILPENA

garapenerako eremu ohikoena, baina, aipatu denez, beste arlo batzuetan ere tokia izan du metodologia berezi honek.

**Parte hartzeko metodologia:** bere oinarrian eskola, egile nahiz korrante kritiko eta berritzaileak kokatzen dira. Eragile horiek zientzia modernoaren positibismoak bereizi zituen dikotomiak uztartzen saiatu dira: subjektu ikertzailea *versus* objektu ikertua eta ikerketa *versus* esku-hartzea. Kasu honetan, beraz, ikerketa prozesu sozial gisa ulertzen da eta ikertuak ikerketaren parte aktibo eta eragile bilakatzen dira. Nolabait, ikerketako objektuak ikerketaren jabe egin behar dira, beren egoeraren gainean hausnartuz, ondorioak deskribatuz eta etorkizunari begirako urratsak zehaztuz. Prozesu honetan erabilitako teknikak kuantitatiboak zein kualitatiboak izan daitezke. Halere, gehienetan teknika kualitatiboen alde egiten da, betiere, ohikoak ez diren dinamikak kontuan hartuz (tailerrak, kaleko ekintzak, asanbladak eta abar), hau da, ikerketak ingurunean nolabaiteko inpaktua izango duten praxiak eta jarduerak publikoak edo irekiak bultzatuko ditu.

Bere aplikazioari buruz esan behar da, normalean, prozesuak konplexuak eta luzeak izaten direla. Bete beharreko urrats ugari eta ezberdinak daude, Altunak eta bestek, besteak beste hamahiru une ezberdin bereizten dituzte halako prozesu batean:

### 1. Ikerketaren planteamendua

Zertarako eta norentzat egiten da ikerketa? Nork egingo du? Nola eta noiz egingo du? Lehenengo fase honetan horrelako galderei erantzutea da helmuga. Hori eginez, ikerketaren sakoneko helburuak argituko dira, ikerketa-taldea osatuko da eta, azkenik, ikerketaren metodologia eta kronograma zehaztuko dira.

### 2. Informazio orokorraren bilketa

Ikerketa-proiektua definitu ondoren hura abiatzeko unea da. Informazio-bilketari hasiera emateko, komeni da landu beharreko gaia modu egokian definitzea eta kontzeptualizatzea. Horretarako, dokumentazio-lana eta adituei eginiko elkarrizketak erabil daitezke.

### 3. Jarraipen-batzordearen osaketa

Jarraipen-batzordean proiektuaren eztabaidan interesaturik egon daitezkeen erakunde nahiz pertsonak bilduko dira. Ordezkaritza ahalik eta zabalena bilatzen da. Batzordeari ikerketa-prozesuaren berri ematen zaio eta batzordean parte hartzen duten ordezkariak eztabaidatu egiten dute ikerketa biltzen ari den informazioa.



#### 4. Ikerketa-taldea osatzea

Aktore sozialak ikerketa-taldean integratzea da metodologia hauen ezaugarri bereizgarrienetarikoa. Ikerketaren arloaren arabera protagonista ezberdinak izango dira. Esate baterako, esperientzia enpresa batean egiten baldin bada, bertako langileak, teknikariak edota zuzendaritzako kideak izan daitezke partaideak.

#### 5. Elementu aztertzaileei sarrera ematea

Parte hartzeko ikerketa-ekintzaren berezitasuna izango da *ekimen aztertzaile publikoak* ikerketa-prozesuan zehar erabiltzea (ikerketak ingurunean nolabaiteko inpaktua izango duten praxiak eta jarduera publikoak edota irekiak bultzatuko ditu). Horrekin erreakzioa eta mugimendua suspertzea bilatzen da, egoera eta ikuspegi berrietara irekitzea, hain zuzen ere. Jarraipen-batzordea bera osatzea oinarrizko ekimen aztertzailea izaten da, baina horretaz gain, badaude beste ekimen-mota posible batzuk: topaketak, jardunaldiak edo tailerrak antolatzea; bilera irekiak edo asanblada deitzea eta abar.

#### 6. Kale-lana abiatzea

Fase honetan, normalean, elkarrizketa pertsonalak egiten dira ingurunean ari diren gizarte-talde eta administrazio lokaleko ordezkariekin. Kasu horretan lanean ari diren aktore kolektibo ezberdinek aztergaia, inguruan dauden gainerako taldeak, erakundeak eta biztanleria nola ikusten dituzten ezagutzea da helburua. Era berean interesgarria izango da ingurunean ari diren aktore kolektibo horiek aztergaiaren inguruan egiten duten diskurtsoa eta egiten dituzten proposamenak eskuratzea.

#### 7. Lehenengo txostena aurkeztea eta eztabaidatzea

Lehenengo txostenean auto-diagnostikoa biltzen da, jarraipen-batzordean eztabaidatua izateko. Horrela, ordura arte bildutako informazioa sistematizatu eta antolatuko da; jasotakoa ñabardura eta ekarpen berriekin aberastuko da; informazioa jarrera edota ikuspuntu berriekin osatuko da. Azkenik, gainerako kale-lana diseinatzeko informazioa jasoko da.

#### 8. Kale-lanaren jarraipena

Fase honetako zeregin nagusia da ingurune sozialean bizi diren kideek aztergaiaren inguruan dauzkaten irudikapenak aztertzea. Horretarako, eztabaida-taldeak diseinatzeko eta burutzea jotzen da estrategia egokitzat. Horrekin batera, parte hartzeko behaketa ere ezinbesteko teknika da eta, prozesu osoan zehar, modu formalean edo informalean gauzatu beharko da.

#### 9. Testuen eta diskurtsoen azterketa

Kale-lana egin eta gero analisiari heldu behar zaio. Zeregin horretarako material ugari egon daitezke: elkarrizketa eta eztabaida-taldeen emaitzak (transkripzioak), ikerketa-talde eta jarraipen-batzordearen bileren aktak, edota behaketa eta kale-lanaren oharrak.

Analisia diskurtsoen azterketetan oinarrituko da eta aztergaiaren inguruan dauden posizio ezberdinak topatzea izango da helburu nagusietariko bat.

### 10. Bigarren txostena aurkeztea eta eztabaidatzea

Txosten honetan, normalean, ondorioen eta ekintzetarako proposamenen aurrerapena egiten da, jarraipen-batzordean edota bestelako talde-dinamiketan (tailerretan esate baterako) eztabaidatu ahal izateko. Txostenak, beraz, aztergaiaren definizioa, lehenengo informazio-bilketan egindako testuinguraketa eta praktika kualitatiboan bitartez produzitu den materialaren analisia biltzen ditu.

### 11. Tailerrak antolatzea

Biztanleriaren partaidetza bultzatzea da tailerren helburua, bertan proposamen eta estrategia praktikoak mahaigaineratzeko eta eztabaidatzeko. Aldi berean, parte hartzeko tekniken bitartez, egituratu gabe dauden taldeak ekintzetarako talde bihurtzea bilatzen da.

### 12. Ekintza integralerako egitaraua (EIE) erakitzea

Urrats honetan ekintzen plana bideratuko duten ildo estrategikoak eta operatiboak definituko dira, prozesuak bultzatutako hausnarketa eta bertan jasotako ekarpenak kontuan hartuz. Helburua da ekintza-arlo ezberdinetan abiatu beharreko ekimenak egitarau integral batean biltzea.

### 13. Azken txostena

Gauza guztien ginetik, txostenak lanerako tresna izan behar du, erabilgarria eta ulergarria. Hori dela eta, prozesuan parte hartu duten guztiei banatzen zaie kopia bat. Bertan ekintza-planean abiatu beharreko ekimenen programazio zehatza agertuko da (aktoreak, epeak eta baliabideak adierazita). Horrekin batera, garrantzitsua da bertan plana ebaluatzeko irizpideak eta adierazleak proposatzea ere.

Ikusten denez, parte hartzeko ikerketa metodologia konplexua da, baina osatua, aberatsa eta hainbat arazori aurre egiteko egokia. Azken hamarkadetan indartzen ari den metodologia da, etorkizunerako metodologia.

Euskal soziolinguistikaren arloan badira parte hartzeko metodologiaren filosofiarekin bat egiten duten hainbat proiektu, bere osotasunean edo, behintzat, zatiren batean. Horien artean, Kuadrillategi egitasmoa aipa daiteke, edota (aurrerago aipatuko den bezala) lan-munduan garatzen ari diren zenbait ekimen. Izan ere, gero eta arruntago bihurtu da hizkuntza-plangintzak martxan jartzeko garaian inplikatuaren parte-hartzea eskatzea, beren onarpena lortzeko modu egokiena dela uste baita. Horren adibide argia dugu Lasarte-Oriako udaletxean izandako esperientzia, zeinetan administrazioko atal elebidunetako langileen hizkuntza-ohituretan eragiteko plana diseinatu eta indarrean jarri zuten. Aitor Unanuek berak (esperientziaren eragile zuzena) azaltzen du argi eta garbi prozesuan zehar inplikatu zuzenek (udal-langileek) izandako protagonismoa (Unanue, 2006: 27): *Aurrera egin ahala, prozesuaren gaineko ardura dinamizatzailearengandik parte-hartzailearengana igaroko da progresiboki, eta nork bere gain hartu beharko du*

*aldaketa-prozesua, autonomia garatuz. Bestela esanda, langileak berak prozesua autogestionatzea da helburua.*

## Etnografia

Etnografia kultura- eta gizarte-antropologiaren garapenari dago bereziki lotuta eta agian horregatik (hau da diziplina zehatz baten baitan dagoelako) ez du, behintzat, Euskal Herriaren kasuan, zabalpen handirik izan hizkuntzarekiko kezka dutenen artean. Halere, aipatu beharreko nozioa da; izan ere, beste testuinguru batzuetan (Estatu Batuetan, esate baterako) etnografiak berezko protagonismoa bereganatu du hizkuntza-antropologiaren barruan, arlo honetan egiten diren ikerketa askok eta askok etnografia baitute oinarri.

**Etnografia:** tradizioz gizarte-antropologiaren garapenari lotuta egon da etnografia eta, egun, beste diziplina batzuetan erabiltzen bada ere, antropologoek zeregina definitzen jarraitzen du. Etnografia teknika baino askoz gehiago da, bere baitan prozesua eta produktua biltzen direlako. Etnografiak ikerketa batean eman beharreko urrats, eginkizun eta estrategia ezberdinak (teknikak barne) jasotzen ditu, hau da, ikertzailea ikerketa hasten denetik bukatzen duen arteko bidea litzateke etnografia. Baina baita ibilbide horren ondorioz sortzen den emaitza ere: monografia bat, dokumental bat eta abar.

Ez da hau etnografiaren inguruan luze aritzeko tokia, baina interesgarria da bere ezaugarri batzuk ezagutzeko; izan ere, hizkuntzaren inguruan ikertzeko potentzial handiko prozesu metodologikotzat jotzen da.

1. Esan denez, etnografia kultura- eta gizarte-antropologiaren garapenari dago lotuta. Bronislaw Malinowskik eta bere garaiko hainbat antropologok lagundu zuten haren ezaugarriak ezartzen eta zabaltzen.
2. Etnografia ez da teknika soil bat; aitzitik, prozesu metodologikotzat hartu behar da. Bertan teknika kuantitatiboak edota kualitatiboak bil daitezke. Antropologoek artean, teknika kualitatiboak dira ohikoena edo zabalduena, baina kuantitatiboak ere erabiliak izan dira eta erabiltzen dira antropologian.
3. Etnografiaren zati garrantzitsuenetarikoa bat lekuan lekuko lana litzateke. Ikerketa-fase honetan, ikertzailea informazio eta datu bilketan aritzen da modu intentsiboan. Ez dago fase hau burutzeko modu finkorik; are gehiago lekuan lekuko lana aurrera eramateko, oso modu ezberdinak daude.
4. Lekuan lekuko lana egiterakoan, behaketa zuzenaren teknikak berebiziko garrantzia izan ohi du, eta horren bitartez, etnografoa modu aktiboan murgiltzen da ikertzen ari den taldean edo komunitatean.

5. Etnografiaren muinean, kultura- eta gizarte-antropologian aldarrikatzen diren helburuak biltzen dira: kultura ezberdinen ezaugarriak ezagutzea, ulertzea eta azaltzea ikuspegi holistikoa batetik. Horretarako ezinbestekotzat jotzen da metodo konparatiboa: horren arabera, edozein gertakari denboran eta espazioan kokatu behar da. Hau da, etnografiak argi erakusten du kultura eta gizarteak aldakorrek direla, bai denboran, bai espazioan, eta hori litzateke gizakien berezko ezaugarria. Aldakortasuna, beraz, salbuespena izan beharrean ezaugarri normala litzateke.

Tradizio edota korrante ezberdinen arabera, etnografia metodologia kritikoen artean edo parte hartzeko metodologiaren artean kokatu ahal izango litzateke; batzuen ustez etnografiaren helburua ikertuen errealitatean eragitea (zentzu positibo batean, hau da errealitate hori hobetze aldera) izan beharko luke, eta hainbat ikertzailek etnografia konprometitu baten alde egiten dute.

Euskal Herrian, etnografia gutxi egin da hizkuntzaren inguruan, baina hor dago, adibide moduan, Teresa del Vallek *Korrikari* buruz egin zuen lan azpimarragarria, etnografiaren balioaren isla ezin hobia (del Valle, 1988).

## 6.2. HIZKUNTZA, HIZTUNA ETA HIZKUNTZA–TESTUINGURUA INFORMAZIO–ITURRI GISA

Kapitulu honetan, lehendabizi, metodologiaren zentzuaz eta garrantziaz hitz egin da, ondoren, proiektuaren egin beharra nabarmendu da eta, azkenik, edozein ikerketa edo egitasmo martxan jartzeko, aukeran dauden teknika edo estrategia ezberdinei errepasso orokorra eman zaie.

Bada garaia, beraz, beste urrats bat egiteko, teoriatik praktikara pasatuz. Hori dela eta, ondoren, hizkuntza eta, bereziki, euskara aztertzekeo garaian landutako ikuspegia eta erabilitako “tresnak” aztertuko dira. Ariketa xumea eta mugatua izango da, baina, behinik behin, metodologiaren arloan egindakoari buruzko hausnarketa bultzatu nahi da, soziolinguistikak ere metodologia behar duelako.

Euskal Herrian soziolinguistikaren sorrera eta garapena, neurri handi batean euskararen egoera larriak bultzatu izan du. Zerbait egin behar zelako sententzia nagusitu zen, bereziki 1970eko hamarkadatik aurrera, eta nahi horretatik kezka teorikoa eta metodologia piztu ziren. Hori dela eta, lehenengo aipamen teorikoekin batera, hasierako ikerketak martxan jarri ziren. Iñaki Larrañaga soziologoak elkarriketa batean azaltzen zuen moduan (Esnaola; Odriozola, 2000), 1972-75 bitartean bizpahiru ikerlan agertu ziren. Euskal soziolinguistikaren lehenengo urratsak ziren horiek.

Zeintzuk ziren ikerlan hauen egileak? Alde batetik, José M<sup>a</sup> Sánchez Carrión “Txepetx” aipatu behar da. Egile honek *El estado actual del vascuence en Navarra (1970). Factores de regresión*.

*Relaciones de bilingüismo* (1972an argitaratuta) deitutako ikerlana burutu zuen. Sánchez Carriónnek soziolinguistikako ikerlanen tradizioa ekarri zuen Euskal Herrira, eta geroztik, erreferentzia izaten jarraitzen du. Larrañagak berak horrela baloratu zuen lan hau (Esnaola; Odriozola, 2000): *Esan genezake, beraz, Txepetxan lan hori izan dela Soziolinguistikaren alorrean, nahiz eta izen hori ez eraman, gure artean egin den lehendabiziko ikerketa sistematizatua. Bertan, hizkuntza-komunitate baten egoera aztertzeaz gainera, teoria aldetik esplikazio bat, oraindik era elemental batean besterik ez bada ere, ematea lortzen da.*

Momentu horretan ari zen bere aldetik Pedro Irizar *Los dialectos y variedades de la lengua vasca. Estudio lingüístico–demográfico* (1973) aztertzen eta Euskal Herri osoko udalerrri guztietako datu-bilketa zehatz bat egitea lortu zuen. Txepetxan lanaren ondotik, beste bi lan etorriko ziren, euskara Nafarroan zertan zen eta bere galtze-prozesua nondik-norakoa zen aztertzen dutenak: Apat-Etxebarneren (Irigarai Aingeru) *Una geografía diacrónica del euskara en Navarra* (1974) eta Jose Angel Irigarayk 1973an argitaratutako *Euskara eta Nafarroa*.

Hona hemen, beraz, euskal soziolinguistika akademikoaren lehenengo urratsak. Urte batzuk geroago, eta Euskaltzaindiaren eraginez, soziolinguistika aplikatuari hasiera eman zitzaion *Hizkuntz Borroka Euskal Herrian* izeneko lanarekin. Euskararen inguruko lehenengo ikerketa orokorra izan zen, Siadeco elkarteak egin zuen eta horren laburpena 1979an argitaratu zen.

**Siadeco**<sup>x</sup>  
ikerketa aplikatua

**Siadeco:** 1967 urtean sortu zen *Sociedad de Investigación Aplicada al Desarrollo Comunitario* izenarekin, Euskal Herriko hainbat tokitan “desarrollismo” delakoa eta horren lehen ondorioak puri–purian zeudenean. Diziplina anitzeko taldea zen hura eta arlo ugarian egin zituzten ikerketak: hirigintzari, industriari, ekonomiari buruzkoak eta abar. Marco Marchioni gizarte–ikertzai–le italiarrak ikastaro bat eman zuen Donostian eta horrek Euskal Herriko egoera sozialaren eta bere etorkizunaren inguruko kezka piztu zuen. Beste kezka gai batzuen artean hizkuntzarena ere gorpuzten hasi zen. Segituan datu bilketari ekin zitzaion, baina datu horiei tratamendu berezirik eman gabe. 1975ean abiatu zen Siadecok burutuko zuen lehenengo ikerketa: *Euskararen liburu zuria*. Denborarekin ikerketak egiteaz gain, hizkuntza–plangintzaren arloan lehen pausoak ematen hasi zen Siadeco. Geroztik hainbat arlotan izan da aitzindari talde hau, eta bere kide Iñaki Larrañaga hizkuntzaren ikerkuntzan garai bateko funtsezko erreferentia izan zen.

**Soziolinguistika akademikoa:** hizkuntza–egoera edo hizkuntza–errealitate bat ezagutzea du helburu, betiere, ezagutza horrek arlo teoriko, epistemologiko edota

metodologikoan ekarpen bat egingo duelakoan. Beraz, soziolinguistika akademikoak ezagutza elikatu nahi du eta esku-hartzea ez da, teoriaran, bere helburu zuzena. Halere, praktikan, zaila izaten da teoriatik aplikaziora salto ez egitea eta, alderantziz, interbentzio gunetik teoriara ez pasatzea. Ereduen sorkuntza, nozio edota kontzeptu berrien proposamena edo ikerkuntzarako tekniken inguruko berrikuntzak zabaltzea izan daitezke soziolinguistika akademikoaren helburuak.

**Soziolinguistika aplikatua:** soziolinguistika aplikatuak hizkuntza-egoera edo hizkuntza-errealitate batera hurbiltzea du helburu, betiere, hortik sortutako ezagutza, hausnarketa zein ondorioak (hizkuntza gutxiagotuen kasuan, behintzat) berreskurapena edota hainbat joeraren aldaketa bideratzeko erabiliko direlakoan. Helburu hori dute arlo honetan osatutako teoriak eta berari loturiko lan-ildo edota proposamenek. Esate baterako, plangintza bat diseinatzeko eman beharreko pausoak, burutu beharreko lanak eta bete beharreko helburuak soziolinguistika aplikatuaren kezka dira.

Lehenengo urte zail haiek pasata, euskal soziolinguistikaren eremua zabaltzen, osatzen eta aberasten joan zen. 1980ko hamarkadaren hasieran elebitasunaren inguruko ikerketak (teorikoak zein aplikatuak) argitara eman ziren. Horiekin batera eskola eta hezkuntzaren inguruko lanek protagonismoa hartu zuten. Euskararen erabilera (eta ez bakarrik ezagutza) kezka bihurtzen hasi zen eta ardura horren ildotik, Jose Luis Alvarez Enparantza “Txillardegia” bere eredu matematikoa garatzen eta zabaltzen hasi zen. Testuinguru horretan, 1983an *Euskararen Borroka* izenarekin kaleratu zen bigarren azterketa soziolinguistikoko orokorra. Larrañagak aipatu bezala, ikerketa soziolinguistikoko horren inguruan hizkuntzarekiko jarrera eta motibazioei buruzko zenbait ikerketa sortu ziren, euskara ikasten ari ziren pertsona helduen artean bereziki. Lan horien emaitzak hizkuntza minorizatuari buruzko Getxoko kongresuan azaldu ziren, *Hizkuntza minorizatuaren soziologia* izenburua zuen liburuan (1986). Urte haietan jada, soziolinguistika aplikatua bere bidea egiten ari zen, batez ere udaletan burutzen ari ziren ikerketei esker.

Honaino hasiera horren kronika, baina nola garatu da soziolinguistika Euskal Herrian? Zeintzuk izan dira bere kezka eta aztergai nagusiak? Eta, bereziki, zein planteamendu metodologiko eta zein teknika erabili izan dira kezka horiei irtenbide bat eman nahian?

Euskararen egoerak, dudarik gabe, markatu izan du euskal soziolinguistikaren bidea, bere sorre- ra, garapena eta egungo egoera. Baina,aldi berean, soziolinguistika orokorrarekin erlazionatua egon izan du. Hau da, saiakerak egin dira, zailtasunak zailtasun, ikuspegi zabalagoa jorratzeko eta mundu-mailan aztertzen ari ziren gaiak eta erabiltzen ari ziren estrategia metodologikoak ere txertatzeko.

Ondoren, ahalegin horien lorpenak irudikatzeko saiakera egin ziren, soziolinguistikan protagonista diren hiru ikerlerro ezberdinetan egindako lanak nabarmenduz. Kasu honetan, begirada, galderak eta aztergaiak ondorengo hiru lan-ildoei dagozkie: hizkuntzari, hiztunari eta hizkuntza-testuinguruei. Ondorengo orriotan, hiru eremu horietan planteatutako hainbat ikergai eta horiei erantzuna bilatzeko erabilitako tekniketari jarriko da arreta. Horrela, modu labur eta xumean baldin bada ere, soziolinguistikaren eremu orokorrean eta, bereziki, Euskal Herrian gauzatutako hainbat lan aurkeztuko dira, beren ekarpen metodologikoa azpimarratu nahian.

### 6.2.1. Hizkuntza (corpusa)

Jakina denez, soziolinguistika diziplinartekotasunean oinarritutako eremu teoriko nahiz akademikoa da. Horretaz gain, hau da, bertan diziplina ezberdinetako ikertzaileak topatzeaz aparte, hizkuntzaren inguruko ikuspegi eta interes ugari biltzen dira. Horietako asko gainera osagarriak dira. Aurreko kapituluetan kontzeptu eta planteamendu ezberdinen aurkezpena egin denez, momentu honetan horren inguruko eztabaidak alde batera utziko dira, eta arreta soilik metodologian jarriko da. Hori dela eta, hasteko, esan behar da hizkuntza, edo hobeto esanda, corpusa, ikerketarako objektua bihurtzen denean, hurbilpenak oso ugariak izan daitezkeela; dauden interesak bezain bestekoak. Horregatik, ikuspegi metodologikoa lagungarria izan daiteke sakanaketari buelta emateko; izan ere, metodologia eta ikerkuntzarako teknikak elementu bateratzailea izan daitezke.

Arlo honetan sakontzeko, Lesley Milroy eta Matthew Gordonen liburua abiapuntu interesgarria da. Lan horretan soziolinguistikaren arloan erabiltzen diren metodo nagusiak aurkezten baitira. *Sociolinguistics. Method and Interpretation* (2003) soziolinguistika bariasionista delakoaren barruan gehien erabiltzen diren teknikak oso egoki lantzen dira, hausnarketa teorikoak eta praktikoak biltzen dira eta. Horretaz gain, auzi etikoak ere ez dira kanpoan gelditzen. Eta dena adibide ezberdinez oso ondo hornituta. Kanpoan inor utzi gabe, corpusaren gainean aritzen diren guztien interesak biltzen saiatzen dira Milroy eta Gordon.

Hori guztia kontuan hartuta, esan daiteke egileek ikerkuntzarako hiru metodo nagusi azaltzen dituztela: galdetegia, elkarriketa eta behaketa. Ondoren, bakoitzaren inguruko ohar labur batzuk agertuko dira.

#### Galdetegiak

Egileek adierazten dutenez, soziolinguistika bariasionistaren arloan lan egiten duten ikertzaile gehienek hizkuntza modu zuzenean aztertzea dute gustuko, hau da, hiztunek erabiltzen duten hizkuntzaren gainean lan egin nahi dute. Halere, gero eta gehiago dira idatzitako galdetegiak erabilgarritasuna azpimarratzen dutenak. Jakina denez, horrelako galdetegiak askotan erabiltzen dira gizarte-zientzietako arloetan eta, esate baterako, dialektologiaren arloan aritzen direnentzat ere ez da inolaz ere tresna arrotza. Horregatik, soziolinguistikako beste eremuetan ere erabiltzeko aukera egon beharko litzateke. Hori pentsatu dute, behintzat, hainbat ikertzailek eta,

## 6. HIZKUNTZAK AZTERGAI: IKERKETA–METODOETARA OINARRIZKO HURBILPENA

horregatik, beharrezkoak ziren moldaketak egin ondoren, idatzizko galdetegia erabiltzen jarraitu dute. Horien bitartez, besteak beste, morfosintaxia, lexikoa eta fonologiaren inguruko informazioa lortu ahal izan dute.

Galdetegi idatzien alde egiteak baditu abantailak eta desabantailak. Alde batetik, argi dago aukera ematen dutela denbora laburrean informazio asko jasotzeko. Hori gertatzen da, bereziki, galdetegia postaz bidaltzen bada. Baina, bestetik, galdetegia betetzean aurrean inor ez egotea oztopo garrantzitsua izan daiteke. Beste gauzen artean, argi dago ikertzaileak modu zuzenean lortuko lukeen informazioa ez dela lortuko. Azkenean, gainerako teknikekin gertatzen den moduan, gakoa zera litzateke: erabili behar denean erabiltzea; hau da, ikerketa-objektuek, -uneez eta -egoerek horrela eskatzen dutenean.

Galdetegiaren bidezko informazioa lortu ahal izateko beste modu bat da pertsona bat, ikertzaile bat, horretan jardutea. Horixe da tradizionalki erabili izan den bidea, jakinda ere, kasu horretan datu-bilketak luze joko duela. Ikertzaileak berak edo bere laguntzaileetarikoa batek hartuko du inkestuari galdera azaltzeko eta erantzunak jasotzeko ardura. Horrela aukera dago informazio gehiago eta zehatzagoa jasotzeko. Ikertzaileak (edo bere laguntzaileak) inkestua entzun egiten du eta, ondorioz, hitz egiteko modua eta beste alderdi batzuk (ahoskera...) zuzenean jasotzeko aukera ematen du. Kasu batzuetan inkesta betetzeko prozesua grabatu egin izan da, eta horrela fonologiaren inguruko informazioa eskuratu da. Hainbat ikertzailek galdeketa telefonikoaren alde egin dute, kontuan hartuta bide hori merkeagoa eta azkarragoa izan daitekeela.

Galdetegi tradizionala izan gabe, badago beste modu bat informazio-jasoketa bideratu ahal izateko: ikerketa azkarra eta anonimoa deitu izan dena (*rapid eta anonymous survey*). Kasu honetan ikertua dena ez da jabetzen ikertzailearen asmoaz; izan ere, azken ikertzaileak zuzen eta natural planteatzen dio galdera, helburu ezkutu bat duen galdera, alegia. Ikerketa-mota honen adibide ezagunena William Labov-ek New Yorkeko hiru saltoki handitan egindakoa da (geroztik *Fourth floor study* izenez ezagutua izan dena). Labov-ek saltoki bateko langileen *r*-ren ahoskera ikertu zuen. Bere estrategia hauxe zen: enplegatuek jotzen zuen produktu jakin bati buruzko informazioa jasotzeko. Produktu hori saltoki horietako langarren solairuan zegoen eta horrela langileek *r* ahoskatuz behartzen zituen, *Fourth floor* (langarren solairua) erantzun behar zuten eta. Geroztik teknika hau gehiagotan erabili izan da. Kasu guztietan estrategia berdina izan da: galdera erraz formulatzea erantzun zuzena eta natural jasotzeko. Kasu gehienetan emaitzei buruz egindako balorazioa positiboa izan da, baina adituek esaten dutenez, teknika hau ikertzaileak helburua oso argi duenean baino ez da gomendatzen. Bestalde, azpimarratu behar da modu honen bidez jaso daitekeen informazioa nahiko mugatua dela, elkarriketak edo elkarrekin laburrak izaten baitira.

### Elkarriketak

Elkarriketa pertsonala oso teknika erabilia izan da soziolinguistikako edozein eremutan, baita corpusaren inguruan aritu diren ikertzaileen artean ere. Elkarriketak aurrez aurre egin dira, eta tarteka telefonoa erabili izan da. Teknika honen inguruko xehetasunak beste atal batean aurki daitezke, beraz, hemen aspektu gutxi batzuk baino ez dira nabarmendu nahi.



Alde batetik, gogoratu behar da elkarrizketak inkestak baino irekiagoak izaten direla; izan ere, ikertzaileak galdetegia erabili beharrean gidoia du lan-tresna, eta hau modu askeagoan erabiltzen da, betiere ikertuaren profilaren, jarreraren edota jokaeraren arabera. Elkarrizketaren kasuan, egoerak agintzen du eta elkarrizketaren norabideak ere baldintzatu egiten ditu galderak eta galdetzeko moduak. Dena dela, horrek ez du esan nahi elkarrizketa behar bezala presatu behar ez denik; kontrakoa, oso gomendagarria da elkarrizketa bakoitzean landu beharreko gaiak eta azpigiak alde aurretik lantzea eta zehaztea. Halere, komeni da azpimarratzea elkarrizketa batean helburua ez dela hainbeste erantzun laburrak eta zehatzak jasotzea, ikertuaren elkarrizketaren zatiak (laginak) jasotzea baizik. Hori guztia, gainera, ahalik eta modu naturalean eta erlaxatuenean gauzatu behar da, elkarrizketatuak bere ohiko hizkuntza-jokabidea (edota hizkera) aldatu ez dezan.

Elkarrizketaren iraupena dezente alda daiteke, besteak beste, ikerketaren helburuen arabera. Ziur aski, fonologiaren inguruko informazioa 20 edo 30 minutuko elkarrizketan lortu daiteke, baina helburua hizkera aztertzea baldin bada, seguruenik denbora gehiago beharko da.

Gainera, kontuan hartu behar da elkarrizketa baliagarria izan daitekeela, interesatzen den informazio zehatzaz gain, material osagarria ere lortzeko, hau da, elkarrizketa erabiltzea inkesta batetik ateratako informazioa osatzeko.

## Behaketa

Desabantaila guztien gainetik, behaketa teknikak aldeko gauza garrantzitsu bat du: oso hurbilpen sakona eta mamitsua ahalbidetzen du, bai ikergaiari bai ikertuei dagokienez. Hori bai, ares-tian esan denez, behaketa aurrera eramateko ahalegin handia egin behar da denbora eta inplikazioaren aldetik. Ikertzaileak ikertu nahi duen errealitate horretan txertatu behar du bere burua, eta bertan murgildu behar du denbora luzean. Prozesu horretan, informazioa emango dutenekin harreman egokiak lortzea ezinbestekoa izaten da. Horretarako, ikertzaileak jarrera irekia mantendu behar du eta prest agertu behar du edozeinekin hitz egiteko, egoteko.

Aurretik aipatu denez, behaketa diziplina zehatz bati egon da lotuta tradizionaliki, antropologia-ri, hain zuzen. Baina, gaur egun, bere erabilera beste eremu batzuetara zabaldu da, besteak beste soziolinguistikara. Behaketa zuzena erabiltzen duten ikertzaileen artean, Penelope Eckert-en lana da bereziki azpimarragarria. Estatu Batuetako ikastetxeetan egonaldi luzeak egina da. Beste ikertzaile batzuekin gertatzen den bezala, bere lanak ez daude behaketa hutsetan oinarrituta bakarrik, baina teknika honek protagonismo handia izan du bere ibilbidean.

Edozein kasutan, behaketa oso teknika aproposa da beste bide batzuetatik lortutako informazioa osatzeari begira.

Corpusaren gainean aritzen direnek dakiten bezala, aipatutako hiru teknika horietaz gain, badira metodoari buruzko beste aspektu garrantzitsu batzuk ere kontuan hartu beharrekoak, besteak beste, egun aurrerapen teknikoek eskaintzen dituztenak. Ikuspuntu horretatik, Milroy-k eta Gordonek azterketa espektografikoa (*spectographic analysis*) nabarmentzen dute (soinuen emisioak modu grafikoan agertzea ahalbideratzen dituzten programak dira), soziolinguistikan eta

bereziki dialektologian aurrerapen esanguratsuak ekarri dituelako. Alde horretatik, besteak beste, entzumenezko azterketak nabarmen hobetu direla ondoriozta daiteke.

Euskal Herrian aipatzekoak dira, besteak beste, Gotzon Aurrekoetxeak egindako lanak, bertan aipatutako aurrerapen teknikoak agerian gelditzen baitira. Euskal dialektologiaz ari dela, Aurrekoetxeak ikerketa- eta sailkatze-prozeduretan bi joera nagusitu direla azpimarratzen du (Aurrekoetxea, 2004: 287): ohiko dialektologiaren tresnak eta metodoak erabiliz egiten diren ikerketak, eta 30 urtetik hona garatu diren metodologia berriak aplikatuz gauzatzen direnak. Hitz horien segidan egileak azken joera horren adibide interesgarria ematen du Iparraldeko hizkeren sailkapena egiterakoan jarraitutako prozedura eta erabilitako aurrerapen teknikoak aipatuz. Horien artean testu-hitzen zerrendak lortzeko erabilitako programa (*Simple Concordance Program*), datu-baseak, *ad hoc* diseinatutako programak (lematizazio ortografiko eta onomasio-logikoa egiteko, adibidez) eta kartografia-lanari aurre egiteko teknologia berritzailea (Hans Goebel-ek Salzburgoko Unibertsitatean garatutako VDM -Visual Dialectometry- programa, adibidez). Egileak azken programa honen abantailak nabarmentzen ditu bereziki, bertan datu-baseak, baliabide estatistikoak eta mapak barnebiltzen dira eta.

### 6.2.2. Hitztuna

Logikoa denez, corpusak ez ezik, hizkuntzaren erabiltzaileak (alegia, hiztunak) ere berebiziko protagonismoa du soziolinguistika-ikerlanetan. Baina hitzuna oso objektu konplexua da, dimentsio anitzez betea, eta beraz aztertzeo hamaika modu topa daitezke. Ez dago bide bakar bat bere errealitatera hurbiltzeko. Modu berean, ezin da esan bide bat beste batzuk baino hobea denik. Bata edo bestea aukeratzea ikerketaren helburuen baitan dago, eta, nola ez, ikertzailearen usteetan eta ikerketaren egoeraren baitan. Dena dela, metodologiari dagokionez, badira joera nagusi batzuk eta horiei erreparatuko zaie datozen pasartean.

Joera nagusi horiek bi arlotan banatuko dira: alde batetik, hitzuna ikuspegi orokor eta zabal batetik aztertzea planteatzen dutenak daude; bestetik, hitzuna arloka edota eremuka azaltzea proposatzen dutenak, hau da, hiztunaren ezaugarri jakinei begiratzen diotenak. Ondoren, bi joera horiek eta euren inplikazio metodologikoak aipatuko dira, labur bada ere.

### Ikuspegi orokorra eta zabala

Hiztunaren profila eta ezaugarri nagusiak definitzeko orduan, erroldak, zentsuak eta ikuspegi makroa duten inkestetan oinarritutako ikerketak izan dira orain arte iturri erabilienak. Bereziki Euskal Herrian, baina, aurrerago azalduko denez, baita beste toki batzuetan ere.

Jakina denez, errolda eta zentsuak ez daude bereziki diseinatuta eta pentsatuta hizkuntzaren inguruko datuak biltzeko, baina horretarako ere erabiltzen dira. Euskal Autonomia Erkidegoan 1981eko zentsuan hasi ziren, beste galdera orokor eta deskribatzaile batzuen artean, hizkuntzaren gaineko galderak txertatzen. Hortik aurrera, bai zentsuetan eta bai erroldetan horrelako itaunak agertu izan dira. Nafarroaren kasuan, horrelako galderak 1986ko erroldak jaso

zituen lehenengo aldiz, eta Ipar Euskal Herrian 1999an bildu zituen estreinakoz estatistika ofizialak hizkuntzari buruzko datuak.



**Errolda:** udalerri bateko bizilagunen erregistro administratiboa. Udal bakoitzak du bere sorrera, eguneratze eta mantentze-lanen ardura. 1996. urtea arte, Espainiako udalek 5 urtean behin berritu behar zuten errolda. Geroztik, bere kudeaketa modu informatikoan egiten da eta urtarilaren 1a izaten da berritze-data ofiziala. Erroldak udalerri bateko egitura soziala eta oinarrizko ezaugarri demografikoak ezagutzea ahalbidertzen du.

**Zentsua:** zentsuak une jakin batean talde batek edota herrialde batek duen biztanle-kopurua ezagutzea bilatzen du. Horretarako teknika ezberdinak erabiltzen dira. Ikerketaren helburua populazio guztia da, ez lagin bat. Zentsuaren funtsezko helburua biztanleriaren kopuru zehatza ezagutzea bada ere, gehienetan bestelako datuak lortzeko ere erabiltzen da (demografikoak, ekonomikoak, sozialak, hizkuntzari loturikoak eta abar). Hori dela eta, zentsuak gobernuen politika ezberdinen diseinurako tresna garrantzitsu bilakatu dira.

Geroztik hizkuntzari buruzko galderak egitea sistematizatu egin da, nahiz eta zentsu eta errolden planteamendua eta haien bitartez egindako neurketen emaitzak eztabaidagarriak izan askorentzat. Zergatik? Batzuetan, guztiek iturri berdina (ofiziala) izanda ere, ez dituztelako beti galdera berdinak errepikatzen, eta gainera, bilatutako datuak ezberdinak dira jasoketa batetik bestera. Horren ondorioz, urte edo saio ezberdinetan jasotako datuak konparagaitz bihurtzen dira. Era berean, informazio-bilketa batetik bestera egon daitekeen datuen dantzak zail egiten du benetako kopuruak zeintzuk diren jakitea.

Beste batzuetan, datuak ulergarriagoak egiteko, kategoria edo label batzuen azpian aurkezten dira. Esate baterako, euskararen ezagutza-mailak bereizteko, hainbat hiztun-talde finkatzen dira. EAEko kasuan, joera izan da hiztunak hiru multzo ezberdinetan sailkatzekoa: euskaldunak, ia euskaldunak eta erdaldunak. Baina zeintzuk daude label horien atzean? Zer nolako hiztunak dira? Zalantzarik gabe, kategoriek euren mugak dituzte eta, hainbat ikertzailearen iritziz, horietako bat konplexutasuna adierazteko ezintasuna da.


Zentsu eta erroldekin batera, badira beste modu batzuk hiztunaren gaineko ikuspegi orokorra lantzeko. Zeregin horretan, galdetegia da gehien erabiltzen den teknika. Eskala handian nahiz txikian, galdetegia modu aproposa izan daiteke oinarrizko datuak lortzeko eta hiztuna eta hizkuntzaren arteko harremanei buruzko argazkia osatzeko. Galdetegia bideratzeko moduak ugariak dira: telefono bidez, aurrez aurre...



Munduko hizkuntzei buruzko txostenak (UNESCOK sustatuta eta Eusko Jaurlaritzak diruz lagundutako ikerketa zabalak) galdetegia zuen oinarrian. Galdeketa horrek 40 itaun zituen eta posta arruntaz eta, ahal izan zenean, posta elektronikoz bidali zen. Andoni Barreña, Itziar Idiazabal, Patxi Juaristi eta Belen Urangak bere garaian azaldu zutenaren arabera (Barreña eta beste, 2003), hizkuntza deitzeko erak (hiztunena zein auzokoena), hizkuntza-erabilera, hizkuntzaz hitzunek dituzten jarrerak eta, oro har, hizkuntzak gizartean eta hitzunenengan duen tokiaz galdetzen zen. Ikertzaile horiek aitortzen dutenez, mundu-mailako galdeketa zen neurrian, prozesua zailtasunez beteta egon zen, baina ezin da ukatu datuak aberatsak gertatu zirela, hizkuntza-egoera ezberdinen inguruko informazioa lortzeko balio izan zuen heinean. Ziur aski, neurri horretako ikerketa egiteko, ezin zen galdeketa baino teknika aproposagorik imajinatu.

Badira, noski, beste adibide batzuk, non inkesta ikerketa zabalak oinarri gisa agertu den. EUROMOSAICen kasuan, proiektuak bultzatu nahi duen informazio-bilketaren oinarrian galdeketa kokatzen da. Egitasmo horrek Europako tokiko hizkuntzak eta hizkuntza gutxituen egoera ezagutzeko du helburu, eta horretarako, azken urteetan hainbat txosten osatu dira.

Arreta Euskal Herrian jartzen baldin bada, oinarrizko ikerkuntzarako teknika inkesta izan duten azterketa ugari eta ezberdinak topa daitezke. Atzera eginez, 1989an, Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Idazkaritza Nagusiak (Kultura Saileko Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza, gaur egun) *Soziolinguistikazko mapa. 1986ko erroldaren arabera Euskal Autonomia Elkartearen azterketa demolinguistikoa* izeneko azterlana argitaratu zuen (Eusko Jaurlaritza, 1989). Lan horretan oinarrituta, 1991n *Euskal Herriko I. soziolinguistikako inkesta* egin zen eta 1996an *II. soziolinguistikako inkesta*. Ikerketa biotako emaitzak *Euskararen jarraipena I* (Eusko Jaurlaritza; Nafarroako Gobernua, 1995) eta *Euskararen Jarraipena II* (Eusko Jaurlaritza; Nafarroako Gobernua; EKE, 1997), izenburupean argitaratu ziren, hurrenez hurren. Urte batzuk geroago, 2003an, hain zuzen ere, *Euskararen jarraipena III* argitaratu zen (Eusko Jaurlaritza, 2003).



**25. irudia:** inkesta teknika erabili duten erakunde publikoen argitalpen batzuen azalak: *Soziolinguistikazko mapa* (I eta II) eta *Euskararen jarraipena* (I, II eta III).

Denbora tarte horretan beste ikerketa batzuk egin ziren, *Bigarren soziolinguistikazko mapa* (1981, 1986 eta 1991ko zentsu eta erroldetan oinarriturik), esaterako.

Lan horien sustatzaileen ustez, *Euskal Herriko inkesta soziolinguistikoa* da, oraingoz, euskararen ezagutza, erabilera eta hizkuntzarekiko jarrerak neurtzeko, euskararen eremu osoan egiten den eragiketa soziolinguistikoko bakanetakoa. Horretan datza, besteak beste, bere garrantzia. Inkesta horren azkeneko edizioaren emaitzak 2008an eman ziren ezagutzera (Eusko Jaurlaritza, 2008) *IV. inkesta soziolinguistikoa. 2006: Euskal Autonomia Erkidegoa, Iparralde, Nafarroa, Euskal Herria* izenburupean.

Bost urtez behin egiten den inkesta horrek euskararen egoeraren erretratu orokorra ematen du: aldagai soziodemografikoak, hiltunen hizkuntza-gaitasuna, hizkuntzaren erabilera hainbat eremutan (familian, lan-munduan, bizitza publikoan...), eta hizkuntzari buruz diren jarrerak.

*Soziolinguistikako inkestak*, beraz, Euskal Herriaren gaur egungo egoera soziolinguistikoaren azterketa sakona egitea du helburu, ondoko gaiei buruz dagoen informazioa egiaztatzeko:

- Hizkuntza-gaitasunaren bilakaera.
- Euskararen erabilera etxean, familiarik kanpoko gertuko komunitatean, lanean eta eremurik formalenetan.
- Euskararen erabilera sustatzeko hartu beharreko neurriei buruz biztanleen interes eta jarrerak.
- Familia bidezko transmisioari buruzko errealitatea.
- Euskaldun berrien analisia. Hizkuntza-jokabidea.

Maila sinkronikoko informazioa emateaz gain (hau da, momentuko edota unean uneko datuak eskaintzeaz gain), maila diakronikoan, alegia, ikuspegi historiko batetik, azken urteotako hizkuntza-bilakaera ezagutu daiteke, inkesta ezberdinetako datuak alderatuz.

Administrazioaren ikuspegitik, ikerlan hauek oinarri-oinarrizko informazioa ematen dute; hortaz, Euskal Herriko hizkuntza-politikaren eta bilakaera soziolinguistikoaren adierazle-sistema antolatzeke orduan, ezinbesteko datuak dira.

Aipatutakoaz gain, badira beste ikerketa batzuk, orokorrak izan arren, esparru mugatuagoa landu dutenak. *Etorikizuna aurreikusten 99* (Martinez de Luna eta beste, 2000) proiektua adibide horietako bat izan daiteke. Izan ere, kasu horretan Hegoaldeko eta Iparraldeko hiztun nerabeak (13-14 urtekoak) bakarrik izan ziren aztergai. Edonola ere, galdetegiaren bitartez jasotako informazioa, talde horren hizkuntza-ezaugarriak deskribatzeko oso baliagarria izan zen. Galdetegia, gainera, beste teknika kualitatibo batzuekin osatu zen.

Galdetegia, berriz, ikerketa-tresna garrantzitsua bilakatu da maila txikiagoetan ere, hau da, hiri-edo herri-mailan. Adibide moduan, 1999an Baztan, Bortziriak eta Malerreka eremuan egindako ikerketa aipatu daiteke (*Euskararen unibertsoa Baztan, Malerreka eta Bortzirietan*). Ikerketak bi zati izan zituen: bata kuantitatiboa, inkesta soziologikoen bidez egina (eskolatutako 12 eta 16 urte bitarteko gaztetxo guztiei -838ri- eta 17 urtetik gorako 1.200 herritarri egin zitzaizen); eta

## 6. HIZKUNTZAK AZTERGAI: IKERKETA–METODOETARA OINARRIZKO HURBILPENA

bestea kualitatiboa. Ikerlanaren egilea Taller de Sociología izan zen eta hiru eskualde horietako euskara-zerbitzuen enkarguz eta Nafarroako Gobernuko UHZPNaren laguntzarekin burutu zen (Taller de Sociología, 1999).

Arestian aipatutako kasuetan bezala, Baztan, Bortziriak eta Malerrekan egindako azterlan horrek hizkuntzaren egoera du kezka nagusi eta, era berean, hartzunen inguruko oinarritzko argazkia ateratzea du helburu. Bertan ezagutza, erabilera nahiz motibazioaren inguruko zenbait aipamen egiten dira, eta modu horretan hainbat diagnostiko osatu dira, herri-, hiri-, eskualde- edota herrialde-mailan.

Baina, zer gertatu da azterketaren jomuga hiztunari dagokion eremu zehatz bat izan denean?

Batzuetan, ikerketa edo diagnostiko orokor bat egin ondoren, hiztunaren errealitatearen zati zehatz baten inguruan sortu dira galderak. Horiei erantzuteko, berriz ere, inkesta teknika egokia izan daiteke, baina horretaz gain, ikerketa-eremua mugatuagoa den heinean, beste aukera batzuk sortzen dira landu beharreko helburuei begira.

Bista Euskal Herriko egoeran eta errealitatean jarrita, esan daiteke gehienetan hiztunaren inguruan garatutako arlokako azterlanak hiru eremutan zentratu direla nagusiki: ezagutza eta jabe-kuntza, erabilera eta jarrera edota motibazioa.

Jarraian ikerketa-eremu horietako bakoitzean gauzatutako esperientzia gutxi batzuk aurkeztuko dira.

## Hiztunaren gaineko ikuspegi mugatua edo zehatza

### 1. Hizkuntza-ezagutza edota -jabe-kuntza

Euskal Herriko kasuan, bederen, eremu honen muinean elebitasuna kokatzen da. Izan ere, gaur egun EAEn, Nafarroan eta Iparraldeko hainbat tokitan gutxienez bi kultura eta bi hizkuntza bizi dira elkarrekin. Errealitate horren aurrean hizkuntza ezberdinen ezagutza, eta bereziki hizkuntza ezberdinen jabetze-prozesuak, azterlan askoren helburu bihurtu dira. Horri aurre egiteko hainbat ikerketa egin dira, besteak beste, testuinguru elebidunetan sortu ohi diren aurreiritziak eta usteak frogatu edota deuseztatu ahal izateko. Ikerlan horiek burutzeko aukeratutako estrategiak eta teknikak ugariak izan dira. Baina zeren arabera hautatu dira batzuk edo besteak? Gehienetan ikertzailearen diziplinak edo lan-eremuak agindu izan du.

Batzuetan **elebitasuna neurtzeko testak** hautatu izan dira ikerketarako tresna gisa. Esate baterako, behin baino gehiagotan erabili izan den formula hauxe izan da: hiztun-multzo bati hainbat hitz proposatzen zaizkio hortik aurrera hiztunek burura datorkiena edo bururatzen zaiena estimulatzen. Ondoren, denbora jakin batean familia semantiko jakin bati lotuta bururatzen zaizkien ahalik eta hitz gehien idatzi behar dituzte (hizkuntza ezberdinetan). Elebitasun indizeak (EI) hizkuntza batetik edo bestearekiko oreka/desoreka adierazten du. Indizea kalkulatzeko oinarri matematikoa duen formula bat aplikatzen da. Hortik eskala moduko bat sortzen da eta elebitasun-mailen arabera hiztunak sailkatzen dira.

Gernika-Lumon egindako diagnostiko batean (Ainhoa Etxebarria, 2002), beste teknika batzuen artean, elebitasunari buruzko testa erabili zen. Proba esperimental horretan 197 gaztek eta 63 helduk hartu zuten parte. Gazteei 6 gai proposatu zitzaizkien: ikasgela, maitasuna edo sexua, txoriak, sukaldea, irainak eta familia. Gai bakoitza jorrazteko lau minutu zituzten (bi euskarazko hitzak idazteko eta beste bi gaztelaniazkoak idazteko). Helduek hiru gai jorratu behar izan zituzten: familiartekoak, banku- eta diru-kontuak eta txori edo hegaztiak. Horiek ere, gaztetxoek bezala, lau minutuko epea izan zuten betebeharrekoak burutzeko. Datu guztiak bildu eta kodifikatu zituzten, indizeak ateratzeko asmoz. Hortik aurrera proposatutako gaiaren arabera aztertu ziren datuak, kasu bakoitzean elebidun orekatuak, erdal elebidunak eta euskal elebidunen araberrako ehunekoei erreparatuz.

Baina, esan den moduan, badira beste teknika batzuk hizkuntza-egagutzaren edota jabekuntza-eremuan aritzeko. Hona ekarri den beste bat *ipuin kontaketa*rena da. Kasu horretan eskola izaten da ikerketarako aukeratutako eremua. Testuinguru horretan umeei ipuin edo narrazio bat kontatzeko eskatzen zaie (aldeztatik aurretik beraiek maisu-maistrari entzundakoa) eta ikertzaileak narrazio horietako hainbat elementu zehatz (berari interesatzen zaizkion horiek) aztertuko ditu modu sakonean ikasleek egoera komunikatibo ezberdinetan egindako kontaketa-jarduere-tan ekoiztutako testuak konparatzen ditu eta.

Leire Beloki, Itziar Idiazabal eta Ibon Manterolak (2005) estrategia horri jarraituz egindako esperimentu baten berri eman zuten *BAT Soziolinguistika aldizkarian*. Egileek M. Brigaudiot-en azterketak hartu zituzten kontuan eta beraiek azaldutakoaren arabera, ikerketa bi haur-talderekin egin zen. Umeak 5 urte ingurukoak ziren. Talde baten kasuan, euskara etxeko hizkuntza izateaz gain, euskaraz zeuden eskolatuta eta ingurune soziolinguistiko euskaldunean bizi ziren (Zumaian). Beste taldeko umeei, aldiz, etxeko hizkuntza gaztelania zuten eta beren testuinguruan gaztelania gailentzen zen (Lizarra). Dena dela, bigarren talde horretako haurrak euskaraz eskolatuta zeuden 2 urtez geroztik, D eremuan.

Egileek esperimentu horren ondorioak arlo ezberdinetan kokatu zituzten, bai metodologiari dagokionez, bai hizkuntzen irakaskuntzari dagokionez. Hona hemen euren hitzetan egindako balorazio orokorra (Beloki eta beste, 2005): *Edonola ere, iruditzen zaigu mota honetako ikerketek ikasleen hizkuntza-ahalmenak hobeto ezagutzeko aukera ematen digutela, eta hala, ikasle hauen hizkuntza-erabilerarako funtsezkoa den hizkuntzen didaktikak aurrera egin dezan baliagarri direla.*

Atal honi amaiera emateko, hiztunen ezagutza aztertzei egindako ikerketa konplexuak nabarmendu nahi dira. Baina, ikerketa konplexuak aipatzen direnean, zer esan nahi da? Printzipioz ikerketa-eremu (ezagutza edota jabekuntza) hau aztertu ahal izateko, askotan teknika anitzeko ikerketak erabiltzen direla. Hau da, ikertzaileak teknika ezberdinak erabiltzen ditu behar duen informazioa eta datuak jaso ahal izateko. Hori ilustratzeko bi adibide azalduko dira.

Lehenengoa Janire Luque eta Maria-Jose Azurmendik aurkeztutakoa da (Azurmendi; Luque, 2006). Egileen hitzetan ikerketa horren helburua hauxe litzateke: *Ikerketa honetan egiaztatu nahi dugu D ereduak euskararen eta ikasgaien edukien gaitasun-maila egokiak bideratzen eta lortzen dituela; bai euskaldunentzat, baita erdaldunentzat ere. Horrez gain, gaztelaniaren gaitasun-maila ere ona litzatekeela.*

## 6. HIZKUNTZAK AZTERGAI: IKERKETA–METODOETARA OINARRIZKO HURBILPENA

Hori frogatu nahian, aukeratutako laginari jarraipen psikosozilogiko luzea egin zitzaion, 2-3 urteko geletatik hasi (Haur Hezkuntza) eta 6. mailara arte (Lehen Hezkuntzaren amaiera). Prozesuan zehar informazio zabala eta anitza jaso zen teknika nahiz estrategia ezberdinak erabiliz: galdesortak, hizkuntza-probak (hiztegiari buruzkoak barne), euskara eta gaztelania-maila hizkuntza-trebetasun ezberdinetan (testu idatzien ulermena, zuzentasun gramatikala, ahozko testuen ulermena edota testu idatzien ekoizpena) eta ingeles-maila neurtzeko. Hortik aurrera lortutako emaitzak konparatu ziren aldagai ezberdinen arteko harremanak irudikatu nahian.

Bigarren adibidea Nekane Balluerka eta Arantxa Gorostiagak aurkeztutakoa da (Balluerka; Gorostiaga, 2005). Egileek horrela kokatu zuten euren ikerketa: *Lan hau lehen hizkuntzatzat euskara eta bigarren hizkuntzatzat gaztelania izan duten Euskal Autonomia Erkidegoko irakaskuntza ertaineko eta unibertsitateko ikasle elebidunengan kokatu zen. Ikasle hauek testuinguru akademikoan egunero erabiltzen dituzten testuak ulertu, ikasi eta idatziz adierazteko duten gaitasunean erabakigarriak izan daitezkeen bi faktoreren eragina aztertu zuten: euskararen eta gaztelaniaren erabilerearena eta bi hizkuntzen jabetze historiarena.*

Helburuak aurrera eraman ahal izateko ondoren aipatzen diren teknikak erabili zituzten egileek: euskararen erabilerari buruzko galdesorta, euskararen jabetze-historiari buruzko galdesorta, hitzen ekoizpen-proba (euskaraz eta gaztelaniaz subjektuek ahalik eta hitz gehien idatz ditzaizen eskatzen duen proba), testu zientifikoa (irakurketa eta ulermena), galdera aplikatuen proba (testuan ikasitakoa beste egoera batean aplikatzea eskatzen zitzaizen), berrezagutze-proba (testu zientifikoaren oroimena ebaluatzeko 24 esaldiz osatutako proba. Kasu honetan esaldiak egiazkoak ala faltsuak ziren erabaki behar zuten subjektuek) eta testu-ekoizpenerako probak (gaiak alde aurretik jarrita, horien inguruko testua osatu behar zuten).

Lagina 104 pertsonakoa izan zen, unibertsitatean eta irakaskuntza ertainean euskaraz ikasten ari ziren subjektuak, hain zuzen. Horietatik, 81 emakumezkoak eta 23 gizonezkoak ziren eta euren batez besteko adina 17 urtekoa zen ikerketaren hasieran. Parte hartu zuten guztiak lehen hizkuntza euskara zuten eta bigarren hizkuntza gaztelania. Gaiari lotutako ondorioez gain, metodologiari buruzko azken hausnarketa bat ere egin zuten egileek. Horren inguruan, Balluerka eta Gorostiaga ikerketan lortutako emaitzak subjektu gehiago erabiliz errepikatzearen alde agertu ziren, bereziki unibertsitateko ikasle gehiagorekin.

Honaino hizkuntzaren ezagutza- eta jabetze-prozesuaren inguruan burututako hainbat ikerketaren erreposoa. Argi dago atal honen helburua ez dela izan, inolaz ere, sistematikoa izatea. Aitzitik, gai horren gainean erabilitako teknika gutxi batzuk erakustea bilatzen zen. Aipatutako ikerketek lagin moduko bat osatu dute, eta bertan ezagutza ikertzeko asmatutako eta garatutako estrategia batzuk mahaigaineratu dira. Horrek berriro uzten du agerian ez dagoela gaiak aztertzeko modu bakarra. Modu asko daude, betiere ikertzaileen formazio eta helburuen arabera eta, noski, aukera, egoera eta testuinguruaren arabera.

### 2. Erabilera

Hizkuntzaren erabilera aztertzeko ere modu eta bide asko egon daitezke. Euskarari dagokionez, ugariak izan dira erabilitako teknikak eta estrategiak erabilpenari loturiko faktoreak zein-




tzuk diren ezagutu ahal izateko. Batzuetan erabilera helburu nagusia (eta bakarra) izan da; beste batzuetan, aldiz, ezagutza edota motibazioarekin batera aztertu da.

lido beretik esan behar da batzuetan erabileraren inguruko kezka ikerketa kuantitatiboak bul-tzatu dituela, besteak beste psikologiatik jarrera eta portaeraren arteko loturak aztertu nahi izan dituztenak. Kasu hauetan abiapuntua zera da: sumatzen da euskararen ezagutza eta euskararen aldeko jarrera ez direla nahikoak erabilera bermatzeko. Beraz, bestelako aldagai batzuk hartu beharko lirateke kontuan euskararen erabilera azaltzeko. Iñaki Garciaren ustez (Garcia, 2004), bi aldagai-mota nabarmentzen dira bereziki: testuingurua definitzen dutenak (bereziki euskaldunen presentzia) eta norbanako-mailan subjektuaren portaera gidatzen dutenak (eza-gutza, jarrera eta bi aldagai hauen artean zubi-lana egingo lukeen identitatea). Garciak, eredu hau frogatzeko asmoz, ikerketa interesgarria egin zuen hainbat ikasle unibertsitariorekin (703). Galdetegia teknika erabili zen, nahiz eta gero horren emaitzak eredu berezi baten bitartez aztertuak izan ziren (LISREL -*lineal structural relations* izeneko eredu eta izen bereko doikuntza-teknika). Garciak azaltzen duenaren arabera, eredu honek teoria eta datuak kontrastatzea ahalbidetzen du, abiapuntuan dagoen eredu teorikoa baieztatzeko edo errefusatzeko asmoz.

Datu-bilketa egiteko bi zatitan banaturiko galdesorta erabili zen. Galdesortaren lehenengo zatian datu soziolinguistikoak (testuingurukoak) eskatzen ziren. Bigarren zatian, berriz, norbanako-mailan ondorengo aldagaien inguruko informazioa eskatzen zen: euskararen erabilera eta ezagutza, euskararekiko jarrerak, identitatea...

Ondoren azalduko den azterketak ere oinarri kuantitatiboa du. Protagonistak Donostiako Santo Tomas Lizeoko eta Gasteizko Olabide ikastolako ikasle ohiak izan ziren, eta azterlanaren helburua bi gune soziolinguistiko desberdinetan euskararen erabilera eta familia bidezko transmisioa azaltzea izan zen. Aukeratutako bi ikastetxeen ingurunea nahiko desberdina da eta aspektu horren eragina neurtzea ikertu beharreko beste elementu bat litzateke.



**26. irudia:** Santo Tomas Lizeoko eta Olabide ikastolako ikasle ohiekin egindako ikerketen azala (Eusko Jaurlaritzak, 2005).

Azterketa abiatuta, Olabide ikastolako 26-41 urte bitarteko 855 ikasle ohi eta Santo Tomas lizeoko 31-47 urte bitarteko 1.750 ikasle ohi izan ziren elkarrizketatuak. Ikerketa honetan erabilitako teknika galdetegi telefonikoa izan zen.

Euskararen erabilerari dagokionez, azterketa honek zera erakutsi zuen: erabileran gehien eragiten duten faktoreak bi direla, alde batetik, gaitasun erlatiboa, eta, bestetik, harreman-sareko hiltunen dentsitatea. Aipatutako faktoreak oso ezberdinak izan ziren Olabideko ikasle ohiak eta Santo Tomas Lizeoko artean, eta, horren ondorioz, erabilerari buruzko emaitzak ere

## 6. HIZKUNTZAK AZTERGAI: IKERKETA-METODOETARA OINARRIZKO HURBILPENEA

oso ezberdinak izan ziren batean eta bestean. Ondorioen artean adierazgarria da Jon Aizpuruak aurkeztutako datua (Aizpurua, 2006): *Olabideko ikasle ohien erdiek baino gehiagok ez dute euskara ia inoiz erabiltzen (% 32k gaztelaniaz baino gutxiago lau eremutan -etxea, lagunak, lankideak, eta erabilera-eremu formalagoak- eta % 22k inoiz ez). Lizeokoen artean, berriz, % 7 baino ez dira euskara gaztelania baino gutxiago erabiltzen dutenak.*

Argi dago noiz, norekin, non eta zergatik erabiltzen den hizkuntza bat edo bestea ohiko kezka direla soziolinguistikaren edozein eremutan. Ikusi denez, horri aurre egiteko, metodo kuantitatiboak nagusitu dira, baina badira beste era bateko ikerlanak burutu dituztenak ere.

Horren adibidea Iñaki Martínez de Luna eta Nekane Jausorok Donostiako gazteen inguruan egindako ikerlana izan daiteke, bertan metodologia kualitatiboa erabili zuten eta. Kasu honetan eta, egileek azaldu zuten (Martínez de Luna; Jausoro, 1998) erabilera ez zen izan helburu bakarra, baina helburu zehatzen artean euskararen erabilera eta gizarte-egoerak aztertzea aurreikusten zen. Hauek dira, beraien hitzetan, ikerlanean jorratu beharreko puntuak: *Ikerketa honetako helburu orokorra Donostiako gazteek euskararekiko dituzten jarrerak eta irudiak eta motibazioak aztertzea da. (...) Helburu zabal honen barruan beste hainbat helburu zehatzago bereziko ditugu, besteak beste ondorengo hauek: gazte hauen euskararen irudia, euskararekiko jarrerak eta motibazioak, gaztelania eta euskararen arteko harremanak, euskararen erabilera eta gizarte-egoerak, eta bi hizkuntzek dituzten gizarte-funtzioak.*

Informazio hori guztia biltzeko metodologia kualitatiboa erabili zen, Martínez de Luna eta Jausororen iritziz, *diskurtsoen munduan, hots, espazio sinbolikoan sakontzeko egokiena delako*. Metodologia honetan dauden teknika ezberdinetatik eztabaida-taldea aukeratu zen. 16-19 urteko gazteak izan ziren eztabaida-taldeetako partaideak. Taldeak institutuko eta lanbide heziketarako ikasleek osatu zituzten; gainera unibertsitateko ikasle batzuk ere kontuan hartu ziren. Ikasle gehienak A eta D ereduan ibilitakoak ziren, baina bazeuden B ereduan ikasitako gutxi batzuk ere. Adina eta hezkuntza egoeraz gain, taldeen profilak osatzeko ondorengo aldagaiak hartu ziren kontuan: familiako hizkuntza-giroa (guraso euskaldunak ala erdaldunak izatea) eta zein auzotan bizi ziren (auzo euskaldunagoa ala erdaldunagoa). Gazte unibertsitarioen artean, kontuan hartu zuten zientzietan ala letretan ikasten ari ziren.

Aintzakotzat hartutako ardatz eta aldagaien arabera, 7 eztabaida-talde, hiruko talde bat eta banakako bi elkarrizketa sakon egin ziren.

Azkeneko adibide bat jarri nahi da, non ikerlana erabilera baino erabileran izandako aldaketak izan ziren aztergai. Kasu honetan aplikatutako metodologia kualitatiboa izan zen, azterketa gauzatzeko elkarrizketa sakonak egin baitziren, 27 elkarrizketa, hain zuzen ere (EAEko herri ezberdinetan). Egileak Pello Jauregi eta **Soziolinguistika Klusterra** izan ziren eta helburua bikoteen artean hizkuntza-ohituren aldaketa aztertzea izan zen (hau da, bikoteak erdaraz aritzetik euskaraz aritzera pasa zirenak). Lortutako emaitzaz eta ondorioaz aparte, bereziki azpimarratu nahi da egindako apustu metodologikoa, izan ere orain arte oso gutxi izan dira erabileraren inguruan sortutako gorabeherak edota aldaketak protagonisten diskurtsoetatik, bizipenetatik aztertu dituztenak.



SOZIOLINGUISTIKA  
KLUSTERRA

**Soziolinguistika Klusterra:** soziolinguistika-eremuko eragileen klusterra da. 2004an sortu zen, ezagutza soziolinguistikoaren ikerketan, zabalpenean eta aplikazioan dauden gabeziei eta beharrei dinamika berri batekin erantzuteko. Euskal Herrian hizkuntza-normalizazioaren prozesuan inplikaturik dauden erakunde eta taldeentzat (pribatu, publiko zein gizarte-mailakoak) datuak, metodologiak eta bestelako materialak eskaintzeko egitasmoak lantzen ditu. Bere misioan esaten den bezala: *Soziolinguistika Klusterraren misioa euskararen normalizatorako soziolinguistika-ezagutza garatzea, zabaltzea eta horren inguruko interesa piztea da. Horretarako, baldintza egokiak sortuko ditu, esparru teoriko eta aplikatuaren arteko zubiak eraikiko ditu, eta arloko eragileekin hausnarketarako zein lankidetzarako bilgune-sareak osatuko ditu. Klusterrak, beraz, lan-ildo garrantzitsuenetariko bat du ikerkuntza, eta bertan berritzea (arlo metodologikoan ere) bere helburu nagusien artean dago.*

### 3. Jarrera

Hiztunak euskararekiko azaldutako jarrerak ohiko aztergaia izan dira euskal soziolinguistikaren arloan. Zergatik? Bada, printzipioz, pentsatu izan delako euskara hizkuntza minorizatua izanda, jarrerak eragin zuzena izango zutela hizkuntzaren erabileran. Hori dela eta, ikerketa ugari burutu dira eta gai honen inguruan erabilitako teknikak eta aplikatutako ikuspegiak ugariak izan dira. Ikerketa horien protagonistak ere profil ezberdinak izan dira: batzuetan, gazteen jarrerak sortu dute jakin-mina; beste batzuetan, euskara-ikasleek, -irakasleek, edo tokian tokiko populazioak. Azterketa zabalagoak edo murrizagoak, konplexuagoak edo sinpleagoak osatu dira, baina denek ekarpena baliagarria izan da euskal soziolinguistikak aurrera egin zezan.

Estibaliz Amorrortuk azaltzen duenez (Amorrortu, 2001) jarrerak aztertzeke ordutan bi bide nagusitu dira: metodo zuzenak eta zeharkakoak. Egileak aipatzen duenaren arabera, euskara eta erdararekiko hizkuntza-jarrerak neurtzeko erabili diren metodoak gehienbat zuzenak izan dira, hau da, *jendeari zuzenean galdetu zaio zein iritzi duen euskara normalizatzeko plangintzaren inguruan; ezinbestekoa den haur guztiek euskara ikas dezaten, Euskal Herrian ikusi eta entzuten diren telebista eta irratiek programa askoz gehiago izan beharko litzuketean euskaraz eta Euskal Herriko administrazio publikoan sartzeko beharrezkoa izan beharko litzatekeen euskara jakitea, kasurako.*

Galdesorta ugari eta anitzak burutu dira. Hortik ehunekoak eta, oro har, analisi estatistikoak (kobariantza analisia, T-test erregresioa, CLUSTER analisia, LISREL analisia, ANOVA...) izan dira emaitzak aurkezteko garaian gehien erabili den modua. Josu Peralesek aipatzen duenaren arabera (Perales, 2001), teknika kuantitatiboak nagusitu dira, bai prospektiba-lanak, bai hezkuntza-sistemari buruzko lanak, bai euskalduntze-alfabetatzearen inguruan egindako azterlanak aurrera eramateko.

## 6. HIZKUNTZAK AZTERGAI: IKERKETA–METODOETARA OINARRIZKO HURBILPENA

Ildo beretik doa Carlos Vilches eta Mikel Vilchesek Nafarroan hizkuntzarekiko jarrerren inguruan egindako azterketen analisia; izan ere, egileek nabarmentzen dutenez, azkenengo urteotan ikerketa-eremu honetan egindako lan gehienek oinarri kuantitatiboa izan dute, besteak beste, 1990. urtean CIES enpresak *Estudio de las actitudes de los navarros ante el euskara* izeneko lanak (Nafarroako Gobernuak eskaturik 3.035 elkarrizketa egin ziren). Ondoren, 1995. urtean Taller de Sociología S.L.-k, euskara Nafarroan zertan zen ikusteko, *Investigación sociolingüística sobre el euskara en Navarra* ikerlana egin zuen, oinarri kuantitatiboa zuena. Gauza bera gertatu zen urte batzuk geroago IKEI enpresak, Nafarroako Unibertsitate Publikoaren aginduz, *Demanda social de estudios universitarios en vascuence en Navarra* izeneko lana egin zuenean.

Nafarroa utzi gabe, Nekane Orozen lana ere aipatu behar da. Egileak horrela azaltzen du bere ikerketaren helburua (Oroz, 1999): *Nafarroan ematen diren euskararekiko jarrerak eta horietan eragina duten faktoreen azterketa egitea*. Asmo hori betetzeko, inkesta bat prestatu zuen Orozek 16 urtetik gorako populazioaren lagin batek bete zezan.

Teknika bera aplikatu zuen Jokin Aiestaran Arabako Errioxan elebitasunarekiko eta euskararekiko jarrerak aztertzeko asmoz. Ikerlana 2001. urtean egin zen eta galdetegia erantzun zutenak Bigarren Hezkuntza eta Batxilergoa edo Lanbide Heziketa eskaintzen zuten hiru ikastetxeetatik atera ziren. Guztira 14 eta 18 urteko 232 ikaslek bete zuten galdesorta.

Ikerketa hauen kasuan, askotan, jendeak dituen interes eta jarrerak neurtzea izan da helburu nagusia, lekukoak dioena jasota, erabilera eta plangintzaren arrakasta aurreikus daitekeela suposatzen delako. Hau da, plangintzaren aldeko jarrera zabala izanik, plangintza hori arrakastatsua izango zela pentsatu izan dute hizkuntza-plangintzaren egileek. Uste horiek, ordea, ez dira kasu guztietan bete. Argi ikusi da hizkuntza baten aldeko jarrera eta interesa egonda ere, erabilera ez dela ziurtatzen. Horren ildotik, argi gelditu da zaila izaten dela jendeak, galdetzen zaionean, benetan pentsatzen duena esatea. Amorrortuk berak dioenez (Amorrortu, 2001), hizkuntza minorizatuen kasuan agertutako *jarrera askotan ekintzazko jarrera baino baikorragoa izaten da*.

Alborapen hau ekidin nahian edo, hizkuntza-jarrerren arloan zeharkako metodoak aspalditik erabiltzen dira. Amorrorturen ustez (Amorrortu, 2001), *zeharkako metodologia erabilita, lekukoari ez zaio zeren atzetik gabiltzan jakiten uzten. Edo, beste modu batean esanda, kontzientziapeko jarrerak batzeko ez zaio esaten bere jarretan daukagula interesa*.

Zeharkako metodoen artean bi dira ezagunenak edota erabilienak: *matched guised* deritzon teknika (euskaraz “bikote ezkutua”), batetik, eta semantika-diferentziala, bestetik.

Amorrortuk azaltzen duenez (Amorrortu, 2001), bikote ezkutua teknikaren bidez, aldaera bera ez ezik (dela hizkuntza, dela dialektoa), jarreretan eragina izan dezaketen aldagai guztiak ere neur daitezke, aurretik prestatutako estimuluak erabilita. Egileak horrela deskribatzen du prozedura: *Hiztun elebidun edo dialektobidunari ahozko testu bera, aldaera bitan, sortzea eskatzen zaio. Lekukoak estimulu bezala entzunarazten zaizkion hiztunak (bikote ezkutua osatzen dutenak) ebaluatu behar ditu, hiztun bera bi estimuluren egile dela jakin gabe. Hiztun batek sortutako estimuluaren artean beste estimulu batzuk sartzen dira tartekaturik, lekukoak ahots bi lagun batenak direla ezagutu ez ditzan*.

*Modu honetan, hiztun berak sorturiko estimulu biekiko jarrera ezberdinak topatuz gero, hiztun bat denez (ahots bera duenez, beraz), aldaerak berak eragindako jarrerak baino ezin dira izan jasotakoak. Hala, zeharka, lekukoei zuzenean hizkuntza baten hiztunei zer deritzen galdetu barik, haiekiko jarrera kontzientziapekoak batu ditzakegu.*

Teknika hau Wallace E. Lambert hasi zen erabiltzen 1972an eta, emaitza harrigarriak ikusita, onespen handia lortu zuen ikertzaileen artean. Euskararen inguruko azterketetan ere erabili izan da, besteak beste, Amorrortuk berak (Amorrortu, 2000) unibertsitateko hainbat ikasleren euskara batuarekiko eta bizkaierarekiko jarreraren azterketa burutu zuenean.

Bikote ezkutuaren teknikarekin batera semantika-diferentziala erabiltzen da sarri jarrerak neurtzeko. Amorrortuk deskribatzen duenez (Amorrotu, 2001), semantika-diferentziala mutur biko mailaz mailako eskala da eta egitura-dimentsio ugari dauzka. *Pertsonaren izaerari dagozkion adjektiboak agertzen dira bost graduako eskalan (oso-tik batere-raino) eta lekukoek estimulu-hiztunak eskala horietan ebaluatu behar dituzte.*

Baina jarrerak aztertzeko orduan, badira beste bide eta estrategia batzuk ere, gaiarekiko beste ikuspegi bat lantzeko oso baliagarriak izan daitezkeenak. Hizkuntzaren erabilpenaren atalean aipatu izan denez, Donostiako gazteen jarrerak aztergai izan zituzten Martínez de Luna eta Jausorok. Kasu honetan, nagusiki, eztabaida-taldeen bidez jaso zen informazioa. Teknika berdina erabili zuten, besteak beste, Vilches eta beste lankide batzuek 1997an Udal Euskaltegien komunikazio eta marketinerako jarduera-ildoak zehaztea helburu zuen ikerketa batean (Odriozola, 1997). Nekane Goikoetxeak ere 1997an egindako ikerketa batean (Goikoetxea, 1997) eztabaida-taldea erabili zuen Debako gazteen hizkuntza-jarrerak aztertu ahal izateko; hori bai, kasu honetan metodologia kualitatiboa eta kuantitatiboak uztartu ziren.

Baina gehiago izan dira metodologia kualitatiboaren alde egin dutenak. Adibidez, Jesús Azcona antropologoak ikuspegi kualitatiboa erabili zuen 1985. urtean *Límites geográficos-sociales del euskara en Navarra* izeneko lana egin zuenean. Edo Nekane Larrañagak (Larrañaga, 2003) euskal gaztetxoek jarrerak ikertu zituenean, ohiko teknika kuantitatiboaz gain (galdesorta), teknika kualitatiboen barruan koka daitezkeen idazlanen azterketa proposatu zuenean. Teknika honekin egileak bilatzen zuena zera zen: gaztetxoei eurentzat euskara zer den askatasun osoz adierazteko aukera ematea. Idazlanak galdera batzuei erantzuna emanez egin ziren. Larrañagak idazlanak bideratzeko erabilitako galderen artean hauek proposatu zituen (Larrañaga, 2003): *Zer da zuretzat euskara? Zuk zeuk nolako interesa duzu euskararekiko? Euskara, zertarako?*

Hortik aurrera, zein da prozedura idazlanen analisia bideratzeko? Larrañagak azaltzen duenez, idazlanetako adierazpenak bere horretan irakurri ondoren eta hitz adierazgarri bakoitzak bere testuinguruan duen esanahia ikusi ondoren, ikertuen adierazpenak kategoria ezberdinen arabera sailkatzen dira. Kategoria horietan oinarriturik nolabaiteko tipologiak osa daitezke.

### 6.2.3. Hizkuntza–testuingurua (komunitatea)

Argi dago hizkuntza eta hiztunak testuinguru batean kokatzen direla, eta horrek garrantzi handia du hizkuntzaren inguruan sortzen diren dinamikak interpretatzeko orduan. Hizkuntza bera

## 6. HIZKUNTZAK AZTERGAI: IKERKETA–METODOETARA OINARRIZKO HURBILPENEA

izan daiteke, euskara adibidez, baina erabilera pertsona eta egoeraren arabera guztiz aldatuko da. Ez da gauza bera gazte euskaldun bat bere lagunekin festa-giroan edo pertsona heldu bat banketxe batean lanean irudikatzea. Batak zein besteak egingo duten hizkuntza-erabilera edota hizkuntzarekiko adieraziko duten jarrera oso ezberdinak izan daitezke. Kasu batzuetan, ikerketek testuinguruaren garrantzia alde batera utzi dute, nahita edo nahi gabe, eta objektu isolatuen gainean jarri dute arreta. Beste batzuetan, testuingurua bigarren maila batean kokatu baldin bada ere, bere pisua aitortu izan zaio. Baina, esanenez, ikerlan batzuetan testuingurua bereziki nabarmentzen da, eta horren arabera planteatu izan dira, bai ikerketaren helburuak, bai metodologia.

Hori dela eta, corpusaren inguruko ikerlanak eta hiztunaren gainean burututakoak aztertu ondoren, hizkuntzaren testuinguruan arreta jartzen duten lanak ikergai bihurtuko dira, betiere, aurreko bi ataletan egin den moduan, proposamen metodologikoak azpimarratzeko asmoarekin.

Kasu honetan azalpena bi ataletan banatuko da: batetik, hizkuntza testuinguru zabalean ikertu dutenak aipatuko dira; bestetik, hizkuntza testuinguru zehatz batean kokatu dutenak izango dira aztergai.

### Hizkuntza testuinguru zabalean

Atal honetan **Kale Neurketak** erabateko protagonismoa izango du, besteak beste, metodologia testuinguruak zeharo baldintzatuta dagoelako. Izenak adierazten duen moduan, Kale Neurketak kalea du ikerketarako gunea eta bere ezaugarriak testuinguru horretara moldatu behar ditu.

**Kale Neurketa:** behaketa zuzenaren bidez gauzatzen da Kale Neurketa (hau da, hizkuntza–erabilera “erreal” jasotzen da, eta ez erabilera aitortua). Hori dela eta, Kale Neurketan jasotako datuek zera adierazten dute: neurketa egin den tokian eta unean (egunean eta orduan) zenbat lagun ari den euskaraz (edo erdaraz) hitz egiten; hau da, zenbat hitz egiten den euskaraz une eta leku horretan. 1989an Euskal Kulturaren Batzarrak – EKB– Euskal Herriko udalerrri handienetan (10.000 biztanletik gorako udalerrietan) erabilera neurtzea erabaki zuen. Siadecori agindu zion hori egiteko eta urte horretan bertan lehenengo Kale Neurketa egin zen. Urteetan zehar teknika berari eutsi bazaio ere, moldaketa eta egokitzapen anitz egin dira, betiere ikerketaren prozedura hobetzeko asmoz.

Altunak eta bestek azaltzen duten moduan (2008: 80) *Euskal Herriko Kale Neurketak, Euskal Herri osoan, eremu publikoan, kalean, euskararen ahozko erabilera neurtzen du. Estreinakoz 1989an egin zen neurketa hori, geroztik lau edo bost urtean behin errepikatu da. (...) Lehenengo hiru neurketak Euskal Kultur Batzarraren (EKB) zuzendaritzapean egin ziren. EKB desagerturik SEI Elkarteak hartu zuen bere gain laugarren neurketa, eta bosgarrena Soziolinguistika Klusterrak burutu du.*

Egileek azpimarratzen dutenez (Altuna eta beste, 2008: 80), proiektu hau sortzeko eta aurrera egiteko ahalegin handiak egin zituzten hainbat pertsonak eta erakundek: *Siadecok berak metodologiari dagokionez (Iñaki Larrañaga eta Kike Amonarriz buru), unibertsitateko zenbait irakasle erabilerari buruzko teorizazioan (J.L. Alvarez Enparantza "Txillardegi" eta Xabier Isasi) eta Euskal Kulturaren Batzarrak (EKB), proiektuari maila orotako babes eta laguntza "logistikoa" eskainiz.*

Kale Neurketaren berezitasuna eta potentzialtasuna metodologian datza. Berrikuntza, inondik etorri bada, hortik etorri da. Izan ere, aurretik ikusi den moduan, Kale Neurketaz gain, euskararen erabilera inkesta bidez (zentsuetan zein bestelako inkesta soziolinguistikoetan) eta kasu zehatz batzuetan, metodologia kualitatiboak lagunduta aztertu izan da gehienbat. Baina, Kale Neurketan, behaketa zuzena da datu-bilketa ahalbideratzen duen teknika. Kasu honetan mintzatzen ari denari ez zaio ezer galdetzen, kalean ausaz entzuten dena da bilduta gelditzen den informazioa. Alde batera uzten da, beraz, erabilera aitortua edo subjektiboa, inkestaren bidez jasotzen dena alegia.

Metodologiaren aplikazioari dagokionez, esan behar da urteak pasa ahala aldaketak eta moldaketak egin direla datu-bilketan: zein herritan egin den Kale Neurketa, zenbatetan eta neurtutako aldagaiak, besteak beste.

Azkenengo neurketari dagokionez (2006), esan behar da 62 udalerritan egin zirela behaketak: Araban 4, Bizkaian 18, Gipuzkoan 16, Nafarroa Garaian 13, Lapurdin 7, Nafarroa Behean 2 eta Zuberoan 2. Bestela, aldagaiei dagokionez, hona hemen kontuan izan zirenak: neurtutako aldagaiak adina, sexua, taldearen osaera (elkarrizketan parte hartzen duten hiztunak adin-talde berekoak diren ala ez) eta haurren presentzia (haurren presentziarik gabeko elkarrizketak, haurrak presente egon baina parte hartzen ez duten elkarrizketak eta haurrak presente egon eta parte hartzen dutenak).

Horrela, Kale Neurketan jasotako datuek zera adierazten dute: neurketa egin den tokian eta uanean (egunean eta orduan) zenbat lagun ari den zein hizkuntza (euspara, gaztelania ...) hitz egiten. Ez du esan nahi, beraz, horiek euskaraz baino hitz egiten ez dutenik; izan ere, pertsona horiek beraiek, beste une eta beste toki batean erdaraz hitz egin baitezakete. Horregatik gogoratu behar da kalean gauzatzen diren harremanak eta horiei loturiko elkarrizketak testuinguru jakin bati (kaleko elkarrizketa arruntak) loturikoak izaten direla; hau da, ez dira, normalean, unibertsitateko elkarrizketa formalak edo lantokian gerta daitezkeenak.

Kalean gertatzen dena neurtzeko, eremu publikoari loturiko ezaugarriak, baldintzak eta abar hartu behar dira kontuan. Gainera, ezin da ahaztu Kale Neurketa, ikerketa gutxik egiten duten moduan, Euskal Herri osoa hartzen duela ikerketa-eremu, eta hori funtsezko datua da emaitzak ulertzeko eta azaltzeko.

Kale Neurketaren aipamenarekin bukatzeko, azpimarratu behar da praktika hau “Txillardegi”-k sortutako eredu matematikoari lotuta dagoela. Hori dela eta, esan daiteke metodologia honi atxikitako lorpenak maila teorikoan ere aztertu behar direla.

## Hizkuntza-taldeak/hizkuntza-gune berezituak

Puntu honetan, testuinguru zehatz baten ezaugarriei erantzuteko asmoz egindako ikerlanak aztertuko dira. Hizkuntza eta hiztunak berdinak dira, baina euren dinamika, era batean edo bestean, baldintzatuta agertzen da murgiltzen diren eremu zehatz horiengatik. Momentu honetan, berriro ere, helburua ez da sakona izatea, lan hauetako lagin bat erakustea baizik.

Aspalditik, helduen euskalduntze eta alfabetatzea, eta bereziki, euskaltegiak, interesezko testuinguru bilakatu dira ikertzaileentzat. Siadeco enpresak (EKBren laguntzarekin eta hainbat euskaltegiaren babesarekin), esate baterako, bi ikerketa egin zituen 1996an helduen euskalduntze eta alfabetatzearen inguruan. Ikerketa horien helburuak euskalduntze- nahiz alfabetatze-maila ezagutzea, behar linguistikoak identifikatzea, balorazioak jasotzea eta beharren aurreikuspenak egitea izan zen.

Alfabetatze-prozesuan zebiltzanen kasuan, azterlanaren unibertsoa Euskal Herri osoko 20-39 urte bitarteko euskaldunek eta goi-mailako ia-euskaldunek (ongi ulertu eta inkestari euskaraz erantzuteko gai zirenak) osatu zuten. Guztira 790 inkesta egin ziren, euskaldungoaren banaketa geografikoaren arabera.

Euskalduntze-prozesuan zebiltzanen artean 20-39 urte bitarteko erdaldunek osatu zuten azterketarako unibertsoa. Honetan ere metodologia kuantitatiboa erabili zen, eta guztira 2.849 inkesta bildu ziren.

Urte batzuk geroago Maite Otegi Jauregik (2006) Goierrin euskalduntze-alfabetatze ahaleginetan ari zirenen artean motibazioak zeintzuk ziren aztertu zuen, etorkizuneko emaitzak hobetzeko baliagarria izango zelakoan. Kasu honetan metodologia kuantitatiboa zein kualitatiboa erabili zituen Otegi. Lehenik eta behin, zonaldeko euskaltegietakoa ikasle eta irakasle ezberdinekin osatu zituen hainbat eztabaida-talde eta, teknika horren bitartez lortutako emaitzak galdeketa bat diseinatzeko erabili zituen. Inkesta 251 ikaslek bete zuten (horietatik % 47 Maizpideko barnetegiko ikasleak; beste % 53ak euskaltegietakoa ikasleak) eta emaitzak euskara ikasten jarraitzeko motibazio nagusia integratzailea zela ondorioztatu ahal izan zuen egileak, ikaslea barnetegikoa edota euskaltegietakoa izanda ere.

Ikasleak mailaz igoz doazen heinean erabilera instrumentala ere oso nabarmena da; are gehiago, egileak azpimarratzen duenez, bi eragileak batera joan daitezke (instrumentala eta integratzailea) gehienetan elkarri eusten diote eta.

Lagunartea edo koadrila ere eremu deigarria gertatu da ikertzaileentzat. *Kuadrillategi* proiektua horren isla litzateke. *Kuadrillategi* ezin da azterlan huts bezala definitu, baina, bestalde, azpimarratu behar da egitasmo bat baino gehiago dela; izan ere, funtsean azterlana eta hausnarketa sakona eta teorikoa dago. Oinarrian Pello Jauregik talde naturalak euskalduntzeko egindako lana



dago. Ildo horretatik, Jauregik urte asko eman ditu esku-hartzeari eusten dion marko teorikoa eta metodologikoaren inguruan ikertzen. *Kuadrillategi* egitasmoa, neurri handi batean, horren guztiaren emaitza da eta bere gauzapena parte hartzeko ikerketa-ekintza eredura hurbiltzen da. Hau da, egitasmoaren funtsean ekintza eta horren emaitzen gaineko hausnarketa daude. Hausnarketa horretatik, berriz, moldaketak, hobekuntzak eta berrikuntzak sortu dira. Horrela, egitasmoa elikatuz doa.

Dena dela, Diego Egizabalek, Axier Huegunek eta Pello Jauregik (proiektu honen suspertzailak) esaten zuten moduan (Egizabal eta beste, 2004), *Kuadrillategi egitasmoa gure esku-hartzearen hastapen teoriko eta metodologikoetan sakontzeko aukera ematen digun ikerketa bada ere, gazteen-tzat, euskaraz egiten den aisialdi eskaintza bat besterik ez da.*



**27. irudia:** Kuadrillategi egitasmoa.

Esku-hartzea, beraz, aisialdian gauzatzen da eta hortik abiatuta, marko metodologikoak ondorengo ezaugarriak ditu:

1. Ikerketak aisialdiko eskaintza soilaren itxura hartzen du gazteei aurkezten zaienean.
2. 14 urteko gaztetxoei eskaintzen zaie egitasmoa, hots, DBHko 3. mailakoei.
3. Bi urte irauten du egitasmoak; beraz, 16 urte dituzte bukatzean.

Egitasmoak bestelako ezaugarriak ditu, baina funtsezkoena zera da: aipatu den moduan, esku-hartzea aisialdian gauzatzen da eta horrek, halabeharrez, eginbeharrekoa guztiz baldintzatzen du. Izan ere, aisialdia, definizioz, ezin da nahitaezko jarduera izan; aitzitik, borondatezko lotura aurreikusten da.

Baina zer dela eta erabakitzen du talde batek edo koadrila batek egitasmoaren dinamizatzailengana hurbiltzea? Egileek diotenez, printzipioz, arrazoiak, nagusiki, hiru izango lirateke: gune fisiko bat bilatzea, jende berria ezagutzeko aukera izatea eta gauza berriak egiteko aukera izatea.

Baina, badaude parte hartzeko baldintza batzuk: parte hartuko duten lagunek gutxienezko euskarara gaitasuna izatea, gutxienez taldeko bost lagunek ematea izena eta parte hartzen daudenean euskara hutsez egitea (ezagutza-maila edozein izanda ere).

Taldeak konpromisoa hartzen duenean prozesu bat hasten da. Tarteka negoziazio-saioak egiten dira bi aldeek hasieran zituzten helburuak betetzen ari diren ikusteko (dinamizatzailen aldetik

## 6. HIZKUNTZAK AZTERGAI: IKERKETA-METODOETARA OINARRIZKO HURBILPENA

euskararekiko harremana areagotzea eta sendotzea eta gaztetxoan aldetik aisialdirako eskaintzarekin gustura egotea). Suma daitekeenez, negoziazio-prozesu horretan (eta oro har dinamika burutzen den bitartean), ikerketa-ekintzaren ikuspegia behar-beharrezkoa izango da. Hortxe dago egitasmo honen balio eta ekarpen metodologikoa.

Familia-gunea beste eremu garrantzitsua izan da euskararen inguruko ikerkuntzan, bereziki transmisioaren gaiari lotuta agertu delako. Arlo honetan ez dira lan asko egin, baina, beti arreata bereganatu izan dute. J. Fco. Zinkunegik, 1995. urtean, BAT aldizkariko artikulua batean (Zinkunegi, 1995), ordura arte aztertutakoaren berri eman zuen eta argi utzi, ordura arte egingandako lanek (bereziki zentsuetako datuak eta Siadecok eta HPINek egindakoak) oinarri kuantitatibo zutela. Hau da, gehien erabilitako teknika inkesta izan zen. Josune Iraolak, aldiz, beste bide bat hartu zuen Pasaian familia barruko hizkuntza-transmisioa aztertzeko orduan. Teknika kualitatibo ezberdinak erabili ziren, elkarrizketa sakona eta eztabaida-taldea, hain zuzen ere. Egileak azaltzen zuen moduan (Iraola, 2004) planteamenduaren oinarrian bi galdera ezberdin zeuden. Alde batetik, 1940-1970 garaia begirata, zein izan ziren gertatutako hizkuntza-ordezkapenaren arrazoiak? Zein izan ziren euskarari eutsi zioten familien motibazio nagusiak? Itaun horiei erantzuteko asmoz, bost elkarrizketa sakon egin ziren.

Bestalde, bigarren galdera hauze izan zen: XXI. mendearen hasieran, Pasaia bizi duen egoera soziolinguistiko konplexuan, nolakoa da ematen ari den familia-transmisioa? Kasu honetan, erantzunak bilatu nahian, bost eztabaida-talde burutu ziren.

Puntu hau bukatzeko esparru zabal eta konplexu bat aipatu nahi da, urtetik urtera garrantzia eta protagonismoa irabazten ari dena: lan-munduarena. Bertan enpresak ez ezik, merkataritza eta bestelako zerbitzuak (adibidez, elkarte edo erakundeak) sartzen dira. Errealitate anitza biltzen da lan-munduaren epigrafearen barruan, baina, dudarik gabe, berrikuntza handiko eremua da, metodologiari dagokionez ere. Jada 1990eko hamarkadaren hasieran hainbat elkarte eskalduntze-prozesuetan sartzen hasi ziren. Horrek euskararekiko konpromisoa eskatzen zuen, eta beste maila batean, erronka metodologikoa zekarren. Testuinguru horietan egitasmoak eta plangintzak ezarri baino lehen, diagnostikoa egin behar zen, eta garai hartan datu-bilketarako lehenengo fitxak diseinatzen hasi ziren. Ondorioz, datu-bilketak ere sistematizatzen hasi ziren. Elkarrekin edo erakundeak deskribatzeko, euren barne-funtzionamenduaren fitxak eta antolatutako jardueren fitxak erabiltzen ziren, gehienbat datu bilketarako tresna gisa. Horrelako ekimenen hasiera baldin bazen ere, jada sumatzen zen proiektu horien berezitasun nabarmen bat metodologiari zegokionez. Denek, edo gehienek, bazuten ekintza-ikerkuntza kutsu bat. Hori oso argi adierazi zuen J.I. Markok *Club Deportivo Hernani* (CDH) kirol-elkartearen inguruan ostatuko egitasmoa azaltzerakoan (Marko, 1996): *...gure asmoa ekintza soila baino gehiago izan dadin ere bada, hau da, ekintza horren gain nolabaiteko ikerkuntza ere egin nahi dugu: jarduera horri buruz teorizatu egin nahi dugu, eztabaidatu, ikasi eta ikasitakoa zabaldu.*

Markok berak Hernaniko proiektua aurkezterakoan *mikroplangintza* kontzeptua aipatzen du eta bere prozesua azaltzerakoan argi gelditzen da, ekintza-ikerkuntza kasu guztietan gertatzen den moduan, honetan ere prozesua helburuak bezain garrantzitsua dela. Ekintza-ikerkuntza, *beraz, espiral moduko prozesu bat dugu. Hau da, alde aurretik planifikatutako praktika bati buruzko behaketaren hausnarketak errealitatea eraldatzeko prozesuei buruzko oinarri teorikoak eraiki eta horni-*

*tzeko ahalmena emango digu; gero oinarri teoriko horiek aplikatuz, eraldaketa prozesuak eragiteko metodologia berri, hobe eta eraginkorragoak egikaritu ahal izango ditugu.*

Egileak berak aurrerago aitortzen duenez, CDH elkartean euskararen erabilera normalizatze-ko lan-ildoak lan-munduan burutzen ari diren proiektuetan erabiltzen den eskeman oinarritzen ziren. Kasu honetan, metodologiari dagokionez, eman beharreko pauso nagusiak honakoak ziren: lehenengo, egoeraren azterketarako datu-bilketa egin (kasu honetan informazio kuantitativoa zein kualitativoa da interesgarria); ondoren, egoeraren adierazle edo indize bat finkatu (adierazleak zenbaki baten bidez erakutsiko digu zein den elkarte horren unean uneko normalizazio-maila eta, plangintza aplikatu ondoren, progresioa nolako izan den); eta, azkenik, jarraipen-sistema bat ezarri.

Hasierako proiektu horietatik, garapen nabarmena eman da enpresa- eta zerbitzu-munduan euskararen normalizazioaren ikuspegitik. Aurrerapenak maila kontzeptuean (edo teorikoan) eta aplikatuan (metodologian) egin dira. Mikroplangintzatik Hizkuntza Kudeaketara iragan zen eta hortik nozio berri batera: Hizkuntza Prozesuen Ingeniaritza. Kontzeptu horrek ezartzen duen aterpean esperientzia ezberdinak gauzatu dira eta gauzatzen ari dira Euskal Herrian. Guztien abiapuntuan hausnarketa sakona dago, diziplina ezberdinetatik sortutakoa eta metodologia berezkoa bultzatuko duena, Hizkuntza Prozesuen Ingeniaritza, alegia.

Dena dela, urte hauetan berrikuntza nabarmenak izanda ere, enpresa- eta zerbitzu-munduan planak ezartzen zirenetik ezaugarri garrantzitsu bat mantendu da: oinarrian ikerketa-ekintzaren metodologia eta ikuspuntua nagusitu da. Horrek berezko dinamika bat inposatzen du. Mikel Urdangarinek (Urdangarin, 2003) horrela adierazten du: *...laborategikoak errealitatean frogatu, eta egindakoaren gainean hausnartuz. Horretarako hartu dituen bideak; batetik, interbentzio propioa garatu eta eredia teorizatu (...); eta bestetik, interbentzio guztien analisirako baliagarria den deskripzio markoa eraiki.*

Hori guztia kontuan hartuta, Hizkuntza Prozesuen Ingeniaritza horrela definitzen du Markok (Marko, 2000): *Organizazio (edota sistema) jakin baten funtzionamendua sostengatzen duen hizkuntzaren eraldaketa kontzeptualizatzea eta burutzea ahalbideratuko duten sortze-lanen eta obratze-prozeduren jarduera eta ezagutza.*

Osagai nagusiak ondorengo hauek liriateke:

1. Iturburua: arestian esan den bezala diziplina zientifiko ezberdinak biltzen ditu bere baitan Hizkuntza Prozesuen Ingeniaritzak, besteak beste, antropologia, ingeniari-tza, pedagogia, psikologia eta soziologia.
2. Hondar-xedea: organizazioaren funtzionamendu-hizkuntzan eraldaketak ezartzea organizazioaren egitura eta prozesuetan eraginez, horretarako interbentzio-jarduerak unean uneko organizazioaren ezaugarrietara egokituz eta baldintzen arabera ingeniari-tza-soluzioak edota aplikazioak sortuz.
3. Atal osagaiak: plangintza, kudeaketa eta ikerketa. Atal hauek ez dira bata bestearen ondoren prozesu linealean gauzatzen; aitzitik, hirurak elkarri lotuta daude ikuspegi zirkular baten arabera.

Ikusten denez, prozedura nahiz sistema konplexuak sortu eta elikatu dira, berez konplexua den eremu bati aplikatzeko, lan-munduari, hain zuzen ere. Kasu honetan testuinguruari erreparatzeari eman zaio lehentasuna, eta horrek dituen berezko ezaugarriak abiapuntu bihurtu dira metodologia egokia sortzeko eta aplikatzeko. Euskal Herrian jada asko dira horrelako prozesuetan sartuta dauden enpresak eta lan-guneak, eta horren ondorioz esperientzia horien inguruan eta sortzen ari diren emaitzen inguruan ikertzeko beharra ere garatu da. Horren adibidea Soziolinguistika Klusterraren *EraLan* ikerketa-proiektua da, edota, beste maila batean, Nekane Arratibelek eta Joxpi Irastortzak aurkeztutakoa (Arratibel; Irastortza, 2005).

*EraLan*en helburua lan giroko hizkuntza-erabileran parte hartzen duten aldagaiak zeintzuk diren eta horietan eragiteko nolako dinamika erabili behar diren aztertzea da. Arratibel eta Irastortzak, aldiz, euskara-planetan ari diren enpresetako langileen jarrera, portaera, motibazioa eta parte-hartzea ikertzea izan dute helburu. Edozein kasutan, batak zein besteak argi erakusten dute gaiaren konplexutasuna eta horren aurrean metodologikoki behar den ausardia, hurbilpen metodologiko ezberdinak eta teknika ezberdin asko erabili beharra, alegia.



**28. irudia:** *EraLan* ikerketa-proiektuaren jardunaldiak (Zamudioko Teknologia Parkea, 2008).

Egun argi dago lan-mundua lehentasunezko eremua bihurtu dela hizkuntza-plangintzaren ikuspegitik eta interes horrek kezka metodologikoa ere piztu du. Egindakoaren gainean hausnartzeko, esperientziak trukatzeko eta etorkizunari elkarrekin begiratu ahal izateko Ezagutzaren Klusterrean euskara-planetan ari ziren hainbat enpresak *Euskara eta Kudeaketarako Foroa* martxan jarri zuten 2003. urtean. Foro horretan egindako lanaren berri ematen du *Euskara enpresaren kudeaketan. Gakoak eta esperientziak* liburuak, eta bertan zortzi esperientzia praktikoren berri ematen da. Kasu bakoitzak ikusgai uzten du euskara-planak

diseinatzeko eta aplikatzeko prozesuetan erabilitako metodologia eta teknikak. Liburuaren egileek azpimarratzen duten moduan (Ezagutzaren Klusterra, 2005), kasu guztietan parte hartze-ko metodologiak pisu berezia izan du eta enpresetako kideek hartutako hizkuntza-norabidean protagonismo garrantzitsua izan dute. Hori dela eta langile guztiek inplikaturata izaten dira diagnostikoan eta garatze-prozesu osoan.

Horretaz gain, eta txostenak erakusten duenez, momentuz momentu teknika ezberdinak aplikatu izan dira hizkuntza-plangintzak diseinatzeko, aurrera eramateko, ebaluatzeko. Denen artean, inkesta edota mota ezberdinetako galdetegiak izan dira erabilienak, baina beste batzuetan elkarriketen bitartez jaso da behar zen informazioa. Beraz, teknika kuantitatiboak zein kualitatiboak txertatzen ari dira enpresa-eremuko hizkuntza-plangintzetan, baina aipagarria da parte hartze-ko metodologia funtsezko oinarria bihurtu dela prozesu eta esperientzia gehienetan.

Lan-mundua utzi gabe eta puntu honi bukaera emateko, azken eremu bat aipatu nahi da: merkataritzarena. Izan ere, asko dira azken urte hauetan arlo horren inguruan martxan jarritako ekimenak. Gehienek kutsu aplikatua izan badute ere, horren inguruan hainbat azterketa egin dira emaitzak baloratu ahal izateko. Horren adibide bat Txorierrin egindako azterlana da. Azterlan horretatik, merkataritza euskalduntzeko plangintzen inguruan gogoeta egin beharra aldarrikatzen da, besteak beste marko teoriko aproposagoa osatu ahal izateko. Hori, dudarik gabe, plangintza eraginkorragoak diseinatzeko eta aplikatzeko baliagarria izango litzateke.

José Ramón Rodríguezek Txorierrin egindako ikerlanaren berri ematen du (Rodríguez, 2005). Egileak azaltzen duenez, kasu honetan metodologia kualitatiboa erabili zen eta hautatuko teknikak sakoneko elkarrizketak eta eztabaida-taldeak izan ziren. Horietan merkatariek eta plangintza kudeatzen ibilitakoek hartu zuten parte.

Honaino arlo metodologikoari dagokion hausnarketa. Kapituluaren zehar hizkuntzak eta hizkuntzaren inguruko ikerkuntzak dituen beharrak azaltzeko saiakera egin da, eta, horrekin batera, hainbat proposamen, ideia eta adibide eskaini dira, irakurleak egun nahiz etorkizunean topa ditzakeen arazoak edota eginbeharrak bideratzen laguntzeko asmoz. Hau ez da, noski, lan erraza, konplexua baita ikerkuntzaren bidean sor daitezkeen trabak, zalantzak eta horien konponbidea aurreikustea.

Edozein kasutan, argi dago saiakera merezi duela; izan ere, hizkuntza, hiztuna nahiz hizkuntza-taldeek gizartearen gaineko oso informazio aberatsa eskain dezakete. Are gehiago, kapitulu honen hasieran azpimarratu den moduan, esan daiteke hizkuntzara hurbiltzen denak gizartea eta gizakia ulertzeko bidean jartzen duela bere burua. Hori bai, kontuan hartu behar da, hizkuntza informazio-iturri ezin hobea izan daitekeela, betiere zer eta zertarako, nola eta nori galdetu asmatzen badu ikertzaileak.

SOZIOLINGUISTIKA ESKULIBURUA



# BIBLIOGRAFIA



- ABRIC, Jean-Claude. 1994. "Pratiques sociales et représentations sociales". In ABRIC, Jean-Claude (zuz.). *Pratiques sociales et représentations*. Paris: PUF, Collection Psychologie Sociale: 216-238.
- ADAM, Jean Michel. 1992. *Les textes: types et prototypes*. Paris: Nathan.
- ADAM, Jean Michel. 1996. "Testu-motak". *Hizpide* 37.
- AGHEYISI, Rebecca, FISHMAN, Joshua. 1970. "Language attitude studies: a brief survey of methodological approaches". *Anthropological Linguistics* 12(5).
- AGIRRE, Joxean. 2008. *Le journal du Pays Basque* (2008/09/11).
- AIZPURUA, Jon. 2006. "Euskararen erabilera eta transmisioa". *BAT Soziolinguistika aldizkaria* 60.
- AIZPURUA, Xabier. 1995. *Euskararen jarraipena. La continuidad del Euskera. La continuité de la langue basque*. Gasteiz: Eusko Jaurlaritza.
- AJZEN, Icek. 1988. *Attitudes, personality and behaviour*. London: Open University Press.
- AJZEN, Icek; FISHBEIN, M. 1980. *Understanding attitudes and predicting social behavior*. New Jersey: Prentice-Hall. Englewood Cliffs.
- ALBERDI, Javier. 1993. "Hika tratamenduaren balore sozio-afektiboak". *Fontes Linguae Vasconum* 64: 425-442.
- ALBERDI, Javier. 1994. "Hitanoa non eta nork erabiltzen duen". *Euskera* XXXIX, 3: 983-993.
- ALLARD, R eta LANDRY, R. 1986. "Subjective ethnolinguistic vitality viewed as a belief system". *Journal of Multilingual and Multicultural Development* 7: 1-12.
- ALMEIDA, Manuel. 2003 (2. arg.). *Sociolingüística*. La Laguna: La Laguna Unibertsitatea.
- ALONSO CORTÉS, Angel. 2002. *Lingüística*. Madril: Cátedra.
- ALTUNA Zumeta, Olatz. 2002. "Erabileraren Kale Neurketa. Ibilbidea eta metodologia". *BAT Soziolinguistika aldizkaria* 43.
- ALTUNA, Olatz; BERRIO-OTXOA, Kontxesi; JAUSORO, Nekane; MARTINEZ, Zesar. 2008 (argitaratu gabe). "Ikerketa soziolinguistikorako metodologiak eta teknikak". In *HIZNET, Hizkuntza Plangintza Ikastaroa. 2008-2009 ikasturtea*. Asmoz fundazioa, Eusko Ikaskuntza.
- ALVAR, Manuel, 1969. *Estructuralismo, geografía lingüística y dialectología actual*. Madril: Gredos.
- ALVAR, Manuel. 1979. "Lengua, dialecto y otras cuestiones conexas". *LEA, Lingüística Española Actual* 1.
- ALVAR, Manuel. 2007. *Manual de dialectología hispánica. El Español de España*. Bartzelona: Ariel.
- ALVAREZ, Jose Luis "Txillardegi". 1984. *Elebidun gizartearen azterketa matematikoa*. Iruñea: UEU.
- ALVAREZ, Jose Luis "Txillardegi". 2002. *Hacia una sociolingüística matemática*. Donostia: SEI.
- AMONARRIZ, Kike. 2008 (argitaratu gabe). "Gazteen euskara erabilera: hizkuntza kalitatea". In *HIZNET, Hizkuntza Plangintza Ikastaroa. 2008-2009 ikasturtea*. Asmoz fundazioa, Eusko Ikaskuntza.
- AMORRORTU, Estibaliz. 2000 (argitaratu gabe). *Linguistic attitudes in the Basque Country: the social acceptance of a new variety*. Argitaratu gabeko doktore-tesia: University of Southern California.
- AMORRORTU, Estibaliz. 2001. "Elkartasuna eta estatusa hizkuntz jarreretan: euskararen erabilera aurrei-kusten?". *BAT Soziolinguistika aldizkaria* 40.



- AMORRORTU, Estibaliz. 2001. "Unibertsitate-ikasleen euskalki eta batuarekiko jarrerak". In *Euskalkia eta Hezkuntza*: 61-80. Bilbo: Mendebalde Kultur Alkartea.
- AMORRORTU, Estibaliz. 2003. "Hizkuntz aldakortasuna eta identitatea". In GAMINDE, Iñaki; GOIKOETXEA, Juan Luis; SARRIUGARTE, Iñaki (arg.). *Ahozkotasuna aztergai*. Bilbo: Mendebalde Kultura Alkartea.
- AMORRORTU, Estibaliz; ORTEGA, Ane; IDIAZABAL, Itziar; BARREÑA, Andoni, 2009. *Erdaldunen euskarakiko aurreiritziak eta jarrerak*. Gasteiz: Eusko Jaurlaritza.
- AMUNATEGI, Itziar. 2001. "Euskaraz bizitzeko hitzarmena". *BAT Soziolinguistika aldizkaria* 38.
- ARACIL, Lluís Vicent. 1965. *Conflit linguistique et normalisation linguistic dans l'Europe nouvelle*. Nancy: Centre Universitaire Européen.
- ARACIL, Lluís Vicent; FALCÓN, Xabier. 1998. *Lluís Aracilen idazlan hautatuak*. Bilbo: UEU.
- ARENAZA, Josu. 1974. *Tus hijos y el euskera. El mito del "batua"*. Bilbo: Editorial Vizcaina.
- ARRATIBEL, Imanol. 1998. *Hiketaren tradiziozko erabilpena*. Iruñea: Udako Euskal Unibertsitatean emaniko hitzaldia.
- ARRATIBEL, Nekane. 1999. *Helduen euskalduntzean eragiten duten faktore psikosozialak: motibazioaren erroila*. Bilbo: UPV-EHU (doktore-tesia).
- ARRATIBEL, Nekane. 2000. *Helduen euskalduntzean eragiten duten prozesu psikosozialak: motibazioaren erroila*. Bilbo: UPV-EHU.
- ARRATIBEL, Nekane; AZURMENDI, Maria-Jose; GARCIA, Iñaki 2001. *Menpeko hizkuntzaren bizi-kemena*. Bilbo: Udako Euskal Unibertsitatea.
- ARRATIBEL, Nekane; IRASTORTZA, Joxpi. 2005. "Jarrera, portaera, motibazioa, eta partehartzea enpresetako euskara planetan". *BAT Soziolinguistika aldizkaria* 57.
- ATKINSON, Paul; HAMMERSLEY, Martin. 1983. *Etnografía*. Bartzelona: Paidós.
- AURREKOETXEA, Gotzon. 1994. "Hitanoa ahozko hizkuntzan (Euskal Herriko Hizkuntz Atlasaren arabera)". *Euskera* XXXIX, 3: 995-1007.
- AURREKOETXEA, Gotzon. 2004. "Iparraldeko hizkeraren sailkapena (I)". *Anuario del Seminario de Filología Vasca "Julio de Urquijo" XXXVIII-1*: 287-331. Donostia: Gipuzkoako Foru Aldundia.
- AURREKOETXEA, Gotzon. 2004. "Estandar eta dialektoen arteko bateratze-joerak (ikusuntu teorikotik begirada bat)". *Uztaro* 50: 45-57.
- AURREKOETXEA, Gotzon. 2008 "Bariazio soziolinguistikoa Dimako euskaran". *Euskalingua* 12: 17-26.
- AURREKOETXEA, Gotzon; ORMAETXEA, Jose Luis. 2008 (argitaratu gabe), "Euskara dialektalaren ahozko corpusa (EDAK)". *Euskaltzaindiaren XVI. biltzarrerako prestatua*.
- AURREKOETXEA, Gotzon eta ORMAETXEA, Jose Luis. 2006. *Euskararen atlas sozio-geolinguistikoa ikerketara proiektua*. Bilbo: Euskalingua, Mendebalde Kultura Alkartea.
- AZKUE, Resurrección María (1925) 1969. *Morfología vasca*. Bilbo: GEV.
- AZURMENDI, Maria-Jose. 1986. "La juventud vasca en relación con el euskera". In ELZO, Javier. *Jóvenes Vascos 1986*: 327-384. Gasteiz: Eusko Jaurlaritza.

- AZURMENDI, Maria-Jose. 1986. "Los adolescentes y el euskara". In ELZO, Javier (zuz.). *Psico-sociología del adolescente vasco*. Gasteiz: Eusko Jaurlaritzza.
- AZURMENDI, Maria-Jose. 1987a. *Psicosociolingüística. Fundamentación histórica*. Gizarte-Psikologia eta Metodologia Saila, Donostia: UPV-EHU.
- AZURMENDI, Maria-Jose. 1987b. *Psicosociolingüística. Líneas de investigación en torno al tema "el comportamiento lingüístico, en situación de contacto de lenguas"*. Gizarte Psikologia eta Metodologia Saila, Donostia: UPV-EHU.
- AZURMENDI, Maria-Jose. 1988. *Psicosociolingüística del contacto de lenguas*. In *Euskal Mundu-Biltzarra. Euskara biltzarra*. II. alea. *Hizkuntza eta Gizarte*. Gasteiz: Eusko Jaurlaritzza.
- AZURMENDI, Maria-Jose. 1990. "La juventud vasca en relación con el euskera". In ELZO, Javier. *Jóvenes Vascos 1990*: 449-510. Gasteiz: Eusko Jaurlaritzza.
- AZURMENDI, Maria-Jose. 1990. "Los jóvenes vascos en relación con el euskara". In ELZO, Javier (zuz.). *Jóvenes vascos. Informe sociológico sobre comportamientos, actitudes y valores de la juventud vasca actual y de su evolución en los últimos cuatro años*. Gasteiz: Eusko Jaurlaritzza.
- AZURMENDI, Maria-Jose, 1995. "Identidad etnosocial y vitalidad etnolingüística". In SÁNCHEZ, J. C.; ULLÁN, A. M. (arg.). *Procesos psicosociales básicos y grupales* (V Congreso de Psicología Social). Salamanca: Eudema.
- AZURMENDI, Maria-Jose. 1999. *Psicosociolingüística*. Leioa: UPV-EHU.
- AZURMENDI, Maria-Jose. 2008. "Euskara erabiltzearen erraztasunaren/zailtasunaren eragin emozionala eta horren ondorioak". *Uztaro* 64.
- AZURMENDI, Maria-Jose; LUQUE, Janire. 2006. "D-eredu goiztiarra ikasbide orekatuena". *BAT Soziolingüistika aldizkaria* 60.
- BACHOC, Erramun. 2008. *Euskararen egoera Ipar Euskal Herrian*. Euskararen Erakunde Publikoak eskutako azterketa lana. Argitaratu gabea.
- BAGGIONI, Daniel. 1997. *Langues et nations en Europe*. Paris: Payot & Rivages.
- BAKER, Colin. 1992. *Attitudes an language*. Clevedon; Philadelphia; Adelaide: Multilingual Matters.
- BAKKER, Peter; BILBAO, Gidor; DEEN, Nicolaas Gerard Hendrik; HUALDE, Jose Ignacio. 1991. *Basque pidgins in Iceland and Canada*. Donostia: Gipuzkoako Foru Aldundia.
- BALLUERKA, Nekane; GOROSTIAGA, Arantxa. 2005. "Lehen eta bigarren hizkuntzen ulermen eta adierazpen idatzian eragiten duten faktoreak Euskal Herriko ikasle elebidunengan". *BAT Soziolingüistika aldizkaria* 56.
- BAÑERES, J. 1987. "Aspectes legals i administratius de l'eslovè en el marc del pluralisme igualitari iugoslau". *Revista de Llengua i Dret* 10: 83-116.
- BARANDIARAN, Xabier. 2002. *Gazteak eta politika*. Gasteiz: Eusko Jaurlaritzza.
- BARON, Robert A.; BYRNE, Donn. 1998. *Psicología social*. Madril: Prentice Hall Iberia.
- BARREÑA, Andoni; IDIAZABAL, Itziar; JUARISTI, Patxi; URANGA, Belen. 2003. "Munduko hizkuntzei buruzko txostenaren inguruko zenbait jakingarri". *BAT Soziolingüistika aldizkaria* 46.
- BARRUTIA, Eneko. 1996. *Bermeo eta Mundakako arrantzaleen hiztegia*. Bilbo: Udako Euskal Unibertsitatea.

- BASTARDAS I BOADA, Albert. 2000. "De la 'normalització' a la 'diversitat' lingüística: cap a un enfocament global del contacte de llengües". *Revista de llengua i dret* 34: 151-168.
- BASTARDAS I BOADA, Albert. 2009. "Vint-i-cinc anys de política i planificació lingüístiques". *Revista de llengua i dret* 51: 125-132.
- BASTERRETXE, Iziar. 1987. *Eskolatik euskara: euskararekiko jarrerak Bizkaiko OHoko 8. Mailakoen artean*. Bilbo: Deustuko Unibertsitatea, doktore-tesia, micro film 80.
- BAXOK, Erramun; ETXEGOIN, Pantxoa; LEKUNBERRI, Terexa; MARTÍNEZ DE LUNA, Iñaki; MENDIZABAL, Larraitz; AHEDO, Igor; ITZAINA, Xabier; JIMENO, Roldan 2006. *Euskal nortasuna eta kultura XXI. Mendearen hasieran*. Donostia: Eusko Ikaskuntza.
- BEACCO, Jean Claude. 2001. "Les idéologies linguistiques et le plurilinguisme". *Le français dans le monde* 314.
- BELOKI, Leire, IDIAZABAL, Itziar, MANTEROLA, Ibon. 2005. "Bost urteko haur elebidunen euskarazko ipuin-kontaktak". *BAT Soziolinguistika aldizkaria* 56.
- BENTON, Richard; BENTON, Nena. 2001. "RLS in Aotearoa/New Zealand 1989-1999". In FISHMAN, Joshua (arg.). *Can threatened languages be saved? Reversing Language Shift revisited: a 21st century perspective*. Clevedon: Multilingual Matters.
- BERRIO-OTXOA, Kontxesi. 2000. "Gaztetxoak eta hizkuntz gaitasuna, erabilera, iritziak eta hautapena". In MARTÍNEZ DE LUNA, I. eta BERRIO-OTXOA, K. (zuz.). *Etorkizuna Aurreikusten 99: Gaztetxoak eta euskara: 97-206*. Gasteiz: Martínez de Luna (arg.).
- BERRUTO, Gaetano. 1998. *Fondamenti di sociolinguistica*. Roma: Laterza
- BLOOMFIELD, Leonard. 1926. "A set of postulates for the science of language". *Language* 2. 153-164. or.
- BLOOMFIELD, Leonard. 1933. *Language*. New York: Holt, Rinehart and Winston.
- BLOOMFIELD, Leonard. 1968 [1933] *Language*. New York: Holt, Rinehart and Winston / *El lenguaje*. México: Universidad Autónoma de México.
- BOIX I FUSTER, Emili eta VILA I MORENO, F. Xavier. 1998. *Sociolingüística de la llengua catalana*. Bartzelona: Ariel.
- BOIX, Emili; VILA, F. Xavier. 1998. *Sociolingüística de la llengua catalana*. Bartzelona: Ariel.
- BOURDIEU, Pierre. 1982. *Ce que parler veut dire. L'économie des échanges linguistiques*. Paris: Fayard.
- BOURDIEU, Pierre. 1994. *Raisons pratiques*. Paris: Seuil.
- BOURDIEU, Pierre eta BOLTANSKI, Luc. 1975. "Le fétichisme de la langue". *Actes de la recherche en sciences sociales* 2-3, 2: 4-73.
- BOURHIS, R.Y.; GILES, H. eta ROSENTHAL, D. 1981. "Notes on the construction of a subjective vitality questionnaire for ethnolinguistic groups". *Journal of Multilingual and Multicultural Development* 2: 145-155.
- BOURHIS, Richard Y.; LANDRY, Rodrigue. 2008. "Hizkuntza-gutxiengoen talde-bizindarra, kultura-autonomia eta ongizatea". *BAT Soziolinguistika aldizkaria* 67: 79-102.
- BOYER, Henri. 1996. *Sociolinguistique: territoire et objets*. Paris: Delachaux et Niestlé.

- BOYER, Henri. 2000. "Ni concurrence, ni déviance : l'unilinguisme français dans ses œuvres". *Lengas* 48, 89-102. or. Montpellier: Presse Universitaire Paul Valéry
- BOYER, Henri. 2001. *Introduction à la sociolinguistique*. Paris: Dunod.
- BRANCA-ROSOFF, Sonia. 1996. "Les imaginaires des langues". In Boyer, Henri (arg.) *Sociolinguistique: territoire et objets*: 79-114. Paris: Delachaux et Niestlé.
- BRIGHT, William. 1966. *Sociolinguistics: proceedings of the UCLA Sociolinguistics Conference, 1964*. Los Angeles: University of California.
- BRONCKART, J.P. 2004. *Actividad verbal, textos y discursos: Por un interaccionismo socio-discursivo*. Madrid: Fundación Infancia y Aprendizaje.
- CALERO, M<sup>a</sup> Ángeles. 2007. *Percepción social de los sexolectos*. Cadiz: UCA, Universidad de Cádiz.
- CALVET, Louis-Jean. 1999 [1987]. *La guerre des langues et les politiques linguistiques*. Paris: Payot (Hachette).
- CALVET, Louis-Jean. 1999. *Pour une écologie des langues du monde*. Paris: Plon.
- CALVET, Louis-Jean. 2002. *Le marché aux langues Les effets linguistiques de la mondialisation*. Paris: Plon.
- CAMINO, Iñaki. 2005. "Euskal soziolinguistikaren atarian". In ETXEBERRIA, Pilartxo; KNÖRR, Henrike. *Nerekin yaio nun: Txilladegiri omenaldia*. Bilbo: UPV-EHU; Euskaltzaindia.
- CAMINO, Iñaki. 2009. *Dialektologiatik euskalkietara tradizioan gaindi*. Donostia: Elkar.
- CASTAÑEDA, Koldo. 2002. "Ba Euskarari Akordioaren plan estrategikoa: gizartean eragiteko esperientzia". *BAT Soziolinguistika aldizkaria* 45: 85-88.
- CENTRO DE INVESTIGACIONES SOCIOLOGICAS. 1994. *Conocimiento y uso de las lenguas en España*. Madrid: CIS.
- CENTRO DE INVESTIGACIONES SOCIOLOGICAS. 1998. *Uso de las lenguas en comunidades bilingües. País Vasco. Estudio n<sup>o</sup> 2. 296*. Madrid: CIS.
- CENTRO DE INVESTIGACIONES SOCIOLOGICAS. 1999. *Conocimiento y uso de las lenguas*, Madrid: CIS.
- CHOMSKY, Noam. 1957. *Syntactic structures*. Paris: The Hague / 1970. *Aspectos de la teoría de la sintaxis*. Madrid: Aguilar.
- CHOMSKY, Noam. 1965. *Aspects of the theory of syntax*. Cambridge: MIT Press.
- COOPER, Robert L. 1989. *Language planning and social change*. Cambridge: Cambridge University Press / 1997. *La planificación lingüística y el cambio social*. Cambridge: Cambridge University Press.
- COOPER, Robert L; FISHMAN, Joshua. 1974. "Language attitudes, I". *International Journal of the Sociology of Language* 3.
- CORBEIL, J.C. 1983. "Éléments d'une théorie de la régulation linguistique". In BEDARD, E. eta MAURIS, J. (arg.) *La norme linguistique*. Quebec: Conseil de la langue française.
- CORCUERA, Javier. 1979. *Orígenes, ideología y organización del nacionalismo vasco (1876- 1904)*. Madrid: Siglo XXI.
- CORTÉS ALONSO, Angel. 2002. *Lingüística*. Madrid: Cátedra.
- COULMAS, Florian. 2005. *Sociolinguistics; The study of speakers' choice*. New York: Cambridge University Press.

- COUPLAND, Nikolas; JAWORSKI, Adam (arg.). *Sociolinguistics. Critical concepts in linguistics*. VI liburuki. New York: Routledge.
- CRYSTAL, David. 2000. *La muerte de las lenguas*. Cambridge: Cambridge University Press.
- CRYSTAL, David. 2007. *Hizkuntzen iraultza*. Donostia: Erein.
- CURRIE, H.C. 1952. "A projection of sociolinguistics: The relationship of speech to social status". *Southern Speech Journal*.
- Del VALLE, Teresa. 1988. *Korrika. Rituales de la lengua en el espacio*. Bartzelona: Anthropos.
- DIEZ DE RADA, Angel; VELASCO, Honorio. 2006. *La lógica de la investigación etnográfica*. Madril: Editorial Trotta.
- DÖRNYEI, Zoltan. 1994. "Understanding L2 motivation: on with the challenge!". *The Modern Language Journal* 78/iv: 515-523.
- DURANTI, Alessandro. 2000. *Antropología lingüística*. Madril: Cambridge.
- ECKERT, P. eta MCCONNELL-GINET, S. 1999. "New generalizations and explanations in language and gender research". *Language in Society* 28(2): 185-201.
- EGIZABAL, Diego; HUEGUN, Axier eta JAUREGI, Pello. 2004. "Kuadrillategi egitasmoa". *BAT Soziolinguistika aldizkaria* 53: 103-111.
- EKB, 1999. "EKBren 16 urteko lanaren memoria". *BAT Soziolinguistika aldizkaria* 31.
- ERIZE, Xabier. 1997. *Nafarroako euskararen historia soziolinguistikoa (1863-1936)*. Iruñea: Nafarroako Gobernua.
- ERIZE, Xabier, 2008 (argitaratu gabe). "Bizitasun etnolinguistikoa". In ZALBIDE, Mikel; ERIZE, Xabier. "Hizkuntza gutxituen berreskurapenerako hainbat hurbilpen teoriko": 107-128. In *HIZNET, Hizkuntza Plangintza Ikastaroa*. 2008-2009 ikasturtea. Asmoz fundazioa, Eusko Ikaskuntza.
- ERRIONDO, Lore; ISASI, Xabier; RODRIGUEZ, Fito. 1993. *Hizkuntza, hezkuntza eta elebiduntasuna. Hizkuntzen arteko ukipen egoeraren teoria eta metodologia Aplikatua*. Bilbo: Udako Euskal Unibertsitatea.
- ESNAOLA, Imanol. 1999. *Gazte euskaldunen lagun arteko hizkera hemen eta orain*. Bilbo: UEU.
- ESNAOLA, Imanol; ODRIOZOLA, Joxe Manuel. 2000. "Iñaki Larrañagarekin elkarrizketa". *BAT Soziolinguistika aldizkaria* 35.
- ETXABURU, Mikel. 2006 (argitaratu gabe). *Ondarruko arrantzaleen lexiko eta toponimia*. Tesi argitaragabea.
- ETXEBARRIA, Ainhoa. 2002. *Euskararen presentzia eta ausentzien diagnostikoa*. Gernika: Gernikako Udala.
- ETXEBARRIA, Maitena. 1995. *El Bilingüismo en el estado español*. Bilbo: FBV.
- ETXEBARRIA, Maitena. 2000. *Principios y fundamentos de sociolingüística*. Bilbo: UPV-EHU.
- ETXEBARRIA, Maitena. 2002. "Sobre variación lingüística". *ASJU* 44: 199-230.
- ETXEBARRIA, Maitena. 2002. *Sobre variación lingüística*. Gasteiz: UPV-EHU.
- ETXEGOIEN, Juan Carlos "Xamar". 2001. *Orekan. Herri eta hizkuntzen ekologiak*. Iruñea: Pamiela.
- ETXEGOIEN, Juan Carlos "Xamar". 2006. *Euskara Jendea. Gure hizkuntzaren historia, gure historiaren hizkuntza*. Iruñea: Pamiela.

- ETXEPARE, Ricardo; IRURTZUN, Aritz. 2007. "Noam Chosky: gramatikaren teoria eta hizkuntzaren filosofia". *Gogoia VII-1*: 21-84.
- EUROPAKO BATZORDEA (COMISION EUROPEA) 1996. *Euromosaic, producción y reproducción de los grupos lingüísticos minoritarios de la Unión Europea*. Luxemburgo: Oficina de Publicaciones Oficiales de las Comunidades Europeas.
- EUROPAKO KONTSEILUA. 2001. *Hizkuntzen ikaskuntza, irakaskuntza eta ebaluaziorako Europako Erreferentzi Marko Bateratua*. HABEk euskaratua. Strasbourg: Europako Kontseilua.
- EUROPAKO KONTSEILUA. 2005. *Europako Erreferentzia Markoa*. HABE; Eusko Jaurlaritza.
- EUSKAL HERRIKO IKASTOLEN KONFEDERAZIOA. 2009. *Ikastolen Hizkuntz Proiektua*. Zamudio: Euskal Herriko Ikastolen Konfederazioa.
- EUSKALTZAINDIA. 1986. *Maileguzko hitz berriei buruz Euskaltzaindiaren erabakiak*. Bilbo: Euskaltzaindia.
- EUSKO JAURLARITZA. 1989. *Soziolingüistikazko mapa 1986. Urteko eroldaren arabera Euskal Autonomi Elkarte azterketa demolingüistikoa*. Gasteiz: Eusko Jaurlaritza.
- EUSKO JAURLARITZA. 1999. *Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia*. Gasteiz: Eusko Jaurlaritza.
- EUSKO JAURLARITZA. 2003. *Euskal Herriko soziolingüistikazko inkesta 2001. Euskararen Jarraipena III*. Gasteiz: Eusko Jaurlaritza.
- EUSKO JAURLARITZA. 2005. *Euskararen erabilera eta transmisioa. Donostiako Santo Tomas Lizeoko ikasle ohien adibidea*. Gasteiz: Eusko Jaurlaritza.
- EUSKO JAURLARITZA. 2005. *Euskararen erabilera eta transmisioa. Olabide ikastolako ikasle ohien adibidea*. Gasteiz: Eusko Jaurlaritza.
- EUSKO JAURLARITZA. 2008. *IV. inkesta soziolingüistikoa 2006*. Gasteiz: Eusko Jaurlaritza.
- EUSKO JAURLARITZA. 2009. *53/2009 Dekretua, martxoaren 3koa, Bikain-Hizkuntza Konpromisoaren Zigilua eta Euskararen Kalitate Ziurtagiria arautzen dituena*. Gasteiz: Eusko Jaurlaritza.
- EUSKO JAURLARITZA. 2009. *XXI mende hasierarako hizkuntza politikaren oinarriak. Itun berri baterantz*. Gasteiz: Eusko Jaurlaritza.
- EUSKO JAURLARITZA; NAFARROAKO GOBERNUA. 1995. *Euskararen jarraipena I*. Gasteiz: Eusko Jaurlaritza; Nafarroako Gobernu.
- EUSKO JAURLARITZA; NAFARROAKO GOBERNUA; EKE. 1997. *Euskal Herriko soziolingüistikazko inkesta 1996. Euskararen Jarraipena II*. Gasteiz: Eusko Jaurlaritza; Nafarroako Gobernu; EKE.
- EZAGUTZAREN KLUSTERRA. 2005. *Euskara enpresaren kudeaketan*. Zamudio: Ezagutzaren Clusterra.
- EZENARRO, Amaia. 2008. "Etxebarría eta Bolibarko bariazio linguistikoa". *Uztaro* 67: 59-84.
- FALCÓN, Xabier. 1992. "Dialektologia eta linguistika teoriak". *IKER* 7: 53-68.
- FASOLD, Ralph. 1984. *The sociolinguistics of society*. Oxford: Blackwell.
- FASOLD, Ralph. 1996. *La sociolingüística de la sociedad. Introducción a la sociolingüística*. Madrid: Visor.
- FERGUSON, Charles A. 1959. "Diglossia". *Word* 15: 325-340.
- FINEGAN, Edward; BIBER, Douglas. 1994. "Register and social dialect variation: an integrated approach".

In *Sociolinguistic perspectives on register*: Oxford: Oxford University Press.

- FISHMAN, Joshua A. 1967. "Bilingualism with and without diglossia: Diglossia with and without bilingualism". *Journal of Social Issues* 23-2: 29-38.
- FISHMAN, Joshua A. 1972. *The sociology of language. An interdisciplinary social science approach to language in society*. Rowley (Massachusetts): Newbury House Publishers / 1988. *Sociología del lenguaje*. Madrid: Cátedra.
- FISHMAN, Joshua 1974. "Attitudes towards object as predictors of single and multiple behavioral criteria". *Psychological Review* 81.
- FISHMAN, Joshua A. 1991. *Reversing Language Shift. Theoretical and empirical foundations of assistance to threatened languages*. Clevedon: Multilingual Matters.
- FISHMAN, Joshua A. 1997 [1991]. *Reversing Language Shift. Theoretical and empirical foundations of assistance to threatened languages*. Clevedon, Philadelphia, Adelaide: Multilingual Matters.
- FISHMAN, Joshua A. 2000 [1965]. "Who speaks what language to whom and when?". In Wei, L. (arg.) *The Bilingualism Reader*: 89-106. London, New York, Holt: Routledge.
- FISHMAN, Joshua A. (arg.) 2001. *Can threatened languages be saved? Reversing Language Shift, revisited: a 21<sup>st</sup> century perspective*. Clevedon: Multilingual Matters.
- FISHMAN, Joshua A. 2006a. *Do not leave your language alone. The hidden status agendas within corpus planning in language policy*. Mahwah: Lawrence Erlbaum Associates.
- FISHMAN, Joshua A. 2006b. "Language policy and language shift". In RICENTO, Thomas (arg.). *An introduction to language policy. Theory and method*. Oxford: Blackwell.
- FIZ, Benito. 2007. "Ikasgelatik plazara: hizkuntzaren normalizazioari helduen euskalduntzetik heldu nahian" *BAT Soziolinguistika aldizkaria* 62.
- GABINETE DE PROSPECCIÓN SOCIOLÓGICA (José I. Ruiz de Olabuénaga). 1983. *La lucha del euskera*. Gasteiz: Eusko Jauraritza.
- GAMINDE, Iñaki. 2007. "Gor euskaldun baten soinu ezaugarriez (I)". *Ikastorratza, e-Revista de didáctica* 1.
- GAMINDE, Iñaki. 2009. "Hiztunen generoaren eta adinaren pertzepzioaz". *BAT Soziolinguistika aldizkaria* 71.
- GAO. 1990
- GARATE, Gotzon. 1988. *Erderakadak*. Bilbo: Mensajero.
- GARCÍA MARCOS, Francisco. 1993. *Nociones de sociolingüística*. Barcelona: Octaedro.
- GARCIA, Iñaki. 2000. *Euskararen erabileran eragiten duten prozesu psikosozialak: identitate etnolinguistikoaren garrantzia*. Leioa: UPV-EHU (dokto-re-tesia).
- GARCIA, Iñaki. 2004. "Euskararen erabilera azaltzeko eredu psikosoziala". *BAT Soziolinguistika aldizkaria* 53.
- GARCÍA, Ofelia; PELTZ, Rakhmiel; SCHIFFMAN, Harold, 2006. *Language loyalty, continuity and change: Joshua A. Fishman's contributions to international sociolinguistics*. Clevedon: Multilingual Matters.
- GARDNER, R. C.; LAMBERT, W. E. 1972. *Attitudes and motivation in second language learning*. Rowley, MA: Newbury House.



- GARDNER, Robert C. 1985. *Social psychology and second language learning: The role of attitudes and motivation*. London: Edward Arnold.
- GARDNER, Robert C.; LAMBERT, Wallace E. 1959. "Motivational variables in second language acquisition". *Canadian Journal of Psychology* 13.
- GARMENDIA, Larraitz. 2001 (argitaratu gabe). *Soziolinguistikaren inguruko hainbat kezka: metodoen ezaguerara*. 2001eko ikergaitasun-lan argitaratu gabea.
- GILES, H., BOURHIS, R.Y. eta TAYLOR, D.M. 1977. "Towards a theory of language in ethnic relations". In: GILES, H. (arg.) *Language, Ethnicity and Intergroup Relations*. London: Academic Press.
- GILES, H.; JOHNSON, P. 1987. "Ethnolinguistic identity theory: a social psychological approach to language maintenance". *International Journal of the Sociology of Language* 68: 69-99.
- GIMENO, Francisco. 1983. *Hacia una sociolingüística histórica*. Alicante: Universidad de Alicante.
- GOENAGA, Patxi. 1980. *Gramatika bideetan*. Donostia: Erein.
- GOIKOETXEA, Nekane 1997. *Deba: gazteak eta euskara*. Deba: Debako Udala.
- GOIKOETXEA, Nekane. 1997. "Gazteak eta euskararen erabilera urria. Debako kasua". *HIZPIDE* 38: 3-19.
- GOIKOETXEA, Nekane. 1997. *Gazteak eta euskara*. Deba: Debako Udala.
- GRIN, François. 2006. "Economic considerations in language policy". In RICENTO, Thomas (arg.). *An introduction to language policy. Theory and method*. Oxford: Blackwell.
- GUERRERO, Àngels eta SANZ, Viqui. 2008. "Voluntariat per la llengua. Un programa que creix". *Llengua i ús* 40: 8-15.
- GUMPERZ, John. 1971. *Language in social groups*. Stanford: Stanford University Press.
- GUMPERZ, John; HYMES, Dell H. 1972. *Directions in sociolinguistics: the ethnography of communication*. New York; London: Holt, Rinehart and Winston.
- GUTIERREZ, Rober. 2008 (argitaratu gabe). "Bai Euskarari Akordioaren prozesua eta Bai Euskarari Ziurtagiria: gizartearen eragiteko esperientziak". In *HIZNET Hizkuntza Plangintza Ikastaroa. 2008-2009 ikasturtea*. Asmoz Fundazioa, Eusko Ikaskuntza.
- HABE, 1999. *Helduen euskalduntzearen oinarritzko kurrikulua*. Donostia: HABE.
- HABE, 2005. *Ikaskuntza irakaskuntza eta ebaluaziorako europako erreferentzia markoa*. Donostia: HABE.
- HADDICAN, Bill. 2005. "Standardization, functional shift and language change in Basque". *Estudios de Sociolingüística. Linguas, sociedades e culturas* 6 (1). Vigo: Vigoko Unibertsitatea.
- HADDICAN, Bill F. 2005. *Aspects of language variation and change in contemporary Basque*. Doktorego tesia. New York University.
- HAGÈGE, Claude (2000). *Halte à la mort des langues*. Paris: Odile Jacobs.
- HALLIDAY, Michael. 1970. "Estructura y funcionamiento del lenguaje". *Lyons, J. Nuevos horizontes de la lingüística*: 145-173.
- HAUGEN, Einar. 1959. "Planning for a standard language in modern Norway". *Anthropological linguistics* 1/3: 8-21.



- HAUGEN, Einar. 1983. "The implementation of corpus planning: theory and practice". In COBARRUBIAS, J.; FISHMAN, J.A. (arg.) *Progress in language planning*. Berlin: Mouton.
- HERNÁNDEZ CAMPOY, Juan Manuel. 1993. "Dialectología tradicional, sociolingüística laboviana y geolingüística trudgilliana: tres aproximaciones al estudio de la variación". *ELUA. Estudios de Lingüística* 9: 151-181.
- HERNÁNDEZ GARCÍA, Jone Miren. 2000. "Gaztetxoek hizkuntzekiko diskurtsoak eta bizipenak". In MARTÍNEZ DE LUNA, Iñaki; BERRIO-OTXOA, Kontxesi (zuz.) *Etorrizuna aurrekusten 99: euskal Herriko gaztetxoak eta euskara*. Lasarte-Oria: I. Martínez de Luna.
- HERNÁNDEZ, M. Rosario. 1990. "Variacionismo y adquisición de una segunda lengua: estudio de una comunidad francófona". *ELUA. Estudios de Lingüística* 6: 183-206.
- HOCKETT, Charles F. 1960. "The origin of speech". *Scientific American* 203.
- HOLM, John. 2004. *Languages in contact. The partial restructuring of vernaculars*. Cambridge: Cambridge University Press.
- HOUEBINE, Anne-Marie. 1982. "Norme et imaginaire linguistique". *Le Français moderne* 50: 42-51.
- HOUEBINE, Anne-Marie. 2002. *L'imaginaire linguistique*. Paris: l'Harmattan.
- HUDSON, Richard A. 1981. *La sociolingüística*. Bartzelona: Anagrama.
- HYMES, Dell. 1971. "On communicative competence". in PRIDE, J. B.; HOLMES, Janet (arg.). *Sociolinguistics: Selected readings*. Harmondsworth: Penguin / LLOBERA Miquel (koord.). 1995. "Acerca de la competencia comunicativa". In *Competencia comunicativa*: 27-46.
- IBARRA, Orreaga. 2009. Elkarriketa. *Euskonews-gaztea* 101.
- IBARRA, Orreaga; LOPEZ, J.K. 2009. "Gazte hizkerari buruzko ohar batzuk". *Euskonews* 498.
- INTXAUSTI, Joseba. 1990. *Euskara. Euskaldunon hizkuntza*. Gasteiz: Eusko Jaurilaritza.
- INTXAUSTI, Joseba. 1998. *Hizkuntzen aldeko mugimendu sozialak*. Leioa: UPV-EHU.
- IRAOLA, Josune. 2004. "Familia barruko hizkuntza transmisioa soziolingüistikoki konplexuak eta anitzak diren hizkuntza komunitateetan: Pasaia". *BAT Soziolingüistika aldizkaria* 53.
- IRAOLA, Joxe Mari. 1994. *Euskara eta gazteak Lasarte-Orian. Hizkuntz jokaerak*. Lasarte-Oria: Lasarte-Oriako Udala.
- IRIZAR, Pedro. 1973. *Los dialectos y variedades de la lengua vasca: estudio lingüístico-demográfico*. Donostia: Real Sociedad Vascongada de los Amigos del País.
- IRIZAR, Pedro. 1981. *Contribución a la dialectología de la lengua vasca*. Donostia: Gipuzkoako Aurrezki Kutxa Probintziala.
- ISASI, Xabier; ERRIONDO, Lore. 2009. *Mintzagrama. Erabilera, analisiak eta interpretazioak*. UEU.
- JAKOBSON, Roman. 1963 [1960]. "Linguistique et poétique" (Closing statements: Linguistics and Poetics). In *Essais de linguistique générale*: 209-248. Paris: Editions de Minuit.
- JÄRLEHED, Johan. 2008. *Lengua e identidad en los textos multimodales de promoción del euskara, 1970-2001*. Göteborg: Göteborgs Universitet.
- JAUREGI, Pello; SUBERBIOLA, Pablo. 2009. "Hizkuntza aldaketa bikoteen harremanetan: ikuspegi teorikoa eta ikerketaren ondorioak". *BAT Soziolingüistika aldizkaria* 71: 177-191.

- JASORO, Nekane. 1997. *La práctica discursiva y el interdiscurso. Una propuesta metodológica para la investigación social del euskera*. Leioa: UPV-EHU.
- JASORO, Nekane. 2000. "Soziolinguistika akademikoa". *BAT Soziolinguistika aldizkaria* 37.
- JASORO, Nekane; MARTÍNEZ DE LUNA, Iñaki; DÁVILA, Andrés. 1998. "Gazte donostiarren hizkuntze-kiko harremanak". *BAT Soziolinguistika aldizkaria* 27: 51-81.
- JASORO, Nekane; MARTINEZ DE LUNA, Iñaki (argitaratu gabe). *Euskarazko gizarte sareak hiriguneetan*.
- JIMENO JURIO, José María. 1997. *Navarra. Historia del euskera*. Tafalla: Txalaparta.
- JOLY, Lionel. 2002. "Approche démolinguistique du Pays Basque". *Lengas, Revue de Sociolinguistique* 52: 119-150.
- JOLY, Lionel. 2004. "La cause basque et l'euskera". In *Mots, les langages du politique*. Lyons: ENS éditions.
- JOLY, Lionel. 2004. *Étude sociolinguistique du Pays Basque*. Paris: Sorbonne (doktore-tesia).
- JOLY, Lionel. 2009. "Erlatibismo linguistikoa". *Jakin*.
- JUARISTI, Patxi. 2003. *Gizarte ikerketarako teknikak*. Bilbo: UPV-EHU.
- KLOSS, Heinz. 1969. *Research possibilities on group bilingualism: a report*. Quebec: Université Laval. Centre International de Recherches sur le Bilinguisme.
- KREMNITZ, Georg. 2003. "Le concept de 'conflit linguistique'". *Lengas* 54: 7-22.
- KRUTWIG, Federico. 1963. *Vasconia. Estudio dialéctico de una nacionalidad*. Buenos Aires.
- LABOV, William. 1972. *Sociolinguistic patterns*. Philadelphia: University of Pennsylvania.
- LAMUELA, Xavier. 1994. *Estandardització i establiment de les llengües*. Bartzelona: Edicions 62.
- LAPESA, Rafael. 1991 [1942]. *Historia de la lengua española*. Madril: Gredos.
- LAPIERRE, Richard. 1934. "Attitudes vs. actions". *Social Forces* 13.
- LARRAÑAGA, Iñaki. 1987. "Euskal soziolinguistikaren egoera eta bide berriak". *Jakin* 42/43: 7-29.
- LARRAÑAGA, Nekane. 1996. *Euskararekiko jarrerak eta jokabideak. Euskalerriko gaztetxoek euskararekiko dituzten jarrerak eta beren eragina euskara ikasi eta erabiltzean*. Bilbo: Deustuko Unibertsitatea (doktore-tesia).
- LARRAÑAGA, Nekane. 2000. "Jarrerak eta jokabideak euskararen etorkizunari begira". In I. MARTÍNEZ DE LUNA, K. BERRIO-OTXOA (zuz.). 2000. *Etorkizuna aurreikusten 99: Euskal Herriko gaztetxoak eta euskara*. Lasarte-Oria: I. Martínez de Luna.
- LARRAÑAGA, Nekane. 2003. "Euskal gaztetxoek jarrerak euskararen etorkizuna aurreratu". *BAT Soziolinguistika aldizkaria* 47.
- LARREA, Txema. 1983. "Soziolinguistikaz Euskal Herrian". *Zutabe* 3: 130-140.
- LASAGABASTER, David. 2003. *Trilingüismo en la enseñanza. Actitudes hacia la lengua minoritaria, la mayoritaria y la extranjera*. Lleida: Milenio.
- LASTRA, Yolanda. 1992. *Sociolingüística para hispanoamericanos. Una introducción*. México D.F.: El colegio de México.

- LEZETA, Marije; SAN MARTIN, Elena. 1991. *Giro urbanoko gazteak eta euskera: Deba bailarako gazteen irizkiak gazteek interpretatuta*. Bilbo: UEU.
- LÓPEZ MORALES, Humberto. 1993 [1989]. *Sociolingüística*. Madril: Gredos.
- MACAULAY, Ronald K.S. 1991. *Locating dialect in discourse*. Oxford: Oxford University Press.
- MACKEY, William. 1972. *Bilingual education in a binational school: A study of equal language maintenance through free alternation*. Rowley: Newbury House.
- MACKEY, William. 1976. *Bilinguisme et contact des langues*. Paris: Klincksieck.
- MADARIAGA ORBEA, Juan. 2008. *Apologistas y detractores de la lengua vasca*. Donostia: Euskal Herriko Zuzenbide Historiko eta Autonomikoa Aztertzeo Fundazioa.
- MARKO, J. Ignazio. 1996. "Hizkuntzaren normalizaziorako mikroplangintza proiektua". *BAT Soziolinguistika aldizkaria* 20-21.
- MARKO, J. Ignazio. 2000. "Hizkuntza prozesuen ingeniari-tza. Disziplina zientifiko berria eraikitzen, organizazioetan hizkuntzaren eraldatzeko. LAB sindikatua". *BAT Soziolinguistika aldizkaria* 34.
- MARKO, J. Inazio. 2001. *Hizkuntza normalizaziorako adierazle-sistema integralak eraikitzen. EusLab kasua: Gida-Panela Integrala*. V. Euskal Soziologia Kongresuan aurkeztutako komunikazioa. Bilbo, 2001eko martxoan.
- MARKO, J. Inazio. 2006 (argitaratu gabe). "Plangintzaren funts teoriko eta teknikoak". In *HIZNET, Hizkuntza Plangintza Ikastaroa. 2006-2007 ikasturtea*. Asmoz fundazioa, Eusko Ikaskuntza.
- MARKO, J. Inazio. 2008 (argitaratu gabe). "Plangintzaren funts teoriko eta teknikoak". In *HIZNET, Hizkuntza Plangintza Ikastaroa. 2006-2007 ikasturtea*. Asmoz fundazioa, Eusko Ikaskuntza.
- MARTEL, Philippe. 2001. "Autour de Villers-Cotterêts: histoire d'un débat", *Lengas* 49: 7-26.
- MARTÍ, Félix; ORTEGA, Paul; IDIAZABAL, Itziar; BARREÑA, Andoni; JUARISTI, Patxi; JUNYENT, Carme; URANGA, Belen, AMORRORTU, Estibaliz. 2005. *Hizkuntzen mundua. Munduko hizkuntzei buruzko txosten-a*. Bilbo: Unesco Etxea; Euskal Herriko Unibertsitatea.
- MARTÍNEZ de LUNA, Iñaki. 1995. "Etorkizuna aurreikusten: Euskal Autonomi Elkarte-ko gazterien egoera soziolinguistikoa". In *EUSKO JAURLARITZA. Euskara atzo eta gaur*. Gasteiz: Eusko Jaurlaritza (CD ROM).
- MARTÍNEZ DE LUNA, Iñaki. 1996. "Hizkuntzekiko motibazioen ekarpenak inguruneak ezarritako baldintzen aurrean". *BAT Soziolinguistika aldizkaria* 18: 39-52.
- MARTÍNEZ DE LUNA, Iñaki. 1998. "Universos simbólicos e identificación etnopolítica en su relación con el euskera y el castellano". In *URKULLU Iñigo (argitaratzailea), Nacionalismo vasco. Un proyecto de futuro con 100 años de historia. Cultura vasca y euskera, ejes de la identidad nacionalista*: 143-161. Bilbo: Fundación Sabino Arana.
- MARTÍNEZ DE LUNA, Iñaki. 2001. "Euskal Herriko gaztetxo- en hizkuntz egoera aztertze-ko eredu orokorraren proposamena". *BAT Soziolinguistika aldizkaria* 40.
- MARTÍNEZ DE LUNA, Iñaki. 2003. "Euskararen inguruko diskurtsoak eta disonantzia kognitiboa". *Jakin* 134.
- MARTÍNEZ DE LUNA, Iñaki; BERRIO-OTXOA, Kontxesi (zuz.). 2000. *Etorkizuna aurreikusten 99: Euskal Herriko gazte- toak eta euskara*. Lasarte-Oria: I. Martínez de Luna.

- MARTÍNEZ de LUNA, Iñaki; JAUSORO, Nekane. 1996. "Hizkuntzekiko motibazioen ekarpenak inguruneak ezarritako baldintzen aurrean". *BAT* 18: 39-52.
- MARTÍNEZ de LUNA, Iñaki; JAUSORO, Nekane. 1998. "Euskararekiko motibazio simbolikoak". In: INTXAUSTI, Joseba (editorea), *Euskararen aldeko motibazioak*: 69-136. Leioa: UPV-EHU.
- MARTÍNEZ DE LUNA, Iñaki; JAUSORO, Nekane. 1998. "Gazte Donostiarren hizkuntzarekiko harremanak". *BAT Soziolinguistika aldizkaria* 27.
- MARTÍNEZ DE LUNA, Iñaki; JAUSORO, Nekane; BERRIO-OTXOA, Kontxesi; IDIRIN, Ibon. 1998. "Gizarte sareak eta hizkuntzaren erabilera: euskarari eta gaztelaniari egokitutako hurbilketa". *BAT Soziolinguistika aldizkaria* 26.
- MATEO, Miren. 2002. "Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia, Eusko Jaurlaritzaren hizkuntza-politikaren adierazgarri". *BAT Soziolinguistika aldizkaria* 45: 105-117.
- McRAE, K.D. 1994. "El establecimiento de una política lingüística en sociedades plurilingües: cinco dimensiones cruciales". In BASTARDAS eta BOIX (zuz.) *¿Un estado una lengua? La organización política de la diversidad lingüística*. Barcelona: Octaedro.
- McROBERTS, Kenneth. 2003. "Per què els estats tenen polítiques lingüístiques: construcció d'estats i construcció de nacions". *Treballs de sociolingüística catalana* 17: 23-44.
- MILROY, Lesley; MARGRAIN, Sue. 1980. "Vernacular language loyalty and social network". *Language in Society* 9: 43-70.
- MILROY, Lesley. 1987. *Observing and analysing natural language*. Oxford: Blackwell.
- MILROY, Lesley; GORDON, Matthew. 2003. *Sociolinguistics. Method and interpretation*. Oxford: Blackwell.
- MITXELENA, Koldo. 1986 [1963]. *Lenguas y protolenguas*. Salamanca: Salamancako Unibertsitatea.
- MITXELENA, Koldo. 1988 [1960]. *Historia de la literatura vasca*. Donostia: Erein.
- MITXELENA, Koldo. 1990 [1961]. *Fonética histórica vasca*. Donostia: Gipuzkoako Foru Aldundia.
- MITXELENA, Koldo. 1987. *Orotariko euskal hiztegia (1987-2005)*. Bilbo: Euskaltzaindia.
- MOLLÀ, Toni. 2005 [2002]. *Manual de sociolingüística*. Alzira: Edicions Bromera.
- MORENO CABRERA, Juan Carlos. 1997. *Introducción a la lingüística. Enfoque tipológico y universal*. Madrid: Síntesis.
- MORENO FERNÁNDEZ, Francisco. 1998. *Principios de sociolingüística y sociología del lenguaje*. Barcelona: Ariel.
- NEKVAPIL, Jiri. 2006. "From language planning to language management". *Sociolinguistica* 20: 92-104.
- ODRIOZOLA, Jose Manuel. 1993. "Koldo Mitxelenaren ekarpena soziolinguistikaren arloan". *RIEV* 37.
- ODRIOZOLA, Jose Manuel. 1993. *Soziolinguistikaren atarian*. Bilbo: BBK; Euskaltzaindia.
- ODRIOZOLA, Joxe Manuel. 1997. "Udal euskaltegien komunikazio eta marketing-erako jarduera ildoak (CYP ikerketa taldea). Oinarritzko testuak". *BAT Soziolinguistika aldizkaria* 25.
- ODRIOZOLA, Joxe Manuel. 1998. *Hizkuntza, kultura eta gizartea*. Bilbo: Euskaltzaindia.
- OLASO, Olatz. 2008 (argitaratu gabe). "Ikuspegi soziologikoa eta gizarte psikologiarrena". In *HIZNET*,

- Hizkuntza Plangintza Ikastaroa*. 2008-2009 ikasturtea. Asmoz fundazioa, Eusko Ikaskuntza.
- OMAETXEBARRIA, Ignazio. 1952. "¿Esperanto o vascuence?". In *Cantabria franciscana*: 132-139. Arantzazu: Editorial franciscana Aranzazu.
- ORMAETXEA, J. L. 2008. "Otxandioko hizkera: adinaren araberako bariazioa". *FLV* 108: 249-262.
- OROZ, Nekane. 1999. "Euskararekiko jarrerak Nafarroan". *BAT Soziolinguistika aldizkaria* 32.
- ORTIZ ANZOLA, Garbiñe. 2008. *Hizkuntzaren erabilera emakumeen eta gizonen arteko harremanetan: eguneroko testuinguruak eta testuinguru judizialak*. Gasteiz: UPV-EHU; Emakunde.
- OTEGI, Maite. 2006. *Zergatik euskaraz. Goierriko euskaltegietao ikasleen motibazioak. Ikerketa psikosoziolinguistikoa*. Lazkao: Goierriko Euskal Eskola Kultur Elkarte.
- PATRICK, Peter L. 2009. "The speech community". In COUPLAND, Nikolas eta JAWORSKI, Adam (Editoreak) *Sociolinguistics Critical Concepts in Linguistics* (IV. alea): *Theoretical perspectives in sociolinguistics*: 245-267. New York: Routledge.
- PERALES, Josu. 1989. "Euskara-ikasleen motibazio eta jarrerak". *Zutabe* 21: 9-50.
- PERALES, Josu. 2001. "Gainbegirada bat hizkuntz jarrerei Euskal Herrian". *BAT Soziolinguistika aldizkaria* 40.
- PIRON, Claude. 1994. *Le défi des langues du gâchis au bon sens*. Paris: L'Harmattan.
- PLAZAOLA, Itziar; ALONSO, Maria Pilar. 2007. *Testuak, diskurtsoak eta generoak. Euskal testuen azterketa korrontea*. Donostia: Erein.
- PUJADAS, Joan Josep. 1992. "El método biográfico: el uso de las historias de vida en las ciencias sociales". *Cuadernos Metodológicos* 5. Madril: CIS.
- RAMPTON, Ben. 2009. "Speech community and beyond". In COUPLAND, Nikolas eta JAWORSKI, Adam (Editoreak) *Sociolinguistics Critical Concepts in Linguistics* (II. alea): *Subjective and ideological processes in sociolinguistics*: 299-317. New York: Routledge.
- RICENTO, Thomas (arg.). 2006. *An introduction to language policy: theory and method*. Oxford: Blackwell.
- ROBINS, R.H. 2000. *Breve historia de la lingüística*. Madril: Cátedra.
- RODRIGUEZ, José Ramón. 2005. "Merkataritza euskalduntzeko plangintzak: Txorierriren kasua". *BAT Soziolinguistika aldizkaria* 55.
- ROMAINE, Suzanne. 1996. *El Lenguaje en la sociedad: una introducción a la sociolingüística*. Bartzelona: Ariel.
- ROSSI-LANDI, Ferruccio. 1983. *Language as work and trade. A semiotic homology for linguistics and economics*. South Hadley: Bergin & Garvey.
- ROTAETXE, Karmele. 1988. *Sociolingüística*. Madril: Síntesis.
- RUIZ OLABUENAGA, José Ignacio; OZÁMIZ, J. Agustín (arg.). 1986. *Hizkuntza minorizatuen soziologia*. Donostia: Tarttalo.
- RUIZ OLABUENAGA, José Ignacio. 1990. "Observing and analyzing natural language". *BAT Soziolinguistika aldizkaria* 1: 85-86.
- SAINT-BLANCAT, Chantal. 1985. "The effect of minority group vitality upon its sociopsychological behaviour and strategies". *Journal of Multilingual and Multicultural Development* 6: 31-44.

- SÁNCHEZ CARRIÓN, José María “Txepetx”. 1972. *El estado actual del vascuence en la provincia de Navarra (1970)*. Iruñea: Vianako Printzea Erakundea, Nafarroako Gobernua.
- SÁNCHEZ CARRIÓN, José María “Txepetx”. 1980. *Lengua y pueblo*. Donostia: Elkar.
- SÁNCHEZ CARRIÓN, José María “Txepetx”. 1981. *El espacio bilingüe. Aspectos etnolingüísticos del bilingüismo y teoría lingüística de los espacios*. Burlata: Eusko Ikaskuntza.
- SÁNCHEZ CARRIÓN, José María “Txepetx”. 1987. *Un futuro para nuestro pasado: Claves de la recuperación del euskara y teoría social de las lenguas*. Donostia: egilearen argitalpena.
- SÁNCHEZ CARRIÓN, José María “Txepetx”. 1991. *Euskara Bilbon: azterketa soziolingüistikoaren laburpena*. Bilbo: Bilboko Udala.
- SÁNCHEZ CARRIÓN, José María “Txepetx”. 1999. *Aplicación sociolingüística de la territorialidad. Márgenes de encuentro, Bilbao y el euskara: sistemas modélicos de interpretación, modelos sistémicos de actuación*. Bilbo: Bilboko Udala.
- SAUSSURE, Ferdinand de. 1964 [1916]. *Curso de lingüística general*. Buenos Aires: Losada.
- SCHIFMAN, Harold. 2005. Problems with language and “ideologies”.
- SCHIFFMAN, Harold. 2006. Language policy and linguistic culture. In RICENTO, Thomas (arg.). *An introduction to language policy. Theory and method*. Oxford: Blackwell.
- SERRANO, Sebastia. 2002. *La lingüística, su historia y desarrollo*. Bartzelona: Montesinos.
- SIADeco, 1975. *Euskalerriko azterketa soziolingüistikoak. Gaur egungo egoera eta etorkizunerako plangintza*. Euskaltzaindia.
- SIADeco, 1977. *Euskararen azterketa soziolingüistikoak*. Euskaltzaindia.
- SIADeco, 1979. *Hizkuntz borroka Euskal Herrian*. Donostia: Ediciones Vascas.
- SIADeco, 1996. *Helduen euskalduntzea: eskaintza eta eskariaren egoera eta etorkizunerako aurreikuspenak*. Siadeco: Donostia.
- SIADeco, 1978. *Euskararen Liburu Zuria*. Bilbo: Euskaltzaindia.
- SIGUAN, Miquel. 1996. *La Europa de las lenguas*. Madril: Alianza.
- SIGUAN, Miguel. 2001. *Bilingüismo y lenguas en contacto*. Madril: Alianza.
- SIGUAN, Miquel; VILADOT, M. Angels. 1992. “Aproximación empírica a la Teoría de la Identidad Etnolingüística en el contexto catalán”. *Anuario de Psicología* 52: 79-93.
- SKINNER, B.F. 1981. *Conducta verbal*. México: Trillas.
- SOLE I CAMARDONS, Jordi. 1991. *Soziolingüistika gazteentzat*. UJU-EKB.
- SOZIOLINGÜISTIKA KLUSTERRA, EUSKARA ELKARTEEN TOPAGUNEA FEDERAZIOA, GIPUZKOA-KO URTXINTXA ESKOLA, EBETE. 2008. *Gazteen erabileraren perspektiba eta prospektiba. Ondorioak eta aurrera begirako ildoak*. I. Euskal Soziolingüistika Jardunaldiko txosten argitaragabea.
- SPOLSKY, Bernard. 1969. “Attitudinal aspect of second language learning”. *Language Learning* 19.
- STEWART, William. 1968. “A sociolinguistic typology for describing national multilingualism”. In FISHMAN, Joshua A. *Readings in the sociology of language*: 531-545. The Hague: Mouton.

- SUDUPE, Jon. 2009. [http://www.erabili.com/zer\\_berri/muinetik/1253788308](http://www.erabili.com/zer_berri/muinetik/1253788308)
- TABOURET-KELLER, Andrée. 1996. "Language and identity". In COULMAS, Florian (arg.) *The handbook of sociolinguistics*: 315-326. Oxford: Blackwell.
- TAJFEL, H eta TURNER, J. C. 1979. "An integrative theory of intergroup conflict". In W. G. AUSTIN; S. WORCHEL (arg.), *The Social Psychology of Intergroup Relations*. Monterey: Brooks-Cole.
- TALLER DE SOCIOLOGIA. 1999 (argitaratu gabe). *Euskararen unibertsoa Baztan, Malerreka eta Bortzirietan*. Argitaratu gabeko txostena.
- TAYLOR, S.J.; BOGDAN, R. 1992. *Introducción a los métodos cualitativos de investigación*. Bartzelona: Paidós.
- TEJERINA, Benjamin. 1992. *Nacionalismo y lengua. Los procesos de cambio lingüístico en el País Vasco*. Madril: CIS.
- TODOROV, Tzvetan. 1982. *La conquête de l'Amérique. La question de l'autre*. Paris: Seuil.
- TORREALDAI, Joan Mari. 1998. *El libro negro del euskera*. Donostia: Tartalo.
- TOVAR, Antonio. 1980. *Mitología e ideología de la lengua vasca*. Madril: Alianza.
- TUSÓN, Jesús. 1996. *Los prejuicios lingüísticos*. Bartzelona: Octaedro.
- UEU. 1991. *Hizkuntz normalkuntzarako ekinbideak udalerrri mailan*. Bilbo: EKB-UEU.
- UNANUE, Aitor. 2006. *Administrazioko atal elebidunetan langileen hizkuntza ohituretan eragiteko plana*. Lasarte-Oria: Lasarte-Oriako Udala, Euskara Batzordea.
- URANGA, Belen; AIERDI, Xabier; IDIAZABAL, Itziar; AMORRORTU, Estibaliz; BARREÑA, Andoni; ORTEGA, Ane. 2008. *Hizkuntzak eta Immigrazioa. Lenguas e Inmigración*. Bilbo: Ikuspegi, UNESCO Etxea.
- URDANGARIN, J. Mikel. 2003. "Hiru enpresatako erabilera-planen azterketa. Hizkuntza prozesuen ingeniartzaren bidetik". *BAT Soziolinguistika aldizkaria* 46.
- URGELL, Blanca. 2005. "Etimologia eta neologia Larramendiren Hiztegi Hirukoitzean". *Lapurdum* 9: 299-320.
- URKIZU, Patri. 2004. *Dianea & koplak*. Donostia: Erein.
- USARRALDE, Ibon; MARTÍNEZ DE LUNA, Iñaki. 2004. *Euskal hizkuntza komunitatearen bizindar etnolinguistikoa: Andoaingo, Arrasateko, Bergarako, Hernaniko eta Lasarte-Oriako Udalerrriak*. Andoain: Soziolinguistika Klusterra.
- UZEI; SOZIOLINGUISTIKA KLUSTERRA; HPS. 2009 (argitaratu gabe). *Soziolinguistika Hiztegia - Euskal Soziolinguistikaren eremuan erabiltzeko*. Lexikoa SL hiztegia 20090318-UZEI-SLK-HPS.doc.
- VALENCIA, J. F.; ISASI, Xabier. 1992. "Jarreretan konsistentziaren arazoa: jarera eta portaera arteko erlazioa". In VALENCIA, J.F. (arg.) *Psikologia sozialera hurbiltzeko zenbait gai*. Bilbo: UPV-EHU.
- VAN DIJK, T.A. 1993 [1980]. *Estructuras y funciones del discurso*. Madril: Siglo XXI.
- VAN DIJK, T.A. 1995 [1977]. *Texto y contexto*. Madril: Cátedra.
- VILA MENDIBURU, Ignasi; ALVAREZ DORRONSORO, Ignasi. 1992. "Nación: identidad y conflicto". *Mientras tanto* 52: 37-56.
- VILA MENDIBURU, Ignasi. 1998. *Familia, escuela, y comunidad*. Bartzelona: ICE-Horsori.



- VILLASANTE, Luis. 1951. "En torno al problema del vascuence". In *Cantabria franciscana* 8: 40-54. Arantzazu: Editorial franciscana Arantzazu.
- VILLASANTE, Luis. 1952. "Aclaraciones a "¿Esperanto o vascuence?"". In *Cantabria franciscana* 10. (VII liburuki): 55-66. Arantzazu: Editorial franciscana Arantzazu.
- WATZLAWICK, Paul. 1978. *La réalité de la réalité. Confusion, désinformation, communication*. Paris: Seuil.
- WEINRICH, Uriel. 1953 [1970]. *Languages in contact. Findings and problems*. The Hague, Paris: Mouton.
- WERLICH, Egon. 1975. *Typologie der texte*. Munich: Fink.
- WOOLARD, Kathryn. 2009 "Language ideology: issues and approaches". In COUPLAND, Nikolas eta JAWORSKI, Adam (arg.) *Sociolinguistics critical concepts in linguistics* (II. alea): *Subjective and ideological processes in sociolinguistics*: 209-222. New York: Routledge.
- WURM, Stephen A. 2001. *Atlas of the world's languages in danger of disappearing*. Paris: UNESCO Publishing.
- ZABALZA, Xabier. 2006. *Una historia de la lengua y los nacionalismos*. Bartzelona: GEDIZA.
- ZALBIDE, Mikel. 2004. *Joshua A. Fishman-en RLS edo HINBE*. [http://www.erabili.com/zer\\_berri/muine-tik/1086087086](http://www.erabili.com/zer_berri/muine-tik/1086087086).
- ZALBIDE, Mikel. 2006. "Glosario laburra: zenbait definizio". In RODRIGUEZ RANZ, Jose Antonio (koord.) *Gramática vascongada escrita por D. Francisco Ignacio de Lardizabal*. Donostia: Gipuzkoako Foru Aldundia.
- ZALBIDE, Mikel; ERIZE, Xabier. 2008 (argitaratu gabe). "Hizkuntza gutxituen berreskurapenerako hainbat hurbilpen teoriko". In *HIZNET, Hizkuntza Plangintza Ikastaroa*. 2008-2009 ikasturtea. Asmoz fundazioa, Eusko Ikaskuntza.
- ZAPATA, Oskar. 2007. "Mintzapraktika programak: euskararen erabileran eragiteko tresna eraginkorrak". *BAT Soziolinguistika aldizkaria* 62: 119-124.
- ZINKUNEGI, J. Fco. 1995. "Euskararen transmisioa Euskal Autonomi Elkartearen". *BAT Soziolinguistika aldizkaria* 15.
- ZUAZO, Koldo. 1988. "Euskararen batasuna". *Iker* 5.
- ZUAZO, Koldo. 1999. "Iraganari begiratu. Euskararen osasuna eta euskalkiak". *Euskera* 44: 355-362.
- ZUAZO, Koldo. 1999. *Deba Ibarreko euskera*. Antzuola: Antzuolako Udala.
- ZUAZO, Koldo. 2000. *Euskararen sendabelarrak*. Irun: Alberdania.
- ZUAZO, Koldo. 2001. "Ohar zenbait euskara normaltze aldera". *BAT Soziolinguistika aldizkaria* 40: 69-74.
- ZUAZO, Koldo. 2003. *Euskalkiak. Herriaren lekukoak*. Donostia: Elkar.
- ZUAZO, Koldo. 2005. *Euskara batua. Ezina ekinez egina*. Donostia: Elkar.
- ZUBIRI, Juan Jose. 2002. "Haur hizkeraren erabileraz". *Hizpide* 49. Donostia: HABE.



**WEB ORRIAK / WEBGUNEETAKO LOTURAK**

Amarauna: [www.amarauna-languages.com](http://www.amarauna-languages.com)

Azpeitiko Euskararen Patronatua: [www.erabili.com](http://www.erabili.com)

BAT Soziolinguistika aldizkaria: [www.soziolinguistika.org](http://www.soziolinguistika.org)

Euskalit: [www.euskalit.net/bikain/bikainberri/dekretua.pdf](http://www.euskalit.net/bikain/bikainberri/dekretua.pdf)

Euskara ataria: [www.euskara.euskadi.net/r59-734/eu](http://www.euskara.euskadi.net/r59-734/eu)

Euskaltzaindia: [www.euskaltzaindia.net](http://www.euskaltzaindia.net)

Euskonews: [www.euskonews.com](http://www.euskonews.com)

EUSTAT: [www.eustat.es](http://www.eustat.es)

Hiznet: <http://hiznet.asmoz.org>

INE: [www.ine.es](http://www.ine.es)

Mintzapraktika: [www.mintzapraktika.org](http://www.mintzapraktika.org)

Nafarroako Estatistika Institutua: [www.cfnavarra.es/estadistica](http://www.cfnavarra.es/estadistica)

Soziolinguistika Klusterra: [www.soziolinguistika.org](http://www.soziolinguistika.org)

SOZIOLINGUISTIKA ESKULIBURUA



# GLOSARIOA



**Aldaera diafasikoa:** hizkuntza-ekintza jakin batean, testuingurua kontuan izanda (igorlea, hartzailea, helburua, erabilera-esparrua) erabiltzen den hizkera (94, 59, 61, 70, 94, 128).

**Aldaera diastratikoa:** soziolektoa edo dialekto soziala. Gizarte-talde jakin baten aldaera linguistikoa da; hitzunaren ezaugarri sozialen araberrako aldaki multzoa. Soziolekto terminoaren barruan, lanbide jakin bati dagokion aldaera zein gizarte-mailari dagozkion aldaerak barnebiltzen dira. Soziolektoak, beraz, hainbat eragilek sortzen dituzte: gizarte-klaseak, heziketak, lanbideak, adinak, jatorriak... Gizarte-mailaketa argi eta zehatza dagoen herrialdeetan, soziolektoak hitzunaren klase soziala definitzen du (90, 33, 59, 60, 70, 90, 93, 111, 128).

**Aldaera diatopikoa:** dialektoa. Dialektoa berezko sistema lexiko, morfosintaktiko eta fonetiko daukan aldaera da eta hizkuntza baino eremu geografiko mugatuagoan erabiltzen da (89, 34, 59, 60, 61, 70, 85, 89, 93, 111, 127).

**Aldaera:** aldagai multzo batean aldaki jakin batzuk hautatuz sortzen den hizkuntzaren erabilera sailkagarria, nolabaiteko sistema osatzen duena (86, 30-36, 40, 56-61, 65, 69, 70, 74, 81, 85-115, 118-130, 149, 153, 155, 160, 170, 177, 185, 200-221, 236, 239, 240-249, 339, 340).

**Aldagaia:** emaitza ezberdinak eman ditzakeen balioa da. Soziala ala linguistikoa izan daiteke; adibidez, sexua edo adina gizarte-aldagaiak dira; linguistikoen artean: maila lexikoan, *berba/hitza*; maila fonetiko-fonologikoan, bokal arteko /r/-a; maila sintaktikoan, esaldiaren ordena (94, 30-33, 47, 53-61, 70, 72, 81, 85-88, 94-106, 109-130, 172, 193, 195, 204-210, 221, 222, 226, 277, 295, 298, 332, 335, 342, 347).

**Aldakia:** aldagaiak izaten dituen emaitzetako bakoitza da. Aldagai sozialak generoa eta adina badira, aldakiak emakumezkoa eta gaztea izan daitezke, adibidez. Aldagai linguistikoa, maila lexikoan, *berba/hitza* bada, *berba* izan daiteke alda-

kia; maila fonetiko-fonologikoan, aldagaia bokal arteko /r/-a bada, [r]-ren galera izan daiteke aldakia... (94, 33, 86-90, 94-109, 121, 124, 127).

**Bai-bainako jarrera:** euskararekiko eta euskararen aldeko hizkuntza-politikari buruzko aldeko jarrera ez sutsua edo ez grinatsua da. Iritzi-sorta konplexu eta zehaztua, zenbatetan kontrajarria ere bai (218).

**Barne-motibazioa:** norbanakoaren barnean norbere uste, afektu eta nahietatik sortzen den motibazioa da (217, 219).

**Behaketa zuzena:** metodo kualitatiboan du oinarria, baina askoren ustez, metodo bakar baten mugak gainditzen dituen teknika da. Izan ere, behaketa aurrera eramateko, metodo kuantitatiboan oinarritutako teknikak ere erabili daitezke. Hori litzateke, esate baterako, hizkuntza-erabilera ezagutzeko egiten den Kale Neurketaren kasua, non ikertzaileek galdetegi itxi bat erabiltzen duten. Behaketak gizarte-antropologiarekin du harreman zuzena, historikoki diziplina horretan kokatu izan delako. Horrela, antropologoen garatu dute bereziki teknika hau, gehienetan etnografiaren lanketari lotuta. Behaketak ikertzaileari ikertzen ari den gizataldean txertatzea eta inplikatzeko eskatzen dio. Hori modu zurrunean edo malguan uler daiteke, baina nolabaiteko lotura eman behar da, behaketak bertan egotea eta egoera deskribatzea eskatzen baitu (311, 98, 208, 296, 297, 310-313, 322, 328, 341, 342).

**Bizitza-historia:** metodo kualitatiboaren barruan toki garrantzitsua duen teknika da. Bizitza-historiarekin banakako esperientzia berezia ezagutzeko bilatzen da, hau da, pertsona baten definizioa bizi izan duen egoera bati buruz, edota bere bizitza osoari buruz. Kontuan hartu behar da kasu honetan ez dela "egia" bilatzen, baizik eta subjektuak bere egia nola erakitzen duen eta bere bizipenei eta bizitzako fase ezberdinei zentzua nola ematen dien aztertzea (305, 296-298, 305-310).

**Corpusaren plangintza:** hizkuntza-plangintzaren osagaietako bat da, alderdi linguistikoa lantzen duena. Honen barruan lantzen dira, besteak beste, gramatikak, hiztegiak, ortografiarauak... Azken helburua hizkuntza-kodea bera beharrian berrietarako prestatzea da. Helburu hori lortzeko garrantzitsua da plangintza-mota honetan hizkuntzaren estandarizazio-prozesua, hau da, hizkuntza baten aldaera estandarra zehaztu, ezarri eta lantzeko egiten den prozesu linguistikoa eta soziala (240, 56, 239-244, 247, 249).

**Dialektoa:** lurralde mugatu batean hitz egiten den hizkuntza-aldiera, sistema linguistikoa ezaugarri bereziak dituena. Geolektoa. Aldiera diatopikoa (59, 31-34, 50, 59-61, 85-91, 123-126, 143, 151, 158, 205, 241, 244, 265, 339).

**Egozentrismo glotikoa:** hizkuntza-aniztasuna murriztu eta giza hizkuntza bakarra (norberarena) ezarri nahi duen hizkuntza-ideologia (188).

**Ekologismo glotikoa:** egozentrismo glotikoari kontrajarritako hizkuntza-ideologia. Balio eta indar bereko bi behar hauek bateragarri egitean du oinarria: 1) hizkuntzen ekologia naturalari eustea, hau da, hizkuntza-nazio bakoitzak bere ondare linguistikoa zaintzeko duen eskubidearen eta arduraren bitartez, munduko hizkuntzen aniztasuna gordetzea, eta 2) esparru mugatu eta jakin batean (hizkuntza desberdinetako nazioen arteko komunikazioa bideratzeko, hain zuzen), bigarren hizkuntza bat komunikazio-hizkuntza gisa ezartzea (188, 189).

**Eleaniztasuna:** eleaniztasuna hiztun edo giza talde batek hiru hizkuntza edo gehiago jakin eta erabiltzea da (139, 50, 53, 67, 70, 71, 78, 137, 139, 140, 143, 149, 164, 168, 189, 212, 219, 236).

**Elebakartasuna:** elebakartasuna hiztun edo giza talde batek hizkuntza bakarra jakin eta erabiltzea da (137, 45, 74, 78, 137, 160, 165, 178, 211, 236, 266).

### Elebitasuna vs. diglosia (157)

**Elebitasuna** banako nolakotasuna da; bi hizkuntza jakitea eta txandaka erabiltzea da. Elebitasun-mota asko badaude: hizkuntza-jabetzearen arabera (lehen hizkuntza, bigarren hizkuntza), hizkuntzen jabetze-ereduaren arabera (familian, eskolan, autoikaskuntzaren, zuzeneko esperientziaren bidez), hizkuntza-gaitasunen arabera (etab).

**Elebitasuna:** elebitasuna hiztun edo giza talde batek bi hizkuntza jakin eta erabiltzea da (137, 157, 35, 36, 45-49, 65, 68-74, 136-142, 154-167, 173, 174, 180, 181, 196, 212, 219, 222, 257, 266, 270, 325, 333, 334, 339).

**Diglosia** edo elebitasun soziala gizarte-egoera da. Hizkuntza-komunitate batean bi hizkuntza edo bi hizkuntza-barrietate desberdinen erabiltzea da. Hizkuntza edo barrietate horiek esparru eta funtzio desberdinetarako erabiltzen dira; bata funtzio formaletarako (administrazioa, hezkuntza, ikus-entzunezko hedabideak...) eta bestea informal eta pribatuertarako (familia, lagunartea).

Maizenik egoera diglosikoa desorekatua da funtzio horien banaketa bidezkoa ez delako. Gainera egoera diglosikoa dinamikoa da, hizkuntza batek, menderatzaileak, hain zuzen, bestearen funtzio eta erabilera-eremu berri batzuk bereganatzen dituelako denboran zehar (157, 32-36, 45-49, 67, 74, 76, 154-158, 163-170, 174, 180, 187, 225, 267).

**Elkarrizketa sakona:** elkarrizketa irekia edota elkarrizketa kualitatiboa ere deitu izan zaio. Metodo kualitatiboan kokatzen den teknika da eta gizarte-zientzietako hainbat diziplinan oso hedatua da, besteak beste, soziologian eta antropologian. Bi subjektuaren arteko aurreko interakzioa da, bata ikertzailea eta bestea elkarrizketatua. Oinarrian komunikazio-egoera bat da eta emaitza positiboak lortzeko komunikaziorako bideak, estrategiak zein baldintzak garatu behar dira elkarrizketari loturiko zeregin guztietan zehar (302, 295-303, 307, 337, 345).

**Erregistroa:** solaskideen arteko harremanak, haien asmoak, gaiak, formaltasun-maila eta egoera definitzen duten beste hainbat faktore kontuan hartuta erabiltzen den hizkuntza-aldaera. Testuingurura egokitutako hizkera. Aldaera diatopikoa (34, 56, 86, 91, 105, 108, 111, 120, 125-130, 137, 150, 161, 165, 193, 207, 297, 298, 314, 330).

**Errolda:** udalerrri bateko bizilagunen erregistro administratiboa. Udal bakoitzak du bere sorrera, eguneratze eta mantentze-lanen ardura. 1996. urtea arte, Espainiako udalek 5 urtean behin berriro behar zuten errolda. Geroztik, bere kudeaketa modu informatikoan egiten da eta urtarilaren la izaten da berritze-data ofiziala. Erroldak udalerrri bateko egitura soziala eta oinarrizko ezaugarri demografikoak ezagutzea ahalbideratzen du (330, 81, 289, 329-332).

**Estatusaren plangintza:** hizkuntza-plangintzaren osagaietako bat da. Hizkuntzaren alderdi soziala lantzen du; hemen sartzen dira, adibidez, estatus legala ezartzea, hizkuntzaren alde egindako kanpainak, hizkuntza-transmisioa bermatzeko egindako ekimenak, helduak alfabetatzeko ekintzak eta abar. Estatus-plangintzaren azken helburua da hizkuntza batek, edo hizkuntza-aldaera batek gizartean duen egoera aldatzea. Bi plangintza-motetan zailena da, gizartean aldaketa bat lortzea duelako helburu (249, 36, 79, 239, 240, 244, 248-250).

**Etimologia:** hitzen jatorriaz eta jasandako eboluzioaz aritzen den filologiaren adarra. Grekoek sortua, hitzen benetako esanahia bilatzeari lotutako ikerketa-eremua da. Azterketa diakronikoetan etimoeak jasandako aldaketak deskribatu eta garaian kokatzen dira (24, 40).

**Etnografia:** tradizioz gizarte-antropologiaren garapenari lotuta egon da etnografia eta, egun, beste diziplina batzuetan erabiltzen bada ere, antropologoengana zeregina definitzen jarraitzen du. Etnografia teknika baino askoz gehiago da, bere baitan prozesua eta produktua biltzen direlako. Etnografiak ikerketa batean eman beharreko

urrats, eginkizun eta estrategia ezberdinak (teknikak barne) jasotzen ditu, hau da, ikertzailea ikerketa hasten denetik bukatzen duen arteko bidea litzateke etnografia. Baina baita ibilbide horren ondorioz sortzen den emaitza ere: monografia bat, dokumental bat eta abar (322, 32-37, 61, 62, 92, 297, 311, 322, 323).

**Euskara batua:** euskararen aldaera estandarra. Euskaltzaindiak, euskararen akademiak, 1968an onartu zituen euskara batuaren oinarriak. Proposamena Koldo Mitxelena prestatu zuen Txillardegik eta beste zenbaitek 1964an Baionan Euskal Idazkaritzan erabakitakoak oinarri hartuta. Erdialdeko euskara hartu zen euskara batuaren sustrai gisa. Zenbait desadostasun sortu baziren ere, batez ere Hegaldean *h* letra hartuta aitzakia gisa, gizartean onarpen zabala izan zuen eta denbora gutxian hedatu zen euskara lan-tresnatzat zutenen artean. Aurretik ere izan ziren hainbat saio euskararen batasuna lortu eta hizkuntza estandarra lortzeko, baina batek ere ez zuen izan arrakastarik (248, 43, 45, 56-58, 127, 158, 178, 187, 192, 193, 246, 248, 340).

**Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia (EBPN):** 1999an abiatuta, euskaraz bizi nahi duten herritarrei horretarako aukerak bermatzeko behar diren hizkuntza-politikako neurriak erabakitzea eta bultzatzea helburu duen plangintza estrategikoa. Funtsean, Euskal Herrian, maila pertsonalean, sozialean eta ofizialean, euskararen berreskurapen osoa lortzeko euskararen aldeko urratsak areagotzea. Hiru lan-esparru (edo helburu estrategiko) ezartzen ditu:

- Euskararen belaunaldiz belaunaldiko transmisioak etenik izan ez dezan lortzea.
- Euskararen erabilera gizarteko esparru guztietara zabaltzea.
- Euskara bera, komunikazio-tresna den aldetik, lantzea eta aberastea.

(52, 36, 51-53, 248, 274-276).

**Euskararen Aholku Batzordea:** hizkuntza-normalkuntzan diharduten erakunde publiko nahiz pribatuaren ahaleginak eta ekintzak aztertzeko, bideratzeko eta koordinatzeko Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailari Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren bitartez atxikitako harreman-organoa. (52, 49, 51, 52, 56, 275).

**Euskararen Gizarte Erakundeen Kontseilua:** Euskararen Unibertsoa jardunaldi eta hausnarketa-prozesuaren ondorioz, 1997an sortu zen Euskararen Gizarte Kontseilua. Diagnostiko eta hausnarketa sakonen ondotik, Bai Euskari akordioa eta horren ondorioz sortutako Plan Estrategikoa eman zituen. Kontseiluaren helburuak gizarte-eragileengan eragitea eta plangintza bat garatzea dira (51, 261, 273, 274, 280).

**Eztabaida-taldea:** metodo kualitatiboan kokatutako teknika da. Kasu honetan pertsona bakarra edo gutxi batzuk izan beharrean, talde bat (8-10 kide) izango da protagonista. Talde hau ez da izango naturala (familia bateko kideak edo koadrila bat, adibidez), ikerketari begira eraikia baizik. Zentzu honetan, esan daiteke ikertzailea, eztabaida-talde bat egitean, egoera esperimenter baten aurrean aurkitzen dela. Bere helburua taldearen bitartez gizartearen gai edota gertakari baten inguruan egon daitezkeen posizio edota diskurtso ezberdinak azalaraztea eta erreproduzitzea da. Hori dela eta, taldeak sortutako diskurtsoak eta egoerak izango dira analisiari aurre egiteko eta ondorioak ateratzeko langaia (308, 295-299, 307-310, 320, 337, 340-348).

**Gaitasun soziolinguistikoa:** hizkera-komunitate jakin batean, komunikatzeko, idatzi gabeko hainbat konbentzio daude, bertako partaideek ondo ezagutu behar dituztenak: elkarreragine-rako komunikazio-arau linguistikoak, kulturalak, sozialak. Gizabanakoek duten ezagutza orokor hori da gaitasun soziolinguistikoa (92, 29, 60, 62, 66-70, 76, 88, 92, 110).

**Gehiengoaren hizkuntza:** hizkuntza-ukipena bizi duen lurralde batean, hiztun gehienek erabiltzen duten hizkuntza (166, 158, 164, 166, 268).

**Gizarte-sarea:** azterketa sozialaren unitateetako bat da. Soziolinguistikaren gizarte-sarearen kontzeptua Lesley Milroyk zabaldu zuen lehendabizi. Honela definitzen du: gizarte-sarea gizabanakoaren arteko harreman zuzenen egitura da eta ondasun eta zerbitzuak trukatzeko, betebeharrak ezartzeko eta kideei dagozkien eskubi-deak onartzeko eragile moduan funtzionatzen du (114, 109-115, 125, 297, 314, 315).

**Gizarte-sareen azterketa:** gizarte-sareak aztergai bihurtu dira diziplina eta jakintza-arlo ezberdinetan, hala nola, soziologian, antropologian edota enpresen eremuan. Azterketa-mota honetan harremanak dira protagonistak; pertsonen arteko loturak, talde ezberdinen arteko loturak eta abar. Harreman horien edukia eta helburua aldatuko dira ikergaiaren arabera; edozein kasutan, harreman horiek osatzen duten egitura litzateke aztergai nagusia. Teknika horretan elementu kuantitatiboak eta kualitatiboak txerta daitezke eta, gainera, tresna bisualak eskaintzen ditu, sareak modu grafikoan ager daitezke eta (314, 297, 314-317).

**Gramatika unibertsala:** gramatika sortzailearen arabera, gizakiok jaiotzez hizkuntza prozesatzeari ahalbidetzen digun gorputz-atala dugu. Horri esker, hizkuntza-arauak sortu, jaso eta barnertatzeko gaitasuna dugu. Ondorioz, bada hiztun orok jaiotzez dugun Gramatika Unibertsal bat eta munduko hizkuntza guztiak horren araberrakoak dira (28).

**Gutxiengoaren hizkuntza:** hizkuntza-ukipenean bizi den lurralde batean, gutxiengo batek erabiltzen duen hizkuntza (166, 142, 158, 166, 175).

**Hizkera:** pertsona edo giza talde baten hitz egiteko era. Hizkuntza jakin batetik, hiztunak egiten duen erabilera konkretua (26, 30-34, 40, 56-65, 70, 86-130, 146-152, 205, 247, 328, 329).

**Hizkera-komunitatea:** gutxienez hizkuntza bat partekatzen duten hiztunen multzoa da.

Hiztunek, hizkeraren bitartez, euren burua talde batean edo bestean kokatzen dute, euren nortasuna adierazten dute. Komunitatearen barruan erabilera-arauak daude. Nahiko heterogeneoak izaten dira. Hiztun bera komunitate bat baino gehiagoko partaide izan daiteke eta, ondorioz, aldaera ezberdinak erabili une bakoitzean (93, 70, 86, 90-93, 98, 100, 113).

**Hizkuntz Eskubideen Behatokia:** Hizkuntz Eskubideen Behatokia Euskararen Gizarte Erakundearen Kontseiluak sustatu eta bideratu duen fundazioa da. 2001eko ekainaren 26an Iruñean sortu zen. Euskal Herriko herritarren hizkuntza-eskubideez arduratzen da. Bere egitekoak dira eskubide horiek Euskal Herri osoan, arlo publikoan zein pribatuan, babestu eta sustatzea, batetik; eta urraketak salatzea, bestetik (51, 261).

**Hizkuntza gutxitua:** hizkuntza-gatazka egoeran, hizkuntza menderatzailearen esku hainbat esparru eta funtzio galdu dituen hizkuntza (166, 40, 45, 50, 56, 69-78, 141, 144, 162-167, 175, 177, 189, 212, 236, 249, 250, 268-271, 331).

**Hizkuntza menderatzailea:** hizkuntza-gatazka egoeran, hizkuntza menderatuaren hainbat esparru eta funtzio irabazi dituen, gailen agertzen den hizkuntza (166, 149, 158, 164-169, 173-175, 189).

**Hizkuntza:** giza talde bateko kideek elkarrekin komunikatzeko duten hitzezko adierazpidea. Zeinu-sistema (26 eta liburu guztian zehar).

**Hizkuntza-abertzaletasuna:** hizkuntza aberriaren gorengo ezaugarritzat jotzen duen ideologia (188).

**Hizkuntza-aniztasuna:** eremu jakin batean, hainbat hizkuntza desberdin hitz egitea (168, 56, 71, 76-78, 168, 181, 188, 189, 231-236, 244, 252).

**Hizkuntza-aurreiritzia:** hizkuntza edo aldaera zehatz baten inguruan orokortu diren uste edo sinesteak. Aurreiritziek balio-judizio bihurtzen dira egitate diren ala ez kontuan izan gabe eta hizkuntzetatik hitzunenenganako jauzia egiten dute. Aurreiritziek jarretan dute eragina, eta mesedegarriak edo kaltegarriak izan daitezke (219).

**Hizkuntza-darwinismoa:** hizkuntzek Darwinen eboluzio-teorien arabera bilakaera dutela pentsatzen duen hizkuntza-ideologia. Horren arabera, hizkuntza-komunitate indartsuenak gailenduko lirarteke, ahulenak baztertuta (188, 179, 188).

**Hizkuntza-ekologia:** *Hizkuntza baten eta bere ingurumenaren arteko harremanak aztertzen ditu* (Haugen, 1972). Ingurumena definitzeko kontuan hartzen ditu alderdi psikologikoak (hizkuntza horrek beste hizkuntza batzuekin duen harremana hitzunen buruan) eta soziologikoak (gizartearekin duen harremana komunikazio bide gisa) (181, 56, 171, 180-182, 188).

**Hizkuntza-eskubideak:** norbanakoak edota taldeak eremu pribatuan zein publikoan hizkuntza edo hizkuntzak hautatzeko duten giza eskubide zibila da (254, 48, 51, 250-261).

**Hizkuntza-gaitasuna:** hizkuntza-kompetentzia. Hizkuntzaren inguruko ezagutza inplizitua da. Beste azpigaitasun batzuk barnebiltzen ditu: gaitasun lexikoa, gaitasun gramatikala, gaitasun semantikoa, gaitasun fonologikoa, gaitasun ortografikoa... (28-29, 55, 61, 66, 106, 107, 137, 141, 157, 192, 196, 200, 203, 210, 255, 274, 332).

**Hizkuntza-gatazka:** bi hizkuntzaren edo bi hizkuntza-komunitateren artean gertatzen den lehia. Gizartean erabilera-eremuak eta funtzio sozialak eskuratzeko eta, ondorioz, besteari nolabait kentzea da lehia horren funtsa (164, 36, 59, 70, 74, 76, 155, 163-167, 172).



**Hizkuntza-ideologia:** pertsona edo giza talde batek hizkuntzei buruz dituen ideien multzoa. Ideologia hori erabilera, diskurtso edo portaera linguistiko jakin batzuen bidez adierazten da (187, 75, 179, 185-189). Ikus **ideologia linguistikoak**.

**Hizkuntza-jarrera:** hizkuntza edo aldaera zehatz baten aurrean, alde edo kontra erantzuteko edo ekiteko joera da. Ikuspegi mentalistaren arabera jarrera barne sentimendua da, eta, beraz, ezin da zuzenean atzeman. Ikuspegi behavioristaren ikuspegitik, aldiz, jarrerak giza jokaretan daude. Nahikoa da jokaera hori behatzea jarrerak definitzeko (204, 75, 187, 190, 203-205, 209, 210, 238-240).

**Hizkuntza-jokaera:** hiztunak egoera soziolinguistiko jakin batean egiten dituen aukera linguistikoak. Komunikazio-testuingurua, solaskidea eta interakzio-lekua zein den kontuan hartuz, hizkuntza jakin bat aukeratuko du, hizkuntza-erregistro jakin bat eta abar (207, 93).

**Hizkuntza-komunitatea:** soziolinguistikaren aztergai den unitate soziala da. Autore batetik bestera, terminoaren adiera aldatu egiten den arren, oro har, esan daiteke hizkuntza bera erabiltzen duten hiztunek osatzen dutela hizkuntza-komunitatea (86).

Lehen hizkuntza bera duten edo hizkuntza berean mintzatzen diren pertsonen multzoa. Soziolinguistikak aztertzen duen unitate sozial nagusia da (199).

Aurrez aurreko interakzio linguistikoz (mintzajardunez, idatziz...) edota hiztun guztien integrazio sinbolikoaz, gutxien-gutxienez aldaera bat konpartitzen duten hiztun guztien multzoa da, hiztun-elkartea (200, 36, 50, 76, 85-89, 100-103, 111, 125, 135, 136, 140, 145-150, 156-167, 171-181, 185, 190, 195-202, 218, 235, 236, 252, 261, 265-272, 324).

**Hizkuntza-liberalismoa:** hizkuntza-ukipeneko edo -gatazkako egoeretan inolako esku-hartzerik ez egitea babesten duen hizkuntza-ideologia (189).

**Hizkuntza-normalizazioa:** minorizazio-egoeran dagoen hizkuntza egoera horretatik atera eta gizarte-esparru eta funtzio guztietara hedatzeko prozesua. Bi hizkuntzaren edo bi hizkuntza-komunitateren artean gertatzen den lehia (164, 36, 164, 233, 249, 263, 274, 275, 338).

**Hizkuntza-plangintza:** hizkuntza-plangintza terminoaren bidez, beste batzuen hizkuntza-portaeran eragiteko, hizkuntzen eta hizkuntza-aldaien irakaskuntzan, egituraren eta funtzioetan egindako ahalegin kontzienteak adierazten dira (Cooper, 1997). Hizkuntza-politikan erabakitakoak gauzatzeko ekimen planifikatuak biltzen ditu hizkuntza-plangintzak, edo zentzu zabala goan, hizkuntzen erabileran edo egituraren eragiteko esku-hartze kontzienteak (Lamuela, 1994); izan ere, sarritan, esku-hartze horiek ez dira izaten aski planifikatuak ez baitute plan batek izan behar duen ezaugarriarik, nahiz eta hizkuntza-plangintza izena jarri (240, 46, 50, 53, 77-80, 129, 175, 178, 197, 205, 206, 218, 231-233, 239, 240, 244, 248, 278, 321, 324, 339, 347).

**Hizkuntza-pluralismoa:** gizarte bateko hizkuntza-komunitateen berdintasuna, hots, erabiltzen diren hizkuntza guztiak eskubide berak dituztela aldarrikatzen duen ideologia (189).

**Hizkuntza-politika:** erakunde publikoek hizkuntzen erabilera antolatzeko eta arautzeko egiten dituzten esku-hartzeen multzoa da hizkuntza-politika. Oso garrantzitsua da batez ere hizkuntza bat baino gehiago gobernu beraren administraziopean daudenean (munduko estatu gehienak eleaniztunak dira, eta oso gutxi izan dira estatu elebakarrak historian zehar). Estatuak komunikazioaren bitartez, besteak beste, exekutatzen dute boterea eta komunikazioaren oinarria hizkuntza denez, estatuentzat oso garrantzitsua da hizkuntza eta horri dagokion politika, hain zuzen ere, hizkuntza-politika (232, 44, 51-56, 76-79, 140, 169, 171, 175, 178, 194, 195, 217, 218, 228, 231-240, 261, 268, 272, 275, 279, 280, 332).

**Hizkuntza-ukipena:** munduko hizkuntza gehienak ez dira isolatuak, kontaktuan dira. Hizkuntza-ukipena, gizarte berean hizkuntza bat baino gehiago hitz egiten direnean, hizkuntza horien artean sortzen den erlazioa da.

Hizkuntza-ukipena soziolinguistikaren ikergai nagusietatik bat da. Era orokorragoan, hizkuntza-ukipena hiru ikuspuntutaz azter daiteke: **norbanakoarena**, **hizkuntza-komunitatearena** eta **hizkuntzarena** berarena (136, 45, 49, 70-73, 87, 122, 135, 136, 141, 149-154, 158, 165, 166, 180, 181, 189, 210).

**Hizkuntzaren inguruko iritzia:** hizkuntza horrekiko norbere sentimenduen eta ideien adierazpenak dira, ahoz adieraz daitezkeenak (206).

**Hizkuntzaren jarraipena** (edo hizkuntza-irrupena): pertsona edo hizkuntza-komunitate batek bere hizkuntzari eustea eta, beraz, hizkuntza hori ez galtzea (173, 177).

**Hizkuntzaren ordezkapena:** hizkuntza batek beste hizkuntza baten erabilera-eremuak eta funtzioak irabaziz joatean gertatzen den prozesua. Hizkuntza menderatzaileak aurrera egiten jarraitzen badu, jatorrizko hizkuntza desagertu ere egin daiteke (173, 35, 47, 74, 141, 169, 173, 174, 237, 243, 244, 249, 265, 268-272).

**Hizkuntzaren soziologia:** diziplina soziolinguistikoa, gizarteak hizkuntzarekin duen harremana aztertzen duena. Askotan nahasi egiten dira soziolinguistika eta hizkuntzaren soziologia. Bereizgarri gisa esan daiteke lehenak hizkuntza aztertzen duela, testuinguru sozialarekin duen harremanaren bitartez; bigarrenak, berriz, gizartea du aztergai. Kanpo-soziolinguistika edo soziolinguistika zabala (36, 32-38, 49, 58, 67, 137, 268, 317).

**Hizkuntzaren arnaguneak:** Fishmanek *breathing space* deitzen ditu. Hizkuntza gutxitua indarberri dadin ezinbestekoa da hizkuntza hori nagusi izango den gune geografikoak egotea. Ez dira ghettoak, ez baitira isolatuta egon behar. Gune horietako biztanle gehienek dakite

hizkuntza gutxituan hitz egiten eta hizkuntza hori normaltasunez erabiltzeko baldintzak daude eta belaualdiz belaualdiko transmisioa naturaltasunez gertatzen da (270, 269).

**Hizkuntzen irakaskuntza:** hizkuntzaren eskurapen edo ikaskuntza-prozesuaz aritzen den arlo zabala. Haurren hizkuntza-jabekuntza eta prozesu horren etapak aztertzei hasi eta helduek bigarren hizkuntza (H2) ikasteko jarraitu beharreko bidea doitzera bideratutako ikerketa-eremuak barnebiltzen ditu. Egoera elebidunetan, hizkuntza bakoitzak irakaskuntzan duen lekua erabakigarria da, bai hiztunen ibilbide akademikoan, bai gizartearen normalizazioan (65, 62-68, 334).

**Ideologia ekolinguistikoa:** hizkuntza-aniztasuna eta hizkuntzen arteko oreka gorde behar direla aldarrikatzen duen hizkuntza-ideologia (189).

**Ideologia linguistikoa:** hizkuntzaz hitzunak dituen sinesmen-multzoak dira, estruktura eta erabilera linguistikoa hautemateko duen modua arrazionalizatzeko edo justifikatzeko (186, 129, 186-193, 197). Ikus **hizkuntza-ideologia**.

**Ideologia:** garai, gizarte, talde, klase edo pertsona baten ideia-sistema, nolabaiteko doktrina filosofikoaren atala osatzen duena eta banakorearen nahiz taldearen jokabidea baldintzatzen duena (186, 41, 45, 74, 76, 112, 178, 185-197, 243, 245, 250).

**Idiolektoa:** idiolektoa norbanakoen aldaera da, hiztun bakoitzaren hizkera. Ez da estatikoa, hiztunaren esperientziak, bizipenek, beharriak... eragingo baitiote; beraz, aldatuz eta gartuz joango da. Hiztun beste idiolekto dago (91, 88-91, 101, 103, 122, 128).

**Ikerkuntzarako teknikak:** teknikak ikertzaileak bere ikerlana aurrera eramateko dituen tresna zehatzak dira. Lortu behar duen informazio-mota edozein izanda ere, ikertzaileak

teknika ezberdinen artean egin beharko du aukeraketa bere helburuak betetzeko. Teknika gauzatzen den momentuari landa lana edota lekuko lana deitu izan zaio gizarte-zientzietan, eta hori lanaren zati empirikoa izango da. Teknika bat edo bestea aukeratzeko garaian ikergaiaren izaera, ikerketaren helburuak eta neurri handi batean ikertzailearen preferentziak izaten dira aldagai erabakigarriak. Dena dela, kontuan hartu behar da beti ez dela erabiltzen (edo ez dela erabili behar) teknika bakar bat. Are gehiago, ikertzaile asko triangulazioaren alde agertzen dira. Kasu honetan edozein gai aztertzeke orduan gutxienez hiru teknika ezberdin erabiltzen dira emaitzek oinarri empiriko sendoa dutela ziurtatzeko. Gizarte-zientzietan ohikoak diren tekniken artean inkesta, elkarrizketa sakona, bizitza historia edo eztabaida-taldeak aipa daitezke, besteak beste (295, 326, 331).

**Ikertzailearen paradoxa:** William Labov-ek erabili zuen terminoa da. Soziolinguistikaren helburua komunitate batean erabiltzen den hizkera ikertzea da. Hizkera hori hiztunak sistematikoki behaturik sentitzen ez direnean erabiltzen duena da, baina hizkuntza bat zuzeneko behaketaren bitartez baino ezin da aztertu (98).

**Inkesta/galdetegia:** metodo kuantitatiboan barruan kokatzen den teknika nagusia. Inkestan bidez, aztergai den populazioaren lagin adierazgarri bati ikertzaileak sortutako galderei erantzuteko eskatzen zaio. Jasotako erantzun guztien kontaketa eta erregistroa egin ondoren, analisia egin behar da. Analisi hau nahi bezain konplexua izan daiteke hainbat aldagai gurutzatuz edo aldagaien arteko loturak neurtuz. Egun, inkesta bat egiteari loturiko urrats nahiz bete-behar gehienak programa informatiko berezien bitartez gauzatu daitezke (295, 38, 75, 77, 81, 98, 102, 127, 128, 133, 142, 143, 169-172, 196, 206, 208, 216, 294-304, 311, 315, 317, 326-347).

**Iritzi publikoa:** giza talde jakin baten uste, balio eta aurreiritziak (190, 76, 189-192, 237, 299).

**Jarrera instrumentala:** hizkuntza edo aldaera zehatz hori hitz egiteak dakartzan onurak kontuan hartuz, horren alde ekiteko joera. Onura horiek ekonomikoak edota sozialak izan daitezke. Jarrera instrumentala motibazio pragmatiko modura ere ulertu ohi da, arrakasta motibazio edota truke-ordaineko jarrera modura ere definitzen da (213, 68, 210-214).

**Jarrera integratzailea:** hizkuntza horretako erkidegoaren parte izateari edo izan nahiari erantzuten dio. Hizkuntzen identitate-emaila izaeran ere adierazten da, baita atxikimendu-sentimenduarekin ere. Hizkuntza-erkidegoaren parte diren eta izan nahi dutenen joera adierazten du. Jarrera integratzailea motibazio sinbolikoarekin lotzen da, eta jarrera izanarazle modura ere definitu izan da euskal tradizioan (212, 210-214).

**Kale Neurketa:** behaketa zuzenaren bidez gauzatzen da Kale Neurketa (hau da, hizkuntza-erabilera "erreal" jasotzen da, eta ez erabilera aitortua). Hori dela eta, Kale Neurketan jasotako datuek zera adierazten dute: neurketa egin den tokian eta unean (egunean eta orduan) zenbat lagun ari den euskaraz (edo erdaraz) hitz egiten; hau da, zenbat hitz egiten den euskaraz une eta leku horretan. 1989an Euskal Kulturaren Batzarrak -EKB- Euskal Herriko udalerri handienetan (10.000 biztanletik gorako udalerrietan) erabilera neurtzea erabaki zuen. Siadecori agindu zion hori egiteko eta urte horretan bertan lehenengo Kale Neurketa egin zen. Urteetan zehar teknika berari eutsi bazaio ere, moldaketa eta egokitzapen anitz egin dira, betiere ikerketaren prozedura hobetzeko asmoz (341, 289, 311-313, 341-343).

**Kanpo-motibazioa:** norberarengandik at dagoen presioa dela-eta garatzen den motibazioa da (217, 219).

**Komunikazioaren etnografia:** gizakien elkarrengana aztertzerako bideratutako hizkuntzaren antropologiaren adarra. Talde etnikoak aztertzerako bideratutako diziplina sorreran, edozein hiz-

kuntzatak egoerak aztertzea zabaldu da. Dell Hymes du bultzatzaile nagusi (61, 34, 61, 62).

**Komunikazio-gaitasuna:** egoera eta testuinguru ezberdinetan hizkuntza modu egokian erabiltzeko konpetentzia. Beste azpigaitasun batzuk barnebiltzen ditu: gaitasun linguistikoa, gaitasun soziolinguistikoa, gaitasun diskurtsiboa eta gaitasun estrategikoa (29, 34, 61, 140).

**Lege-estatusa:** hizkuntzari esleitzen zaion legezko aitortza. Lege-estatus ohikoena ofizialtasuna izaten da (251, 45, 251, 252).

**Lengoaia:** gizakiek beren pentsamendua azaltzeko eta elkarrekin komunikatzeko duten ahalmena, zeinu-sistema (ahozkoa nahiz grafikoa) baten bitartez (hizkuntza) gauzatzen dena. Hizkuntzalaritzaren ikuspegitik giza gaitasuna da; soziolinguistikak, berriz, portaera soziala den aldetik aztertzen du (26, 21, 22, 26, 30-32, 186).

**Metodologia:** ikerkuntza-arloan metodologia oinarritzeko elementua da. Metodologiak ikerketaren norabidea eta izaera definitzen du, bere bitartez ikerlanak izango dituen ezaugarriak, proposatuko dituen galdera-motak, helburuak eta abar zehaztuko dira. Hori dela eta, ezinbesteko gidaritza da ikertzailearentzat. Hainbatean metodologia eta teknika nozioak sinonimotzat jo dira, horregatik ohikoa izaten da bata bestearen ordez erabiltzea. Gizarte-zientzietan, gehienetan bi metodologia-mota bereizten dira: kuantitatiboa eta kualitatiboa, baina, batzuetan, horiek "metodo" bezala izango dira aurkeztuak. Edozein kasutan, bereizketa tradizional hori askotan izan da eztabaidatua eta, egun, asko dira beste era bateko sailkapenak proposatzen dituztenak. Testu honetan bertan proposamen horietako batzuk aurkezten dira (288, 25-30, 34, 46-55, 60, 65-70, 80, 81, 131, 205, 274, 278, 287-300, 317-329, 334-348).

**Motibazioa:** ekintza edo jokabide baten iturburuan diren indar guztien bilduma (206 eta liburu guztian zehar). Ikus **barne-** eta **kanpomotibazioa**.

**Ofizialtasuna:** hizkuntzari esleitzen zaion lege-estatusa. Horren ondorioz, hizkuntza horrek lege balioa izango du estatus hori esleitu zaion lurralde horretan (252, 42, 44, 48, 79, 160, 250-258).

**Parte hartzeko metodologia:** bere oinarrian eskola, egile nahiz korrante kritiko eta berritzaileak kokatzen dira. Eragile horiek zientzia modernoaren positibismoak bereizi zituen dikotomiak uztartzen saiatu dira: subjektu iker-tzailea versus objektu ikertua eta ikerketa versus esku-hartzea. Kasu honetan, beraz, ikerketa prozesu sozial gisa ulertzen da eta ikertuak ikerketaren parte aktibo eta eragile bilakatzen dira. Nolabait, ikerketako objektuak ikerketaren jabe egin behar dira, beren egoeraren gainean hausnartuz, ondorioak deskribatuz eta etorkizunari begirako urratsak zehaztuz. Prozesu honetan erabilitako teknikak kuantitatiboak zein kualitatiboak izan daitezke. Halere, gehienetan teknika kualitatiboen alde egiten da, betiere, ohikoak ez diren dinamikak kontuan hartuz (tailerrak, kaleko ekintzak, asanbladak eta abar), hau da, ikerketak ingurunean nolabaiteko inpaktua izango duten praxiak eta jardue-ra publikoak edo irekiak bultzatuko ditu (319, 297, 318-323, 347).

**Proiektua:** edozein ikerlan abiatzeko garaian proiektua funtsezko elementua izaten da. Bertan, ikertzailea bere eginbeharraren nondik norakoak azaltzen ditu eta, aurrera begira, ezinbesteko gida bihurtuko da. Proiektua dokumentu batean jasotzen da eta bere ezaugarriak edota atalak alda daitezke ikerlan-mota batetik bestera, ikertzaile batetik bestera eta abar. Edozein kasutan, proiektuak ikergaiaren definizioa eta justifikazioa, ikerketaren helburuak, erabiliko diren metodologia eta teknikak eta lanerako egutegia oinarritzeko elementuak kontsidera daitezke. Ikerketaren izaera oso akademikoa denean, marko teorikoa (gaiarekiko hurbilpen edota testuinguru teorikoa) eta hipotesiak azaltzea komeni da. Dena dela, proiektua ikertzailearentzat ezinbesteko tresna baldin bada ere, ez da modu estatikoan ulertu behar; ikerketak berak, prozesuak, moldaketak planteatzera bultzatzen du ikertzaile (290, 80, 289-294, 319-323 eta liburu guztian zehar).

**RLS (Reversing Language Shift), hizkuntza indarberritzea:** funtzioak eta erabilgarritasuna galduz doan hizkuntza batek hizkuntza-ordezkapeneranzko joera hori etetea eta egoera iraultzea. Joshua A. Fishmanek ordezkapena jasaten ari diren hizkuntzak indarberritzeko sortutako erueda da. Hizkuntza bat indarberritzeko, hiztunak eta jardunguneak edo eremuak irabazi behar ditu. Fishmanek zortzi mailako eskala sortu zuen hizkuntzaren egoeraren diagnostikoa egiteko eta maila bakoitzean hizkuntzaren ordezkapen prozesua geldiarazteko zeintzuk diren lehentasunak definitu zituen. Garrantzi handia ematen dio hizkuntza harreman hurbiletan erabiltzeari (273, 36, 268-273).

**Siadeco:** 1967 urtean sortu zen *Sociedad de Investigación Aplicada al Desarrollo Comunitario* izenarekin, Euskal Herriko hainbat tokitan "desarrollismo" delakoa eta horren lehen ondorioak puri-puritan zeudenean. Diziplina anitzeko taldea zen hura eta arlo ugarietan egin zituzten ikerketak: hirigintzari, industriari, ekonomiari buruzkoak eta abar. Marco Marchioni gizarte-ikertzaile italiarrak ikastaro bat eman zuen Donostian eta horrek Euskal Herriko egoera sozialaren eta bere etorkizunaren inguruko kezka piztu zuen. Beste kezka batzuen artean hizkuntzarena ere gorpuzten hasi zen. Segituan datu bilketari ekin zitzaion, baina datu horiei tratamendu berezirik eman gabe. 1975ean abiatu zen Siadecok burutuko zuen lehenengo ikerketa: *Euskararen liburu zuria*. Denborarekin ikerketak egiteaz gain, hizkuntza-plangintzaren arloan lehen pausoak ematen hasi zen Siadeco. Geroztik hainbat arlotan izan da aitzindari talde hau, eta bere kide Iñaki Larrañaga hizkuntzaren ikerkuntzan garai bateko funtsezko erreferentea izan zen (324, 44, 47, 68, 227, 324, 341-345).

**Soziolektoa:** gizarte-talde jakin batek erabiltzen duen hizkuntza aldaera. Dialekto soziala. Aldaera diastratikoa (33, 34, 58-60, 85-96, 103-108, 122-128, 205).

**Soziolinguistika:** gizartearen eta hizkuntzaren arteko elkarrenergina aztertzen du. Bi soziolinguistika ezberdin bereiz daitezke: aztergai nagusi

sia hizkuntza bera duena, bata eta hizkuntza entitate sozial moduan hartzen duena, bestea. Lehenengoa hizkuntzalaritzatik hurbilago dago; bigarrena, aldiz, soziologiatik (37 eta liburu gutxian zehar).

**Soziolinguistika akademikoa:** hizkuntza-egoera edo hizkuntza-errealitate bat ezagutzea du helburu, betiere, ezagutza horrek arlo teoriko, epistemologiko edota metodologikoan ekarpen bat egingo duelakoan. Beraz, soziolinguistika akademikoak ezagutza elikatu nahi du eta esku-hartzea ez da, teoriarik, bere helburu zuzena. Halere, praktikan, zaila izaten da teoriatik aplikaziora salto ez egitea eta, alderantziz, interbentzio gunetik teoriara ez pasatzea. Ereduen sorkuntza, nozio edota kontzeptu berrien proposamena edo ikerkuntzarako tekniken inguruko berrikuntzak zabaltea izan daitezke soziolinguistika akademikoaren helburuak (324, 53, 324, 325).

**Soziolinguistika aplikatua:** soziolinguistika aplikatuak hizkuntza-egoera edo hizkuntza-errealitate batera hurbiltzea du helburu, betiere, hortik sortutako ezagutza, hausnarketa zein ondorioak (hizkuntza gutxiagotuen kasuan, behintzat) berreskurapena edota hainbat joeraren aldaketa bideratzeko erabiliko direlakoan. Helburu hori dute arlo honetan osatutako teoriarik eta berari loturiko lan-ildo edota proposamenek. Esate baterako, plangintza bat diseinatzeko eman beharreko pausoak, burutu beharreko lanak eta bete beharreko helburuak soziolinguistika aplikatuaren kezkak dira (325, 231, 324, 325).

**Soziolinguistika Klusterra:** soziolinguistika-eremuko eragileen klusterra da. 2004an sortu zen, ezagutza soziolinguistikoaren ikerketan, zabalpenean eta aplikazioan dauden gabeziei eta beharrei dinamika berri batekin erantzuteko. Euskal Herrian hizkuntza-normalizazioaren prozesuan inplikaturik dauden erakunde eta taldeentzat (pribatu, publiko zein gizarte-mailakoak) datuak, metodologiak eta bestelako materialak eskaintzeko egitasmoak lantzen ditu. Bere misioan esaten den bezala: *Soziolinguistika*

*Klustreraren misioa euskararen normalizaziorako soziolinguistika-ezagutza garatzea, zabaltzea eta horren inguruko interesa piztea da. Horretarako, baldintza egokiak sortuko ditu, esparru teoriko eta aplikatuaren arteko zubiak eraikiko ditu, eta arloko eragileekin hausnarketarako zein lankidetzarako bilgune-sareak osatuko ditu. Klusterrak, beraz, lan-ildo garrantzitsuenetariko bat du ikerkuntza, eta bertan berritzea (arlo metodologikoan ere) bere helburu nagusien artean dago (338, 38, 47, 108, 303, 337, 338, 342, 347).*

**Testuaren gramatika:** esaldiaren gramatikaren aurrean, 1970eko hamarkada hasieran Teun A. Van Dijk buru izan zuen eta testu generoen berezko arauak ezartzea bilatzen duen diziplina, ondoren diskurtsoen azterketarekin uztartu dena (63, 62).

**UEMA:** Udalerri Euskaldunen Mankomunitatea. 1988an Euskal Herrian Euskaraz erakundearen ekimenari erantzunik, hainbat udalek *Euskararen Erabilpena Normaltzeko Udal Arautegia* onartu zuten, bertako administrazioetan eta udalerrian euskaraz bizitzeko bitartekoak jartzeko asmoz. Udal horiek UEMA sortu zuten 1991n. 2009an 61 udalerririk osatzen dute. Hiru helburu nagusi ditu:

- Udalerri euskaldunetan herritarrek egiten duten bizitza sozial guztia, publikoa zein pribatua, euskaraz izan dadin bideak urratzea.
- Udalerri euskaldun guztiek bat eginik, euskara nagusi izango den lur-gunera osatzea.
- Udalerri euskaldunen garapen sozio-ekonomikoa eta soziokulturala bultzatzea.

(48).

**Zeinu linguistikoa:** adierazle edo irudi akustiko baten eta kontzeptu baten elkargoa da. Zeinu linguistikoaaren teorian, zeinuak izaera bikoitza du, hau da, objektu edo kontzeptu bati erreferentzia egiteko (adierazia), erreferente bat erabiltzen da (adierazlea). Adierazlea hitzurenaren ahotik irteten den kate fonikoa da

(*mahaia* hitza). Adierazia, berriz, solaskideak adierazlea jasotzean egiten duen buru-irudia (*mahai* baten buru-irudia) (27, 22).

**Zentsua:** zentsuak une jakin batean talde batek edota herrialde batek duen biztanle-kopurua ezagutzea bilatzen du. Horretarako teknika ezberdinak erabiltzen dira. Ikerketaren helburua populazio guztia da, ez lagin bat. Zentsuaren funtsezko helburua biztanleriaren kopuru zehatza ezagutzea bada ere, gehienetan bestelako datuak lortzeko ere erabiltzen da (demografikoak, ekonomikoak, sozialak, hizkuntzari loturikoak eta abar). Hori dela eta, zentsuak gobernuen politika ezberdinen diseinurako tresna garrantzitsu bilakatu dira (330, 329-332, 342, 345).







